

# 65

Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Gerra Zibilaren garaian

Urduliz: La historia de un municipio vasco durante la Guerra Civil

Koldo Somokueto Pérez








Urdulizko udala

Memoriaren,  
Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideen  
Institutua

*gogora*

Instituto de la Memoria,  
la Convivencia  
y los Derechos Humanos

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

**Lankidetzan**



## Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Gerra Zibilaren garaian

Urduliz: La historia de un municipio vasco  
durante la Guerra Civil



Azalaren argazkia / Fotografía Portada: Itsasalde Bataloiko Matxin konpainiako Urdulizko gudariak. 1936ko udazkena. Felisa Bilbaok lagatakoa / Gudarís de Urduliz de la Compañía Matxin del Batallón Itsasalde. Otoño de 1936. Cedida por Felisa Bilbao

---

Urduliz: Euskal udalerrí baten historia Gerra Zibilaren garaian = Urduliz: La historia de un municipio vasco durante la Guerra Civi / Koldo Somokueto Pérez, (ed lit). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2018.

640 or./p. : il. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 65)

ISBN: 978-84-8419-286-2

I. Somokueto Pérez, Koldo II. Bilduma III. Tit.

---

Eusko Ikaskuntzak eta Urdulizko Udalek eskertzen diete liburuki honetan parte hartu duten egíleei eta, elkartearen tradizioaren arabera, haien irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi berezikí haietako ezein beren gain hart zen dutenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el ayuntamiento de Urduliz muestran su agradecimiento al autor que ha colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

---

ISBN: 978-84-8419-286-2

L.G./D.L.: SS-1391-2018

Inprimaketa eta koadernaketa / Impresión y encuadernación:  
Leitzaran grafikak – Andoain (Gipuzkoa)

## AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	13
<b>1. GERRA ZIBILA .....</b>	<b>17</b>
1.1 Errepublikan nagusi (1936ko uztaila - 1937ko ekaina) .....	20
1.2 Frankismoa nagusi (1937ko ekaina - 1939ko apirila) .....	104
<b>2. ERREPRESIOA .....</b>	<b>147</b>
2.1 Errepresioaren ezaugarri orokorrak .....	149
2.2 Errepresioa Urdulizen .....	152
2.3 Udalbatza demokratikoaren aurkako prozesua .....	161
2.4 Administrazio funtzionarioen depurazioa .....	176
2.5 Depurazioa Hezkuntzan .....	183
2.6 Depurazioa Elizan: Serafín Sagarna Amorrortu abade nagusia .....	205
2.7 Depurazioa lan-eremuan .....	209
2.8 EAJ eta Emakumeen kideen aurkako auzipetzeak .....	216
2.9 Gerrako erakundeen, ordena publikoko zaindarien, gudarien eta milizianoen aurkako auzipetzeak. ....	236
2.10 Marinelen aurkako auzipetzeak .....	259
2.11 Udatiarren aurkako auzipetzeak .....	276
2.12 Urdulizko errepresioari buruzko ondorioak .....	293
Eranskina: beste urduliztar errepresaliatu batzuk .....	295
<b>IRUDIAK .....</b>	<b>301</b>
<b>DOKUMENTUEN ERANSKINA .....</b>	<b>623</b>
Artxiboak .....	631
Bibliografia .....	632
Prensa historikoa .....	635
Ahozko testigantzak .....	636





## ÍNDICE

IMÁGENES .....	301
PRÓLOGO .....	323
<b>1. GUERRA CIVIL .....</b>	<b>327</b>
1.1 Etapa republicana (julio 1936 - junio 1937) .....	330
1.2 Etapa franquista (junio 1937 - abril 1939) .....	417
<b>2. LA REPRESIÓN .....</b>	<b>465</b>
2.1 Características generales de la represión .....	467
2.2 La represión en Urduliz .....	470
2.3 El proceso contra la Corporación Municipal democrática .....	480
2.4 La depuración de los funcionarios de la Administración .....	495
2.5 La depuración en la Educación .....	502
2.6 La depuración eclesiástica: el cura párroco Serafin Sagarna Amorrortu .....	524
2.7 La depuración en el terreno laboral .....	529
2.8 Procesamientos contra miembros del PNV y Emakumes .....	536
2.9 Procesamientos contra organismos de guerra, guardias de orden público, gudaris y milicianos .....	557
2.10 Procesamientos contra marinos .....	579
2.11 Procesamientos contra veraneantes .....	597
2.12 Conclusiones sobre la represión en Urduliz .....	616
Anexo: otros urdulizarras represaliados .....	617
<b>APÉNDICE DOCUMENTAL .....</b>	<b>623</b>
Archivos .....	631
Bibliografía .....	632
Prensa histórica .....	635
Testimonios orales .....	636



Koldo Somokueto Pérez

## Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Gerra Zibilaren garaian





## HITZAURREA

Irakurleak esku artean daukan liburu hau jatorriz Bigarren Errepublika eta Gerra Zibilari buruzko ikerketa bat jasotzen zuen eskuizkribu baten parte zen, Udalak eta Eusko Ikaskuntzak bultzatutakoa. Testu hark 450 orrialde baino gehiago zeuzkan; horregatik bere edizio elebidunak –euskara-gaztelera- txarto moldatzeko argitalpena ekarriko zukeen, handiegia izanda. Horregatik, jatorrizko eskuizkribu hura bloke ezberdin bitan argitaratzeko erabakia hartu zen.

Atalbiditu Gerra Zibilari (1936-1939) eskainitako liburuki honek. Lehenengoak Urdulizko bizitzari buruzko alderdi ezberdinei buruz berba egiten digu, bi etapa bitarte: udalerrian Errepublika nagusi izan zen epea, 1936ko uztailetik 1937ko ekainaren 15era; eta 1937ko ekainaren 25etatik 1939ko apirilaren 1era doan garaia, hau da, epealdi frankistako lehen udalbatza eratzen denetik Estatu osoan gerra amaitu arte. Topatu dugun dokumentazioarekin saiatu gara zoritzarreko garai haietan urduliztarren bizitza zelakoa izan zen berreraikitzen. Hala, zenbait gai jorratu ditugu: gerraren eztabairaren eragina eskualdeko bizilagunengan, zelan bizi izan zen etengabeko errefuxiatuen etorrera udalerrian, zelangoa izan zen bizikidetzaren Urdulizaren, zelan antolatu zen errazionamendua, zein elikagai urritu ziren, edo zelan eman ziren klaseak herriko eskoletan. Kontatuko dugu, halaber, *Euzkadiko Gobernuaren* sorrera, gazteen izen-ematea *Euzko Guradostean*, Burdin Hesiaren eraikuntza eta abar. Behin herria tropa frankisten esku geratu zenean, bizi baldintzak ez ziren hobetu: esaterako, errazionamenduak jarraitu zuen eta baita mutilen mobilizazioak, armada “nazionalen” oraingoan; gainera, irabazleek inposatutako ordena berriak euskararen jazarpena eta hezkuntza autoritario baten ezarpena ekarri zituen.

Argitalpen honen bigarren atalean Urdulizko errepresio frankistari dagokion guztia jorratuko dugu. Azterketa horren oinarri dira hainbat urduliztarren aurka irekitako auzien ebaluazioa, Ferrolen (A Coruña) kokaturik dauden Ipar-ekialdeko Tarteko Artxibo Militarrean eta Itsas-armadaren Artxiboan aurkitutako agiriez baliatuta. Ikertu ahal izan ditugun auziek kontu handiz aztertu beharreko dokumentazio oparoa osatzen dute, jasotako aitorten eta testigantza guztiak inongo demokraziarik ez zegoen momentu batean hartu zirelako. Saiatu egin gara errepresaliatutako urduliztarrei buruz dagoen dokumentazio gehienari heltzen, baina kasu batzuetan ezin izan dira auziak aurkitu; hala ere, beste eratak dokumentazioa topatu da Urdulizko Udal Artxiboan, eta amaieran eranskin bat eskaini zaio gai honi.

Bigarren Errepublikari eskainitako liburuan bilatu genuen kontakizuna ez zedila soilik eremu lokalera mugatu, eta bai aldiz kontuan har zitzala beste esparru batzuk: eskualdea, probintzia eta estatua. Gerra Zibilari buruzko liburuki honetan printzipio hori ez da zentzu hertsian aplikatu. Hala, gatazka bitartean Urdulizko bizitzari buruzko atalean herriaren protagonismoa argia da, eta inguruko

herriei buruzko aipamenak, berriz, urriagoak epealdi errepublikarrari eskainitako argitalpenarekin alderatuz. Bestalde, udalerriko errepresioari buruzko blokea tokiko esparrura mugatu da soilik, testuko protagonista bilakatzen direlarik modu ezberdinetan zapalkuntza frankista jasan zuten urduliztarren izen propioak: epaiketa laster-lasterak, espetxeratzeak edo lan munduko alor ezberdinetako depurazioak.

Dokumentazioaren bilketa fasean bi hutsune topatu ditugu: alde batetik, Urdulizko Defentsa Batzordearen Liburuaren falta, eta bestetik, Udalbatzaren 1937ko azarotik 1947ra arteko Akta Liburuarena. Hutsune hori beste iturri dokumental batzuetara joz berdintzen saiatu gara. Bestalde, gerra bizi izan zuten urduliztarren ahozko testigantza bildu da, baita hildako urduliztarren ondorengoena ere. Pertsona horiek izan dira Benita Egusquiagirre, Teresa Bilbao, Luis Trebolazabala (G.B.), José Antonio Bilbao alkate ohia (G.B.), Sabin Unibaso alkate ohia (G.B.), Sabin Brotons, Patxo Ibargaray, Jesús Unibaso (G.B.), Juan Otegi, Miren Sagarna eta Matilde Aresti. Zalantza barik, emandako informazioak kontakizuna aberastu du eta datu zinez interesgarriak eman dizkigu. Testigantzen bilaketa eta bilketa lanetan Akaitze Kamiruagaren eta nire aitaren laguntza baliotsuaz baliatu naiz. Eskerrak eman nahi dizkiot ere José Antonio Pérezi elkarrizketa batzuk egiteko utzitako ikus-entzunezko materiala lagatzeagatik.

Liburu hau irudiztatzeko argazkien bilketa ere egin da, emaitza ederra utzita, gehien-gehienak argia inoiz ikusi bakoak izanda, gainera. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet adeitasunez irudiak laga dizkidatenei: Felisa Bilbao, Benita Egusquiagirre eta familia, María Dolores Bilbao Artetaren familia, Javier Ozamiz, Edurne Garaizar (G.B.), Estrade Arluzea familia, Koldo Zuazo, Leles Ansoleaga, Juan Uribe Ormaechea, Aldekoa Legarra familia, Kamiruaga Garitaonandia familia, Sagarna familia, Itziar Bilbao, Miren Unibaso, Brotons familia, Jesús Unibaso (G.B.), Mila Bengoetxea eta Iratzagorria familia. Haietako inor gutxietsi gura barik, azpimarratu nahi nuke José María Egusquiagirre Golzarriren ondorengoek erakutsi duten eskuzabaltasuna, haren alaba buru, Benita Egusquiagirre. Hainbat argazki helarazteaz gain, eskutitz hunkigarri bi erakutsi dizkigute, José María Egusquiagirrek, fusilatua izan baino lehentxeago, bere aitagarrebari eta bere seme-alabei Larrinagako (Bilbo) kartzelatik bidalitakoak.

Ez ditut aitatu barik laga nahi liburu honen lanketan lagundu duten beste pertsona batzuk. Horietako bat, Aitor Miñambres, Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoko arduraduna; harekin bisitatu nituen Burdin Hesiak Urdulizen utzitako aztarnak, bere ezagutzaz zabalaz blaitzen ninduen bitartean. Beste bat, Aritz Ipiña, Historian Doktorea eta ikaskidea, zeinek topa ezina gertatzen ari zitzaidan dokumentazioa helarazi zidan. Eta ezin ahaztu Iñaki Egaña, Jorge Cabanellas, eta azkenik, Noelia Gonzalez Urdulizko “Egan Fotografía & Diseño”, argitalpen honetan sartu ditugun argazkien zaharberritze lan itzelagatik. Barkamenik zintzoena inor utzi badut aitatu barik.

Beste alde batetik, eta Bigarren Errepublikari buruzko liburukian egin nuen legez, nire eskerrik beroena berretsi nahi diet Eusko Ikaskuntzari eta Urdulizko Udalari, gure udalerrriko historiako garai liluragarri eta aldi berean gogor honi buruzko ikerketa beka sortzeagatik. Berrito aprobeztatuko dut eskerrak emateko bereziki José Mari Gondra zinegotzi ohiari, beka honen bultzatzailea izan delako, Urdulizko historiarekiko daukan maitasunaren adierazle. Ez nuke paragrafo hau itxi gura gogoratu gabe zein ohore handia izan dudan EHUko katedradun Ludger Mees izanda ikerketaren zuzendari.

Azkenik, berrito ere eskerrak nire familiari, bereziki gurasoei, ikaratu barik jasan dituzte-eta ikerketa honetan eman dudan gau mordoa. Era berean, eskerrak ere lanaren gainean interesa adierazi duzuen lagunei eta gertukoei.





## 1. GERRA ZIBILA





Fronte Popularrak 1936ko otsaileko hauteskundeetan lortutako garaipenaren ostean, zenbait militar mugitzen hasi ziren Gobernu eratu berriaren aurkako altxamendu militarra pizteko asmotan. Arrisku hori indargabetzeko, ezkerreko kabinete berriaren lehen erabaketako bat izan zen errepublikaren kontrako militarrek botere-guneetatik urruntzea. Hala, berbarako, Franco Kanarietara bidali zuten eta Mola Iruñera. Hala ere, lekualdaketa hauek ez zituzten plan kolpistak eten.

Martxoaren 8an, agintaritza militar goreneko hainbat kide Madrilen batzartu ziren, Mola eta Franco jeneralak, besteak beste. Etorkizuneko estatu kolpearen oinarriak ezartzea, horra topaketaren helburua. Bertan erabaki zen herrialdea Sanjurjo jenerala buru izango zuen junta militar batek zuzentzea. Sanjurjo une haietan Portugalen erbesteratuta zegoen, 1932ko estatu kolpea ematen saiatu ostean; *Sanjurjada* deitu zitzaiona. Apirilaren 17an, Jeneralen Batzarrak erabaki zuen “(...) kolpea atoan ematea, apirilaren 20ko goizerako”, baina plana ez zen azkenean gauzatu, Gobernuaren belarrietara heldu zelako eta, bestalde, ez zuelako behar adina babesik izan<sup>1</sup>.

Zenbait egun beranduago Emilio Molak bere gain hartu zuen, Nafarroako hiriburutik, estatu kolpearen antolakuntza, Zuzendaria ezizenaren pean. Sanjurjok zuzenduko zuen junta militarren ideiarekin jarraitu zuen Molak eta, gainera, beste militar batzuen sostengua lortu zuen, Queipo de Llano errepublikarrarena, berbarako. Bestalde, Iruñeko egonaldiak karlistekiko elkarriketen bidea ireki zion, nahiz eta hauekin desadostasun sendoak mantendu kolpearen ostean ezarriko zen errejimenaren inguruan. Molak izaera errepublikarreko diktadura baten alde egiten zuen, non Eliza eta Estatua bereizita egon behar ziren; karlistek, ostera, erlijio katolikoari lotutako monarkia ezarri gura zuten. Nahiz eta Molak ez onartu gurari horiek, uztailaren 11n Sanjurjo jeneralak Comunción Tradicionalistaren baldintzak onartu zituen; era horretan Erregetea, karlisten indar paramilitarra, bereziki Nafarroan hedatua, atxiki zen prestatzen ari ziren kolpe militarra.

Casares Quirogaren gobernuak mugimendu hauen berri izan zuen, baina ez zuen behar besteko sendotasunez erantzun, ustez eta militar kolpistek ez zutela altxamenduan arrakastarik izateko gaitasunik. Oker uste ere.

---

1 GRANDÍO SEOANE, Emilio: “*Rumores a gritos: ruidos de sables contra el Frente Popular (febrero-mayo 1936)*” in *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea*, 11 zk., 2013, orrialdeak: 20-25 (artikuluari dagozkionak)

Uztailaren 17an Armadaren altxamendua gertatu zen Melillan, Ceutan, Kanarietan eta Marokon, eta 18an Sevillan. Lehen egunetan jazotzen ari zenari buruzko berriak nahasiak izan ziren, baina atoa argi geratu zen kolpeak porrot egin zuela besteak beste Madrilan, Valentzian, Bartzelonan, Bilbon eta Asturiasen, non militar gehienak Errepublikari fidel agertu baitziren. Modu honetan, herrialdea bi aldetan banatuta geratu zen, bata lege errepublikarraren menpe, eta bestea matxinatuen esku. Kolpe azkar bat behar zuen hura ia hiru urteko Gerra Zibil bilakatu zen, Estatua suntsituta laga zuena. Sanjurjo hil egin zen kolpearekin bat egitera zetorrenean, Espainiara zekarren abionetak, aireratu bezain laster, lurra jo zuenean. Molak bide berari jarraitu zion, 1937ko ekainean, Burgosera zeroan abioneta ere lurrera amildu zenean. Bi heriotza hauek bidea zelaitu zuten Franco gailendu zedin altxatutako Armadako buruzagitzan.

## **1.1 ERREPUBLIKA NAGUSI (1936ko uztaila – 1937ko ekaina)**

### **1.1.1 Bizkaiko Defentsa Batzordea eta Urdulizko Defentsa Batzordea**

Uztailaren 18ko altxamendu militarra ezelango erresistentzia barik gailendu zen Nafarroan eta Araban; berriz, porrot egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Izatez, Bizkaian ez ziren tropak altxatzera heldu. Lehen unetik egoera erabat kontrolpean izan zen José Echevarria Novoa gobernadore zibilaren jokaera azkarrari esker, Errepublikari leial mantendu baitzen. Berak buru egiten zuela, Errepublikaren Defentsa Batzordea sortu zen Bilbon uztailaren 19an, Fronte Popularreko alderdiek, EAJk eta EAEk osaturik. Egun gutxi batzuk geroago, uztailaren 23an, Batzordeak beste izen bat hartu zuen, “Erregimena defendatzeko Bizkaiko Komisaria Orokorra”, eta zenbait sailetan antolatu zen: osasuna, gerra, garraiobideak, hornikuntzak, ordena publikoa, finantzak eta informazioa<sup>2</sup>.

Abuztuaren 12an, Bizkaiko Gobernu Zibilean bildu ziren EAJ, PSOE, Alderdi Komunista, Izquierda Republicana, Unión Republicana eta EAE alderdietako ordezkariak, baita UGT, STV eta CNT sindikatukoetakoak ere<sup>3</sup>. Batzar horretan adostu zen Bizkaiko Defentsa Batzordearen osaketa, berriro ere Gobernadore Zibil berria buru zela eta aitatutako alderdi eta sindikatu<sup>4</sup>etako 9 kidek osatua<sup>4</sup>. Probintzia mailako erakunde horren sorrera “(...) *egungo Komisariotzak eta Ordezkaritzen funtzionamendua berrantolatzeke beharrak*” bultzatuta etorri zen<sup>5</sup>. Batzordeak lortu zuen errazionamendu zorrotz baten bidez “(...) *elikagaien horniketa erregularra bermatzea*”, eta gainera, “(...) *alderdien batailloietan oinarrituz, etorkizuneko euskal herri-armada baten hasiera* (...)” prestatu zuen<sup>6</sup>.

---

2 FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: *El País Vasco 1931-1937: autonomía, revolución, Guerra Civil*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 210-211.

3 *La Vanguardia* 1936-8-23.

4 FUSI AIZPURUA, 211. or.

5 *La Vanguardia (Bartzelona)* 1936-8-23.

6 FUSI AIZPURUA, 211 or.

Abuztuaren 21ean, Defentsa Batzordeak udal mailako defentsa batzordeen eraketa agindu zuen; herri bakoitzeko alkateak egin behar zuten horietan buru eta Bizkaiko Defentsa Batzordea osatzen zuten alderdi politikoetako kide bana eduki behar zuten. Udal batzordeek probintziakoak bidalitako agindua jasotzen zuten egun berean eratu beharra zeukaten, eta ostean sorrera-akta Gobernu Zibilarri igorri<sup>7</sup>. Premisa hoi jarraituz, Urdulizko Udal Defentsa Batzordea hilaren 23aren inguruan eratuko zen, esate baterako Portugaleten jazo zen legez<sup>8</sup>. Laukizen kasuan, jakin badakigu “(...) *Fronte Popularraren Komitea*” abuztuan eratu zela<sup>9</sup>. Irailaren 9an Gobernadore Zibilak dokumentu bat eman zuen zehatz-mehatz azaltzeko zelan eratu behar ziren batzorde hauek<sup>10</sup>; horrek pentsarazten digu udal batzordeen sorrera ez zela gorabehera barik gauzatu.

Gobernadore zibilaren jarraibideen arabera, udal batzordeek izan behar zuten “*Bizkaiko Batzorde Orokorren delegazioak udalerrri bakoitzean*” eta, beraz, Bizkaikoaren “*isla fidela*”, barruan harturik “*Probintziako Batzordea osatzen zuten alderdietako kide bana*”. Batzar bizkaitarra jakitun zen herri batzuetan ez zeudela “(...) *legez eratuta batzar hori osatzen duten alderdi edo elkarte guztiak*”. Alderdi horiek, ostera, “(...) *posible zuten (...) beren Komite edo Zuzendaritza Batzorde Probintzialaren bidez, afiliaturen bat izendatzea, udalerriko bizilaguna, Udal Defentsa Batzordean beren ordezkari izan zedin*”. Berdintasun printzipio horrek talka egiten zuten, zalantza barik, Bizkaiko errealitate politikoarekin. Alde horretatik, EAJk “*onartezina*” eta “*desegekia*” iritzi zion toki defentsa batzordeak eratzeko planteamendu horri, apaltzen zuelakoan “(...) *Meatzaldean izan ezik Nazionalismoak Bizkai osoan zuen nagusitasuna*”<sup>11</sup>.

Urdulizen, 1933ko udal hauteskunde partzialetatik atera zen udalbatza nazionalista zen osotara, eta bistan denez, 1936ko uda partean EAJ zen herrian zegoen alderdi politiko bakarra. Errepublikanismoak toki mailako egitura bat izana zuen Bigarren Errepublikako lehen urteetan, baina ezin izan zuen bizirik iraun aitatutako 1933ko hauteskundeetan bere bi zinegotziak galdu ostean. Prentsan talde errepublikar urduliztarrari buruz topatzen dugun azken aipamena 1935eko uztailekoa da. Pentsatzekoa denez, 1936ko udan, errepublikarrek ez zeukaten alderdi egiturarik Urdulizen, eta bere kideak Plentziako antolakunde errepublikarraren menpe egongo ziren. Horrek azalduko luke zergatik afiliatu zen Andrés Martín Pérez, Urdulizko Mutikoen Eskola Nazionaleko maisua, 1936ko

7 *El Liberal* 1936-8-23.

8 MUNARRIZ HERNANDO, Anastasio (Tasio): *República y Guerra en Portugalete*, Bilbo, [S.n.], 2012, 267.

9 IPAR-EKIALDEKO TARTEKO ARTXIBO MILITARRA (I.T.A.M.) (Ferrol), Bilboko Funtsa, 12856-38 auzia, *Crescencio Llona Egusquizarren aurkako auzia, Crescencio Llona Egusquizarren deklarazioa* 1938-5-28. Auzipetua, EAJko afiliatua. Laukizko Defentsa Batzordean Hornigarrietako zinegotzi ordezkaria izan zela kontaktu zuen.

10 *La Gaceta del Norte* 1936-9-10.

11 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA (A.A.) JDGC – 0001 – 31, *Defentsa batzordeak – Eraketa*, eta EAJren proposamena Defentsa-Batzordeak osatzeko, eta *La Gaceta del Norte* 1936-9-10.

abuztuan Plentziako Izquierda Republicanara<sup>12</sup>. Segurua dena da 1937ko apiril aldean errepublikarrak ez zeudela alderdi legez antolatuta Urdulizen; izan ere alkate Benito Otazuak azaldu zuen tokiko EAJ zela “(...) *herri honetan eratutako alderdi bakarra*”<sup>13</sup>.

Tokiko Defentsa Batzordeen sorrerak udalerrri bakoitzaren barruan bi boterek elkarrekin bizi behar izatea ekarri zuen, nahiz eta bakoitzaren eskumenak modu argian ezarrita geratu. Hartara, Tokiko Batzorde edo Komiteak “(...) *Administrazioak Gerra Atalari laguntzeko*” erabiltzen zituen tresnak ziren; euren gain hartu zituzten “(...) *ohiko garaietan erakunde zibilei dagozkien lan eta zereginak*”. Udalbatzei, berriz, gainerako “*eginkizun administratiboak*” zegozkien, “(...) *Gerra Atalaren lanei enbarazurik egiten ez zieten* (...)” neurrian. Hortaz, “(...) *Defentsa Batzordeak Udalengandik erabat ezberdinak diren erakundeak dira, ederto bereiztutako eginkizunekin* (...)”, gerraren bilakaerak “(...) *kontrakorik eskatzen ez duen bitartean eta Batzordeei* (...) *eskuduntza gehiago esleitu behar ez zaien bitartean* (...)”<sup>14</sup>.

Hala eta guztiz ere, bi erakundeen azterketak irudi nahasia uzten digu, Urdulizen behintzat. Tokiko Defentsa Batzordeak sortzeko jarraibide orokorren dokumentuak honako hau ezartzen zuen: “(...) *Batzordearen lehendakaritza* (...) *udal barruti bakoitzeko udalburuari dagokio, hau da, alkateari* (...)”, baldin eta Bizkaiko Defentsa Batzordea osatzen zuten alderdietako baten kide bazen<sup>15</sup>. Enrique Legarra alkate ohiak 1937ko abuztuan egindako aitortpena kontuan hartzen badugu, berak ez zuen 1936ko abuztu amaieran Tokiko Defentsa Batzordeko lehendakaritza bete; adierazi zuenez, “(...) *alkate izan zen Tokiko Batzordea eratu eta kargugabetu zuen arte*”<sup>16</sup>. Halaz ere, Udaleko Akta Liburuak argi uzten du kargugabetze hura ez zela jazo eta Legarrak alkate gisa jarraitu zuela Tokiko Batzordea mantendu zen garaian. Pentsatzekoa da Legarrak kargugabetze legez ulertu zuela beste pertsona bat izendatzea Tokiko Defentsa Batzordeko lehendakaritzarako, alkate gisa berari zegokion-eta.

---

12 DEFENTSAAREN ARTXIBO OROKOR ETA HISTORIKOA (D.A.O.H.), Madrilgo funtsa, 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta.

13 MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (M.H.D.Z.), P.S. Madril, 876, *Egungo erregimenaren aurkakotzat jotzen ditugun pertsonen zerrenda 1937-4-29*.

14 A.A. JDGC – 0001 – 31 *Defentsa Batzordeak - Eraketa*.

15 A.A. JDGC – 0001 – 31 *Defentsa Batzordeak - Eraketa*.

16 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Enrique Legarra Bengochearen ikerketa-deklarazioa 1937-8-5*.

Zentzu horretan, ikerketa honetan jaso diren ahozko lekukotasunek Urdulizen “*baterra alkate bi*” egon zirela adierazten dute<sup>17</sup>. Eskuratu dugun dokumentazioak adierazten digu Felipe Villabeitia izan zela Errepublikaren Tokiko Defentsa Batzordeko lehendakaria. 1937an Villabeitia epaitua izan zenean, Plentziako Komandante Militar Domingo Peraltak aitaturako batzordeko buru izatea leporatu zion; adierazi zuenez “(...) *gorriak nagusi ziren garaian (...)* Tokiko Batzordeko burua zen, nahiz eta *Enrique Legarra alkate gisa agertu (...)*”<sup>18</sup>. Felipe Villabeitiak ukatu egin zuen “(...) *Tokiko Batzordeko kide (izana), egia bada ere orduko alkate Enrique Legarraren lagun zela (...)*”<sup>19</sup>. Amancio Nievak, epealdi frankistako Urdulizko bigarren alkateak baieztatu zuen Villabeitia ez zela Tokiko Defentsa Batzordeko lehendakari izan, ezpada “(...) *Batzordeko bokala edo enplegatua*”. Hala eta guztiz, lehen zinegotziak jakinarazi zuen “(...) *nire esku dauden fitxa batzu(etan)*” Villabeitia ageri zela eta “(...) *Tokiko Batzordeko burua (...)*” izana zela<sup>20</sup>. Aitatzekoa da epaian ontzat eman zela akusazioa eta nabarmendu zela “(...) *matxinada marxistaren garaian (...)* Tokiko Defentsa Batzordearekin harreman estua (izan zuela) (...); *izatez, haren buru egin zuen*”<sup>21</sup>.

Dokumentazio urriak ez du kontu hau argitzen. Urdulizko Tokiko Defentsa Batzordearen Akta Libururik ez da , eta horrek galarazten du ezagutzea bai batzordearen egitura bai egunak joan egunak etorri hartu zituen erabakietako asko. Beste batzuen berri beste dokumentu batzuek ematen digute. Tokiko Batzordearen osaerari buruz soilik bi enplegaturen izenak dakizkigu: José Ugarte Bilbao, txofer gisa jardun zuena<sup>22</sup>, eta José Luis Larraudogoitia, EAJko kidea, idazkaria. Bi-biak euren karguetan berretsiak izan ziren 1936ko abenduan, Udalak batzordearen eskumenak berreskuratu zituenean<sup>23</sup>.

---

17 Sabin Unibaso eta Patxo Ibaragarayren ahozko testigantzak 2014-4-4.

18 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, *Felipe Villabeitia Ugarteri buruzko txostena, Plentziako Komandante Militarrek egina 1937-11-13*.

19 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, *Felipe Villabeitia Ugarteren ikerketa-deklarazioa 1937-11-25*.

20 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, *Felipe Villabeitia Ugarteri buruzko txostena, Urduliz alkate Amancio Nievak egina 1937-12-6*.

21 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, 2. *Gerra-kontseiluaren epaia 1938-1-7*.

22 URDULIZKO UDAL ARTXIBOA (U.U.A.) “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-20, eta 8. kaxa, *Urdulizko alkateak José Ugarte Bilbaori buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-7-12*. Agiri horretan, Manuel de Uribek adierazi zuen José Ugarte “(...) *politikoki Euskal nazionalista izan dela baina ez dakigu afiliatua ote zen*”.

23 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-20 eta 1937-1-9.



Tokiko defentsa batzordeen eginkizunak argiro ezarri ziren haien eraketarako dokumentuan<sup>24</sup>:

-Agintaritzaren aginduak “(...) zurrunki betetzea eta betearaztea”.

-“(...) Erregimenaren aurkarien ekintza zuzeneko eta zeharkakoetatik herria defendatzeko (...)” ardura zuten. Defentsa horren barruan salaketa ere sartzen zen “(...) nabarmenki aurkakoak ziren funtzionarioena (...) eta susmagarriena, baina inor atxilotu barik, aurretiko agindurik ezean (...)”, non ez zituzten ustekabeen harrapatzen “(...) baten bat falta edo delitu bat egiten, edozein delarik ere”.

-Bizkaiko Defentsa Batzordearen jarraibideekin bat, “(...) herrietako elikagaien eta sendagaien horniketa” ere haien eginbeharra zen.

-Miliziano edo boluntarioen instrukzio militarra “(...) euren zereginekin bateragarriak diren orduetan, eginkizun hori betetzeko pertsona egokiena izendatuko delarik horretarako (...)”. Instrukzio hori emateko pertsona egokia egon ezean, “(...) indar armatuko herriko kide (...)” batengana jo behar zuten.

-Arma partikularren konfiskazioa; lizentzia zuten jabeei ohar bat entregatuko zitzaien eta salaketa jarri ez zeukanari. Armak “ondasun kolektibo” moduan ulertu ziren gatazkak iraun bitartean; horiek konfiskatuz armez hornitu gura ziren “(...) herri bakoitzean aukeratutako Errepublikako guardia herritarrak”.

-Guardia herritarren izendapenez eta izendatze horren kontrolaz arduratu ziren.

-Haien esku zegoen “(...) enplegatu eta funtzionario publikoen jardura” ere kontrolatzea.

Arestian komentatu dugun legez, datu gutxi dauzkagu Tokiko Batzordearen jardunari buruz, baina ezagutzen dugunak erakusten digu haren funtzionamendua bat zetorrela ezarritako oinarriekin. Modu honetan, “eskopetak” errekitatu ziren eta guardia herritarrak izendatu. Berbarako, badakigu Jacinto Amegugo<sup>25</sup>, 1936ko “(...) abuztu aldean”, “(...) ordena publikoko zaindaria izendatu” zutela, eskopeta batez hornituta, eta “(...) eguneko bederatzi pezeta kobratzen” zituela. Esleituta zeukan eginkizuna zen “(...) errepidean autoak geraraztea ibiltzeko baimena eskatzeko”, eta lan horretan jardun zuen denboran (urriaren erdialdera arte) ez zuen “(...) inor atxilotu”, ezta errekitatu ere ez “(...) inoren ondasunik (...)”<sup>26</sup>. Bestalde, tamaina txikiko hiltegi inprobisatu bat eraiki zen

---

24 A.A. JDGC – 0001 – 31, *Defentsa Batzordeak - Eraketa*. Dokumentua 1936-9-9ko datarekin argitaratuta agertu zen, esan den legez, *La Gaceta del Norte* 1936-9-10

25 Gaur egun haren ondorengoek Armegugay idazten dute abizena.

26 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Jacinto Amegugo Aurreraren deklarazioa* 1937-9-9.

okelaren horniketa eta errazionamendurako. 1937 hasieran oraindik ez zegoen ordainduta, Udal Akta Liburuak jasotzen duenez: “(...) Tokiko Batzordea egon zen denboran Bachoki-ko (sic) eraikinean hiltegi txiki bat eraiki zuten ohol batzuekin, eta oraindino ordaindu barik zeuden (...)”<sup>27</sup>.

Udalaren jarduera urria izan zen gerra piztu zenetik Tokiko Defentsa Batzordea sortu arte; osoko bilkura bi baino ez ziren egin, abuztuaren 8an eta 22an. Lehenengoan, ohiko kontu administratiboak baino ez ziren hizpide izan<sup>28</sup>, baina 22koan, aurrerago ikusiko dugun legez, Andra Mariko jaiak bertan behera uztea erabaki zen gerra zela-eta<sup>29</sup>.

Tokiko Defentsa Batzordearen ezarpenak, teoriar, kontu soilik administratiboetara mugatu behar zuen Udalaren lana. Horregatik, irailaren 6ko osoko bilkuran gai bakarra onartu zen, zein eta “(...) aho batez, aurreko saioko akta, (...) ez dago-eta tratatzeko gairik”. Eta horregatik “(...) bilkura amaitu egin zen (...)”<sup>30</sup>. Udaltzatza ez zen berriro urriaren 20 arte bildu. Bere lan administratiboa beterik, *Merkataritza eta Horniketa Departamentuak* agindu zuen biztanleriaren eta errefuxiatuen errolda lehenbailehen osatzeko, eta lanari ekin zion Udal urduliztarrak, probintziako gainerako udalak legez, elikagaien errazionamendua antolatzeke asmoz<sup>31</sup>. Premia horri erantzunda, hurrengo egunean, irailaren 15ean, Urdulizko Udaltzatzak egitekoa bete zuen. Hona osatutako Erroldaren emaitza: 1147 biztanle, 70 udatiar eta 14 errefuxiatu<sup>32</sup>.

Nahiz eta Tokiko Defentsa Batzordeari eta Udalari zegozkien eginkizunak argiro zehaztuak egon, garai honi dagozkion dokumentu bik pentsarazten digute udaltzatza urduliztarraren jarduna ez zela esleituta zeuzkan lan administratibo hutsetara mugatu. Dokumentazio horretatik ondorioztatu daitekeenez, udalak bizilagunen elikagaien horniketarekin lotutako arazo batzuetan parte hartu zuen, afera horiek izanik ere, teoriar, Urdulizko Defentsa Batzordearen eskumenekoak. Berbarako, 1936ko irailaren 21ean hegaztitegiaren jabe José María Uribe Echevarriak idatzi bat zuzendu zion erakunde horri, baimena eskatzearen Bizkaiko Hornidura Batzarrari honako eskaera honen aurkezpena egiteko: 600 kg arroz azalarekin, 600 kg garagar eta 800 kg arto bere hegaztitegiko oiloak elikatzeke. Hegaztitegia “(...) konfiskatua” izana zen “(...) Getxoko odol-ospitalen premietarako (...)”<sup>33</sup>.

27 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-2.

28 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-8-8.

29 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-8-22.

30 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-9-6.

31 *El Liberal* 1936-9-15.

32 BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (B.F.A.H.) URDULIZ 00027/029, *Urdulizko Udala. Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrrenda* 1936-9-15.

33 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, José María de Uribe y Echevarriaren eskaera Urdulizko elizateko Defentsa-Batzordeari 1936-8-21.

Hala ere, apur bat lehenago, irailaren 6an, herriko gaixoei ogi zuria helarazteko beharra zela-eta, alkateari idatzi zion Urdulizko mediku Juan de Dios Zubicarayk, eta ez ordea Tokiko Defentsa Batzordeari. Alkateak, orduan, eskutitz bat zuzendu zion *Merkataritza eta Horniketa Atalari*, jakinarean gainean jartzeko udalbatza arduratuko zela udalerriko gaixoak ogi zuriz hornitzeaz, “(...) *Udal honen kontura*”<sup>34</sup>. Hilabete horren erdialdean, alkatea izan zen ostera ere, eta ez Defentsa Batzordea, aitatu dugun departamentuarekin harremanetan jarri zena herria olioaz eta azukrez hornitu zezatela eskatzeko, premia-premiazkotzat zeuzkaten bi produktu hauek hainbat egun lehenagotik falta zirelako Urdulizen<sup>35</sup>.

Beste alde batetik, irrati-aparatuen konfiskazioa agindu zuen Bizkaiko Defentsa Batzordeak, zentsura helburu matxinoen propaganda eta gezurren zabalkundea ekiditeko. Garaiko prentsak ematen digun informazioak argi uzten du Errepublikari leial izan zitzaion euskal eskualdeko konfiskazio prozesua nahiko irregularra izan zela. Argi dago, ostera, *Bizkaiko Defentsa Batzordearen* lehentasunetako bat izan zela, eratu eta berehala. Gai honetan gehiegikeriak ekiditekoa asmoz, 1936ko abuztuaren 23an, Probintziako Defentsa Batzordeak honako hau ohartarazi zuen: “(...) *irradi-apatuen edukitzaleei, hauek ezin izango dira konfiskatu Defentsa-Komisarioen, Fronte Popularraren Komitearen eta Telegrafoen Zerbitzuaren baimen garbirik gabe (...)*”; baimen hori barik, konfiskazioak debekatuta geratu ziren<sup>36</sup>. Batzordeak agindua eman zien udal agintariei aparatuek konfiskatu eta zerrendak bidaltzeko bahitutako aparatuekin batean. Hala eta guztiz ere, deialdiak ez zuen bere helburua bete: abuztuaren 26an, aitatu Batzordeak, ikusita “(...) *irradi aparatuek konfiskatzeko agindua emanda ere, probintziako herri ezberdinetako agintariek oraindik ez(...)*” zutela “(...) *errekisatutako aparatuen zerrenda izendunik bidali (...)*”, berriro eskatu zuen zerrenda horiek bidaltzeko “(...) *erabateko premiarekin*”<sup>37</sup>. Bilboren kasuan, irailaren 11n gobernadore zibilak agindu zuen irrati-aparatuek uzteko Komunikazio Zuzendaritza Orokorreko Irrati Sailean; adierazi zuenez, “*derrigorrezkoa*” zen hala egitea “(...) *Fronte Popularra osatzen duten alderdietako batean edo horren aldeko Talde Sindikaletan*” inongo kiderik afiliatuta ez zeukaten familien kasuetan. Bere baitan alderdi hauek afiliatutako kideren bat zeukaten familiek ez zeukaten euren irrati-aparatua entregatu beharrik, baina Komunikazio

---

34 B.F.A.H. URDULIZ 0032/018 *Urdulizko mediku Juan de Dios Zubicarayren idazkia, Urdulizko alkateari zuzendua 1936-9-6*. Dokumentu berean: *Urdulizko alkate Enrique Legarraren mezua, Bizkaiko Merkataritza eta Hornidura Ataleko buruari zuzendua 1936-9-6*.

35 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Merkataritza eta Horniketa Departamentuko lehendakari jaunari zuzendua 1936-9-21*. “Urdulizko uren horniketa proiektua” espedientearen barruan agertutako agiria. Jatorriz agirian agertzen zen data “1936ko abuztuaren 28a” zen, baina haren ordez “1936ko irailaren 21a” ipini zuen norbaitek. Zelangura ere, bi datak daude Urdulizko Defentsa Batzordea indarrean egon zen denboraren barruan, horixe interesatzen zaigu.

36 *La Gaceta del Norte* 1936-8-23.

37 *La Gaceta del Norte* 1936-8-27.

Zuzendaritza Orokorrera agertu beharra zeukaten lizentzia erakustera. Gobernadoreak, gainera, irratien entrega modu alfabetikoan finkatu zuen irailaren 14tik 24ra bitartean<sup>38</sup>.

1936ko urritik azarora bitarteko prentsan egindako zundaketek eriaten gaituzte hilabete horietan irratien konfiskazioa eta entrega irregularra izan zela ondorioztatzen. Berbarako, urriaren 22an, Getxoko Ordena Publikoko Komisariotzako Komunikazio Zerbitzuko arduradunak agindu zien “(...) *Irrati-aparatuen edukitzaile orori, oraindino euren baimendutako egoitza ofizialen batean entregatu ez badute, berehalakoan egin dezatela udaletxean kokaturik dagoen Komisaria honetan (...)*”. Irratien entrega egiteko protokoloak irailaren 11n gobernadore zibilak agindutako gidalerroari jarraitu beharra zuen. Hartara, Errepublikari leialak ziren alderdi edo sindikaturen batean familiakideren bat ez zeukaten familiek irratia derrigorrez entregatu beharra zeukaten; agindu horretatik kanpo geratzen ziren baldintza hori betetzen zuten familiak, baita atzerritarrak ere<sup>39</sup>. Leioan, azaroaren 7an, Komunikazioetako komisarioak agindu zuen “(...) *irradi-edukitzaile guztiek entregatu ditzatela, inongo aitzakia barik, Leioako Udaleko egoitzan, ohar hau argitaratzen den unetik berrogeita zortzi ordu baino lehen*”. Ohartarazi zen, gainera, agindu hori betetzen ez zutenek zigorra jasoko zutela<sup>40</sup>.

Topatu dugun dokumentazioarekin ezinezkoa zaigu zehaztea Urdulizko irratien konfiskazioa noiz gertatu zen, ezta gutxi gorabehera ere ez. Gainera, Udal Artxiboan dagoen irradi jabeen izenen zerrendak ez dauka datarik<sup>41</sup>. Berriz, badakigu Enrique Legarra alkate ohiak agindu zuela, 1937ko abuztuan egin zuen deklarazioaren arabera, irradi-aparatuen konfiskazioa, “(...) *berdin eskumako jendeena edo ezkerrekoena, agintarien aginduaren ondorioz eta kargurik ez dutenetan*”<sup>42</sup>. Izan ere, zerrenda hartan, 18 irradi jabeen artean<sup>43</sup>, eskumako ideologiako bizilagunak agertzen dira, hala nola geroago alkate izango ziren Manuel Uribe eta Amancio Nieva, eta Uribe familiako beste batzuk, adibidez Juan Uribe, Gregorio Urrutia eta Víctor Urrutia. Bestalde, Eduardo Betolaza errepublikanoa ere topatzen dugu<sup>44</sup>. Legarrak azaldu zuen, irratia konfiskatu eta “(...) *denbora gutxira*”, bueltatu egin zirela, “(...) *bi edo hiru izan ezik, (...) lehenik jabeei eman zitzaizen erreziboa erakutsi ostean*”<sup>45</sup>.

38 *La Gaceta del Norte* 1936-9-13. Hilaren 11ko oharrean Bizkai osoaz dihardutela badirudi ere, Komunikazioetako zuzendari nagusiaren hilaren 12ko beste ohar batek zehazten du errevisa hori “(...) *oraingoz, hiriburuan (Bilbon) dauden aparatuei baino ez*” zegokiela (*Euzkadi* 1936-9-13).

39 *El Nervión* 1936-10-24

40 *Euzkadi* 1936-11-7 eta 1936-11-8; *El Liberal* 1936-11-7.

41 *La Gaceta del Norte* 1936-8-27.

42 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Enrique Legarra Bengoechearen ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

43 Adierazi beharra dugu 18 izenetatik hiru ezabatuta agertzen direla.

44 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Irratien zerrenda, 1936. Zerrendan udalerrian “nor zirenak” agertzen dira, Andrés Martín maisua, Serafín Sagarna abadea edo Juan de Dios Zubizaray medikua.

45 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Enrique Legarra Bengoechearen deklarazioa* 1937-8-5.

*Bizkaiko Defentsa Batzordeak* autoen konfiskazioa ere agindu zuen. Tokiko agintariek, gainera, ibilgailuren baten beharra izaten zuten, bereziki Bilbon egiten ziren gestio administratiboak egin ahal izateko.

Ibilgailuen konfiskatzea “*agente konfiskatzaileek*” gauzatu zuten. 1936ko abuztuaren amaieran, ikusirik konfiskazioari kontra egiteagatik “(...) *gure agente konfiskatzaileen eta zenbait Tokiko Defentsa Batzordeen artean izaten ari diren arazo ugariak*”, Probintziako Batzordeak argitu behar izan zuen “(...) *multzoaren beharrak lehentasuna*” zuela “*toki mailako premien aurretik*”. Antza denez, zenbait herri eta erakundek ibilgailuak pilatu zituzten “(...) *gehiegikeriaz (...) batzuetan euren burua ikusteko inondik ere beharrezkoa ez zen erosotasun batez inguratuta, eta besteetan, jabeak benetako konfiskaziotik babestearren*”. Egoera hori zuzentzeko, Defentsa Batzordeak erabaki zuen erakundearen zerrendetan euren matrikulak ez zeuzkaten autoak ez zirela konfiskatutzat joko, “(...) *ezta Fronte Popularraren erakundeen zerbitzurako ere*”. Beste alde batetik, Tokiko Batzordeei eta erakundeei agindu zieten konfiskazioaren arduradunei erraztasun osoa emateko, beharrezkoa ikusten bazuten, aitatutako zerrendetan ez zeuden ibilgailuak konfiskatu ahal izateko<sup>46</sup>.

Urdulizen, udatiar bilbotar batzuk baino ez ziren ibilgailuen jabe. Izatez, Urdulizen errequisatutako autoak horienak izan ziren. Udatiar haietako bat, Fernando Sáenz Mendizabal gaztea, Urdulizen zegoen gerra piztu zenean, eta auto baten jabea zen. 1937ko abuztuan epailearen aurrean deklaratu zuenez, ibilgailuarekin egon zen “(...) *zerbitzu egiten hiru hilabetez, (...) hondatu ez ziezaioten*”<sup>47</sup>. Legarra alkate ohiak, bestalde, aitortu zuen auto biren errequisa baino ez zela egin, Juan Uriberena eta bere lehengusu Gregorio Urrutiarena; “(...) *Bilbotik jatekoak ekartzeko eta herriko agintarien aurrean aurkezteko*” erabili ziren. Auto horietako bat “(...) *gorriek eraman zuten*” eta bestea “(...) *garajejan zegoen*” 1937ko otsailean<sup>48</sup>.

---

46 *La Gaceta del Norte* 1936-8-28.

47 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Fernando Sáenz Mendizabalen ikerketa-deklarazioa* 1937-8-6.

48 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Enrique Legarra Bengoechearen ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

## 1.1.2 Estatutua eta lehen Eusko Jaurlaritzza

Gerra Zibila piztu zenean, Euskal Estatutua “(...) *Gorteetan zegoen osoko bilkurara igarotzekotan, bere behin betiko onarpenerako*”<sup>49</sup>. Beraz, Estatutua ez da gerra egoeraren emaitza. Izatez, onartu zen testua ia bere osotasunean bat zetorren “(...) *Prietoren iradokizun guztiak jasota batzorde txostengileak maiatza amaieran egin (...)*” zuenarekin<sup>50</sup>. Beste kontu bat da, José Luis de la Granjak adierazten duen legez, “(...) *gerrak eragindako behar politikoak (...)*” izatea, “(...) *Estatutuaren indar hartzea azkartu*” zutenak. Alde horretatik, EAJ errejimen errepublikanoaren alde agertu zen ulertu zuelako matxinatuekin ez zuela autonomiarik lortuko. Errepublikako agintariek, berriz, beharrezkoa ikusi zuten autonomia “*gauzatzea*” gatazkan nazionalismoaren inplikazioa lortzeko, inplikazio bat “(...) *askoz ere aktiboagoa gerraren lehenengo hilabeteetan Gipuzkoako kanpainan izan zutena baino*”<sup>51</sup>.

Inplikazio hura lortzeko, irailaren hasieran, EAJri ministerio bat eskaini zitzaion Largo Caballero buru zuen Kontzentrazioko Gobernuaren barruan. Nazionalistek euren baldintza jarri zuten aitaturako gobernuan sartzeko: “(...) *Euskal Estatutuaren onspen berehalakoa dekretu bidez*”. Largo Caballerok baldintza hori onartu zuen, baina proposatu zuen estatutuaren testua lege moduan berretsi zedin urriaren 1eko Gorteetako saioan. Behin akordio batera iritsita, irailaren 25ean, Manuel de Irujo diputatu nazionalista karterarik gabeko ministro moduan sartu zen Gobernuan<sup>52</sup>.

Hitzartu zen legez, urriaren 1ean Gorteek Euskal Estatutua onartu zuten, ehun bat diputatu bertan zeudela. Laburtasuna izan zen testuaren ezaugarri nagusia, 14 artikulua besterik ez baitzituen, honen lanketa bitartean Indalecio Prietok markaturako gidalerroei jarraituta. Gerraren ondorioz ezinezkoa zenez euskal parlamentu bat aukeratzeko hauteskundeak egitea, Estatutuari gehitu zitzaion “(...) *xedapen iragankor bat, gerrak iraun bitartean behin-behineko Gobernu baten eraketa erregulatzen zuena (...)*”. Modu horretara, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria “(...) *libreki euren botoa eman zezaketen euskal zinegotziek*” hautatu zuten. EAJren eta Fronte Popularraren arteko akordio baten emaitza izan zen José Antonio Aguirreraren hautapena<sup>53</sup>.

---

49 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El oasis vasco: el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madrid, Tecnos, 2007, 382 or.

50 FUSI AIZPURUA, 151.

51 GRANJA SAINZ, 382.

52 *Ibid.*

53 *Ibid.* 383-384 or.

Urriaren 7an, goizean, Bilbon egin zen zinegotzien bozketa<sup>54</sup>; nagusiki bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ziren, baita arabar gutxi batzuk ere. Aguirre lehendakari aukeratua izan zen boto ia guztiekin. Arratsalde hartan bertan, bere karguari zin egin zion Gernikako Juntetxean eta lehen Eusko Jaurlaritzaren kabinetearen osaketaren berri eman zen, EAJk eta Fronte Popularreko bost alderdiek osatuta, kontzentrazioko gobernu bati hasiera emanez:

<b>LEHEN EUSKO JAURLARITZA</b>	
Lehendakaritza eta Defentsa	<i>José Antonio Aguirre (EAJ)</i>
Gobernazioa	<i>Telesforo Monzón (EAJ)</i>
Ogasuna	<i>Heliodoro de la Torre (EAJ)</i>
Justizia eta Kultura	<i>Jesús María Leizaola (EAJ)</i>
Nekazaritza	<i>Gonzalo Nárdiz (EAE)</i>
Industria	<i>Santiago Aznar (PSOE)</i>
Lana, Aurreikuspena eta Komunikazioak	<i>Juan de los Toyos (PSOE)</i>
Gizarte Laguntza	<i>Juan Gracia (PSOE)</i>
Merkataritza eta Hornidurak	<i>Ramón María Aldasoro (Izquierda Republicana)</i>
Osasungintza	<i>Alfredo Espinosa (Unión Republicana)</i>
Herri-lanak	<i>Juan Astigarrabia (PC Euskadi)</i>

54 Urdulizko zinegotziek HIRUGARREN mahaian eman zuten botoa, Bilboko Udaletxeko bilkuren aretoan. LEHENENGO mahaia Gobernu Zibilean zegoen, BIGARRENA Fordu Aldundian eta LAUGARRENA Probintziako Entzuegiko lehen aretoan. Ikus *El Nervión* 1936-10-7.

### 1.1.3 Udalaren boterearen berreskurapena eta udal politika Urduliz galdu arte

Urdulizko Tokiko Defentsa Batzordea indarrean egon zen bitartean, soilik osoko bilkura bi egin ziren Udaletxean: lehenengoa irailaren 6an, eta bigarrena urriaren 20an; azken hau Euzkadiko behin-behineko Gobernuaren eratu zegoenean. Urriaren 20ko osoko bilkuran Udaltzako gai administratibo bat baino ez zituen esku artean izan: Luis de Bilbaok aurkeztutako faktura baten ordainketa, aho batez onartua, alde batetik “(...) *Eskola Nazionalak edateko urrez hornitzeko egindako lan batzuegatik*” eta, beste alde batetik, “ (...) *irailako Andramariren erromeria gírotzeko musikoentzako egindako behin-behineko kiosko baten eraikuntzgatik*”<sup>55</sup>.

Gainera, Udaltzako erantzun behar izan ziren Euzkadiko Gobernuaren eratu berriak egiten zizkion errekerimendu administratiboak. Berbarako, udalerrri bakoitzeko ganaduari eta eske-ekoizpenari buruzko estatistikak eskatu ziren, probintziaren horniketa era eraginkor batean kudeatzeko. Hartara, urriaren 15ean, Nekazaritza Sailak alkateei agindu zien lau eguneko epean txosten bal bidaltzeko “(...) *zure udal mugarteko ganadu-aberastasuna*” zela-eta, honako hauek zehaztuta:

*“(...) las especies vacuna, lanar, porcina, aviar, cunícola, etc., y piensos con los que cuentan para su manutención, junto con una exposición de las necesidades más apremiantes, según cálculo aproximado de consumo diario”*<sup>56</sup>.

Zenbait egun geroago, urriaren 20an, udalerrri bakoitzak ekoizten zuen esne kopurua ezagutzeko asmoz, alkateei honako hau bidaltzeko eskatu zitzaizkien: “(...) *esne litroaren balioari buruzko zerrenda zehatza, (...) udaberriaren, udazkenean, udan eta neguan*”, eta gainera “(...) *kontsumitutako esne kopuru osoa, ekoiztutako esne guztia eta ekoiztutako eta saldutako esnearen balioa*”<sup>57</sup>.

55 U.U.A. “Historikoa”, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-10-20.

56 *Euzkadi* 1936-10-17.

57 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Euzko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren agindu zirkularra* 1936-10-20. “Urdulizko urre-horniketa proiektua” espedientearen agertutako dokumentua.



1936ko azaroaren 16an, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat onartu zuen zeinen bidez Tokiko Defentsa Batzordeak desegin ziren eta haien eginkizunak berriro ere euskal udalek bereganatu zituzten. Gainera, Dekretuak beste helburu bat izan zuen: udalbatzen egoeran ordena berrezartzea. Hartara, erabaki zen kargugabetuak izanak ez ziren herri-hautaketa bidezko zinegotziak euren karguetan uztea eta independente gisa zeuden zinegotzien kasuak aztertzea. Aldiz, zinegotzi kudeatzaileak kargugabetu ziren “*zeuden lekuetan*”. Postu huts horiek eta heriotzak eragindakoak honakoen bidez bete beharko ziren:

*“(...) por candidatos propuestos por el Frente Popular y el Partido Nacionalista Vasco, en proporción al número de votos obtenidos por ambas organizaciones en las últimas elecciones de diputados a Cortes (...) otorgando siempre a la minoría la representación mínima del treinta y cinco por ciento (...)”<sup>58</sup>.*

Egun batzuk geroago, azaroaren 16ko Dekretuaren “*(...) betetze zehatz eta urgentea*” lortzeko asmoz, bi xedapen gehigarri agindu ziren. Lehenengoak zioen Fronte Popularreko alderdiei eta EAJri zegokiela izendatzea “*(...) bakoitzak bere udalerrietan (...) Udalbatzetako postu hutsak betetzeko hautagaiak*”. Bigarren xedapenak ezartzen zuen alkateek alderdiei eskatu behar zizkietela hautagaien izendapenak eta Gobernazio Saileko “*(...) Toki Administrazioako Zuzendaritza Orokorreara ahalik eta lasterren*” bidali<sup>59</sup>.

Urdulizen, zinegotzietako bat, Dionisio Arambalza Abarrategui, 1936ko uztailaren 9an zendua zen 46 urte zituela<sup>60</sup>. Beraz, udalbatzan postu bat libre zegoen. Gogorarazi beharra daukagu azaroaren 16ko Aginduak ezartzen zuela zinegotzitarako hautagaien proposamena EAJk eta Fronte Popularreko alderdiek 1936ko otsaileko hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren arabera izan behar zela, eta gutxiengoari %35eko gutxieneko ordezkari gorde behar zitzaiola. Era horretan, Urdulizko 1936ko otsaileko hauteskundeetan emaitzak kontuan hartuta<sup>61</sup>, Udaletxean bete gabe zegoen zinegotzi postua Fronte Popularreko alderdietakoren bateko kide bati zegokion.

Aukeratutako pertsona Prudencio Aspiazu Abarrategui izan zen, eta kargua zinegotzi komunista legez bete zuen<sup>62</sup>. Abenduaren 6an, Udala bildu zen “*(...) Zinegotzi karguaz jabetzeko (...)*” eta modu horretan “*(...) Udalaren integrazio osoari ekin (...)*”. Lehenik, udal idazkariak Eusko Jaurlaritzaren Gobernazio Sailaren azaroaren 28ko idatzia irakurri zuen, harekin batera baitzeturren “*(...) aitatutako Aspiazu jaunaren aldeko zinegotzi izendapen-egiaztagutuna (...)*”.

---

58 *La Gaceta del Norte* 1936-11-19.

59 *La Gaceta del Norte* 1936-11-21.

60 Urdulizko Erregistro Zibilean lortutako datuak.

61 Berbarako: EAJko José Horn hautagaiak 309 boto eskuratu zituen, eta Indalecio Prieto sozialistak, berriz, 57.

62 Aitatzekoa da 1936-12-6ko osoko bilkuraren aktan ez dela agertzen Prudencio Aspiazuren filiazio politikoa. Badakigu Alderdi Komunistako kide egin zela, 1937-8-5ean epaileari egindako deklarazioan ikasita (I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia).

Behin irakurrita, zinegotzi berria bere izendapenarekin ados agertu zen, “(...) aho batez gainontzeko zinegotzi guztiek” bezala. Jarraian, alkateak “(...) *On Prudencio Aspiazu Abarrategui bere zinegotzi karguaren jabe egin zuen*”<sup>63</sup>.

Ez dugu topatu dokumenturik zinegotziaren postu hutsa betetzeko Prudencio Aspiazu hautatu izanaren arrazoiak agertzen dizkigunik. Ahozko lekukotasun baten arabera, Aspiazu “*nazionalista zen*” eta “*EAJk arraso egiten zuenez, halakorik gerta ez zedin, esan zioten: “zoaz Alderdi Komunistaren izenean, oposizio bat izan dezagun” (...)*”<sup>64</sup>. Testigantza honek bat egiten du Amancio Nieva alkateak 1938ko uztailan eman zuen informazioarekin, 1936an Diputazioari lurrak luberritzeko diru-laguntzak eskatu zituzten bizilagunen jardura politiko-sozialaren inguruan egin zuen txostenean, horren bidez diru-laguntza horiek eman edo ukatzeko. Txosten horretan, Nievak adierazi zuen Prudencio Aspiazuk EAJri eman ziola botoa 1936ko hauteskundeetan<sup>65</sup>. Beste alde batetik, aitzatekoa da Aspiazuk familia-harremanak zituela urduliztar errepublikarretako batekin. Haren arreba Cristina Aspiazu Romualdo Olea Otazuarekin ezkondu zegoen<sup>66</sup>, Urdulizko Agrupación Republicanako kide berau, eta zerrenda errepublikanoan parte hartu zuena 1933ko udal hauteskundeetan. 1936 inguruan ez daukagu ezelango argibiderik Urdulizko errepublikanoei buruz; baieztatu genezake dagoeneko ez zeudela alderdi legez eratuta herrian. Ez daukagunez horri buruzko informaziorik, ez dakigu zelakoa izan zen errepublikarren partaidetza Tokiko Defentsa Batzordean, baina organismo hau eratzeke ezarritako oinarriek pentsarazten digute partaidetza hori derrigorrez gertatu zela. Euzkadiko Gobernuak udaletako postu hutsak betetzeko ezarritako arauak kontuan hartuz, pentsatzekoa da Aspiazuren izendapena nazionalisten eta gutxiengo errepublikararen arteko zelantzeko adostasun baten bidez eman zela; arraroa da 1933ko udal hauteskundeetara aurkeztu ziren errepublikarretako inor ere zinegotzi posturako proposatu ez izana.

1937ko abuztuaren hasieran, Prudencio Aspiazuk bere aurkako auzi lasterlasterra bideratzen zuen epailearen aurrean egindako deklarazioak ez digu argirik ematen bere izendapenaren gaiari buruz. Noski, ezin dugu alde batera utzi deklarazio hori zer baldintzatan eman zen; gaitza da jakitea aitortutakotik zenbat zetorren bat errealitatearekin. Esate baterako, Aspiazuk azaldu zuen inork ez ziola itaundu bere zinegotzi izendapenari buruz, agerian jarriz ezin zuela “(...) *justifikatu zelan izendatu zuten zinegotzi, berarekin kontsultatu gabe alkateak deitu zuen eta esan zion Euzkadiko Gobernutik heldu zela izendapen bat, bera izendatzeko*”.

63 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-6.

64 Sabin Unibasoren eta Patxo Ibargayren ahazko testigantza 2014-4-4.

65 B.F.A.H. AX-476/013, *Urdulizko udalerriko zer bizilagunen gainean eskatu diren txostenak. Haien zerrenda 1938-7-12.*

66 Urdulizko Erregistro Zibilean lortutako datuak.

Alderdi Komunistako afiliazioari buruz, 1937ko abuztua baino lau-bost hilabete lehenago egin zuela esan zuen, nonbait hor. Aspiazuren berbetan, “(...) *autoz alderdiaren propaganda egiten eta jendea apuntatzen zihoan gizon batek afiliatu zuen Alderdi Komunistan (...)*”, baina ez zuen ordaindu “(...) *ezelango kuotarik, eta horregatik ezin du zehaztu benetan Alderdi Komunistako kide den edo ez*”<sup>67</sup>.

1936ko abenduaren 16an, Urdulizko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Dekretua bete zuen azkenean eta Udalari bueltatu zitzaizkion ordura arte Defentsa Batzordeak administratutako funtzioak. Udal idazkariak Dekretua irakurri ostean, Komisioetarako karguak izendatu ziren, eta honela geratu ziren:

<b>UDALEKO BATZORDEAK 1936-12-16</b> <sup>68</sup>	
GANADUA HILTZEA	<i>Manuel Menchaca Juan Abaroa</i>
ZEREALAK ETA IKATZAK	<i>Prudencio Aspiazu Juan José Camiruaga</i>
HORNIKETAK	<i>Benito Otazua Tiburcio Llona</i>
ERREFUXIATUEN HORNIKETAK	<i>Enrique Legarra Pedro Goirigolzarri Cipriano Iturregui</i>

Lehen eraketa biribiltzeko, Defentsa Batzordeak 75 pezeta entregatu zituen “(...) *okela salmentaren soberakin moduan*” eta Udalbatzak erabaki zuen Udaletxera eroatea “*eskopetak, irratiak eta gainerako izakinak*”. Azkenik, erabaki zen “*bilkura-aretoan ipintzea On José Antonio Aguirre Euskadiko Behin-behineko Gobernuko Lehendakari Jaun txit gorenaren erretratoa*”<sup>69</sup>.

Oraindik zenbait gai konpontzeke geratu ziren eginkizunak Defentsa Batzordearen eta Udalaren artean eskualdatzean. Abenduaren 20an, idazkariak idazki bat irakurri zuen “(...) *Defentsa Batzordearen kargugabetzeari eta hari egokitutako betebeharrak Udalei eskualdatzeari buruz Toki Administrazioako Zuzendaritza Orokorrak emandako jarraibideak*” zituena. Idazkiaren arabera, Urdulizi asteko 200 pezeta zegozkion 2000 biztanle baino gutxiago izateagatik, Tokiko Defentsa Batzordearen langileen soldatak ordaintzeko. Udalbatzak dirua

67 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Prudencio Aspiazu Abarrateguiaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

68 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-16.

69 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-16.

honela banatzea erabaki zuen: José Ugarte txoferrak 75 pezeta kobratuko zituen, José Luis Laraudogoitia eskribauak beste 75 pezeta eta gainerako 50 pezetak dietetarako izango ziren<sup>70</sup>. “(...) *Udal honen Defentsa Batzordeko langileen*” soldatei buruzko akordioa 1937ko urtarrilaren 9an zuzendu zuten: eskribaua 60 pezeta kobratzera pasatu zen, 75 pezetan ordez. Modu horretan, dietetarako geratu ziren “(...) *Alkate Jaunarentzat hirurogeita bost pezeta (...)*”<sup>71</sup>.

1937aren hasieran, era berean xedatu zen zinegotziek 10 pezetako ordainsaria jasotzea “(...) *errazionamenduaren banaketa lanetan eta Bilborako salgaien bila joan-etorrietan*”<sup>72</sup> galdutako egun bakoitzagatik. Hilabete eta erdi geroago, otsailaren 27an, gaia berriro mahai gainean jarri zenean, adostu zen “(...) *okela, zereal eta abarren errazionamenduen komisioa*” osatzen zuten zinegotziek hurrengo osoko bilkuran aurkezzezatela “(...) *ohar xehatu bat errazionamenduaren erosketa eta banaketa kudeaketan emandako egunekin*”. Datu hauekin, udal idazkariak ikusiko zuen “(...) *zein fondotatik ordain zitezkeen*” hitzartutako ordainsariak, eta aldi berean, miratuko zuen “(...) *zegokion Departamentuan, ea zenbateko horiek okela, zereal eta horniduren salmentengatik lortutako diru-sarrerekin ordain zitezkeen*”, edo hauek Udaletxean sartu behar ziren. Era honetan, Udaletxeak ordainduko zituen zinegotzi bakoitzari zegozkion dietak, “(...) *dakion kapituluaren kontura*”<sup>73</sup>. Ez dakigu zer jazo zen kontu honekin, ez baita berriro Akta Liburuan agertzen. Edozelan ere, Udalak gerra dela-eta bizi zituen arazo ekonomikoak begi-bistakoak dira, zinegotzien ordainsariei buruzko datu hauek ikusita. Egun berean, diru aldetik zelakoak ikusten zebiltzan jabetzeko argigarri, erabaki zen zirkulaziotik kentzea Udalak errekisatuta zeukan autoa. Zergatik eta Herri-lan Sailak Dekretu bat eman zuelako “(...) *Udalak eta gainontzeko entitateak*” behartzen zituena errekisatutako autoen “(...) *konpontze- eta mantentze-lanez*” arduratzera. Pedro Goirigolzarri zinegotziak azaldu zuen Udalak ez zuela bitarteko nahikorik gastu horiei aurre egiteko; horregatik proposatu zuen “(...) *momentu honetatik aurrera autoa erretiratzeko eta autoarekin lotutako inongo erreklamazioz edo ordainketaz ez arduratzeko*”. Proposamena “(...) *zabal eztabaidatua*” onartu zuten “(...) *gehienek aldeko botoa emanda*”<sup>74</sup>.

70 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-12-20.

71 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-9.

72 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-2.

73 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

74 *Ibid.*

Errekisatutako irratiaren kontuari buruz, Francisco Llona Urdulizko bizilagunak udaletxeari aurkeztu zion “(...) idatzi bat (...) non (Udaletxean) deposituan zeukan irrati-aparatu bat ateratzeko eskatzen zuen, (...) agintaritzak agindutakoaren ondorioz”. 1937ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak Llonaren eskaera baloratu zuen eta irratiaren bueltatzeko erabaki: “(...) Jaun honen baldintzak kontuan hartuta eta Erregimenarekiko atxikimendu egiazatuagatik (...) aitaturako aparatuarekin irrati matxinatuekin komunikaziorik ez izateko baldintzapean”<sup>75</sup>.

Apirilaren 1ean, Toki Administrazioako zuzendari orokorrak idatzi baten bidez jakinarazi zuen “(...) Sailburu jaunaren (agindua) On Enrique Legarra Bengoechea alkatea bere kargutik kentzeko”<sup>76</sup>. Ez dakigu zerk eragin zuen Enrique Legarraren kargugabetzea, eta horregatik espekulazioaren bidea irekita dago. Errazionamendua eta Horniketari buruzko atalean iradokitzen dugu errazionamenduaren banaketa egiterakoan egindako zelanbaiteko irregulartasunen batekin zerikusia izan zezakeela. Izatez, otsailaren amaieran Toki Administrazioako Zuzendaritza Orokorrak 2000 pezetako isuna ezarri zion Udalari banaketa hura zela eta. Pedro Goirigolzarri zinegotziari bidegabea iruditu zitzaion isuna; datu guztiak berrikusteaz arduratu zen eta ondorioztatu zuen errazionamendua “(...) normaltasun eta berdintasun osoz (...)”<sup>77</sup> eginga zela.

Apirilaren 1ean bertan, eta kargugabetutako alkatea eta Juan Abaroa zinegotzia kanpoan zeudela, alkate berri legez izendatu zen, “aho batez”, Benito Otazua Artaza. Gainera, Legarrak betetzen zuen beste kargua ere hartu zuen: *Errefuxiatuen Errazionamendurako Gizarte Laguntzaren ordezkaria*. Behin aukeratuta, Otazuak udalburutza hartu zuen, eta eskerrak eman ostean, agindu zuen “(...) bere kargua kudeatzea ahalik eta ardura eta zuzentasun handienarekin (...)”<sup>78</sup>. Horrela hasi zen ia bi hilabete eta erdiko alkatetza laburra. Egun bi geroago, Urdulizko Udalari zegozkion asteko 200 pezeten banaketa adostu zen: alkateak 75 pezeta jasoko zituen, Tiburcio Llonak 65 pezeta eta José Luis Laradogoitia enplegatuak 60 pezeta<sup>79</sup>.

Apirilaren 28an, Urduliz gerra eremuan sartu zuten<sup>80</sup>. Horrek berekin zekarren, ezarrita zegoen legez, José Antonio Aguirre Defentsa sailburuak izendatutako ordezkari militar batek bere gain hartzea herriko “(...) gobernu agintea eta Ordena Publikoa”. Horrekin, alkatearen zereginak mugatuta geratuko ziren “(...) zinegotzi eta administrazio arloko” eginkizunetara<sup>81</sup>. Urdulizko udalbatzak apirilaren 24an egin zuen bere azken osoko bilkura. Ez zen berriro bildu udallerria

---

75 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-16.

76 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Alkate berriaren izendapenaren akta 1937-4-1.

77 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

78 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Alkate berriaren izendapenaren akta 1937-4-1.

79 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-3.

80 *El Liberal* 1937-4-30.

81 *La Gaceta del Norte* 1936-10-20.

gerra eremuan sartu ostean<sup>82</sup>. Alkateak zegokion funtzio administratibo hori betetzen jarraitu zuen. Berbarako, Erregimen Errepublikanoaren kontra zeuden Urdulizko bizilagunen zerrenda bidali zuen apirilaren 29an<sup>83</sup>, eta halaber Urdulizek zeuzkan bizilagun eta errefuxiatuei buruzko jakinarazpen bat, maiatzaren 7an, Likido eta Erosketen Zuzendaritzari<sup>84</sup>.

### 1.1.4 Eguneroko bizitza gerra bitartean

Ez dakigu zein izan zen uztailaren 18ko altxamendu militarren berriaren eragina Urdulizko bizilagunen artean eta zein izan zen egoera hurrengo egunetan. Luis Trebolazabala urduliztarrak, bere ahozko lekukotasunean, kontatu zuen ez ohiko zerbait gertatzen ari zela jakin zuela “(...) *Santa Marina baino pare bat egun lehenago*”. “(...) *Txiberriren frontoian beste bi mutilekin (zegoenean), erasorako gardien bi kamioi igarotzen ikusi genituen. Behin edo behin ikusiak genituen, baina bi inoiz ez, eta guardiaz kargatuta zetozen. Hantxe izan zen jakin nuenean egurra zebilela*”. Trebolazabalak erantsi zuen bere etxean entzun zuela egoera “(...) *zer edo zer iragankorra izango zela eta laster amaituko zela*”<sup>85</sup>.

Altxamenduaren biharamuneko egunkarietako deskribapenaren arabera, Bizkaiko probintziako egoera lasaia zen eta berri zain zegoen biztanleria. Urak bare etorriagatik ere, gertakari kolpistek hasiera-hasieratik asaldatu zuten eguneroko bizitza. Berbarako, Plentzia hurbilean, hilaren 19an *Pilotaren III. eguna* ospatzekoa zen, hainbat ekimen antolatuta zeudela horretarako<sup>86</sup>. Egoerak zelan eragin zien jakiteko sano esanguratsua da *Euzkadi* egunkariak uztailaren 21ean ospakizun nazionalista horri buruz argitaratutako artikulua:

*“Al fin celebramos los actos -en su mayoría- organizados para el III Día de la Pelota en Gaminitz. Y decimos “al fin” porque, dentro de las circunstancias políticas por que atravesamos el pasado domingo, nunca mejor la frase para especificar concretamente los obstáculos que en nuestro gran día pelotazale se nos presentaron”*<sup>87</sup>.

Egileak hizpide izandako “*oztopoetako*” bat aurreikusita zegoen pelotari parte-hartzaileen aldaketa izan zen, “(...) *Antón de Otxandianok*” ezin izan baitzuen joan, “(...) *anormaltasunaren beste biktima bat*”. Partidaren osteko oturuntzan ere batzuek ezin izan zuten egon egoerak “*behartuta*” eta *Batzoki* askok ezin izan zuten ekimen honetara ordezkartzarik bidali “(...) *ez-ohiko egoera dela eta*”. Horregatik artikuluegileak erabaki zuen ez aitatzea “(...)

82 Plentzian, berriz, Udalbatzak jarraitu zuen osoko bilkurak egiten ekainaren 12a arte, hau da, Francoren tropak sartu baino bi egun lehenago. Udal demokratikoaren azken osoko bilkuran alkatea eta hiru zinegotzi baino ez ziren batu.

83 M.H.D.Z. P.S. Madril, 876/57

84 M.H.D.Z. P.S. Bilbo 11

85 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-13.

86 *Euzkadi* 1936-7-19.

87 *Euzkadi* 1936-7-21.

*presente egon ziren gure Batzokien ordezkariak (...)*". Oturuntzaren ostean euskal erromeria bat egin zen, eta horrekin "*(...) gazte jendearen umorea piztu zen*"; berriz, "*(...) "zaharrak", bai eta ez, kezkatuak agertzen ziren, dena "ei" eta "omen", dena beltz, pentsa daitekeen lain (...)*"<sup>88</sup>.

Ez daukagu inongo dokumenturik egiaztatu ahal izateko Urdulizen San Marina ospatu zen edo ez uztailaren 20an, baina litekeena da jaia ospatu izana. Alde horretatik, Udaleko Akta Liburuan ez da ezer agertzen ospakizun honen aurretiko prestakuntzari buruz, baina hori ez da berria: 1932tik 1934ra bitartean, udalak gai hori bakarrik erabili zuen esku artean Santa Marinako ermitako mezara udalbatza moduan joango zen edo ez eztabaidatzeko. 1935ean, Batzorde Kudeatzaileak Udalaren osoko bilkuran ez zuen gai hau jorratu ere egin. Itxura guztien arabera, gutxienez Bigarren Errepublikaren garaian, uztailaren 20ko ospakizuna mugatuta geratu zen mezara eta ondorengo landa-bazkarira, zeinetan familia bakoitzak bere jatekoak eramaten zituen.

1936ko uztailaren 20ko egunaz badakigu, ostera, egun hartan, goizeko lehenengo orduetan langile antolakundeek irrati bidez adierazpen bat zabaldu zutela, gomendatuz "*(...) jendeari lanera ez sartzeko*"<sup>89</sup>. *Euzkadi* egunkariaren arabera, Bilboko herriak deialdian parte hartu zuen "*(...) eta ostera Bizkaiko herriek*", "*(...) greba orokorra*" hasi zuten, janari dendetan, prentsan eta osasun zerbitzuetan izan ezik. Egunkari jeltzaleak grebari "*erabatekoa*" eta "*guztizkoa*" iritzi zion bai Bilbon eta fabrika eremuan, baita "*(...) Bizkaiko gainontzeko herrietan*" ere<sup>90</sup>.

Uztailaren 18ko kolpearen ostean Udalak egindako jarduerari buruz, osoko bilkura ez zen abuztuaren 8a arte bildu, eta bilera hartan ez zen gerra egoeraz berba egin, ezpada administrazio kontuez: Industriako eta Merkataritzako Lurralde Kontribuzioaren kobrantzarako eguna finkatu zen eta bi etxebizitza eraikitzeke baimenak eman ziren<sup>91</sup>.

Gerra, berriz, hurrengo udal bilkuran azaldu zen, Enrique Legarra alkateak proposatu baitzuen Andra Mariren jai nagusietako erromeriak bertan behera uztea. Proposamen hori, udalbatzak zabal eztabaidatua eta aho batez onetsita, honela argudiatu zuen udalburuak:

*"(...) dadas las circunstancias excepcionales porque atraviesa la Nación y en particular esta Región con motivo de gerra fratricida desencadenada por los militares y los fascistas, creía conveniente suprimir provisionalmente las romerías que se celebran tradicionalmente el 8 de septiembre (...)"*<sup>92</sup>.

---

88 Ibíd.

89 *El Liberal* 1936-7-21.

90 *Euzkadi* 1936-7-21.

91 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-8-8.

92 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-8-22.

Urdulizen Andra Maritako jaiak bertan behera uzten ziren bitartean, Plentzian hiriko udalbatzak San Antolingo jai nagusien festa-egitaraua murriztu zuen; hortaz, soilik ospatu ziren “(...) *lehen eguneko merkatua eta feria, eta (...) (irailaren) 2, 3 eta 4ko arratsaldeko erromeriak*”. Bertan behera geratu ziren “(...) *iragarritako gainerako kontzertu guztiak, gaueko erromeriak, biribilketak, lehiaketak eta ikuskizunak*”<sup>93</sup>. Irail hartan beste adierazle batzuek erakusten zuten egoera konpondu barik, gero eta larriago bihurtzen zebilela. Esate baterako, aurrerago ikusiko dugun legez, hil haren hasieran ez zen ogi zuririk banatzen Urdulizen, eta hilaren erdialdean, olio eta azukrea falta ziren udalerrian.

Kapitulu honetan urduliztarren eguneroko bizitzan eragina izan zuten alderdi guztiak landuko ditugu: mobilizazioa eta gerraren ondorioak, errefuxiatuak eta elkarbizitza, elikagaien hornidura eta errazionamendua, ganaduaren konfiskazioa eta, azkenik, hezkuntza gerra garaian.

### 1.1.4.1 Mobilizazioa eta gerraren ondorioak

Militarren altxamenduaren lehen momentuetan, Fronte Popularreko alderdiek, baita indar abertzaleek ere, herri-guardia desberdinak osatu zituzten Bizkaiko Gobernu Zibilaren kontrolpean, nahiz eta benetan erakunde politiko-sindikalak ziren “(...) *euren militanteen gainerako egiazko agintea*” zeukatenak. EAJren kezka nagusia herrietan ordenaren mantentzea izan zen “(...) *Errepublikaren kontrolpean zeuden beste eskualde batzuetan jazotako gehiegikeria iraultzaileak saihestuz*”. Horregatik, zaindari armatuak eratzeko agindu zuen herrietan, ordena mantentzeko; hala osatu ziren “(...) *Udal mailan pikete armatuak, errepideak eta herrietako sartu-aterak kontrolatzen zituztenak, kontrolik kanpoko elementuen jarduna eragozteko*”<sup>94</sup>. Berbarako, Urdulizen, lerro batzuk lehenago esan den legez, Jacinto Armegugay nazionalista ordena publikoaren zaindari izendatu zuten 1936ko abuztuan eta bere lana izan zen errepidetik pasatzen ziren ibilgailuen kontrola<sup>95</sup>.

Hil berean, euskal abertzaleak hasi ziren “(...) *euren boluntarioen trebakuntzarekin, lehen konpainiak osatu zituzten, eta ondoren oinezkoen batailoiak*”. Irailean, itsasoz su-armak heldu ziren, ordura arte oso urriak Bizkaian, eta horrek ekarri zuen “(...) *fronteetan konpainia horietako asko*” sartzea. Hasiera-hasieratik, boluntario abertzaleei, hala EAJkoei nola EAEkoei, *gudari* deitu zitzaizen; hartara, gerra bitartean izendapen hori nazionalismora lotuta geratu zen. Berriz, *miliziano* deitu zitzaizen Fronte Popularreko alderdien batailoiak osatu zituzten gizonei<sup>96</sup>.

93 PLENTZIA HIRIBILDUKO UDAL ARTXIBOA (P.H.U.A.), A.426, 1935-11-30etik 1939-10-5era bitarteko Akta-liburua, Bilkura berezia 1936-8-27.

94 VARGASALONSO, Francisco Manuel: “*El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937)*” in *Vasconia* 31 zk., 2001, 306 or.

95 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Jacinto Amegugo Aurreraren deklarazioa* 1937-9-9.

96 VARGAS ALONSO, 306-310.



36ko irailean, nazionalista bizkaitarrek sortutako batailoi guztiak hilabete horren 25ean *Euzko Gudarostean* sartuta geratu ziren; EAren antolakunde bat zen eta bere zeregina “(...) *Alderdiak antolatutako indar militar guztiak kontrolatzea*”<sup>97</sup>

1936ko irailean osatu ziren batailoi ezberdinen artean *Itsasalde* Batailoia zegoen, EAJkoa, Urduliz barruan duen kostaldeko eskualdeko boluntarioak bildu zituen<sup>98</sup>. Batailoi hau osatzen zuten konpainietako bat *Matxin Konpainia*<sup>99</sup> izan zen; bertan sartu ziren, urriaren 21a baino lehen, bost urduliztar gutxienez: Clemente Unibaso Zuazua, Juan Bautista Bilbao Unibaso, Pedro Inchaurtieta Bilbao, Jacinto Armegugay Aurrera eta Jesús Villabeitia Ugarte<sup>100</sup>. Nahiz eta ez dakigun noiz sartu ziren, badakigu, aldiz, irailean, Urdulizko *emakumeak* herriko gudarien arropa prestatzen ibili zirela. Horretarako 91'50 pezeta gastatu ziren oihaletan, Bilboko Tovalina oihaledan, beste 15 pezeta en “*gudarietzako botoi, oiha, lepo eta*” forroetan eta 75 pezeta gehiago, “*herriko gudarienzat arropa egiteko*”<sup>101</sup>.

Euzkadiko Gobernuaren eratu eta egun gutxitara, Defentsa Sailak, José Antonio Aguirre buru zuela, honako hauen mobilizazioa agindu zuen 1936ko urriaren 16ko Dekretuaren bidez: “(...) *1932, 1933, 1934 eta 1935eko alistamenduetako tropa klase eta norbanako guztiak, Eusko Jaurlaritzaren agintepean dagoen lurralde barruan daudenak*”. Salbuetsirik geratu ziren dagoeneko milizien barruan zeudenak “(...) *batailako fronterako antolatuta, non ez duten soldadutza Artilleria, Ingenieri, Intendentzia edo Osasungintza Kidegoetan egin*”. Kasu horretan adierazten zitzairen lekuetara joan beharke zuten. Udalerrietako alkateen lana zen gazteak eroatea aurkeztu beharreko tokietara, “(...) *dauzkaten garraiobideak erabiliz, egiten duten ohiko zerbitzuari kalterik egin barik*”<sup>102</sup>.

---

97 Ibíd. 309 or.

98 Hortik bere izena, *Itsasalde*.

99 VARGAS ALONSO, 314-315. *Matxin Konpainia* urriaren bidali zuten Elgetako frontera. *Itsasalde* Batailoi osoa abenduan bidali zuten Urduñako frontera. 1937ko apirilean, Baranbioko eta Elorrioko sektoreetara pasatu zen, Altube inguruan. Hain zuzen ere hil hartan, batailoia Bederatzigarren Euskal Brigadaren atal bihurtu zen, eta maiatzean Sollubeko eta Jatako borroketan parte hartu zuen. Ekainaren 13an Bilbora bidali zituzten, Santo Domingo aldera, eta ekainaren 18an agindu zitzairen Larrinagako eta Karmeldegiko presondegietatik ateratako preso eskuindarrak babesteko eta Santo Domingo gainera eroateko, tropa “nazionalak” ziren tokira.

100 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

101 M.H.D.Z. P.S. Bilbo 171.

102 *El Liberal* 1936-10-20, eta *La Gaceta del Norte* 1936-10-20.

Urriaren 21ean, 1932ko eta 1935eko alistamenduei zegozkien mutilen zerrenda osatu zuen Urdulizko Udalak. Defentsa Sailaren ildoari jarraituz, zerrendan mobilizazio agindutik kanpo zeuden urduliztarren izena sartu zen, dagoeneko milizietan zeudelako. Arestian *Matxin Konpainiako* kide bezala aitatu ditugun Urdulizko bost bizilagunei gehitu behar dizkiegu Francisco Asla Goirigolzarri eta Pedro Goirigolzarri Zarraga, biak Ordena Publikoan; eta Ángel Iturregui Aurrecochea *gudaria*, Barakaldora bidalia<sup>103</sup>. Honela geratu zen mutilen sailkapena:

<b>MUTILEN SAILKAPENA 1936-10-21</b> <sup>104</sup>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>DEIALDIA</b>	<b>SAILKAPENA (letra lodiz) ETA OHARRAK</b>
Isidro Bilbao Ansoleaga	<b>1932</b>	Neurria baino ez da agertzen
Jenaro Egusquiza Mandaluniz	Ídem.	<b>Soldadua</b>
Juan Tomás Inchaurtieta Bilbao	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen
Gregorio Lopategui Bilbao	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Neurria agertzen da
José Olea Bilbao	Ídem.	<b>Soldadua</b>
Tomás Unibaso Arambalza	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua
Pedro Unibaso Ansoleaga	Ídem.	Ídem. Ez da neurria agertzen
Gerardo Villabeitia Ugarte	Ídem.	Itsasoan. Neurria agertzen da
José Zabala Ostolozaga	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen
Enrique Erdaide Videá	<b>1933</b>	Itsasoan. Itsas-armadan inskribatua. Ídem.
Manuel Fano Bilbao	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen
Juan Zalvidea Bilbao	Ídem.	<b>Erabat ezgauza</b>
Juan José Iratzagorria Iturregui	Ídem.	<b>Soldadua</b>

103 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

104 *Ibid.*

<b>MUTILEN SAILKAPENA 1936-10-21</b>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>DEIALDIA</b>	<b>SAILKAPENA (letra lodiz) ETA OHARRAK</b>
Agapito Basañez Bilbao	<b>1934</b>	<b>Aldi baterako baztertua</b>
Florencio Bilbao Fullaondo	Ídem.	<b>Soldadua</b>
José Egusquiza Mandaluniz	Ídem.	Ídem.
Juan Olea Bilbao	Ídem.	Ídem.
Antonio Bilbao Arteta	<b>1935</b>	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen
José Bilbao Zabala	Ídem.	Ídem. Ídem.
Antonio Egusquiza Bilbao	Ídem.	<b>Soldadua</b>
Luís Matías Gómez	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen
Julián Iturregui Aurrecoechea	Ídem.	<b>Soldadua</b>
Florentino Unibaso Ansoleaga	Ídem.	Itsas-armadan inskribatua. Ez da neurria agertzen

Guztira 16 gazte egon ziren Udaletxean bere sailkapenera aurkeztu ez zirenak, ezta inor ere ez zen euren izenean azaldu. Haietatik bederatzí Urduliztik kanpo bizi ziren, gehienak inguruko herrietan, nahiz eta horietako batek, Juan Felipe Bilbaok, Valentzian zuen bizilekua. José eta Antonio Larauogotia Menchaca anaiak atzerrian zeuden. Beste urduliztar bat, Juan Mendizabal Beascoechea, itsasoan zebilen eta Itsas-armadan inskribatua. Azkenik, inork ez zekien Juan José Arrarte Madariaga non zebilen, ezta beste hiru gizonen bizilekua zein zen; horietako bi, Bernardo Ateca Inchaurtieta eta Miguel Larrazabal Arteta, auzi-ihesean deklaratu ziren<sup>105</sup>, eta biak atzerrian zeuden<sup>106</sup>. Ez ziren iheslaritzat jo ziren urduliztar bakarrak: 1936ko abenduaren erdialdean, Segurtasunaren Zuzendaritza Nagusiak 30 gizon bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman zuen, eta horien artean zeuden udalerriko bizilagun bi: Manuel Fano Bilbao eta Juan José Iratzagorria Iturregui<sup>107</sup>.

105 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014.

106 1935eko otsailean, Urdulizko Udalak iheslari deklaratura zeuzkan, Bernardo Atecaren osabak eta Miguel Larrazabalaren amak adierazi zutenean ez bata ez besteak ez zutela Urdulizera bueltatzeko asmorik. Ateca Rosarion zegoen (Argentina) eta Larrazabal Matanzasen (Kuba). U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-2-17.

107 *Euzkadi* 1936-12-23.

Urdulizko gudarien jarduketari buruz badakigu, berbarako, *Itsasalde Batailoiko Matxin Konpainia* Elgetako frontera bidali zutela 1936ko urrian<sup>108</sup>. Azaroaren amaieran, *Txiberrik*, hurrean *Itsasaldeko* urduliztarrei buruz, *Euzkadi* egunkariaren orrietatik eman zuen aditzera, Urdulizko gudariak herrira itzuliak zirela "(...) *Kanpazarko frontean hilabete egin ta atsedean aldi bat euron etxeetan egiten*". Urriaren 22an, domekan, EAJren Uri Buru Batzarrak festa bat antolatu zien eta gudariak "(...) *umore onez*" bizi izan zuten. Hona Txiberrik zer esan zuen: "*Geure gudariok gertu ta alaitsu dagoz barriro guda-oñera biurtutako ta etsai madarikatuak geure berritik jaurtiteko. Ia, ba mutilak aurrera Jel-gaitik*"<sup>109</sup>. Buelta hori abenduan gertatuko zen, *Itsasalde Batailoia*, osorik, Urduñako frontera bidali zenean<sup>110</sup>. Beste alde batetik, Plentziatik *Euzkadi* egunkarira bidalitako kronika bati esker badakigu, *Matxin* Konpainiako plentziar *gudariak* () "*zortea*" izan zutela Gabon Gaua euren familiekin igarotzeko<sup>111</sup>. *Itsasalde* batailoiko konpainia horretan, esan berri dugunez, zenbait urduliztar zeudenez, auskalo ez ote zuten horiek ere Plentziako kideen baimen berbera eduki.

Elgetako frontean (Gipuzkoa) borrokatzen ziren Urdulizko bizilagun biren heriotza jazo zen 1937ko urtarrilean eta otsailean. Hantxe hil zen, urtarrilaren 17an, Ángel Iturregui Aurrecoechea, bala zaurien ondorioz. Mungian jaioa zen eta 24 urte zituen. Cipriano Iturregui zinegotziaren semea zen, eta Txomintxuena baserrian bizi zen, Dobarango auzoan<sup>112</sup>. Egun bi geroago, urtarrilaren 19an, Urdulizen lurperatu zuten, parrokiako Hildakoen Liburuan jaso zenez; bertan agertzen zaizkigu gaztearen heriotzari buruzko datu zehatzagoak:

*"Falleció, según certificación facultativa, a las once de la noche de anteayer, en la zona de guerra del Sector de Elgueta, a consecuencia de herida de bala en la región dorsal al nivel de la primera vértebra dorsal (...) Se ignora si recibió los Santos Sacramentos"*<sup>113</sup> .

---

108 VARGAS ALONSO, 314 or.

109 *Euzkadi* 1936-11-28. "GEURE GUDARIEK. – Kanpatzar'ko guda-oñian ilebete egin ta atsedean aldi bat euron etxietan egiten erritatu yakuz erri onetako euzko-gudariak. Igaro dan igandian Jel-Uri-Buru-Batzarrak eskiñiko jataldi bat izan eben ta umore ederragaz igaro eben. Geure gudariok gertu ta alaitsu dagoz barriro guda-oñera biurtutako ta etsai madarikatuak geure berritik jaurtiteko. Ia, ba mutilak aurrera Jel-gaitik".

110 VARGAS ALONSO, 314 or.

111 *Euzkadi* 1936-12-31.

112 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. atala: Heriotzak, 7. liburukia (1934-1951)

113 BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA (B.E.H.A.) 0047/001, Zenduak, 6. liburua, 187 or.

Hurrengo hilean, otsailaren 17an Bilbon hil zen **Florencio Bilbao Fullaondo**, 23 urtekoa, Luis Bilbao eta Juliana Fullaondoren semea. Bere heriotza ez da Erregistro Zibilean inskribatuta agertzen, Bilbon hil zelako, baina bai Andra Mari parrokiako Hildakoen Liburuan; bertan, hilaren 18an lurperatu zela agertzeaz gain, haren heriotzaren inguruabarrak azaldu ziren:

*“Falleció según referencias de sus familiares, a las dos de la madrugada de ayer (17 de febrero), en el Santo Hospital Civil de Basurto, en Bilbao, a consecuencia de las heridas sufridas por la explosión de un cañón, en el Frente de Elgueta, Guipuzcoa”<sup>114</sup>.*

1936ko abenduan hasi ziren 1937ko alistamendua –1916an jaiotako gizonezkoei zegokion- aurrera eroateko tramiteak. Ohiko jarraibideei jarraituz, Urdulizko abade nagusi Serafín Sagarnak helarazi zuen 1916an jaiotako mutikoen zerrenda eta Andra Mari elizako Bataioen Liburuan izena emanak<sup>115</sup>. Udal epaileak gauza bera egin zuen Erregistro Zibilean ageri ziren umeekin<sup>116</sup>. Bataioen Liburuan 12 gizonezko ageri ziren; Erregistro Zibilean, berriz, 9 zeuden. Horren arrazoia da Erregistro Zibilean Urdulizko barrutian jaiotakoak baino ez zirela inskribatzen. 12 gazte hauei, Urdulizko Udalak beste bi gehitu zizkien urtarilaren 14an<sup>117</sup>.

Urtarilaren 31n, Udalak alistamendua zuzendu zuen, eta erabaki 8 gazte zirela zerbitzurako gai eta 6 baztertuta geratzen zirela. Azken hauetatik 4 dagoeneko Armadan sartuta zeuden eta bi zenduak ziren. Behin betiko zerrenda honela geratu zen:

<b>1937-1-31ko IZEN-EMATEA</b> <sup>118</sup>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>SAILKAPENA</b>	<b>BAZTERTZEKO ARRAZOAIA</b>
Manuel Aspiazu Abarrategui	Gai	
Martín Aldecoa Goirigolzarri	Gai	
Félix Arrarte Madariaga	Gai	
Esteban Bilbao Camiruaga	Gai	

114 Ibíd. Zenduak, 6. liburua, 188 or.

115 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *Urdulizen mila bederatzehun eta hamaseian jaiotako mutilen zerrenda* 1936-12-2.

116 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *1916an Epaitegi honetako Erregistro Zibilean inskribaturiko mutilen zerrenda, 1937ko izen-ematean sartzea baitagokie* 1936-12-15.

117 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *Izen-emate akta* 1937-1-14.

118 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *Izen-emateen zuzenketa akta* 1937-1-31.

1937-1-31ko IZEN-EMATEA <sup>118</sup>		
IZEN-ABIZENAK	SAILKAPENA	BAZTERTZEKO ARRAZIOA
José Andrés Bilbao Garaizar	Gai	
Justo Eguskiza Bilbao	Gai	
Salvador Erdaide Videá	Gai	
Hilario Libarona Meñaka	Gai	
Basilio Amonday Galdacano	Baztertua	Zendua
Félix Gorordo Camiruaga	Baztertua	Itsas-armadarako izen-emaná
Ángel Hormaza Echevarría	Baztertua	Ídem.
Juan Laraudogoitia Menchaca	Baztertua	Ídem.
Domingo Unibaso Ansoleaga	Baztertua	Zendua
Justo Unibaso Arambalza	Baztertua	Itsas-armadarako izen-emaná

Otsailaren 21ean egin zen soldaduen saikapena eta deklarazioa. Laguntzaile izan zituzten horretarako Juan de Dios Zubicaray medikua eta, neurtzaile moduan, Lorenzo Unibaso Echegaray arotza. Mutiletako bi ez ziren azaldu dagoeneko gerra-zerbitzuak egiten ari baitziren: Manuel Aspiazu Abarrategui, *Ertzaña* polizia militarrean zegoelako, bere aitak esan zuenez; eta Martín Aldecoa Goirigolzarri, “(...) *Euzko Gudarostean izen-emandá zegoelako, Larrazabal Batailoiko*<sup>119</sup> *Isusi Konpainian, gerra-frontean*”, gaztearen aitak adierazi zuenez. Hirugarrenak, Hilario Libarona Meñacá, luzapena eskatu zuen<sup>120</sup>.

119 “Gipuzkoa galdu ostean eratu zen “Larrazabal” batailoia, lehen muina Euskal Milizietatik heldu ziren gipuzkoar boluntario zailduek osatzen zutela. Osatzaile gehienak, osterá, bizkaitarrak ziren, batzuk boluntarioak eta besteak mobilizatuak. 1936ko abenduan Kanpantzarko frontera heldu zen eta bertan hartu zituen posizioak” (VARGAS ALONSO, 328 or.).

120 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011 Soldaduen saikapen eta deklarazio akta 1937-2-21.

1937ko apirilaren erdialdean, “(...) Gerrako frontean edo kuarteratuta” zeuden hainbat urduliztarrek<sup>121</sup> soldaduskatik salbuesteko eskatu zioten Nekazaritza Sailari. Udalbatzak zorrotz aztertu zituen eskari horiek eta aho batez erabaki zuen oniritzia ematea eta Nekazaritza Sailera bidaltzea, aintzakotzat harturik mutil hauek “(...) *lurrak lantzeko beharrezkoak*” zirela eta “(...) *euren familiaren sostengu bakarra; haien laguntza barik oso egoera larrian egongo*” zirelako<sup>122</sup>. Zerbait egun geroago, beste bi gaztek ere<sup>123</sup> egin zituzten soldadutzatik salbuesteko eskaerak, arrazoi beragatik, eta Udalak bere oniritzia eman zuen<sup>124</sup>. Ez dakigu Nekazaritza Sailak eskatutako salbuespenak onartu zituen, baina, beste alde batetik, ez da astakeria pentsatzea eskaera hauek aitzakia izan zitezkeela gerra-frontera ez joateko, hain zuzen ere “*nazionalak*” Bizkaiaaren aurkako erasoaldiak gogortzen ari ziren une batean.

Bilboren galeraren testuinguruan topatzen dugu dokumentatzea lortu dugun zenduetako hirugarrena: **Manuel Fano Bilbao**. Haren heriotza ez zen Erregistro Zibilean idatzi. Horregatik, haren alargunak, Benita Bilbao Juaristik, 1943an eskatu zuen heriotza inskribatzeko. Eskabide horren arabera, Manuel Fano “(...) *gerra-ekintzan jasotako zauriak zirela-eta hil zen Bilboko uda -barrutiko Artxanda mendietan, 1937ko ekainaren 12an*”. 28 urte zituen, eta adin-txikiko bi umezurtz laga zituen, Martín eta José Manuel. Lekuko bik, “(...) *lekukoak izateko salbuespenik ez*” zutenek, adierazi zuten “(...) *zenduaren gorpua ikusi*” zutela, modu horretan egiaztaturik Benita Bilbaok azaldutako gertaerak. Epaileak agindu zion Urdulizko Epaitegiari Manuel Fano Erregistro Zibilean inskribatzeko 1943ko azaroaren 11n<sup>125</sup>.

Alberto Gorospek jaso zuen gerrak euskal lurraldean izan zituen azken egunetan zendutako laugarren urduliztarren izena: **José Bilbao Arteta**<sup>126</sup>. Ez dugu topatu inongo dokumentazio motarik José Bilbao Artetaren heriotzari buruz, itxuraz ez zelako erregistratu; urduliztar hau desagertutzat jo dezakegu, beraz. Bere senideen testigantza arabera, gerra Bizkaian amaitu ostean, familiak berria jaso zuen José Bilbao azkeneko aldiz Karrantzan ikusi zutela, oinez, hanka bat ebakita “(...) *eta otoitzean*”<sup>127</sup>. Azkenik, aurrerago ikusiko dugun legez, 1938ko uztailaren 11n, errepresio frankista bete-betean zebilela, **José María Egusquiaguirre Golzarri** fusilatu zuten Derioko hilerrian.

---

121 Agapito Basáñez, Tomás Artaza, Salvador Erdaide, Luis Bilbao, Francisco Ansoleaga, eta Justo Unibaso.

U.U.A. “Historikoa”; 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-24.

122 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-12.

123 Antonio Asla eta Domingo Garitaonandia.

124 U.U.A. “Historikoa”; 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-24.

125 A.M.U. 267. kaxa, *Juan Madariaga epailearen autoa – Bilboko 2. Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaitegia* 1943-11-11.

126 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori herri – Uribe Kosta*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002, 262 or. Hildako urduliztarren artean José María Bilbao Ansoleaga ere aipatzen du, Logroñon 1937ko uztailaren 28an fusilatutakoa. Hala eta guztiz ere, Iñaki Egañak argitaratutako zerrendaren arabera, Plentziako bizilaguna zen (EGAÑA, Iñaki: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria 1936-1940*, Tafalla, Txalaparta, 2009, 340 or).

127 Matilde Aresti Bilbaoren ahozko testigantza 2016-4-21.

Atal hau ixteko, zerrenda bat osatu dugu iturri ezberdinei esker. Bertan, 31 urduliztarren eta udalerriko ohiko udatiarren izenak jasotzen dira, baita izen-emandak zeuden batailoien izenak ere:

<b>URDULIZTARRAK ETA UDATIARRAK, BATAILOIETAN ETA BESTE KIDEGO BATZUETAN IZEN-EMANAK</b>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>BATAILOIA</b>	<b>SARRERA DATA</b>
Ángel Iturregui Aurrecoechea	“Eusko Gudariak (Barakaldo)” <sup>128</sup>	1936-10-21 aurretik
Antón Mentxaka Laraudogoitia	Kirikiño <sup>129</sup>	-
Antonio Gumersindo Bilbao Arteta	Zabalbide <sup>130</sup>	-
Aurelio Intxaurtieta	Martiartu <sup>131</sup>	-
Antonio Iñiguez	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>132</sup>	-
Benito Otazua Asua	Kirikiño <sup>133</sup>	-
Cándido Bilbao Unibaso	Martiartu <sup>134</sup>	-
Clemente Unibaso Zuazua	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>135</sup>	1936-10-21 aurretik
Felipe Villabeitia Ugarte	Irrintzi <sup>136</sup>	-
Félix Astobieta Bilbao	Ertzaña <sup>137</sup>	-
Florentino Unibaso Ansoleaga	Otxandiano <sup>138</sup>	-

128 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda 1936-10-21.

129 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori Herri – Uribe Kosta*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002, 262 or.

130 ITSAS-ARMADAREN FERROLGO ARTXIBOA (I.F.A.), 2448-38 auzia, Antonio Gumersindo Bilbao Artetaren deklarazioa 1950-4-3.

131 GOROSPE, 262 or.

132 Ibíd. Honetan ere bai: M.H.D.Z. Okupazioko Armadako Gerra-auditoretzaren fitxa, Antonio Iñiguez buruzkoa, sinadura barik.

133 GOROSPE, 262 or.

134 Ibíd.

135 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

136 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, *Felipe Villabeitia Ugarteren deklarazioa* 1938-1-7.

137 GOROSPE, 262 or.

138 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Florentino Unibaso Ansoleagaren zinpeko deklarazioa*, 1939. Bere deklarazioaren arabera, 1936-10-20an Iturribideko Patronatuko Eskoletako kuartelera bidali zuten.



<b>URDULIZTARRAK ETA UDATIARRAK, BATAILOIETAN ETA BESTE KIDEGO BATZUETAN IZEN-EMANAK</b>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>BATAILOIA</b>	<b>SARRERA DATA</b>
Francisco Asla Goirigolzarri	Ordena Publikoa <sup>139</sup>	1936-10-21 aurretik
Isidro Juan Albóniga García	UGTko 8. Batailoia <sup>140</sup>	1936-11-9
JacintoAmegugo Aurre	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>141</sup>	1936-10-21 aurretik
Jacinto Garaizar Larrazabal	Itsasalde <sup>142</sup>	-
Jenaro Egusquiza Mandaluniz	Ertzaña <sup>143</sup>	-
Jesús Villabeitia Ugarte	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>144</sup>	1936-10-21 aurretik
José Vilariño Salgado	Bakunin <sup>145</sup>	1936-11-15
José Luis Echegaray	Miliziano boluntarioa <sup>146</sup>	-
José Luis Larauogoitia Arteta	Rebelión de la Sal <sup>147</sup>	1937-5-11
José Luis Muñoz	Kirikiño <sup>148</sup>	-

139 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

140 I.F.A. 2612-38 auzia, *Isidro Juan Alboniga García*ren deklarazioa 1939-8-21. Itsasgizonak Torrontegui ere erabiltzen zuen lehenengo abizenerako; deklaratu zuenez, 1936-11-9an batu zitzaion batailoi honi.

141 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

142 EUSKAL ARTXIBO HISTORIKOA (E.A.H.) ENCEE. EUZKADIKO GOBERNUA. Defentsa. Gaitzea eta Likidazioa: Nominak, 23. biribilkia. Aitatzekoa da, Urdulizko alkate Manuel Uribek 1937-8-26an egindako portaera-ziurtagirian adierazten dela euskal abertzalea zela, baita hau ere: "(...) *Mugimenduaren hasieran miliziano boluntarioa izan zen, baina utzi egin zuen kontua serioa zela ikusita*". (U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa).

143 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Manuel Uribe alkateak 1937-12-7an emandako portaera-ziurtagiria*. Jasota dagoenez, Jenaro Egusquiza Santurtzin bizi zen 1935eko ekinaz geroztik. Adierazten denez, "(...) *Erzaña (sic) polizia sartu zen, antza*".

144 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

145 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13568-42 auzia, *José Vilariño Salgadore*n deklarazioa 1942-2-19. Vilariño dio 1936-11-15ean sartu zela Bakunin Batailoian.

146 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Manuel Uribe alkateak 1937-9-4an egindako ziurtagiria*. *Ziurtagirian jasota dago euskal abertzalea zela eta hasieran miliziano boluntarioa izan zela, "(...) baina utzi egin zuen kontua serioa zela ikusita*".

147 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José Luis Larauogotia Artetaren deklarazioa* 1937-8-5. Urduliztarrak deklaratu zuen 1937-5-11n sartu zela batailoi honetan.

148 GOROSPE, 262 or

<b>URDULIZTARRAK ETA UDATIARRAK, BATAILOIETAN ETA BESTE KIDEGO BATZUETAN IZEN-EMANAK</b>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>BATAILOIA</b>	<b>SARRERA DATA</b>
José María Egusquiguirre Golzarri	Ordena Publikoa <sup>149</sup>	1936-8-3
Juan Bilbao	Zehaztu barik. Teniente-txoferra <sup>150</sup>	-
Juan Estrade Alda	Ertzaña <sup>151</sup>	-
Juan Bautista Bilbao Unibaso	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>152</sup>	1936-10-21 aurretik
Juan José Camiruaga Gorordo	Arana Goiri <sup>153</sup>	1937-5-14
Luis Estrade Alda	Polizia Militarra - Ertzaña <sup>154</sup>	-
Manuel Aspiazu Abarrategui	Larrazabal (Isusi Konpainia) <sup>155</sup>	-
Manuel Goirigolzarri Zarraga	Kirikiño <sup>156</sup>	-
Martín Aldecoa Goirigolzarri	Polizia Militarra - Ertzaña <sup>157</sup>	-
Pedro Goirigolzarri Zarraga	Polizia Ertzaña <sup>158</sup>	1936-10-21 aurretik
Pedro Inchaurtieta Bilbao	Itsasalde (Matxin Konpainia) <sup>159</sup>	1936-10-21 aurretik

149 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 azuia, *José María Egusquiguirre Golzarriren deklarazioa* 1937-9-15. Portugaleten jaiotako miñoiak deklaratu zuen 1936-8-3an sartu zela Ordena Publikoko kidegoan.

150 M.H.D.Z. Okupazioko Armadako Gerra-auditoretzaren fitxa, Juan Bilbaori buruzkoa, sinadura barik. Ez dagokio Juan Bilbao Unibasori, honek berea baitzuen.

151 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 azuia, Juan Estrade Aldaren deklarazioa 1939-8-4.

152 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

153 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 azuia, Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Lizarrako Batzordearen akta 1937-7-21, eta Juan José Camiruaga Gorordoren deklarazioa 1937-12-29. Camiruaga berak esan zuenez, 1937-5-14an sartu zen batailoian.

154 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 azuia, *Luis Estrade Aldaren deklarazioa* 1938-11-29.

155 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *Soldaduen sailkapen eta deklarazio akta* 1937-2-21.

156 GOROSPE, 262 or.

157 B.F.A.H. URDULIZ 0031/011, *Soldaduen sailkapen eta deklarazio akta* 1937-2-21.

158 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Manuel Uribe alkateak egindako ziurtagiria* 1937-7-29, eta B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

159 B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, 1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda. 1936-10-21.

### 1.1.4.2 Errefuxiatuak eta bizikidetza Urdulizen

1936ko irailaren 5ean, Bizkaiko Defentsa Batzordeak, matxinatuen tropak Gipuzkoan aurrera ari zirela ikusirik eta “(...) milaka andrazko eta ume gerraren ankerkerietatik libratu guran”, dei egin zien bizkaitarrei:

*“(...) para que hoy mismo puedan hacerse los ofrecimientos voluntarios que sean posibles en las oficinas de Estadística del Ayuntamiento, señalando el nombre del arrendatario del piso, dirección del mismo y número de refugiados que estaría dispuesto a recibir inmediatamente con las habitaciones que disponga y las condiciones del alojamiento”<sup>160</sup>.*

Beste alde batetik, Bizkaiko herrietako alkateei agindu zieten prestatu zezaten “(...) ahalik eta lasterren, bakoitzak bere udalerrian, errefuxiatuak hartzeko moduan dauden bizilagun guztien zerrenda, haien derrigorrezko ostatatzea dekretatzen denerako”. Hainbesteko presa zegoen, ezen alkateei eskatu baitzitzaien zerrenda hori osatzeko Probintziako Defentsa Batzordearen aginduaren berri izan bain ez, astelehenean, hilaren 7an, eskatutako informazio guztia esku artean edukitzearen “(...) ezelango aitzakia barik”. Gainera, alkateei gomutarazi zitzaizkien behartuta zeudela “(...) esleitzen zaizkien errefuxiatuak bizilagun dirudunenen etxeetan ostatatzeko eta, premia izanez gero, biztanle guztienetan (...)”<sup>161</sup>.

Deialdia arrakastatsua izan zen. Hilaren 7an, Merkataritzaren eta Horniduraren Zuzendaritza Nagusiak, komunikatu baten bidez, Bizkaiko udal guztiei bere poza adierazi zien “(...) Gipuzkoako errefuxiatuak hartzeko egindako deialdia zelako abertzaletasunez hartu den ikusita”. Bezperan, aditzaera eman zuten, “(...) milaka senide gipuzkoar hartu ditugu geure etxeetan. Bihar eta hurrengo egunetan gehiago helduko dira”<sup>162</sup>.

Hilaren 14an eskatu zen udal bakoitzak bere udal mugarteko biztanleriaren zentsu zehaztua bidaltzeko, beharrezkoa zelako bizigaien hornidura antolatuko bazen. Gainera, bakoitzaren herrian zeuden errefuxiatuen zerrenda ere bidali behar zuten<sup>163</sup>. Agindu horri esker badakigu Urdulizen, 1936ko irailaren 15ean, guztira 16 errefuxiatu zeudela Gipuzkoatik etorritakoak. Lau familia ziren ama familiaburu zutenak, emakume gazteek eta umeek osatuak<sup>164</sup>:

- **Dolores Piñeiro Carballo**, 50 urtekoa, eta haren alaba biak **Dolores Pouso Piñeiro**, 20 urtekoa, eta **Rosa Pouso Piñeiro**, 27 urtekoa.
- **Manuela Mariño Pérez**, 32 urtekoa, haren seme **Enrique Alonso**

---

160 *La Gaceta del Norte* 1936-9-6.

161 *La Gaceta del Norte* 1936-9-6.

162 *La Gaceta del Norte* 1936-9-8.

163 *La Gaceta del Norte* 1936-9-15.

164 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, *Urdulizko elizatean errefuxiatutako pertsonen zerrenda* 1936-9-15.

**Mariño**, hamaika hilabetekoa, eta **Manuelaren ahizpa**, **Visitación Mariño Pérez**, 17 urtekoa.

- **Elena Fernández Rodríguez** 31 urtekoa, haren alaba **Elena Piñeiro Fernández**, 9 urtekoa, eta bi semeak **Manuel Piñeiro Fernández**, 11 urtekoa, eta **Plácido Piñeiro Fernández**, 7 urtekoa.
- **Manuela Pagola Jaca**, 42 urteko, haren bi alabak, **Pilar Vélez Pagola**, 11 urtekoa, eta **Purificación Vélez Pagola**, 6 hilabetekoa, eta haren bi semeak, **Juan Vélez Pagola**, 13 urtekoa, eta **Jesús Vélez Pagola**, 3 urtekoa.

Bistan denez, 14 errefuxiatuen kopuru hori goraka joango zen apurka-apurka. Hala eta guztiz ere, biztanleriaren zentsuen gainean prentsan aurkitzen ditugun albisteek, esate baterako, urriaren 26ko *Euzkadik* eta abenduaren 1eko *El Nervión*-ek ematen dituztenek, Urdulizi dagokionez aitatzen duten errefuxiatu kopurua iraileko zentsuan kontatu zen bera da: 14. Hori Urdulizekin ez ezik, herri gehienekin jazo zen. Gutxi batzuetan baino ez da agertzen errefuxiatutako populazioaren gorakada bat, adibidez, Getxon, urrian 1653 errefuxiatu zeuzkana eta 2153 abenduaren hasieran; edo Barakaldon, urrian 2685 zeuzkana eta abenduan 3014<sup>165</sup>. Antza, udalerri gehienek ez zuten zentsua berritu edo, berritu egin bazuten, ez zuten bidali egin.

Benito Otazua alkateak 1937ko maiatzaren hasieran aditzera eman zuenez, Urdulizen 176 errefuxiatu zeuden. Biztanle kopurua, berriz, beheraka joana zen 1936ko iraileko zentsuan jasotako bizilagun eta udatiarren baturaren aldean. 1937ko maiatzean 1166 biztanle zenbatu ziren<sup>166</sup>, 1936ko irailean, ostera, bizilagun eta udatiarren baturak guztira 1217 biztanle ematen zuen<sup>167</sup>. 1936ko urrian eta abenduan prentsan agertu zen Urdulizko biztanle kopurua eta iraileko zentsuak ekarri zuen berdintsua zen: 1221<sup>168</sup>.

Aitatutako 1936ko iraileko erroldak ematen digun informazioaz gain, ez daukagu errefuxiatuen inguruko beste daturik Tokiko Defentsa Batzordearen esku egonak ziren funtzioak Udalak berreskuratu zituen arte. Udaleko Akta Liburuak aditzera ematen digu arazo nagusia udalerrian ostatatzeko toki falta zela. Esate baterako, 1937ko urtarrilaren erdialdean, Soraluzeko (Gipuzkoa) sei errefuxiatu José Brotons Llonaren etxean hartuta zeuden behin-behinean. Etxebizitzaren leku falta zela-eta, alkateak proposatu zuen errefuxiatuak gelditu zitezela “(...) neskatiñen Eskola Nazionalean, maistraren logelan”,

honen onespenearekin. Logela altzariz hornituta zegoen, baina konponketa batzuk

165 *Euzkadik* 1936-10-30, eta *El Nervión* 1936-12-1.

166 M.H.D.Z. P.S. Bilbo 11, *Urdulizko alkatearen mezua, Likido eta Erosketen Zuzendari Orokorriari zuzendua* 1937-5-7.

167 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, *Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrenda, eta udatiarreana* 1936-9-15. Biztanleen kopurua 1147 zen, eta udatiarreana 70.

168 *Euzkadik* 1936-10-30, eta *El Nervión* 1936-12-1.

behar izan zituen, eta horregatik eskatu zitzaion laguntza Eusko Jaurlaritzako Gizarte Laguntza Sailari<sup>169</sup>.

Juan Gracia kontseilari sozialista buru zuen Departamentu horrek zeukan bere gain errefuxiatuen arretaren ardura. Hortaz, errefuxiatuekin lotutako edozein arazoren aurrean erakunde horretara jo behar zuten Udalek. Berbarako, 1937ko urtarrilaren amaieran, Urdulizko Udalak departamentu horri eskatu zion “(...) *bi ohe osoren erosketa, dagokien oheko arroparekin*” bost seme-alaba zituzten senar-emazte batzuk jasoko zituen etxe baterako; familia ordura arte Errotazabale baserrian egona zen behin-behinean. Etxe berriak ez zeukan altzairurik “(...) *bizilagunei eskatu zitzaizkien arren, lehenago zeuzkaten bitartekoekin emanda zeudelako laguntza (...)*”<sup>170</sup>.

Gizarte Laguntza Sailari eman zitzaion bizileku batzuen baldintza txarren berri. 1937ko otsailaren hasieran, Udalak erabaki zuen aitatutako Departamentuari, “(...) *gomutatzea (...) Aspiazu errefuxiatua eta familia dauden logelaren baldintzak, osasun egoerari eta moralari dagokionez*”<sup>171</sup>.

“(...) *Elortzako Manuel Piñeiro errefuxiatuak*” okupatutako logelak ere “(...) *osasun-baldintza txarrak*” zeuzkan, eta gainera ez zeukan “(...) *edukiera nahikoa*”. Hori zela eta, 1937ko otsailaren 6an, Udalak erabaki zuen “(...) *premia handiz (...) logela bat*” bilatzea<sup>172</sup>. Hil horren amaieran, alkateak Abadene etxean gela huts bat topatu zuen, Cipriano Inchaurtieta zinegotzi ohiaren, eta Manuel Piñeiori eskaini zitzaion; hala ere honek “(...) *adierazi zuen ez zegoela konforme bertan bizitzearekin, sano hezea zen-eta*”. Udalak “(...) *herriko onenetakoa*” iritzi zion logelari eta erabaki zuen “(...) *errefuxiatu horren eskaerak gehiago kontuan ez hartzea*”<sup>173</sup>.

1937ko apirilaren 12koa da Akta Liburuak errefuxiatuei buruz ematen digun azken informazioa. Egun hartan Udalak erabaki zuen “(...) *Durangotik zetozen bi errefuxiatu familia*” Arteta Barri etxean hartzea<sup>174</sup>. Durangok martxoaren 31n eta apirilaren 2an eta 4an sufritu berri zituzten bonbardaketetatik ihesean etorriak ziren, seguruenik, errefuxiatu hauek.

Hazten zihoan errefuxiatu kopurua non ostatatu ez izateak ekarri zuen, zehaztu ezin dezakegun data batean, Mendiondoko Auzuneko Eskola erabiltzea “(...) *errefuxiatuen lokal*” gisa<sup>175</sup>. Litekeena da eskola horrek eginkizun hori hartu izana Molak Bizkaiaren kontrako eraso abiaturaren ondoren, 1937ko martxoaren amaieran.

---

169 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-16.

170 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-30.

171 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-6.

172 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-6.

173 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

174 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-12.

175 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko eskolen egoerari buruzko txostena - Inbentarioa* 1937-8-20.

Beste alde batetik, beste dokumentu batzuen azterketak azaleratzen du Urdulizen ideologia kontserbadoreko errefuxiatu asko ere egon zirela, dokumentazioan “*eskuindarrak*” edo “*eskumako jendea*” deitzen direnak. Hurrean, gehienak monarkikoak izango ziren. Horietako askok Urdulizekin lotura zeukaten, udalerrian uda igaro ohi zuten familietako biren ahaideak zirelako: Uribetarrak eta Estradetarrak. Uda amaituta, familia biak ez ziren euren Bilboko etxeetara bueltatu eta herrian jarraitu zuten. Bai Uribetarren artean bai Estradetarren artean ere bi joera politiko elkarrekin bizi ziren: Raquel Alda, Juan Estraderen alarguna, edo Rafael Uribe Uriarte, esaterako, nazionalistak ziren; berriz, Manuel Uribe Echevarria, Juan Uribe edo Gregorio Urrutia, hiruak Uribetarren kideak, eskuindarrak.

Eskura daukagun dokumentazioaren arabera, esateko moduan gaude ona izan zela errefuxiatu hauen egoera Urdulizen. Herriaren galeraren osteko lehen alkatearen iritziz, aitaturako Manuel Uribe, Urdulizen errefuxiatu ziren “*(...) eskumako hainbeste jende, are preso egon ziren batzuk ere*”, udalerrian lasaitasuna arnasten zelako. Izan ere, horixe izan zen epealdi frankistako udalburuarentzat udalerrriaren ezaugarri nagusia gatazkak iraun zuen bitartean. Giro lasai horrek ahalbidetu zuen ideologia kontserbadoreko errefuxiatuak “*(...) bizi (ahal izatea) ezelango beldur barik, baita normalki pasiatzea ere, herriko giroak lagunduta, edozein atxiloketa klase saihestearen zeharo aldekoa zelako*”<sup>176</sup>.

Antzeko berbekin azaldu zuen Uriberen ondoren alkatetzan egon zen Amancio Nievak, Urdulizen gerra bitartean gertatutakoa:

*“(...) se significó como un pueblo hospitalario para con todas las personas de derechas, de aquí y de fuera que vinieron a refugiarse por creer que en esta localidad se encontraban más seguros como así fue, dándose el caso de no molestarnos lo más mínimo, a pesar de conocer nuestras ideas políticas que no nos recatábamos de demostrarlo(sic)”*<sup>177</sup>.

Zalantza barik, Udal agintariek ordenari eustean egindako lanari zor zaio elkarbizitza giro on hori. Pedro Goirigolzarri alkate ohiak, zinegotzi nazionalista izan baitzen gerra bitartean, azpimarratu zuen, nahiz eta:

*“(...) haberse duplicado el número de habitantes con huidos y refugiados, no se cometió el menor atentado contra personas ni cosas, desarrollándose la vida en la localidad sin incidente alguno como en los tiempos normales”*<sup>178</sup>.

176 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 azuia, Manuel Uribe Echevarriaren deklarazioa 1937-7-30.

177 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2478-38 azuia, Amancio Nievak egindako ziurtagiria Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko buruzagi gisa 1939-1-16.

178 I.F.A. 488-38 azuia, Pedro Goirigolzarri Arambalzaren deklarazioa 1939-4-5.

Goirigolzarrik 1939an auzipetua izan zenean bere defentsarako azaldu zuen “(...) bere eraginak inor ere ez gogaitzeko balio izan”<sup>179</sup> zuela. Haren portaera, gainera, ez zen gertaera isolatua izan. Urduliz galdu eta hilabete eta erdi ere igaro ez zenean, Manuel Uribe udalburu frankistak txosten batean aitatu zituen hainbat urduliztar nabarmendu zirenak “(...) atxiloketak saihesteko eta eskumako jendea babesteko lanetan”, eta geldiarazi zituztenak “(...) egon diren asaldatu gutxi horiek”. Aitatzan zuen, esaterako, Benito Otazua alkatea, Luis Navarro udal idazkaria, Serafin Sagarna abade nagusia, Evaristo Renteria udal epailea, Udaleko hainbat zinegotzi, herriko EAJko kideak edo Ordena Publikoko zaindaria<sup>180</sup>. Azken hauen ardura zen herrian zeuden eskuindarrak babestea, Amancio Nievak adierazi zuenez:

*“Los escopeteros (como así se les denominaba) se dedicaron en más de una ocasión a hacer guardia en casa de Sres. de derechas que estaban amenazados por elementos rojos de fuera de esta localidad”*<sup>181</sup>.

Antzeko hainbat testigantza daude Ordena Publikoko zaindarien euren eginak haien epaketetan. Urribetarren aipamena ia-ia etengabea da deklarazio horietan. Horren arrazoia da, zalantza barik, familia honek Urdulizekiko zuen lotura estua, gerra aurretik eta ostean zeukan lekua eta eragina; baita Manuel Uribe alkatez okupatu izana 1937ko ekaina eta iraila artean.

Juan Bautista Unibasoren ganean badakigu “(...) guardiak egiten egon (zela) (...) On Juan Uribe eta familiari”<sup>182</sup>. Juan José Camiruagaren lana izan zen “(...) ordena publikoaren zaindari gisa eskumako hainbat pertsona babestea haiekin inork gehiegikeriarik ez egiteko”, eta gehitu zuen: “(...) hainbatetan babestu dugun Uribe familiak honetaz fede eman dezake”<sup>183</sup>. Berriz, José María Bilbao Albonigak adierazi zuen zaindari moduan bere zereginetako bat zela “(...) eskumako jendearen segurtasuna bermatzea, horien artean On Manuel Uribe, On Juan Uribe eta On Gregorio Urrutia”<sup>184</sup>.

Urdulizen errefuxiatutako eskumakoei babesa emateaz gain, logikoki, elikagaiak eta erregaia eman zitzaizkien. Esate baterako, aitaturako Juan Bautista Unibasok agertu zuen eman zizkiola “(...) jatekoak eta egurra, eta babesa On Manuel Uriberi, On Gregorio Urrutiari eta On Juan Uriberi, beste batzuen artean, guztiak eskumako jendeak berak”<sup>185</sup>.

---

179 Ibíd.

180 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Manuel Uribe Echevarriaren deklarazioa 1937-7-30.

181 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2478-38 auzia, Amancio Nievak egindako ziurtagiria Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko buruzagi gisa 1939-1-16.

182 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Juan Bautista Unibaso Echeagarayren deklarazioa 1937-8-5.

183 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, Juan José Camiruaga Gorordoren deklarazioa 1937-12-29.

184 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, José María Bilbao Albonigaren deklarazioa 1937-8-5.

185 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Juan Bautista Unibaso Echeagarayren deklarazioa 1937-8-5.

Epealdi frankistako lehen bi alkateek azaldu zuten Urdulizen gerra aldian ez zela ez atxiloketarik ez salaketarik izan. Hartara, Amancio Nievak honako hau adierazi zuen: “(...) ez zen egon inongo suntsiketarik, harrapaketarik, krimenik, atxiloketarik edo salaketarik gorri-separatisten aldetik, eurak nagusi izan ziren hamaika hilabeteetan”<sup>186</sup>. Antzera berba egin zuen Manuel Uribek<sup>187</sup>. Alde horretatik, 1936ko azaroan Errepublikaren aurkakotzat jotakoen kontra *Euzkadiko Gobernuak* abiatutako errepresio ekonomikoak ez dirudi Urdulizko inongo bizilaguni eragin zionik, daukagun dokumentazioaren arabera; aurrerago berba egingo dugu horren gainean.

Agirre buru zuen kabineteak, Errepublikako Gobernuak egindakoari jarraituz, dekretu bidez agindu zuen ekonomikoki zigortzea “(...) Errepublikaren aurkako matxinatuen mugimenduan parte hartzeaz edo hari laguntza emateaz errudun” ziren herritarrek; hauei bere ondasun guztien “(...) nahitaezko desjabetzea” ezarriko zitzaien “(...) kalte-ordainik gabe, Euzkadiko Ogasunaren alde”. Dekretu hori aplikatzeko, udalerri bakoitzak Udal Batzorde Ikertzailea (UBI) delakoa eratzeko agindu zuen. Horren zeregina izango zen espedienteak irekitzea bizilagun edo auzotar bakoitzari noiz eta “(...) bere jokaera dela-eta matxinatuen mugimenduarekin elkar hartuta dagoela, edo hura prestatzen edo laguntzen dabilela, edo sustatzen duela edo edozein eratan haren alde egiten duela susmatzeko bidea dagoenean”. Jokaera hori frogatu beharko zen, dena dea, “lekukoak eta dokumentazio frogak” erabiliz. Gainera txosten bat gehitu beharko zen non batzordeak azalduko zuen bere iritziz ikertua “(...) Euzkadiko Behin-behineko Gobernuak sostengatzen duen Erregimenaren areriotzat, edo soilik aurkakotzat” hartu behar zen. Tokiko batzordeek egindako txostenak Saikapen Batzorde Nagusira bidali behar ziren, horixe zen-eta ikertutako pertsonaren ardura zehazteko erantzukizuna zuen erakundea<sup>188</sup>.

Batzorde horiek osatzeko araudiak ezartzen zuenez, lehendakari bat, idazkari bat eta hainbat bokalez osatuta egon behar zuen, eta Eusko Jaurilaritza osatzen zuten alderdi politikoei eta sindikatuek ordezkari bana izango zuten. Baina, Lorenzo Sebastián Garcíak adierazten duen legez, xedapen hori “(...) sarritan ez zen bete, batzuetan ordezkari falta zela eta (...)”<sup>189</sup>. Badirudi hori jazo zela Urdulizko Udal Batzorde Ikertzailean, hiru kidek eratuta egonik denak EAJko alderdikideak zirelako: Andrés Inchaurtieta, lehendakari kargua hartu zuena, Benigno Fullaondo, idazkari, eta Juan Bautista Unibaso, bokal moduan ziharduena.

186 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2478-38 auzia, Amancio Nievak egindako ziurtagiria Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko buruzagi gisa 1939-1-16.

187 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Manuel Uribe Echevarriaren deklarazioa 1937-7-30.

188 BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO (B.O.P.V.) 1936-11-7, Euzkadiko behin-behineko Gobernuaren Lehendakaritzaren Dekretua 1936-11-3.

189 SEBASTIÁN GARCÍA, Lorenzo: “La represión económica bajo el primer Gobierno Vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937)” in *Vasconia*, 29 zk., 1999, 169-184 (aipua, 176 or)



UBIko lehendakari izendatu zutela-eta, Andrés Inchaurtietak azaldu zuen 1937ko abuztuan, 1936ko abenduaren erdialdean egin zutela “(...) *bera bertan egon barik*”. Udaletxera deitu zuten bere izendapenerako, eta “(...) *iradoki zioten (...) kargua (...) onartzeko betebeharra*”<sup>190</sup> zuela.

1936ko azaroaren 7an *Diario Oficial del País Vasco* delakoan argitaratutako Dekretuaren araei jarraituz, Udal Batzorde Ikertzaileak hiru egunetan osatu behar ziren, Dekretua aitaturako Egunkari Ofizialean argitaratzen zen datatik hasita<sup>191</sup>. Hala eta guztiz ere, abenduaren erdialdean Nekazaritza Sailaren beste Dekretu bat argitaratu zen eta bertan jasotzen zenez, batzorde hauen eta Saillkapen Batzorde Nagusiaren osaera eta funtzionamendua atzeratzen ari ziren, gerrak ekarritako zailtasunen ondorioz. Ostera, presako kontua zen atzerapen horri irtenbidea ematea eta Errepublikaren aurkakoen nekazaritzako lurren konfiskazioari ekitea, laster zetorrelako baserritarrek baserrien eta lursailen jabeen tradizionalki errentak ordaintzen zizkieteneko urteko garaia. Nekazariak, alokairua ordaintzeko eginbeharra betetzean, konfiskazio prozesuaren bidez altxor publikoarenak izan zitezkeen kantitateak “*zeharka edo gura barik*” lapurtu ez zitzaizten, agindu zitzaizkien errentarik ez ordaintzeko jabe edo administratzaileei eta UBlari kontsulta egiteko alokatutako eraikin eta lursailen jabea matxinatu edo aurkakoa zen. Horretarako, zortzi eguneko epea eman zitzaizkien errentadoreei, abenduaren 13tik hasita, egun hartan argitaratu zen-eta dekretua Egunkari Ofizialean<sup>192</sup>.

Urdulizko Udal Batzorde Ikertzailearen (UBI) zeregina baloratzeko orduan kontuan hartu behar dugu erakunde honek egindako hiru espediente baino ez ditugula ezagutzen: 1. espedientea, Salabert y Arteaga jaunen aurka irekia; Torrecillako markesak ziren eta Euskal Herritik kanpo bizi ziren; euren Urdulizko jabetzak José Bilbao izeneko administratzaile batek kudeatzen zituen, Plentziako bizilaguna *bera*<sup>193</sup>. 2. espedientea, Adolfo G. de Careagaren aurka; Iraolaga baserriaren jabea zen, zeinaren errentaren kudeatzaile zen Ángel Xpe<sup>194</sup>. Eta 4. espedientea, María del Carmen Ibarri irekia; Sevillako bizilaguna zen eta Elizateari alokatutako hainbat terreno zituen<sup>195</sup>. Beraz, UBI urduliztarrak gutxienez lau espediente abiatu zituen, baina hirugarrena ezin izan dugu topatu. Burura datorkigun itauna da ea erakunde horren jarduna lau espediente horietara mugatu zen, edo zabalagoa izan zen eta zehaztu ezineko espediente kopuru bat guganaino iritsi ez diren. Gorde den dokumentazioa kontuan hartuta, esateko moduan gaude Barrika eta Sopela aldameneko herrietako Udal Batzorde Ikertzaileen

---

190 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Andrés Inchaurtietak Arambalzaren deklarazioa 1937-8-5*.

191 B.O.P.V. 1936-11-7. *Euzkadiko behin-behineko Gobernuaren Lehendakariaren Dekretua 1936-11-3*.

192 B.O.P.V. 1936-12-13, *Nekazaritza Sailaren Dekretua 1936-12-10*.

193 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 93, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea “Salabert y Arteaga” jaun-andreei 1936-12-20 / 1937-2-17*.

194 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1417, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea On Alfonso G. de Careagari 1936-12-20 / 1937-2-17*.

195 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1417, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea María del Carmen Ibarri andreei, 1937-1-2 / 1937-2-17*.

jarduera handiagoa izan zela, 12 eta 10 espediente abiatu baitzituzten, hurrenez hurren. Errepresio frankistari buruzko atalean ikusiko dugun legez, tokiko UBla osatzen zuten Urdulizko hiru bizilagunak atxilotuak eta auzitegi militar batek epaituak izan ziren, eta itaunketa egin zitzaizen aitaturako batzordean izan zuten jarduerari buruz. Ulertzekoa denez, urduliztar horien deklarazioak kontu handiz hartu behar dira, testuinguru antidemokratiko batean eman zirelako. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu horiek azaldutakoa bat datorrela Urdulizko errepresioa norainokoa izan zen ezagutzeko aztertu dugun dokumentazioko deklarazio eta testigantza multzoarekin. Alde horretatik, Batzordeko lehendakariak eta baita idazkariak ere azaldu zuten “*eskumakoak*” lagundu zituztela euren Udal Batzorde Ikertzaileko zereginen barruan<sup>196</sup>. Berbarako, Andrés Inchaurtietak deklaratu zuen bere batzordearen egitekoa izan zela “(...) *gauzak azaletik baino ez egitea, eskumakoei laguntzen saiatuz*”<sup>197</sup>.

Urdulizko, Sopolako eta Barrikako Udal Batzorde Ikertzaileek euren ibilbideari hasiera eman zioten Torrecillako markesei espedientea irekiz<sup>198</sup>. Hiru herri haueko erakunde ikertzaileek hasitako prozesu guztiek Nekazaritza Sailak 1936ko abenduaren 10ean ateratako Dekretuaren gidalerroei jarraitzen diete: hala, maizterrek Tokiko Batzorde Ikertzailearen aurrean aurkezten zuten euren burua eta eskatzen zioten euren egoera ebazteko errentaren ordainketari dagokionez, hau da, zehatz zezaten jabea edo administratzailea erregimen errepublikanoaren aurkako matxinatutzat edo aurkakotzat har zitekeen edo ez. Hiru udalerrri haueko espediente gehienetan baserriarrek azaltzen zuten mehatxuak eta indarkeria jasan zituztela 1936ko otsaileko hauteskundeetan eskumako hautagaitza bozkatzeko, baina halaber azaleratzen ziren jabe eta maizterren arteko desadostasunak errenta legez ordaindu beharreko zenbatekoen inguruan; askotan adierazten zen alokairuaren igoerak ez zuela errentadore hauek bizi ziren baserrietan inolako hobekuntzarik ekarri.

Gordetako dokumentazioa kontuan hartuz, esateko moduan gaude, zuhurtziaz, Urdulizko UBla Barrika eta Sopolakoa baino onberagoa izan zela. Hartara, herri hauean, aurrerago ikusiko dugun legez, bizilagun eta kanpotarren aurkako espedienteak ireki ziren, zenbaitetan, nolabaiteko ezinikusia tarteko zegoela. Urdulizko Batzordeak, berriz, udalerritik kanpora bizi ziren ideologia kontserbadoreko jabeak ikertzeraz mugatu zuen bere jarduna; izan ere ez da ageri Urdulizen bizi zen inolako jaberaren aurka espedienterik ireki zenik.

1936ko abenduaren 20an, Urdulizko lau bizilagun aurkeztu ziren Udal Batzorde Ikertzailearen aurrean. Alde batetik, José Urrutia Madariaga eta Agustín Bilbao, Dobaran auzoko Dobaran Goici baserriko errentadoreak. Bi maizterrek “(...) *urte asko*” zeramatzaten Salabert eta Arteaga jaun-andreen jabetzako baserri

196 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Benigno Fullaondo Lopateguiren deklarazioa* 1937-8-5. Fullaondok deklaratu zuen idazkari moduan egindako beharrean “(...) *eskumakoen alde egiten ahalegindu*” zela.

197 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Andrés Inchaurtietara Arambalzaren deklarazioa* 1937-8-5.

198 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 93, 1, 107, *Salabert Arteaga, E. Torrecillako markesa aurkakoa deklaratzeko espedientea, Sopolako Udal Ikerketa Batzordeak igorria*, 1937.

horretan bizitzen, eta jakin gura zuten ea horiek matxinatutzat edo aurkakotzat hartzen ziren ala ez, ordura arte egin zuten bezala errenta ordaintzeko edo “(...) *judizialki gordailu gisa laga*” eta itxaron Batzordearen ebazpena jakinarazi arte, “(...) *jakiteko zein den euren egoera ordainketa moduari buruz*”. Beste alde batetik, José Urrutiak eta Agustín Bilbaok euren kezka azaldu zuten “*erantzunbeharren batean ez ote zeuden*”; izan ere, Salabert eta Arteaga jaun-andreek “(...) *eta euren enplegatuek*”, eskumako hautagai-zerrenda bozkatzeko esan omen zieten 1936ko otsaileko hauteskundeetan. 1937ko urtarrilaren 7an aho batez proposatu zuen, zeuden frogak kontuan hartuz, Salabert eta Arteaga jaun-andreak “(...) *Euzkadiko Behin-behineko Gobernua sostengatzen duen erregimenaren*” aurkakotzat jotzeko. Errentadoreen testigantzak balio izan zuen baieztatzeko “(...) *publikoa eta nabarmena*” zela Urdulizen Salabert eta Arteaga jaun-andreak aurkakoak zirela euren “*eskumako filiazioa*” dela bide, eta euren errentadoreak eskumako hautagai-zerrendari botoa ematera behartu zituztelako “(...) *egiten ez bazuten baserrietatik botako zituztela*” mehatxatuta<sup>199</sup>. Arestian aitatu dugunez, Sopela eta Barrikako batzordeek ere Salabert y Arteaga jaun-andreak izan zituzten euren lehen espedienteen protagonista. Hala eta guztiz ere, Barrikako batzordeak erabilitako argudioak desberdinak dira Urdulizkoaren eta Sopolakoaren aldean; badirudi kasu honetan konpondu gura zutena *Barrika Baso* mendiaren jabetzaren inguruko auzi bat zela, Torrezillako jaunen esku egonik XIX. mende erdialdetik, kostaldeko Elizateak erreklamatzan baitzuen<sup>200</sup>.

Abenduaren 20an UBIaren aurrean deklaratu zuten beste bi urduliztarrak Antonio Olea Bilbao eta Pascasia Ugarte Echevarria izan ziren, Alfonso G. de Careagaren *Iraolaga* baserriko errentadoreak. Horren alokairuagatik “(...) *berrehun pezetako errenta dirutan*” ordaintzen zuten urtero. Aurreko kasuan legez, Oleak eta Ugartek jakin gura zuten “(...) *ea jabeak matxinatu egoera daukan edo ustezko Erregimenaren aurkakoa den eta ea ezaugarri horiek bere ezkontidearengana zabaltzen diren*”, ordura arte legez errenta ordaintzeko helburuarekin, “(...) *edo kontrara judizialki gordailu gisa laga Batzordearen ebazpena jakinarazi arte ordainketa modua zehaztu ahal izateko*”. Gainera, bi urduliztarrek adierazi zuten “(...) *aitatutako jabe horrek, Elizate honetan egin diren hauteskundeetan, eskumako hautagai-zerrenda bozkatzera behartu*” zituela<sup>201</sup>.

---

199 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 93, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea “Salabert y Arteaga” jaun-andreei* 1936-12-20 / 1937-2-17.

200 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 93, 1, 107.

201 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1417, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea On Alfonso G. de Careagari*, 1936-12-20 / 1937-2-17.

UBLak aho batez erabaki zuen Alfonso G. de Careaga erregimen errepublikanoaren aurkakotzat jotzea, honako hau argudiatuz:

*“La mayoría de los vecinos de la Anteiglesia de Urduliz, así como la Junta Municipal Investigadora, le consta a ciencia propia que el propietario D. Alfonso G. de Careaga es desafecto al régimen y presunto responsable, sabiendo que el mismo obligaba con amenazas a sus inquilinos a votar por la candidatura de derechas en cuantas elecciones se han celebrado en el pueblo”<sup>202</sup>.*

Urdulizko UBLak irekirik ezagutzen dugun azken espedientea 4. a dugu. 1937ko urtarrilaren 2an abiatu zen, Sevillako bizilaguna zen María del Carmen Ibarren lurretako errentadore hauen deklarazioarekin: Pedro Erdeide Odriosolo, Martín Ugarte Ansoleaga, Pedro López Santín, Juana Videa Bilbao, Juan Inchaustieta Arambalza eta José Bilbao Urrechaga. Arestian deskribatutako kasuetan legez, bizi lagun hauek jakin gura zuten ea Ibarra “matxinatutzat” o erregimen errepublikanoaren aurkakotzat hartzen zen, errenta ordaintzeko edo judizialki gordailu gisa lagatzeko. Aurkeztu ziren bizilagunek ziurtatu zuten bazeukatela “(...) nahikoa arrazoi susmatzeko jabe hau erregimenaren aurkakoa dela eta, hortaz, erantzukizunpean dagoela”, besteak beste, haren filiazio monarkikoa, “(...) eskumako alderdien harpidetzetan lagundu” izana, eta Urdulizen egin diren “(...) hauteskunde guztietan”, Ibarrek bere administratzaile edo agenteak bidali zituelako maizterrak behartzera “(...)berari interesatzen zitzaion hautagai-zerrendari” botoa eman zezaten. Esku artean datu hauek edukita, urtarrilaren 7an, UBLak aurkakotzat jo zuen María del Carmen Ibarra; ez zekiten non zegoen, “(...) ustez Sevillan, eta jakin badakigu laguntza ekonomikoa eman diola egun sufritzen dugun matxinatuen mugimenduari”<sup>203</sup>.

Urdulizek hartu zituen eskumakoen kopuru zehatzari buruz, ez daukagu nahikoa datu hurbileko zenbaki bat emateko. Aldiz, badakigu, lehenago esan dugunez, horietako batzuk Urribetarrekin eta Estradetarrekin nolabaiteko familia-lotura zeukatela. Beste errefuxiatu batzuek Urdulizen amaitu zuten herriko ezagunekin egin zituzten gestioak zirela-eta. Hori izan zen hain zuzen ere Daniel Oñate Landa getxotarraren emazte eta seme-alaben kasua. Ingeniari industrial hau Getxoko Arkotxa kaleko bere etxean ezkutatu zen bere ideia espainolistengatik jazarria izan zenean. Bere kontakizunaren arabera, etxean aurkeztu zitzaizkion “(...) F.A.I.ko<sup>204</sup> gizaseme batzuk, asmatzen erraza den helburua zutenak”. Atxilotua izan zenean, Urdulizko bizilagun José Vicente Garaizar Larrazabalek “(...) Getxoko Komite deiturikoaren aurrean hainbat gestio egin zituen”, eta aske uztea lortu. Oñatek Garaizarri eskatu zion “(...) Urdulizko bere etxearen

202 Ibid.

203 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1417, *Urdulizko elizateko Udal Batzorde Ikertzailearen espedientea María del Carmen Ibarra andreari, 1937-1-2 / 1937-2-17*.

204 F.A.I. Federación Anarquista Ibérica-ren akronimoa.

*solairu baten lagapena*<sup>205</sup>, “*Villa Rufina*”<sup>206</sup> deiturikoarena, “(...) nire emazte eta seme-alabei jazarpen honen ondorio desatseginak ekiditeko” asmoz. Garaizar, “(...) egoeraz konturaturik”, Daniel Oñateren eskaera onartu zuen, “(...) nahiz eta lehenago ahoz beste familia bati eskaini izan”<sup>207</sup>.

Luis Estraderen aurka irekitako auziko dokumentazioari esker ezagutzen ditugu Villa Odonan, Estrade-Aldatarrek udak igarotzen zituzten etxean, hartu zituzten pertsona batzuen izenak<sup>208</sup>. Dokumentu horietako bat da F.E.T. y de las J.O.N.S.en Bizkaiko Ordezkaritzak egindako txosten bat, non adierazten zen Luis Estradek izan zituela “(...) eskumako 18 pertsona ezkutatuta, horien artean hainbat militar”<sup>209</sup>.

Baina informazio gehiena lekukoek deklazioei esker daukagu. Esate baterako, Luis Estraderen lehengusu Isidoro de la Gandarak kontatu zuen bere ama elbarria eta familia osoa “(...) ezkutatuta egon” zela Villa Odonan, “(...) baita ni ere, Armadako Ofiziala, ezkutatu nintzen bertan, frontean zerbitzurik ez emateko”. Guztira, hamar hilabetez egon ziren bertan aterpetuta<sup>210</sup>. Isidoro de la Gandararen aita ere, José Luis de la Gandara, Luis Estraderen osaba politikoa beraz, errefuxiatu zen Estradetarren udako etxean<sup>211</sup>.

Manuel Ozamiz Moreno ere, Luis Estraderen koinatua eta Artilleriako Tenientea berau, “*Villa Odon*”n bizitzen egon zen eta 1939ko azaroan kontatu zuenez, “(...) gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran (...)” Estrade-Aldatarren udako egoitzan “(...) jazarriak ziren eskumako hainbat pertsona ezkutatuta egon ziren, eta horietako batzuk, Costales eta Gómez Olea gazteak legez (...), Santandertik ihes egindakoak ziren”<sup>212</sup>.

---

205 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Daniel Oñate Landaren lekukotasuna 1937-8-4*.

206 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, *Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrenda. 1936-9-15*. Zerrenda honetan José Vicente Garaizarren aitaren izena agertzen da, Tiburcio Garaizar Unibaso, familia-buru moduan, eta familiaren etxearen izena, “*Villa Rufina*”.

207 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Daniel Oñate Landaren lekukotasuna 1937-8-4*.

208 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, *Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrenda. Udatiarrak 1936-9-15*.

209 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Luis Estrade Aldaren gaineko txosten politiko soziala, Bizkaiko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Informazio Ordezkaritzak egina 1939-12-11*.

210 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Isidoro de la Gandararen deklarazioa 1939-10-28*.

211 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *José Luis Gandara Ustararen deklarazioa 1939-10-28*.

212 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Manuel Ozamiz Morenoren deklarazioa 1939-1-2*.

Antonio Uribe Guimón, Rafael Uribe nazionalistaren semea, Urdulizen geratu zen gerra bitartean, bere gainerako familiaren antzera<sup>213</sup>. Aurreko lekukoek legez, Antonio Urbek adierazi zuen Estradetarren etxean bizi izan zela “(...) eskumako pertsona ugari ezkutatuta” eta aitaturako Luis Estradekek bazekiela “(...)beste etxe batzuetan ezkutatutako pertsonak zeudela. Ni, barbarako, egunero ikusten ninduen, baina sekula ez zuen inor salatu, ezta pertsona haiei buruzko aipamenik egin ere”<sup>214</sup>.

“Villa Odon”ko kasuaz gain, eskuindarrei aterpe emandako beste etxe batzuk dokumentatu ditugu. José Ramón Iturriaga Libaronak bere etxean, “Villa Bernarda”<sup>215</sup> deitutakoan, hartu zituen “(...) Bilboko eskumako senar-emazte batzuk”.<sup>216</sup> Rafael Uribe Uriartek, berriz, ezkutatuta eduki zuen Torre-Barri-an bere iloba, Luis Villabaso Zabaleta industrial bilbotarra. Villabasok kontatu zuenez, “(...) bere osabak babestu zuen eta eduki zuen (...) ezkutatuta hainbat hilabetez”, eta horri esker “(...) bere bizitza salbatu ahal izan zuen”. Denbora bat igarota, “Torre-Barri” laga behar izan zuen eta, bere osabaren bitartez, baserri batean ezkutatu zen. Luis Villavasoren aburuz, Rafael Uribe nazionalista izatea erabakigarria izan zen “(...) deklaratzailerean aurka bizi zen jazarpenari ihes egiteko”.<sup>217</sup> Rafael Uriberen itzalak beste senitarteko eskuindar bati laguntzeko balio izan zuen: Ramón Uribe Echevarria. Manuel Uriberen arabera, “(...) Rafael Uribe y Uriarteren ekimenez (...)” Ordena Publikoko zaindarien “(...) zaintza egin zioten denbora luzez On Ramón Uriberi (...)”. Aitaturako Villabasok ere jaso zuen babesa. Kasu honetan Pablo Menchaca Larauogoitia izen zen “(...) guardia partikularra egin” zuena<sup>218</sup>.

Zaintza hauen xedea zen Urduliztik kanpoko pertsonak inongo atxilotetarik ez egitea herrian. Esate baterako, Serafín Sagarna abadeak honako hau kontatu zuen Francisco Asla Goirigolzarri ertzainari buruz:

*“(...) consiguió, por tres veces volvieron a Bilbao gentes, que con intenciones dañinas venían en automóvil a detener al actual Alcalde D. Manuel Uribe y Echevarría, de significación muy derechista”<sup>219</sup>.*

213 Antonio María Uribe Guimón, bere gurasoek Andoni Mirena inskribatu zutena, Carmen Ormaechearekin ezkondu zen Urdulizko Andra Mari parrokian, 1937ko maiatzaren 15ean (B.E.H.A. EZKONDUAK URDULIZ, 5. Liburua, 179 bis or.). Euskadi galdu ostean, armada frankistan borrokatu behar izan zuen, Infanteriako sarjentu osagarri.

214 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Antonio Uribe Guimónen deklarazioa 1939-11-2.

215 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrenda 1936-9-15.

216 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, José Ramón Iturriaga Libaronari buruzko ziurtagiria, Urdulizko alkate Manuel Urbek egina 1937-9-2.

217 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, Luis Villabaso Zabaletaren deklarazioa 1937-9-2.

218 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Manuel Uribe Echevarriaren deklarazioa 1937-7-30.

219 A.I.M.N Arabako funtsa, 2479-38 auzia, Serafín Sagarna Amorrorturen testigantza 1937-10-8.

Elizgizonaren kontakizunari jarraituz, Francisco Asla berak:

*“(...) requerido por el Sr. Secretario registró (...) un automóvil que, con gente comunista vino a la Campa con intención, al parecer de detener a otro escondido en casa de Rafael de Uribe llamado Don Luis Villabaso, derechista”<sup>220</sup>.*

Beste alde batetik, Urdulizko abadearen testigantzak iradokitzen du zelanbaiteko antolaketa egon zela udalerrian ezkutatuta zeuden pertsona eskuindarrak babesteko. Serafín Sagarna eta abade lagunkideak, José Adalberto Mañaricuak, eskuindar bi zeuzkaten ezkutatuta Urdulizen, *“(...) urrutiko pinudi batean”*. Antza, ez zen ez ohiko zeozer: Sagarnak Fidel Cadiñanos de Ochoaren aipamena egin zuen *“nire gomendatu eta ezkutatu”* legez; hortaz ondorioztatu dezakegu apaizak gizon haren etorkizunaren gaineko zelanbaiteko konpromisoa hartuta zeukala. Antzera (*“gomendatu eta ezkutatu”*) berba egin zuen Plentziako lagunkideak bere kargu zuen Barakaldoko gizonaz<sup>221</sup>.

Sagarnak bere testigantzan kontatu zuen Plentziako abade lagunkidearen atxiloteta, 1937ko apirileko egun batean jazo. Egun hartan, aitaturako pinudian abade biek ezkutatuta zeuzkaten eskuindar biak bisitatzerako joan ziren. Iluntzean:

*“(...) al acompañar al Sr. Mañaricua a la estación del tren, juntamente con el Sr. Secretario de este Ayuntamiento, cerca de la Campa, paró un automóvil, bajó un sujeto y con pistola en mano nos cacheó a los tres y detuvo al mencionado Sr. Mañaricua, llevándole inmediatamente en el automóvil; temiendo que la detención de dicho Sr. tuviera relación con nuestra visita a los escondidos en el pinar, el Sr Secretario y su servidor pusimos el caso en conocimiento de FRANCISCO ASLA GOIRIGOLZARRI, quién inmediatamente requisó dos automóviles del pueblo y con gente armada y temiendo le llevaran a Portugalete en donde, después de un simulacro de juicio eran condenados a muerte, recorrieron todas las carreteras, y convencidos de que le llevaran a Plencia, allí fue con su gente y no paró hasta que el antes dicho Sr. Mañaricua saliera de las garras de los rojo-separatistas y se reintegrara a su casa”<sup>222</sup>.*

Plentziako lagunkidea ez zen izan, itxuraz, atxilotutako apaiz bakarra inguruan. Lemoizko abadea, Benito Apraiz, bere testigantza arabera, atxilotu zuten *“(...) Plentziako Fronte Popularreko gizasemeek”*, eta susmatzen zuen bere atxiloteta ekarri zuen salaketa *“(...) Lemoizko Komiteko kideengandik”* zetorrela<sup>223</sup>. Norabide berean adierazi zuen Lemoizko udal frankistak, adierazi zuenean abadearen atxiloteta egin zutela *“(...) Plentziako Komiteko milizianoek”*,

---

220 Ibíd.

221 Ibíd.

222 Ibíd.

223 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 969-38 azuia, *Anastasio Anchutegui Ansoleagaren aurkako azuia. Benito Apraiz Torrecuriren deklarazioa 1938-8-5.*

zeinek, elizgizonari itaunketa egin ostean, eta ikusiz “(...) salaketak faltsuak zirela”, libre laga zuten, eta ohartarazi “(...) ez predikatzeko ezta etxetik irteteko, heriotzaraino jazarria izango zelako”. Lemoizko udalbatza frankistaren kontakizunaren arabera, Apraiz “(...) berriro ere salatu zuten Segurutasunaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, Euskal Herriaren nahien aurkakotzat, eta horregatik 250 pezetako isuna eta etxeko espetxeratze arindua ezarri zizkioten”; salaketa hori Lemoizko EAJri leporatzen zioten<sup>224</sup>. Akusazio horren egiazkotasuna zalantzan ipini genezake, kontuan hartuta alderdi jeltzalearen katolizismo sakona, baina ezin dugu ahaztu 1936ko otsaileko hauteskunde-konpainan desadostasunak egonak zirela apaiza eta Lemoizko nazionalisten artean, Euzkadi egunkarian argitaratutako artikulu batean ikus daitekeen legez. Artikulu hartan argi geratu zen bertoko jeltzaleen haserrea Apraizekin, eskumako hautagaitzaren alde jarri zelako<sup>225</sup>.

Barrikan, Udal Batzorde Ikertzaileak, José Menchaca alkate nazionalista buru zuela, ez zuen arazorik izan Jesús Bilbao Ojinaga abadea aurkakotzat hartzeko. Hura herrian jaiotakoa eta bertoko bizilaguna zen, “*Martacuena*” izeneko etxearen jabe. 1937ko otsailaren 12an, Paula Bilbaok eta María Gorrochateguik, etxe hartako errentadoreek, Batzordearen aurrean deklaratu zuten. Lehenengoak adierazi zuen egun batzuk lehenago abadearekin eztabaida izan zuela “(...) *finkako patineko uraren aprobeixamendua dela-eta*”. Deklaratzaileak esan zuenez, elizgizonak mehatxu egin zion kenduko zizkiola “(...) *lurrak urtarrilaren batetik aurrera*”, eta gehitu zuen “(...) *emakumea sano “gorria” bazen ere, txoria airean*” zebilela. Itxuraz, jabearen eta errentadorearen arteko desadostasunak 1935ean hasi zirela, abadeak igo nahi izan zuenean “(...) *etxebizitzaren kuota inongo hobekuntzarik egin barik eta kontuan hartu barik haiek lurretan egindako hobekuntzak*”. Beste errentadorearekiko desadostasunak hasi ziren apaizak etxebizitzari hobekuntzak egiteari eta ortua alokatzeari uko egitean. Gorrochateguik zioenez, Jesús Bilbaok mehatxu egin zion zeuzkan lurrak kenduko zizkiola. Bi bizilagun hauek esandakoek balio izan zuten batzordeak abadea aurkakotzat hartzeko, “(...) *kontuan hartuta erabili zuen mespretxuzko esamoldea*” Paula Bilbaorekin; hortaz “(...) *ondorioztatu daiteke zalantzan jartzen dela Gobernuaren garaipena eta itxaroten duela gure etsai faxistek irabaztea errentadoreetako bati alokairuan dituen lurrak kentzeko*”<sup>226</sup>. Barrikako UBIaren ondorio hauetatik atera daiteke, apur bat lehenago adierazten genuenez, gehiegizko ardura bat bere jarduketan, edo Lemoizko abadearen kasuan legez, gerra aurretik zetorren arazoren baten isla ere bai.

224 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 969-38 auzia, *Anastasio Anchutegui Ansoleagaren aurkako auzia. Benito Apraiz Torrecuriren deklarazioa* 1938-8-5.

225 *Euzkadi* 1936-3-6.

226 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona, 1450, 11. Barrikako Udal Batzorde Ikertzaileak Jesús Bilbao Ojinaga abadeari irekitako espedienteak, 1937-2-12/ 1937-3-23.



Eskualdean aterpea bilatu zuten sexu biko erlijiosoei dagokienez, gutxienez hiru kasu dokumentatu ditugu, horietako bat Urdulizen eta bi Barrikan. Telesforo Beascochea Oar abade urduliztarra, Elorrioko San Agustín elizako erretorea, bere sorterrira itzuli zen “(...) 1936ko urriaren erdialdean”, eta Juan Bautista Aldecoaren etxean, “Anson-Barri”n, geratu zen, “(...) *tropa nacionalen askapena arte*”<sup>227</sup>. Barrikako aterpetxera Portugaleteko Nuestra Señora del Carmen Ikastetxetik zetozen sei moja heldu ziren irailaren 9an, hiribildu hartako agintariek alde egitera behartu ostean<sup>228</sup>. Bestalde, 1942an “Auzi Orokorra” delakorako Barrikako udalak egindako txostenaren arabera, udalerrri horretan babesa hartu zuen “*Mariaren Bihotzeko Aita baitek (...) langilez jantzita*”, era honetan lortu zuelarik “(...) *bere atzetik zetozenei ixkin egitea; herri honetatik kanpoko jendeak ziren, jakina*”<sup>229</sup>.

Zibilen atxiloketei dagokienez, arestian adierazi dugu dauden testigantza guztiek ziurtatzen dutela ez zela ez atxiloketarik ez salaketarik izan, gerra-garaian, Urdulizko agintari eta bizilagunen aldetik. Plentziako egoera ez zen ezberdina izan, atxiloketa bakarrak hiribildutik kanpoko jendeak egin baitzituen. Berbarako, 1936ko irailaren hasieran, “(...) *San Antolin, Plentziako zaindaria, igaro eta gutxira*”, Fidel Sendagorta zinegotzi ohi monarkikoa atxilotu zuten, bere seme Enrique Sendagortak bere memoriatan kontatzen duenez. Atxiloketa egin zuten “(...) *pistolaz eta mosketoiez armatutako gizon batzuek; bat, uhalak, kartutxerak eta punta biko txanoa jantzita, eta bestea, besokoa eta armak baino ez zituela*”. Arestian aitatu dugun Plentziako abade lagunkidearen kasuan legez, Sendagorta atxilotzearen ardura izan zutenak ez ziren Plentziako bizilagunak izan, ezpada “(...) *egun horietan Bizkaian zehar zebiltzan talde marxista edo anarkista horietako bateko kideak, erabat kontrol barik, gehiegikeriak eta hilketak egiten ibil zirenak*”. Zinegotzi ohia “(...) *Bilboko Correo kalean zegoen txeka komunista batera*” eroan zuten, eta bertatik “(...) *jada atxilotu ofizial legez, Bilbainara eroan zuten, iragaitzazko kartzela edo preso politikoen kontzentrazioarako presondegi moduan antolatua zena*”. Azkenean aske laga zuten, gorputza erabat ubeldurik. Jazoera horren ostean, Fidel Sengadorta eta bere familiak altxatuaren kontrolpeko eskualdera ihes egitea lortu zuten<sup>230</sup>. Ez zuen zorte bera izan Juan Landa Pérez tradizionalistak, Plentziako marinela bera, 1936ko irailaren 25ean bere herrian atxilotu zutena CNTko milizianoek eta Bilbora eroan zuten “*kuartelera*”. Geroago Casa Galeran espetxeratu zuten, eta bertan erahil, 1937ko urtarrilaren 4ko presoan sarraskian<sup>231</sup>. Barrikan, 1942an bertoko udalak egindako txostenean azaldu zenez, 1936ko urrian atxiloketa saiakera bat egon zen. Hilabete

---

227 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak egindako ziurtagiria 1937-11-22*.

228 CHAVARRI, Susana: *Fundación Elorduy: 100 años de historia*, Bilbo, Fundación Elorduy, 2014, 88-89. Lan horren egileak dioenez, Barrikara joan ziren mojek “(...) *ez zuten habitua aldatu eta arropa sekularra jantzi*”. Berriz, Portugaleteko El Karmen ikastetxeko beste taldeari horixe gertatu zitzaion Bilbora aldatu zirenean.

229 ARTXIBO HISTORIKO NAZIONALA (A.H.N.) *1332 auzi orokorra*, 4. esp., *Barrikako alkatearen txostena 1942-7-23*.

230 SENDAGORTA, Enrique de: *¡Aquí estamos! Recuerdos autobiográficos de mi familia y mis tiempos*, Salamanca, Kadmos, 2008, 106-122.

231 A.H.N. 132. auzi orokorra, 16. esp. *Juan Landaren alargun Juana Martínezen deklarazioa 1942-9-18*.

hartan kostako udalerrian Portugaleteko “txeka” delakoaren auto bat azaldu zen, Bernabé Hormaza Olaguibel, Barrikako bizilaguna, atxilotzeko agindua zekarrena, baina azkenean ez zuten helburua lortu<sup>232</sup>. Hormaza Barrikako alkatea izan zen Primo de Riveraren Diktadura bitartean eta 1931ko apiriletik 1933ko urtarrila bitarte<sup>233</sup>, eta Euzkadiko Gobernuaren Osasun-Kontseilariari zuzendutako eskutitz batean (1937-1-13) salatu zuen “*politika zehatz bateko gizasemeek*” matxinatutzat jo zutela eta “(...) *hainbat aldiz barkura eramaten saiatu*” zirela; gehitu zuen “(...) *defendatu zuena herriko UGTk zeukan ordezkari bakarra* (izan zela), *Antonio Unibaso*”. Eskutitz hau herriko Udal Batzorde Ikertzaileak ireki zion espedientearen parte zen, lau errentadore zeuzkan *Urtiena* lurretako ugazaba baitzen. Azkenean aurkako izendatuko dute 1937ko martxoan. Halaxe egin zen, UBlak ezelango ziurtasunik ez bazeukan ere Hormaza inongo alderdi politikoren kide zen edo ez; jarraian ziurtatzen zuen, oster, alkate ohiaren jarduera politikoak beti eroan zirela “(...) *eskumako gizasemeen itzalpean*”<sup>234</sup>. Itxura guztien arabera, batzorde ikertzaile barrikatarraren portaera bertako nazionalistek Bernabé Hormazarekin, gutxienez 1934aren erdialdeaz geroztik, zeukaten gatazkaren beste pasarte bat izan zen<sup>235</sup>.

Eskualdeko eskumakoen atxiloketen kontua ixtearren, gutxienez Sopelako hiru bizilagun espetxeratuak izan ziren Bilboko Karmeldegiko presondegian. 1936ko azaroaren 28an kartzela bilbotarrean sartu ziren 26 urteko Juan Quintana Basauri merkataria eta 23 urteko Genaro Legarra Bengoechea,

---

232 A.H.N. 132. auzi orokorra, 4. esp., *Barrikako alkatearen txostena 1942-7-23*.

233 1931n, haren alkate izendapena ez zen herri-bozketaren ondorioz izan, Hauteskundeei buruz orduan indarrean zegoen Legearen 29. artikulua ondoz bete zuten kargua.

234 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1450, *Barrikako Udal Ikerketa Batzordeak Bernabé Hormaza Olaguibel erregimenaren aurkako deklaratzeko espedientea* (10. espedientea), 1937ko martxo. Udal Batzorde Ikertzailearen txosten luzeak mezu bi bidaltzea ekarri zuen Hormazaren aldetik: aipatutakoa, Euzkadiko Behin-behineko Gobernuko Nekazaritza sailburuari zuzendua (1937-1-13), eta bestea Saillkapen Batzorde Nagusira igorria (1937-2-6). Azken horretan, alkate ohiak, bere burua defendatu ez ezik, oso salaketa zehatzak jaulki zituen Barrikako Udal Batzorde Ikertzaile horretako zenbait kideren gainean.

235 Gutxienez ere 1934ko maiatzaz geroztik, gatazka dago Barrikako udal nazionalistaren eta Hormazaren artean. Aurkako deklaratzeko espedientearen alkate ohiak afixa bat gehitu zuen, 1934-5-15ekoa; bertan, Barrika Baso mendia udalerrira bueltatua izan zedin egindako lanak defendatzen zituen. Urte hartako irailean, Barrikako Udalaren dimisioa gertatu zen, eta horren harira, *Euzkadi* egunkariko orrietatik, Gobernuaren Batzorde Kudeatzailea izendatzerakoan Hormazak egindako “trikimailuen” gainean ipini zuten hatza. Informazio horiek *Aulestik* sinatuta etorri ziren 1934-9-15ean, egunkariaren Barrikako korrespontsalak, eta alkate ohiaren erantzuna ekarri zuten *El Pueblo Vasco*ren orrietan (1934-9-17). Horren ostean zenbait mezu gurutzatu ziren (*Euzkadi* 1934-9-20, *El Pueblo Vasco* 1934-9-25, *Euzkadi* 1934-9-28). Urriko Iraultzaren eztaidak eta haren ondorioek (prentsako zentsura, alderdi politikoak indargabetzea) amaiera eman zioten gutun bidezko ika-mikari. Hala ere, 1935eko abuztuaren erdialdean, *Aulestik* berriro ekin zion beste artikulua batekin (*Euzkadi* 1935-8-18), eta horren erantzuna esku-orri bat izan zen, idazpuru hau zuena: *El dictado de la verdad por Bernabé Hormaza. Barrica. Un poco de Historia*. Hartan, alkate ohiak bere lana defendatu zuen bai Udalari dagokionez bai Ospitale Zahar Etxeari dagokionez ere (orri hori 10. espedienteari gehitu zitzaion, Barrikako Udal Batzorde Ikertzaileak 1937ko martxoan irekitakoari). Hondarrean, *Aulestik* Hormazari buruzko azken idazki bat argitaratu zuen 1935eko irailaren erdialdean (*Euzkadi* 1935-9-17).

enplegatua lanbidez<sup>236</sup>, eta Urdulizko orduko alkate nazionalista Enrique Legarraren anaia. Karmeldegian egon ziren bitartean, 1937ko urtarrilaren 4ko presoan sarraskiak jazo ziren, lau presondegiko bilbotarrei eragin ziena (Larrinaga, Karmeldegia, Ángeles Custodios, Casa Galera); berba egiten ari garen honetan 7 preso baino ez zituzten akabatu, instalazioa betetzen zuten mila eta bostehun presoek euren defentsa antolatzea lortu zutelako<sup>237</sup>. Gertakari horien ostean, Francisco Asla urduliztarra hasi zen “(...) *Bilboko Karmeldegiko presondegian lanean*” zaindaria moduan. Agintari frankistek atxilotu eta epaitu zutenean kartzela bilbotarrean zeuden presoekiko tratua ona izana defendatu zuen eta bere jarreraren lekuko posibleen artean Juan Quintana eta Genaro Legarra izendatu zituen<sup>238</sup>. Karmeldegian sartu zuten Sopelako hirugarren bizilaguna 49 urteko Isidoro Zamacona<sup>239</sup> industria gizona izan zen, 1934ko irailetik 1936ko otsailera herriko zinegotzi izan zena.

Aurkakotzat jo zituzten maisu-maistren kargugabetzeari dagokionez, azpimarratzekoa da Lemoizko Tokiko Defentsa Batzordeak 1936ko irailaren 12an aho batez eskatu zuela Lucía Romero Castroviejo maistra nazionala kargutik kentzea “*erregimen errepublikanoaren eta Euzkadiren aurkakoa izateagatik*”. Egun gutxi batzuetara, Gobernadore Zibilak, ofizio bidez, irakaslea lan eta soldata barik lagatzea agindu zuen. Batzorde lemoiztarrek, EAJ eta Fronte Popularreko kidez osatuta, maistrari bere egoera berriaren berri eman zion, eta honek bere burua defendatu zuen ziurtatuz “*inoiz ez zela Errepublikaren ezta Euzkadiren aurkakoa izan*”. Batzarrak pausu bat gehiago eman zuen eta Gobernadoreari eskatu zion Lucía Romero behin betiko kargugabetzeko, baina espedientea “(...) *dirudienez galdu egin zen Bilboko bonbardaketa zela-eta, eta ebazpenak ez zuen eraginik izan*”. Honen ondorioz maistrak jarraitu zuen “(...) *normalki bere klaseekin, Udaletxe honen eta alderdi politikoen harridurarako*”. Abenduaren erdialdean, Lemoizko Udalak, behin bertan behera geratutako Tokiko Defentsa Batzordearen eskumenak berreskuratuta, Lehen Hezkuntzako zuzendari orokorrari zuzendu zitzaion eta eskatu irakaslearen “*berehalako kargugabetzea*” eta “*maistra euzkeldún (sic)*” baten izendapena hura ordezkatzeko<sup>240</sup>.

---

236 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1190, 13, “KARMELDEGIKO PRESONDEGIA”, *Establezimendu honetan dauden atxilotuen zerrenda, eta haien izen-abizenak, adina, lanbidea, sarrera-data eta zein Agintaritzaren menpe dauden*, 1937-2-13.

237 AZCONA PASTOR, José Manuel, eta LEZAMIZ LUGAREZARESTI, Julen: “*Los asaltos a las cárceles de Bilbao el día 4 de enero de 1937*” in *Investigaciones históricas*, 32, 2012, or: 217-236, aipua: 230.

238 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2479-38 auzia, *Francisco Asla Goirigolzarriren deklarazioa Villaviciosa de Odónen* 1937-10-21, *Laburpen-txostena* 1938-8-22.

239 M.H.D.Z. P.S. Bartzelona 1190, 13, “KARMELDEGIKO PRESONDEGIA”, *Establezimendu honetan dauden atxilotuen zerrenda, eta haien izen-abizenak, adina, lanbidea, sarrera-data eta zein Agintaritzaren menpe dauden*, 1937-2-13.

240 M.H.D.Z. P.S. SANTANDER\_CU, Exp 25, *Lemoizko alkate Pedro Ibarrenaren eskutitza Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorrari, 1936ko abenduaren 11ko datarekin*.

Azken eskari hau ez zen ezustekoa: 1932an *Euzkadi* egunkariak bertako nazionalisten haserrea adierazi zuen “(...) *maistraren eta bere morroien aldera*”, Lemoizko eskoletan “*euskararen aurkako kanpaina*” erotaten zebilelako, egunkariaren arabera, “(...) *gaztetxuei euskaraz berba egiteko*” debeku eta guzti<sup>241</sup>. 1939an Lucia Romero Castroviejok emandako bertsioa bat dator, hein handi batean, dagoeneko azaldu dugunarekin. Maistrak kontatu zuen Gobernadorearen aginduz kargugabetu zutela eta “*Lemoizko Komiteak*” informatu zuela horretaz; bertoko kideen aurrean “(...) *aurka egin zien kargugabetzen zuen ofizioan ageri ziren salaketei eta berriro maistra gisa jarri zuten*”. Ondorez, Lehen Hezkuntzako delegatuak hitzordua eman zion Lucia Romerori, eta, honen arabera, jakinarazi bazituztela “(...) *salaketa larriak Lemoizko Komitearen eta Udalaren aldetik, eta gauza ez hain larriengatik hainbat pertsona fusilatua*” izanak zirela. Topaketa haren ostean, eta beti ere Lucia Romeroren testigantza arabera, maistra “(...) *ez zen gogaitua izan*”<sup>242</sup>.

Ziurrenik urduliztar ezberdinek udalerrian aterpetutako eskuindarrak babesteko egindako lanak salaketaren bat edo beste jasoko zituen, nahiz eta ez dakigun hauek zenbat izan ziren. Bat baino ez dugu topatu, Luis Navarro Udal Idazkariaren aurka, berak kontatu zuenez, “(...) *On Luis Villabaso eskumakoari laguntza emateagatik, ezkutatua* (zegoelako) *On Rafael de Uriberen etxean*”. Egoera honen aurrean, Navarrok Felipe Villabeitiarengana jo zuen, Urdulizko bizilaguna bera, “(...) *zeinek salaketaren berri izan eta hurrengo egunean kudeaketak egin zituen, baita lortu ere (...) atzera botatzea*”<sup>243</sup>.

1937ko apirilaren 29an, Urduliz gerra-eremu izendatu eta hurrengo egunean<sup>244</sup>, Urdulizko Udalak, EAJren zuzendaritzarekin batera, “(...) *herri honetan eratutako alderdi politiko bakarra*”, egungo erregimenaren aurkakotzat jotzen diren norbanakoen zerrenda osatu zuen. Zerrenda, ziurrenik, gerra-eremu aitortzearen ondoren boterea bere gain hartu zuen Ordezkarri Militarrarentzat izango zen eta udalerrian bizi ziren 17 gizonen izenak zeuzkan, haien adinekin batera. Nahiz eta “(...) *egungo erregimenaren aurkakotzat*” jo, era berean adierazi zen ez zegoela frogarik esateko erregimen errepublikarraren “(...) *aurkako inongo jarduerarik*” egin zutenik, “(...) *izan ere, salatu egingo genituzkeen bestela*”. Gainera, agintari urduliztarrek eta bertako EAJK gehitu zuten, zerrendan sartutako 17 gizonen “(...) *mesedetan*”, guztiek “(...) *parte hartu zutela gudarien alde irekitako harpidetza guztietan*”.

---

241 *Euzkadi* 1932-10-16.

242 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 969-38 auzia, *Anastasio Anchutegui Ansoleagaren aurkako auzia, Lucía Romero Castroviejoren deklarazioa* 1939-3-13.

243 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko udal-idazkariak egindako ziurtagiria* 1937-12-1.

244 *El Liberal* 1937-4-30.

Azkenik, adierazi zen zerrendako azken zazpi pertsonak 1934ko irailetik 1936ko otsaila bitarte Udaletxea zuzendu zuen Batzorde Kudeatzaileko kide izan zirela. Hona “aurkakoen” zerrenda<sup>245</sup>:

<b>UDALAK ETA EAJren BATZARRAK AURKAKOTZAT JOTAKO NORBANAKOAK</b>	
<b>Izen-abizenak</b>	<b>Adina</b>
Víctor Urrutia Uribe	56
Ignacio Aspiazu Mancisidor	60
Manuel Uribe Echevarria	36
Bernardino Bilbao Aguinaga	62
Manuel Hormaza Urrutia	72
Manuel Zaldua Arechavaleta	65
Juan José Garitaonandia	66
José Luis Gandara de Ustara	57
Antonio Fano Bilbao	35
José Agustín Menchaca Urquizu	42
Felipe Asla Echevarrioste	75
José Urrutia Madariaga	59
Bernardo Eguskiza Echeagaray	50
Antonio Larrabeitia Uribarri	32
Isidro Sistiaga Arriaga	30
José María Ansoleaga Sistiaga	38
Tiburcio Madariaga Arana	46

Urdulizko bizitza politikoari buruz, EAJk protagonista izaten jarraitzen zuen garai honetan; bere jarduera gerran finkatuta egon zen, arestian aipatu dugun legez: *emakumeen* lana gudarien arropak josten, hauen ohorez egin zen harrera-festa eta haien alde egindako harpidetzak. Gudarien aldeko diru-bilketa erak anitzak ziren: berbarako, Sopelan, 1937ko urtarrilaren 12an, “(...) *Cooperativa de Sopelana aretoan (...) elizate horretako Talde Artistikoak*”, Algortako *Euzko-Etxiako* aktoreek lagundurik, bi antzezlan aurkeztu zituzten<sup>246</sup> “(...) *aberriaren defentsagatik borrokan dabiltzan gudarien alde (...)*”.

245 M.H.D.Z. P.S. Madril, 876

246 “*La vieja que pasó llorando*”, Manuel Sota y Aburtorena, eta “*Que buapo (sic) es*”, Román de Ametzagarena

*Euzkadi* egunkaritik Sopolako eta inguruetakoko abertzale guztiak gonbidatzen zituzten joatera, horretarako oroitaraiz “(...) atzeguardian gauden guztiok honetan laguntzeko dugun betebeharra, eta horrek eman behar digun poztasuna”<sup>247</sup>.

1937ko martxoaren 28an izan zen Diktadura aurreko azken *Aberri Eguna*; 1936koaren antzera, udalerri bakoitzean ospatu zen, oraingoan gerrak beharturik izan zen arren. Egoera horretan, programatu ziren ekimen guztien ezaugarria da euren xumetasuna. Esaterako, Getxoko nazionalistek, “(...) igaro ditugun momentu garrantzitsuengatik” ere, ez zuten pentsatu ere egin “(...) *Aberri-Egun hau ospatzeari lagatzea, nahiz eta, noski, familiarrean eta soilik aberriari une espiritual bat eskaintzeko helburuarekin*”<sup>248</sup>. Ildo beretik, Plentziako ospakizunak iragarri zirenean adierazi zen jai nazionalista ospatuko zela “(...) *bal dintza mingarrietan, baina aldi berean itxaropenez beterik*”. Hiri-bilduko ospakizun xumea meza batera mugatu zen; horren ostean bertaratutakoak *Batzokira* joan ziren *ikurriña* buru zutela. Eguneko ekimenak “*Iru gudari*” antzezlanaren bi emanaldirekin amaitu ziren *Cinema Plencia* delakoan<sup>249</sup>. Gorkizko ospakizuna jai-giro handiagoan egin zen eta txistularien bandaren *biribilketa* batekin hasi zen 27ko goizean. 28an, aitaturako *txistulariek* ospakizunak hasi zituzten goizeko zortzietan *alborada* batekin, meza nagusia eman zen eta, ostean, bertako ezpatadantzarien bandera bedeinkatu zen, geroago euren dantzak eskaini zituztelarik. Jarraian “(...) *hamabost urtetik beherakoentzat, aureskulari, sokatira, santzolari, etabarren lehiaketak*” egon ziren<sup>250</sup>.

Barrika eta Berangoko ospakizunak xumeagoak izan ziren. Kostako elizatean bertako *emakumeek* abestutako meza bat baino ez zen egin. Berangon, berriz, goizeko 10etako Meza Nagusiaz gain, non *Batzoki* berangotarreko koroak abestu zuen, arratsaldean “(...) *ohorezko kafea eta kanta aberkoiak*” izan ziren aitaturako koroaren eskutik<sup>251</sup>. Azkenik, Urdulizen *Aberri Egunerako* programaturako ospakizunak *emakume* urduliztarrek antolatutako Jaunartze Meza batekin hasi ziren goizeko zortzi eta erdietan. Bederatzi eta erdietan, txistulariak *biribilketan* joan ziren Elortza auzotik Geltokiraino. Hamarretan Meza Nagusia ospatu zen eta Urdulizko EAJ eta EABko buruak bertaratu ziren. Ospakizunei itxiera emateko bi pilota partidu antolatu ziren bertako pilotarien eskutik<sup>252</sup>.

---

247 *Euzkadi* 1937-1-7.

248 *Euzkadi* 1937-3-25.

249 *Euzkadi* 1937-3-25.

250 *Euzkadi* 1937-3-27.

251 *Euzkadi* 1937-3-27.

252 *Euzkadi* 1937-3-28. Lehen pilota partidan, José Arteta eta Eusebio Ansoleagak osatutako bikotea Alberto Urrutiaren eta Manuel Ansoleagaren aurka ibili zen. Bigarren partidan, Santos Unibaso eta Peli Araluk (?) Francisco Mañozen (Muñoz?) eta Luis Menchacaren aurka jokatu zuten.

### 1.1.4.3 Elikagaien horniketa eta errazionamendua. Ganaduaren konfiskazioa

Elikagaien horniketaren auzia kezka nagusietako bat izan zuten Bizkaia gerra bitartean gobernatu zuten erakunde guztiek. Hartara, 1936ko abuztuaren 6an, *Erregimenaren Defentsarako Bizkaiko Komisaria Nagusiko Zuzkidura eta Ostatatze Atalak* Bizkaiko alkateei eskatu zien bakoitzaren herrian “(...) biltzen den gariaren zinpeko zerrenda” bidaltzeko<sup>253</sup>, “(...) ahalik eta lasterren jakitearren zenbat irin dagoen Bizkaiko probintzia osoan (...)”<sup>254</sup>. Biharamunean, Urdulizko alkateak erantzun zion eskari horri eta jakinarazi zuen, 1936ko uzta egin barik zegoenez, 1935ean bildutakoaren zenbatekoa ematen zutela: guztira, 148 kintal metriko<sup>255</sup>. Gainera, haien kalkuluetan, gari uzta berriak “(...) 125 kintal metriko egingo du, gutxi gorabehera, Alkatetza honek dauzkan datuen arabera”<sup>256</sup>.

Esan dugun legez, irailaren hasieran ogi zuria desagertua zen Urdulizko etxeko mahaietatik. Horren lekuko, herriko mediku Juan de Dios Zubicarayk Urdulizko alkateari bidalitako idazkia. Bertan, azaltzen zuen herrian hainbat lagun, gaixo edo eriondoan egoteagatik, ezin jabez zebiltzala “(...) egoera dela eta zerbitzen den ogia”. Hori dela-eta, Zubicarayk eskatu zion udalburuari “(...) ahal izanez gero (...) agintari eskudunek beharrezko ikusten duten adinako ogi zuriz hornitu ditzatela”. Azkenik, Udalak hartu zuen bere gain medikuak eskatutakoa, Legarra alkateak jaso zuen legez Bizkaiko Defentsa Batzordeko *Merkataritza eta Hornidura Atalari* zuzendutako idazkian; bertan aditzera ematen zuten ogi zuria emango ziela, “(...) Udal honen kontura”, Urdulizko medikuak adierazitako gaixoei<sup>257</sup>.

1936ko irailean, behar-beharrezkotzat jotzen ziren beste produktu batzuei eragin zieten herriak zeuzkan zuzkidura arazoek. Enrique Legarra alkateak, Bizkaiko *Merkataritza eta Bizigaien Sailari* hilaren 21eko datarekin bidalitako idazkian, jakinarazten zuen bizilagunak “(...) hainbat egun (zeramatzatela) premia-premiazko hainbat gauzen faltan, hala nola OLIOA eta AZUKREA”.

---

253 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Erregimenaren Defentsarako Bizkaiko Komisaria Nagusiko Zuzkidura eta Ostatatze Atalaren* mezua, *Urdulizko alkateari zuzendua* 1936-8-6.

254 *La Gaceta del Norte* 1936-8-7.

255 Kintal metrikoa masa unitate zahar bat da, 100 kilogramoren parekoa.

256 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen erantzuna Erregimenaren Defentsarako Bizkaiko Komisaria Nagusiko Zuzkidura eta Ostatatze Atalari* 1936-8-7.

257 B.F.A.H. URDULIZ 0032/018 *Urdulizko mediku Juan de Dios Zubicarayren idatzia, Urdulizko alkateari zuzendua* 1936-9-6. Agiri beraren barruan: *Urdulizko alkate Enrique Legarraren mezua, Bizkaiko , Merkataritza eta Horniketa Departamentuko lehendakariari zuzendua* 1936-9-6. Medikuak egindako zerrendak herriko hamar bizilagunen izenak jasotzen zituen: Benita Bilbao, Luisa Barruetaña, Asensio Barruetaña, Enriqueta Santa María, Margarita Nabarro, Esteban Bilbao, María Erdaide, Agustín Arteta, Santa Menchaca eta Juanita Zabala.

Horren aurrean, alkateak erregutu zion departamentuko lehendakariari arren lana har zezan “(...) beharrezko aginduak emateko herri hau goian adierazitako gauzez hornitua izan dadin bere bizilagun kopuruaren neurrian”<sup>258</sup>.

Urdulizen bizi izan ziren zuzkidura arazo hauek Bizkaian gertatzen ari zenaren isla dira. Horregatik, irailean bertan, Bizkaiko Defentsa Batzordeak probintzian elikagaien banaketa arautzeari ekin zion, errazionamendua ezarriz. Hartara, irailaren 14an, *Merkataritza eta Bizigaien Sailak* Bizkaiko udalei eskatu zien biztanleriaren zentsua “*ahalik eta lasterren*” bidaltzeko, antolatu ahal izateko “(...) *bizigaien zuzkidura Bizkaiko bizilagunei*”. Gainera, banandurik, herri bakoitzean aterpeturik zeuden errefuxiatuen zerrendak ere bidali behar zituzten<sup>259</sup>. Premia larri horri erantzunez, hilaren 15ean zentsua osatu zen: 1147 biztanle, guztira. Gainera, atal bat gehitu zen non udalerrian zeuden 70 udatiarrak zenbatu ziren. Azkenik, une haietan, Urdulizen, ofizialki, 14 errefuxiatu zeuden aterpeturik<sup>260</sup>. Irailaren 14tik 20rako astea aukeratu zen “(...) *behar-beharrezko bizigai nagusien errazionamendu-liburuxken banaketa*”<sup>261</sup> egiteko. Urdulizko udatiarrentzat, elikagaien errazionamendua irailaren amaieran erregularizatu behar izan zen; izan ere pertsona hauek “(...) *uste izan zuten errazionamendu-liburuxkak euren orduko bizilekuan jasoko zituztela* (Urdulizen) *eta horregatik ez zituzten Bilbon jaso*”<sup>262</sup>. Hori dela eta, Udalak zerrenda berri bat osatu zuen Bilbon erroldatutako udatiarrak gehitzearren, haien hiriko etxebizitzaren helbideak adierazi zirelarik. Lehenago esan bezala, udatiar gehienak Urdulizen geratu ziren eta ez ziren Bilbora itzuli.

Udalek igorritako zentsuekin, udalerrri bakoitzari biztanle kopuruaren ondorioz zegokion patata, olio eta azukre ehunekoa ezarri ahal izan zen errazionamendua egiteko. Baremo horren arabera, *La Tarde* egunkariak argitaratu zuenez, Urdulizi astean 494 kg azukre, 494 kg patata eta 247 litro olio zegozkion, zentsuan 989 biztanle agertzen baitziren; aitzatekoa da, hala ere, zifra hori ez zetorrela bat Udalak egindako Zentsuarekin<sup>263</sup>.

---

258 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Merkataritza eta horniketa Departamentuko lehendakari jaunari zuzendua* 1936-9-21. “Urdulizko uren horniketa proiektua” espedientearen barruan agertutako agiria. Jatorriz agirian agertzen zen data “1936ko abuztuaren 28a” zen, baina haren ordean “1936ko irailaren 21a” ipini zuen norbaitek.

259 *El Liberal* 1936-9-15.

260 B.F.A.H. URDULIZ 00027/029, Urdulizko udala. *Elizate honen Biztanle-errolda osatzen duten pertsonen zerrenda* 1936-9-15.

261 *La Gaceta del Norte* 1936-9-15.

262 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Urdulizko udala *Urdulizko Elizate honetan bizi izanik Bilbon erroldaturik dauden udatiarraren izen zerrenda, eta hiri horretan dituzten helbideak* 1936-9-8.

263 *La Tarde* (Bilbo) 1936-9-23.



Ezarri zenez, biztanle bakoitzari, astean, 500 gramo azukre<sup>264</sup>, 500 gramo patata eta 250 gramo olioia findu zegozkion. Proportzio hau erabat berdina zen “(...) *bai Bilbon bai herrietan*”. Gainera, jendeari saltzeko prezioa ezarri zen eta Udalek produktuak erosteko prezioak ere bai:

<b>BIZKAIKO DEFENTSA BATZORDEAK PRODUKTU ERRAZIONAMENDURAKO EZARRITAKO PREZIOAK 1936-9-22an</b> <sup>36</sup>			
	<b>AZUKREA</b>	<b>OLIOA</b>	<b>PATATAK</b>
JENDEARI SALTZEKO PREZIOAK	1'80 pta./kg	2'20 pta./l	0'40 pta./kg
UDALEK EROSTEKO PREZIOAK	1'73 pta./kg	1,99 pta./l	0'37 pta./kg
UDALENTZAKO IRABAZIA	0'07 pta.	0'21 pta.	0'03 pta.

Patatei buruz, Merkataritza eta Bizigaien Zuzendaritza Nagusiak bazekien Bizkaiko udal askok ez zeukatela “(...) *pataten beharrik, uzta propioa izateagatik*”, eta horregatik eskatu zieten udal haiei “(...) *guztien mesedetan*” adierazteko “(...) *baimenak jasotzerako orduan, pataten beharrik ez zeukatela*”<sup>266</sup>. Urdulizen halaxe egin zuten.

Era berean ezarri zenez, Bizkaiko udalek Elikagai Solidoen Ordezkaritzan emango ziren baimenak jasotzera joan behar zuten Bilbora, “(...) *Alkatetza bakoitzaren ofizio bereziarekin*”. Baimen horietan salgaiak zein biltegitan jaso behar ziren ere azaltzen zen. Udalek euren garraiobideak behar zituzten jatekoak bakoitzak bere herrira erosteko, eta olioia garraiatzeko “*oliontzi eta bidoiak*” erostea komenigarria zela adierazten zen. Udalei orobat zegozkien “(...) *herri bakoitzeko saltokietan salgaien banaketaz arduratzea, erabateko justizia eta zuzentasunagaz, merkataritza guztiek parte hartu ahal izan dezaten bere dendaren garrantziaren arabera proporzioan*”; garrantzia kalkulatzeko erabiltzen zen “(...) *Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak xehekariei ezartzen dien eta urtero euren etekin txikien arabera ordaintzen duten kuota*”<sup>267</sup>.

264 Ulertzekoa denez, errazionamendua aldatzen joan zen gerrak aurrera egin ahala. Berbarako, 1937ko otsailaren 13an errazionamendurako agindutako azukre kopurua 250 gramo zen. Era berean agindu zen persona bakoitzak jaso behar zituela 500 gramo garbantu, 250 gramo arroz, 250 gramo bakailao eta tomate pote bat (*La Gaceta del Norte* 1937-2-9).

265 *La Tarde* (Bilbo) 1936-9-23.

266 *La Tarde* (Bilbo) 1936-9-23.

267 *Euzkadi* 1936-9-23.

Udalak behartuta zeuden “(...) zaintzera, erabateko zintzotasun eta kontrolarekin, jangaien banaketa zehatz-mehatz egiten zela bizilagunen artean”; Bizkaiko biztanleek eskubidea zuten Ordezkaritzaren bulegoetan aurkezteko “(...) egiten diren salaketa oro”. Alkateei ohartarazten zitzairen salaketa horiek bizkor tramitatuko zirela, eta zehapenak zinez gogorrak izango zirela<sup>268</sup>.

Berbarako, 1936ko azaroaren 9an, Euzkadiko Gobernua dagoeneko martxan zegoela, Elikagai Likidoen eta Erosketen Zuzendaritza Nagusiak ohar bat igorri zuen baieztatzeko betetzen ari zirela hamar eguneroko errazionamendua hamar egunetik behin egiteko promesa. Hau esaten zuten heldu zirelako “(...) zenbait udalerritako herritarren kexak eta euren herrietan jaramonik egiten ez zitzaizela adierazten” zutelako. Likidoen Zuzendaritza Nagusiak afera honetan bere burua edozein erantzukizunetik salbuetsi zuen, argudiatuz olioaren banaketa berdina izan zela “(...) proportzioz, bai udalerrri handientzat bai biztanle kopuru txikiagokoentzat”. Jazo zena izan zen 17 udal ez zirela pasatu “(...) azken errazionamenduari zegozkion olioaren azken baimenak jasotzera, eta horrek ulertarazi ziela (...) nahikoa hornituta zeudela”. 17 udal horien artean Urduliz, Sopela eta Barrika zeuden. Likidoen Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen azaroaren 2an errazionamendurako igorritako baimenak balio gabetzea, egun horri zegokion kopurua galtzea zekarrena, eta adierazi zen udal horiek azaroaren 12ko banaketa berriari zegozkionak jaso zitzaizketela<sup>269</sup>.

Errazionamendua, esan dugun legez, errazionamendu-liburuxken bidez eskuratzen zen. Bizkaiko Defentsa Batzordearen Merkataritza eta Hornidura Zuzendaritzak hiru liburuxka mota ezarri zituen, eta horiek mantendu egingo ziren Eusko Jaurlaritzaren agindupean:<sup>270</sup>

<b>ERRAZIONAMENDU-LIBURUXKEN TIPOLOGIA <sup>270</sup></b>		
<b>KATEGORIA</b>	<b>KOLOREA</b>	<b>ERRAZIOA</b>
<i>A kategoria</i>	Horia	Bat edo bi
<i>B kategoria</i>	Morea	Hiru
<i>C kategoria</i>	Arrosa	Lau

268 *Euzkadi* 1936-9-23.

269 *El Nervión* 1936-11-10.

270 *La Gaceta del Norte* 1936-9-15, eta *La Tarde* (Bilbo) 1936-9-23.

Errazionamendu-liburuxkak “(...) saltoki zehatz bati esleituta” egon behar ziren, hau da, familia bakoitzak nahitaez egokitutako saltokian egin behar zituen erosketak. Dendariek “(...) liburuxkan euren zigilua estanpatu” behar zuten. Aldez aurretik saltoki batean zigilatu gabeko liburuxkak zituzten bizilagunek ezingo zituzten errazionamendurako erabili.<sup>271</sup> Errazionatutako produktuaren erosketa egiteko, liburuxken jabeek entregatu beharra zeukaten “(...) liburuxkari itsatsita zegoen kupoia. Ezin zitekeen kupoi solterik entregatu”<sup>272</sup>.

Janari dendei dagokienez, 1937ko urtarrilaren 9an, Urdulizko Udalak erabaki zuen “(...) euren errazionamendurako denda aldatzea” gura zuten bizilagun guztiek Udalari eska ziezaiotela, honek ekin ziezaion “(...) liburuxken prestaketari”<sup>273</sup>. Orobat urtarril horren hasieran, aldi baterako entregatu zitzaizkien “(...) errazionamendu-liburuxkak maisu eta maistra jaun-andereei”<sup>274</sup>.

Eskumenak 1936ko abenduan berreskuratu ostean, Udalaren lehenengo jardueretako bat izan zen 1937ko urtarrilaren 2an okelaren errazionamenduaren gainean hartutako erabakia. Osoko bilkura hartan erabaki zuen “(...) okelaren errazionamendua ematea urtero eta aspalditik datozen udatiarrei eta Udallerri honetan titularra den albatari jaunari”. Behin “(...) errazionamendu hau jaun hauei eta gainerako bizilagunei emanda” erabaki zen sobratzen zena banatuko zela “(...) Batzordeko jaunek egoki ikusten zuten pertsona guztiei”<sup>275</sup>. Ziurtatzeko moduan gaude, modu horretan, atea irekitzen zitzaiola herrian ezkutaturik zeuden errefuxiatu eskuindarrak okelaz hornitzeari.

Erabaki hau hartu eta hilabetera, okela lortzea gaitzagoa egin zen. Otsailaren 6an, Urduliz okelaz hornitzeko, batzordeak onartu zuen izaten ari zirela “(...) arazo asko hiltzeko ganadua lortzeko”; izan ere, “(...) errazionamendua garestitzeak galerak ekartzen zizkion udalbatzari”. Horregatik, Udalaren osoko bilkurak aho batez erabakita, bere kasa igo zuen okelaren prezioa: 8’50 kiloan saltzen zen kilo 10 pezetan saltzen hasi zen, eta 4 pezetan saltzen zena kiloko 6 pezetara igaro zen<sup>276</sup>.

---

271 *La Gaceta del Norte* 1937-2-7.

272 MUNARRIZ HERNANDO, 397.

273 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-9.

274 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-2.

275 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-2.

276 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-6.

Okelaren hornidurarekin Urdulizen zeuden arazoak Eusko Jaurlaritzak kontrolatutako lurralde osoan gertatzen zenaren antzekoak ziren. Merkataritza eta Bizigarrien Sailak problema honen arrazoiak zerrendatu zituen 1937ko otsailaren hasieran:

*“El escaso número de abastos que existen en la actualidad en la zona leal del territorio de Euzkadi, el aumento extraordinario de la población por las causas de todos conocidas, la consideración de que algunos pueblos que en circunstancias normales no sacrificaban ganados los sacrifiquen ahora a falta de otros artículos de consumo, el interés de los grandes núcleos urbanos de acaparar las existencias de las zonas rurales, y la disminución de ganado por el poco ordenado aprovechamiento que al principio se hizo, unido al exagerado espíritu de defensa de los intereses localistas por las autoridades municipales, han dado por resultado que al mismo tiempo que algunos pueblos disfrutaban de raciones de carne que en las presentes circunstancias podrían calificarse de espléndidas, los otros pueblos las tienen muy exiguas o carecen totalmente de ellas”<sup>277</sup>.*

Horren aurrean, aitaturako Departamentuak esku hartu zuen “(...) *tratu desberdintasun horiek*” ezabatzeko eta “(...) *herriar guztiek okela errazio berdinak jasotzeko*”. Horretarako, erabaki zen Merkataritza eta Bizigarrien Sailaren mendeko batzorde batean biltzea ondoko ardura hauek: okelaren erosketa eta banaketa, abereen hilketa, okela banaketa herri bakoitzean biztanle kopuruaren neurrian eta kontrol-bulego baten sorrera “(...) *desberdinkeriek jarraitzea*” ekiditeko. Gainera, ganadua hiltzeko Bilboko hiltegia (behi, ardi, ahuntz eta txerri azienda) eta Barakaldokoa (behor azienda baino ez ziren baimendu. Intendentzia Militarrek, berriz, edozein ganadu klase hil zezakeen Durangoko hiltegian. Horrek zekarren euskal lurraldeko beste edozein hiltegitan edo etxean ganadua hiltzeko debekua, nahiz eta Batzordeak “(...) *edozein momentutan baimendu zitzakeen hiltzeak beste hiltegitan, hornidura premiek horretara behartuz gero*”<sup>278</sup>.

Batzordeari zegokion udalei saltzea “(...) *zegokien okela kantitatea, euren biztanle kopuruaren arabera, gainerako kontsumo-artikuluekin egiten den legez*”. Hari zegokion okela herrietara garraiatzea ere bai. Udalek “(...) *okelaren prezioa kontsumo-zergari karga*” ziezaioketen eta saldu behar zieten “(...) *bizilagunei berdintasun osoan errazionatuta eta tasatutako prezioan*”. Azkenik, salmenta egin zezaketan “(...) *herrian zeuden ‘tablajería’ guztietan, edo batzuetan, edo beste batzuk antolatu*”<sup>279</sup>.

---

277 *La Gaceta del Norte* 1937-2-14.

278 *Ibid.*

279 *Ibid.*

Merkataritza eta Bizigarrien Sailaren agindu hau ez zen bete, jarraitu zitzaielako norbanakoei eta udalei saltzen, eta udalek jarraitu zutelako euren kabuz abelburuak hiltzen. Horregatik, hona zer erreklamatu zuen, otsailaren 18an, Okelaz Hornitzeko Batzorde eratu berriak, tinko eskatu ere:

*“(...) el cumplimiento del decreto, referente a la prohibición de venta de toda clase de ganado a particulares y Corporaciones, quedando únicamente autorizados el sacrificio de ganados en el Matadero de Bilbao (...), en el Matadero de Barakaldo (...), y en el de Durango (...)” (arestian deskribatu ditugun baldintzetan)<sup>280</sup>.*

Okelaren eta gainerako elikagaien errazionamenduaren arazoa ez zen huskeria. Esanda dagoen legez, Urdulizen errefuxiatu eskuindar tropa bat zegoen ezkutuan, eta litekeena da horietatik batzuk biztanle eta errefuxiatuen Zentsu ofizialek kanpo geratu izana. Hala eta guztiz ere, janaria eman zitzairen: berbarako, Ramón Bustamante delakoak eta bere familiak, Urdulizen errefuxiatuta zeudenak, udal idazkari Luis Navarrok *“(...) ematen zienarekin elikatu ziren egun batzuetan (...)”<sup>281</sup>*. Idazkariak berak onartu zuen Rafael Bach izeneko beste errefuxiatu bati janaria eman izana<sup>282</sup>. Arestian aipatu dugu, behin bizilagun eta udaliarren errazionamendua egin ostean, herriko batzordeak ezartzen zuen eran sobratzen zen okela banatzeari buruz 1937ko urtarrilaren 2an Udalak hartutako erabakiak ahalbidetuko zukeela horrelako errefuxiatuei okela ematea. Ez dakigu geroago zein aitzakia erabiliko zuen Udalak ofizialak ez ziren errefuxiatuei janaria emateko.

Kontua da Jangaien Zuzendaritza Orokorrak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Orokorraren menpekoa baitzen, 2000 pezetako isuna ezarri ziola Urdulizko Udalarri errazionamendua egiterakoan azaldutako zelanbaiteko irregulartasunagatik. Otsailaren 27an, udal idazkariak aditzera eman zion udalbatzari isunaren ezarketaren berri ematen zuen idatzia. Gainera, udalari agintzen zitzaion horren gaineko txosten bat egiteko eta horrekin alkatea azaltzeko Toki Administrazioiko Zuzendaritza Orokorrera *“(...) ahalik eta arinen”*. Pedro Goirigolzarri zinegotziak eskura zeuden datu guztiak eskatu zituen *“(...) argitzeko eta txostena argi eta garbi idazteko”*. Behin *“(...) auziari buruzko liburuak eta gainerako datuak”* zehatz-mehatz aztertuta, Goirigolzarrik:

*“(...) mostró su indignación por la inicua y despreciable denuncia, y propuso a sus compañeros de Corporación elevar la más enérgica protesta a donde corresponda pues se ve claramente que los racionamientos se han efectuado con toda normalidad y equidad obrando la mayor buena fe”<sup>283</sup>.*

---

280 *La Gaceta del Norte* 1937-2-19.

281 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 794/37 auzia, Manuel Uriberen, Gregorio Urrutiaren, Juan Uriberen, Santiago Perosanzen eta Federico Monteroren talde deklarazioa 1937-8-8.

282 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 794/37 auzia, Luis Navarro Torronteguiaren deklarazioa 1937-8-6.

283 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

“(…) Bertoko interesen neurritz gaineko defentsa-sena Udal agintariengan”<sup>284</sup>; hala berba egin zuen Merkataritza eta Bizigarrien Sailak okelaren horniduraren auziaz. Delako defentsa-sen horrek beste elikagai batzuk ere ukitu zituen. Esate baterako, 1937ko otsailaren hasieran, Elikagai Solidoen Zuzendaritza Nagusiak salatu zuen jakin izan zuela Bizkaiko “(...) landa-eremuak” ez zuela uzten “(...) ortuariak fabrika eremura garraiatzen, eskualde honetako bizilagunen, bereziki langileen kalterako”. Horregatik, agindu zuen, “(...) agintariak, miliziak, Ordena Publikoak, eta abarrek jakin dezaten”, ez zela ezelango enbarazurik ipini behar “(...) aitatutako produktuak lantzen dituzten Udal barrutietatik kanpora atera daitezen”. Gainera, gomendatu zuen “(...) fabrika eremuaren aldameneko beste herrietan, (errepideko) kontrolek (...) erraztasun handienak” ipintzeko kontu honetan<sup>285</sup>.

Bertako interesen defentsak berekin ekarri zuen elikagaiak bide ofizialeatik kanpora bilatzea. Horren adibidea litzateke Pedro Goirigolzarrik otsailaren 27an Udalaren osoko bilkurari egin zion proposamena, jakin zuenean Plentziako Udalak “(...) arraina zekarrela Bermeotik, bizilagunen kontsumorako”. Gainerako zinegotziei horren berri eman ostean, adierazi zuen egoki ikusten zuela ondoko herriko Udalari eskatzea “(...) baldintza beretan Udal honentzat hogeita hamar kilo arrain lor” zitzan. Proposamena aho batez onetsi zuten, eta Plentziako Udalari akordioaren berri ematea erabaki<sup>286</sup>. Ez dakigu auzoko udalbatzak Urdulizko udalbatzaren eskaerari erantzun zion edo ez.

Apirilaren 1ean, esan dugun legez, Enrique Legarra alkatea kargutik kendu zuten. Ez dakizkigu kargugabetze honen arrazoiak, baina litekeena da zerikusia izatea otsailean errazionamendua zela-eta udalari ezarritako isunarekin. Hain zuzen ere, Legarrak afera horrekin lotutako postu bat zeukan, *Errefuxiatuen Errazionamendurako Gizarte Laguntzaren ordezkaria* baitzen, Pedro Goirigolzarri eta Cipriano Iturregui zinegotziekin batera. Otazua alkate izendatu zutenean Enrique Legarraren eskuetan egon zen ordezkari kargua ere hartu zuen<sup>287</sup>.

Harrigarria da udalburu berriak Udal demokratikoak apirilaren 24an egin zuen azken osoko bilkuran eman zuen jakingarria. Otazuak honako hau adierazi zuen: “(...) Herriko Defentsa Batzordearen ardura hartu zuenean, Komite honek zeukan lokalean 5 lata hegaluze eskabetxean eta 46 kilo babarrun topatu zituen, eta ez zuen salgai edo gauza hauen jatorria edo jomuga ezagutzen”. Topatutako kantitatea ez zen “(...) nahikoa bizilagunen errazionamendurako, ezta hurrik eman ere”; beraz, “(...) beharrezkoa zen artikulu hauei erabilera zuzenago bat ematea”. Gaiaz eztabaidatu ostean, erabaki zen “(...) salmentan jartzea prezio korrontetan eta irabazia Udaletxean sartzeara”<sup>288</sup>. Alkatearen jakinarazpen honen aurrean, galdera batzuk datozkigu burura: Benito Otazuak “Herriko Defentsa

284 *La Gaceta del Norte* 1937-2-14.

285 *La Gaceta del Norte* 1937-2-9.

286 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

287 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Alkate berriaren izendapenaren akta 1937-4-1.

288 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-24.

Batzordearen ardura hartzeaz” berba egin zuenean, ¿Tokiko Defentsa Batzordeak bere eskuduntzak Udalarri 1936ko abenduan eskualdatu zizkion momentuaz ari zen edo alkatetza bere gain hartu zuenekoaz? Gogoratu behar da Otazua Zuzkidura Komisioko kide zela abendutik. Hilabete horretaz ari bazen, zergatik itxaron zuen lau hilabete topatutakoaren berri emateko? Zergatik jakinarazi zuen 1937ko apirilean, aurreko urteko abenduan egin orde? Arrazoiren bat ote zegoen jateko horiek ezkutupean edukitzeko, hala nola horiek erreserban gordetzea?

Erregai premiak berekin ekarri zuen zuhaitzetako zuraren ezkutuko ustiapena. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailari salaketak behin eta berriro etorri zitzaizkion “(...) zuhaitzen mozketak zela eta, are frutarbolena ere, erregai gisa erabiltzeko” Euzkadiko Gobernuaren kontrolpeko lurraldean. Horregatik, 1936ko azaroan, Nekazaritza sailburuak herritarrei dei egin zien eta ohartarazi prest zegoela “(...) baso-aberastasunari eusteko”. Horretarako, adierazi zuen ezarriko zirela:

*“(...) fuertes sanciones a quienes contraviniendo este llamamiento sigan en su campaña de destrucción, bien entendido que las responsabilidades no solo alcanzaran a los ejecutores, sino también a cuantas autoridades estén llamadas a vigilar y cumplir esta disposición”<sup>289</sup>.*

Ez dakigu agindu horrek eraginik izan ote zuen, baina neguko hotzak eta gerraren aurrerakadak are nabarmenagoa egingo zuen erregai falta; be, eta horrek egurraren lapurretak ugariagotu. Berbarako, 1937ko martxoaren 30ean, Urdulizko alkateorde Manuel Menchacak, Udalaren osoko bilkuran salatu zuen “(...) jende ezezagunak egurra eta edozein zuhaitz mota ebagitzen duela modu eskandalugarrian eta gero trenez garraiatu ateratzen duela”. Menchacak berak “(...) berriketaldia izana zuen Polizia Motorizatuarekin, gehiegikeria hauen inguruan”, eta hitz eman ziotela Udalak osoko bilkurak gai horren gainean hartutako erabakiaren jakinarazpen ofiziala helarazten zionean, arazoari amaiera emango ziotela. Bozketa eginda, aho batez onetsi zen, eta Polizia Motorizatuari bidali zitzaion “(...) ofizio bat behar zuten baimena emanaz”<sup>290</sup>.

Animalien errequisa egiteko, Merkataritza eta Bizigarrien Zuzendaritza Nagusiaren baimenaren egiaztagiri bat aurkeztuz behar zen. Prentsan Txorierrin ustez egindako errequisa iruzurrezko bati buruzko salaketa agertuta, Zuzendaritza horrek gomutarazi zien “(...) herrietako agintariei (...) ganadua erostera doazenei Zuzendaritza Nagusi honen baimena eskatu behar dietela”, izan ere dokumentu hori erakutsi barik ez zuten “(...) inor ere aintzat hartu (behar), inor ere ez”<sup>291</sup>. Antza, Euzkadi egunkariak adierazi zuenez, “Asuan, lotsabako batek, ganaduren bat errequisatu zuen Intendentzia Militarren izena erabiliz, baina hori

---

289 *La Gaceta del Norte* 1936-11-7.

290 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-3-30.

291 *La Gaceta del Norte* 1937-2-11.

*lotsabako baten gehiegikeria besterik ez da. Intendentzia Militarren jokaera (...) Abeltzaintzako zuzendariordeak adierazi duenez, beti izan da zintzoa eta zuzena*<sup>292</sup>.

Intendentzia Militarrek Nekazaritza Sailaren aginduei jarraitzen zien “(...) *ganadua lortzeari buruz, (...) hiltzeko direnak eta esne ekoizpenerako direnak*” errespetatuz<sup>293</sup>.

Esate baterako, idiak errekisatu ziren *Burdin Hesiaren* eraikuntza lanetarako. 1937ko abuztuaren amaieran, Urdulizko bizilagun Enrique Basañez eta José Bilbaok salatu zuten urte hartako ekainaren 14an idi pare bat lapurtu zizkietela bakoitzari Zamudion, “(...) *Gobernu gorri-separatistaren aginduz errekisatuta zeudenak herri horren gotortze-lanetarako*”<sup>294</sup>.

Giza kontsumorako ganadua hiltzeak, zalantza barik, herrietan azienda kopurua urritu zuen. Urdulizen Bigarren Errepublikan azienda kopuruaren bilakaera aztertu dugunean, ikusi genuen abelburu kopurua era jarraituan handitzen joan zela 1931tik 1935era. 1935eko eta 1936ko urriko datuen konparaketak ez du zalantzarik uzten. Asto azienda mantendu zen eta behor azienda apur bat igo; horiek kenduta, gainerakoan beherakada garbia eman zen animalia talde bakoitzaren abelburu kopuruan: .

<b>ABELBURU KOPURUAREN ALDEA 1935- 1936KO URRIA</b> <sup>295</sup>		
<b>GANADU MOTA</b>	<b>1935</b>	<b>1936ko URRIA</b>
<b>BEHI AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>833</b>	<b>674</b>
<i>Hazitarako zezenak</i>	6	1
<i>Behiak</i>	578	508
<i>Zekorrak</i>	132	GUZTIRA: 139
<i>Bigantxak</i>	82	
<i>Idiak</i>	35	26
<b>ARDI AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>420</b>	<b>162</b>
<i>Ahuntzak</i>	48	Zehaztu barik
<i>Ardiak</i>	308	
<i>Bildotsak</i>	64	

292 *Euzkadi* 1937-2-12.

293 *La Gaceta del Norte* 1937-2-12.

294 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udal-idazkariak alkatearen aginduz egindako ziurtagiria* 1937-8-1.

295 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko Nekazaritzako Estatistika* 1935-5-3, eta *Zirriborroa, Nekazaritza Sailak 1936ko urriaren 15ean eskatutako datuekin, d/g.*



<b>ABELBURU KOPURUAREN ALDEA 1935- 1936KO URRIA</b>		
<b>GANADU MOTA</b>	<b>1935</b>	<b>1936ko URRIA</b>
<b>AHUNTZ AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>48</b>	<b>42</b>
<i>Akerrak</i>	2	<i>Zehaztu barik</i>
<i>Ahuntzak</i>	36	
<i>Antxumeak</i>	10	
<b>BEHOR AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>17</b>	<b>22</b>
<i>Zaldi osoak</i>	1	<i>Zehaztu barik</i>
<i>Behorak</i>	13	
<i>Zaldikumeak</i>	-	
<i>Behorkumeak</i>	3	
<b>ASTO AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>16</b>	<b>16</b>
<i>Asto osoak</i>	6	<i>Zehaztu barik</i>
<i>Astemeak</i>	10	
<b>TXERRI AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>96</b>	<b>90</b>
<i>Apoak</i>	1	<i>Zehaztu barik</i>
<i>Txerramak</i>	5	
<i>Txerrikumeak</i>	17	
<i>Gizentzeko arrak</i>	30	
<i>Gizentzeko urrixak</i>	43	
<b>HEGAZTI AZIENDA (GUZTIRA)</b>	<b>5850</b>	
<i>Oilarrak</i>	300	140
<i>Oiloak</i>	4350	3110
<i>Txitak</i>	1200	950

Ez daukagu 1936ko urrikoa baino geroagoko estatistikarik; ezer, erakutsiko digunik Urdulizen zer bide hartu zuen abelburu kopuruak gerrak euskal lurraldean aurrera egiten zuen bitartean, baina, duda barik, behera egingo zuen, bizilagunak hornitzeko premiak eta zama-abereen erabilerak eraginda. Badakigu, berbarako, 1937ko martxoan, “(...) *Albaitaritzza Militarreko ebakuazioko sekzio mugikorrak*” Urdulizko zazpi behor errekiatu zituela. Apirilaren amaieran, gai honi buruzko eztabaida izan zuen Udalak bere azken osoko bilkuran; izan ere behor horien artean bazegoen gazte bat, “(...) *20 hilabetekoa eta arraza onekoa*”, Juan Abaroa zinegotziarena. Urdulizen, behor aziendaren egoera ez zen ona, udal aktatik ondorioztatzen denez, adierazi baitzen ez zela “(...) *behor erabilgarririk geratzen herri honetan*”. Horregatik, eta animaliairen gaztetasuna kontuan hartuz, zinegotziek erabaki zuten “(...) *aitatutako behorra berriro bueltan eskatzea (...) zegokion departamentuari*”<sup>296</sup>.

296 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-24.

#### 1.1.4.4 Hezkuntza gerra garaian

Gerra Zibila piztu zenean, gatazkak Berroeta bere jaioterrian (Nafarroa) oporretan harrapatu zuen Eusebia Felisa Ascobereta, Urdulizko Eskola Nazionaleko nesken maistra<sup>297</sup>. Era berean, 1936ko uztailaren Bizkaian oporretan zeuden Estatuko beste alde batzuetan lanean zeuden maisu-maistrak nazionalak ere, jaiotzez probintziakoak zirenak. Irailean eta urrian, Bizkaira heldu ziren matxinatuen armadak okupatutako lurraldeetako maisu-maistrak, bereziki Gipuzkoako herrietakoak “(...) eta, neurri apalagoan, Nafarroakoak”<sup>298</sup>.

Eusebia Felisa Ascobereta, matxinatuen menpe zegoen alde batean zegoenez, ez zen Urdulizera bueltatu eta Eguarasko eskolan lan egin zuen<sup>299</sup>. Urdulizko eskolako bere postua hutsik geratu zen. 1936ko irailaren erdialdean, Bizkaiko Defentsa Batzordearen Lan Departamentuko Irakaskuntza Komisarioritzak 80 maisu-maistra bidali zituen, aldi baterako, Bizkaiko zenbait eskola nazionalerako irakasle titularren “(...) hutsunea betetzeko”. Modu horretan, neskatilen maistra postua María Segarra Aberasturiri egokitu zitzaion<sup>300</sup>. Ordura arte, maistra nazional moduan egona zen Valdeolivassen (Cuenca)<sup>301</sup>.

Azaroaren 12a aukeratu zuen Euzkadiko Irakaskuntza Nazionaleko Ordezkaritzak, Euzkadiko Lehen Irakaskuntzako Eskola Nazionalerako klaseak hasteko, “(...) egoerak aukera ematen duen heinean, Lehen Irakaskuntzaren martxa normaltasunera bueltatzeko” helburuz. Eusko Jaurlaritzako Defentsa sailburuak urriaren 25ean emandako dekretuaren arabera, gerra eremuan sartutako herrietako eskolek<sup>302</sup>, eta Bilbokoek eta Itsasadarreko bi aldeetakoek ez zituzten euren ateak ireki. Beste alde batetik, Ordezkaritzak maisu-maistren izendapenari ekin zion, eta “(...) indar barik geratu ziren lehenago egindakoak”. Urdulizen, María Segarra berretsi zuten bere postuan<sup>303</sup>. Hala eta guztiz ere, maistra honen Depurazioa Espedienteko informazioari jarraituz, itxuraz ez zuen sekula postua bete. Bere deklarazioan ziurtatu zuen “(...) aginte marxistak iraun zuen denboran ez zuela inongo kargurik bete”<sup>304</sup>. Agintari frankisten testigantzek irakasleak esandakoa berretsi zuten. Berbarako, Francisco J. Arguiñano, Bermeoko alkateak, jakinarazi zuen nahiz eta María Segarrari “(...) eskatu zitzaion eremu gorrian zegoen eskola horren kargu hartzeko”, Valdeolivaskoari

297 ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO OROKORRA (A.A.O.), 32/13067, *Eusebia Felisa Ascobereta Astiviaren depurazio espedientea*.

298 REKARTE RODRIGUEZ, Itziar: *Una sociedad escolar en Guerra. La educación durante la Guerra Civil en el País Vasco*, Salamanca, Amaru Ediciones, 2001, 110-112.

299 A.A.O. 32/13067, *Eusebia Felisa Ascobereta Astiviaren depurazio espedientea*.

300 *La Gaceta del Norte 1936-9-10* eta *El Liberal 1936-9-10*.

301 A.A.O. 32/12565, *María Segarra Aberasturiren depurazio espedientea*.

302 Une hartan gerra-eremuan kokatutako herriak honako hauek ziren: Abadiño, Amurrio, Apatamonasterio, Aramaio, Artziniega, Axpe-Arrazola, Baranbio, Berriz, Zeanuri, Dima, Durango, Eibar, Elgeta, Elorrio, Ermua, Lekeitio, Lezama (Araba), Laudio, Luiaondo, Mañaria, Markina, Otxandio, Okendo, Urduña, Orozko, Arespalditza, Ubidea, Balmaseda, Areatza eta Zaldibar.

303 *La Gaceta del Norte 1936-11-10*.

304 A.A.O. 32/12565, *María Segarra Aberasturiren depurazio espedientea, María Segarra Aberasturiren deklarazioa 1940-8-12*.

buruz ari dela ulerturik, “(...) *deialdi horri*” desobeditu zion<sup>305</sup>. Interesgarriagoa da Ginés Arechaga Echevariaren lekukotasuna, Bermeoko apaiz ekonomoak adierazi baitzuen maistrak “(...) *uko egin zila gorri-separatistek eskaini zioten eskola bati*”<sup>306</sup>. Urdulizko eskola, itxuraz.

Beraz, ez dugu ezagutzen Ascoberetaren postua bete zuen maistraren izena. Dakigun gauza bakarra da ordezko irakasleak oniritzia eman zuela, 1937ko urtarrilaren erdialdean, Soraluzetik (Gipuzkoa) zetozen sei errefuxiatu Nesken Eskola Nazionaleko maistrari zegokion etxean gelditu zitezen<sup>307</sup>. Mutilen Eskola Nazionaleko maisu titularra, Andrés Martín Pérez madrildarra, Urdulizen zegoen Gerra Zibila piztean eta bere postuan mantendu zen.

Auzo-eskolei dagokienez, 1936ko irailaren erdialdean abisatu zen ikasturtearen hasiera atzeratuko zela “(...) *behar den momentuan adieraziko den eguna arte*”; beraz, maisu-maistrek “(...) *bitartean, zegozkien klaseetara ez zuten joan*” behar<sup>308</sup>. Azaroan, Aldundiko Batzorde Kudeatzaileak agindu zuen abenduaren 1ean klaseak hasteko. Maisu-maistrek “(...) *aitatutako abenduaren batean euren klaseetara joan* (behar zuten) *eta berehala Irakaskuntza Publikoaren eta Euskal Kulturaren Zerbitzuari jakinarazi*”. Udalei agindu zitzaizen esan zezaten “(...) *zenbat (...) ordezko maisu-maistra behar ziren hutsik geratzen ziren plazak betetzeko, gehienez hiru eguneko epean*”<sup>309</sup>. Abenduaren 2an, Enrique Legarra alkateak Bizkaiko Diputazioko Kultur Saileko buruari aditzera eman zion Landako eskolako maistra, María Luisa Leivar Olanoren, ez zela bere lanpostura azaldu eta “(...) *horregatik irakasleak joan ezinik*” zeudela klaseetara<sup>310</sup>. Hogei egun beranduago, eskolak itxita zirauen “(...) *hura gobernatzen zuen maistra azaldu ez zelako*”, jakin barik “(...) *zergatik ez den agertu*”<sup>311</sup>. Leivar Tolosan zegoen, bere jaioterrian, gurasekin 1936ko uztailaren 18ko militarren matxinada jazo zenean. Irakasleak berak 1937ko irailean azaldu zuenez, behin gerra hasita ez zen Plentziako bere etxera bueltatu eta Tolosan geratu zen; ez zuen herria laga “(...) *eskatu egin bazioten ere*”, nahiago izan zuen “(...) *tropa nazionalen sarrerari itxaron*” eta ondoren Tolosako agintari berriei bere burua eskaini<sup>312</sup>. Geroago aipatuko dugun legez, kontu handiz hartu behar da María Luisa Leivarren deklarazio hau, kontuan hartu behar dugulako maistraren helburua depurazioa prozesua positiboki gainditzea zela. Alde horretatik, Tolosa ez lagatzeko erabakia hartu bazuen, litekeena da hori egitea ezinezko zelako, hiribildu gipuzkoarra 1936ko abuztuaren 11n etorri baitzen matxinatuen eskutara.

---

305 Ibíd. *Bermeoko alkateak egindako txosten politiko-soziala* 1939-8-28.

306 Ibíd. *Bermeoko abade ekonomo Ginés Arechaga Echevariak egindako ziurtagiria* 1939-8-28.

307 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-16.

308 *La Gaceta del Norte* 1936-9-15.

309 *El Nervión* 1936-11-25. Irekitzeko agindua azaroaren 23an erabaki zen.

310 B.F.A.H. Hezkuntza eta kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, Eskola baten eraikuntza Landako auzunean, *Urdulizko alkatearen mezua, Foru Aldundiko Kultura Departamentuko buruari zuzendua* 1936-12-2.

311 Ibíd. *Urdulizko alkatearen mezua, Foru Aldundiko Kultura eta Hezkuntza Departamentuko buruari zuzendua* 1936-12-22.

312 A.A.O. 32/13069, Exp. 45, *María Luisa Leivar Olanoren depurazio espediente*. *María Luisa Leivar Olanoren deklarazioa, Bizkaiko Irakaskuntza Publikoko buruaren aurrean* 1937-9-7.

1936ko abenduan itxita egon ostean, Landako Eskolaren egoera “normaltasunera” bueltatu zen 1937aren hasieran. María Luisa Leivarrek hutsik lagatako postua Petra Echeandia maistrak hartu zuen<sup>313</sup>. Mendiondoko Eskolari dagokionez, ireki zenetik izendatuta zeukan maistraren esku jarraitu zuen: Teresa Gangoiti Izaguirre.

Beste alde batetik, Udalak Eskola Nazional Berriak irekitzeko zituen planak etenik geratu ziren Gerra Zibilaren hasieratik, baina Udalbatzaren gogoan zeuden. Hartara, Eusko Jaurlaritzako Herri-lan Sailak 1936ko urriaren 28ko gaztiguaren bidez itaundu zionean Urdulizko Udalari zein ziren herrian egin beharreko obra premiazkoenak, udalbatzak azaroaren 4an erantzun zion, eskola nazional bikoitzen eraikuntza. Arrazoia, jakina, aitatutako eraikinaren eskasia zen une haietan zegoen eskola-errola bertan sartzeko, klasera joan ezinik geratzen baitziren “(...) *mutiko eta neskatila ugari*”<sup>314</sup>.

Gero eta errefuxiatu gehiago etorrira, egoerak okerrera egin zuen. Otsailaren amaieran, haietako batzuek Udalari eskatu zioten bere seme-alabei laga ziezaieten Eskola Nazionala klaseetara joaten. Ikastetxea, ostera, lehenago ohartarazi dugun legez, lepo zegoen, “leku nahikoa” barik; hainbesteraino, non, “(...) *herriko ume askok*” ezin baitzuten joan “(...) *lekurik ez dutelako*”. Errefuxiatuen eskariaren aurrean, udalbatzak aho batez erabaki zuen auziari buruz Euzkadiko Gobernuak Justizia eta Kultura Sailari itauna egitea<sup>315</sup>.

Datu gutxi daukagu gerrako hilabete haietan irekita iraun zuten udalerrriko ikastetxeetako eskola-bizitzaz. Badakigu, esaterako, 1937ko otsailaren hasieran, gerra egoeratik ere, Landako Eskolako neska-mutilen bertaratzea, “*orokorrean*”, “*oso ona*” zela, nahiz eta Ikuskatzaileak argitu zuen bisita egin zuen eguna izan zela “(...) *klasera haur gutxien joan direnetako bat*”<sup>316</sup>. Egun beretan bisitatu zen Mendiondoko Eskola ere, eta bertaratzea eta disziplina “*ontzat*” jo ziren. Ikastetxea bisitatu zuen Irakaskuntza Publikoko Ikuskatzailearen iritziz, klasea hasia zen “(...) *normalizatzen*” eta maistrak lan egiten zuen “(...) *interesez, irakaskuntzaren martxan sor zitezkeen arazoei aurre egiten saiatuz, ikasleengan asko nabari zelaririk heziketa aldaketa*”<sup>317</sup>. Otsailean eskolarako

313 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, Eskola baten eraikuntza Landako auzunean, *Petra Echeandia maistraren mezua, Irakaskuntzako ikuskatzaile buruari zuzendua* 1937-1-2. Komunikazio horretan maistrak jakinarazi zuen hilaren 4an, 5ean eta 6an eskola itxirik egongo zela “(...) *eskolako lokala zuritu behar delako*”. Idazkiaren data oker dago, antza, beste dokumentu batzuetan hobekuntza horiek 1937ko 4tik 6ra bitarte eginda baleude bezala agertzen direlako.

Beste alde batetik, Petra Echeandia Olearen depurazio espedientea eskuratu zen (A.A.O 32/13069, Esp. 432-38), baina bertan ez zen agertu maistraren Urdulizko egonaldia aipatzen zuen dokumenturik.

314 M.H.D.Z. P.S. Bilbo 58. *Alkatearen mezua, Eusko Jaurlaritzako Herri-lanetako idazkari orokorrari zuzendua* 1936-11-4.

315 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-27.

316 B.F.A.H. Hezkuntza, Kirolak eta Turismoa, 19. 940. karpeta, 1. Espedientea, *Auzo-eskoletara 1937an egindako ikustaldiak, Landako auzo-eskolari buruzko txostena* 1937-2-2.

317 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, Mendiondon auzo-eskola bat sortzea, *1937ko otsailaren 1ean egindako ikustaldiaren gaineko txostena*, 1937-2-2.

asistentzia ontzan eman bazen, apirilaren erdialdean eskola-ume batzuen irregularra zen. Irakaskuntza Publikoaren Txostenak 8 mutiko eta 4 neskatilaren gurasoei eskatu zien bidal zituzten “(...) euren seme-alabak klasera beharrezko sarritasun eta puntualtasunez”, eta ohartarazi zitzaizkien egiten ez bazuten alkateari horren berri emango ziotela “(...) dagozkion zehapenak” ezartzeko<sup>318</sup>.

Eskura izan ditugun gainerako dokumentuek eskola-eraikuntzen mantentzeari buruzko argibideak ematen dizkigute. Esate baterako, 1937ko urtarrilaren 30ean, Udalak Landako Eskolako klaseak bertan behera uztea agindu zuen otsailaren 4tik 6ra, “(...) Eskola hau barrutik zurrizko asmoz”, eta erabakiaren berri eman zitzaion maistrari eta Aldundiari<sup>319</sup>. Eskolak irekita behar zuen 8an, baina Zerbitzuko ikuskatzaileek itxita aurkitu zuten; beraz, maistrari eskatu zitzaion azaldu zezan ikastetxeak zergatik ez zituen ateak ireki egun hartan<sup>320</sup>. Echeandiak azaldu zuen ez zela klaserik eman “(...) gelek ez zeukatelako garbitasun baldintzarik”; irakaskuntzari biharamunean, otsailak 9, ekin zitzaion berriro, “(...) goizetik”<sup>321</sup>.

Beste alde batetik, otsailaren 14an, Urdulizko Udalak Landako eta Mendiondo Eskolen depurazioa Francisca Bilbao Urrechagari esleitu zion. Beste inor ez zen posturako<sup>322</sup>. Aipatu beharra dago andre honek lana 1936an lortu zuela, eta urte horren amaieran kontratua amaitua zitzaioala; beraz, bere lana atzeratuta zegoen<sup>323</sup>.

1937ko apirilaren 28an Urduliz gerra-eremuan sartzeak<sup>324</sup> klaseen amaiera ekarri behar zuen ikastetxeetan. Hala eta guztiz ere, Andrés Martín maisuaren arabera, eskola nazionala maiatzaren amaieran itxi zen<sup>325</sup>. Badirudi maisuak maiatzaren 21ean gertatu zenaz ziharduela, egun hartan Mungiakoa Parkeko soldaduek ikastetxea okupatu zutelako<sup>326</sup>, eraikinari erabilera militarra eman zitzaionean. Aurrerago ikusiko dugunez, auzo-eskolak ere okupatu zituzten soldaduek. Urdulizko Udalak 1937ko abuztuaren 20an egindako Txostenaren arabera, Mendiondoko Eskola “(...) errefuxiatuen lokal moduan erabili zen eta,

---

318 B.F.A.H. Hezkuntza, Kirolak eta Turismoa, 10, 931 karpeta, 3. espedientea, *Irakaskuntza Publikoaren ataleko aktak, Akta 1937-4-13*.

319 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-30.

320 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, Eskola baten eraikuntza Landako auzunean, *Bizkaiko Aldundiaren mezua, Petra Echeandi maistrari zuzendua 1937-2-16*.

321 Ibíd. *Petra Echeandiaren mezua, Irakaskuntzetako ikuskatzaile buruari zuzendua 1937-2-9, Petra Echeandiaren mezua, Irakaskuntzetako ikuskatzaile buruari zuzendua 1937-2-22*.

322 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-2-14.

323 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-30.

324 *El Liberal* 1937-4-30.

325 DEFENTSAREN ARTXIBO OROKOR ETA HISTORIKOA (D.A.O.H.), 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta.

326 M.H.D.Z. P.S. sekzioa Santander M-2, *Mungiaiko Sektoreko Parkeko Buruaren mezua, Euzkadiko 17. Brigadako Buruar zuzendua i, Urduliztik igorria 1937-5-21*.

*beranduago, milizianoen Intendentziarako*<sup>327</sup>. “Errefuxiatuentzako lokal” gisa erabili izanak pentsarazten digu horretarako erabili zela Molak Bizkaiaren aurka abian jarritako erasoaldiaren ondorioz, 1937ko martxoaren amaieratik aurrera, orrialde batzuk lehenago adierazi dugun usteari jarraituz.

Plentzia aldameneko herrian, Eskola Nazionaletako klaseak etenda zeuden apirilaren erdialdean, eta mahai gainean zegoen ikastetxean “(...) *Gizarte Laguntzako jantokiak*” ipintzeko aukera. Ordura arte *Aurrera Kasinoan* zeuden, baina eraikin hori odol-ospitale bihurtu gura zuten hiribilduko agintariek<sup>328</sup>.

### 1.1.5 Defentsa sistema: Burdin Hesia Urdulizen

Euzkadiko Gobernuak hartu zuen lehen erabakietakoa Gotorleku Atala sortzea izan zen, Defentsa Sailaren barruan. Egiteko argi bat zuen, alegia, Bilbo eta inguruak defendatzeko gotorleku sistemaren eraikuntza sustatzea. Ideiaren asmatzaileak izan ziren Bizkaiko Defentsa Batzordea, José Echevarria, eta Francisco Ciutat tenientea, Iparraldeko Armadako Estatu Nagusiko burua. Bunker, metrailadore-habi eta lubakien multzo horri *Burdin Hesia* esan zitzaion laster. Pablo Beldarrainen deskribapena kontuan hartuta, *Hesiak*:

*“(...) tenía una longitud aproximada de 80 kilómetros, se apoyaba en el mar por Somorrostro y Plentzia, formando una bolsa dentro de la cual quedaba el Valle de Txorierra y los bajos de los ríos Ibaizabal, Nerbion y Kadagua*”<sup>329</sup>.

*Burdin Hesia* kostaldean estutzen zen, gotorlekuaren barruan “(...) *lehorreratzek gerta zitezkeen aldeak*” ekiditeko asmoz. Izan ere, beldurra zitzaion “(...) *arerioak itsasoan duen nagusitasunari*”<sup>330</sup>.

---

327 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Mendiondoko Eskolan zegoen materialaren zerrenda* Urdulizko Udalak 1937-8-20an egindako txostenerako prestatutakoa. Dokumentu horretan azaldu zen Mendiondoko eskolak ez zuela “(...) *funtzionatu gorri-separatisten denboran*”, Landakoak bezala. Baieztapen horiek gezurtatzen dituzte Udalaren 1931-1937 Akta Liburuko datuek, bi eskoletara egindako ikustaldien gaineko 1937ko otsaileko txostenek eta Aldundiko Irakaskuntza Publikoko Ponentziak Mendiondoko eskolako ikasle batzuen gurasoei egindako errekerimenduek.

328 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bileren ordezkoa 1937-4-17.

329 BELDARRAIN, Pablo: *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*, Oñati, Intxorta 1937 Kultur Elkarte, 2012, 51 or.

330 *Ibid.* 78.

Proiektua Alberto Montaud koronelak zuzendu zuen, “(...)gerra arte gotorlekuetako irakasle Espainiako Armadaren Gerra Eskola Gorenean”. Obrako lehen buru legez, Pablo Murga ingenierien kapitaina aukeratu zen lehenik, baina hura kargugabetu zuten espioitza kontuetan zebilela deskubrituta, eta horregatik fusilatua. Alejandro Goicoecheak hartu zuen erreleboa, baina etsaiengana igaro zen 1937ko otsailaren amaieran<sup>331</sup>.

Alberto Montaudetik egindako Txostenaren arabera, eraikuntza 1936ko urriaren 9an hasi zen, guztira 10.998 beharginek zihardutela. Obrek lehen geldialdia sufritu zuten azaroaren 14an “(...)aurrez jakinarazi barik etenda (...),arrazoi goitiarrengatik”<sup>332</sup>. Beldarrainek eman zuen horren azalpena: “(...) Legutioko gure erasoaldian hasteko zegoen, hain zuzen ere azaroaren 30ean, eta hartan parte hartzeko Ingenieri unitateak ateratzeko beharra egon zen” hesiko lanetatik<sup>333</sup>. Azaroaren 24an berriz ekin zitzaion eraikuntzari. 13.289 behargin ibili ziren, abenduaren hasiera arte obra berriro ere eten arte. Handik aurrera, obrak jarraitu zuen “(...) epe ezberdinetan sektore bakoitzarentzat, antolaketa berri batez eta 2.550 gizonetara mugatuta geratu zen langile multzoarekin”<sup>334</sup>.

Obren hasikeran, aitatutako urriaren 9an, lanerako sei sektore sortu ziren: Barrika-Urduliz, Artebakarra, “El Gallo”, Miraballes, Sodupe eta Zierbena-Galdames. Barrika-Urdulizko sektorea bost ataletan zatituta zegoen: Barrika, Urduliz, Urdulizko lepoa, Pozobabale eta Unbe 14. Km.<sup>335</sup>.

Eraikuntzan parte hartu zuten beharginei buruz, hona zer kontatzen den *Burdin Hesiaren gaineko Txostenaren Laburpenean* :

*“(...) en los primeros momentos hubo una gran afluencia de personal que iba incrementándose cada día por las aportaciones hechas por desocupados, muchos de ellos refugiados de Guipúzcoa, y por el personal del ramo de la construcción que fue requerido para estos trabajos. La afluencia tan grande de personal y la lógica falta de preparación, crearon grandes dificultades de transporte, herramientas de trabajo, etc... que fueron venciendo a medida que se organizaban los trabajos. Estas dificultades fueron motivadas por la gran celeridad que desde los primeros momentos quiso darse a la obra a realizar, lo cual, según manifestaciones del entonces Capitán-Jefe, Sr Goikoetxea, habían de realizarse en el plazo no superior a UN MES”<sup>336</sup>.*

---

331 Ibid. 77.

332 A.A. DP-555-03 *Bilboko egungo defentsei buruzko txostena (Montaud txostena) 1937ko maiatza.*

333 BELDARRAIN, 311.

334 A.A. DP-555-03 *Bilboko egungo defentsei buruzko txostena (Montaud txostena) 1937ko maiatza.*

335 A.A. DP-164-6 *Burdin-hesiaren memoriaren laburpena 1937ko maiatza.*

336 Ibid.

Txosten horri esker dakigu Urdulizko sektoreko teknikoa Gorostiaga jauna izan zela eta “*hormigoneroa*”, *berriz*, Panera. Urdulizko obretan lan egin zuen gizon kopurua ere ezagutzen dugu:

<b>BURDIN HESIAREN OBRETA KO BEHARGIN KOPURUA URDULIZ INGURUAN</b> <sup>337</sup>	
<b>1936-10-9tik 1936-11-12ra</b>	Barrika-Urduliz sektoreak / Urdulizko Lepoa / Pozozabale 961 gizon
<b>1936-11-24tik 1936ko abenduaren hasiera arte</b>	Urdulizko sektorea 520 gizon
<b>1936ko abenduaren osteko berrantolaketa</b>	Barrika-Urduliz sektorea 250 gizon

1936ko abenduko geldialdiaren ostean obrei berriro ere ekin zitzaizkion, “(...) *data ezberdinetan Sektore bakoitzerako*”, ezarri zen “(...) *langile kopuru mugatu bat (...) eta lan hauetarako enplegatzen ziren gizon guztiak obra egiten ari zen lekuaren ingurukoak izateko jarraibide zorrotza*”. Burdin Hesiko sektore guztien arteko behargin kopurua, esanda dagoen legez, 2550 ingurukoa izan zen guztira, nahiz eta 1937ko apirilean “(...) *egoeraren premia gorriak behartuta, langile kopurua handitu egin zen*”, 10.000 beharginetaraino<sup>338</sup>.

Obraren inguruko pertsonak enplegatzeko arazoia, itxuraz, 1936ko urrian lanak hasi zirenean egon ziren arazoak saihestea izango zen, *Txostenean* islatu zen bezala:

*“(...) se tropezó con una desgana muy grande en el personal encargado de ejecutarlas, siendo numerosísimas las denuncias que por escaso rendimiento del obrero se recibieron (...), denuncias que venían reforzadas por los actos reprobables que en la propiedad ajena cometían aquellos mismos que abandonaban los trabajos para causar destrozos en huertas, caseríos y arbolado de los términos municipales en que aquellas se realizaban, todo lo cual contribuyó a crear un ambiente de hostilidad de los vecinos hacia dichas obras”*<sup>339</sup>.

Gure buruari galde diezaiokegu ea Urdulizen era horretako arazorik izan zen edo ez. Alde horretatik, lekukotasun bakarra daukagu, hain zuzen ere 1938ko apirilean herriko hiru bizilagunek Manuel Aspiazu Abarategui *ertzañaren* defentsan emandakoa, haren kontra irekitako auziaren barruan. Hala eta guztiz ere, aurrerago ikusiko dugun legez, deklarazio hauetan deskribatutako istiluak,

337 Ibíd.

338 Ibíd.

339 A.A. DP-164-6 *Burdin-hesiaren memoriaren laburpena 1937ko maiatza*.



1937ko apiriletik ekainera bitarte kokatu behar lirateke, hain zuzen ere herriko ortuetan lapurretak gertatu ziren garaia. Horien erruduntzat jotzen ziren *“asturiar eta santandertarrak, eta baita lubakiak egiten dituztenak ere”*. Bistan denez, testigantza hauek, erregimen berriaren pean egindako guztien antzera, kontu handiz hartu behar dira, egoera nahasgarri eta ez demokratiko batean egin zirelako. Hori bizilagunek Aspiazu *ertzañaren* jarrera ona bermatu zuten egindako lanean. Berbarako, Eulogio Abando Dorronsorok nabarmendu zuen zelan Aspiazuk *“(…) bueltatu zizkien (bizilagunei) sarritan patatak eta landako beste produktu batzuk asturiar eta santandertarrek, eta baita lubakiak egiten zituztenek lapurtzen zizkietenak”*<sup>340</sup>. Geroagoko deklarazio batean, Abandok erantsi zuen asturiarrek *“(…) ganadua eta zamariak”* eroaten zituztela<sup>341</sup>, pataten uztaz gain eta hori *“(…) egin zutela ASPIAZU iritsi zen arte”*<sup>342</sup>. Bizilagunetako beste batek, Antonio Larrabeitiak, adierazi zuen *ertzain* urduliztarrak *“(…) saihestu zuela Armada Gorri separatista deitutakoko asturiar eta santandertarrek patatak eta landako beste fruituak ostutzea”*. Ortuetakoko jabeek *“(…) fruitu horiek bereganatzen topatzen zituztenean eta atentzioa deitzen zitzaizenean gerra-eremua zela esanez erantzuten zuten eta haiak ez zutela bertan inongo zerikusirik (…)”*<sup>343</sup>. Larrabeitiak geroago emandako beste lekukotasun baten arabera, bizilagunak kexatu zitzaizkionez *“(…) ordezkari lana egiten zuenari, (honek) bidali zizkien ASPIAZU eta beste bi (…)”*<sup>344</sup>. Larrabeitiaren kontakizunaren xehetasunetatik ateratzen da lapurretak gertatzen hasi zirela 1937ko apirilaren 28an<sup>345</sup>, hau da, Urduliz *“gerra-eremua”*n sartu zutenean, eta hala izan zela herriaren ebakuazioa arte. *“Ordezkariaren”* aipamenak indartzen du hori, eskualdearen ardura hartu zuen ordezkari militarraz ari baita, seguru antzean. Urdulizen kasuan ez daukagu informaziorik 1936ko urrian, Burdin Hesia eraikitzen hasi zirenean, beharginen aldetik lapurretarik egon zen jakiteko. Lehenago aditzera eman dugunez, soilik Montauden txostenean dagoen informazioa daukagu, eta hori obra guztiei buruzkoa da. Hartan, gorabehera gisa aitatzen dira *“(…) suntsiketak baratzeetan, baserrietan eta zuhaitzietan”*.

Urdulizko tartearen eraikuntzan parte hartu zuten behargin batzuen ezkerreko joera ideologikoa, betikotuta geratu zen gotorlekuen hondakinetan mantendu diren porlaneko inskripzio ebakidunetan. Berbarako, *“UHP”* idazkuna topatzen dugu, hau da, *“Uníós Hermanos Proletarios”*; edo *“CNT”*, Confederación Nacional del Trabajo sindikatu anarkistaren akronimoa, baita komunismoaren sinbolo gailena ere, higitia eta mailua.

340 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Eulogio Abando Dorronsororen deklarazioa* 1938-3-13.

341 Hemen Eulogio Abandok ganadua lapurreta deitu zuena benetan animalien ebakuazioa izan liteke.

342 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Eulogio Abando Dorronsororen deklarazioa* 1938-5-13.

343 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioa* 1938-3-13.

344 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioa* 1938-5-13.

345 Alde horretatik, aitatzekoa da Manuel Aspiazuk Fruizko ebakuazioan parte hartu zuela, 1937ko irailaren 9ko ikerketa-deklarazioan jaso zen legez. Ertzañan 1936ko abenduan sartu zen, gutxi gorabehera, eta Areetan eta Deustuan egon zen destinatuta, bere deklarazioan Urdulizko egonaldia aitatu ez bazuen ere (I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia).

Urduliztarrek eta udatiarrek obren hasieratik parte hartu zuten gotorlekuen eraikuntzan, nahiz eta, itxuraz, ez zen beti atseginez onartzen. Esate baterako, Fernando Sáenz Mendizabal udatiarrak kontatu zuen saiatu zirela “(...) *lubakiak egitera behartzen, gainerako gazteen antzera*”. Horregatik, Bilbora ihes egin zuen eta bere etxean ezkutatu<sup>346</sup>. Martin Aldecoa Goirigolzarri urduliztarrak ere adierazi zuen behartu zutela “(...) *lubakietan lan egitera, eta hori zela-eta Larrazabal Batailoian sartu zela, bere borondatez, aitatutako lanak saihestearen*”<sup>347</sup>. Luis Trebolazabalak, berriz, hona zer kontatu zuen:

*“En estas obras trabajó mi padre en las alambradas, haciendo trincheras, (...) los chavales de mi edad también, yo tuve cartilla de trabajador del PNV y Félix (Otazua) el de “Ansones” también, yo llevando aguas y Félix con los bueyes”*<sup>348</sup>.

Beste alde batetik, badakigu Udaleko idazkari Luis Navarrok esku hartu zuela “(...) *gotorlekuak egitera behartu zuten garaian, (...) eskumako gehienak libratu (zitezen) lan horiek egitetik*”. Navarrok adibide moduan ipini zuen honen kasua: “(...) *Rafael Bach, gorrien preso-ohia (...) behin-behineko askatasuna lortu zuena eta herri honetan geratu zena egunero sinatzeko betebeharrarekin (...)*”. Idazkariak, itxuraz “(...) *Udaletxean sartu zuen fabore egiteko eta gotorlekuak egitera joan zedin saihesteko*”<sup>349</sup>, nahiz eta ez dakigun zer lan egin zuen Urdulizko Udalean.

Preso eskuindarrak ere erabili ziren gotorlekuen obretan, eta Barrikako Ospitale Zahar Etxearen eraikinaren hegala batean eman zitzairen ostatu. Susana Chavarrik jasotzen duenez, 1937ko maiatzaren hasieran *Euzkadiko Gobernuak* aditzera eman zion Fundazioko patronatuari “(...) *ospitale zahar etxearen hegala bat konfiskatuko zitzaizela preso politiko talde bati ostatu emateko, Barrika-Urduliz aldean gotortze-lanek irauten duten bitartean*”. Elorduy egoitzak, guztira, 587 presori eman zien aterpe. Euren funtzio nagusia zultzaile lana izan zen<sup>350</sup>. Hain zuzen ere zahar etxeari *Barrikako kontzentrazio esparru* ere deitu zitzaion. Hara lekualdatu zuten Karmeldegiko presondegitik 1937ko maiatzaren Sopelako bizilagun Isidoro Zamacona<sup>351</sup>. Butroeko gaztelua ere moldatu zen “(...) *gotortze lanetarako behar ziren presoak*” jasotzeko. 1937ko maiatzaren 11n, Butroera 180 preso eroan ziren Karmeldegiko kartzelatik. Haien artean, Sopelako bizilagun Genaro Legarra<sup>352</sup>.

346 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 639-37, *Fernando Sáenz Mendizabalen deklarazioa* 1937-8-6.

347 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 639-37, *Martin Aldecoa Goirigolzarriren deklarazioa* 1937-8-5.

348 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

349 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 794-37 auzia, *Manuel Uriberen, Gregorio Urrutiaren, Juan Uriberen, Santiago Perosanzen eta Federico Monteroren talde deklarazioa*.

350 CHAVARRI, Susana: *Fundación Elorduy: 100 años de historia*, Bilbo, Elorduy Fundazioa, 2014, 92-93.

351 M.H.D.Z. P.S. Madril 1190, 24, zk. *Bilboko Karmeldegiko (Bizkaia) presondegitik Barrikako kontzentrazio esparrura lekualdatu dituzten atxilotuen zerrenda*, d/g (1937ko maiatza)

352 M.H.D.Z. P.S. Madril 1190, nº 14, *KARMELEGIKO PRESONDEGIA*. *Establezimendu honetan dauden 18-55 urte bitarteko atxilotuen zerrenda; haien artean ez daude gaixoen zerrendetakoak, ezta gaurko egunarekin Butroeko gaztelura irten dutenak*, 1937-5-11.

Beste alde batetik, ordena publikoko zaindarien euren eginkizunen artean zeukatzen “(...) *lubakietako erremintak zaintzea*”<sup>353</sup>. Dokumentazioan “(...) *lubaki edo gotorlekuetako zaindaria*” deitzen zaie., Badakigu, barbarako, haietako baten, Antonio Bilbaoren, baja eman zela 1937ko urtarrilaren hasieran, soldadutzara deitu ziotelako; beraz, Eulogio Uribe ordezkatu zuen “(...) *gainerako Zaindarien betebeharrak eta baldintza berdinekin*”<sup>354</sup>. Zenbait egun geroago, urtarrilaren 9an, Udalak behar ziren egiaztagiriak eman zizkien “(...) *sektore honetako lubakietako zaindariei euren nortasuna eta kargua ziurtatzeko*”<sup>355</sup>.

Martxoaren 30ean, Gerra Sailaren aginduz, “*gotorlekuetarako zortzi zaindaria*” izendatu ziren gaueko zaindaria eta igandeetan eguneko eta gauekoa egin zezaten:

<b>GOTORLEKUETAKO GAUEKO ZAINDARIAK (Izendapena 1937-3-30) <sup>356</sup></b>
Juan José Camiruaga
Juan José Gurruchaga
Andrés Inchaurtieta
Juan Inchaurtieta
Benigno Fullaondo
Ciriaco Asensio Ansoleaga
Santos Unibaso
Juan Tomás Inchaurtieta

Martxoaren 30ean ere, eta *Hesia* eraikitzeke lanak berrabiatzearekin batera, hainbat udali agindu zitzairen, horien artean Barrika, Urduliz edo Sopolakoari, honako hauek entregatzeko:

*“(...) de herramienta todo aquel personal que haya trabajado en las obras de fortificación (...) y que no la devolvió haciendo responsable de la falta de este material y de los perjuicios que con ello se irroguen en estos momentos, a los señores alcaldes de los mencionados Ayuntamientos”*<sup>357</sup>.

353 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Benigno Fullaondo Lopateguiaren deklarazioa* 1937-8-5.

354 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-2.

355 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-1-9.

356 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-3-30.

357 *El Liberal* 1937-4-9.

Apirilaren 8an, Ingenieri Buruak, komunikazio baten bidez gomutarazi zien martxoaren 30eko aginduak eragiten zien 25 udaletako alkateei<sup>358</sup>, mandatua “*derrigorrez*” bete beharra zutela <sup>359</sup>.

Maiatzaren hasieran, Pablo Beldarrainek jaso zuenez, Montaud koronelak Urduliz-Barrikako sektorea aitatu zuen, *Burdin Hesiko* atalen artean “*sendotasun goresgarria*” azaltzen zutenen artean, beste sektore batzuekin batera, berbarako Zierbena, Somorrostro, Sodupe, Miraballes, El Gallo edo Larrabetzukoa<sup>360</sup>. Montaudek adierazi zuen Santa Marinako mendigunea zegoenez “*(...) indartsuki antolatuta eta modu honetan, ondo defendatuta, denbora luzez eutsi dakioko*”<sup>361</sup>.

Beldarrainen kontakizunari jarraituz, tropa frankistak maiatzaren erdialdean saiatu ziren Mungia bereganatzen, helburu argi batekin: herri honen eraso baliatzea “*(...) Hesira (Artebakarra) eta Bilbora joateko errepidera jarraitzeko, bide laburren etik, Deriotik eta Santo Domingotik igarota*”. Hala eta guztiz ere, armada “nazionalak” aukera hori baztertu zuen eta bere erasoaldia Arratia, Urduña eta Lemoatxeko ingurura eraman zuen. Hiru aste pasa baino lehen ez zuten berriro ere Mungiatik gertu erasoko, zehazki Gamiz-Fikan. Beldarrain eta bere gizonak hiru aste baketsu horiek erabili zituzten “*(...) okupatzea egokituko zitzaigun Hesiaren atala (Barrikarik Artebakarrainoko tartea) ezagutzera igotzeko, amore ematen jarraitu beharko balitz*”<sup>362</sup>.

Bista hartan Beldarrainek topatu zuen *Hesia*:

*“Estaba prácticamente acabado en lo concerniente a nidos de ametralladora, trinchera y alambrada. El extremo de la costa entre Urduliz y Sopelana era un complejo bien poblado de nidos y trincheras. (...) Toda esta fortificación se hallaba exenta de refugios antiaéreos, caminos de enlace a la contrapendiente y campamentos. Pero siendo todo el suelo de piedra arenosa que se puede horadar a picachón, posibilitaba completar la obra fácilmente”*<sup>363</sup>.

Beraz, badirudi garai horretan egin zirela Santa Marina aldeko gotorlekuen hondakinetan arrokari zulatatu ziren aterpeak.

---

358 Udalak honako hauek ziren: Barrika, Urduliz, Sopela, Erandio, Loiu, Laukiz, Gatika, Mungia, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu, Gamiz-Fika, Galdakao, Zaratamo, Arrigorriaga, Miraballes, Zollo, Arrakundiaga, Okendo, Gueñes, Gordexola, Galdames, Abanto-Zierbena eta Somorrostro.

359 *El Liberal* 1937-4-9.

360 BELDARRAIN, 78 or.

361 A.A. DP- 164-6, *Bilboko egungo defentsei buruzko txostena* 1937ko maiatza.

362 BELDARRAIN, 265 eta 268 or.

363 *Ibid.* 269 or.

Santa Marinako edo Barrikako egitura defentsiboak ez ziren azkenik erabili. 1937ko ekainaren 12an, soldadu frankistek *Hesia* apurto zuten Gaztelumendi inguruan, Larrabetzun, eta bertan zeuden gudariei atzeraka eragin. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, ekainaren 14an Mungia eta Plentzia galdu ziren eta biharamunean aurrerakada azkar bat eman zen Getxoraino, Urdulizen, Sopelan eta Berangon zehar, inork kontrarik egin barik.

*Burdin Hesiaren jausialdia*, Juan Pablo Fusiren esanetan, “(...) erasotzaileen nagusitasun erabatekoaren” ondorioa izan zen, “(...) hegazkinetan eta artillerian, bereziki, oinezkoen erasoaren prestatze-lanetan”. Hesia “(...) Bizkaiaren defentsan izandako akatsen (isla zen): pentsaera defentsibo eta estatiko bati erantzuten zion, gerraren ikuskera zahar bati”; izan ere “(...) ez zen ulertu eraikuntza gotortuen erabilgarritasun eskasa, hegazkinen eta artilleriaren kontrako defentsa barik”. Gainera, modu ulertezinean, *Hesiaren* perimetrotik kanpo laga ziren hiru tontor garrantzitsu, “(...) zeinetatik erraz eraso zitekeen”: Jata, Sollube eta Bizkargi<sup>364</sup>.

Aipatu beharra dago armada “nazionalak” ederto ezagutzen zuela gotorleku eta lubaki multzoaren trazadura, barbarako, aire-argazkien bidez eta Alejandro Goicoechea ingeneriak emandako informazioari esker frankisten aldera pasatu zenean. *Hesiaz* zuten ezagutzaren lekukoa da *El Pensamiento Alavés* egunkariak 1937ko maiatzaren 18an argitaratutako artikulua. Haren izenburua, “*Una información técnica de la cacareada “Línea Maginot” de Bilbao*”, eta “(...) idazle militar trebe baten idazluma arina” zuen egilea. Delako artikuluan, hain zuzen ere, jorratu ziren zehazki Barrikatik Unberako lerro defentsiboaren ezaugarriak, Santa Marinako haitzetatik pasata:

*“Es una idea generalizada que la línea que han dado en llamar Maginot es una trinchera continua. Las noticias, bastante veraces, que nosotros poseemos discrepan bastante de ello. La idea general de la fortificación es una serie de trincheras más o menos extensas enlazadas por caminos cubiertos con otras a retaguardia en una profundidad bastante extensa. En cada trinchera parece haberse construido nidos de cemento armado para máquinas automáticas. (...) En cuanto a Umbe, parece que últimamente ha habido modificaciones en el sentido de hacer afluir a dicho punto una línea de trincheras que parten de Isusquiza y de la Galea”<sup>365</sup>.*

Azkenik, aipamena egin behar diegu bonbardaketen kasuan biztanleria zibilaren erabilerarako eraiki ziren aterpeei. 1937ko apirilaren 12an, Udalak Defentsa sailburuari eskatu zion teknikari bat bidal zezan “(...) Elortza auzunean aire erasoen kontrako aterpea bat ikuskatzeko, aitatutako auzuneko bizilagunen

---

364 FUSI AIZPURUA, 277 or.

365 *El Pensamiento Alavés* 1937-5-18.

*eskari bati erantzunez*". Gainera, Udalak eskatu zion teknikoak berak zehaztu zezan "(...) *Landako auzunean beste aterpe bat eraikitzeko leku egokia*". Horretarako gomendatu zuten:

*"(...) para esta misión al Arquitecto Señor D. Juan María Uribe dadas las condiciones que concurren en el mismo por ser muy conocedor de los terrenos de esta por haber vivido en este pueblo"*<sup>366</sup>.

Juan María Uribe Guimón Rafael Uribe Uriarteren eta Susana Guimonen semea zen. Portugaleteko udaleko Udal Arkitektoa izan zen 1937ko urtarrilean kargugabetu zuten arte, gerra piztu zenetik ez zelako hango udaletxean azaldu<sup>367</sup>. Juan María Uribe berak kontatu zuenez, Plentzian eta Urdulizen errefuxiatu zen<sup>368</sup>, eta *Burdin Hesiaren* obretan parte hartzera behartu zuten, "(...) *Euzkadiko Gobernua delakoak errekiatuta eta militarizatuta*"<sup>369</sup>. Hari egotzi beharra diogu egun arte iritsi den aterpe zibilaren eraikuntzaren lekuaren aukeraketa, eta hurrean, haren diseinua ere. Metroaren errailen ibilbidearen ondoan dago, "*Landeta-Torre*" baserritik oso gertu. Porlan armatuz eraikia eta kontserbazio egoera onean, Gernikako Astra fabrikako aterpearekin batera Bizkaian bizirik dirauen mota honetako eraikuntza belikoetako bat da.

Bizilagunen eskariz, Udalak Elortzako aterpearen ikuskapena eskatzeko momentua, eta Landan beste aterpe baten eraikuntza abiatzekoa, ez zen ustekabekoa izan. Martxoaren 31n, Durangoko hiribildua gogorki bonbardatu zuten eta hasita zegoen Bizkaian gerra amaitzeko Mola jeneralak prestatutako erasoaldia. Arerioaren hegazkinen sarraldiak etengabeak ziren. Berbarako, apirilaren 24an, Erandio, Leioa, Hareeta eta Berango bonbardatu zituzten. Azken herri horretan, non, *El Liberal*ek adierazi zuen moduan, ez zegoen "(...) *inongo jomugarik, hiru bonba erori ziren eta biktimak sorrarazi*"<sup>370</sup>. Egun bi geroago, apirilaren 26an Gernikako bonbardaketa beldurgarria burutu zuten Kondor Legioaren hegazkinak. Hitlerren ekarpenetako bat kolpisten bandoari.

Esan bezala, hegazkin "*nazionalak*" ugaritu ziren zeruan. Berbarako, ekainaren 4an, hegazkin frankistak Bilbo gainean azaldu ziren maiz egunaren lehen orduetatik. Egun hartako arratsaldean, zenbait sarraldi egin zituzten, horietako bat arratsaldeko bostak eta laurdenetan. Sarraldi hartan, "(...) *arerioaren zortzi hegazkinak egina, Plentziatik hurbil aire-borroka bat eman zen bost ehiza-hegazkin leial agertu baitziren*". Albistea Madrilgo *La Voz* egunkariak argitaratu zuen; haren arabera, "*publikoak emozionatuta jarraitu zuen espazioan bizi zen borroka. Arerioak kopuruz gehiago izan arren, aireko piratek ihesari eman zioten hodeietan ordu erdiz borroka egin ostean*"<sup>371</sup>. Albisteari garaipen

366 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-12.

367 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 537-37 auzia, *Portugaleteko alkatearen mezua*, 1937-8-7.

368 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 537-37 auzia, *Juan María Uribe Guimónen deklarazioa* 1937-7-29.

369 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 537-37 auzia, *Juan María Uribe Guimónen deklarazioa* 1937-8-5.

370 *El Liberal* 1937-4-25.

371 *La Voz* (Madril) 1937-6-5.

kutsua badario ere, egiazki armada frankista “(...) *airean nagusi zen guztiz*” Euskal Armadaren aldean. Hain zuzen ere, besteak beste horrexegatik gertatu zen, azkenean, galtzaile<sup>372</sup>.

Aire-borrokei begira egotea ohikoa bihurtu zen, antza. Luis Trebolazabala “(...) *hainbat hegazkin borrokaren*” lekuko izan zen eta gomutatzen zen “*4 edo 5 edo 6 hegazkineko*” eskudrilatan joaten zirela<sup>373</sup>. Urdulizko bizilagun eta sortzez Lugoko Celsa Salgadok kontatu zuen “(...) *etengabe hegaz egiten zutela hegazkin nazionalak*”. 1937ko abuztuan eskumako jendeen salatzailea zelakoan epaitu zutenean, 71 urteko atsoa hegazkin haiek ikustean sentitzen zuen beldurraren berri ematera mugatu zen, eta gehitu zuen ez zela “(...) *hain harrigarria, haserre bizian, inori belarrian min emango zion esaldirik bota izana*”, baina ez zela “(...) *eskumako jendearen kontra ibili*”<sup>374</sup>. Sabin Broton, ume bat zen garai hartan; lan honetarako bere ahozko lekukotasunean kontatu zuen Batzoki zaharraren atzean zegoen aldean “(...) *sastrakadi bat zegoen (-la) non sartzen ginen hegazkinak pasatzen zirenean*”<sup>375</sup>. Juan Otegik honako hau kontatu zigun: “(...) *noizean behin hegazkinen bat zetorreanean, jendeak korrika egiten zuen ezkutatzera*”<sup>376</sup>.

Ez da inongo dokumentutan ageri Urduliz gaineko bonbardaketarik. Hala eta guztiz ere, ahozko hiru testigantzetan kontatzen da hegazkinen kontrako hiru obusen erorketa Urdulizen. Luis Trebolazabalak kontatu zuen Francoren hegazkin eta Errepublikaren hegazkin baten arteko aire-borroka batean Urduliz gainean: “*Hegazkinen kontrakoak tiroka hasi ziren eta obus bat erori zen Ansoleaga Bekoa baserritik 40 metrora*”, eta hura:

*“(...) está todavía dentro de la tierra. Otro cayó en el Camino Negro, justo a la esquina del camino (...) pude verlo yo, fui a husmear; allí, entre otros, estaba mi hermano Eusebio sacando el obús. Me hicieron quitarme de ahí (...)”*<sup>377</sup>.

Beste alde batetik, Juan Otegik gomutan zuen zelan “(...) *gure baserriaren aurrean (Luberrietas) erori zen (...) obus bat, baina ez zuen eztanda egin. Zulo batean sartuta geratu zen, baina ikusten zen*”<sup>378</sup>. Teresa Bilbaok kontatu zigun zelan “(...) *mendietatik deiadar baten zetozen obusak, deabruak legez. Mendietan iltzatzen ziren*”<sup>379</sup>. Obusen erorikoez gain, Luis Trebolazabalak gomutan zuen zelan ikusi zituen “(...) *hegazkinak metrailatzen*” Urdulizko alanbradak, “(...) *metrailatzen hasten ziren gutxi gorabehera*” aitaturako Ansoleaga Bekoa baserriaren ortu parean<sup>380</sup>.

372 FUSI AIZPURUA, 275 or.

373 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

374 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Celsa Salgadoren deklarazioa*

375 Sabin Brotons Astobietaren ahozko lekukotasuna 2013-7-28.

376 Juan Otegiren ahozko lekukotasuna 2013-8-27.

377 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

378 Juan Otegiren ahozko lekukotasuna 2013-8-27.

379 Teresa Bilbaoren ahozko lekukotasuna 2013-6-27.

380 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

### 1.1.6 Urdulizko ebakuazioa eta galera

Arestian aitatu dugun legez, apirilaren 28an gerra-eremu deklaratu ziren Butroe erreka haraneko udalerrriak eta Uribe Kostakoak, Getxo eta Berangoren salbuespenarekin<sup>381</sup>. Kaltetutako herri guztiei aplikatu zitzaizkien 1936ko urriaren 16ko Dekretua, urriaren 29ko agindua eta hilabete horretako 30eko Bandoa, guztiak Euzkadiko behin-behineko Gobernuak igorriak. 1936ko urriaren 16ko Dekretuaren arabera, gerra-eremuaren barruan geratzen ziren bataila frontearen aldameneko lurraldeak. Handik aurrera, “(...) *gobernu-agintaritza eta Ordena Publikoa*” Defentsa sailburuak izendatzen zituen ordezkari militarrei zegozkien. Alkateen eskutan “(...) *zinegotzi funtzioak eta administratiboak*” baino ez ziren geratzen. Dekretuak ezartzen zuen botere ordezkapen hau atoan egingo zela, eta bizilagunei egoera berriaren berri emango zitzaie la *“gerra bandoen”* bidez<sup>382</sup>.

Esanda dagoen legez, 1937ko apirilaren 24an, Urduliz gerra-eremuan sartu baino egun gutxi batzuk lehenago, Udal demokratikoak bere azken osoko bilkura egin zuen<sup>383</sup>. Apirilaren 28an, Lehendakari eta Defentsa sailburu José Antonio Aguirrek Francisco de Iturrioz e Iztueta izendatu zuen, “(...) *Plentziako plazako ordezkari, Plentzian, Gorlizen, Lemoizen, Armintzan, Urdulizen, Barrikan eta Sopelan eskumena duela*”<sup>384</sup>. Ordezkarri honi zegokion biztanleria zibilaren ebakuazioa zuzentzea bere agindupeko eskualdetik<sup>385</sup>.

Gerra-frontea gero eta hurreago zegoelako seinale argia izan zen 1937ko maiatzaren 21ean Urdulizko Eskola Nazionaletan Mungiako Sektoreko Parkea jartzea; herri hartan oso egun gutxiz egon zen, zehazki 1937ko maiatzaren 15etik. Behin Urdulizen instalatuta, Parkeko buruzagiak horren berri eman zion 17. Euzkadi Brigadako arduradun nagusiari<sup>386</sup>, momentu hartatik aurrera *Urdulizko Sektoreko Parkea* izena hartuta. Hiru egun geroago, Parkeko buruak bere nagusiari jakinarazi zion bazeukatela:

*“(...) un taller completo de armería con personal competente y capacitado para reparar cualquier clase de material de guerra, estando establecida su base para recogida de armas averiadas en las Escuelas Nacionales de Urduliz y escalones correspondientes (...)”*<sup>387</sup>.

381 *El Liberal* 1937-4-30.

382 *La Gaceta del Norte* 1936-10-20 eta 1936-10-31.

383 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-4-24.

384 *El Liberal* 1937-5-1.

385 *El Liberal* 1937-4-30.

386 M.H.D.Z. Atal Politiko-Soziala (P.S) Santander M-2, 21. esp., *Mungiako Sektoreko Parkeko buruzagiaren mezua, Euzkadiko 17. Brigadako buruzagiari zuzendua, Mungiatik igorria* 1937-5-15, eta *Mungiako Sektoreko Parkeko buruzagiaren mezua, Euzkadiko 17. Brigadako buruzagiari zuzendua, Urduliztik igorria* 1937-5-1.

387 M.H.D.Z. P.S. Santander M-2, 21. esp.. Esp., *Urduliz sektoreko buruzagiaren mezua, 17. Euzkadi Brigadako buruzagiari Urduliztik igorria* 1937-5-24.



Landako eta Mendiondoko auzo-eskolak ere okupatu zituzten “(...) *gorri-separatistek tropek*” eta erabili zituzten “(...) *Intendentzia kuartel gisa*”<sup>388</sup>.

Leherketa batek suntsitu zuen Eskola Nazionalen eraikina. Manuel Uribe alkateak halabeharrari leporatu zion leherketa 1937ko abuztuan udalerriko eskola-azpiegiturei buruz egin zuen txostenean. Txosten horretan jasotzen zenez, eskola nazionala geratu zen “(...) *erabat suntsituta alboan geldirik geratu zen kamioi gorri batek zeroatzan obusen eztrandagatik*”<sup>389</sup>. Bertsio bera jaso dugu ahozko lekukotasunen batean. José Antonio Bilbao Menchacak, hala ere, kontatu zuen eskolako eztanda soldaduek egin zutela “(...) *erretretan. Eztrandaren gauean tropak Mungia inguruan zeuden*”<sup>390</sup>. Hirugarren bertsio bat topatu dugu: Larrabasterrako eskolako maistra Concordia Moralek emandakoa, Urdulizko mutikoen maisuaren, Andrés Martínen eta bere emaztearen laguna. Maistrak kontatu zuen Martín eta bere emaztea “(...) *lekua arrapaladan hustera*” behartu zituztela, eta y que “(...) *momentu batzuk geroago eskolaren eraikina zapartarazi zutela miliziano eta gudari batzuen arduragabekeria zela-eta, portalean zegoen gasolina lata batera pospolo bat hurbildu zutelako* (...)”<sup>391</sup>.

Ez dugu dokumentaziorik topatu Urdulizko ebakuazioaren data zehatzaren berri ematen digunik, ezta esaten digunik Udalak bere bulegoak beste udalerrri batera eroan zituen, nahiz eta logikoa dirudi hala egin izana. Berbarako, Gatikako eta Laukizko udalek halaxe egin zuten, euren bulegoak Getxora eroanda, *Euzkadi* egunkarian maiatzaren 28an agertutako albiste batek aditzera ematen zuenez; bertan ohartarazi egiten zitzairen bi udalerrri hauetako bizilagunei egun hartan bertan pasa behar zutela Getxoko behin-behineko bulegoetatik euren errazionamendu-liburuxkekin hurrengo elikagaien banaketan kontuan hartuko bazituzten<sup>392</sup>. Aste bi geroago, ekainaren 11n, Laukizko Udalak bizilagunei jakinarazi zien jarraitzen zutela “(...) *bere errazionamendua Udaletxe honetan*”, eta adierazten zitzairen “(...) *Serrano aroztegian, Getxon*” zegokien errazionamenduko artikulua jaso zitzaizketela<sup>393</sup>.

---

388 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Alkatearen mezua, Bizkaiko Diputazioko Irakaskuntza Publikoko zuzendariari zuzendua* 1937-9-6.

389 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko eskolei buruzko txostena* 1937-8-20. Ikerketa honetarako elkarrizketatu ziren persona batzuek jazotakoaren bertsio berdina eman zuten.

390 José Antonio Bilbao Menchacaren ahozko lekukotasuna 2013-9-9.

391 A.H.G.D. Madrilgo funtsa, 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta, *Concordia Moral maistraren eskutitza Andrés Martín maisuari eta bere emazteari* 1939-6-3.

392 *Euzkadi* 1937-5-28.

393 *Euzkadi* 1937-6-11.

Plentzian, lokal bat lortzeko kudeaketetan ibili ziren, itsas-hiriaren ebakuazioa gertatuz gero Udalaren bulegoak Bilbon kokatzearen, baita lortu ere maiatzaren amaieran. Hilaren 29an, Luis Uchupi alkateak, bere udalkideei jakinarazi zien *Euzko Ikasle Batzaren* lokal batzuk lortu zirela, “(...) *Bilboko Ibañez kaleko 13. etxean*” zeudenak<sup>394</sup>. Hala eta guztiz ere, badirudi Plentziako Udala ez zela heldu Bizkaiko hiriburura lekualdatzera, kontuan hartzen badugu azken udal bilkura Udaletxean egin zela ekainaren 12an<sup>395</sup>, kostako herria galdu baino egun bi lehenago.

Aitatu dugun legez, dokumentazioak eta jaso ditugun ahozko lekukotasunek ez digute Urdulizko ebakuazioa eman zeneko data zehatza finkatzen utzi. 1939ko uztailean, Amancio Nieva alkateak kontu honi buruz honako hau ziurtatu zuen: “1937ko maiatzaren amaieran, herri guztia ebakutzera behartu gintuzten (...)”<sup>396</sup>. Alde horretatik, jasotako ahozko lekukotasunak ez datoz bat data horrekin. Berbarako, Luis Trebolazabalak San Antonio egunaren gauen kokatzen du ebakuazioa, ekainaren 13an; bere testigantza arabera, soldaduak egun hartan joan ziren familiaren baserrira ebakutzera:

*“(...) el último día fue el día de San Antonio, la noche de San Antonio. Vinieron a decirnos: “Oye Pablo (Trebolazaba, Luisen aita), tenéis que salir de aquí”. Prepararon las vacas, nosotros no teníamos bueyes, con el carro, con lo poco que podíamos llevar y fuimos a Neguri. Fue terrible porque estaban las carreteras llenas de refugiados. De ese día lo que recuerdo es que se oían las ametralladoras aquí mismo, más o menos en Laukiz, tirando para Unbe (...)”*<sup>397</sup>.

Trebolazabalak aitaturako datari indarra ematen dio 1937ko ekainaren 17an Bilboko Jarduneko Postuko sarjentu buruak Bizkaiko Miñoien Kidegoko buru nagusiari zuzendutako mezuak. Idazki hartan azaldu zuen hilaren 14an 24 orduko baimena eman zuela Urdulizera joan zedin “(...) *Andrés Díaz de Otalorari, Arabako Miñoien Kidegoko 1. mailako miñoia bera, Bilbon kontzentratuak zegoen Bizkaiko Miñoien Kidegoari atxikia*” Bilbon. Díaz de Otalorak adierazi zuen gura zuela “(...) *bere familia Urduliztik atera (...) herria ebakutzeko agindua emana baitzen*”. Baimenaren 24 orduak igarota, miñoia ez zen bere lanpostuan azaldu, eta sarjentuak bere beldurra adierazi zuen bere gizona “(...) *auskalo ez ote den matxinatuen armada agertuta Urduliz delakotik irten ezinik geratu*”<sup>398</sup>.

394 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bilera ordezkia 1937-5-22, Bilera ordezkia 1937-5-29.

395 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bilera ordezkia 1937-6-12. Bilera hartara alkatea eta hiru zinegotzi agertu ziren. Aurretik, bilkura arruntaren deialdia egin zen, hilaren 10erako, baina ezin izan zen egin, “(...) *horretarako behar adina zinegotzi agertu ez zelako*”.

396 DEFENTSAREN ARTXIBO OROKOR ETA HISTORIKOA (D.A.O.H.), 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta, *Andrés Martín Pérez maisuari buruzko galdetegia, Urdulizko alkate Amancio Nievak osatua* 1939-7-20.

397 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

398 B.F.A.H. AQ 00569/013 *Bilboko behin-behineko Postuko sarjentu komandantearen mezua, Bizkaiko Miñoien Kidegoko buruzagi nagusiari zuzendua* 1937-6-16.

José Antonio Bilbao Menchacak eta bere familiak Urdulizen soldaduak sartu baino “8 bat egun lehenago” eroan zituzten behiak Algortara. Hona zergatik: “(...) lubakiak hemen egin zituztenez pentsatu genuen gerra hemen egingo zutela, baina azkenean (...) beste alde batetik sartu ziren”<sup>399</sup>. Berriz, Juan Otegi kontatu zuenez, “(...) ordu hartan “nazionalak” deitzen zituztenak sartzen hasi zirenean, errefuxiatzeko agindua eman ziguten. Zaramillon egon ginen”<sup>400</sup>. Teresa Bilbaok gogora ekarri zuen gerra-frontea hurbiltzen joan zenean “(...) dagoeneko Solubetik jaitsi zirenean, Jatabetik (...) etxetik aterarazi giztuzten eta Getxora joan ginen, ganadu guztiarekin, ez dakit zenbat egun, baina egun nahiko egon ginen”. Getxotik “(...) baserriraino etortzen ginen, oinez, karroarekin eta idiekin, ganadua bazkatzeko belar bila”<sup>401</sup>. Badakigu, era berean, urduliztar batzuek euren altzariak ere eroan zituztela. Esate baterako, Juan José Garitaonandia Ayarzaguenak, “(...) herri honen ebakuazioaren unean”, Bilboko Alameda de Urquijo kaleko 35. zenbakian kokatutako pisu batera eroan zituen hainbat altzari: bi ohe handi, sehaska-ohe bat bere malguki-koltxoiarekin, malguki-koltxoi handi bat, logelako armairu bat, sukaldeko armairu bat, lau logela-aulki, gau-mahaitxo bat eta apaintzeko mahai bat<sup>402</sup>.

“Nazionalen” ildoko egunkariak saiatu ziren eskualde honetako ebakuazioari garrantzia kentzen: ABCk (bere Sevillako edizioan) eta *La Voz de España* adierazi zuten “(...) ia bizilagun guztiak geratu” zirela, ihesa soilik Gipuzkoako errefuxiatuetara mugatuz, “(...) hemen halabeharrez bizi direnak, eta Aberriaren aurkako delituren bat bete dutela irizten diotenak, osterantzean beste krimenen batean partaidetza zuzena dutenak”<sup>403</sup>.

Ekainaren 14an, Francoren armadako “*Flechas Negras*” brigada mistoek Mungia, Maruri, Gorkiz eta Plentzia okupatu zituzten<sup>404</sup>. Azken bi herrietan egun hartako arratsaldean sartu ziren. Horri dagokionez, *Gaceta de Tenerife* kronikan adierazi zen: “Plentzian gorriek gaur arratsaldeko ordu bietan egin dute ihes(...)”<sup>405</sup>. Tenerifeko beste egunkari batek, *La Prensak*, hilaren 15ean bere azalean titular moduan zeroan Francoren soldaduen sarrera itsas-hiribildura: “*Tropa nazionalak atzo heldu ziren Plentziako Itsasadarrera*”<sup>406</sup>. Ukitu “patriotikoago”

399 José Antonio Bilbao Menchacaren ahozko lekukotasuna 2013-9-9.

400 Juan Otegiaren ahozko lekukotasuna 2013-8-27.

401 Teresa Bilbaoren ahozko lekukotasuna 2013-6-27. Baserri batean txerri bat ere bazuten, “(...) askaren azpian ezkutatuta, ondo tapatuta, jateko ugari zeukala”. Mendiondoko eskoletan akuartelatuta zeuden soldaduetako bat Teresa Bilbaoren familiaren ezaguna zen, eta ohartarazi zien bazutela txerri horren berri: “*Kendu egingo dizuete, zarata apur bat egiten duelako*”. Horregatik erabaki zuten egun batean gauaz joatea, txerria hiltzera kandlek argizatuta. Goizean goiz, belarra ebaki zuten eta belar ebaki berria aprobeixatu zuten, txerria ezkutatzeko eta modu horretan Getxora eroateko.

402 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Juan José Garitaonandia Mallagarayren altzarien zerrenda 1937-8-31.

403 ABC (Sevilla) 1937-6-17, eta *La Voz de España. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Donostia) 1937-6-17.

404 *Lucha. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Teruel) 1937-6-16. 1937-6-5eko “*Jeneralisimoaren boletina*” erreproduzitzen du.

405 *Gaceta de Tenerife* 1937-6-17.

406 *La Prensa* (Tenerife) 1937-6-5.

bat emanez, Donostian inprimatutako *Unidad* egunkari falangistak Plentzia eta Maruriren okupazioa laburbildu zuen hilaren 15ean: “(...) atzotik Espainiakoak dira”<sup>407</sup>. Eta, azkenez, *La Voz de España*ak “Himno nazionala Plentzian” izenburuko artikulua laburra argitaratu zuen, non kontatu zuen zer jazo zen hiribildu honen “konkistaren ostean”:

*“(...) varios autos con amplificadores, pertenecientes al Requeté, hicieron sonar por sus calles el glorioso himno nacional, que fue escuchado con gran emoción por las numerosas personas que se han liberado al esperar la llegada de nuestras tropas a él”*<sup>408</sup>.

Ziurtatzen zen, gainera, Plentzian egun haietan “behin eta berriro” eman zirela “(...) bere biztanleen adierazpen gogotsuak”, izan ere “(...) poztasun handiz jaso dute bere askapena Franco Jeneralaren soldaduegandik”<sup>409</sup>.

Hilaren 14an, tropa “nazionalek” Plentzian eta Barrikan eman zuten gaua<sup>410</sup>. Euren aurrerabideari hilaren 15ean ekin zioten berriro, “goizeko lehen orduetan (...) inork kontra egin barik”. “(...) Urduliz, Sopela, Berango eta Getxo (...)” bereganatu zituzten<sup>411</sup>. Euskal Armadaren erresistentzia falta horrek hizpide eman zien ildo bereko beste komunikabide batzuei, hala nola *La Voz de España* edo *Gaceta de Tenerife* egunkariei. Berriz, *Unidad* egunkari falangistak gertatutakoaren beste bertsio bat eman zuen, errealitatearekin zerikusirik ez zuena, duda barik, indar matxinatuen nagusitasuna goraiatzeko asmoz, hona:

*“la ocupación de Algorta, Las Arenas, Sopelana, etc. ha puesto de manifiesto la potencialidad de nuestro ejército, que en un avance vigoroso aplastó por completo al enemigo, al que después de causarle enorme número de bajas, puso en fuga precipitada”*<sup>412</sup>.

*Gaceta de Tenerife*k, erresistentziarik egon ez zela esan arren, hau adierazi zuen: “(...) Urduliz aldetik fusil- eta metrilladore-sua entzun zen. Gure indarrak aurrera doaz alde hartan ere bai”<sup>413</sup>. Guk ere uste dugu, hain zuzen, Algortaraino horren aurrerabide azkarra egitea erresistentzia ezaren edo guztiz eskasaren seinalea dela. Bestalde ere, halakorik egon izan balitz, isilpean gordeko zuen matxinatuen prentsak.

407 *Unidad. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Donostia) 1937-6-5.

408 *La Voz de España. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Donostia) 1937-6-17.

409 *Ibíd.*

410 *El Diario Vasco* (Donostia) 1937-6-17, eta *La Prensa* (Tenerife) 1937-6-18.

411 *ABC* (Sevilla) 1937-6-17.

412 *Unidad. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Donostia) 1937-6-17.

413 *Gaceta de Tenerife* 1937-6-17.

Areetara izan zen, itxuraz, salbuespena, hedabideren batek hau onartu zuen-eta: “(...) soilik Areetara heltzean, aurrerabidearen lasaitasuna eten egin da, fusil tiroka egin zietelako gure soldaduei, Itsasadarraren beste aldetik”<sup>414</sup>.

Ez da ahaztekoa *El Diario* Vascok Plentziatik Algortaraino soldaduen aurrerabideari buruz egindako kronika, hain nabarmen dario-eta propaganda eta “bando nazionala” goraiatu nahia. “*Iñigo de Andía*” bereziki bidalitako berriemaileak 14eko gaua igaro zuen itsas-hiribilduan. Hona zer kontatu zuen biharamun goizean:

*“(…) bien temprano he presenciado la llegada de varios bilbaínos que escapaban de aquel infierno y estaban radiantes en nuestra zona. ¡Que de abrazos y emociones! Con lágrimas en los ojos, los recién venidos contaban sus dolores o inquietudes de su terrible calvario. Han podido llegar a Plencia porque no hay control en las avanzadas de Bilbao. Uno de ellos, arquitecto, ha venido con su señora e hijos en auto. Nos decía que en la villa del Nervión se espera con indecible ansiedad la entrada de nuestros soldados, (...) en medio de un desorden tremendo, pues todos los culpables quieren marcharse a toda prisa, mientras las gentes de derechas y aun muchas que no lo son pero que están hartas de Aguirre y de su cuadrilla aguardan el momento de su liberación ansiosamente.*

*(...) dejo Plencia en este despertar de españolismo, para avanzar por Urduliz y Berango hacia el mismo Abra. Acaban de entrar en Algorta nuestras tropas y quise seguir las para ser el primero que entre con el Ejército triunfal en un pueblo reconquistado. El trayecto desde Plencia es un recorrido de verdadero Domingo de Ramos. Todos los caseros y fugitivos que se reintegran a sus hogares traen los ajueres con los cuales huyeron en éxodo incierto, tienen en sus caras reflejadas una alegría incontenible. A los vibrantes y sonoros vivas a España que lanza un ilustre ingeniero requeté, en cuyo auto voy, contestan los aldeanos con entusiasmo vibrante y extendiendo el brazo en el nuevo saludo de verdadera hermandad con la mano abierta.*

---

414 *La Prensa* (Tenerife) 1937-6-18. Kontu honi dagokionez, aitzekoa da Luis Trebolazabalak bere ahozko lekukotasunean kontatu zuela bera, bere familia eta Mari Garitaonandia izeneko auzoko bat, Urdulizko ebakuazioaren ostean, Karmengo elizaren alboan zegoen etxe batean babestu zirela, Negurin. Trebolazabalak kontatu zuenez, Francoren soldaduak Getxoko auzune horretara heldu zirenean, “(...) tiroka hasi ziren txoko guztietatik (...). Bala-zaparrada etorri zen elizaren kontra. Etxeko balkoira irten zuten Mariak, anaia Ignaciok eta anaia Jesúsek. Barrura sarrarazi gura zituen Anaia Eusebiok, baina besteak, antza denez, ez ziren ezertaz jabetzen. “Ikusi, soldadu bat hil dute hor”. Soldadu bat jausten ikusi zuten; Francorenetakoa izango zen. Hori ikusteagatik, metrailadore baten tiro-jasak harrapatu zituen balkoian. Anaia Jesús zorionekoa izan zen, bala orkatilatik sartu zitzaiolako eta oina birrinduta utzi ziola uste genuen. Trinitarioetara eroan zituzten, hor zegoelako gerrako botikina (...). Mariri balak triskantzeta ederra egin zion. Mariri eta Ignaciori atoa eman zieten alta. Jesusek, oster, bere sei urtetan, bertan geratu behar izan zuen”. (Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21)

*Muchos se anticipan y son ellos los primeros en dar gritos patrióticos. Algunos contestan con un gesto estático de mudez, porque en la garganta se les ha ahogado en lágrimas el viva que su corazón lanzaba. Y así, en un ininterrumpido vítor a España llegamos a Algorta, la recién salvada*<sup>415</sup>.

Harrigarria ere bada El Diario Vascoko berriemaileak harekin gurutzatu ziren “pertsonek batzuen” “mututasun keinu estatikoaz” egiten duen interpretazioa. Duda barik, herritar gehienek erakutsiko zuten axolagabekeria ezkutatzea zen kazetariaren asmoa.

Sevillako ABCk eta *La Voz de España*k *El Diario Vasco*renaren oso antzeko kronika argitaratu zuten biek, eta duda barik, hura ere propaganda egin guran:

*“Esta mañana, (...) he tenido que contener muchas veces las lágrimas que pugnaban por denunciar mi estado de ánimo. Al cruzar los pueblos recién ocupados, los vecinos nos saludaban extendiendo el brazo y gritando a pleno pulmón esos vítores a España que tienen especial solemnidad, por salir de bocas que han tenido que enmudecer durante once meses interminables. Cuando nos deteníamos, grupos de gentes se nos acercaban para abrazarnos, como si nos conociésemos de toda la vida.*

*Quien mejor deshace el nudo que la emoción del momento ponía en su garganta, gritaba con voz que quería ser fuerte y se quebraba al salir:*

*- ¡Viva España!*

*Y parecía eco de su voz la unanimidad del grito en las voces de los demás.*

*Algúien decía luego, en reproche, que era expresión de una ansiedad ya satisfecha:*

*-Ya era hora (...)”*<sup>416</sup>.

*La Prensa* egunkari tenerifetarrak, “(...) amestu daitekeen guztia” gainditzen duen zerbait izan balitz bezala deskribatu zuen Uribe Kostako eskualdean soldaduei egin zieten ustezko harrera. Hitzez hitz, “(...) ehunka lagun “(...) irteten ziren bideetara gu besarkatzera eta euren salbaitzaille moduan aldarrikatzera”. “Ehunka lagun” haien artean

*“(...) sobresalía gran número de vecinos de Bilbao que lo habían abandonado para adelantar en todo lo posible el momento de su liberación, así como no pocos perseguidos que habían permanecido escondidos durante varios meses”*<sup>417</sup>.

---

415 *El Diario Vasco* (Donostia) 1937-6-17.

416 *ABC* (Sevilla) 1937-6-17, eta *La Voz de España. Diario de F.E.T. de las J.O.N.S.* (Donostia) 1937-6-17.

417 *La Prensa* (Tenerife) 1937-6-18.

*Hilaren 12an Larrabetzun Hesia apurtu ostean egindako aurrerabide azkarrek kontuan hartuta, Bilboren galera egun gutxiko kontua zen jada. Azken borrokaldia Artxandan izan zen, Euzko Gudarostearen batailoiek hiriaren ebakuazioa errazteko egindako ekintzan. Ekainaren 19ko arratsaldean, soldadu frankistek Bilbo bereganatu zuten. Uztailaren 2an okupatu zen Bizkaiko gainerakoa, eta horrek amaiera eman zion Gerra Zibilari Euskadin<sup>418</sup>.*

Eusko Jaurilaritzak Kantabriara alde egin zuen, Fronte Popularraren agintepean baitzegoen, “(...) bere armadaren zati handiena eta dozenaka mila euskaldun” berarekin zihoazela<sup>419</sup>. Behin Bizkaia galduta, euskal abertzaleek ez zuten garbi ea borrokan jarraituko zuten euskal lurraldeetatik kanpo. Euzkadiren defentsan gorputz eta arima ibili baziren ere, ez zegoen garbi motibazio bera izango zuten “(...) Errepublika espainol eta ezkerreko bat” defendatzearen<sup>420</sup>.

Agirre lehendakariaren beste aukera bat zen Euskal Armada itsasoz Frantziara eroatea eta hortik Kataluniara igarotzea, bertan borrokan jarraitzeko. Asmo hori bideraezina zen, ostera, Frantzia “ez esku-hartzeko” politikaren aldekoa izanik ez ziolako utziko “(...) armada oso bati, arma, hornidura eta guzti”, bere lurraldea gurutzatzen. EAJko zuzendaritza, Juan Ajuriaguerra buru, zuela Euskal Armadaren errendizioaren aldekoa zen “(...) Francoren armadarekin Kantabrian borrokatzen ziren italiar Bolondres Tropen Gorputzari”. Helburu hura lortzeko “(...) maiatzean hasi ziren agintari italiarrekiko negoziazioetan”, eta hartu-eman horiei heldu zitzaizen berriro. Uztailan, Alberto Onaindia abadeak elkarrizketa izan zuen Mussoliniren Gobernuko Kanpo ministroarekin eta, beste alde batetik, negoziazioetan hasi ziren Ajuriaguerra eta soldadu italiarren buruzagi militarrek. Emaiza Santoñako Ituna deiturikoa izan zen<sup>421</sup>.

1937ko abuztuaren 14an, Francok Santanderren aurkako ofentsibari ekin zion. EAJk Reinosako frontetik erretiratzeko agindu zien bere batailoiei, eta alde egiteko “(...) Laredo eta Santoña aldera, bertan inguratuak izan zitezten”. Egoera apaintzeko eta “(...) Errepublikarenganako traizioaren itxura (izan ez zezan), batailoi nazionalistak saiaturiko ziren porrot militar baten itxurak egiten soldadu italiarren aurrean, euren buruzagiek adostutako baldintzen trukean”. Baldintzok ziren armak italiarren eskutan uztea, eskualdeko Ordena Publikoa mantentzea eta bertan zeuden preso eskuindarrak babestea. Italiarrek, berriz, konpromisoa hartu zuten euskal buruzagi politikoen ebakuazioari bidea emateko, euskal biztanleria zibila ez jazartzeko eta gudarien bizitza errespetatzeko. Hauek, “(...) gerran jarraitzeko inongo betebeharren kanpo geratuko ziren”<sup>422</sup>.

---

418 FUSI, 261-262.

419 GRANJA SAINZ, 394 or.

420 FUSI, 262 or.

421 GRANJA SAINZ, 304 or.

422 Ibíd. 304-305.

Hitzartutakoa ezin izan zen burutu, ebakuaziorako beharrezkoak ziren hamar itsasontzietatik Santoñara bi ontzi ingeles baino ez zirelako heldu eta frankistek irtetea galarazi zieten. Abuztuaren 25ean eta 26an, Euskal Armadaren 15.000 - 20.000 gizonak, *gudariak* gehienak, baina baita Fronte Popularreko eta CNTko miliziano batzuk ere, “(...) *soldadu italiarrekiko (...) baldintzarik gabeko kapitulazioa*” egin zuten. José Luis de la Granjaren esanetan hori guztia izan zen:

*“(...) un rotundo fracaso del PNV, pues muchos de sus responsables políticos y militares, incluido Ajuriaguerra, quedaron presos en el penal del Dueso en Santoña, custodiados por los italianos. El 4 de septiembre pasaron a depender de las autoridades franquistas (...)”*<sup>423</sup>.

Ez dakigu zuzen zenbat urduliztarrek jarraitu zuten borrokan Bizkaia galdu ostean. Urdulizko bizilagun bat, Isidro Juan Alboniga García<sup>424</sup>, 1936ko azaroaren 9az gerotik U.G.T.-ko 8. Batailoiko soldadu, Bilboren galera eta gero Santandergo probintziara igaro zen batailoi harekin. Albónigak probintzia hartako fronte ezberdinetan borrokan jarraitu zuen, “(...) *1937ko abuztuaren 22an Asturiasera alde egin arte. Urte hartako urriaren 21ean indar Nazionalek preso hartu zuten Pola de Lenan*”<sup>425</sup>.

Ez dakigu Urdulizko zenbat bizilagun zeuden Santoñan eta Laredon kapitulazioaren unean. Tiburcio Llona Egusquiza zinegotzi nazionalista haietako bat izan zen. Irailaren 5ean, Santoñako Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordeak Urdulizko Guardia Zibilari<sup>426</sup> argibideak eskatu zizkion zinegotziaren gainean<sup>427</sup>. Santoñako hondamena bizi izan zuen beste urduliztar bat Luis Menchaca izan zen. Bere kasuan, kantabriar herri hartako Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordeak 1937ko urriaren 16an eskatu zizkion argibideak Urdulizko alkateari<sup>428</sup>. Badakigu, gainera, abuztuaren 30ean alkateak portaera ziurtagiriak eman zizkiela Luis Menchacaren gurasoei, Esteban Menchaca Sangroniz eta Tomasa Menchaca Amezagari, eta bere ahizpei, Pilar eta Paulina, “(...) *Castro-Urdialesera joan eta itzultzeko baimen bat*”<sup>429</sup> eskuratu ahal zezaten. Jazoera hau, duda barik, Luis Menchacaren espetxeratzearekin lotuta egongo zen.

---

423 Ibíd. 305 or.

424 Juan Torrontegui García ere deitzen zioten.

425 I.F.A. 2612-38 azuia, *Isidro Juan Alboniga García auzipetuaren ikerketa-deklarazioa* 1939-8-21.

426 Urdulizen ez zegoen Guardia Zibilaren posturik, bai ostera Plentzian edo Sopelan.

427 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko Guardia Zibilaren postuko komandanteari zuzendua* 1937-9-5.

428 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-10-16.

429 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Don Esteban Menchaca Sangronizen eta Doña Tomasa Menchaca Amezagaren portaera-ziurtagiria* 1937-8-30, eta *Pilar Menchacaren eta Paulina Menchacaren portaera-ziurtagiria* 1937-8-30.



Begirada bat ematen badiegu Urdulizko udalak 1937ko abuztuaren 28tik irailaren 20aren artean egin zituen portaera ziurtagiriei eskatzaileei ibiltzeko baimen bat eman ahal izateko, ikusten dugu guztira 25 ziurtagiri eman zirela Castro-Urdialesera joan ahal izateko baimena lortzearren, 9 Laredorako, 2 Santoñarako eta beste bi Santanderrera joateko<sup>430</sup>. Pentsatzekoa da, Kantabriara joan ahal izateko dokumentazioa eskatu zuten bizilagun gehienek Euskal Armadaren errendizioaren ondorioz bertan espetxeratuak zituzten senitartekoak

## 1.2 FRANKISMOA NAGUSI (1937ko ekaina - 1939ko apirila)

### 1.2.1 Udaletxe frankista

Ekainaren 25ean, Urduliz galdu eta hamar egun geroago, gerraren osteko lehenengo udalbatza eratu zen, guztiz behin-behinekoa. Manuel Uribe Echevarriak bere izendapena aurkeztu zuen alkate moduan, hilaren 18an Gipuzkoako eta Bizkaiko gobernadore zibilaren Ordezkarriak egindakoa. Egun berean zinegotziak izendatu ziren<sup>431</sup>, nahiz eta uztailaren 1a arte ez ziren karguak aukeratu.

Alkate berriak egin zuen lehen gauzetakoa 1937ko ekainaren 27an eman zuen bandoa izan zen, non bizilagunei agindu zitzaizen euren jabetzakoak ez ziren objektuak entregatzeko; hala egin ezean, isuna ezarriko zitzaielako, baita hala gertatu ere. Uztailaren 5etik 15era Urdulizko bost gizonetako eta andrazko bat zigortu zituen bakoitzari hamar pezetako isuna ezarrita, Ignacio Aspiazu Mancisidorri izan ezik, 25 pezetakoa ezarri baitzion<sup>432</sup>. Horren semeak, Manuel Aspiazu *ertzainak*, aitari eskatu zion jaso zituen hiru behi abandonatu zaintzeko, jabea jasotzera joan arte. Hala eta guztiz ere, behien jabeek, Mungiako hiru bizilagun, erreklamatu zituztenean, Ignacio Aspiazuk ez zituen entregatu. Ostera, "(...) *erosita*" zeuzkala argudiatu zuen. Azaldu zuenez, hori egin zuenean "(...) *euren benetako jabea ez zen inork eraman zitzan*"<sup>433</sup> saihestea zen bere asmoa. Antza, Ignacio Aspiazuk ez zuen alkatearen udal bandoaren berririk izan. Urdulizko hiru bizilagunek eman zioten Aspiazuk zaintzen zituen hiru behien berri udalburuari, eta alkatearen itaunketan, ezin izan zuen zuritu animaliaen jatorria ezta haien erosketa ere; beraz, Udalak bere gain hartu zuen behien zainketa<sup>434</sup>.

---

430 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, Urdulizko alkatetzak 1937ko abuztuaren 28tik irailaren 20ra bitartean egindako hainbat portaera-ziurtagiri.

431 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Udalaren Eraketa-akta 1937-6-25.

432 A.M.U. 246. kaxa, 1937ko uztailaren 5etik 15era bitarteko data duten isunak.

433 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Ignacio Aspiazu Mancisidorren deklarazioa* 1938-5-24.

434 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Urdulizko alkate Amancio Nievaren mezua, Epaitegi Militar Iraunkorreko B letrako instrukzioko epaileari zuzendua* 1938-5-20.

Esanda daukagun legez, uztailaren 1ean zinegotzien karguak izendatu ziren; horien artean zegoen José María Ansoleaga, udala 1934ko irailetik 1936ko otsaila bitarte zuzendu zuen Batzorde Kudeatzaileko zinegotzia<sup>435</sup>. Udala honela osatuta geratu zen:<sup>436</sup>

<b>1. UDALBATZA 1937-7-1</b> <sup>436</sup>	
<b>KARGUA</b>	<b>IZEN-ABIZENAK</b>
Alkatea	Manuel Uribe Echevarria
Alkateordea	José María Ansoleaga Sistiaga
Sindikoa	Juan José Garitonandia Mallagaray
Zinegotziak	Amancio Nieva Taramundi Antonio Asla Cantera

Bere eraketa egunean Udal berriak hartu zuen lehen erabakia izan zen Franco Jeneralari telegrama bat bidaltzea. “Sutsuki” agur egin zitzaion “*Espainiako Salbatzaile*” bezala, eta desiatu “(...) *Aberriaren askapen azkar eta erabatekoa*”. Hori guztia, betiko esaldiez hornituta: “*Por Dios, por España y por la revolución Nacional. Arriba España. Viva España*”. Bizkaiko gobernadore zibilarri ere beste telegrama bat igorri zitzaion, agur eginez eta “(...) *Aberriaren erabateko salbazioa lortzeko bere burua baldintza barik eskainiz*”<sup>437</sup>.

Egun berean kontaktetari ere ekin zitzaion, hau da, Udalaren diru egoera aztertzeari. 1834'23 pezetako soberakina topatu zen, eta aurrezki libreta arruntean, berriz, 11.916'25 pezeta. Beste alde batetik, eskudiruaren kutxan 3917'98 pezeta zeuden “(...) *inongo baliorik ez dutenak, Euscadiko* (sic) *Gobernu delakoaren diru eta billetteran zeudelako: Alkate jauna arduratu zen zenbateko horretaz*”<sup>438</sup>.

435 Kontu orokorra izan zen 1934ko irailetik 1936ko otsailera edo Primo de Riveraren diktaduraren denboran karguan ibilitako zinegotzi eta alkateen itzulera. Esate baterako, Sopelan, Isidoro Zamaconak, 1934tik 1936ra bitarteko Batzorde Kudeatzaileko alkateak, kargu bera hartu zuen (A.H.N. FC-AUZI\_OROKORRA, 1332, 22. esp., 1941). Barrikan gauza bera egin zuen Bernabé Hormazak, Primo de Riveraren diktaduraren denboran alkatea izan zenak (A.H.N. FC-AUZI\_OROKORRA, 1332, 4. Esp., 1941); Felipe Uriarte, berriz, 1934an inposatutako Batzorde Kudeatzaileko alkatea, zinegotzi itzuli zen udaletxe barrikatarrera (Anuario Vascongado – Año 1944 – Guía Oficial, Corporativa, Comercial e Industrial de las Provincias Vascongadas).

436 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-1.

437 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Udalaren Eraketa-akta, 1937-6-25.

438 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-1.

“(…) Atzeguardiak frontea omentzeko asmoz (…)” Bilbon uztailaren 25ean ospatu ziren *“festa handiak”* egin behar zirela eta, hilaren 22an Udalaren osoko bilkurak erabaki zuen udalbatza osoak parte hartzea <sup>439</sup>. Osoko bilkura horren ostean, udalbatza ez zen berriro hilabete batean bildu. Udal idazkari Luis Navaroren atxiloketarekin lotzen dugun egoera, abuztuaren hasieran. Gai horretaz Urdulizen izan zen errepresioari eskaintzen diogun atalean sakonduko dugu.

Navarro errugabetu zuten, eta behin espetxetik kanpo, udal bizitza berrabiatu zen osteraren egunak. Abuztuaren 21ean egindako osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen *“(…) idazkariaren esanetara jartzea gazte bat, bulegoko lanetan, mandatuetan eta abarretan lagundu diezaion”*; izan ere, Juan Luis Torrontegui aguazila presondegian zegoen eta ez zegoen *“(…) inongo laguntzailerik Udaletxe honetako bulegoetan”*. Horregatik izendatu zen Eloy Aldecoa, eta esleitu zitzaizkion *“(…) berrogeita hamar edo hirurogeita hamabost pezeta hilean, dagoen lanaren arabera (…)”*. Diru hau atera zen *“(…) Arielen jagolearen esleipen edo soldatetik, postua hutsik zegoen-eta”*<sup>440</sup>. Urriaren 9an Udalak onartu zuen Aguazila eta Udal Arielen Jagolea, Pablo Menchaca, kargugabetzea. 1938ko maiatz inguruan, oraindik ez ziren eginak izendapenak kargu hauek betetzeko. Behin-behinean, Miguel Verano arduratzen zen lan hauetaz<sup>441</sup>.

Espetxeratutako urduliztarren gaineko txostenak egitea izan zen lehen udal frankista horren lan nagusietako bat (baita bigarrenarena ere), erregimen berriaren epaimahaien eskariz. Administrazio funtzionarioen gainean ere egin zituzten txostenak, barbarako, irakaskuntzako depurazio prozesuan harrapatutako maisu-maistren gainean. Horrez gainera, Udalak ziurtagiriak egin zituen Urdulizko bizilagunen filiazio politikoaren eta portaera moralaren gainean. Kontu hauetaz gurtzietz jardungo dugu udalerriko errepresioari buruzko kapituluaren.

Udal kudeaketari dagokionez, eskolen arazoa izan zen lehen udal frankista honek eta ondorengoek euren gain hartu behar izan zuten arazo nagusia. Gomuta dagigun eskola nazionalaren eraikina suntsituta geratu zela *“(…) bere ondoan geldirik egon zen kamioi bateko obusen eztanda”* zela-eta.

---

439 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-22.

440 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-8-21.

441 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Luis Navarro idazkariak egindako ziurtagiria* 1938-5-30.

Eraikina “(...) *hondatuta*” geratu zen; beraz, Manuel Uribe alkateak adierazi zuenez, ez zegoen “(...) *funtzionatzeko baldintzetan*”. Udalerriko eskola instalazioen gaineko 1937ko abuztuaren 20ko txostenean<sup>442</sup>, Uribek zehaztu zuen momentu hartan ez zela posible “(...) *erabakitzea zer egin behar zen*” eskola nazionalaren hondarrekin, eta aholkatu zuen “(...) *agian hobe zela beste berri baten eraikuntza, konponketa baino*”. Une haietan, ez zen “(...) *herrian inongo eraikuntza aproposik Eskola Nazionalak ordezkatzeko*”. Hona, beraz, zer proposatzen zen:

“(...) *únicamente como solución muy provisional se podría habilitar un pequeño salón de un edificio propiedad del Ayuntamiento y en las escuelas de barriada habilitar los salones destinados a cantinas*”<sup>443</sup>.

Landako eta Mendiondoko auzo-eskolen egoera on samarra zen, bi eraikuntzek “(...) *garrantzi bako kalteak*” baino ez zeuzkatelako. Alkateak iragarri zuen bi eskoletako konponketak “(...) *egun gutxitan egingo*” zirela, eta kalkulatu zuen Mendiondoko Eskolan egin beharreko konponketek 400 pezeta eroango zituztela, eta Landako eskolakoek, berriz, 495 pezeta<sup>444</sup>. Konponketa, ostera, ez zen abuztuan egin: Udal Artxiboan azaroaren 6a eta 30a bitarteko data daukaten hiru aurrekontu gordetzen dira<sup>445</sup>; beraz, hurrean, konponketak abenduan egingo ziren.

Urdulizko ikastetxeen egoeraren gaineko abuztuaren 20ko txostenean, eskola nazionalaren aurrietatik eta auzo-eskolen eraikuntzetatik berreskuratu zen eskola-materialaren inbentario bat gehitu zen. Probintziako Diputazioko Irakaskuntza Publikoaren Departamentura igorri zen inbentarioa, 1937ko abuztuaren 31n. Departamentuak, berriz, eskutitz bat bidali zien Bizkaiko udalei, udalerrri bakoitzeko auzo-eskolen egoeraren berri eman diezaioten. Irakaskuntza Publikoak ere zehatz-mehatz jakin nahi zuen zein irakaskuntza material zegoen ikastetxe hauetan “(...) *aprobetxatua izateko moduan*”<sup>446</sup>. Urdulizen, Mendiondoko Eskolan geratzen zen besteetan baino material didaktiko eta altzari gehiago; Landakoan, berriz, mapa batzuk eta altzari zenbait baino ez ziren gordetzen. Eskola Nazional suntsituan, birentzako 26 mahai eta 9 mahai luze, besterik ez zen errekuiperatu ahal izan<sup>447</sup>.

---

442 Bizkaiko Kultura eta Irakaskuntza Batzordeko Ordezkaritzak 1937-5-7an bidalitako mezu bati erantzunez.

443 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Urdulizko eskola-instalazioen egoerari buruzko txostena 1937-8-20.

444 *Ibíd.*

445 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Landako Eskolaren konponketarako aurrekontua* eta *Mendiondoko Eskolaren konponketarako aurrekontua*, Luis Bilbaok aurkeztua (1937-11-30); *Urdulizko auzo-eskola bien konponketarako aurrekontua*, Francisco Olarrak aurkeztua (data barik); eta *Urdulizko auzo-eskola bien konponketa osorako aurrekontua*, Hojalateria de Emiliano Rodríguezek aurkeztua (Algorta) (1937-11-6).

446 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Bizkaiko Diputazioko Irakaskuntza Publikoko zuzendariaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-8-31.

447 *Ibíd.* Urdulizko eskola-instalazioen egoerari buruzko txostena. Inbentarioak 1937-8-20.

Lehenago aitatu dugun legez, eskola nazionalaren suntsiketak sortutako arazoa urte askotan luzatu zen. Batzoki zaharraren eraikinaren goiko aldea (*Taberna Txiberri*, gaur egun) eskola moduan gaitu zen harik eta Elortza ikastetxea zutitu arte, José Antonio Bilbao Menchacaren alkatezaren denboran. Ordura arte, ikastetxe baten eraikuntza galdatu zen askotan. Berbarako, 1942ko abuztuan, alkateak, "(...) eskola-eraikuntzen inguruan argitaratutako prentsa-ohar" baten aurrean, Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzaile Nagusiari idazki bat zuzendu zion, eta adierazi Eskola Nazionalak "(...) gerraren ondorioz suntsituak" izan arren, ez zirela berriak eraikitzen eta erabat premiazkoa zela "neskatila eta mutikoen eskola unitario bat"<sup>448</sup>.

Osasun eta higiene publikoa ere egon ziren Manuel Uribe zuen udalbatzaren kezken barruan. 1927an udalerria Atxarteko iturburutik zetorren edateko uraz hornitzeko egindako obrek ez zuten behar adinako hornidura segurtatu<sup>449</sup>. Hartara, 1937ko uztailaren erdialdean, Udalaren osoko bilkurak erabaki zuen Urdulizko Uren Elkartera jotzea bere interesa azaltzeko "(...) edateko uraren hornidura handitzeko lanen jarraipenaren gainean, likido honen eskasia begi bistakoa baita herrian eta oso beharrezkoa da osasunarentzako, bereziki garai honetan (...)". Beste alde batetik, "ur beltzen putzuak" zeuzkaten baserrietako jabeei adierazi zitzaion "(...) itsutu edo itxi" behar zituztela eta lurra, berriz, utzi "(...) osasungarritasun publikoa bermatzeko moduan, epidemiak saihestearren"<sup>450</sup>.

Lehen udalbatza hark, adierazi bezala, behin-behineko izaera izan zuen, eta bere egitekoen artean egon zen udal berria eratzeko proposatutako pertsonen izenen zerrenda osatzea. Zerrenda hori Urdulizko Udal Artxiboan dago eta harekin batera beste bi zerrenda daude Falangeko Tokiko Buruzagitza<sup>451</sup> hartzeko eta Plater Bakarraren Batzordea<sup>452</sup> osatzeko proposatutako izenekin; horretaz aurrerago egingo dugu berba. Ez dakigu zer egunetan osatu ziren zerrendak, baina seguruenik 1937ko urrian bigarren udalbatzaren izendatu baino lehenago. Berriz, 1937ko uztailaren 19ko data du udal epaile eta udal fiskal karguak hartzeko proposatutako pertsonen zerrendak, Getxoko komandante militarrek hala eskatuta, baina ezin dugu jakin aitatutako zerrenda guztiak garai berekoak diren<sup>453</sup>.

---

448 A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako andereño ikuskatzaile buruari zuzendua* 1942-8-13.

449 1945ean, hornidurak txarra izaten segitzen zuen. Horrela jakinarazi zuen Urdulizko Uren Elkarteko lehendakari Pedro Goirigolzarrik: "(...) abonatu batzuek kopuru handiegiak kontsumitzen dituzte, beste batzuek egunaren tarte batzuetan baino ez daukate urik eta, guztietan okerrena, oraindino badira abonatu batzuk urik batere ez daukatenak" (A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko Uren Elkarteko lehendakari Pedro Goirigolzarri Arambalzaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1945-5-29).

450 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-5-7

451 Antonio Larrabeitia Uribarri eta Juan Antonio Asla Cantera proposatu ziren.

452 Agustín Menchaca Urquizu, Isidro Antonio Fano Bilbao eta José Ramón Iturriaga Libarona proposatu ziren.

453 A.M.U. 246. kaxa, *Posta-trukea 1937-1954, Urdulizko udala osatzeko proposatutakoak d/g, Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.eko tokiko buruzagi izateko proposatutakoak eta Platera Bakarraren Komisorako proposatutakoak d/g eta Urdulizko alkatearen mezua, Getxoko komandante militarri zuzendua* 1937-7-19.

Zelangura ere, urriaren 15ean, Manuel Uribek gobernadore zibilaren irailaren 30eko gaztiguaren berri eman zien zinegotziei<sup>454</sup>; Udal berriaren izendapena zekarren, zinegotzi kargurako proposatutako pertsonekin, José Ramón Iturriaga Libaroren salbuespenarekin, bere ordeiz Manuel Uribe Echevarria agertzen baita. Udalbatza berria honela geratu zen eratuta:

<b>2. UDALBATZA 1937-10-15</b> <sup>455</sup>	
<b>KARGUA</b>	<b>IZEN-ABIZENAK</b>
Alkatea	Amancio Nieva Taramundi
Alkateordea	José Agustín Menchaca Urquizu
2. alkateordea	José María Ansoleaga Sistiaga
Sindikoa	Juan José Garitonandia Mallagaray
Zinegotziak	Juan Antonio Asla Cantera Isidro Antonio Fano Bilbao Pablo Landeta Arana Lucio Ugarte Ansoleaga Manuel Uribe Echevarria

Urdulizerako udalbatza berriaren izendapena ez zen ez ohiko ezer izan, ezta gertaera isolatua ere. Esate baterako, irailaren erdialdean udal berriak izendatu zituzten, horien artean Plentzian eta Marurin, Fidel Sendagorta eta Ignacio Garay buru zituztela, hurrenez hurren<sup>456</sup>, eta urriko lehen hamabostaldian Bizkaiko hainbat herritako udalbatza berriak eratu ziren, *El Correo Español*ek jaso zuenez<sup>457</sup>

Urdulizko udal berriak era berean erabaki zuen ezen, handik aurrera, osoko bilkurak "(...) *España una, grande, libreka!* " eta "*Arriba Españaka!*" amaituko zirela. "(...) *Eta horrekin batera bilkura amaitutzat jo zen harmonia eta berotasun ederrenean, Arriba Españaka eta Viva Españaka*"<sup>458</sup>.

Apur bat geroago, abenduan, udalbatza berria murriztuta geratu zen 1937ko azaroaren 8ko Aldizkari Ofizialak ezarri zuenari jarraituz. Kontuan harturik biztanleen zentsua, gehiegizkotzat jo zen Udalak bederatzi zinegotzi izatea, eta horregatik murriztu zen udalbatza 7 zinegotzira. Doitze hau aurrera eroateko,

454 U.U.A. "Historikoa", 7. kaxa, *Bizkaiko Gobernu Zibileko Udalen Bulegoaren mezua, Urdulizko udalari zuzendua 1937-9-30*.

455 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-10-15. Udal berria osatu zuten izenen zerrrenda *El Correo Español*en argitaratu zen, 1937-10-15.

456 *El Correo Español* 1937-9-18.

457 Esaterako, *El Correo Español* 1937-10-1: Areatza, Arantzazu, Artea, Dima eta Otxandio, eta *El Correo Español* 1937-10-7: Gamiz-Fika, Ajangiz, Larrabetzu, Arbazegi, Berriatua, Busturia, Forua eta Muskiz.

458 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-10-15

Udalak proposatu zuen Antonio Asla Cantera eta Agustín Menchaca Urquizu kanpoan geratu zitezen. Baina delako proposamena bidaltzea ez zen nahikoa, Gobernu Zibilak abenduaren erdialdean eskatu ziolako udal urduliztarrari bi zinegotzien dimisio-gutuna<sup>459</sup>. Soilik José Agustín Menchacaren dimisio-gutuna, besterik ez da gorde. Bertan, Menchacak Aldizkari Ofizialean ezarritakoa aipatzeaz gain, azaldu zuen bere lanak ez ziola uzten zinegotzi kargua hartzen “(...) urte gehiena herritik kanpo igarotzen baitut, denek dakiten legez, eta horregatik ezin izan dut joan Udaletxera, karguaz jabetzera”<sup>460</sup>.

Aitatuta dagoen legez, Akta Liburua 1937ko azaroaren 4an amaitzen da, eta Udal Artxiboan data horretatik 1947ko apirilaren 13a bitarteko liburukia falta da. Akta gordetzen den 1937ko azken osoko bilkura hartan Urdulizko “(...) familia batzuek” zeukaten arazoa jorratu zen, “(...) ezin zituzten seme-alabak elikatu”-eta. Egoera latz horri aurre egiteko erabaki zuten jantoki bat edo gehiago sortzea. Beste alde batetik, erabaki zen komun bat eraikitzea elizatik gertu. Adierazi zenez, elizara “jende ugari” etortzen zen “(...) ataripean elizkizunak noiz hasiko” elkartzen zena. Ez zegoenez “(...) inguruan ezelango komunik, libratu eta txiza egiteko” “komenigarritzat” jo zen bat eraikitzea “(...) herritarren higiene eta osasungarritasunaren mesede”<sup>461</sup>.

*La Gaceta del Norte*n agertutako albiste bati esker dakigu Udalak azaroaren 18an egin zuela osoko bilkura; egun hartan erabaki zuen udalbatzak egunkari hori antolatzen zebilen omenaldira batzea, noren eta “(...) Nafarroako Brigada heroikoen (ohoretan), euren adore eta ausardiarekin Espainiako Iparralde guztiaren askapena lortu baitute gorri-separatisten tiraniatik”<sup>462</sup>. Egun hartatik aurrera, gutxi dakigu udalbatzaren jardueraz. 1938ko uztailan, barbarako, erabaki zen txabola bat eraikitzea “(...) “vendejeren” zamariak gordetzeko aterpe gisa (...) Areetatik Plentziarako Trenaren geltokiko kargalekuan, eta gutxi gorabehera errepidetik sei metrotara”. “(...) Kargalekua deituriko lekua” “Areetako futbol klubarena” zen, eta txabola eraiki ahal izateko, baimena eskatu zitzaion Bizkaiko Herri-lanetako Ingenieri Buruari<sup>463</sup>. Txabola honen xedea zen “(...) “vendejeren” astoak” gordetzea, izan ere “(...) haiek plazara doazen bitartean, astoak lotuta uzten dituzte geltokiko plazatxoan”.

---

459 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Gobernu-ordezkarri Ignacio Urquijoren komunikazioa Urdulizko alkateari zuzendua 1937-12-16*.

460 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *José Agustín Menchaca y Urquizuren dimisio eskutitza, 1937ko abendua*.

461 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-11-4.

462 *La Gaceta del Norte* 1937-11-23, *Urdulizko alkate Amancio Nievaren gutuna La Gaceta del Norteko zuzendari jaunari, 1937-11-18*. Plentziako eta Gortizko udalek azaroaren 6an egin zuten bat omenaldiarekin (*La Gaceta del Norte* 1937-11-9), Sopelak hilaren 9an (*La Gaceta del Norte* 1937-11-12), eta Barrikakoak 17an (*La Gaceta del Norte* 1937-11-23).

463 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Herri-lanetako ingeniari-buruari zuzendua 1938-7-13*.

Horrela azaldu zion Udaleko idazkari Luis Navarrok Martín Zarragari, urduliztarra bera eta Miranda de Ebron bizi zena, zeini eskatu zion bere “(...) *baimena (...) obra hori egiteko*”, proiektatutako txabola ezarri behar zelako “(...) *Villa-Odona etxeko horman bermatuta, kargalekuaren aldetik*”<sup>464</sup>. Obrak 2.424 pezeta eroan zituen<sup>465</sup>.

Azkenik, aitatzekoa da zelan, 1939ko ekainaren hasieran, Udalak gobernadore zibilarri espediente bat helarazi zion, haren gaia izanik “(...) *Udal bulegoak Udal honek Cuatro Caminos auzoan daukan etxera lekualdatzea, udal mugartearen erdigunea delako*”<sup>466</sup>. Eliza nagusiaren alboan kokatutako ordura arteko udaletxea (egun Inola-Emakumeen Elkartearen egoitza) ez zen “*egokia eta nahikoa*” eta, esan dugunez, herriaren mutur batean zegoen. Osoko bilkuraren erabaki horren bitartez<sup>467</sup>, udal bulegoak Elortza auzora bueltatu ziren, Udal Alondegiairen eraikinera, Eskola Nazionalen hondarrak zeuden lekutik ez oso urrun, hori izanik XIX. mendeko Udaletxe zaharra. Kreditu-gehikuntza bat eskatu zen, uztailaren hasieran, “(...) *Udaletxea beste bulego batzuetara lekualdatzeko gastuei aurre egin*” ahal izateko; honen espedientea Bizkaiko Probintziako Ogasuneko ordezkariari bidali zitzaion, behin betiko onartua edo berretsia izan zedin<sup>468</sup>.

## 1.2.2 Gerra osteko eguneroko bizitza

### 1.2.2.1 Gizarte bat gerran

1937ko uztailaren hasieran armada frankistak Bizkaiko lurralde guztia kontrolatzen zuen dagoeneko. Apur bat lehenago, Bilbo bereganatzeak aukera eman zien matxinatuei euren kausaren zerbitzurajartzeko Itsasadarreko industriaren indarra, horiek militarizatuta. Beste alde batetik, gazteak erreklutatzeari ekin zitzaion armada frankistaren tropak gizentzeko.

Baliabide guztiak optimizatu behar ziren, armada frankistaren zerbitzuan jartzeko. Premia horrek bultzatuta, Estatu Nagusiko komandante buruak horren gaineko zenbait neurri agindu zituen 1937ko uztailaren erdialdean.

---

464 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Luis Navaroren gutuna, Martín Zarragari zuzendua 1938-7-26*.

465 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Estatistika buru jaunari zuzendua – Bilbo 1939-3-7*.

466 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Amancio Nieva Alkatearen mezua, Bizkaiko Gobernadore Zibilarri zuzendua 1939-6-7*.

467 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Gobernadore Zibilarri zuzendua 1939-6-13*.

468 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Ogasuneko Ordezkariari zuzendua 1939-7-5*.



Besteak beste, “(...) Bizkaiko bizilagun” guztiei agindu zien honako hauek derrigorrez uzteko alkateen eskutan:

*“(...) útiles, maquinarias o herramientas de excavación tales como picos, palas, azadas, pistoletes, barras de mina, compresores, tractores, etc, en cantidad superior a las necesidades de sus faenas agrícolas o de sus industrias en marcha (...)”<sup>469</sup>.*

Ugazaba edo maizterrei ere agindu zien jasotzeko eta entregatzeko “(...) euren jabetzako lurretan topatzen duten gotorlekuetako material guztia (...)”. Zehatz-mehatz:

*“(...) el alambre de espino y los piquetes a que está sujeto, bien sea de madera o de hierro, los sacos terreros, chapas onduladas, carriles, vigas de hierro, varillas para cemento armado, marcos de mina, cemento en polvo y maderas de rollo o escuadras”<sup>470</sup>.*

Zortzi eguneko epea ezarri zen erreminten eta gotorlekuetako materialaren entregarako. Epe hori pasata material horiek topatzen baziren, zigorra “gogorra” izango zena<sup>471</sup>.

Era berean debekatu zen:

*“(...) la venta de toda clase de latón, hierro, zinc, etc. que se encuentre abandonado por el enemigo o por nuestras tropas, en el campo de batalla, el cual debe ser recogido por el Servicio de Recuperación de Artillería (...)”<sup>472</sup>.*

Urdulizen, badakigu, 1937ko abuztuaren amaieran, alkateak *Sociedad Retolaza y Anacaberi* eman ziola “(...) 107 litroko edukiera duen “Jautor” hormigoï-makina, 5 zalditako Peter motorra duena”, Industria txertatzeko eta mobilizatzeke Batzorde Militarrek aurretik baimena emanda<sup>473</sup>. Gure ustez, *Burdin Hesiaren* Urdulizko tartearen eraikuntzan erabiliko zen hormigoï-makina hori, hurrean, orduko Bilbo – Plentzia trenaren tunelaren alboko aterpe zibilerako.

Agintari militar frankistek beldurra zioten eskualdean aire bidezko eraso errepublikar posible bati. Hori argi geratu zen abuztuaren 14an Getxoko Komandantzia Militarra harremanetan jarri zenean bere barrutiko alkateekin, agindu ziezaieten “(...) euren agintepeko udaltzain, gauzain eta abarrei (...) jakinezgero inor (...) paratxuten bidez hegazkin batetik jaitsi dela” ekin ziezaioten

---

469 A.M.U. 246. kaxa, *Komandantzia Militarren oharra (Ingeniarien Berreskuratze Atala) 1937-5-7.*

470 A.M.U. 246. kaxa, *Komandantzia Militarren oharra (Ingeniarien Berreskuratze Atala) 1937-5-7.*

471 *Ibid.*

472 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Getxoko Komandantzia Militarren mezua, 1937-6-25.*

473 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Retolaza y Anacabe sozietateak sinaturiko ordainagiria 1937-8-30.*

pertsona hori edo horiek atxilotzeari. Areago, ezarri zuen “(...) *paratxutak edo hauen hondarrak (...) landan*” topatuz gero, paratxutista non zegoen ikertzeko, “(...) *modu horretan jaitsiz, sabotaje ekintzak edo misioak, atentatuak, etab. egin nahi dituzten pertsonak direlako*”<sup>474</sup>.

Egun gutxi batzuk geroago, Sopelako Guardia Zibileko kaboak idatzi zion Urdulizko alkateari kontu honen berri emateko, baita eskatzeko ere “(...) *bere agintepeko agenteek*” jar zezaten “(...) *zaintza zorrotz bat eta beharko balitz atxilotu ditzaten (...) paratxutistak*”. 6. Armada-gorputzeko Jeneral Buruak eman zion Bizkaiko gobernadore zibilari paratxutista errepublikanoen jaitsiera posible baten berri. Horretarako bidali zion telegramari sinestera, jakin berria zuten eratua zela “(...) *400 edo 500 gizonak osaturiko Batailoi bat, paratxutez hornitua, gauaz Ierro nazionalen erretaguardian salto egiteko sabotaje ekintzak egiteko helburuz*”<sup>475</sup>.

Ildo beretik, Bizkaiko gobernadore militar Emilio Serranok exigitu zuen atoan entregatzeko, “(...) *arma labur eta luzeak, leherkariak, bonbak, munizioak eta gerrarako hornigarriak (...) jendeen eskutan*”, edo “(...) *alor edo etxeetan ezkutatuta*” zeudenak, haien berri izanez gero. Hori guztia zertarako eta “(...) *elementu gorri-separatistek euren etxe, alor, koba edo meatokietan ezkutatuta gorde ez ditzaten armak eta munizioak, haiekin indarkeria ekintzak egin ahal izateko eta gure erretaguardiara ezinegona eroateko*”. Agindu hori betetzeko 48 orduko epea eman zen; denbora hori igarota, inori armak edo leherkariak aurkituz gero, epaitu egingen zuten “(...) *prozesu labur-labur batean, matxinada militarren errudun moduan, eta dagozkien zigor gogorak ezarriko zaizkie*”<sup>476</sup>.

Egoera horretan, agintariak zorrotz kontrolatu zuten leherkariak edukitzea. Esate baterako, 1937ko uztailaren 5ean, Urdulizko alkateak, agiri baten bidez, baimena eman zion Luis Bilbaori, Urdulizko Uraren Elkarteko arduradunari, “(...) *bere etxean edukitzeko sei dinamita kartutxo pakete, kapsula kaxa bat eta hiru metxa-bilkari, herri honetara ura ekartzeko obra berrietan erabili ditzan*”<sup>477</sup>. Apur bat geroago, irailaren erdialdean, udalburuak beste leherkari sail bati eman zion egiaztagiria, Luis Bilbao horren premian zegoelako, “(...) *Santa Marina mendiko iturburu batean esplorazio lanak egitearren*”. Kopurua abuztuan baimendutakoaren antzekoa zen oso: “(...) *sei dinamita pakete, lau metxa-bilkari eta pistoi kaxa bat*”<sup>478</sup>.

Urdulizen sartu eta apur bat geroago hasi zen mutilen mobilizazioa, armada frankistan zerbitzu egin zezaten. Hartara, uztailaren 1ean, Urdulizko Udal Epaitegiko epaileak 1917an jaiotakoen zerrenda osatu zuen, haiei zegokielako

474 A.M.U. 246. kaxa, *Getxoko Komandantzia Militarren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-8-4*.

475 A.M.U. 246. kaxa, *Sopelako Guardia Zibilaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-8-18*.

476 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Plentziako Komandantzia Militarren mezua, Gobernadore Militarren bandoaren berri emateko (1937-10-8) 1937-10-29*.

477 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen baimena 1937-8-5*.

478 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Manuel Uribe egindako ziurtagiria 1937-9-15*.

“(…) 1938ko alistemenduan sartzea”<sup>479</sup>. Hilabete hartako 19an, alkateak jakinarazi zion 38. Errekluta Kaxako teniente koronel buruari, ezen “(…) 1938ko errenplazoaren errekluten mobilizazioaren inguruan”, ez zegoela “(…) herrian mobilizatzeraz deitutako mutiletako bat bera ere ez”. Atxikitako zerrenda batean azaldu zitzaizkion “(…)dei horretara ez agertzeko arrazoiak”<sup>480</sup>.

Uztailaren 21ean, Bilboko 40. Errekluta Kaxako teniente koronel buruak eskatu zion Udalari, “(…) ahalik eta arinen” esateko zein zen “(…)udalerrri horretan, 1939ko errenplazoari dagozkion eta bertan dauden errekluten kopurua”<sup>481</sup>. Urdulizen bi errekluta besterik ez zeuden: Matías Laraudogoitia Menchaca eta José Luis Laraudogoitia Arteta<sup>482</sup>.

1937ko uztailaren 24ko datarekin, 1930 eta 1938 urteei zegozkien mutilen zerrenda osatu zen, hau da, 1909tik 1917ra bitartean jaiotako gazteena. Zerrendak agertzen du horietako asko non zeuden, hau da, alde errepublikarrean, edo kartzelan:

<b>1930etik 1938rako ERRENPLAZOEI DAGOZKIEN GAZTEEN IZENEN ZERRENDA (1937-7-24)</b> <sup>483</sup>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ERRENPLAZOKO URTEA</b>	<b>OHARRAK</b>
Juan José Asla Cantera	<b>1930</b>	<i>Aurkeztua</i>
José Vilariño Salgado	Ídem.	<i>Amak dioenez, gorriekin</i>
Juan Asla Cantera	<b>1931</b>	<i>Aurkeztua</i>
Juan Iturregui Aurrecoechea	Ídem.	<i>Aurkeztua</i>
Pedro Ugarte Bilbao	Ídem.	<i>Aitak dioenez, Gasteizen</i>
Adolfo Luis Urrutia Llona	Ídem.	<i>Kanpoan, atzerrian</i>
Isidro Bilbao Ansoleaga	<b>1932</b>	<i>Amak dioenez, gorriekin</i>
Jenaro Egusquiza Mandaluniz	Ídem	<i>(Daturik ez)</i>
Gregorio Lopategui Bilbao	Ídem	<i>Emazteak dioenez, Murgian</i>
José Olea Bilbao	Ídem.	<i>Aitak dioenez, Murgian</i>
Gerardo Villabeitia Ugarte	Ídem.	<i>Aitak dioenez, gorriekin</i>

479 B.F.A.H. URDULIZ 0031/008, *Epaitegi honetako Erregistro Zibilean 1917an inskribaturiko mutikoen zerrenda, 1938ko izen-ematean sartzea baitagokie 1937-7-1.*

480 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Donostiako 38. Errekluta-kaxako teniente koronel buruzagiari zuzendua 1937-7-19.*

481 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko 40. Errekluta-kaxako teniente koronel buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-7-1.*

482 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bilboko 40. Errekluta-kaxako teniente koronel buruzagiari zuzendua 1937-7-24.*

483 B.F.A.H. URDULIZ 0031/008, *1930etik 1938ra bitarteko, biak barne, errenplazoetako mutilen izenen zerrenda 1937-7-24.*

<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ERRENPLAZOKO URTEA</b>	<b>OHARRAK</b>
Francisco Asla Goirigolzarri	<b>1933</b>	<i>Arrebak dioenez, Burgosen</i>
Alejandro Albiñarrate Torrijo	Ídem.	<i>Inork ez daki non den</i>
Ángel Iturregui Aurrecoechea	Ídem.	<i>Zendua</i>
Juan Zalvidea Bilbao	Ídem.	<i>Aurkeztua</i>
Agapito Basañez Bilbao	<b>1934</b>	<i>Aitak dioenez, ez daki non den</i>
Florencio Bilbao Fullaondo	Ídem.	<i>Zendua</i>
Juan Bautista Bilbao Unibaso	Ídem.	<i>Amak dioenez, Lizarran</i>
José Egusquiza Mandaluniz	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i>
Juan Olea Bilbao	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i>
Pedro Inchaurtieta Bilbao	Ídem.	<i>Amak dioenez, Lizarran</i>
Jacinto Amegugo Aurre	<b>1935</b>	<i>Aitak dioenez, Logroñon</i>
Bernardo Ateca Inchaurtieta	Ídem.	<i>Inork ez daki non den</i>
Antonio Egusquiza Bilbao	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i>
Pedro Goirigolzarri Zarraga	Ídem.	<i>Osaba-izebek diotenez, Deustuan</i>
Julián Iturregui Aurrecoechea	Ídem.	<i>Soldadua, Armada Nazionalean</i>
Miguel Larrazabal Arteta	Ídem.	<i>Kanpoan, Kuban</i>
Cándido Bilbao Unibaso	<b>1936</b>	<i>Amak dioenez, Bilbon</i>
Jacinto Garaizar Larrazabal	Ídem.	<i>Aitak dioenez, gorriekin</i>
Juan José Juaristi Ansoealeaga	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i>
Eusebio Trebolazabala Lopategui	Ídem.	<i>Bilbon (zerbitzuan)</i>
Manuel Aspiazu Abarrategui	<b>1937</b>	<i>(Daturik ez)</i>
Martín Aldecoa Goirigolzarri	Ídem.	<i>Aurkeztua</i>
Félix Arrarte Madariaga	Ídem.	<i>Aitak dioenez, Gasteizen</i>
Esteban Bilbao Camiruaga	Ídem.	Ídem.
José Andrés Bilbao Garaizar	Ídem.	Ídem.
Justo Egusquiza Bilbao	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i>
Salvador Erdaide Videá	Ídem.	<i>Amak dioenez, Deustuan</i>
Hilario Libarona Meñaca	Ídem.	<i>(Daturik ez)</i> <sup>484</sup>

---

484 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Getxoko Komandantzia Militarren mezua*, 1937-6-25.

<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ERRENPLAZOKO URTEA</b>	<b>OHARRAK</b>
Antonio Elorriaga Fullaondo	<b>1938</b>	<i>(Daturik ez)</i> <sup>485</sup>
Antonio Juaristi Ansoleaga	Ídem.	<i>Aitak dioenez, gorriekin</i> <sup>486</sup>
Julián Landeta Videa	Ídem.	<i>Aitak dioenez, Lizarran</i>
Juan Inchaurtieta Larrauri	Ídem.	<i>Aitak dioenez, gorriekin</i>
Benito Otazua Asua	Ídem.	<i>Aitak dioenez Logroñon</i>
José Luis Muñoz Navarro	Ídem.	<i>Aitak dioenez, gorriekin</i>
Manuel Goirigolzarri Zarraga	Ídem.	<i>Osaba-izebek diotenez, Urduñan</i> <sup>487</sup>
Manuel Bilbao Zabala	Ídem.	<i>Gurasoek diotenez, gorriekin</i>
Ángel Zalvidea Mendizabal	Ídem.	Ídem. <sup>488</sup>
Daniel Ateca Gondra	Ídem.	<i>Inork ez daki non den</i>
José Eleuterio Bilbao Ubillas	Ídem.	<i>Amak dioenez, itsasoan</i>
Pedro Barandica Garay	Ídem.	<i>Aurkeztua</i>
José Lejonagoitia Aguirrechea	Ídem.	<i>Sopelanara bizitzera joan zen</i>
Tomás Villabeitia Ugarte	ídem	<i>Zendua</i>

Egun bi geroago beste zerrenda bat osatu zen “(...) alfabetikoki eta hiru hilabeteka, 1938ko errenplazoari zegozkion gazteena”. Bertan aurreko zerrendan agertzen ziren izenak daude, eta beste lau gazterenak:

<b>1938KO ERRENPLAZOA: AURREKO ZERRENDA AGERTZEN EZ DIREN GAZTEAK (1937-7-26)</b> <sup>489</sup>	
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>OHARRAK</b>
Asensio Bilbao Ansoleaga	<i>(Daturik ez)</i>
Alberto Urrutia Llona	<i>Palentzian</i>
Ángel Trebolazabala Lopategui	<i>Gorriekin</i>
Justo Unibaso Arambalza	<i>Urduñan</i>

485 *Gorrien eremuan 1937-7-26, honen arabera: B.F.A.H. 0031/013, 1938ko errenplazoko mutilen izenen zerrenda, alfabetoaren arabera eta hiruhilekotan emana, 1937-7-26.*

486 *1937-9-25ean sartu zen Armadan. Urte hartako abenduan, Erregimentuko kapitainak Urdulizko udalari eskatu zion txosten bat bidali ziezaioten Antonio Juaristiren “(...) aurrekari moral eta politikoan” gainean. (U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Carabanachel Altoko Artilleria Astuneko 3. Erregimentuko kapitainaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-11-6).*

487 *Palentzian 1937-7-26, según: B.F.A.H. 0031/013, 1938ko errenplazoko mutilen izenen zerrenda, alfabetoaren arabera eta hiruhilekotan emana, 1937-7-26.*

488 *Eremu gorrian 1937-7-26, honen arabera: B.F.A.H. 0031/013, 1938ko errenplazoko mutilen izenen zerrenda, alfabetoaren arabera eta hiruhilekotan emana, 1937-7-26.*

489 *B.F.A.H. 0031/008, 1938ko errenplazoko mutilen izenen zerrenda, alfabetoaren arabera eta hiruhilekotan emana 1937-7-26.*

1937ko urriaren 1929tik 1939rako Errenplazoen hurrengo mutilei dei egin zitzaizen, azaroaren 6an Bilboko Errekluta Kaxan ager zitezen:

<b>BILBOKO ERREKLUTA KAXAN AURKEZTUAK 1937-11-6an <sup>490</sup></b>	
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ERRENPLAZOKO URTEA</b>
Juan José Asla Cantera	1929
Juan Asla Cantera	1930
José Egusquiza Mandaluniz	1934
Antonio Egusquiza Bilbao	1935
Eusebio Trebolazabala Torrontegui	1936
José Gorordo Bilbao	1938
Antonio Arambalza Hormaza	1939
José Goirigolzarri Zarraga	1939
Tomás Artaza	(Ez da agertzen)

Gerra Zibilaren garai horretan (1937ko uztaila - 1939ko apirila) Urdulizko bizilagun biren heriotza dokumentatu dugu. 1938ko uztailaren 27an, "(...) *gerra-ekintzan*" hil zen **Antonio Bilbao Unibaso**, Bailén 24. Erregimentuko soldadua. Heriotza-ziurtagiria egun batzuk geroago luzatu zen, abuztuaren 3an<sup>491</sup>; bertan ez da agertzen non gertatu zen heriotza. Ondorengo agiri batean adierazi zenez, ordea, Antonio Bilbao Teruelgo frontean hil zen, baita **Antonio Olea Bilbao** ere, inguru berean, nahiz eta ez dagoen jasorik zer egunetan zendu zen. Batean zein bestean ez zen jakin "(...) *zer lekutan eman zieten lurra kristau legez*"<sup>492</sup>.

Beste alde batetik, gutxienez hiru gizonezko urduliztar zaurituta gertatu ziren gerra-ekintzetan, eta gerrako mutilatu gisa sailkatu zituzten. Horrek berekin ekarri zuen geroago Gerrako mutilatuen Kidegoko kide izatea, eta Jaun Mutilatu izaera zutenez pentsio bat jasotzeko eskubidea izango zuten. Haietatik bat **Juan Bautista Olea Bilbao** izan zen, San Marcial 22. Erregimentuko 8. Batailoiko 33. Konpainiako kidea. Olea balaz zauritu zuten 1937ko urriaren 30ean "(...) *Teruelgo fronteko Caudeteko posizioan*", eta horrek "*eskumako izterrezurraren osteomielitisa*" eragin zion, zeinaren ondorioz "(...) *interbentzioa behin eta berriro eginda ere joaten ez zaion fistula*" agertu zitzaion. Horrek ekarri zion "(...) *zegokion izterreko muskuluen atrofia bat*", eta "(...) *eskumako belauaren mugimenduen mugapena*". Epaitegi medikoak iraunkortzat jo zituen lesio horiek,

490 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018, 1929tik 1939ra bitarteko, biak barne, errenplazoetako mutil baliagarri guztien zerrenda, hurrengo azaroaren seian Bilboko Errekluta Kaxan aurkeztu behar baitute 1937-10-31.

491 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Infanteriako Bailén 24. Erregimentuko komandanteari zuzendua - Nafarroa 1939*, eta 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Laukizko alkateari zuzendua 1939-3-23*.

492 A.M.U. 268. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Gobernadore Zibilar zuzendua 1952-12-9*. Antonio Bilbao Unibasoren kasuan, abizenak ordenaz aldatuta ageri dira, Antonio Unibaso Bilbao agertzen da-eta.

eta horregatik, 1939ko urriaren 28an, kalifikazio hau eman zioten: *“ustezko mutilatua, bere buruaz baliatzeko gauza, zerbitzu guztietarako guztiz gauza ez dena”*<sup>493</sup>. Urdulizko beste bizilagun bat mutilatu moduan sailkatua **Agustín Arambalza Hormaza** izan zen, Nafarroako 1. Dibisioko 5. Banderako soldadua, baina ez dakigu non zauritu zuten. Gauza bakarra dakigu, alegia, bere ospitalea utzi zuela alta eman ziotenean 1939ko urtarrilaren 24an<sup>494</sup>. Azkenik, mutilatu moduan dokumentatu dugu **Pablo Menchaca Laraudogoitia**<sup>495</sup>.

Gerraren amaierak, 1939ko apirilaren 1ean, ez zuen berehala ekarri armada frankistako borrokalari guztiak euren etxeetara itzultzea. Herrialdeko barne egoerak eta, Bigarren Mundu Gerra atarian zegoela, nazioarteko egoerak, ez zuten komenigarri egiten armadaren erabateko desmobilizazioa, nahiz eta 1939ko udan ia erdira murriztuta egon. Hartara, abuztuan, oraindino bazeuden Urdulizko zenbait gazte hainbat erregimendutan banatuta Estatuko geografian zehar. Andra Mariko herriko jaiak etortzekotan zeudela-eta, hilaren 24an, Udalak, osoko bilkuran, erabaki zuen *“Armada Nazionaleko Buruzagi Militar”* desberdinei eskatzea herriko soldaduentzako baimena, aukera eduki zezaten *“(…) (irailaren) 8an (…) Amabirjinaren jaiotzaren egunean, belaunikatzeko eta Ama onari eskerrak emateko jasotako mesedeengatik, euren senitartekoekin biltzearekin batera”*. Udaletxean mamitu zen ekimen hau, Udal akordioan jasotzen den moduan, bertara hurbildu baitziren:

*“(…) varias madres de combatientes en el Ejército, suplicando intercedamos acerca de los Jefes de los respectivos Batallones para que se le conceda permiso para asistir a las fiestas, tanto profanas como religiosas que se celebrarán en esta localidad con motivo de la festividad de nuestra Patrona La Virgen de Setiembre (sic) a quien tantas veces invocaron estos jóvenes españoles para que les protegiesen en los momentos de peligro”*<sup>496</sup>.

---

493 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Seigarren Militar Barrutiko Epaimahai Mediko Militarrek Juan Bautista Olea Bilbo gerrako mutilatu gisa sailkatzeako aktaren agiriaren kopia ziurtatua – Bilbon, 1939ko urriaren 28an, 1940-2-10.*

494 A.M.U. 246. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Nafarroako 1. Dibisioko 5. Banderako buruzagiari zuzendua 1939-4-18.*

495 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, VI. Dibisio Militarreko Milizien buruzagitzari zuzendua – Bilbo 1939-5-30.* Komunikazio horrekin batera, Udalak ordainagiria bidali zuen Pablo Menchacari “mutilatuaren izakinak” kontzeptuagatik ordaindutako 180 pezetengatik, *VI. Dibisio Militarreko Bilboko Milizien buruzagitzari* eskatzeko zenbateko hori Udalarai ordaindu ziezaion.

496 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Alkatearen zenbait komunikazio zenbait erregimenturi, baimenaldiak eskatzeko, 1939ko abuztuaren 28tik irailaren 3ra bitartekoak.*

Gazte hauentzako eskatu zen baimena, Andra Mariko jaiak zirela-eta:

<b>SOLDADU URDULIZTARRAK ARMADAN 1939KO ABUZTU AMAIERA- IRAILA HASIERA <sup>497</sup></b>	
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ZER UNITATETAN ZEUDEN</b>
Andrés Bilbao Garaizar	Intendentziako 7. Konpainia, Requena (Valentzia)
Ángel Trebolazabala Lopategui	América 23. Erregimentua, 4. Batailoia, 2. Konpainia, Zamora
Ángel Zalvidea Mendizabal	Ez da ageri
Antonio Elorriaga Fullaondo	105. Dibisioa, 104. Batailoia, 4. Konpainia, Zalduneriaren Kuartela, Salamanca
Antonio Inchaurtieta Bilbao	Aldamo garraioko Konpainia, 60. Dibisioa. Cheste (Valentzia)
Aurelio Inchaurtieta Bilbao	104. Batailoia, 4. Konpainia, 105. Dibisioa, (Salamanca)
Esteban Bilbao Camiruaga	Mendiko Intendentzia, 6 zk., 6. Dibisioa (Nafarroa), Burgos
Félix Bilbao Unibaso	Aragón 17. Erregimentua, 3. Konpainia, 3. Batailoia, Matilla de Palancas (Cuenca)
Francisco Muñoz Navarro	Bailén 24. Erregimentua, 12. Batailoia, Plaza Nagusia Montjuiceko Gaztelua, Bartzelona
Isidro Egusquiza Areilza	Artilleria arineko 11. Erregimentua, 57. bateria, Burgos
Jacinto Garaizar Larrazabal	Citroën garajea, Irun
Juan José Madariaga Olazar	Infanteriako A Erregimentua, Arma Automatikoen eskadroia, Alcalá de Henares (Madril)
Julián Gorordo Camiruaga	Artilleria arineko 11. Erregimentua, 57. bateria, Burgos
Julián Unibaso Zuazua	Arapiles mendiko 7. Batailoia, 3. Konpainia, Lizarra (Nafarroa)
Luis Olea Bilbao	Flechas Negras Batailoia, Tarragona
Pedro Egusquiza Mandaluniz	Arapiles mendiko 7. Batailoia, 3. Konpainia, Lizarra (Nafarroa)
Santos Unibaso Zuazua	Pacífico artilleria parkea, Madril
Tiburcio Garaizar Larrazabal	Automobilista parkea, San (zuriz) destakamendua, Burgos
Tiburcio Madariaga Ansoleaga	Asturiasko 2. Batailoia, 84. Dibisioa, San Claudio de Quiroga (Asturias)



### 1.2.2.2 Egoera ekonomikoa

1937ko abuztuaren erdialdean, oraindino herrira itzuli barik zeuden udalerrria galdu baino lehenago Urduliztik alde egin zuten 52 bizilagun. Alkateak prestatutako txostenaren arabera, “(...) *gorrien aldean edo atzerrian*”<sup>498</sup> zeuden. Kanpoan zeudenei gehitu behar zitzaizkien espetxean zeuden urduliztarrek, Kantabriar zegoen Euskal Armadako kide zirenak, itsasoan zeuden marinela eta armada frankista loditzeko soldadutzara deitu ziren gazteak.

Udalerriko biztanleriaren ehuneko handi horren faltak ondorio ekonomiko argia izan zuen: Udalaren diru-bilketaren beherakada, bizilagunen parte baten falta zela-eta. Parrokiak ere sumatu zuen zelan urritu zitzaizkion diruak: 1938ko apirilean, Andrés de Gastelu Urrutia abade nagusiak, *Gurtzako Diruaren Obraren* diru-bilketaren defizita azaltzeko unean, honako hau argudiatu zuen: “(...) *elizar asko falta direla nabari da herri honetan*”<sup>499</sup>.

Urdulizko Udalaren dirua lortzeko premia agerian geratu zen 1937ko abuztuaren 21ean, guztiz debekatu zuenean “(...) *lubakietako egurra hartzea*”; Udalak erabaki zuen lan hura berak bakarrik egitea, geroago “(...) *eskatzten duten bizilagunei entregatzeko bere garaian ezarriko den prezioan*”. Orobat, batzorde bat sortu zen dirua bildu guran, “(...) *eremu publikoan abandonatutako bi behi eta lau asto jendaurreko enkantean saltzeko baldintzak*(...)” prestatzeko<sup>500</sup>.

Manuel Uribek buru egiten zuen lehenengo udalbatzak izendatua izan eta berehala erakutsi zuen udalerriko eragile ekonomiko nagusia berraktibatzeke kezka. Alde horretatik, mendiaren aprobetxamendua hil ala bizikoa zen azienta kopuruaren mantenu onarentzat, areago gerraren ondoriozko abagune gaitzetan. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa zen baliabide hauen erabilerak bizilagunei mugaturik jarraitzea. Berriro bueltatu zen Urdulizko herri-mendietara bazkatzera sartzen ziren Isuskizako (Plentzia) baserrietako ganaduen arazoa. Halaxe salatu zuen Juan José Garitaonandia zinegotziak, Udalaren 1937ko uztailaren 15eko osoko bilkuran, baita gogorarazi ere artzaintza mota hori debekatuta zegoela. 1933ko neguan udalbatza nazionalistak egin zuen legez, baserri horietako errentadoreei abisatzea erabaki zen, ohartarazteko ezen “(...) *aurrerantzean edozein ardi-, zaldi- edo ahuntz-azienta*” herri-mendietan sartze baten, jabeak zigortuak izango zirela “(...) *behar den zigorra ezarrita eta behar den espedientea irekita*”<sup>501</sup>.

Ildo beretik, herriko bilbe ekonomikoa berpizteko asmotakoa dirudi Udalak bizilagun guztiei emandako agindua, alegia, garbi zitzaten “(...) *herriko bideetako sasiak ibili ahal izateko eta gurdiak aske pasa daitezen*”<sup>502</sup>.

---

498 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko egoerari buruzko txostena alkateak bidalia Bilboko Informazio-zerbitzura* 1937-8-19.

499 BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA (B.E.H.A.), 3301/000.02.

500 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-8-21.

501 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-15.

502 *Ibid.*

1938 abuztuaren bueltan, egoera gaitzean zeuden udal kontuak. Bizkaiko Osasun Partzuegoko Administrazio Batzarrak proiektu bat bultzatu zuen, udalak diru bat eragiltzera behartu zituena. Hori ikusirik, Udalak honela zuritu zuen bere burua:

*“Esta Hacienda Local no puede con más cargas por lo exiguo de los ingresos, pues los presupuestos de este año a pesar de haber recurrido a todos los recursos legales y autorizados arrojan un déficit de 14365,15 pts. que dicha cantidad habrá de girarse en repartimiento general o vecinal”*<sup>503</sup>.

Udalak, bistan dena, bestelako lehentasunak zituen, presa handiagokoak, esate baterako Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin gerra baino lehen auzo-eskolen eraikuntzarako egindako zor ordaindu bakoa. Gainera, adierazi bezala, buruan zerabilten, neskatila eta mutikoentzako Eskola Nazional bat eraikitzeko proiektua, aurrekoaren suntsiketak sortutako hezkuntza premiak berdintzearen<sup>504</sup>.

Jai eta ekitaldien ospakizuna zen diru iturrietako bat udal diru-kutxa urrituarentzat. Horregatik, 1939ko maiatzean, gerra Estatu osoan dagoeneko amaituta zegoela, Udalak baimena eskatu zion Gobernu Zibilari, maiatzaren 18an, eguena, erromeria bat antolatzeke, Jaunaren Igokundearen jaia zela-eta, *“(...) Altxamendu Loriotsua hasi arte ospatu izan dena”*, argudiatuz eta horrek *“(...) udal diru-sarrerak handitzea”* ekarriko zuela<sup>505</sup>. Ildo beretik, urte bereko urrian, bizilagunen batzorde batek Udalera jo zuenean idi-proba batzuk egiteko baimena eskatzeko, alkateak argudiatu zuen gobernadore zibilari bidalitako eskarian, proba horiek *“(...) herriarentzako diru-sarrerak ekarriko”* zituztela<sup>506</sup>.

Gerra amaitutakoan Urdulizko zenbait bizilagunek bizi zuten pobrezia egoeraren ondorioz, 1937ko azaroaren 4an, Udalak, *“(...) familia batzuek euren seme-alabak elikatzeko ezintasuna”* zutela ikusita, komenigarri ikusi zuen Urdulizen jartzea *“(...) jantoki bat edo gehiago behar horiei erantzuteko”*. Harpidetzen edo dirutan edo gauzatan egindako dohainen bidez mantenduko zen jantokia. Proposamena aho batez berretsi zen eta alkateari eskatu zitzaion bere instalazioa eta kokalekua aztertzeke, nahiz eta ez dakigun inoiz benetan gauzatu zen<sup>507</sup>. Aipatu beharra dago Urdulizko udalbatzaren erabakia baino egun bi lehenago Gizarte Laguntzako jantokiak inauguratu zirela Plentzian<sup>508</sup>.

503 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Osasun Ikuskaritza Probintzialari zuzendua* 1938-8-26.

504 *Ibid.*

505 A.M.U. 246. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko gobernadore zibilari zuzendua* 1939-5-12.

506 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Alkatearen mezua, Bizkaiko gobernadore zibilari zuzendua* 1939-10-2.

507 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-11-4.

508 *La Gaceta del Norte* 1937-11-3. Inaugurazio ekitaldietarako, instalazioak benedikatu ziren eta horren ostean José María Oriolek, Falangeko probintziako buruzagiak, hitzaldi bat eman zien *“(...) meritu oneko instituzio honetan aterpetutakoei”*. Gauaz, agintariak edari bat eskaini zioten *“(...) On Eugenio de Enhardt-i, Alemania nazio handi eta adiskidearen ordezkari duin-duinari, bere guztia ipini zuen-eta jantoki hauek berehala abia daitezen”*.

1939ko azaroan, Urdulizko Udaleko Ongintza Batzordeak *Laguntza behar dutenen errolda* gauzatu zuen. Bertan lau familia eta 79 urteko andrazko bat zeuden. Familia horietako bi aitaz eta seme-alaba adingabeez osatuta zegoen, Manuel Zuazua Ugarteren kasuan legez. Batzordearen aburuz, hauen egoera ekonomikoa “*tamalgarría*” zen, gizona gaixo zegoelako eta 10 urtetik beherako bost seme-alaba zituelako. Hirugarren familian buru egiten zuen José Gurruchaga Idastorza 70 urtekoak; haren ardurapean bost biloba adingabe zeuden, 4tik 13 urte bitartekoak, haien aita kartzelan baitzegoen<sup>509</sup>, frankismoak zigortuta.

Nekazaritzako ekoizpenaren egoerari dagokionez, estatistikek agerian jartzen dute gerraren ostean bere horretan gelditu zela laborantza mota desberdinetako azalera. Gariaren laborantzak baino ez zuen beherakada apal bat egin.

<b>LABORANTZARAKO AZALERAREN ALDERAKETA 1935ean eta 1939an (72 estatuko gızalanetan, 2'94 hektarearen baliokide)<sup>510</sup></b>			
<b>LABORANTZA</b>	<b>1935ko MAIATZA</b>	<b>1936ko MAIATZA</b>	<b>1939ko UZTAILA</b>
Garia	1000	1.112	1050
Garia, baba lerroekin	140	120	-
Babak	-	-	300
Ilarrak	-	-	3
Patatak	1500	1.006	1100
Kipulak	100	97	105
Arbiak, ganadurako	1000	903	1000
Berakatzak	-	-	4

509 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Laguntza behar dutenen errolda, Ongintza Batzordeak osatua eta Udalak onetsia 1939-11-23*, eta *Laguntza behar dutenen erroldaren eranskina, Ongintza Batzordeak osatua 1939-12-15*.

510 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako estatistika 1935-5-3, Nekazaritzako estatistika 1936-5-22, eta Nekazaritzako estatistika 1939-7-21*.

Beste alde batetik, aitatzekoa da artorako, babetarako, patatetarakok edo bazka-erremolatxarako azalerak, 1939ko uztailan, 1935eko irailakoaren oso antzeko baloreak zituela, berdin-berdinak ez esateagatik<sup>511</sup>. Guztia hain garbi ez egonagatik ere, laborantzako azalerari buruz gerraren aurretik eta ostean udalerrian zeuden datuei begira, ateratzen dugu, guda Estatu osoan amaituta, nekazaritzako ekoizpena, Urdulizen, gerraren aurreko mailetara itzulia zela. Baina hipotesi hori sendotuko diguten datuak falta ditugu, ez dakigulako zein zen uzten produktibitate maila, edo baldintza meteorologikoez haietan zuten eragina.

Ganaduen zentsuen arteko alderaketak, berriz, bestelako bilakaera erakusten du. Hasteko eta bat, gogorarazteko kontua da gerraren lehenengo hiru hilabeteetan abelburu kopuruak nabarmenki behera egin zuela. Behi aziendaren kasuan, 833 burutatik 1935ean 674ra igaro zen 1936ko urrian. Ardi aziendan are bizkorragoa izan zen beherakada: gerra zibila baino lehenagoko 420 buruak 162 ziren 1936ko udazkenaren hasieran. Gaitzagoa izan zen etxeko hegazti kopuruaren beherakada 1935ko maiatzean 5850koa baitzen, eta 1936ko urrian 4200era jaitsi zen<sup>512</sup>.

1935., 1936., 1938. eta 1939. urteei dagozkien datuen alderaketak erakusten digu beheranzko joerak jarraipena izan zuela behi edo txerri aziendari dagokionez. Ardi eta ahuntz aziendek, berriz, gora egin zuten. Testuinguru horretan, 1939ko uztailan behiengandik, ardiengandik eta, neurri apalagoan, ahuntzengandik lortutako esne ekoizpen maila txikiagoa zen 1935koa baino, logikoa kontuan harturik behi aziendaren beherakada. Hala eta guztiz ere, 1939ko uztailan zekor kopurua (175) handiagoa zen 1936ko urrikoa baino (162), kontu handiz, berreskurapen zantzutat har litekeena. Hegazti aziendak, berriz, 1939an gora egin zuen apur bat 1938aren aldean, baina inondik ere heldu gabe 1936ko urriko mailetara, hain gutxi gerra piztu aurrekoetara. Bistan denez, ez zen berreskuratu arrautzen ekoizpena; 1935an jasotakoaren erdia baino gutxiago zen 1939an, zehatz-mehatz 18.000 gutxiago. Alde horretatik, ez dakigu José María Uribe Errepublikaren denbora ireki zuen hegaztitegiak funtzionatzen jarraitu zuen edo ateak itxi ote zituen, baina suposatzen dugu zabalik mantenduko zela. Bakar-bakarrik dakigu 1937ko abuztuan, jabea Zumaiara joan zela eta bertan ezarri zuela bere etxebizitza<sup>513</sup>.

511 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako estatistika 1935-5-3, Nekazaritzako estatistika 1936-5-22, eta Nekazaritzako estatistika 1939-7-21*.

512 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako estatistika 1935-5-3 eta Nekazaritzako departamentuko Idazkari Orokorren mezu bati erantzuteko zirriborroa 1937-10-15, d/g*.

513 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Manuel Uribe alkateak egindako ziurtagiria, José María Uribe Echevarriari pasa-baimen bat eman dakion, Zumaiara joateko bere emazte María Victoria Gracia Murgren eta Dorotea Barandica eta Anunciación Elgoibar zerbitzariekin, han jarriko direlako bizitzen 1937-8-13*.

<b>GANADUEN ZENTSUEN ALDERAKETA 1935ean, 1936an, 1938an eta 1939an (abelburu kopuruetan) <sup>514</sup></b>				
<b>AZIENDA MOTA</b>	<b>1935eko MAIATZA</b>	<b>1936ko URRIA</b>	<b>1938ko ABUZTUA</b>	<b>1939ko UZTAILA</b>
<b>BEHIAK</b>	<b>833</b>	<b>697</b>	(Ez zen egin)	<b>580</b>
<i>Zezenak</i>	6	1	-	1
<i>Behiak</i>	578	508	-	370
<i>Zekorrak</i>	132	162	-	82
<i>Bigantxak</i>	82	(zekorrek eta bigantxak)	-	93
<i>Idiak</i>	35	26	-	34
<b>BEHORRAK</b>	<b>17</b>	<b>22</b>	<b>24</b>	<b>20</b>
<i>Caballos</i>	1	-	-	-
<i>Yeguas</i>	13	-	22	18
<i>Zaldikumeak</i>	3	-	2 (urte 1 baino gazteagoak)	2
<b>MANDOAK</b>	<b>Ezer ez</b>	<b>Ezer ez</b>	<b>Ezer ez</b>	<b>Ezer ez</b>
<b>ASTOAK</b>	<b>25</b>	<b>16</b>	<b>28</b>	<b>27</b>
<i>Asto osoak</i>	6	-	-	7
<i>Asto irenduak</i>	-	-	5	3
<i>Astemeak</i>	19	-	16	17
<i>Asteme 1-3 urtekoak</i>	-	-	2	-
<i>Asteme urte 1etik beherakoak</i>	-	-	5	-
<b>ARDIAK</b>	<b>307</b>	<b>162</b>	(Ez zen egin)	<b>287</b>
<i>Hazitarako ahariak</i>	6	-	-	3
<i>Ahari irenduak</i>	-	-	-	4
<i>Ardiak</i>	238	-	-	254
<i>Bildotsak</i>	63	-	-	26
<b>AHUNTZAK</b>	<b>48</b>	<b>42</b>	(Ez zen egin)	<b>64</b>
<i>Hazitarako akerrak</i>	2	-	-	1
<i>Aker irenduak</i>	-	-	-	15
<i>Ahuntzak</i>	36	-	-	38
<i>Antxumeak</i>	10	-	-	10

514 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako estatistika 1935-5-3, Nekazaritza Saileko Idazkari Orokorraren mezu bati erantzuteko zirriborroa 1937-10-15, d/g; Behor, mando, asto, hegazti eta koneju azienden zentsua 1938-8-30, eta Nekazaritzako estatistika 1939-7-21.*

<b>GANADUEN ZENTSUEN ALDERAKETA 1935ean, 1936an, 1938an eta 1939an (abelburu kopuruetan)</b>				
<b>TXERRIAK</b>	<b>96</b>	<b>90</b>	(Ez zen egin)	<b>77</b>
<i>Apoak</i>	1	-	-	4
<i>Txerramak</i>	5	-	-	3
<i>Gizentzeko arrak</i>	30	-	-	28
<i>Gizentzeko urrixak</i>	43	-	-	42
<b>HEGAZTIAK</b>	<b>5.850</b>	<b>4.200</b>	<b>2.038</b>	<b>2.145</b>
<i>Oilarrak</i>	300	140	61	70
<i>Oiloak</i>	4350	3.110	1.187	1.180
<i>Oilaskoak</i>	1200	950	790	870
<i>Indioilarrak</i>	-	-	-	10
<i>Indioilarkumeak</i>	-	-	-	15
<b>UNTXIAK</b>	-	160	203	-
<b>ERLEZAITZA (Erlautz kop.)</b>	28	-	22	45

<b>PRODUKTU ERATORRIAK: 1935ekoak eta 1939koak ALDERATUTA <sup>515</sup></b>		
<b>ESNE EKOIZPENA</b>	<b>1935eko MAIATZA</b>	<b>1939ko UZTAILA</b>
<i>Litroak guztira</i>	600.000	390.000
<b>JEZTEKO ANIMALIAK</b>		
<i>Behiak</i>	589	370
<i>Ardiak</i>	200	215
<i>Ahuntzak</i>	25	24
<b>ARRAUTZA EKOIZPENA</b>	33.000	15.000
<b>EZTIA (kilotan)</b>	80	90

515 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako estatistika 1935-5-3, eta Nekazaritzako estatistika 1939-7-21.*

Azkenik, Bizkaiko industriaren egoerari buruz berba egingo dugu, eta, ondorioz, behargin urduliztarrei buruz. Bizkaia mendean hartuta, Bilboko Itsasadarreko industria frankisten esku geratu zen, eta ekoizpena gerrarako materialen fabrikaziora bideratu zuten. Imanol Villak dioenez, “(...) *siderurgia-sektoreko enpresa gehienak militarizatuak izan ziren eta euren ekoizpena kausa frankistaren alde erabiltzera behartuak*”. Bizkaiko industriak zeukan arazo nagusia eskulan falta zen, behargin asko eta asko “(...) *batailoi errepublikanoetan*” sartu zirelako. Postu horiek betetzeko, emigraziora behartu zituzten “(...) *Gaztelako eta Nafarroako landa eremuetako beharginak*”, betiere adinean aurrera egindakoak. Gainera, teknikari alemanak etorri ziren Bizkaira, espezialisten falta estaltzera<sup>516</sup>.

Eskulan premia horren adierazle da *Euskalduna* konpainiatik, “*industria militarizatu*” baitzen, Bilboko Beharginen Laneratze Bulegoari 1938ko martxoaren erdialdean bidali zitzaion eskutitza, Julián Hilarión Gutiérrez izeneko langile ohi urduliztar baten zerbitzuen inguruan galdetzeko. *Euskalduna*, ontzien eraikuntzan eta konponketan ziharduen konpainia, 1900ean sortu zuen Ramón de la Sota y Llano handiki nazionalistak, bere lehengusu Eduardo Aznarrekin batean, eta Bizkaia mendean hartu eta gero desjabetua izan zen. Eskutitz horretan, argi geratu zen behargin beharra, Julián Hilarióni eskaini zitzaiolako lanera itzultzea “(...) *peoi espezialista gisa, lana atoan emango baitiogu lantoki hauetan (...)*”<sup>517</sup>.

Urdulizko Udal Artxiboan gordetzen den dokumentazioari esker, badakigu herriko Behargin Lanbakoen Zentsua osatu zela, Udalaren Lan Boltsak kudeatuta, eta Udaleko idazkari Luis Navarro arduradun zuena. Zentsuan sartutako beharginei nortasun txartel bat ematen zitzaien eta bertan azaltzen ziren euren izen-abizenak, adina, lanbidea eta Behargin Lanbakoen Zentsukoak zirela. Txartel horietako lehenengoak 1938ko otsailaren 2ko data du<sup>518</sup>. Boltsaren arduradunaren zeregina zen enpresa zehatz bati eskutitza bidaltzea eta jakinaraztea behargin zehatz bat udalerriko lanbakoen zentsuan zegoela. Udal Artxiboan José María Ansoleaga peoiari buruzko eskutitza baino ez da gorde, Udaleko zinegotzia bera<sup>519</sup>. Martxoaren 22tik aurrera dokumentazio bakarra topatzen dugu, Amancio Nieva alkateak sinatutako komunikazioak, fabrika ezberdinetan beharginen sarrera baimentzeko.

1938ko abuztuaren erdialdean, Central Nacional Sindicalistako Areetako Ordezkaritzak eskatu zion Urdulizko Udalari jakinarazteko “(...) *zenbat lanbako dauden udal mugartean eta zeintzuk diren langabeziak jotako lanbideak*”. Era berean eskatu zuten esateko zenbat “(...) *profesional edo behargin falta diren udalerrri horretan dauden industrietan*”, eta beste zerrenda bat, udalerriko

---

516 VILLA, 80 or.

517 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Itsasontziak eraikitzeko eta konpontzeko Euskalduna konpainiako Esku-hartze Atalaren mezua, Beharginei Lana Emateko Bilboko Bulegoko buruari zuzendua 1938-3-12*.

518 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Dionisio Olea Hormazarentzako nortasun txartela 1938-2-2*.

519 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udaleko Lan Poltsaren arduradunaren mezua, Bilboko ..... sozietateko Lan Poltsaren arduradun buruari zuzendua 1938-3-1*.

fabriketan lan egiten zuten “(...) profesional edo behargin atzerritarrek” osatua<sup>520</sup>, nahiz eta, esanda dagoen legez, fabrikarik ez egon batere. Duda barik, Bizkaiko bigarren sektoreari buruzko ezagutza orokor bat izan gura zuten, gerrari begira etekin handiena lortzeko.

Urdulizko Udalak aitatutako Ordezkaritzari bidali zion, abuztuaren 20ko datarekin, “*Bilboko Itsasadarreko fabrika ezberdinetan gaur egun lanean dabiltzan herri honetako beharginen zerrenda*”. Horren arabera, egun haietan 15 gizonezko urduliztar zebiltzan halako industrietan beharrean. Haietatik, 7 *Babcok & Wilcox*-en zeuden, 2 *Aurreran*, 1 *Euskalduna* ontzioletan, bi peoi moduan ageri ziren zehaztu barik non, eta azkenak Dos Caminos-en (Basauri) egiten zuen lan. Zerrenda horretan behargin bi gehiago agertzen dira armadak mobilizatuta zeudenak, eta Florentino Unibaso, atxilotu moduan azaltzen dena<sup>521</sup>. 1938ko irailean beste behargin bat erregistratu zen udalerriko Lanbako Zentsuan<sup>522</sup>.

Ez daukagu behargin lanbakoen inguruko berri gehiagorik 1939ko uztaila arte, Estatuan Gerra Zibila amaitu eta hiru hilabete baino gehiagora. Esku artean daukagun dokumentaziori esker ikus dezakegu, data hartatik aurrera, berrantolaketa egin zela langileak kontratatuzeko sistemari. Itxura guztien arabera, Getxoko Beharginen Laneratze Bulegoak hartu zuen bere gain Urdulizko Behargin Lanbako Erregistroko inskripzioen baimena; aurretik Udalak egiaztatu behar zuen delako behargina udalerrian erroldatuta ote zegoen eta lan barik ote zegoen. Herriko Etxeak, berriz, Bulegoari jakinarazi behar zion langileari esleitzen zitzaion lanbako txarteletako zenbakia eta zer egunetan inskribatu zen.

Batzuetan, Beharginen Laneratze Bulegoak beharginaren izen-ematea baimentzen zuen, “(...) aurretik egiaztatuz” lanik behar ote zuen, “(...) baserriko lanez gain”. Halaxe egin zen Félix Otazua Asuarekin<sup>523</sup>. Kasu horrek ederto islatzen ditu gerraren ondorioak. Amancio Nieva alkateak, 1939ko azaroan luzatutako ziurtagirian, adierazi zuen Otazuak beharra zeukala “(...) herri honetatik kanpo lan egiteko”, eta 17 urteko mutilak betetzen zuela “(...) familia buruaren tokia aitaren faltagatik eta beharrean ibiltzeko moduko beste gizonezkorik ez zegoelako”<sup>524</sup>. 1940ko urtarrilean, bere anai Mario Otazua izan zen inskribatu zena eta “(...) behargin-ikastun moduan lana eskatu”<sup>525</sup>. Bi anaien aita, Benito Otazua Artaza alkate ohia, kartzelan zegoen, eta beste semeetako bat, berriz, Benito Otazua Asua, zigortuta.

---

520 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Central Nacional Sindicalistako tokiko ordezkaritzaren mezua, (Areeta) Urdulizko Udalarri zuzendua* 1938-8-19.

521 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, “*Herri honetako bizilagunetan Bilboko itsas-adarreko enpresa desberdinetan gaur egun lanean diharduten beharginen zerrenda*” 1938-8-20.

522 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak Justo Egusquiza Areilza beharginari emandako baimena* 1938-9-22.

523 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Getxoko Behargini Lana emateko Bulegoaren mezua, Urdulizko Udalarri zuzendua – Behargin Lanbako Erregistroa* 1939-7-24.

524 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Félix Otazua Asuari buruzko ziurtagiria, Urdulizko alkateak egina* 1939-11-10.

525 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Mario Otazuaren izen-emate ziurtagiria Urdulizko Behargini Lana emateko Erregistroan* 1940-1-18.



Andrazko bi topatzen ditugu, era berean, Behargin Lanbakoeren Erregistroan izen-emanda. Horietako baten kasuan, María Rosario Bilbao, Getxoko Beharginen Laneratze Bulegoak baimendu zuen bere inskripzioa 1939ko uztailean, baldintza berezi batzuen pean, duda barik, emakume izateagatik: “(...) *gutxienez urte beteko antzintasuna Urdulizko bizilagun moduan*”, eta bestetik, 26 urteko gazteak “(...) *bere etxetik kanpo lan egiteko duen ezinbesteko premia*” frogatzea. Azkenez, ohartarazten zitzaion inskripzioa ezin zela egin “(...) *inondik ere (...) nahiko balu ZERBITZARI moduan aritu*”<sup>526</sup>. Udalak, bulego getxotarrari erantzundako eskutitzean, adierazi behar izan zuen María Rosario Bilbao “(...) *herri honetan jaioa eta geroztik bertako bizilaguna*” zela eta “(...) *premia ezinbestekoa (zeukala) bere etxetik kanpo lan egiteko Lamiakoko Productos Químicosen*”<sup>527</sup>, han hasi zen-eta beharrean urriaren hasieran<sup>528</sup>.

### 1.2.2.3 Elikagaien errazionamendua

Euskal Herrian gerra amaitzeak ez zuen urritasunaren eta elikagaien errazionamenduaren amaiera ekarri. Estatu osoan guda amaituta, errazionamendua inposatu zen ofizialki, 1939ko maiatzaren 14ko ministerio-agindu baten bidez, eta herritarren bizitza baldintzapetu zuen harik eta bertan behera laga zen arte, 1952an.

Bizkaia mendean hartu ostean ezarritako horniketara zorrotzari estutasun ekonomikoak gehitu zitzaizkion. Haien ondorioz, aparteko diru-sarrerak lortzeko iruzurrak ugaritu ziren, hala nola esnearen aizuntzea ura gehituz. Berbarako, Getxoko Udalak, 1937ko urrian Ángel Zalbidea eta Bárbara Urriaga zigortu zituen, Urdulizko bizilagunak berak, “(...) *kalitate txarreko esnea saltzeagatik*”<sup>529</sup>. Hain zuzen ere urte hartako abuztuaren hasieran, esnearen aizuntzeak eta beste “*gehiegikeriek eta irregulartasunek*”, ekarri zuten egoera antolatzeke saio bat *Bizkaiko Zuzkidura Zibilen Buruzagitzaren* aldetik. 1937ko abuztuaren 3an atera zuen zirkularrean besteak beste xedatu zuen Bilboko Alkateak antolatuko zituela edo beharrezko aginduak emango zituela “(...) *esneak egiaztatzeko eta aizuntzeen aurka egiteko zerbitzuak*” lor zezan “(...) *errendimendu zuzena (...) ikuskapen eta egiaztapenak*” egiterakoan<sup>530</sup>. Zirkularrak ez zuen bilatutako ondorioa izan. Urte hartako azaroaren erdialdean, Bizkaiko Gobernu Zibileko Prezioen Batzarrak ez zela betetzen salatu zuen, eta ohartarazten zuen zigortuko zituela “(...) *finkatutako prezioak betetzen ez dituztenak eta aizuntzeen bidez negozioa egin nahi dutenak publiko kontsumitzaileari iruzur eginez*”<sup>531</sup>.

526 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Beharginei Lana emateko Getxoko Bulegoaren mezua*, M<sup>o</sup> Rosario Bilbao Bilbaori buruz, Urdulizko Udalarari zuzendua – *Behargin Lanbakoeren Erregistroa 1939-7-26*.

527 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua*, M<sup>o</sup> Rosario Bilbao Bilbaori buruz, *Beharginei Lana emateko Getxoko Bulegoko buruari zuzendua 1939-7-28*.

528 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Beharginei Lana emateko Getxoko Bulegoko buruaren mezua*, *Beharginei Lana emateko Urdulizko Erregistroari zuzendua 1939-10-5*.

529 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Getxoko jarduneko alkatearen mezua*, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-10-19.

530 *La Gaceta del Norte* 1937-8-4.

531 *La Gaceta del Norte* 1937-11-16.

Agintari frankistek kontrol sistema nahiko zorrotza ezarri zioten nekazaritzako ekoizpenari ere bai. 1938ko irailaren hasieran, Gariaren Zerbitzu Nazionalako Eskualdeko Buruzagitzak 36 laka txartel bidali zizkion alkateari zegozkien jabeek entregatzeko, “(...) euren deklarazioetan kontsumo familiarerako gorde dutena errotetara eraman dezaten”. Gainera, ugazaba guztiek 50 zentimo ordaindu behar zituzten txartela ematen zitzaizenean<sup>532</sup>. Nekazaritza Ministerioaren 1938ko otsailaren 25eko Dekretuaren arabera, “(...) *jornalaren parte bat garitan*” kobratzen zuten nekazaritzako beharginak salbuesirik geratu ziren, 1938 martxoaren 1etik aurrera, “(...) *Gariaren Zerbitzu Nazionalari laka bakoitzeko jasotzen dituen deskontuak ordaintzetik*”, 1937ko urriaren 6ko Araudiak 151. artikulua ezartzen zuenez. Salbuespen bera izango zuten nekazari txikiek, baldin eta “*euren uztatik salmentarako bideratzen duten kopurua, norberaren eta familiaren kontsumorako gordetzen duten lain edo murriztagoa*” bada<sup>533</sup>.

Dekretua aplikatzeko, Urdulizko gari-ekoizle txiki bakoitzak deklarazio bat aurkeztu zuen 1938ko abuztuan, bertan azaldurik euren kargu zenbat pertsona zituzten osotara, jasotzen zuten gari kantitate osoa eta zenbat erabiltzen zuten norberaren kontsumorako, biak kintal metrikotan neurtuak. Ekoizle txiki gehienek norberaren kontsumorako erabiltzen zutena baino kopuru txikiagoa bideratzen zuten salmentara. Hala eta guztiz ere, lau ekoizleren kasuan, salmentara bideratutakoa gehiago zen norberaren kontsumorako garia baino<sup>534</sup>. Beraz, ekoizle hauek ezin zuten aitaturako Dekretuak ezartzen zituzten onurei probetxua atera eta, aldiz, “(...) *Zerbitzuaren eskura hurrenez hurren 1, 2, 2 eta 4 kilo*” ipini behar zituzten<sup>535</sup>.

Lucio Ugarte, Andrés Bilbao, Juan Bautista Laradogoitia eta Tiburcio Madariaga ziren aitaturako lau gari-ekoizleak. Haien zenbateko bat ordaintzea zegoen gari kilo bakoitzeko. Haietako batek, Madariagak, uko egin zion 5 kg gariren ordain zegozkion 2'85 pezeta ordaintzeari. Halaxe azaldu zion alkateak Gariaren Zerbitzu Nazionalari, 1939ko irailean bidali zuenean, Urdulizko beste hiru bizilagunengandik jasotako dirua, 26 txartelengatik jasotako 18 pezetek gain<sup>536</sup>.

---

532 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Gariaren Zerbitzu Nazionalako Eskualdeko Buruzagitzaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1938-9-2.

533 BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO (B.O.E.) 1938-2-26.

534 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udal mugarte honetako gari ekoizle txikien zerranda ziurtatua, eurek aurkeztutako aitortpenen arabera*, 1938-8-17.

535 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Gariaren Zerbitzu Nazionalako Eskualdeko Buruzagitzaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1938-9-2.

536 U.U.A. “Historikoa” 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Gariaren Zerbitzu Nazionalako Bilboko Buruzagitzari zuzendua* 1939-6-27.

Ez da jakiten erraza ekoizleak zintzoak ote ziren ekoizten zuten gari kopuru osoa eta norberaren kontsumorako bideratzen zutena deklaratzeari<sup>537</sup>. Alde horretatik, bildutako ahozko lekukotasunetako batzuk bat datoz adierazten dutenean garia eta artoa gauaz eroaten zela errotetara ehotzera, agintarien eta Guardia Zibilaren kontrola saihestearren<sup>538</sup>. Badakigu, 1940ko abenduaren bueltan, debekatuta zegoela artoa errotetara eroatea. Labore hori ehotzea hain gaitza zenez, Barrikako Zahar Etxeko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen irin-erota txiki bat paratzea “(...) *proba moduan*(...) *motor elektrikoak eragindakoa*”, kontuan harturik “(...) *merkeago* (izan litekeela) *alea Ospitale Zahar Etxean ehotzea* (...)”<sup>539</sup>.

Baserritarrak ere derrigortuta zeuden euren pataten edo indaben uzten parte bat derrigorrez entregatzera hornikuntzan laguntzeko. Berbarako, 1938ko abenduaren 11n, Amancio Nieva alkateak jakinarazi zion Bizkaiko Probintziako Zuzkidura Batzordeari 3.650 kilo indaba zeuzkatela euren eskura, eta jasotzera joateko eskatu<sup>540</sup>.

Azukrea izan zen errazionamendua ezarri zitzaion oinarrizko produktuetako bat eta urritasun eta hornikuntza falta garaiak jasan zituen. Apirilaren hasieran, *Probintziako Zuzkidura Batzordeak* jakinarazi zion Udalari 4 zaku azukre bere eskura zeudela *Ruigomez y Cía. Etxean* eta banatu behar zituela “(...) *Platera*

537 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udal mugarte honetako gari ekoizle txikien zerrenda ziurtatua, eurek aurkeztutako aitortpenen arabera*, 1938-8-17. Hona kontsumorako baino salmentarako kopuru handiagoa ekoizten zuten 4 ekoizleek aitortutako kopuruak eta ekoizten zuten gehiena kontsumorako zeukaten 4 ekoizleenak:

<b>BATUTAKO ETA NORBERAREN KONTSUMORAKO GARI KOPURUEN AITORTPENAK (1938-8-16)</b>			
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>EUREN ARDURAPEKO PERTSONAK</b>	<b>BATUTAKO KOPURUA (kintal metrikoetan)</b>	<b>NORBERAREN KONTSUMORAKO KOPURUA (kintal metrikoetan)</b>
<b>Lucio Ugarte</b>	<b>9</b>	<b>4</b>	<b>1</b>
Juan Abaroa	9	3	2'50
<b>Andrés Bilbao</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	<b>0'50</b>
Josefa Menchaca	7	3'50	2'50
<b>Juan B<sup>a</sup> Laraudagoitia</b>	<b>3</b>	<b>3'50</b>	<b>0'50</b>
Antonio Fano Elorriaga	3	3	2'50
<b>Tiburcio Madariaga</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>1'50</b>
Bernardo Gorordo	6	7	6

538 José Antonio Bilbao Menchacaren (2013-4-9), Teresa Bilbaoren (2013-6-27), eta Sabin Unibasoren eta Patxo Ibaragarayren (2014-4-4) ahozko testigantzak.

539 DEL BUSTO Y MANDALUNIZ, Luis María: *Hospital Asilo de Barrika. Noventa años de servicio 1914-2004*, Residencia Fundación Elorduy, Bilbo, 2007, 103 or.

540 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Probintziako Zuzkidura Batzordeari zuzendua* 1938-12-11.

*Bakarreko liburuxka bakoitzeko kilo bat*"; horretaz aurrerago egingo dugu berba. Azukrea salgai jarri zitzaion publikoari, 1'85 pezetan azukre kiloak; Udalak, berriz, 1'75 pezeta ordaindu zuen kilo bakoitzeko<sup>541</sup>. Elikagai honek eskaera handia zuen eta haren gabeziak eragini zuen, 1939ko ekainaren erdialdean, "(...) *bizilagun askok*" eskatzea alkateari "(...) *azukrea gaixoentzat eta bularreko umeentzat*". Alkateak, orduan, Zuzkidura Batzordeari eskatu zion bidal zezan "(...) *kopuru bat azukre, arestian aitatutako atentzioetarako*"<sup>542</sup>. Batzordeak, orduan, haren eskutan utzi zuen "(...) *12 kg. azukrerekin trukatzeko txartel bat herri honetako umeentzat, Ajuria eta Gorriti etxeokan erabiltzeko*", baina denda horretako arduradunek "(...) *adierazi zuten ez zeukatela halako artikulurik*". Alkateak, horren aurrean, zuzenean eskatu zion probintziako gobernadore zibilarri ekainean, azukrea helarazteko "*umeentzako artikulua honen eskari ikaragarria ikusita*", eta gainera "(...) *olioa gaixo eta adinekoentzat*"<sup>543</sup>.

Halako batzuetan, errazionatutako produktuen kopuru handiagoak eskatzera heldu ziren. Esate baterako, 1939ko uztailean, alkatea harremanetan jarri zen ogi-partearen banaketaren ardura zuenarekin<sup>544</sup>, Mungiako bizilagun Sabino Alzagarekin, "(...) *herri honetan uda igarotzeko ohitura daukaten udatiarrak*" agertu zirelako. Antza, udatiar kopurua hazia zen beste urte batzuen aldean, eta zehaztu zen "*EHUN LAGUN gehiago direla, gutxi gorabehera*". Horregatik, eskatu zion Alzaga jaunari igo zezan "(...) *banatzeko ohitura daukan ogi-partea (...)*" Urdulizen<sup>545</sup>. Beste alde batetik, urte hartako azaroaren 15ean, alkateak jakinarazi zion Bilboko Hornikuntza eta Garraioen ordezkariari odolkien salmentan aritzen ziren zenbait bizilagunek esan ziotela behar zutela "(...) *arroz kopururen bat hauek egin ahal izateko*". Udalburu urduliztarrak ordezkari horri adierazi zion "(...) *eskertuko ziola asmo horretarako arroz kiloren bat Udal honi esleitzeko aukera ikusiko balu*"<sup>546</sup>.

Premia biziko gaien zuzkidura arazoek bultzatuta, herritarrek aukera zuten errazionamendu sistematik kanpo merkatu beltzean lortzeko, prezio altuagoan. Errazionamendu ofizialeatik at ematen zen produktuen salerosketa sistemari estraperloa esan zitzaion. Dokumenturik ez daukagu jakiteko Urdulizen ere izan ote zen, barbarako, zeuden saltoki urrietan. Itxura batean, Udalak merkatariengan zeukan kontrola zorrotza zen: 1939ko ekainaren hasieran, Urdulizko Udalak Bizkaiko Hornikuntzaren Batzorde Arauemaileari igorri zizkion "(...) *honako hauei*

541 A.M.U., 246. kaxa, *Bizkaiko Probintziako Zuzkidura Batzordeko bokal ordezkariaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-4-1*.

542 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Probintziako Zuzkidura Batzordeko lehendakariari zuzendua 1939-6-12*.

543 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Gobernadore Zibilarri 1939-6-21*.

544 Ogiaren arazoa dela-eta, badakigu 1937ko azken hiru hilekoan Udalak 502,35 pezeta ordaindu zizkiola Plentziako okindegiari, "*herritarrek ogiz hornitzeagatik*"(U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Udal idazkariaren ziurtagiria, Urdulizko Udalak 1937ko 4. hiru hilekoan egindako ordaintzen gainekoa 1938-2-22*).

545 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Sabino Alzagari zuzendua 1939-7-8*.

546 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Hornidura eta Garraioko Bilboko ordezkariari zuzendua 1939-11-15*.

*dagozkien kupoiak: On Julián Mayor, On Martín Bilbao, On Tomás Larrauri eta On Tomás Guibelondo merkatarien azukrea, bakailoa eta arrosa*". Hala eta guztiz ere, "(...) *On Antonio Larrabeitia merkatariaren kupoiak*", ez ziren Udaletxean entregatu "(...) beharrezko egiaztapenerako, irregularitasunak daudelako kupoi hauen mozketan, eta horregatik hitz eman du merkataria honek berak pertsonalki entregatuko dituela Batzorde Arauemaile horretan"<sup>547</sup>.

Hiria helmugatzat zuten nekazal- eta abere-produktuen trafikoa, errazionamendu sistematik kanpora, etengabea izan zen errazionamenduak iraun zuen guztian. Berbarako, 1942ko abuztuan, alkateak salatu zion *Bizkaiko Gerrako Mutilatuen Batzordeari* Urdulizko bizilagun Agustín Arambalza Hormaza "(...) *ixilpean behi-aziendak hiltzen aritzen zela*". Abuztuaren 14an, Arambalza "(...) *ustekabeen harrapatu zuten goizeko betan salgai horretako 60 kilo zeramatzala eta aitortu zuen beste behin ere egina zuela*"<sup>548</sup>. Askok ziren ere hiriguneetako hiritarrak landa-eremuetara baserrietako produktuen bila joaten zirenak.

Zerbait atzerago "*Platera Bakarreko liburuxka*"ri egin diogu aipamena, bere jatorria "*Platera Bakarreko Eguna*" delakoa delarik. 1936ko urriaren 30eko Dekretuaren bidez ezarri zuten egun hori matxinatutako agintariek, urte hartako azaroaren 15ean jarri zen indarrean eta hilabete bakoitzeko 1ean eta 15ean gauzatuko zela ezarri. Xedea zen baliabideak lortzea ongintzako laguntza eskaini ahal izateko. Horretarako, ostalariek egun hartako bazkariko edo afariko menua zerbitzatzean platera bakarra eta postre bakarra aterako zituzten, baina bezeroari bi plateretako ohiko menua legez kobratuko zieten. Jasoko zuten dirua bazkari eta afari bakoitzagatik jasotakoaren %50a izango zen. Dekretua betearazteko, zigorrak ezarri ziren urratzen zuten ostalariei eta betetzeari uko egiten zioten bezeroei<sup>549</sup>.

1937ko abuztuan, "*Platera Bakarreko Eguna*" ezarri zen urteko eguenguztietan<sup>550</sup>, 1937ko uztailaren 16ko aginduak xedatu zenez Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Modu horretan hilabeteko diru-bilketa handitzen zen eta erdizka banatzen zen Ongintzako Gizarte Babeserako Funtsean eta "*Gudularien aldeko sorospena*"ren artean. Gainera, agindu berdinen bidez ezarri zen astelehenero egingo zela "*Postrelik Gabeko Asteko Eguna*"; horren bidez familia bakoitzak uko egiten zion bazkari bateko postreari, eta "(...) *uko egite horrek zekarren aurrekia borondatezko dohaintza moduan entregatu behar zen*", honen bidez handitzearen "(...) "*Gudularien aldeko sorospena*" ordaintzeko baliabideak (...)"

---

547 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Hornidurako Batzorde Erregulatuileko lehendakariordeari zuzendua* 1939-6-3.

548 A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Gerrako Mutilatuen Batzordeko lehendakariari zuzendua* 1942-8-14.

549 ALEJANDRE GARCÍA, Juan Antonio: "*Las Recaudaciones de naturaleza fiscal en los primeros años del franquismo*" in *Cuadernos de Historia del Derecho*, 2007, 14, 30-36 eta 43 or.

550 Berbarako, *La Gaceta del Norte* 1937-8-5ean argitaratu zenez, Bilboko jatetxeetan menu hau zerbitzatzen zuten 1937ko abuztuko barikuetan: "(...) *eguerdian, lapikokoa espainol erara, eta gauaz sukalkia patatekin*".

Gerra amaituta, egun berean, astelehenetan, batu ziren Platera Bakarreko eta Postrerik Gabeko egunak, 1939ko azaroaren 9ko Dekretuak xedatutakoaren arabera<sup>551</sup>.

“Platera Bakarreko Eguna” betetzea abertzaletasun egintzat hartu zen. Esate baterako, 1938ko uztailaren 25eko ospakizunean, Santiago egunean, “(...) Espainiako Santu Patroia”, Plentziako hiribilduan, egun hartako azken ekitaldia izan zen “(...) Platera Bakarreko bazkari bat” agintarientzako<sup>552</sup>.

Juan Antonio Alejandro Garcíaren ustez, gerra bitartean horrelako egunak ezartzeak gauza bat islatzen zuen, alegia, “(...) Espainia matxinatuan Espainia errepublikanoan egon zen eta zegoen erregimen fiskala ezartzek ezintasuna”. Horregatik, Francoren Gobernu behartuta egon zen “(...) izaera ezberdin eta zehaztugabeko zergak biltzeko formula irudimentsuak inprobisatzera, maila sozialeko arazo anitzi aurre egin ahal izateko”<sup>553</sup>.

Bizkaiko gobernadore zibilak 1936ko uztailaren 15ean emandako Aginduaren bidez jakin dugu zelari egiten zen probintzian “Platera Bakarreko Egunaren” diru-bilketa. Udalerrietako alkateak ziren euren eskumeneko diru-bilketaren arduradun nagusiak, gero Probintziako Ongintza Batzordearen eskutan uzteko. Urdulizen, landa-eremuko beste herri batzuetan legez, eguneroko bazkariak ematen zituen jatetxerik ez zegoenez, partikularrei baino ez zitzaizkien aplikatzen neurri hauek. Familiek entregatu behar zuten “(...) familiako kide guztientzako elikagaiak erosteko erabiltzen zuten diruaren erdia”. Praktikan, horrek zekarren platera bakarria kontsumitzea eta kendutako platerari zegokion dirua etxez etxe egiten zen diru-bilketaren arduradunei ematea. Diruaren bilketaren ardura eman zitzaien “(...) Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.ek kontrolatutako gizasemei”<sup>554</sup>. Urdulizen, Platera Bakarreko Komisioa izan zen betearaztearen eta diru-bilketaren arduraduna, eta 1937ko uztail eta urri artean osatuta geratu zen, antza<sup>555</sup>. Hori guztia aitaturako “Platera Bakarreko liburuxken” bidez kontrolatuko zen, eta horri elikagaien errazionamendua lotuko zitzaion, 1939ko apirilean jazo zen legez, liburuxka bakoitzari kilo bat azukre zegokiola ezarririk.

---

551 ALEJANDRE GARCÍA, 40-46 or.

552 *El Correo Español – El Pueblo Vasco* 1938-7-28.

553 ALEJANDRE GARCÍA, pág. 27.

554 *La Gaceta del Norte* 1937-7-15 eta *El Correo Español* 1937-7-15.

555 A.M.U. 246. kaxa, *Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.eko tokiko buruzagi izateko proposatutakoak* eta *Platera Bakarreko Komisorako proposatutakoak* d/g. Dokumentu horrekin batera beste bat dago, hau ere data bakoa, Urdulizko bigarren udal frankistarako proposatutako izenekin. Hura 1937ko urriaren 15ean eratu zen. Platera Bakarreko Komisorako, berriz, Agustín Menchaca Urquizu, Isidro Antonio Bilbao Fano eta José Ramón Iturriaga Libarona proposatu ziren.

### 1.2.2.4 Ordena berria

Matxinatuen Defentsa Batzordea Nazionalak 1936ko irailaren 13an aldarrikatutako 108. Dekretuak ekarri zuen erregimen errepublikanoari fidel mantendu ziren eta, beraz, militarren matxinadaren aurka egon ziren alderdi politiko, sindikatu eta antolamendu guztien ilegalizazioa<sup>556</sup>. 1937ko apirilaren 19an, Francok falangisten eta karlisten bateratzea xedatu zuen, delako Bateratze Dekretuaren bidez. Modu horretan, Francok **Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.** sortu zuen, “*eremu nazional*” delakoko alderdi legezko bakar moduan ulertua, eta “*jeneralisimoa*” bera eginik, bistan dena, haren buru nazionala. “Falangista zahar” ugari, eta baita karlisten zati handi bat ere ez zen bateratzearekin bat etorri eta ez ziren alderdi berrian kidetu.

Matxinatuen eskutara etortzen ziren gainerako lurraldeetan jazo zen legez, Bizkaia mendean hartu ostean, probintzian jende asko kidetu zen F.E.T. de las J.O.N.S-en. Afiliatzea kausa “*nazionalaren*” alderako atxikimendua agerian jartzeko modu bat zen, baina beste kasu batzuetan, funtzionario edo profesionalen kasuan adibidez, Falangeko kide izatea beharrezkoa egin zen euren postuei eusteko edo lanean arazoak ekiditeko. Beste alde batetik, aprobeitategiak ere egon ziren, falangista karneta edukitzeak ematen zuen babesarekin negoziak egiten saiatu zirenak. Ikur falangisten erabilera nolanhikoak eragin zuen, 1937ko azaroaren hasieran, Juan José Amann, Bizkaiko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko idazkariak salatu izana “*(...) alkandora urdinaren erabilera bide bakoa*”, hau da, falangisten jantzi ofizialarena. Nahiz eta, Amannen hitzetan, eskandalugarriagoa izan zelan zabaldu zen “*(...) ikur hierarkikoak (geziak eta uztarriak)*” nongura erabiltzea. Horri amaiera emateko, neurriak hartu ziren “*(...) horiek modu bidegabean erabiltzen dituztenen kontra, mozorroa kendu behar zaielako gure antolamenduaren izen ona zikintzen dutenei*”<sup>557</sup>. Zelangura ere, Falangeko kide egin ziren pertsona gehienek ez zuten alderdi horri lotutako iraganik. Francok defendatzen zituen baloreekiko atxikimendua, bereziki erlijio katolikoaren defentsa sutua, izan zen pertsona askok kidetzeko pausua emateko arrazoi garrantzitsuenetakoa.

Ez daukagu daturik jakiteko zenbatsu urduliztar egin ziren Falangeko kide 1937an, baina, itxura guztien arabera, ez ziren asko izan. Badakigu Manuel Uriberen burutzapeko Udalak izen bi proposatu zituela F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi izateko: Antonio Larrabeitia Uribarri eta Juan Antonio Asla Cantera<sup>558</sup>. Azkenik, badirudi herriko buruzagitza garai honetako bi alkateek hartu zutela, zenbait agiritan jasota dagoenez. Antonio Larrabeitia, 1934ko irailetik 1936ko otsaila bitarteko Udal Batzorde Kudeatzaileko alkate ohia izan zena, F.E.T. y de las J.O.N.S.eko ordezkari moduan ageri da 1937ko udazkeneko

---

556 VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*, Editorial Crítica,artzelona, 2011, 151 or.

557 *La Gaceta del Norte* 1937-11-4.

558 A.M.U. 246. kaxa, *Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.eko tokiko buruzagi izateko proposatutakoak eta Platera Bakarreko Komisorako proposatutakoak* d/g. 1937.

bi dokumentutan<sup>559</sup>, nahiz eta, antza, Larrabeitiak Falangearekin izan zuen lotura nahiko lausoa izan zen, jende askok herriko buruzagitzat baitzuen. Falangeko karneta zeukaten, duda barik, udal karguek, bai alkateak eta baita Udaleko zinegotziek ere. Berbarako, lehenengo alkate frankista, Manuel Uribe, Getxoko Falangeko kidea zen 449 zenbakidun karnetarekin<sup>560</sup>, eta José María Ansoleaga eta Isidro Fano zinegotziek Urdulizko Falangeko kide karneta zuten 3 eta 4 zenbakiekin, hurrenez hurren<sup>561</sup>. Funtzionario publikoek ere, udal idazkariak legez, Falangearen lerroak lodituko zituzten seguruenik. Egon ziren kidetu ziren urduliztar batzuk, iragan apolitikoa izanda ere, J.G.A.ren kasua esaterako; ordura arte ez zuen politikari lotutako “(...) ezertan parte hartu”. Datu hura, eta “(...) portaera ona”, erabili zuen alkateak argudiotzat ziurtagiri bat luzatzeko “(...) haren sarrera erraztearren F.E.T. y de las J.O.N.S.en”<sup>562</sup>.

Bigarren Errepublikan izan ziren Gorteetarako bi hauteskondeek erakusten digute Urdulizen txikia zela eskumako gizarte atala. Pentsatzekoa denez, eskuindar horiek bi familia politikoren partaide ziren: karlista zaharrak eta monarkikoak. Zelangura ere, Manuel Uribe eta Amancio Nieva alkate zirela, eskuindartzat jotzen zituzten hogeita hamar bat urduliztarren izen-abizenen berri ematen digute Urdulizko bizilagun asko eta askoren portaera moral eta politiko sozialari buruz 1937tik 1938ra bitartean osatutako ziurtagiriek. Benetan interesatzen zaiguna, ostera, ziurtagiri hauek ematen diguten informazioa da, gerraren osteko lehenengo hilabeteetan eskumako ideologia frogatzeko zein formula erabili ziren antzematen laguntzen baitute.

Alde horretatik, ezin ahaztu zein zen ziurtagirien helburu nagusia: haiekin jokabide moral ona edo txarra bermatzen zen eta kasuan kasuko pertsonaren joera eta/edo filiazio politikoaren berri ematen zen. Edozein buruzagik eskatu ahal zituen txosten hauek. Beraz, dokumentu hauek ziren, jorratzen ari garen afera honetan, pertsona bat eskumakoa zelako ziurtagiri ofiziala. Bestela esanda, Bizkaian 1937an gerra irabazi zuen bandokoa zela bermatzen zuten. Batzuetan, “*fidagarritasun osoz eskuindarrak diren pertsonak*” beste pertsona baten joera politiko eskuindarra bermatzen zuten ziurtagiri baten bidez. Hala jazo zen Juan Bautista Zabala Ostolozagaren kasuan, zeina Urdulizko hirugarren alkate izango zen Diktaduraren garaian.

---

559 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak Antonio Larrabeitiari buruz egindako portaera ziurtagiria* 1937-11-2, eta *Urdulizko alkateak R.B.A.ri buruz egindako portaera ziurtagiria* 1937-10-18, Antonio Larrabeitia aitazten duena F.E.T. y de las J.O.N.S.eko ordezkari gisa.

560 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2479-38 azuia, *Manuel Uribe Echevarriaren zinpeko deklarazioa* 1939-1-16

561 *Ibid.* José María Ansoleagaren eta Isidro Fanoren zinpeko deklarazioa, Francisco Asla Goirigolzarriren gainekoa 1939-1-19.

562 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak J.G.Ari buruz egindako portaera ziurtagiria*. 1937-8-24.



Getxoko bizilagun bik, Federico Areitio Irizar eta Félix Laña Oyarzabalek, “*eskuindar ezagun garbiak*” berak, ziurtatu zuten 1937ko uztaillean Juan Bautista Zabalaren eskumako filiazioa eta “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuari atxikitako pertsona*” zela<sup>563</sup>.

Ziurtagiri batzuetan protagonista zuten pertsona eskuindarra zela baino ez zen jasotzen. Maila bat gorago ipiniko genituzke “*Mugimendu Nazional Loriotsuari atxikitako pertsonatzat*” hartzen zirenak. Kasu batzuetan, formula horietatik haratago joaten zen eta ziurtagirien hiztegia aberasten. Esate baterako, Manuel Uribe alkateak ziurtatu zuen, orduko zinegotzi Amancio Nieva, “(...) *eskuindar peto-petoa*”<sup>564</sup> zela. Juan Bautista Mendizabal y Aldecoari buruz, ziurtatu zuen “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuaren garaipenaren aldeko kartsua*” zela<sup>565</sup>. Beste kasu batzuetan fede ematen zen ziurtagirian ageri zen pertsonak eskumari eman ziola botoa 1936ko otsaileko hauteskundeetan<sup>566</sup>.

Kasu batzuetan, aita edo familiaren izaera eskuindarra aipatzen zen portaera ziurtagirietan, duda barik, berme gisa balio zezan. Berbarako, “(...) *politikoki*” inoiz “(...) *ezertan parte hartu ez zuten*” pertsonen kasuetan, “*aurrekari moduan (...) bere aitak beti eskumari boto eman*” ziola aipatzen zen<sup>567</sup>. Beste batean, 18 urteko gazte bat, inoiz ez zuena “(...) *ezertan parte hartu, bere adin laburragatik*”, familia eskuindarra izateak “(...) *suposarazten zuen bera ere halakoa izatea*”<sup>568</sup>. Kasu harrigarri bat topatu dugu ere non Amancio Nieva alkateak ziurtatu zuen 5 urteko neskatila M.P.A., “(...) *bere aitak daukan F.E.T. y de las J.O.N.S.en ziurtagiriaren arabera eskumakoa*” zela<sup>569</sup>.

---

563 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Federico Areitio Irizarren eta Félix Laña Oyarzabalen ziurtagiria, Juan Bautista Zabala Mugimendu Nazional Loriotsuari atxikitako pertsona eta eskumakoa dela egiaztatzen duena 1937-7-18, eta Urdulizko Manuel Uribe alkateak egindako ziurtagiria 1937-7-22.*

564 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Manuel Uribe Urdulizko alkateak Amancio Nievari buruz egindako ziurtagiria 1937-8-21.*

565 A.M.U. 246. kaxa, *Urdulizko alkateak egindako portaera ziurtagiria 1937-8-6.*

566 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak P.B.G.ri buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-8-24.*

567 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak M.L.M.ri buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-10-9.*

568 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak F.G.B.ri buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-8-31.*

569 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak M.P.A. neskatilari buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-11-5.*

Beste batean, “(...) bere ezkonanaia den abade” batekin bizitzeak, “(...) bere adierazpenekin” batera, balio izan zioten José Zarragoitia Gardoqui marineleri “eskumakotzat” har zezaten<sup>570</sup>. Beste ziurtagiri batek erakusten du “(...)On Vicente Aldecoaren etxe berean bizitzea” izan zela Dionisia Goirigolzarri Arambalza “(...) eskumakotzat hartzeko” erabili zen arrazoia, nahiz eta kasu honetan ez zen inola ahaidetasun motarik aipatu<sup>571</sup>.

Zinegotzi ohi José Agustín Menchacaren anaiaren kasuan, Tomás Menchaca Urquizu medikua, Uribe alkateak, 1937ko abuztuan, aurrekari moduan adierazi zuen “(...) haren familia guztia eskumakotzat hartuta” zegoela, eta ziurtatzen zuela, gainera, Urdulizen egon zen bitartean, ez zela “(...) politikoki nabarmendu”. Hala eta guztiz ere, azken baieztapen hau ez zen egia: Tomás Menchacak, Sopuertako medikuak “(...) duela lau bat urtetik hona”<sup>572</sup>, Urdulizko EAJra afiliatzeko eskaera egin zuen 1932ko urtarrilaren 14an<sup>573</sup>. Herriko antolakunde nazionalista urte hartako abenduaren 31n utzi zuen<sup>574</sup>, pentsatzekoa denez mediku moduan Sopuertara igorri zutenean. Manuel Uribe alkateak datu hau ahaztu izana nahitakoa izan liteke, medikuak José Agustín Menchaca eskuindarrarekin zuen ahaidetasunak eraginda.

Kargu politiko batekiko familia loturak ohi baino txosten osatuagoa ekar zezakeen. Esate baterako, 1937ko irailaren 30ean, Bizkaiko Aurrezki Kutxako zuzendariordeak eskutitz bat zuzendu zion Urdulizko alkate Manuel Uribe Echevarriari, bidali ziezaizkion alkatearen anaia José María Uriberi buruzko “(...) txosten politiko, sozial, moral eta erlijioso zabalak” eta “(...) soldaduskari dagokionez duen egoerari buruzkoak”. Txostenean, alkateak argitu zuen bere anaia, adina zela-eta, militarki erabat askea zela, baita ziurtatu ere “(...) beti eskumakoa” izana zela eta beti boto eman ziola “(...) hauteskunde guztietan eskuma ordezkatzan zuen taldeari”, ahaztu barik “Mugimendu Nazional Lariotsuaren garaipenaren aldeko sutsutzat” zeukala bere anaia. Hala eta guztiz ere, alderdi pertsonalean jardun zuen luzeen eta zabalak Manuel Uribek, adieraziz-eta bere anaia zegoela:

*“(...) socialmente muy bien relacionado siendo apreciado por toda clase de gentes. Moralmente excelente persona muy amigo de la vida familiar. Religiosamente católico a conciencia”<sup>575</sup>.*

570 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Urdulizko alkateak José Zarragoitia Gardoquiri buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-11-5.

571 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Urdulizko alkateak Dionisia Arambalza Goirigolzarri buruz egindako portaera ziurtagiria 1937-11-5.

572 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Urdulizko alkatearen mezua, Bilboko 4. Konfiskazio Epaila Berezari zuzendua 1937-8-13.

573 M.H.D.Z. P.S. Bilbo, 116, Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak, 28. kidezte-orria: Tomás Menchaca Urquizu 1932-1-14. Urdulizko Uri Buru Batzarrak biharamunean onetsi zuen eskaera.

574 M.H.D.Z. P.S. Bilbo 217/2, Urdulizko Alderdi Jeltzaleko afiliatuen zerrenda.

575 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Portaera ziurtagiria, Urdulizko Manuel Uribe alkateak egina, José María Uriberi buruz 1937-10-2.

Armada frankistan borrokatu ziren soldaduek era ezberdinetan jaso zuten ordaina. Berbarako, bando frankistako gerrako mutilatuentzat gorde ziren funtzionario publikoetako lanpostuak. Hutsik zeuden postu gehienak depurazio prozesuen ondoriozkoak ziren. Horiek ezagutarazteko, *Aberriaren Aldeko Gerrako mutilatuen Probintziako Ikuskaritza Batzordeak* udalei zerrenda bat eskatu zien udal lanpostuei buruz eta beste bat hutsik zeuden lanpostuena. 1938ko abuztuaren erdialdean bidali zuen Urdulizko Udalak informazio hura, kargu bakoitzaren urteko soldatekin batera. Haren arabera, udalerrriak bost lanpostu publiko zeuzkan: Idazkaria, Medikua, Guardia-Zeladorea, Albaitaria eta Lur-emailea<sup>576</sup>. Bost postu horietatik, bi hutsik zeuden, Guardia-Zeladorearena eta Lur-emailearena. Lehen postua betetzeko *“irakurtzen eta idazten jakitea”* eskatzen zen; bigarreneko, *“kultura edukitzea”*<sup>577</sup>. Hurrengo urtean, gerra amaituta zegoela, Udalak, Gobernazioko Ministerioaren 1939ko urriaren 30eko Agindua<sup>578</sup> beterik, azaroaren 22an argitara eman zuen *“(…) Udaltzain-Arielen Biltzaile lanpostua, urtean 1800 pta.ko soldataz hornitua, jabetzan betetzeko lehiaketa, zaldun mutilatu, gudulari ohi, gatibu ohi eta erahildakoen umezurtzen artean”*<sup>579</sup>. Horri dagokionez, badakigu Agustín Arambalza Hormaza, Urdulizko bizilaguna eta gerrako mutilatua, ipini zutela *“(…) Getxoko udalerriko langile moduan”*<sup>580</sup>, diru-biltzaile<sup>581</sup>.

Beste alde batetik, Bizkaiko Diputazioak erabaki zuen ematea *“(…) Domina bat eta Diploma bat Mugimendu Nazional Lariotsuaren alde frontean eta lehen ilaran zerbitzu egin duten Bizkaian jaiotako eta bertako bizilagun guztiei”*. Juan Beascochea Gorordo urduliztarrak 1940ko urtarrilean eskatu zizkion domina eta diploma horiek. Azaldu zuenez, armadan bere borondatez sartu zen 1937ko uztailaren 1ean eta hainbat unitatetatik igaro, hala nola Santanderko Falangean edo *“Flechas Negras”* tropa legionarioetan. Gainera, Bernardo Farinaren idazki bat aurkeztu zuen, *“Flechas Negras”* Lehen Erregimentuko Munguia Batailoiko 9. Konpainiako kapitaina bera, 1938ko urriko data zuena, non ziurtatzen zen Beascocheak *“espíritu militar garaia”* erakutsia zuela, eta aurkeztu zela *“(…) boluntario eskatu zen guztietan zerbitzu arriskutsuren baterako (…)”*<sup>582</sup>.

Bizkaiko Diputazioak era berean erabaki zuen *“esker-sariak”* ematea Karlistadako beteranoei. Horretarako, udalei eskatu zien udal mugarte bakoitzean zeuden gudulari karlista ohien zerrenda bidal zezaten, beterano horien probintziako

---

576 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko udal plantillako zentsu orokorra* 1938-8-16.

577 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Lanpostu hutsen hileko zerrenda* 1938-8-16.

578 B.O.E. 1939-11-9.

579 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko Udalaren iragarkia udaltzain-arielen biltzailearen lanpostua jabetzan betetzeko* 1939-11-22. Bizkaiko Gobernadore Zibilarri data berarekin bidali zitzaion, iragarkia Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu zedin.

580 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bilboko Plazako Bitarteko Epaitegi Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua* 1939-8-29.

581 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018 *Aberriaren Aldeko Gerrako Mutilatuen Meritu oneko Kidegoko Bizkaiko Batzorde Ikuskatzailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1940-2-19.

582 B.F.A.H. AJ02248/016 *Domina eta diploma jasotzeko eskaera, Juan Beascochea Gorordok aurkeztutakoa* 1940-1-10, eta *“Flechas Negras” Lehen Erregimentuko Munguia Batailoiko 9. Konpainiako kapitain Bernardo Farinak luzatutako ziurtagiria* 1938-8-26.

zentsua osatzeko. 1939ko apirilaren hasieran, Aldundiak udalei abisatu zien oraindik zerrenda horiek bidali barik zeudela, eta bidaltzeko “(...) *atoan, egiten gabiltzan lana ez oztopatze*ko”. Karlista zaharrak berak ere aurkeztu ahal ziren “(...) *Gobernazioko bulegoetan*”, eta Aldundiak eskatu zuen joan ez zirena k “(...) *ahalik eta arinen*” aurkezteko<sup>583</sup>. Aldundiak 1939ko abuztuaren 18an arau multzo bat xedatu zuen pentsioa eskuratu ahal izateko. Besteak beste, honako hauek egiaztatu behar ziren: “(...) *jaiolekua eta bizilekua, pobrezia eta Kausa Nazionalarekiko atxikimendu jarraia*”. José Castor Astolozaga Beascocheak, Gatikari jaiotako Urdulizko bizilagunak, bere 89 urteetan, baldintza horiek guztiak egiaztatu zituen, eta “(...) *Espainiako Armadaren ohorezko titulua*” aurkeztu zuen gainera. Horregatik, Probintziako Diputazioak aitortu zion “(...) *Karlistadako beterano moduan, eguneko pezeta bateko pentsioa*”<sup>584</sup>.

“Estatu berriaren” berezko ezaugarrietako bat izan zen **Eliza Katolikoaren eta aginte zibilaren arteko lotura estua**, Bigarren Errepublikaren garaian aldarrikatutako laizismoaren bestaldean. Modu horretan, gurutzea eta sinbolo erlijiosoak berreskuratu ziren eraikin publikoetan, hala nola eskoletan eta udaletxeetan. Esate baterako, 1937ko uztailaren 8an, “*hots handi-handiz*” Bihotz Sakratua birtronuratu zen Urdulizko Udaletxean, “(...) *Errepublikako Gobernuaren aginduz*” erretiratua eta udal idazkariak “*leku seguruan*” gordeta egon ostean<sup>585</sup>.

Espainia “*nazionala*” erlijio katolikoaren bermatzaile agertu zen. Getxoko komandante militarrek, 1938ko maiatzean, bisita egin zuen Barrikako Goierriko eskolatar, eta bere hitzaldian honako hau nabarmendu:

“(...) *los grandes beneficios de orden moral y material de la España nacional, que les había reintegrado el Santo Crucifijo y les garantizaba la pública manifestación de sus actos religiosos*”<sup>586</sup>.

1938ko udaberrian eta udan, aberria eta erlijioa estu lotzen zituzten ekitaldiak ugaritu ziren Uribe Kostan. Eskualdeko herrietan, festak ospatu ziren herrien “*liberazioko*” lehen urteurrena zela-eta, zeinetan uztar-uztartuta geratu ziren ekitaldi erlijiosoak eta aberkoiak. Esate baterako, 1938ko ekainaren 14an, Plentziak mota horretako jaiak ospatu zituen, Gorlizekin, Lemoizekin eta Barrikarekin batera. Bezperan, prozesio bat egin zen Gorlizko Andra Mariren ermitara, agintariak buru zirela, eta bertan meza egin, jaunartze eta guzti. Ekitaldi erlijiosoaren ostean, hilerrira bisita egin zuten, eta bertan “(...) *Jaungoikoaren eta Espainiaren alde erorita koentzako errespontsua errezatuta*”, lore-eskaintza bat egin zen “(...) *Aberri hilezkorraren aldarean egin duten sakrifizioa omentzeko esker on gisa*”<sup>587</sup>.

583 *La Gaceta del Norte* 1939-4-1.

584 B.F.A.H. AJ 02732/010, José Astolozaga Beascochea karlistadako beteranoari irekitako espediente. Akordioa 1940-12-6.

585 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-8

586 *El Correo Español – El Pueblo Vasco* 1938-5-17.

587 *El Correo Español – El Pueblo Vasco* 1938-6-15.

Aitatutako hilaren 14an, goizeko hamaiketan, kanpainia-meza bat esan zen “*Jeneralísimoaren plazan*”, bertan zeudela gobernadore zibila, Ordena Publikoko ordezkaria, Itsas Armadako komandantea, Getxoko Barruti Militarreko komandantea eta lau herri horietako agintariak. Ekitaldi erlijiosoko musika “(...) *Iruñeko Erreketearen Banda*”-ren eskutik etorri zen, (...) *musika erlijiosoko aparteko erreperitorioa*” jorik<sup>588</sup>. Arratsaldean, Astillero Plazako kioskoan, Gornizko alkate Lerchundi jaunak aurkezturik, hainbat hizlarik egin zuten berba: José Luis Santiago Marín, Ignacio de Urquijo Bilboko Udaleko alkateordea, José María de Oriol, kontseilari nazionala eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko probintzia-burua, eta Pradal komandantea. Ardatz bera izan zuten guztien hitzaldiek: katolizismoaren gorespena, euskal “*separatismoarentzako*” eraso eta “(...) *euskaldunen espainoltasuna, Espainiari fidelak izan zirelako beti*” nabarmentzea, baita gomutaraztea ere zelan euskaldun horiek “(...) *Espainiaren arima inperialaz blaiturik, itsasoak inguratzen eta basamortuak gurutzatzen zituzten, Aberriari zerbitzu egiten itsasontzietan, gerra espedizioetan, letretan eta arteetan*”, *La Gaceta del Norte*k, bere kronikan, kontatu zuen “*hizlari guztiak txalotuak*” izan zirela eta jendeak Iruñeko Erreketearen Bandak jotako himnoak “(...) *kantatu zituela, suharturik*”. Albistearekin batera hainbat argazki daude, hizlarienak, eta beste bat, jendearena, agur-modu faxista egiten<sup>589</sup>.

Urdulizen ekainaren 15ean egin ziren ekimenei buruz ez dakigu gauza handirik ez dauzkagulako data horietako Akta Liburuak. Bakarrik dakigu Udalak 1973/35 pezeta gastatu zituela 1938an “*herri honen liberazioagatik ospatutako jaietan*”<sup>590</sup>. 1939eko ospakizunari buruz, badakigu 25 pezeta gastatu zirela “*umeentzako sarietan liberazioa dela-eta ospatutako jaietan*”<sup>591</sup>.

Gorlizen uztailaren 18an ospatu zen “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuaren hasieraren*” bigarren urteurrena. Egun hartako goizeko hamarretan egin zen “(...) *Espainiako plazan kanpainia-meza bat Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.eko Tokiko Buruzagitzak antolatuta*”, eta bertan egon ziren Udaltza gorliztarra, “(...) *Gazte Miliziak eta Bigarren Lerrokoak, emakume antolamenduak eta bizilagun eta kanpotar mordo bat*”. Mezaren ostean, “*desfile handi bat*” egin zen, eta ondoren, “(...) *Falange Española Tradicionalistaren eraikin sozial bikainaren oinetan*”, hitzaldi bana eman zuten F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi Manuel Rodríguezek, “*txalo ederrak jasorik*”, eta Aita Redinek, gai hau hartuta: “(...) *Espainiako antolaketa berria*”. Gornizko alkateak itxi zuen ekitaldia, “(...) *hitzaldi labur batekin*”<sup>592</sup>.

Plentzian, uztailaren 25ean, “(...) *Espainiako Santu Patroiaren eguna*”, “(...) *bedeinkapen eta Bigarren Lerroko Milizien banderaren entregaren*” ekimen bat egin zen. Derrigorrezko ekitaldi erlijiosoaren ostean kanpainia-meza bat abade

---

588 Ibid.

589 *La Gaceta del Norte* 1938-6-15.

590 B.F.A.H. URDULIZ 0034/006 *Partidakako Liburu Osagarria* 1938.

591 B.F.A.H. URDULIZ 0037/007 *1938ko eta 1939ko urte ekonomikoetarako diru-sarrera eta gastuen liburu osagarria*.

592 *El Correo Español – El Pueblo Vasco* 1938-7-20.

nagusiak bandera bedeinkatu zuen. Ospakizuneko amabitxiak, herriko Falange Española Tradicionalistako buruzagiaren alaba María Carmen Ageok, “(...) hitzaldi bat eman zuen bihotz-bihotzetik, bandera entregatzeko ospakizunean”, eta herriko Bigarren Lerroko buruzagia Carlos Calvoren esker hitzak jaso zituen erantzun gisa. Horren ostean, Miliziak desfilatatu zuen “(...) ohituta gauden martzialtasun eta uniformitatearekin, (...) Gazte Antolakundeak aurretik zituztela”<sup>593</sup>.

Totalitarismo politikoaren ezarpenak, 1936 eta 1937 bitartean, **hezkuntza autoritarioaren** ezarpena ekarri zuen berekin, hau da, “(...) hezkuntza politizatu egin zen eta gudu-zelaian defenditzen ziren balio ideologiko berez kutsatu”. Hezkuntza sistema berria zorrotz ezartzeko, aurrerago ikusiko dugun legez, “(...) Errepublikaren kausaren eta Autonomien Kausaren alde aritu ziren maisu eta irakasleen depurazioa abiatu zen”<sup>594</sup>.

1937-1938 ikasturtea berria Bizkaian lehenago hasi zen ikastetxe batzuetan besteetan baino, irakaskuntzara bideratutako eraikinak konpontzen joaten ziren heinean. Auzo-eskolen kasuan, Arrienek dionez, Probintziako Diputazioak xedatu zuen maisu-maistrek kudeatzea agintari zibil eta erlijiosoen etorrera, eta baita bizilagunena ere, ikasturtea inauguratuko zuen ospakizunera. Bertan, “(...) gurutzearen eta bandera nazionalaren berrezarpena, eta Estatu-Buruaren erretratoaren ezarpena, Franco Jeneralisimoarena” izan behar ziren protagonista<sup>595</sup>.

1937ko irailaren amaieran, Bizkaiko Diputazioko Irakaskuntza Publikoko Ponentziak, “(...) auzo-eskoletan irakaskuntza lanari berrekiteko eguna hurbiltzen ari dela eta”, erabaki zuen onartzea, ezelango lehiaketa barik, Felipe Zamalloaren proposamena Jeneralisimoaren 60 koadro egiteko. Presa hori zergatik eta honengatik:

*“(...) la necesidad de que (...) se señale mediante la instalación solemne de las imágenes representativas el paso trascendental y venturoso de una época de abyección a una era en que, plenamente, sin limitaciones de ningún género, se pueda confesar a Dios públicamente, con todos los honores que le son debidos, honrar a la Patria con la decisión ferviente y encendida que se le debe, y admirar al Caudillo que nos guía a la consecución de tan claros objetivos, (por lo que) es imposible supeditar la adquisición de objetos tan necesarios para los fines que se indican a la celebración de un concurso que, naturalmente, exigiría plazos y dilaciones (...) que es necesario suprimir (...)”*<sup>596</sup>.

593 *El Correo Español – El Pueblo Vasco* 1938-7-28.

594 ARRIEN, Gregorio: *Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898 – 1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 201 or.

595 ARRIEN, Gregorio: “*Educación y Escuelas de Barriada de Vizcaya, 1937-1939. (Su traspaso al Estado y deterioro de la enseñanza)*” in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, nº 31, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1986, 629-640, (Aipua: 636. or)

596 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura funtsa, KULTURA, 1216. KAXA, 11. esp.

Ez dugu topatu Urdulizen zer egunetan ireki ziren berriro ikastetxeak, ezta noiz izan zen gurutzeak ipintzearen egintza ere. Orri batzuk lehenago esan dugun legez, badakigu azaroan oraindik ez zirela auzo-eskolan konponketak egin.

Plentzian, irailaren erdialdean, Fidel Sendagorta alkateak, ikasturtearen hasieraren eguna hurreratzen ari zela ikusita, erabaki zuen “(...) beharrezkoa zela aldez aurretik, eta hots handi-handiz, lehen mailako eskoletan gurutzea berrezartzea, Maisu Jainkotiarrak gure umeen hezkuntza berriro ere inspiratu dezan”<sup>597</sup>. Udalburuak, modu horretan, aurre hartzen zion Kultura eta Hezkuntza Ordezkaritza probintzialak emandako zirkularrari. Hura, “(...) Gurutze Santua Eskola Nazioaletan berrezartzea” gaia zuela, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1937ko irailaren 23an. Haren xedapenei jarraituz, batzorde bat eratu zen gurutzea marinel-hiriko eskoletan berrezartzea “hotsandiz ospatzeko” ekimen-programa antolatzeaz arduratu zena. Ekitaldia urriaren 1ean gauzatu zen<sup>598</sup>.

Berangoko Santa Anako Eskolei dagokienez, 1937ko urriaren 10ean burutu ziren Aldundiaren xedapenari jarraituz gurutzeak ipintzeko ekimenak. Egunari meza nagusi bategaz eman zitzaion hasiera, Santo Domingo de Guzmán parrokiaren herriko agintariak buru eginik, eta bertan gurutzeak bedeinkatu ziren. Behin meza amaituta prozesioan abiatu ziren elizatik eskoletaraino; lehenengo, kadeteak, *gezi eta pelaiok* (hau da, gazte eta haur miliziak), eta, horien ostean, eskoletako neska-mutilak, euren maisu-maistrak, eliz jendea, agintariak eta *“jende-mordo ikaragarria”*. Gurutzeak ipintzeaz gain, tronuratu eta kontsokratu zen “(...) Gorenaren irudia” eta “(...) Tedeum bat abestu zen eskerrak emateko”. Ekitaldi horien ostean, F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiak eta antolakunde horretako idazkariak hitzaldi bana eman zuten. Festa hura “(...) Espainiako berpizkunde kristauaren sinboloa” zela azpimarratu zen bertan<sup>599</sup>.

“(...) Garaileen balore atzerakoi eta kontserbadoreetan, gehienak elizak gidatu eta inspiratuak” zituen oinarri Hezkuntza politika berriak<sup>600</sup>. Berbarako, 1937ko azaroaren 18ko goizean, herriko alkate José Antonio de Lerchundi agertu zen Gorlizko nesken Eskola Nazionallean, zertarako eta “(...) neskei berbaldi guztiz abertzalea egiteko Aberriaren martirien fusilamendu zitalak direla-eta”. Austriak Bilbon zuen kontsul Guillermo Wakonigg-ez, Federico Martínez Ariasez eta Anglada komandanteaz ziharduen. *La Gaceta del Norte* “ekintza atsegina” iritzi zion alkatearen agerpen horri amaiera eman zitzaion “(...) Espainiaren lagun eta hain abertzale onen izenak gogoraraziz, eta neskatilek erantzunez: ¡PRESENTES!”. Gainera, Lerchundik agindu zuen “(...) egun horretako Errosarioa” hiru fusilatuen arimen “(...) betiko atsedinari eskain zekion (...) eta egunerokoa, berriz, Erliijoaren eta Aberriaren garaipenari, aldi berean Armada-buruaren alde otoitz eginez”<sup>601</sup>.

597 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bilkura arrunta 1937-9-16.

598 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bilkura arrunta 1937-9-25. Gainera, erabaki zen gurutzea eskoletan paratu zen egun berean plakak inauguratzea Plentziako hiru kaleren izen berriekin.

599 *El Correo Español* 1937-10-12.

600 VILLA, 79 or.

601 *La Gaceta del Norte* 1937-11-19.

Irakaskuntza erlijiosoa, Bigarren Errepublikaren garaian eskoletatik egotzi zena, derrigorrezko eta egunero ematekoa bihurtu zen, erregimen errepublikanoaren laizismo urteak “borrokatzearren”. Beste alde batetik, Bizkaian Espainiako Historia ere egunero irakasten hasi zen, ikasleen “heziketa aberkoia” sendotzeko euskal nazionalismoa sano sustraituta zegoen probintzian<sup>602</sup>. Kristauak eta abertzale espainolak heztea bilatzen zen, beraz. Printzipio horiek, “*irakaskuntza erlijiosoa eta berbaldi aberkoia*” izan ziren, barbarako, Plentziako Sendategian zeuden “(...) *Bilboko martirien umezurtzei*” ematen zitzairen irakaskuntzaren mugarri nagusiak. 1938ko ekainaren 15ean egin zen udaleku horien inaugurazio ekitaldia, bertan zirela probintziako, herriko eta armadako agintariak. Eskoletan egin ohi zenez, “(...) *bandera nazionalaren inguruan lerrokatutako neskatilek “Cara al sol” eta “Oriamendi” kantatu zuten agintariak heldukeran, eraikinaren terrazetako batean*”. Ospakizun hauei buruz *La Gaceta del Norte* argitaratutako artikulua hiru argazkiz hornituta dator. Horietako batean betiko harrapatu geratu zen neskatilek eta agintariak, besoa jasorik, himno horiek abestu zituzten unea<sup>603</sup>.

Beste alde batetik, Gregorio Arrienek kontatzen duenez, “(...) *eskolaren eremuan eskola-umeen militarizazioa jo zen, desfile, ariketa eta kutsu faxistako antolamendua (...), haurrak eurenganatzeko eta asimilatzekeo xedea zuten erakundeetan sarraraziz umeak*”. Hala eta guztiz ere, “(...) *jokabide horiek denbora gutxi egon ziren indarrean*”<sup>604</sup>.

Esate baterako, 1937ko irailean, seigarren Dibisioko milizietako teniente koronel buruak ikuskatu zituen “(...) *Plentzia eta Gornizko kadeteak, gezi eta pelaiok*” marinel-hiriko Astillero Plazan. Desfilearen ostean, eskualdeko Ordena Publikoko buruak, “(...) *harenga aberkoi batean, akuilatu zituen lubakietan borrokan dabiltzanen ereduari jarraitzera, Espainiaren ohorea eta handitasuna defendatuz zibilizazio kristau eta mendebaldarra salbatzeko gurutzada honetan*”. Ekitaldiaren amaieran, txokolatea eta pastak banatu ziren umeen artean<sup>605</sup>.

Urdulizen, Amancio Nieva, herriko Falangeko burua, saiatu zen biltzen “(...) *bizilagunen artean*” harpidetza eginez, “(...) *GAZTE-LEGIOKO umeak hornitzeko*” beharrezko dirua. Behar zenetik ez zen “(...) *diruaren laurden bat ere*” batu, ekimen honen arrakasta eskasaren seinale. Horregatik, 1938ko ekainaren 6an, Nievak mezu bat bidali zuen, itxuraz bizilagunei, “(...) *hainbeste froga eman dituen zuen bihotz onbera ukitzeko atrebentziaz, etorkizuneko umea hezitzearen egundoko obra aberkoi honetarako laguntza eske*”.

602 ARRIEN, *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898 – 1936)*, 637 or.

603 *La Gaceta del Norte* 1938-6-16.

604 ARRIEN, *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898 – 1936)*, 202 or.

605 *El Correo Español* 1937-9-7.



F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiak eskutitza jasotzen zuenaren konpromisoa lortu gura zuen 75 pezeta emateko, behingoan ez bazen, epeka. Jakingarri hau ere gehitzen zuen: “(...) egun bi barru pasako dira zirkular hau biltzera, hitzartutako partea markatuz, eta epeka bada, zenbatekoa”. Bere agurrean, hona zer ziotson Amancio Nievak hartzaileari: “*Espainiak sarituko dizu eta neu betirako esker oneko geratuko natzaizu*”<sup>606</sup>.

Azkenik, aitzatekoa da, 1937ko ekainaren 23an Bizkaian eta Gipuzkoan Kontzertu Ekonomikoa ezabatzearen ondorioz, bi diputazio probintzialesk galdu zutelara ordura arte auren gain hartzen zuten “(...) kultur eta hezkuntza alorretako jarduera zabala sostengatzeko oinarri ekonomikoa”. Gainera, auzo-eskolak auzo-eskola nazional bihurtu ziren 1938ko apirilaren 18ko Aginduaren bidez; beraz, maisu-maistrak Estatuaren mendeko bilakatu ziren, eta horrek berekin ekarri zuen irakasle hauei zegozkien depurazio-espeditenteak Hezkuntza Ministeritza Nazionalak berrikustea. Estatuaren aldeko eskualdatze horren ondorio nagusia izan zen “(...) irakaskuntzaren narriatze egoera orokor bat”. Probintziako diputazio frankista bera konturatu zen narriadura horretaz eta eskolen kudeaketa berreskuratzen saiatu zen<sup>607</sup>.

Elizaren balioen inposaketak, hezkuntzari ez ezik, oro har gizarteari ere eragin zion. Horregatik, agintari zibilek jo eta su esetsi zioten biraoari. 1939ko uztailaren 17ko Aginduak agintariei eskumena eman zien birao egiteagatik isunak jartzeko. Berbarako, 1940ko urriaren 28an, Urdulizko alkateak 25 pezetako isun bat ezarri zion Florencio Iñiguez Plentziako bizilagunari “(...) birao egiteagatik Guibelondo jaunaren saltokian”, nahiz eta, azkenik, 5 pezetatara murriztu zen<sup>608</sup>.

Francoren “Espainia berrian” ez zuten lekurik Aberriaren batasunaren ideia arriskuan jar zezaketen txokokeriek. Alde horretatik, gaztelania bihurtu zuten “(...) Aberriaren handitasunaren ezaugarri bereizgarrietako bat”. Soilik egon zitekeen “(...) inperio bat eta hizkuntza bat: gaztelania”, eta horrek “(...) gainerako guztien gainetik egon behar zuen”. Pentsamendu horretan oinarriturik, **euskara** zigortua eta jazarria izan zen<sup>609</sup>. Esate baterako, 1937ko abuztuaren 18an, Gregorio Gómezek, Sopolako Guardia Zibilarren kaboak, Urdulizko alkateari agindu zion bando bat emateko “(...) ahalik eta arinen (...)48 orduko epean desagertarazi ditzaten herriko eraikinetatik euskaraz dauden izen edo idazkun guztiak”, eta ohartarazi zuen “(...) zehaztutako epean agindutakoa betetzen ez zuten guztiak gogorki zigortuak izango” zirela “(...)Gerrako xedapenen arabera”<sup>610</sup>. Mota horretako aginduak hilerrietako hilarrietan euskaraz zeuden

---

606 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018, *Falangeko Tokiko buruzagiaren mezua* 1938-6-6.

607 *Ibid.* págs. 201-202.

608 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, FLORENCIO IÑIGUEZ Plentziako bizilagunari birao egiteagatik gobernu-isuna ipintzeko espeditentea 1940-10-28. Hala eta guztiz ere, aitzatekoa da biraoaren jazarpena ez zela kontu berria. Berbarako, Urdulizen 1916an onartu ziren udal ordenantzetan, Errepublikaren garaian indarrean egon zirenetan, debeku berariazkoa ezartzen zitzaizen “biraoei, juramenduei eta ekintza lizun mota guztiei”(U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Urdulizko elizateko Udal Ordenantzak* 1916-12-25).

609 VILLA, Imanol: *Historia del País Vasco durante el franquismo*, Madril, Silex, 2009, 81 or.

610 A.M.U. 246. kaxa, *Sopolako Guardia Zibilarren Kaboaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-8-18.

idazkUNETARA ere heldu ziren. Berbarako, 1937ko azaroaren erdialdean, Barrikako alkate Bernabé Hormazak, Guardia Zibilaren argibideei jarraituz, bost eguneko epea eman zien herriko lau bizilaguni “(...) *desagertarazi ditzatzen herri honetako hilerrian ehortzitako senide hilei eskainitako euskarazko idazkunak (G.B.)*”<sup>611</sup>.

Beste alde batetik, debekatu egin zen jaioberriei euskarazko izenak ipintzea eta Erregistro Zibilean sartzea. Hartara, Justiziako Ministerioaren 1938ko maiatzaren 18ko agindu batean, adierazten zen gertatuak zirela “*irregulartasunak erregistroan*”, honako honen eraginez:

*“(...) la morbosa exacerbación de algunas provincias del sentimiento regionalista, que llevó a determinados registros buen número de nombres, que no solamente están expresados en idioma distinto al oficial castellano, sino que entrañan una significación contraria a la unidad de la patria. Tal ocurre en las Vascongadas, por ejemplo, con los nombres Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista*”<sup>612</sup>.

Ministerio-agindu honek “(...) *Aránzazu, Iciar, Monserrat, Begoña eta abar*”, bezalako izenak salbuesten zituen, “(...) *soilik euskaraz edo katalanez edo beste hizkuntza batean benetako espresio egokia daukaten izenak izateagatik*”. Horregatik, adierazten zen behar zutela “(...) *garbiki espainiar izen gisa onartuak izan*” bat zetozelako “(...) *Espainia den Aberri bakarrarekiko maitasunarekin*”. Premisa horiei jarraituz, aginduaren helburua izan zen espainiar izenak gaztelaniaz idatzi zitezela<sup>613</sup>.

Apur bat geroago, abuztuaren 12an, Justiziako Ministerioak beste agindu bat eman zuen euskara Erregistro Zibiletatik baztertzeko. Ministerio honen ustez “(...) *separatismoak eta marxismoak Erregistro Zibiletan*” “*burututako*” “(...) *arbitrariotasun, ilegaltasun eta irregulartasun*”-en aurrean, “(...) *premiatzko ordenamendu neurriak*” hartzerari ekin zioten, “(...) *birkonkistatutako eremuan eta gure Armada Loriotsuak geroago liberatzen dituenetan, Erregistro Zibil guztietako funtzionarioek*” aplikatu beharreko erregelamendu batean mamitzekoak. Arautegiaren Bigarren Artikuluak honakoa xedatzen zuen: “*Baliogabetzat eta balio legalik gabeak hartuko dira gaztelania den hizkuntza ofizialetik ezberdina den hizkuntza edo dialekto batean idatzitako*”<sup>614</sup>.

611 B.F.A.H. BARRIKA 0088/022, *Barrikako Alkatearen mezua, Guardia Zibilaren postuko Kabo Komandanteari zuzendua* 1937-11-15. Lau bizilagun hauek jaso zuten euskarazko idazkunak hilobietatik ezabatzeke agindua: Manuel Ripalda, Miguel Zabala, Dionisio Ceanuri eta Gabriel Berreteaga.

612 TORREALDAI NABEA, Joan Mari: *El libro negro del euskera*, Donostia, Ttarttalo, 1998, 132-133.

613 *Ibid.* 133 or.

614 *Ibid.* 136-137.

Urdulizko Erregistro Zibileko Jaiotza Liburuan topatzen ditugun 1937ko ekaina baino lehenagoko euskarazko izenak euren gaztelerazko itzulpenarekin batera datoz. Kasu gehienetan, jaiotze-akta hauek ez zuten aldaketarik jasan, bitan izan ezik. Akta horietako batean amak agindu ziona udal epaileari, 1939ko otsailaren 14an, ezeztatu zezala bere semearen euskarazko izena, Jon Mirena, eta soilik geratu zedila Juan Marirena. Bestean, zuzenean urratuta agertzen da Miren Karmeleren izena, 1937an jaiotako neskatila bat. Aktan ez da inolako oharrik ageri esaten diguna zein egunetan ezabatu zen euskarazko izena, edo ekintza hau bere gurasoetakoren batek agindu zuen<sup>615</sup>. Beste alde batetik, egoera berezian geratu ziren euskarazko izenekin inskribatu ziren pertsonak. Esate baterako, 1938ko ekainean, udal idazkariak eman zion “(...) dagokion zedula (...) mila bederatziehun eta hogeita hamazazpiko abenduaren hogeita hamarreen, Garbiñe Purificación Inchaurtieta Saitua izenarekin”, eta adierazten zuen “(...) izen horrekin zegoela zedulen erroldan eta herri honetako biztanleen erroldan eta Erregistro Zibilean”<sup>616</sup>

---

615 Urdulizko Erregistro Zibiletik hartutako datuak. Topatu dugun bigarren kasua, Miren Karmelerena, harrigarria da neskatila jaio eta hilabetera hil baitzen.

616 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udal idazkariaren ziurtagiria* 1938-9-19. Udal idazkariak 1938ko ekainean informazio horren gaineko ziurtagiria eman zuelako ziurtagiria eman zuen data horrekin.

## 2. ERREPRESIOA





Bizkaian Gerra Zibila amaitu eta berehala hasi zen funtzionatzen errepresioaren makineria. Aztarna sakona utzi zuen gerra osteko lehenengo urteetan. Errepresioak gizarte osoa harrapatu zuen: kargu politikoak, alderdietako zuzendaritza-batzordeak, sindikatuak eta abar. Funtzionarioei depurazio prozesua ezarri zitzaion, eta hartatik pasarazi maisu-maistrak, medikuak eta udal enplegatuak. Are lurrak luberritzeko laguntzak ere, 1936an baserritarrek Aldundiari eskatu zizkietenak, depurazioaren galbahetik pasatu ziren.

Urdulizko errepresioari eskaini diogun kapitulu hau eraikitzeke oinarria urduliztar askotxoren aurka irekitako auziak dira. Irakurleari ohartarazi beharra diogu dokumentazio oparo hau kontu handiz hartu behar dela. Hasteko, auzipetuen aitopenen transkripzioak dira; bertan *“gorri-separatistak”* edo *“Mugimendu Nazional Loriotsua”* bezalako hitzak erabiltzen dira, kasu gehienetan transkribatzailearen galtzarbetik ateratakoak, eta ez deklarazioarenetik. Bistan denez, ezin daiteke alboratu zer baldintza txundigarri eta ez demokratikoetan egin zituzten urduliztar horiek euren deklarazioak gerra-kontseilu baten aurrean. Alde horretatik, haietako askok euren esanak bideratu zituzten, euren egoera berez gaitza ez okerragotzeko eginahaletan, berbarako, are arrisku handiagoan ipini zitzairenen datuak ezkutatuz. Batzuek, 1937aren ostean, oso defentsa landua eraiki zuten, eta horregatik beste iturri batzuekin erkatu ditugu datu horiek egiaztatzeko.

## 2.1 Errepresioaren ezaugarri orokorrak

Matxinatuek bultzatutako errepresioaren funtzionamendua ulertzeko, beharrezkoa da, berbarako, depurazio prozesuei ekiteko eman ziren xedapenetako batzuk ezagutzea. Alde horretatik, nabarmendu behar da Defentsa Batzorde Nazionalak 1936ko irailaren 13an emandako 108. Dekretuaren garrantzia. Dekretu horrek legez kanpo utzi zituen 1936ko otsaileko hauteskundeetan Fronte Popularra osatu edo gerran Errepublikaren alde agertu ziren alderdi eta talde politiko edo sozial guztiak. Gainera, dekretuak agintzen zuen alderdi edo sindikatu horienak izandako ondasun higiezin, higigarri, jabetza eta dokumentuen konfiskazioa, Estatuaren jabetzaper a igaro zitezen<sup>617</sup>.

108. Dekretuak era berean ezartzen zuen *“aberriaren edo Mugimendu Nazionalaren kontrako jarduketetan”* ibilitako funtzionario publikoen kargugabetzea eta Estatuak, probintziak edo udalerriek diru-laguntza emandako enpresen etenaldia edo zerbitzu publikoen emakidadunena. Geroago, 1936ko abenduaren 3ko 93. Dekretua argitaratu zen, *“(…) izan zezaketen errepresiotik ihes egiteko asmoz eremu errepublikanora igarotzen ziren funtzionarioak jazartzeko”*. Dekretu horrek ezartzen zuen *“(…) askatutako eremuan zeukatena bizitoki ofiziala uztailaren 18tik aurrera”* utzi zuten funtzionarioen berehala kargugabetzea. 1936ko abenduaren 5eko Dekretuak depurazioari buruz bakarrik egiten zuen berba, eta aitaturako 108. Dekretuaren zabalkuntza eta garapena ekarri zuen<sup>618</sup>.

617 VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*, Editorial Crítica, Bartzelona, 2011, 151 or.

618 AROSTEGUI, Julio (Coord.): *Franco: la represión como sistema*, Flor del Viento Ediciones, Bartzelona 2012, 179 or.

Dekretu hauek dira Administrazio ezberdinek euren funtzionarioen depurazioa aurrera eramateko erabilitako oinarria, Bizkaiko lehenengo Diputazio Probintzialak bezala, berbarako, aurrerago ikusiko dugun legez.

Depurazio prozesuek oso antzeko dinamikari jarraitzen diote, baina guztietan nagusiki osagai berak daude: depuratu beharreko pertsonaren deklarazioa, haren “*udalerriko indar bizi*” deiturikoen txostena eta, sarritan, aldeko eta kontrako txostenak ere bai. Lehen kasuan, Urdulizi dagokionez ikusiko ditugun aldeko txostenek ziurtatu zuten eskumako jendeari gerra bitartean emandako laguntza edo ikertuaren elizkoitasuna. Bigarrenagoan, aitatzekoa da salaketa anonimoak egin zitezkeela, edo kontrako txostenak batzuetan mendeku edo gorrotoak bultzatuta egiten zituztela batzuek, edo etsaitasun politikoen eraginez.

Gerra-presoen eta euren borondatez agintari militar frankisten aurrean aurkeztutako kasuan, 1937ko martxoaren 11n Jeneralisimoaren Kuartel Nagusiak Preso eta aurkeztutakoak sailkatzeko Agindu Orokorra igorri zuen. Agindu horren bidez ezarri zen presoak sailkatzeko era, lau ataletan banatuta atxilotutakoaren arriskugarritasun mailaren arabera. Sailkapena honako hau zen:

-**A atala**: Mugimendu Nazionalaren aldera “atxikiak” edo jarraitzaileak.

-**B atala**: “atxikiak” ez zirenak, ardura politiko edo sozialik gabeko pertsonak.

-**C atala**: bertan sailkatzen ziren buruzagi eta ofizial errepublikanoak, buruzagi politiko eta sindikalak.

-**D atala**: delitugile arruntak barnebiltzen zituen.

Presoaren sailkapen prozesuan, kasuak aztertzeke orduan ikusiko dugun legez, Sailkapen Batzordeak haien deklarazioa behar zuen eta alkatearen, Falangeko herriko buruaren, herriko abade nagusiaren eta Guardia Zibilaren txostenen aurkezpena.

Gerra Zibila amaituta, Estatuko espetxeetako egoera oso kezagarria zen leporaino beterik zeudelako. Espainiako kartzeletako preso kopuruak, 1939ko abenduaren amaieran, 270.719 egiten zuen, “(...) *lehertzeko zorian ipinita zegoen espetxe sistema*”. Egoera hau zela-eta agintari frankistek neurriak hartu behar izan zituzten preso kopurua murrizteko<sup>619</sup>.

Horietako bat izan zen, 1940ko urtarrilaren amaieran, Zigorrak Aztertzeke Batzordeen sorrera, zeinen xedea zen ezarritako kondenak berrikustea behin gerra amaituta martxan jarri ziren legeei egokitzeko. Hasieran, “(...) *askatzeak tantaka baino ez ziren etorri*”, epaien berrikuspenaren mekanismo mantsoa zela bide. Horregatik, uda hasieran, behin-behineko askatasunaren neurria aplikatzen hasi ziren “(...) *sei urte eta egun bateko murrizpena baino gutxiagokoa*” proposatu zitzairen berrikusitako sententziei. Espetxeratua “(...) *berehala* (igarotzen zen) “*presondegi arindua*” egoerara *–etxe barruko arrastatzearen*

---

619 RODRÍGUEZ TEJEIRO, Domingo: *Las cárceles de Franco. Configuración, evolución y forma del sistema penitenciario franquista 1936-1945*, Los Libros de la Catarata, Madril, 2011, 165 or.

*antzeko bat– behin betiko ebazpena etorri arte*”. Berrikuspen hauek bakarrik epaituak eta kondenatuak zeudenei aplikatu zitzaizkien<sup>620</sup>, presondegian zeuden urduliztar gizon-emakumeen kasuan legez.

Behin-behineko askatasunak kudeatzeko erakundea Lan eginez zigorrak ordaintzeko Patronatua izan zen<sup>621</sup>, Ministerioaren 1938ko urriaren 7ko aginduaren bidez sortutakoa<sup>622</sup> ehunka errepublikanori “luditzearren” ezarritako gatibulanak erregulatzeko. Agindu honek ezartzen zuen “(...) delitu ez arruntengandik kondenatuta dauden eta lan egiten duten presoan emazte eta seme-alabak” bizi ziren herrietan eratuko zirela Patronatu horren mendeko Tokiko Batzordeak. Hauek hiru osakide izan behar zituzten, hona nortzuk: Alkatearen ordezkari bat “(...) nahitaez (...) F.E.T. y de las J.O.N.S. antolakundeko kidea”, herriko abade nagusia edo haren ordezkaria eta izendapen askeko kide bat, ahal zen neurrian izan zedila “(...) emakume bat, sakonki izpiritu karitatetsu eta arduratsukoa”, Batzordeko idazkari. Tokiko Batzorde hauek izango ziren “*preso beharginen*” senideei subsidioak banatzeko arduradunak, baldin eta hauek bazeuden “(...) legitimoki ezkondurik eta bazituzten seme-alaba legitimoak edo berezko aitortuak”. Beste alde batetik, 1939ko azaroaren 30eko Ministerio-aginduak aurrekoa osatu zuen eta ezarri oraindik Tokiko Batzordea eratu ez zen herrietan, alkateak, bitartean, bere gain hartuko zituela haren eginkizunak, “(...) *preso beharginen Familiek jasotzeko eskubidea duten subsidioa eman barik geratu ez dadin*”<sup>623</sup>. Beraz, Tokiko Batzorde hauei zegokien ere presoei aitortutako behin-behineko askatasunen tokiko kudeaketa.

Behin-behineko askatasunak aitortzeari buruzko lehen neurria 1940ko apirilean hartu zen, 60 urtetik gorako gatibuak espetxetik atera zirenean, kondenaren laurdena beterik bazuten. 1940ko ekainaren 4eko Legearen aldarrikapenak suposatu zuen “(...) *behin-behineko askatasunaren zutenentzat aparteko onurak izeneko errekurtsuaren bidezko espetxetik ateratzeko prozesuaren hasiera*”. Lege honek, argi eta garbi, preso politikoak zituen helburu; izan ere zehaztu zen soilik aplika zitekeela delitu arrunt batengatik kondenatuak izan ez zirenei. Gainera, ekainaren 4ko Legeak aukera ematen zien 12 urtera kondenatutako presoei behin-behineko askatasunaren onurak eskuratzeko. Zelangura ere, eskatzen zen “(...) *derrigorrezko baldintza moduan (presoei) portaera eredugarria erakutsi izana*” “suposatzen” laguntzen zuena “(...) *bai bere iraganeko jokaera eta baita kondenatua izan zeneko delitua*” “zuzenduak” izanak zirela modu “egokian”. Domingo Rodríguez Tejeirot adierazten duenez, behin-behineko askatasuna benetan lortu ahal izateko “(...) *beharrezkoa zen aldekoak izatea bere aurreko bizitokiko alkateak, FETeko Tokiko buruak eta Guardia Zibilaren buruak idatzitako txostenak*”<sup>624</sup>.

620 Ibíd. 170 or.

621 Ibíd. 170-171.

622 B.O.E.n argitaratua 1938-10-11.

623 A.M.U. 246. kaxa, *Zigorrek lanaren bidez luditzeko Patronatu Nagusiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1939-3-20.

624 RODRÍGUEZ TEJEIRO, 171 or.



## 2.2 Errepresioa Urdulizen

Urdulizko udal berria eratu zen egunean bertan (1937-6-25), Francok komunikazio bat igorri zion Bizkaiko gobernadore zibilar probintziako erakunde guztietan depurazio prozesuak hasteko aginduz. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Diputazioa ekainaren 21ean hasita zegoen bere funtzionarioen depurazioa prozesuan, guzti-guztiak kalera bidalita. Aurrerago jardungo dugu horretaz<sup>625</sup>.

Franco jeneralaren aginduari jarraituz, gizartearen depurazioari ekiteko erakunde ezberdinak ezartzen hasi ziren Bizkaian. Berbarako, 1937ko ekainaren 29an, gobernadore zibilak jakinarazi zion Urdulizko alkate izendatu berriari, *Ondasunak Konfiskatzeko Bizkaiko Probintziako Batzordea* eratua zela eta, premia biziz, Batzorde horretara bidali behar zituela, “(...) egoki irizten dion txostenekin batera”, honako hauen izenak:

*“(...) personas, vecinos de ese Ayuntamiento, (que) son lógicamente responsables de daños o perjuicios de todas clases ocasionados como consecuencia de la oposición al movimiento nacional y relación de los bienes que los mismos poseen para depurar en la forma establecida en el Decreto Ley de 10 de enero de 1937 si procede, o no, exigirles responsabilidades civiles”<sup>626</sup>.*

Uztailaren 16an, alkateak zerrenda hori bidali zuen, baina ez dugu topatu<sup>627</sup>.

Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeen eginkizunetako bat zen 108. Dekretuak legez kanpo utzitako alderdien ondasun higigarri eta higiezin, gauzen eta dokumentuen konfiskazioaz arduratzea. Estatuaren jabetza bihurtzen ziren ondasun horiek. Konfiskatzea aurrera eramateko, batzorde horiek:

*“(...) solicitaron certificaciones al Registro de la Propiedad de los partidos judiciales y a los directores de los bancos de cada provincia (certificaciones) de los bienes pertenecientes a las organizaciones prohibidas”<sup>628</sup>.*

Gobernadore zibilek udalei eskatu zieten zehatz-mehatz eman zezaten “(...) legez kanpo utzitako talde politiko eta sindikalen” jabetzako ondasunen berri. Alde horretatik, herri askotan alderdi edo sindikatuen lokala “(...) alokatu egiten zen, ez antolamenduaren jabetza”<sup>629</sup>.

Urdulizen, José Brotonsi eskainitako atalean ikusiko dugunez, *Batzokiaren*

---

625 IPIÑA BIDAURRAGA, Aritz: “Abolición del Concierto Económico y depuración franquista del personal de Arbitrios de la Diputación Provincial de Vizcaya. 1937-1940” in *Haciendas Forales: 30 años de Concierto Económico y perspectivas de futuro*, Bilbo, Ad Concordiam, 2011, 155 or.

626 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bizkaiko Gobernadore Zibilaren mezua* 1937-6-29.

627 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Ondasunen Konfiskaziorako Bizkaiko Probintziako Batzordeko lehendakariari zuzendua* 1937-7-16.

628 AROSTEGUI, 175-176.

629 *Ibid.*

eraikina (egungo *Taberna Txiberrri*) konfiskatua izan zen eta Urdulizko Falangeko kide Antonio Larrabeitiak okupatuta, urte batzuetan herriko F.E.T. y de las J.O.N.S.en egoitza gisa funtzionatu zuelarik<sup>630</sup>. Eraikina José Brotonsena zen, eta goiko solairua herriko EAJri alokatua zion. Gogora dezagun 1934ko apirilaren 8an, uri buru batzar jeltzaleak onartu zuela aho batez “(...*Etxezain-errentariaren eta Batzoki de Urduliz sozietatearen arteko kontratu-erregelamendua (...)*”, edo bestela esanda, Brotonsena eta herriko EAJren artekoa<sup>631</sup>. Beraz, eraikinaren konfiskazioaren oinarria ezin zitekeen izan EAJrena izatea (berrito diogu: ez zelako), ezpada eraikinaren jabe José Brotons Llonaren afiliazioa EAJra.

Badakigu era berean “*Villa-Odona*” etxea (egungo *Batzokia*) “*itxi*” egin zela. Zarraga familiarena izanik ere, Raquel Aldari alokatua zitzaion etxe hau, Juan Estraderen alargunari. Bertan igarotzen zituen udak Estrade-Alda familiak, eta 1936koa ez zen salbuespena izan<sup>632</sup>. Esanda dagoen legez, Estrade-Aldatarrak, uda amaituta, bere bititoki udatiarrean geratu ziren beste senitarteko batzuekin batera, Urdulizko ebakuazioa etorri arte. “*Villa Odone*” zergatik itxi zen? Bada, Pedro Goirigolzarri zinegotzi nazionalistaren emaztearen familiaren etxea zelako, edo Raquel Alda nazionalista ezaguna izateagatik. Zelangura ere, 1937ko uztailaren hasieran, Plentziako Komandantzia Militarrean agertu zen Raquel Aldaren suhia, Manuel de Ozamiz Artilleriako alfereza, eta hau azaldu zuen: “(...) *Urdulizko Villa-Odona etxea alokatuta duenez bere amaginarrebak, andrearekin batera, eta jabeari errenta ordaindu dionez urte honen amaiera arte, legezkoa da berriro okupatzea, kontratua desegiten ez den bitartean*”. Komandante militarrek hona zer adierazi zion Manuel Uribe alkateari: “*etxe hau itxita dagoenez, nire aginpidearen indarrez ondoriorik gabe geratu da itxiera hau eta, beraz, zure eginbeharra da errentaria haren jabetzan ipintzea*”<sup>633</sup>.

1937ko uztailaren erdialdean, alkateak erantzun zion *Bizkaiko Berreskurapen Zibilerako Batzordeak* eskatutako informazio eskaerari, eta zehaztu Urdulizen ez zela izan “(...) *ondasun higigarrien ezelango harrapaketarik gorri-separatisten denboraldian*”. Horregatik, udalburuaren ustez, ez zen eratu behar Batzorde horren Ordezkaritza bat herrian<sup>634</sup>; beraz, ez zuen Tokiko batzorde bat osatzeko izenen proposamenik bidali. Hala eta guztiz ere, abuztuaren amaieran, *Berreskurapen Zibilerako Batzordeak* ostera ere ekin zion udal urduliztarrari, eta berretsi herri guztietan eratu behar zirela “(...) *gure Ordezkaritzak, probintziako gobernadore zibil jaunak gure eskutan utzitako lana bete ahal izateko*”. Horregatik, atzera eskatu zion alkateari, bidal zezan “(...) *bere iritziz, (Tokiko) Ordezkaritza bat osatzeko egokienak ziren (...)*” pertsonen proposamena, modu horretan, *Berreskurapen Zibilerako Batzordea* probintzialak “(...) *izendapena*

630 GOROSPE, 262 or.

631 M.H.D.Z., P.S. Bilbo 217/2 “*Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda*”, Batzarreko akta 1934-4-8.

632 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029, “*Elizate honetako Biztanle errolda osatzen duten pertsonen zerrenda*” 1936-9-15.

633 U.U.A. “*Historikoa*”, 8. kaxa, *Plentziako Komandantzia Militarren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-7-5.

634 U.U.A. “*Historikoa*”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Berreskurapen Zibilaren Batzordeko Lehendakariari zuzendua* d/g.

eta jarraibideak aton” bidali ahal izateko<sup>635</sup>. Alkateak irailaren 1ean bidali zuen proposatutako pertsonen zerrenda:<sup>636</sup>

<b>URDULIZKO BERRESKURAPEN ZIBILERA KO ORDEZKARITZA ERATZEKO PROPOSATUTAKO PERTSONAK 1937-9-1</b> <sup>636</sup>
José Hormaza Unibaso
Jesús Echevarria Larrazabal
Antonio Larrabeitia Uribarri
Lino Garay Expósito
Lucio Ugarte Ansoleaga

Udalbatzaren, udal karguen eta entitate politikoaren errepresioari dagokionez, 1937ko abuztuaren 1ean, Sopelako Guardia Zibilaren postuko kabo Gregorio Gómez García idazki bat bidali zion Urdulizko alkateari, eta eskatu txosten bat bidal ziezaion, 48 orduko epean:

*“(…) con la actuación colectiva o individual de cada uno de (los) componentes (del Ayuntamiento) en el periodo rojo-separatista, así como los Comités Rojos y sus componentes.*

*Directivas de Sociedades obreras y partidos políticos, incluso Emakuneses (sic).*

*Juntas Investigadoras locales. Propagandistas y elementos sueltos destacados*”<sup>637</sup>.

Gure ustez, Sopelako Guardia Zibilaren postuan jaso zen txostena ez da udalerriko pertsona ospetsu zenbaiten aurka irekitako 639-37 auzian gordetzen denaren berdina. Hura Manuel Uribe alkateak idatzi zuen 1937ko uztailaren 30ean, eta susmatzen dugu orrialde bakarreko dokumentu hori luzeagoa izan zitekeela, edo Sopelako Guardia Zibilaren postura igorri zenaren txosten osagarri bat zela, non informazioa bere txostena osatzeko erabiliko zen. Badugu oinarri bat hori esateko: 4. Epaitegi Militarreko idazkari Rafael Sánchez Bacaren ziurtagiria; honek, bizilagunen izenak eta bakoitzaren kontrako akusazioak transkribatzean, hau adierazi zuen: “(...) salaketa-txosten originala (...) bere orri guztietan agertzen da Urdulizko Alkateak zigilatuta eta amaieran herri hartako Udaleko udalburuak sinatuta eta zigilatuta Alkatearen beraren zigiluarekin”<sup>638</sup>. Gainera, 1937ko abuztuaren 30eko txostena mekanografiatuta dago, eta 14 pertsonetatik 9k zuten kargua eskuz idatzirik erantsi ziren. Beharbada, datu horiek Epaitegian bertan gehitu ziren txosten desberdinak alderatzerakoan,

635 A.M.U. 246. kaxa, Bizkaiko Berreskurapen Zibilaren Batzordearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-8-26.

636 A.M.U. 246. kaxa, Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Berreskurapen Zibilaren Batzordeko lehendakariari zuzendua 1937-9-1.

637 A.M.U. 246. kaxa, Sopelako Guardia Zibilaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-8-1.

638 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, 4. Epaitegi Militarreko idazkariaren ziurtagiria 1937-8-9.

nahiz eta era berean posible izan Urdulizko Udaletxean bertan erantsi izana.

Hala izan edo bestela izan, osorik geratutako txostenaren gainean gutxienez ere esan dezakegu “harrigarria” dela “txosten-salaketa” moduan erabili zela kontuan hartuta. Udalburuak ez zuen dokumentuan azaltzen diren 14 pertsonen gaineko salaketarik egin, Urdulizek gerraren denboran bizi izan zuen errealitatea estaltzen ez zuen kontaketa baten ekarpena egin zuen, adierazi zuelarik zenbait agintari eta kargudunek egindako lana Elizateko ordena eta elkarbizitzaren mantentze lanetan, eta bertan zeuden eskuindarrei emandako babesa, Manuel Uribe berari gertatu bezala.

Uribek hasiera eman zion bere txostenari Urdulizko egoeraren inguruan berba eginez “gorri-separatistak nagusi” izan ziren bitartean, eta adierazi zuen ez zela egon “(...) salaketarik, atxiloketarik, etxeen miaketarik, arpilatzerik eta halakorik”. Urdulizen bizi zen lasaitasuna izan zen, haren hitzetan, herriaren ezaugarri nagusia, eta horrek eragin zuen udalerrian babes hartzea “*eskumako jende pila*” batek, eta horiek herrian bizi ahal izatea “*batere beldur barik (...), herriko giroak babestuta, argi eta garbi edozein atxiloketa mota ekiditearen aldekoa*”. Alkateak zerrenda bat gehitzen zuen; bertan zeudenak, itxuraz, “(...) nabarmendu ziren (...) atxiloketak ekiditeko eta eskuindarrak laguntzeko lanetan (...) eta eutsi zieten egon ziren burubero bakanei (...)”<sup>639</sup>.

Zerrenda horretan zeuden: Benito Otazua Artaza alkate ohia, Luis Navarro Torrontegui udal idazkaria, Serafín Sagarna Andra Mari elizako abade nagusia, Cipriano Iturregui, Tiburcio Llona eta Juan Abaroa zinegotziak -azken honi buruz aipatu zuen ez zela “(...) inoiz Udalaren bilkuretara joan”-, udal epaile Evaristo Renteria, EAJko zuzendaritza batzordeko bi kide, Lorenzo Unibaso eta Agustín Arteta, eta Tokiko Ikerketa Batzordeko kidea eta Ordena Publikoko zainzailea Juan Bautista Unibaso Echegaray<sup>640</sup>.

Gainera, beste lau izen gehitu zituen, eta luze eta zabal jardun zuen xehetasunetan. Esate baterako, Francisco Asla Goirigolzarritz kontatu zuen hiru bider galarazi zuela, “(...) Udaleko idazkari ) Luis Navarro jaunak eskatuta (...) herrikan kanpoko jendeek” atxiloketak burutzea. Pablo Menchaca Laraudogoitiaren gainean, berriz, “(...) On Luis Villabaso Zavaletaren zaindari partikular” gisa ibili zela, eskuindar bilbotarra bera. Herriko mediku Juan de Dios Zubicaray Valenciagari buruz esan zuen “(...) eskuindarrek uste oso onean zutela, lagundu egin zuelako aukera izan zuen guztietan”. Azkenik, bere osaba Rafael Uribe Uriarte aipatu zuen, Larrinagan preso zegoena, eta agertu zuen berarengandik etorri zela ordena publikoko zaindarien Ramón Uribe Echevarriari guardia egiteko ekimena, eskuindar hori “(...) Bilboko gorri batek heriotzaz mehatxatua” zegoelako<sup>641</sup>.

639 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Manuel Uribe alkatearen txostena 1937-7-30.

640 Ibid.

641 Ibid.

Hala eta guztiz ere, aipatutako txostenean ageri ziren 14 pertsonetatik, erdiak baino ez ziren auzipetu 639-37 auzian. Gainerakoez badakigu, barbarako, Rafael Uribe kartzelan zegoela, Tiburcio Lloná eta Francisco Asla geroago auzipetuko zituztela. Ez dirudi medikua atxilotu zutenik. Eta abade nagusia beranduago berba egingo dugu haren kasuaz beste toki batera aldatu zuten.

Beraz, eta ondorio modura: kontuan harturik 639-37 epaiketa labur-laburrean guztira 25 urduliztar epaitu zirela, derrigorrez Manuel Uriberen txosten luzeago bat egon behar zen, gordeko ez zena eta auzipetutako beste 18 urduliztarrei buruz berba egingo zuena. Argi geratzen dena da alkateak informazio osoa zuela atxilotutakoen afiliazioen gainean; beraz, gure ustea da eskuan izan zuela Urdulizko *Batzokian* konfiskatutako dokumentazioa. Barbarako, Juan Abaroa zinegotzi nazionalistaren portaera politiko-sozialaren ziurtagiriak, 1937ko uztailaren 17ko datarekin, jasotzen zuen izan zela “(...) *Euskal Nazionalismoaren kidea eta Udaletxe honetako zinegotzi nazionalista*”<sup>642</sup>. Herriko EAJren dokumentazioa bidalia izango zen, ohiko prozedura erabiliz, Ikerketa eta Zaintza Komisariara, erakunde horrexeri bidali behar zitzaizkion-eta alderdi politikoetako tanpoiak, akta liburuak eta bazkideenak<sup>643</sup>.

639-37 auzian 20 gizon eta 5 andrazko epaitu zituzten, horietako lau *Emakume Abertzale Batzaren* Tokiko Batzordeko kide. 20 gizonen artean udalbatza nazionalista gehien osatzaileak zeuden, EAJren Uri Buru Batzarreko kideak, udal enplegatuak, Ordena publikoko zaindariak edo herriko Ikerketa Batzordeko partaideak. Errepresioaren hasieran ohikoak izan ziren era honetako prozesuak, herritar multzo handia harrapatzen zituztenak. Esate baterako, 1937ko abuztuaren 11n gerra-kontseilu bat egin zen Plentziako 41 bizilagunen aurka: 14 andrazko y 27 gizon<sup>644</sup>; hil bereko 9an Mungiako bederatzi bizilagun epaitu ziren, zinegotziak izateagatik, Tokiko Defentsa Batzordeko kideak eta “(...) *atxilotetak, errekiak eta beste bidegabekeriak*” egin izanagatik<sup>645</sup>.

Ez dakigu 25 urduliztar hauek noiz atxilotu zituzten, baina kontuan harturik deklarazio gehienak abuztuaren 5ean egin zirela, susmoa dugu atxiloteta uztailaren amaieran izan zela. Epai kondenatzailea hilabete bereko abuztuaren 13an dekretatu zen. Nahiz eta gizonentzako Fiskal Buruak, abuztuaren 11n, biziarteko kartzela eskatu matxinadarekiko atxikimenduagatik<sup>646</sup>, epaian ezarri zen zigorra hamabi urte eta egun batekoa izan zen matxinadari laguntza emateagatik, Martín Aldecoa eta Fernando Sáenz Mendizabalen salbuespenarekin, batean zein bestean ez zitzaizenez deliturik aurkitu, erabaki

---

642 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Juan Abaroa Goirigolzarri buruzko ziurtagiria, Urdulizko alkate Manuel Uribek egina 1937-7-17. Ziurtagiri horretan, halaber, esaten da Abaroak beti izan zuela “(...) portaera bikaina, pertsona artez-arteza delako, eta diruz zor bakoa”. Gainera, “(...) eskumakoen alde egin zuen gorri-separatistak nagusi izan zirenean”.

643 AROSTEGUI, 176 or.

644 *La Gaceta del Norte* 1937-8-12.

645 *La Gaceta del Norte* 1937-8-10.

646 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Okupazioko Armadako fiskal buruaren eskaera 1937-8-11.

zen behin-behineko artxibatzea. Hizketa modu frankistan, “*Matxinadarekiko atxikimendua*” edo “*laguntza*” esateak Errepublikaren defentsa eta altxatutako militarren aurka egon izana esan nahi zuen. Beste alde batetik, lau *emakumeak* sei urte eta egun batera zigortu zituzten matxinadara bultzatzeagatik. Auzipetutako bosgarren emakumea, Celsa Salgado, absolbitua izan zen frogatuztat jo baitzen ez zuela “(...) *inongo delituzko ekintzarik egin*”<sup>647</sup>. Azkenik, udal idazkariaren aurkako prozedura auzi horretatik banandu zen eta 7. epaile bereziari igorri zitzaion, harexek zuelako “*esleiturik funtzionario publikoen arloko eskumena*”<sup>648</sup>. Hona hemen auzipetuak:

<b>AUZIPETUAK ETA AKUSAZIOAK 639-37 AUZIAN</b> <sup>649</sup>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>AKUSAZIOA</b>	<b>ZIGORRA</b>
Manuel Menchaca Gorordo	Euskal nazionalista. Alkateordea. Eskumen arerioa	12 urte eta egun bat matxinadari laguntza emateagatik
Benito Otazua Artaza	EAJko afiliatua. Alkatea, Enrique Legarra kargugabetuta	Ídem.
Enrique Legarra Beascochea	EAJko afiliatua. Alkate ohia eta Urdulizko Tokiko Batzordeko burua. Auto eta irrati aparatu batzuk errexisatu zituen.	Ídem.
Prudencio Aspiazu Abarrategui	Komunista. Zinegotzia	Ídem
Cipriano Iturregui Urrutia	EAJko afiliatua. Zinegotzia	Ídem.
Juan Abaroa Goirigolzarri	EAJko afiliatua. Zinegotzia	Ídem.
Juan Luis Torrontegui Egusquiza	Aguazila. Ordena Publikoko zaindari ibili zen.	Ídem.
José Luis Laraudogoitia Arteta	Euskal nazionalista. Tokiko Batzordeko idazkaria. Bertako Batzokiko idazkaria.	Ídem.
Evaristo Rentería Zabala	Euskal nazionalista. Udal epailea.	Ídem.
Andrés Inchaurtieta Arambalza	EAJko afiliatua. Buruberoa. Herriko Ikerketa Batzordeko lehendakaria.	Ídem.

647 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Epaia* 1937-8-13.

648 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Epaile militarren probidentzia* 1937-8-9.

649 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, 4. *Epaitegi Militarreko idazkariaren ziurtagiria*, 1937-8-9, *Epaia* 1937-8-13, eta *Gerra-auditorearen erabakia* 1937-8-14. Izen-abizenak dokumentuan agertzen diren bezala transkribatu dira.

<b>AUZIPETUAK ETA AKUSAZIOAK 639-37 AUZIAN</b>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>AKUSAZIOA</b>	<b>ZIGORRA</b>
Benigno Fullaondo Lopategui	EAJko afiliatua. Secretario de Herriko Ikerketa Batzordeko idazkaria. EAJren Uri Buru Batzarreko kidea. Ordena Publikoko zaindari ibili zen.	Ídem.
Juan Bautista Univaso Echegaray	EAJko afiliatua. Herriko Ikerketa Batzordeko kidea. Ordena Publikoko zaindari ibili zen.	Ídem.
Agustín Arteta Zabala	EAJko afiliatua. EAJren Uri Buru Batzarreko lehendakaria.	Ídem.
José Vicente Garaizar Larrazabal	EAJko afiliatua. Buruberoa. EAJren Uri Buru Batzarreko bitarteko idazkaria.	Ídem
Lorenzo Univaso Echegaray	EAJko afiliatua. EAJren Uri Buru Batzarreko kidea.	Ídem.
M <sup>a</sup> Ángeles Garaizar Rentería	Emakumeen Tokiko Batzordeko idazkaria.	6 urte eta egun bat matxinadara bultzatzeagatik
Felisa Arambalza Abarrategui	Emakumeen Tokiko Batzordeko lehendakaria.	Ídem.
Julia Iñiguez	Emakumeen Tokiko Batzordeko kidea.	Ídem.
Manuela Menchaca Navarro	Emakumeen Tokiko Batzordeko kidea.	Ídem.
Martín Aldecoa Goirigolzarri	Euskal nazionalista. Boluntarioa hasieran, utzi egin zuen kontu serioa zela ikustean.	Behin-behineko largespena 1937-8-14
Fernando Sáenz Mendizabal	Udatiarra. Miliziano boluntarioa, utzi egin zuen kontu serioa zela ikustean.	Ídem.
Juan José Gurruchaga	Nazionalista. Ordena Publikoko zaindaria.	12 urte eta egun bat matxinadari laguntza emateagatik
Ciriaco Ansoleaga Sistiaga	Nazionalista. Ordena Publikoko zaindaria.	Ídem.
José María Bilbao Alboniga	Nazionalista. Ordena Publikoko zaindaria.	Ídem.
Celsa Salgado Rodríguez	Gorria. Eskumako pertsona baten ustezko salataria.	Errugabetua
Luis Navarro Torrontegui	Urdulizko Udaleko Udal Idazkaria	Auzi honetatik banandua 1937-8-9.

Alde batetik, Informazio Zerbitzuaren Bilboko Ordezkaritzak abuztuan txosten zehatza eskatu zion Urdulizko Udalarri, “(...) 1936ko uztailaren 18tik herria askatu zen egunera arteko denboraldian” udalerrian gertatutakoari buruz. Eskaera horren helburua zen Urdulizen garai horretako atxilotu posibleen eta atxiloteta horien arrazoen zerrenda lortzea, eta beste zerrenda bat “*indarrez edo bere borondatez*” ebakuatutakoena. Bestetik, Informazio Zerbitzuak jakin gura zituen maisu-maistren izenak matrikulatutako umeenak, kuartelik izan bazen han ibili ziren gizonak, ospitaleratuen izenak eta arrazoiak, udalerrian osasun instalaziorik izanez gero. Era berean eskatu zion Erregistro Zibilean inskribatutako heriotzen zerrenda eta eliza guztietako “(...) *abadeen izenak, egoera eta gorabeherak*”, baita erlijiosoena ere udalerrian konbenturik baldin bazen<sup>650</sup>.

Alkateak bere txostena bidali zuen, abuztuaren 19ko datarekin, eta zehatu Urdulizen ez zela “(...) *atxiloteta kasu bakarrik ere izan*”, Andra Mari parrokiako abadeei ez zitzaiera “(...) *enbarazurik egin*” eta udalerriko hiru eskoletan “*Intendentziako kuartelak*” egon zirela. Eskolei buruz datu faltsu bat gehitu zuen, ziurtatzen baitzuen gerra bitartean ez zutela funtzionatu. Txosten horretan, ordea, interesgarriena da une haietan oraindik “(...) *ebakuatuta eta gorrien lurraldean edo atzerrian dauden*” andrazko eta gizonen izenen zerrenda. Guztira, 52 urduliztar eta behin-behineko bizilagun, 28 andrazko eta 24 gizon, oraindik ez ziren euren Urdulizko etxebizitzetara bueltatu<sup>651</sup>. Batzuk atzerrian zeuden, besteak beste Pedro Goirigolzarri edo Juan Estraderen alarguna, Raquel Alda eta seme-alabetako lau. Beste batzuek, hurrean, Bizkaitik irtengo zuten Kantabria aldera.

Udal enplegatuen depurazioari dagokionez, 1936ko abuztuaren 21ean, Udalak batzorde bat sortu zuen horretarako, Manuel Uribe alkateak eta zinegotzi eta etorkizuneko alkate Amancio Nievak osatua<sup>652</sup>. Batzordearen irizpena udalbatza osoak onetsi zuen urriaren 9an. Haren ondorioz, kargugabetuak gertatu ziren Juan Luis Torrontegui aguazila eta Pablo Menchaca arielen zeladorea. Torrontegui, esan bezala, 12 urte eta egun batera kondenatua izana zen abuztuaren 13an. Menchacari dagokionez, geroago izango dugu haren patuaren berri<sup>653</sup>.

---

650 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Estatuburu txit gorenaren Informazio Zerbitzurako Idazkaritzako Ordezkaritzaren mezua* d/g. (1936ko abuztua).

651 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Estatuburu txit gorenaren Informazio Zerbitzurako Idazkaritzako ordezkaritari zuzendua – Bilbo 1937-8-19*.

652 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-8-21.

653 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-10-9.



Berriz, 1937ko ekainaren 21ean eraturako Aldundiak egun berean dekretatu zuen “(...) Aldundiko enplegatu guztien kargugabetze orokorra. Behartuta daude euren postuetan gelditzera eta lau eguneko epea izango dute Aldundira itzultzea eskatzeko eskutitz baten bidez”. Aritz Ipiñak iradokitzen duenez, “(...) praktikoagoa zen langile guztiak kargugabetzea eta euren burua pekatu bako zutenek itzulera eskatzea eta euren portaera onaren bermeak bilatzea, enplegatu probintzial guztien aurkako espedienteak ireki eta haien kontrako frogak biltzea baino”. Askok ez zuten itzulera eskatzeko eskutitzik bidali Aldundiak ezarritako epean; beraz, honek behin betiko kargugabetu zituen, argudiatuz lanpostuetan huts egin zutela eta Errepublikaren kontrolpeko eremuetara ihes egin zutela<sup>654</sup>. Ikusiko dugun bezala, irakasle mordo batek epea behin igarota zegoenean izan zuen bere kaleratzearen eta Aldundiak ezarritako baldintzen berri, Landako maistra María Luisa Leivar Olanori jazo zitzaion legez. Auzo-eskoletako maisu-maistrak izan ziren ekainaren 21eko kaleratzearen sektorerik kolpatuenetako bat, besteak beste Miñoien Kidegoko kideekin batera. José María Egusquiaguirre miñoia, Urdulizko bizilaguna, kargugabetu zuten 1936ko ekainaren 28an. Haren kontrako akusazioak: “*ekintzako separatista izatea*”, Areatzako bizilagun eskuindarrak jazartzea eta “(...) harrapaketan ibili izana, susmoa dagoelarik nolabaiteko ekintza kriminalean parte hartu duela”<sup>655</sup>.

*Zigorrek Lanaren Bidez Ordaintzeko Tokiko Batzordearen* eraketari dagokionez, badakigu 1939ko martxoan oraindik eratu gabe zegoela, eta, beraz, alkateak betetzen zituen haren eginkizunak. Modu horretan, Batzorde Zentralak “(...) *Bizkaiko Aurrezki Kutxaren bitartez*” igorri zion Juan Bautista Unibaso Echegarayren senideei zegozkien 112'50 pezetako zenbatekoa “(...) *azken otsailean (...) eskainitako lanengatik*”, eta kontzeptu beragatik, 72 pezeta Enrique Legarraren familiari. Bi dokumentuetan ohartarazten zitzaion alkateari “(...) *premiazkoa (zela) Tokiko Batzordea eratzeko proposamena bidaltzea*”<sup>656</sup>. 1939ko apirilaren hasieran, alkateak proposaturako izenak eman zituen Zigorrek Lanaren Bidez Ordaintzeko Tokiko Batzordea osatzeko: “*On Tiburcio Madariaga Arana Alkatetza honen ordezkari gisa, On Martín Gastelu-Urrutia, Abade jaunaren ordezkari gisa eta María Azumendi Arbide anderea Idazkari gisa*”<sup>657</sup>. Medikuaren emaztea zen azken hori<sup>658</sup>.

---

654 IPIÑA BIDAURRAGA, Aritz: “*Abolición del Concierto Económico y depuración franquista del personal de Arbitrios de la Diputación Provincial de Vizcaya. 1937-1940*” in *Haciendas Forales: 30 años de Concierto Económico y perspectivas de futuro*, Bilbo, Ad Concordiam, 2011, 153-154 or.

655 B.F.A.H. AJ 02562/004, *I Miñoien Kidegoko klase eta norbanakoen zerrenda, bakoitzaren portaera adieraziz, behean sinatzen dutenen txostenaren arabera 1937-7-9*.

656 A.M.U. 246. kaxa, *Zigorrek Lanaren bidez luditzeako Patronatu Nagusiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-3-20*.

657 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Zigorrek Lanaren bidez luditzeako Batzorde Nagusiko lehendakariari zuzendua – Gasteiz 1939-4-3*.

658 A.M.U. 246. kaxa, *Zigorrek Lanaren bidez luditzeako Patronatu Nagusiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-3-20*.

## 2.3 Udaltzako demokratikoaren aurkako prozesua

### 2.3.1 Zinegotzi gehienek atxilotuta eta auzipetzea

Pedro Goirigolzarri, Juan José Camiruaga eta Tiburcio Llona Menchaca zinegotzien salbuespenarekin<sup>659</sup>, Udaltzako kideak, Benito Otazua alkateak buru egiten zuela, atxilotu zituzten eta presondegira eroan. 1937ko abuztuaren 5ean deklaratu zuten. Udalkide guztiei, esan dugun legez, 12 urte eta egun bateko kondena ezarri zitzaizen 1937ko abuztuaren 14an delitu honengatik: matxinadari laguntza ematea. Dena dela, ez ziren betetzera iritsi, ikusiko dugun legez, kondena aldatua eta apaldua izan zelako.

Zerbait atzerago aletzen joan gara Enrique Legarrak, Benito Otazuak eta Prudencio Aspiazuk gerra-kontseiluaren aurrean egindako deklarazioak. Euren aitorenpenetan, hirurek aipatu zuten eskumako jendea, beraiegangandik hartutako babesaren lekukotasuna eman zezakeena.

**Enrique Legarra Bengoechea**, Sopelan jaioa eta lanbidez errementari, Bilboko Probintziako Presondegian egon zen 1938ko maiatzaren 16a arte, eta data horretan lekualdatu zuten Segoviako Cuellarko Presondegi Nagusira<sup>660</sup>. Preso euskaldun andana bat “*Upo Mendi*” preso-ontzian egon zen, Vigoko Itsasadarrean porturatuta, San Simón uhartetik gertu. Legarra han egondakoen zerrendan azaltzen da, baina ez dakigu zer egunetan egon zen han<sup>661</sup>. Ostera badakigu 1939ko urriaren 24an Santa Ritako Presondegian<sup>662</sup> sartu zutela, Carabanchel Bajon (Madril). 1940ko ekainaren amaieran, Bilboko Gerra-auditoretzak presondegi horretarako bidali zuen espetxetik ateratzeko agindua<sup>663</sup>. Zigorak Aztertze Probintziako Batzordeak ordeztu zion 1937ko abuztuan ezarritako kondena eta beste zigor bat finkatu: urte biko espetxealdi txikia<sup>664</sup>. Horrek esan nahi zuen Legarrari ezarritako kondena beteta geratua zela 1939ko abuztuaren 4an. Libre geratu zen, beraz<sup>665</sup>.

659 Ez dakigu zein zigor ezarri zioten Tiburcio Llona zinegotziari ez baitugu bere prozesamendua topatu. Suposatzen dugu 12 urte eta egun batekoa izango zela. Pedro Goirigolzarriren kasuan, atzerrian zegoen, eta Juan José Camiruaga tropa frankistei aurkeztu zitzaizen Gordexolan, 1937ko ekainaren 26an.

660 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Probintziako Presondegiko zuzendariaren mezua, Bilboko 1. epaile militar dekanari zuzendua 1938-5-16*.

661 BADIOLA ARIZTIMUÑO, Asunción: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937 – 1940)*, Donostia, Txertoa, 2011, 74-75 eta 267 or.

662 A.A.O Funtsa: *Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, Enrique Legarra Bengoechearen fitxa (sinadura barik)*

663 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Santa Ritako presondegiko zuzendariari zuzendua, Carabanchel Bajon (Madril) 1940-6-24*.

664 *Ibid. Enrique Legarra Bengoechearen gaineko ordezkatzeko-proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1943-8-30*. Probintziako Batzordeak espetxetik ateratzeko irizpena eman zuen 1940ko ekainean, baina Batzorde Zentralak 1943an baietsi zuen ordezte.

665 *Ibid. Enrique Legarra Bengoechea akusatua kondenaren denboraren kitapena 1950-1-18*.

**Benito Otazua Artaza** kartzelaturik zegoen Astorgako Presondegia Nagusian, Leongo probintzian, Zigorak Berrikusteko Probintziako Batzordeak espetxetik ateratzeko agindua eman zuenean<sup>666</sup>. Halaxe egin zuen 1940ko ekainaren 27an, “(...)presondegia arinduaren onurak aitortu zitzaizkion (-eta), bere etxebizitzan”, Ansonen baserrian bete zitzaizkion<sup>667</sup>. Enrique Legarraren kasuan legez, aurretiko zigorra urte biko espetxealdi txikiarekin ordezkatu zen<sup>668</sup>, era berean kondena iraungita lagatzen zuelarik Legarraren egun berdinean<sup>669</sup>. Hau ere “Upo-Mendi” preso-ontzitik igaro zen, nahiz eta ez dakigun zehazki noiz<sup>670</sup>.

**Prudencio Aspiazu Abarrategiaren** espetxealdia 1937ko abuztuaren kondena izan zenetik, Bilboko Probintziako Presondegian hasi zen, eta bertan egon zen 1938ko abuztuaren 3an Puerto de Santa Maríako Presondegia Nagusian (Cádiz) sartu zuten arte. Urte bereko abenduaren 5ean Huelvako Probintziako-Presondegira lekualdatu zuten eta 1940ko urtarrilaren 19an, bere fitxa azaltzen denez, “(...) *Sevillara lanera*” bidali zuten<sup>671</sup>, hau da, Dos Hermanasko Espetxe Kolonia Militarizatura eroan zuten; bertan Guadalquivir Barrenako Kanalaren eraikuntzan lan egitera behartu zuten, “*Presoen kanala*” legez ezagutzen zen obra hidraulikoa. Dos Hermanasko espetxean zegoenean, Probintziako Batzordeak hasierako zigorra sei hilabeteko espetxealdi txikiagatik ordezkatzeko proposatu zuen, baina Batzorde Zentralak proposamena atzera bota zuen, eta hiru urteko espetxealdi txikia ezarri zioten 1940ko maiatzaren 24an<sup>672</sup>. Abuztuaren 4an irten zen kartzelatik, hain zuzen ere, maiatzean ezarritako zigor berriarekin kondena iraungita geratzen zen egunean<sup>673</sup>.

**Manuel Menchaca Gorordo** itsasgizona udalbatzako kiderik edadetuena zen, 65 urte baitzituen atxilotu zutenean. Epaileari egindako deklarazioan, Menchacak bere burua defendatu zuen esanez inoiz ez zela ez EAJko ez beste alderdiren bateko afiliatua izan eta zinegotzi independente gisa aukeratu zutela 1933ko hauteskundeetan, “*gehienek aldeko botoa emanda*”, eta alkateorde kargua bete zuela “(...) *Bilbon indar espainolak sartu ziren arte*”. Bere gainontzeko lagunen moduan, argudiatu zuen bere agintaldian ez ziola eragin “(...) *inolako kalterik eskumako jendeari*”, eta bere aitortpena berretsi

---

666 Ibid. *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Astorgako presondegia nagusiko zuzendariari zuzendua* 1940-6-24.

667 Ibid. *Astorgako presondegia nagusiko zuzendariaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua* 1940-6-27.

668 Ibid. *Benito Otazua Artazaren gaineko ordezkatzeko-proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria* 1943-9-14. Enrique Legarrari bezala jazo zitzaion: Probintziako Batzordeak 1940ko ekainean atera zuen Otazua espetxetik, eta Batzorde Zentralak 1943an onetsi zuen zigorra ordezte.

669 Ibid. *Benito Otazua Artaza akusatua kondonaren denboraren kitapena* 1944-10-10.

670 BADIOLA ARIZTIMUÑO, 267 or. Zerrenda honetan lehen abizena txarto idatzita agertzen da, “*Otaolaza Artaza, Benito*”.

671 A.A.O Funtsa: Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, *Prudencio Aspiazu Abarrategiaren fitxa* (sinadura barik)

672 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Prudencio Aspiazu Abarrategiaren gaineko behin betiko ebazpenaren ziurtagiria* 1940-5-24.

673 Ibid. Dos Hermanasko Espetxe Kolonia Militarizatuko 1. Multzoko buruaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua 1940-8-4.

zezaketen pertsonen artean aipatu zituen Juan Uribe burtsa agentea eta Víctor Urrutia botikaria, *“biak eskumakoak”*<sup>674</sup>. Epaiaren ostean, Manuel Menchaca Bilboko Probintziako Presondegian egon zen 1937ko Gabonen bezpera arte, Segoviako Espetxe-ospitalera eroan zuten-eta<sup>675</sup>. 1940ko ekainaren 6an Zigorak Aztertzeako Batzorde Zentralak itsasgizon urduliztarraren kondena aztertzeari ekin zion eta erabaki zuen proposatzea zigorra ordezkatzeta bi urte eta hamar hilabeteko espetxealdi txikiaren kondena berriarekin; beraz, hori beteta geratua zen 1940ko ekainaren 4an<sup>676</sup>. Horrek Menchaca espetxetik ateratzea ekarri zuen. Egun haietan beste kartzela batean zegoen, Palentziako probintziako Venta de Bañosko San Isidro de Dueñas Presondegi Berezi Nagusian. Ekainaren 30ean jaso zen espetxetik ateratzeko agindua hilaren 24ko datarekin eta *“(…) zigortua espetxetik atera zen (...) presondegi arinduarekin bere etxebizitzan, Zigorak Aztertzeako Probintziako Batzordeak proposatutako kondena-denbora bete izanagatik”*. Manuel Menchaca 67 urtetan bueltatu zen Urdulizera eta bertan ezarri zuen bere bizitokia, Bilboko gerra-auditoreari San Isidro de Dueñasko kartzelako zuzendariak azaldu zionez<sup>677</sup>.

**Cipriano Iturregui Urrutia** zinegotzia EAJko afiliatua izana zen, baina, deklaratu zuenez, 1936ko otsaileko hauteskundeen ostean *“(…) alderditik bota zuten eskumari botoa emateagatik”*. Beste alde batetik, azaldu zuen bera afiliatu zela *“(…) nahitaezkoa (zitzaiolako) afiliatzea bizi den auzorako (Dobaran) oso beharrezko obra lortzearen; (...) auzo-errepide baten eraikuntza”*. Iturreguien beraren arabera, Udaletxean zinegotzi moduan, eskumakoen ordezkari gisa jardun zuen, eta honako hau erantsi zuen: *“(…) Udalean ez du ezertan esku hartu, eskuindarra izateak galarazten ziolako berak nahi bezala jokatzeta”*. Bere lekukotasuna egiaztatzeko Urdulizko eskumako hiru pertsona aipatu zituen: Bernardino Bilbao, Juan Uribe eta Manuel Egusquiza<sup>678</sup>. Azaldutako argudioek ez zioten ezertarako balio izan Iturreguiari, eta bere gainerako kideen zigor berera kondenatu zuten. Zorigaitzak berriro ere kolpatu zuen Cipriano Iturregui, bere semearen heriotzaren ostean, Ángel Iturregui *gudaria* Elgetako frontean hil zutelako 1937ko urtarrilean. 1940ko ekainean onartu zitzaion *“(…) presondegi arindua bere etxean egiteko onura”*, Txomintxuena baserrian, beraz. Zinegotzi ohia Astorgako Presondegi

---

674 I.T.A.M. Bilboko Funtza, 639-37 auzia, Manuel Menchaca Gorordoren ikerketa-deklarazioa 1937-8-5.

675 Ibíd. Bilboko Probintziako Presondegiko zuzendariaren mezua, Bilboko 1. epaile militar dekanuari zuzendua 1937-12-23.

676 Ibíd. Manuel Menchaca Gorordoren gaineko ordezkatzeta-proposamena 1940-6-6.

677 Ibíd. San Isidro de Dueñasko Presondegi Nagusi Berezi zuzendariaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua 1940-6-30.

678 Ibíd. Cipriano Iturregui Urrutiaren ikerketa-deklarazioa 1937-8-5.

Nagusian zegoen<sup>679</sup> espetxetik ateratzeko agindua heldu zenean. Hilak 27 egin zituela atera zen espetxetik<sup>680</sup>, aurreko zigorra sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiagatik ordezkatu ondoren<sup>681</sup>.

**Juan Abaroa Goirigolzarrik** 48 urte zituen atxilotu eta deklarazioa eman zuenean. EAJko afiliatua izanagatik, ezin izan zuen zehaztu zer egunetan sartu zen alderdi abertzalean “(...) ez baitu inongo kuotarik ordaindu eta ez daki esaten bere emazteak edo alabek ordaindu duten”. Hauteskundeetan zinegotzi aukeratuta, bere karguan mantendu zen “(...) Bilbon soldaduak sartu ziren arte”. Urdulizko eskumako jendearenganako bere jokaera aldekoa izan zen, eta kontatu zuen “(...) eskuindarrei okela emateko agindua eman (zuela) eta berak helarazten”. Juan Uribek edo Víctor Urrutiak bermatu zezaketen haren deklarazioa, antza horren onuradunak izan zirelako<sup>682</sup>. 1940ko maiatzean Zigorrak Aztertzeako Probintziako Batzordeak 12 urte eta egun bateko hasierako zigorra sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiarekin ordezkatzeari proposatu zuen. Hala eta guztiz ere, Batzorde Zentralak urte biko espetxealdi txikira igo zuen azken zigorra<sup>683</sup>. Hau da, kondenaren amaiera 1939ko abuztuaren 4erako finkatuta geratu zen<sup>684</sup>, aurreko kasuetan bezala zinegotzi ohiaren askatasuna zekarrena. Modu horretan, Juan Abaroa Huelvako Probintziako Presondegitik irten zen<sup>685</sup> 1940 ekainaren 6an, “(...) ezarritako zigorra soberan beteta”<sup>686</sup>. Denbora gutxi izan zuen askatasunaz gozatzeko, 50 urterekin hil baitzen Abaroa, 1941eko otsailaren 8an<sup>687</sup>.

---

679 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori Herri-Urbe Kosta*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002, 262 or., liburuan agertzen denez, Cipriano Iturregui labor egon zen Bilboko Karmeldegiko presondegian. “Upo-Mendi” preso-ontzira bidali zuten gero. Handik Puerto de Santa Mariako penalera eroan zuten (Cádiz) “(...) eta azkenik, Huelvako presondegira”. Ez da aitatzen Astorgako presondegiko egonaldia, ikerlan honetan dokumentatu duguna. Bestalde, “Upo-Mendi”n egondako euskal presoekin liburu honek argitaratutako zerrendan agertzen da: BADIOLA ARIZTIMUÑO, Asunción: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937 – 1940)*, Donostia, Txertoa, 2011, 267 or.

680 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Astorgako Presondegi Nagusiko zuzendariaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua* 1940-6-27.

681 *Ibid.* Cipriano Iturregui Urrutiaren gaineko ordezkatzeari proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1944-1-31.

682 *Ibid.* Juan Abaroa Goirigolzarriren ikerketa-deklarazioa 1937-8-5.

683 *Ibid.* Juan Abaroa Goirigolzarriren gaineko behin-betiko ebazpenaren ziurtagiria 1940-6-24.

684 *Ibid.* Juan Abaroa Goirigolzarri akusatua kondenaren denboraren kitapena 1940-6-1.

685 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori Herri-Urbe Kosta*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002, 262 or., liburuan agertzen da ezen, Cipriano Iturregui jazo zitzaion bezala, Juan Abaroa, Bilboko Karmeldegiko presondegitik pasatu eta gero “Upo-Mendi” preso-ontzira bidali zuten. Handik Puerto de Santa Mariako penalera eroan zuten (Cádiz) eta azkenik, Huelvako presondegira. Bestalde, “Upo-Mendi”n egondako euskal presoekin liburu honetan argitaratutako zerrendan agertzen da: BADIOLA ARIZTIMUÑO, Asunción: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937 – 1940)*, Donostia, Txertoa, 2011, pág. 265.

686 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Huelvako Probintziako Presondegi zuzendariaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua* 1940-6-6.

687 *Ibid.* Heriotza-aktaren ziurtagiri laburtua 1950-2-16.

### 2.3.2 Tiburcio Llona Egusquiza eta Juan José Camiruaga Gorordo zinegotziak

Ez dugu lortu **Tiburcio Llona Egusquizaren** aurkako auzia aurkitzea. Bakarrik dakigu 1937ko irailean Santoñan preso zegoela. Kantabriar herriko Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordeak zinegotzi abertzalearen gaineko txostenak eskatu zizkion, irailaren 5ea, Urdulizen existitzen ez zen Guardia Zibilaren postu bati<sup>688</sup>. Manuel Uribe orduko alkateak oso aldeko txostena eman zuen eta adierazi Tiburcio Llonaren jokabidea “(...) *gutziz ona* (izan zela) *Mugimendu Nazionala bitarte bere jarrerarekin, zinegotziek lagunduta, eskumako jendearen atxiloketak gauzatzea ekidin baitzuten (...)*” lagunduz ere “(...) *jatekoari zegokionez*”<sup>689</sup>.

**Juan José Camiruaga Gorordo** zinegotzia Urdulizen geratu zen 1937ko maiatzaren 14a arte. Egun hartan, “(...) *soldadutzara eroan zuten bere kintari deituta (...)*”, *hain zuzen ere* Arana Goiri Batailoian metrailadoreetako ohatilari. Bere lekukotzari jarraituz, Camiruaga “(...) *El Galloko frontearen egon zen 3 egunez, Areatzan 22 egun, Untzuetan egun 1, Okendon egun 1, Gordexolan 7 egun, eta hauen ostean tropa nazionalak sartu ziren herri horretan (...)*”<sup>690</sup>. 1181-37 auziko dokumentazioan jasotzen denez, zinegotziak “(...) *itxaron zion tropa nazionalen sarrerari, eta haien aurrera aurkeztu zen*” ekainaren 26an<sup>691</sup>. Handik Lizarrara eroan zuten, non Presoen Sailkapen Batzordeak erabaki zuen uztailaren 21ean atxiloturik jarrai zezan eta eginbideak ireki zekizkion<sup>692</sup>.

Urte amaieran, 1937ko abenduaren 29an, Bilboko 12. epaile militarren aurreran deklaratu zuen, eta Lizarran egindako bere deklarazioak berretsi, hau da, “(...) *behartuta joan zela soldadutzara*”, eta Arana-Goiri Batailoian “(...) *miliziano hutsa izan zela*”. Beste alde batetik, adierazi zuen EAJkoa zela 1932az geroztik eta alderdi horretako zinegotzia izana zela. Gainera, Gerra bitartean, Ordena Publikoko zaindari ibili zen. Zaindari hauen lana, aurrerago ikusiko dugun legez, “(...) *gehiegikeriak egin zitezen (...)*” ekiditera mugatu zen Urdulizen, eta eskumako jendea babestera. Modu horretan, Camiruagak nabarmendu zuen, Ordena Publikoko zaindari gisa, ibili zela “(...) *eskumako jende ugari babesten euren aurkako gehiegikeriak ez betetzeko*”, eta honen lekukotza eman zezakeela “(...) *Uribe familiak, zenbaitetan babestu zutena*”<sup>693</sup>.

688 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko Guardia Zibilaren postuko komandanteari zuzendua* 1937-9-5.

689 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Alkatearen txostena eta mezua, Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko komandante buruzagiari zuzendua* 1937-9-13.

690 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, *Presoak Sailkatzeko Lizarrako Batzordearen akta* 1937-7-21.

691 Ibíd. *Juan José Camiruagaren fitxa, Presoak Sailkatzeko Lizarrako Batzordeak egina.*

692 Ibíd.

693 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, *Juan José Camiruaga Gorordoren ikerketa-deklarazioa* 1937-12-29.

1938ko urtarrilaren 25ean, Bilboko 3. Gerra-kontseilu Iraunkorrek, erabaki zuen “(...) Behin-behineko prozeduraren largespena (...)” Juan José Camiruaga eta beste hiru presorentzat, “(...) garrantzi penalik ez dutelako egozten zaizkien egitateek (...)”<sup>694</sup>. Auditoreak erabaki hori berretsi zuen 1938ko martxoaren 5ean, eta 4 atxilotuak geratu ziren “(...) Kontzentrazio-esparruetako koronel buru jaunaren eskura, 1937ko martxoaren 11ko Aginduaren B ataleko sailkatuak bezala (...)”<sup>695</sup>. Agindu hark 4 atal zeuzkan, eta B atalean zeuden bere borondatez armada errepublikarra loditu zuten haiek, baina ardura sozial edo politikorik ez zeukatenak.

Akordio hau igorri eta zenbait egun geroago, Eskolapioetako Presondegiko zuzendariak jakinarazi zion Bilboko 1. Epaille militar iraunkorrari lau preso Kontzentrazio-esparruetako koronel buruaren eskuetan jarri zirela, bosgarren bat aske utzi zela eta Juan José Camiruaga ez zegoela kartzela hartan<sup>696</sup>. Zinegotzi urduliztarra, itxuraz Larrinagako Espetxean zegoen, kontuan hartzen badugu Camiruagaren kontrako prozesuko dokumentuetako batean arkatzez idatzita zegoela espetxe horren izena<sup>697</sup>.

### 2.3.3 Pedro Goirigolzarri alkate ohi eta zinegotzia

**Pedro Goirigolzarri Arambalza** alkate ohi eta geroagoko zinegotzia, ez zen 1937ko abuztuan auzipetua izan Udalbatzako kide gehienekin batera, atzerrian zegoelako urte hartako maiatzaren hasieratik. Goirigolzarri, badakigunez, Sota y Aznar itsas-konpainiako kapitain ikuskatzailea zen, eta kargu hori zela-eta “ez zen Kapitainen txandan sartzen ontziratzeko”; beraz, 1925az geroztik ez zuen nabigatzen. Baina “1937ko maiatzaren lehengo egunetan, (...) izendatu zuten (...) “Goiceco-lzarra” (sic) aisiako ontzia agintzeko, orduan Euzcadiko (sic) Gobernuak errekisatua zegoena”. Aguirrerren gobernuak “(...) On Ramón de la Sota itsasontziaren jabearekin bat eginda, eroan behar zuen eskifaia izendatu zuen (...)”. Alkate ohiak deklaratu zuen ez ziola izendapenari kontra egin:

*“(...) dadas las circunstancias que por entonces se atravesaban y el mucho tiempo que llevaba empleado en la Naviera Sota, pero sí hizo manifiesto su desagrado verbalmente al gerente por tal destino (...)”*<sup>698</sup>.

---

694 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, 3. Gerra-kontseilu Iraunkorren erabakia 1938-1-25.

695 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, Auditorearen erabakia 1938-3-5.

696 A.I.M.N Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, Eskolapioetako Presondegiko zuzendariaren mezua, Bilboko 1. epaille militar iraunkorrari zuzendua 1938-3-9.

697 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1181-37 auzia, Burgosko Gerra-auditoretzaren mezua 1938-8-17. Oharra dokumentuan agertzen den dataren ostekoa dela segurutzat jotzen dugu, oraindino ez zelako gauzatua Lizarratik Bilborako lekualdatzea.

698 ITSAS-ARMADAREN FERROLGO ARTXIBOA (I.F.A.) 488-38 auzia. Pedro Goirigolzarri Arambalzaren deklarazioa 1939-4-5.

*Goizeko Izarra*, bere jabeak Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura jarria, Bilboko ebakuazioa aurrera eramateko erabili zen, *Habana* trasatlantikoa bezalako beste itsasontzi batzuekin batera. Bere lehen bidaia 1937ko maiatzaren 6an izan zen, 319 lagun zeramatzala ontzi barruan, eta egun berean iritsi zen bere helmugara, Pauillac-en (Frantzia). Hilaren 21ean itsasoratu zen berriro, eta 350 lagun Baionan lehorreratu. Bertan, ekainaren hasieran, *Goizeko Izarra* armadore ingeles bati saldu zitzaion eta *Warrior* izena jarri zioten. Izen horrekin bueltatu zen Santurtzira, ekainaren 5ean. Garai bateko *Goizeko Izarrak* ekainean egin zituen Frantziarako azken bi bidaiak. Lehenengoan, 300 errefuxiatu garraiatu zituen, horien artean Gorlizko Erietxeko 139 ume, eta Donibane Lohitzunen lehorreratu zituen. Bigarren bidaietan, *“ehundaka errefuxiatu, Gorlizko Erietxeko beste 131 ume gehiago haien artean Baionara (eroan zituen), Santurtzitik egunsentian irtenda (...)”*<sup>699</sup>.

Bere deklarazioaren arabera, itsasgizon urduliztarrak egin zituen *“(...) bi bidai Bordelera Bilbotik maiatzaren 6an eta 21ean hurrenez hurren irtenda, eta hil hartako 25ean Baionan lehorreratu ziren (...)”*. Bertan geratu zen *“(...) lehorrean, itsasontzia hiritar britaniar bati saldu zitzaiolako”*. Egundun berean *“(...) Londresko ontzi-konpainiaren Gerentziaren agindua jaso zuen, Baionan itxaroteko Ikuskatzaile kargu berarekin, (...) behar zen kontuetan esku hartzeko”*. Goirigolzarrik uste izan zuen *“(...) itsasontziaren zaintze lanetan egindako lana onuragarria izango zela Espainiarentzat”*, eta horregatik, bete zituen ontzi-konpainiaren aginduak eta *“(...) ez zen Espainia Nazionalera bideratu”*<sup>700</sup>.

Frantziako lurraldean egin zuen egonaldia ganean Pedro Goirigolzarrik kontatu zuen ekidin zuela, behin deskargatuta, *“Araya Mendi”* motorontzia joan zedin egungo Letoniako hiriburura, Rigara, (S.E.S.B.en menpeko eskualdea, garai hartan) bertan *“(...) merkantzia errusiarra kargatzeko”*. Hartara, ontzia abiatzeko *“Gobernu gorriaren ordezkariaren”* aginduaren aurrean eta *“ikusita (...) zer arrisku zekarkion itsasontziari bidaia hau egiteak”*, argudiatu zuen barkua ez zegoela baldintza egokietan eta behar zuela *“(...) aurretiko konponketa bat nasan (...), nahiz eta benetan horren premiarik ez izan (...)”*. Modu horretan *“denbora irabaztea”* lortu zuen. Beharrezkoa ez zen konponketa egin ostean, baina, *“agintari gorriek”* teman segitu zuten Rigarainoko bidaiarekin. Itsasgizon urduliztarra, orduan, *“(...) saiatu zen (...)eskifaia ikaratzan, baita lortu ere, esanez bidaian arrisku handian egongo zirela eta ez zituztela euren soldatak kobratuko (...)”*. Barkua abiatu zen, azkenean, baina Ingalaterran egin zuen eskala, eskifaia euren soldatak jasotzeko helburuarekin. Armadore-etxeak barkuaren kontrola eskuratu zuen eta ibilbidea aldatu, Antilletara bidalita. Geroago ontzia *“(...) Espainia Nazionalarentzat erreskatatua”* izan zen<sup>701</sup>.

699 PARDO SAN GIL, Juan: *La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)*, Donostia, Untzi Museoa, 2008 (Berrarg.), 117 eta 119 or.

700 I.F.A. 488-38 auzia. *Pedro Goirigolzarri Arambalzaren deklarazioa 1939-4-5.*

701 I.F.A. 488-38 auzia. *Pedro Goirigolzarri Arambalzaren deklarazioa 1939-4-5.*



1937ko irailaren 8tik 1939ko martxoaren 30a arte, Pedro Goirigolzarri Amberesen egon zen, bertara joan baitzen “(...)Sota y Aznar ontzi-konpainiaren aginduz, portu hartan zeuden zenbait itsasontzitako eskifaien arteko gatazka konpontzeko (...)”. Alkate ohi urduliztarrak portu hartan egindako kudeaketaren helburua zen “(...) anarkismoak kutsatutako marinelak lehorreratzera behartzea Konpainiak han zituen itsasontzietatik (...)”. Berriz, barku horietako kapitainak “(...) Kausa Nazionalaren aldekoak ziren”, eta horregatik behar zuten “(...) bertan jarraitu haien jabe izaten segitzeko (...)”<sup>702</sup>.

1938 martxoaren 1ean, Pedro Goirigolzarri “(...) bere atxikimendua agertu zion Kausa Nazionalari”, Ernesto de Zulueta Isasiri aurkeztutako idatzi baten bidez<sup>703</sup>. Gizon hori Francoren bitarteko agentetzat zeukaten Belgikako agintariek<sup>704</sup>. Galdetzekoa da ea atxikimendu ekintza hau benetakoa zen itsasgizonaren aldetik, edo ontzi-konpainian bere postua mantentzeko bando frankistaren alde azaldu beharrak bultzatu zuen. Beste alde batetik, Goirigolzarri noren interesak defendatzen zituen, “Espainia nazionalarenak”, ontzi-konpainiarenak, edo bien arteko nahasketa?. Alde horretatik, Zuluetak, itsasgizon urduliztarra beraren eskariz, honek “Kausa Nazionalaren” aldera 1938ko martxoan azaldu zuen atxikimendua ziurtatzeaz gain, bere testigantzan kontatu zuen Goirigolzarri, atxikimendua agertu zuenez geroztik “(...)laguntzaile ona izan dela Espainiaren nabigazio-interesen defentsan Amberesko portuan (...)”. Agenteak adibide moduan jarri zuen “Araya-Mendi” ontzia “erreskatatzeko” emandako laguntza pertsonal eta teknikoa. Antza, barku honi helizea desmuntatu zioten. Ostera ere hura ipintzea erabaki zenean “(...) eskifaiak bortizki egin zion aurre, eta matxinatu egin ziren (...)”. Pedro Goirigolzarri zen barkuko kapitaina eta “(...) Itsas Polizari deitu zion ebatzi handiz”, baita modu horretan gauzak oneratu ere. Itsasontzia nasara eroan zuten helizea ipintzera. Biharamun gauean, behin barkua konponduta eta kaietako batean loturik zegoela, arestian aipatu dugun gatazka zela-eta “(...) lurreratutako tripulatzailleen arteko talde bat agertu zen ezustean (...)”barkuaz “jabetzeko” helburuarekin, baina Goirigolzarri “(...) ostera ere (...) bere aginpidea jarri zuen gure zerbitzura, ontzia defendatzearren”<sup>705</sup>.

---

702 I.F.A. 488-38 azuia. Ontziak honako hauek ziren: *Ardanza-Mendi*, *Arriaga-Mendi*, *Arola-Mendi*, *Altobizcar-Mendi* eta *Araya-Mendi*.

703 *Ibid.* Estatu Espainiarraren Belgikako agente orokor Ernesto de Zulueta-aren ziurtagiria 1939-3-28.

704 Geroago, 1939ko otsailaren 10ean, Zulueta Estatu Espainiarraren Belgikako agente orokor moduan akreditatu zuen Francisco Gómez Jordana jeneralak, Francoren Kanpo Aferetako ministroa bera (CASANOVA, Marina: “*Las relaciones marinas hispano-belgas durante gerra civil española: el caso del barón de Borchgrave*” in *Espacio, Tiempo y Forma, V. saila*, Historia Garaikidea, V. I, 1992, 299 eta 301 or).

705 I.F.A. 488-38 azuia, Belgika Estatu Espainiarraren Belgikako agente orokor Ernesto de Zulueta-aren ziurtagiria 1939-3-28.

Zuluetak adierazi zuenez, *“bere atxikimenduaren egunaz geroztik (...) laguntzaile zintzo eta fidel batena eta Belgikako agintari nazionallekiko esanekoa”* izan zen itsasgizon urduliztarraren portaera. Modu horretan, barkua atzeman zenean *“Estatu Espainiarraren izenean, interesdunak munduko erraztasun guztiak eman zituen eta bere atxikimendua berretsi Gobernu Nazionalaren aldera eta baldintza barik nire agindupean jarri”*<sup>706</sup>.

Zubizarretak, Aznar ontzi-konpainiak Londresen zuen zuzendariak, egiaztatu zuen, Goirigolzarriren eskariz berriro ere, 1938ko martxoaren 28tik aurrera, *“(...) itsasontziaren edukitza fisikoa Gobernu Nazionalaren eta Bilboko Aznar S.A. ontzi-konpainiaren esanetara”* mantendu zuela kapitain urduliztarrak. Beste alde batetik, Zubizarretak honako hau nabarmendu zuen: *“momentuoro leialki bete ditu zuzendaritza honetatik ontzi-konpainiaren eta Kausa Nazionalaren defentsan irtendako agindu eta jarraibide guztiak”*<sup>707</sup>.

Goirigolzarrik berak berdintsu deskribatu zuen Frantzia eta Belgikan izandako jokabidea Ferrolgo Itsas Departamentuko Auditoreari 1939ko apirilaren 17an zuzendutako idatzi batean. Bilboko Karmeldegiko presondegian kartzeleratuta zegoen orduan, bere kontrako prozesu judicialaren erdian. Frantzia egon zen bitartean, jarraipena egin zion konpainiaren ontzi batzuei buruz Londresen igarotzen ari zen auzi baten konponketari. Gainera, *“(...) egoerak eskatu zuenean Belgikara joan nintzen, eta bertatik mugitu zenbaitetan, , Espainia Nazionalaren interesen ordezkari On José Luis de Aznarri nire burua eskainiz”*<sup>708</sup>.

Belgikan zer eta zelan egin zuen, hau adierazi zuen itsasgizonak: *“elkarlanean ibili nintzen Espainiako benetako ordezkarien alboan, jarraitzaile leial moduan, eta eskuzabaltasunez, gogo biziz, baita, zenbaitetan, bizitza arriskuan jarriz”*. Goirigolzarrik era berean azaldu zuen ez zela *“Espainia Nazionalera”* itzuli, hain zuzen ere, horrelaxe agindu ziotelako *“(...) agintari nazionalak, hauek pentsatu baizuten nire zerbitzuak onuragarriagoak zirela han Bilbon baino”*. Agintari horiek erabaki horrekin zuzen ibili zirela ez zuen dudarik Goirigolzarrik, *“(...)ontziren bat berreskuratu nuelako eta beste batzuk berreskuratzen lagundu (...)”*<sup>709</sup>.

---

706 Ibid.

707 Ibid. A. Zubizarreta, *“Bay of Biscay Shipping Co. Ltd.”*ko zuzendariaren ziurtagiria 1939-3-28.

708 I.F.A. 488-38 auzia, Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, *El Ferrol del Caudillo*ko Itsas-armadako departamentuko auditoreari zuzendua 1939-4-17.

709 Ibid.

Goirigolzarri Bizkaitik kanpo zegoen bitartean, Itsas-armadako Komandantzia Militarrek auzia ireki zuen 1938ko martxoaren 31n, "(...) Goizeko Izarra izeneko *olgeta-itsasontziko armadorea eta tripulatazaileen erantzukizun kriminala zehazteko, matxinadagatik eta egin ahal izan dituzten beste batzuegatik*".

1938ko maiatzean, Barne Segurtasuneko eta Ordena Publikoko Bizkaiko Ordezkaritzaren txostenek "*atzerrira ihes egintzat*" hartzen zuten Goirigolzarri. Hurrengo hilean, Ordezkaritza horrek epaileari jakinarazi zion itsasgizon urduliztarra Amberesen zegoela, "*Pedro Elías jaunaren eta seme-alaben*" etxean bizitzen<sup>710</sup>.

Abuztuaren 26an, epaileak *Goizeko Izarrako* eskifaia guztiaren atxiloketa eta espetxeratzea agindu zuen, matxinadari laguntza ematea egotzirik<sup>711</sup>. Baina egun berean, epaileak probidentzia baten bidez, adierazi zuen "*auzipetuak bilatu eta harrapatzeko Epaitegi honek egindako gestioak ez (direla) eraginkorrak izan (...) zergatik eta (...) gizaseme hauek atzerrian daudelako (...)*". Beraz, hamar eguneko epea ireki zen ager zitezen, hala egin ezean, auzi-ihesean deklaratu zirelako<sup>712</sup>. Izan ere, hala egin zen irailaren 12an<sup>713</sup>.

Bitartean, *Goizeko Izarrak* egindako bidaien inguruko ikerketak jarraitzen zuen. Uste zen barkuan, errefuxiatuez gain, artelanak eta dirua garraiatu zirela. Horrela ziurtatu zuen Ordena Publikoko Ordezkaritzak 1938ko azaroan. Haren arabera, barkuan Frantziara hauek guztiak irten ziren (...) *Gobernu gorri-separatistaren aginduz*: "*baloreak eta Probintziako Museoko kuadroak, eta Bizkaiko Bankuan gordetako bitxiak, Begoñako Ama Birjinari dagozkionak (...)*"<sup>714</sup>. Bizkaiko Bankuak ezin izan zuen baieztatu Ordezkaritzatik ateratako informazio horien egiazkotasuna "(...) *Euzkadiko Gobernu delakoak beti gordepean jarduten zuelako (...)*"<sup>715</sup>. Bilboko Arte Modernoko Museoko Zuzendariak ere ezin izan zuen baieztatu *Goizeko Izarran* Museoan zegoen artelanan bat irten zen Frantziarantz, ez zekielako "(...) *zein barkutan izan ziren garraiatuak (...)*"<sup>716</sup>. Gaur egun badakigu Bilboko Arte Ederren Museoko obrak ebakuatuak izan zirela. Ebakuazio lanaren parte bat Errepublikako Gobernuak finantzatu zuen, modu horretan Eusko Jaurlaritzaren onespena jasotzeko Picassok Gernikari buruzko artelana egin zezan.

---

710 Ibid., *Ordena Publikoko ordezkariaren mezuak Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaile kapitainari* 1938-5-23 eta 1938-6-27.

711 Ibid., *Auziperatze autoa* 1938-8-26.

712 Ibid., *Ortiz epailearen probidentzia* 1938-8-26.

713 Ibid., *Ortiz epailearen probidentzia* 1938-9-12.

714 Ibid., *Ordena Publikoko ordezkariaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaile kapitainari zuzendua* 1938-11-22.

715 I.F.A. 488-38 auzia, *Bizkaiko Bankuaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaile kapitainari zuzendua* 1938-12-29.

716 Ibid. *Bilboko Arte Modernoko Museoko zuzendariaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaile kapitainari zuzendua* 1939-1-19.

1939ko martxoaren 30ean, Goirigolzarri Bizkaira itzuli zen *“Araya Mendi”* barkuan, eta apirilaren 5ean Karmeldegiko presondegian espetxeratu zuten, deklarazioa hartu ostean. Hartan, *Goizeko Izarran* egindako bi bidaiak eta Frantzia eta Belgikan barrena egindako bidaldia azaltzeaz gain, Urdulizko Udaleko alkate eta, geroago, zinegotzi moduan ere izandako partaidetza politikoaz berba egin zuen, azpimarraturik *“gorri-separatisten garaian”* herrian ordenari eutsi zitzaiola istilurik piztu barik, eta bere boterea erabili zuela *“(…) inori enbarazurik egin ez zekion”*<sup>717</sup>.

Beste alde batetik, baieztatu zuen EAJko afiliatua izan zela *“(…) bere interesetarako komeni zitzaiolako, kontuan hartuta Sota y Aznar ontzi-konpainian zeukan postua eta Etxeko Zuzendariek sortu zuten giro politikoa”*. Orobat erantsi zuen ez zela *“(…) inoiz separatista izan, bakar-bakarrik bere herrialdearen maitalea”*<sup>718</sup>.

Azkenik, Bilbon jarraitu izan balu *Goizeko Izarran* itsasoratuko ote zen itaunduta, Goirigolzarrik adierazi zuen *“(…) Bilbon geratzeko asmo sendoa zuela tropa nazionalak sartu arte”*<sup>719</sup>.

Lehen aitorten horretatik zenbait egun geroago, 1939ko apirilaren 17an, idazki bat bidali zion Ferrolgo Itsas-Departamentuko Auditoreari, eta eskatu *“(…) behin-behineko askatasuna edo presondegi arindua lortu (ahal izatea) (...)”*, horretarako argudiatuz *“(…) osasun egoera txarra, Presondegiko Mediku jaunek erraz froga dezaketena (...)”*<sup>720</sup>.

Pedro Goirigolzarrik bere lehenengo deklarazioan agertutako kontuan sakondu ahal izan zuen idazki horretan. Gainera, bigarren deklarazio honi erantsi zizkion hainbat ziurtagiri eta deklarazio: Nieva alkatearena eta Urdulizko udalbatza frankistako gainerako kideena, Urdulizko herriko abade nagusi Andrés de Gastelu Urrutiarena, hainbat lankiderena, José Luis Aznar Zabala Aznar ontzi-konpainiako gerentearena eta *Goizeko Izarran* itsasoratu ziren zenbait bidaiari eskuindarrena.

Bere EAJko afiliazioari buruz, lehenengo deklarazioan ziurtatu bazuen *“bere interesetarako komeni zitzaiolako”* batu zitzaielara jeltzaleei, bigarren aitorten honetan bere hitzak sendotu zituen argudiatuz *“(…) afiliatuta egon zela Eusko Alderdi Jeltzalean, huraxe zelako Sota y Aznar itsas-konpainiako kapitain ikuskatzaile karguari eusteko modu bakarra”*<sup>721</sup>. Goirigolzarrik argi eta garbi adierazi zuen ontzi-konpainiaren zuzendaritzak behartuta afiliatu zela: *“Bizkaiko Probintzia guztiak daki, eta batez ere itsas-jendeak, amore eman ez banio Sota jaunaren inposaketa horri, ezingo nukeela nire postuan jarraitu”*.

717 I.F.A. 488-38 auzia, Pedro Goirigolzarri Arambalzaren ikerketa-deklarazioa 1939-4-5.

718 Ibíd.

719 Ibíd.

720 Ibíd., Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, *El Ferrol del Caudilloko Itsas Departamentuko auditoreari zuzendua* 1939-4-17.

721 Ibíd.

Goirigolzarriren hitzetan, lanpostu horren defentsak lehentasuna hartu zuen beste edozein gauzaren gainetik, “(...) *kontuan hartuta emaztea eta hiru seme ditudala, adingabeak berak*<sup>722</sup>, *eta ez daukadala aberastasun nahikoa neure kasa jartzeko*<sup>723</sup>. Sotay Aznar ontzi-konpainiak EAJrekin zuen lotura defentsa-elementu gisa argudiatu zuen Anastasio Achutegui Ansoleaga Lemoizko itsasgizonak ere, bere kontra irekitako auzian. Achuteguik ziurtatu zuen bere herriko Defentsa Batzordeko kidea izan zela 1936ko abendua arte, “(...) *EAJk behartuta, eta EAJko kidea nintzen Sota y Aznar konpainiako behargina nintzelako*<sup>724</sup>.”

Bere lehenengo deklarazioan separatista izatea ukatzeko egin zuen baieztapenari ere indarra eman gura izan zion itsasgizon urduliztarrak, are su handiagoz adieraziz bera ez zela “(...) *INOIZ IZAN, EZTA BEHINERE, ESPAINIAREN KONTRAKOA*<sup>725</sup>. Baieztapen hori sendotzeko, Goirigolzarrik aditzera eman zuen: “(...) *Eskumako espainola nintzela gogoan hartuta, nire hiru semeei agindu nien soldadutzara joateko, nahiz eta Legeak haietako bat salbuesten zuen (...)*”. Azaldu zuenez, beste biak Burgosera eta Nafarrora bidali zituzten<sup>726</sup>.

Zalantzak pizten dizkigu “eskumako espainola” izateak bultzatuta bere hiru semeak soldadutzara bidali zituelako baieztapen horrek. Benetakoa izan balitz aitaren agindu hori, noiz eman zuen? Goirigolzarri Urduliztik kanpo zegoen 1937ko maiatzaz geroztik eta, itxura guztien arabera, 1937aren amaieran espetxeratuta zeuden Armadarako on ziren seme biak. *1930tik 1938rako urteei dagozkien errenplazoetako mutilen zerrendaren* arabera, Pedro Goirigolzarri Zarraga Deustuan zegoen eta bere anaia Manuel, Palentzian<sup>727</sup>. Pedro Goirigolzarri Zarraga, EAJko afiliatua zen<sup>728</sup> eta “(...) *ertzaina izan zen, boluntario*<sup>729</sup>”. Manuel Goirigolzarri, itxuraz, *Kirikiño* Batailoi nazionalistan ibili zen<sup>730</sup>.

Urdulizko Udaleko zinegotzi nazionalista moduan egindako lanari dagokionez, Goirigolzarrik esan zuen funtzio administratiboak baino ez zituela bete. Era berean azaldu zuen 1936ko otsaileko hauteskundeetan, “(...) *Bizkaia ia osoan, (...) bi joeren, Eskuma eta Ezkerra, arteko borroka piztu zela*” eta horregatik

---

722 Orainaldia erabili arren “(...) *emaztea eta adin txikiko hiru seme-alaba ditut (...)*”, badirudi idazketa akatsa dela, iraganeko gertakari bat kontatzen dabilelako. Goirigolzarriren seme-alabak, 1939an, adinez nagusiak ziren.

723 I.F.A. 488-38 auzia, *Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, El Ferrolgo Itsas Departamentuko auditoreari zuzendua* 1939-4-17.

724 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 969-38 auzia, *Anastasio Achutegui Ansoleagaren deklarazioa* 1938-7-24.

725 Letra larriak dokumentuko jatorrizkoak dira.

726 I.F.A. 488-38 auzia, *Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, El Ferrolgo Itsas Departamentuko auditoreari zuzendua* 1939-4-17.

727 B.F.A.H. 0031/012, *1930etik 1938ra bitarteko, biak barne, errenplazoetako mutilen izenen zerrenda* 1937-7-24.

728 M.H.D.Z. Atal Politiko-soziala Bilbo 116, *Pedro Goirigolzarri Zarragaren eskaera EAJn sartzeko* 1931-1-13.

729 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Pedro Goirigolzarri Zarragaren gaineko portaera-ziurtagiria, Manuel Uribe alkateak emana* 1937-7-29. B.F.A.H. URDULIZ 0030/014, *1932tik 1935era bitarteko izen-emateei dagozkien mutilen zerrenda*, 1936-10-21.

730 GOROSPE, 262 or.

“(…) izaera nazionalistaren alde agertu ziren ideia espainolistak zeuzkan hainbat jende eta hautagaitza onartu banuen izan zen Sota jaunak agindu zidalako eta gorriei indarra kentzeagatik”<sup>731</sup>. Hemen Goirigolzarrik, nahastu zituen, zalantza barik, momentu ezberdin bi, bere defentsari eusteko, seguruenik. Zinegotzi kargua 1934an bere lan betebeharrak zirela-eta alkatezta utzi zuenetik zeukan. Udalbatzako gainerako kideen antzera 1934ko irailean kargugabetu zutenean, Fronte Popularraren Gobernuia izan zen 1936ko otsailean euskal udalbatzak berriro euren postuetan jarri zituena.

Auzi honetako lekuko moduan deklaratu zuten Amancio Nieva alkateak eta Juan José Garitaonandia, José María Ansoleaga eta Isidro Fano zinegotziek, Urdulizko bizilagun Antonio Larrabeitiaz gain. Guztiek berretsi zuten Goirigolzarrik emandako bertsioa zinegotzi moduan egindako lan osotara administratiboaz den bezainbatean. Nievak gomutarazi zuen, gainera, Goirigolzarrik udalerriarekin izan zuen eskuzabaltasun keinua, “(...) udaleko diru-kutxari eman zionean ugazaba moduan zegokion dirua, lur batzuk saldu zituenean eskolen eraikuntzako”<sup>732</sup>.

Gerra Zibilaren garaiaz, Goirigolzarrik honako hau azaldu zuen: “Behin gure Aberriaren Mugimendu Loriatsua hasita, (...) duintasun eta gustu onekotzat jo zuen Gure Jeneralismoaren Kausa defendatzea, eta helburu horrekin baino ez dut jardun, beti”. Hala eta guztiz ere, baieztatu zuen “(...) ezin nuela nire Zinegotzi kargua laga, horrek ekarriko zuelako une haietan toki guztietan jaun eta jabe zebilen jendajea nire familia eta nire gainera botatzea”. Hala eta guztiz ere, itsasgizonaren arabera, horrek ez zion galarazi bere iritzia agertzea, esan zuelarik “(...) aukera izan nuenean, nire benetako ustea adierazi nuen hitzetik hortzera”<sup>733</sup>.

Garitaonandia, Ansoleaga eta Fano zinegotziek, baita Antonio Larrabeitiak ere, berretsi zuten Pedro Goirigolzarriren baieztapen hori. Denak bat zetozen ziotelarik alkate ohiak “(...) zenbaitetan erakutsi zuela Eusko Alderdi Jeltzaleak jarraitzen zuen politikarekiko desadostasuna, bihozgabe haiek egiten zituzten gehiegikeria etengabeak ez zetozelako bat bere izaerarekin eta bere pentsakerarekin”. Gainera, bai alkateak eta baita zinegotziek ere ohartarazi zuten Goirigolzarri ez zela inongo Defentsa Batzorde edo Ikerketa Batzordetako kide izan<sup>734</sup>. Kontu horri buruz itsasgizonak egindako deklarazioen tonuak defentsa irmo bat eraikitzen bideratuta dagoela ematen duen arren, era berean egia izan liteke ados ez egotea alderdi nazionalista Fronte Popularrarekin batzera eroan zuen politikarekin.

731 Ibid.

732 I.F.A. 488-38 auzia, Urdulizko alkate Amancio Nieva Taramundiren ziurtagiria 1939-4-5, eta Juan José Garitaonandiaren, José María Ansoleagaren, Isidro Fanoren eta Antonio Larrabeitiaren zinpeko deklarazioa 1939-4-11.

733 Ibid., Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, El Ferrol del Caudilloko Itsas Departamentuko auditoreari zuzendua 1939-4-17.

734 Ibid., Juan José Garitaonandiaren, José María Ansoleagaren, Isidro Fanoren eta Antonio Larrabeitiaren zinpeko deklarazioa 1939-4-11.

1937ko maiatzean Frantziara eginiko bi bidaien inguruan argitu zuen, bere ohorearen izenean: “(...) Yatean egin nuen bidai bakar batean ere ez da balorerik, dirurik, bitxirik eta abarrik eroan... ezta aginte gorri-separatistako agintaririk ontziratu ere”. Eta gehitu: “*hau guztia, egin bazen, azken bidaietan izango zen, bera Frantzian lehorreratzen ari zenean eta gorri-separatistek jokoa galdutzat zeukatenean*”<sup>735</sup>.

Bidaia bi haietan, Frantziara eroandakoak “(...) emakumeak, umeak eta adinekoak izan ziren, eta horiez gain, DOZENA ERDI BAT LAGUN, guztiak eskumakoak”<sup>736</sup>. Azken baieztapen hau aurretik aitaturako zinegotzien lekukotasunak indartu zuen, batez ere Goizeko Izarran ebakuatu zituzten eskumako jende haietako batzuen testigantzari esker.

Hiru zinegotzi horien lekukotasunaren arabera, Pedro de Goirigolzarrik “Goizeco-Izarra baporeko kapitain karguaz baliatuta (...) eskumako pertsona garrantzitsuen ihesa erraztu zuen (...)”, besteak beste Juan de Uribe eta bere emazte Carmen Echevarria<sup>737</sup>, Urdulizko ohiko udatiarrak eta herrian errefuxiatu zirenak gerra hasieran. Juan de Uribe berak berretsi zuen Goirigolzarrik emandako laguntza, ziurtagiri baten bidez<sup>738</sup>. Haiekin batera, barkuan joan zen senar-emazte hauen seme Ramón Uribe Echevariaren emaztea. Hark ziurtatu zuen barkuan “(...) eskumako pertsona ugari (...)” zihoazela<sup>739</sup>. Horietako bat izan zen Isabel Pérez Llonaren lekukotasunak bidea ematen digu ontziratutako eskumako jendeen kopurua gehiago izan zela Goirigolzarrik deklaraturako dozena erdia baino. Bere bi ahiztekin batera ontziratu zen bidaiariak gomutan zuen “(...) ikusi izana bidaiarien artean, De Chavarriren alargun andrea, Olavarri jauna, Begoña Careaga andereñoa, On José Uribe, On José Iturbe, euren familiekin (...)”<sup>740</sup>.

Margarita Martín Gamboak, “F.E.T. y de las J.O.N.S.eko kidea eta “Espainiako Dama” (...)” zenak gomutan zuen zelan pasaiariaren artean “Kausa Nazionalaren aldeko pertsonak” zeuden, eta aipatzen zituen “(...) Cándido Jiménez kapitainaren emaztea eta Eloísa de Guezala andereñoa”. Margarita Martínek, “gorri-separatistak nagusi izan zirenean 2 hilabetez espetxean egon ostean (...)”, Goizeko Argiaren bigarren bidaian lortu zuen plaza, Nazioarteko Gurutze Gorriko Grass doktoreak egindako gestioei esker. Maiatzaren 21eko goizaldeko ordubietan, ontzira igotzen saiatu zen, baina “(...) atzera bota zuten (...) kaian, bertan zeuden agintari gorriek (...)”. Azkenik ontzian sartzea lortu zuen goizeko seietan, “txalupa motordun batean” garraiatua izan ostean, Grass doktoreak lagunduta. Martín Gamboak jakinarazi zuen “(...) ontzi hau nire zain

---

735 *Ibíd.*, Pedro Goirigolzarri Arambalzaren idazkia, *El Ferrol del Caudilloko Itsas-armadako departamentuko auditoreari zuzendua* 1939-4-17.

736 *Ibíd.*

737 *Ibíd.* Juan José Garitaonandiaren, José María Ansoleagaren, Isidro Fanoren eta Antonio Larrabeitiaren zinpeko deklarazioa 1939-4-11.

738 *Ibíd.* Juan de Uriberen ziurtagiria 1939-4-19.

739 I.F.A. 488-38 auzia, Ramón Uribe Echevariaren ziurtagiria 1939-4-12.

740 *Ibíd.*, Isabel Pérez Llonaren idatzia 1939-4-10.

*zegoela aingura jasotzeko eta hain zuzen ere une batzuk geroago Frantziarantz irten genuen (...)*<sup>741</sup>. Pedro Goirigolzarrik gertakari hori jaso zuen bere lehenengo deklarazioan, nahiz eta Mercedes M. Lafont izan bere kontakizunaren protagonista. Pentsatzekoa da izen aldaketa hori itsasgizon urduliztarraren nahaste bat izan zela, haren narrazioak bete-betean bat egiten duelako Margarita Martínenarekin. Kontakizun horren arabera, Goirigolzarrik egin zuen ontziratzea azkenik posible:

*“(...) en el segundo viaje como faltara a bordo una pasajera, y el declarante se enteró que fue rechazado su embarque, protestó ante el cónsul inglés, advirtiéndole que no salía a la mar, sin que embarcara dicha pasajera, y el Cónsul inglés dándole la razón se fue a tierra y consiguió que viniera a bordo la señora que faltaba, que resultó ser la Sta. Mercedes M. Lafont”*<sup>742</sup>.

Bigarren barku horren helmuga, aurrerago esan dugun legez, Bordel zen. Bidaiari eskuindarrentzat bidaiaren honen xedea zen, duda barik, bertatik frankisten kontrolpeko lurraldera igarotzea. Margarita Martínen beraren helburua *“(...) jarraian Donostiara pasatzea (...)”* zen, berak aitortu zuenez<sup>743</sup>. José Iturbe Fernándezen ere Bordenetik *“(...) Donostiara sartu zen segituan”*<sup>744</sup>.

1939ko irailaren 4an, i Gerra-kontseiluak hamar urte eta egun bateko zigorra ezarri zion Pedro Goirigolzarri, *“gaizkide moduan”* burututako matxinada delituagatik<sup>745</sup>.

Auditoreak onartu zuen Sota y Aznar ontzi-konpainiako behargina izateak Goirigolzarriren askatasuna *“mugatu”* zuela eta *“(...) bere erabakimena”* ahuldu zuela. Hala eta guztiz ere, ondorioztatu zuen *“(...) ezin dela ziurtatu egin behar bat betetzeagatik jokatu duenik (...)”* bere izendapena onartu zuenean Goizeko Izarrako kapitain moduan. Auditorearentzat, erabaki hori izan zen Urdulizko itsasgizonaren akatsik larriena: *“Onartu edo ez onartu zezakeen, eta hala ere onartu egin zuen, jakinda zer lan utziko zuten haren agindupean, eta bistakoa da (...) ez dagoela eskubiderik ez zilegitasunik gaizkiarentzat”*. Gainera, erantsi zuen ontzi-konpainiarekin zuen lotura ez zela *“obedientziazkoa”*, ezpada *“(...) kontratu bat, borondatez eta libreki onartua, eta edozein unetan deusezta zitekeena (...)”*, ez zuena barne hartzen *“(...) ontziaren agintea hartu behar izatea Kapitain moduan, eta ez ziren ere eskatzen zizkieten zerbitzu komertzialak, baizik eta legez kontrakoak, politikoak, gerrarekin lotuak”*.

741 Ibid., Margarita Martín Gamboaren deklarazioa 1939-4-14.

742 Ibid., Pedro Goirigolzarri Arambalzaren ikerketa-deklarazioa 1939-4-5.

743 Ibid., Margarita Martín Gamboaren deklarazioa 1939-4-14.

744 Ibid., José Iturbe Fernándezen deklarazioa 1939-4-14.

745 Ibid., Epaia 1939-9-4.



Esandakoaren ondorioa da, auditorearen begietan, Goirigolzarrik jarraitu behar izan zuen bide bakarra zela *Goizeko Argi*ako aginteari uko egitea. Itsasgizonaren geroko jokabidea Frantzia eta Belgikan zen, auditorearen iritziz, “delitua” “konpontzeko” era bat, bere damua modu horretan bideratuz<sup>746</sup>.

1940ko maiatzean, kondena berrikusi egin zuten, baita zigorra apaldu ere espetxealdi militar txikiko sei urte eta egun batera<sup>747</sup>, baina urte bereko abuztuan, epaile instruktoreak idazki bat bidali zion Bilboko Probintziako Presondegiko zuzendariari eta adierazi zion prestatzeko “(...) *ahalik eta presa handienarekin, behin-behineko askatasunaren proposamena (...)*”, Pedro Goirigolzarriren eta *Goizeko Izarra*-ko beste bi kideren aldekoa: Lehen Ofizial Víctor Zugadirena, Lekeitioko bizilaguna bera, eta Hirugarren Ofizial Eduardo Artolarena, Algortako bizilaguna bera<sup>748</sup>.

Beste alde batetik, Bilboko Erantzukizun Politikoen Epaitegiak “(...) *ondasunak konfiskatzeko prozedura*” ireki zion Goirigolzarriari, “(...) *Kausa Nazionalaren aurkaria izateagatik*”<sup>749</sup>. Prozedura hori 1941eko urtarrilean itxi zen 3000 pezetako isuna ezarrita, “(...) *egitate larrien politikoki erantzuleztat*” jo baitzen<sup>750</sup>. Bere ondorengo bizitzari buruz, badakigu 1945ean alkate ohia Elizateko uren kudeaketaz arduratzen zen *Urdulizko Uren Elkarte Anonimoko* lehendakaria zela<sup>751</sup>. Goirigolzarri sozietate horren kide fundatzaileetako bat izan zen 1926an<sup>752</sup>; horrexegatik izango zuen kargu hori.

## 2.4 Administrazio funtzionarioen depurazioa

Administrazio funtzionarioen depurazioa izan zen “*militar matxinatuen lehenetsuneko helburuetako bat*”. Orokorrean, depurazio hauen xedea ez zen soilik “*matxinadaren kontrakoak o erregimenari atxikimendurik ez zioten*” funtzionarioak zigortzea, ezpada ezbaian zeudenak beldurtzea. Bistan denez helburua zen matxinatuen aldekoak eta laguntzaileak saritzea. Zein sari? Administrazio lanpostuak. Depurazioak gauzatzeko, dekretu sail bat eman zen gerrak iraun bitartean. Lehenengoa, 108. Dekretua, 1936ko irailaren 13koa, “*funtzionario publikoak*” eta “*Estatuaren, probintziaren edo udalerriaren diru-laguntza hartutako enpresak edo zerbitzu publikoen emakidadunak*” begipean zituena. 108. Dekretuaren ostean beste batzuk etorri ziren, depurazio prozesuak zelan gauzatu behar ziren zehazten joan zirenak. Aipatu beharra dago Administrazio bakoitzak arduratu behar zuela bere enplegatuen depurazioaz<sup>753</sup>.

---

746 I.F.A. 488-38 azuia, *Departamentuko auditorearen idazkia* 1939-9-19

747 *Ibid.* *Zigorren azterketa* – Pedro Goirigolzarri Arambalza 1940-5-13.

748 *Ibid.* *Instrukzioko epailearen mezua, Bilboko Probintziako Presondegiko zuzendariari zuzendua* 1940-8-29.

749 *Ibid.* *Departamentuko auditorearen idazkia* 1939-9-19

750 M.H.D.Z. 75/00268.

751 A.M.U. 247. kaxa, *Etxeak edateko uraz hornitzeko baldintzak* 1945-5-19.

752 *Euzkadi* 1926-9-14.

753 AROSTEGUI, Julio (Coord.): *Franco, la represión como sistema*, Bartzelona, Flor del Viento Ediciones, 2012, págs. 178-180.

Dokumentazio desberdinean topatu dugun informazioa hain da zabala ezen maisu-maistren depurazioa banandu baitugu atal honetatik, leku berezia eman ez.

Udal enplegatuetatik hasiz, udal idazkari **Luis Navarro** Torronteguiaren kasua 639-37 makro auzian bilduta geratu zen hasieran. Itxuraz, sumario horretan nahastutako gainerakoekin batera atxilotu zuten, 1937ko abuztuaren hasieran. Abuztuaren 9an, bere kasua auzi horretatik banandu zen eta eginbideak eta zegoen informazioa 7. epaile bereziari igorri zitzaizkion, honek baitzuen *“funtzionario publikoen arloko eskumena”*. Udal idazkariaren egoera berriaren berri eman zitzaion Karmeldegiko kartzelako zuzendariari, Navarro bertan baitzegoen atxilotuta<sup>754</sup>.

Hala eta guztiz ere, 7. epailearen aurreko deklarazioa egun batzuk lehenago eman zen, abuztuaren 6an. Luis Navarrok deklaratu zuen *“(…) Udaletxean jardun duen bitartean ideologia ezberdineko pertsona mota guztiekin bizi izan dela inongo ezberdintasun barik eta gaur egun nire portaeraren berri eman dezakeela Manuel Uribe Echevarriak (...)”*, udalbatza frankistako lehenengo alkateak<sup>755</sup>. Alde horretatik, Akta Liburuak erakusten duen legez, Navarrok bere lanarekin jarraitu zuen, lehen udalbatzaren izendapenetik gerraren ostean atxilotu zuten arte: uztailaren 22an sinatu zuen azken akta, abuztuaren hasieran kartzelaratu aurretik<sup>756</sup>. Bere aitorenarekin jarraituz, Navarrok azaldu zuen ez zela inoiz inongo alderditan afiliatu eta Somaténéko kide izan zela Primo de Riveraren diktaduraren garaian. Beste alde batetik, zehaztu zuen zelan babestu zuen Urdulizen gerizatutako eskumako jendea, hala nola Luis Villabaso, *“(…) hura zainduz eta ihes egiteko soka handi bat helaraziz babestu zuena(…)”*, edo Rafael Bach, Ramón Bustamante, Juan Uribe eta Gregorio Urrutia, elikagaiez hornitu baitzuten<sup>757</sup>. Azken biak, Santiago Perosanz eta Federico Monteroz gain, *“(…) eskuindar ezagun garbiak eta Mugimendu Nazional Lariotsuari atxikiak”* eta errefuxiatuak Urdulizen gerra bitartean, Manuel Uribe alkatearen aurrean agertu ziren deklaratzeko udal idazkariak eman zizkiela *“(…) mota guztietako atentzioak eta lagundu ziela ahal izan zuen guztian”*<sup>758</sup>.

Horrez gainera, aitortzaileek baieztatu zuten Luis Navarrok *“(…) salbatu zuela Udaleko dokumentazio guztia, Armada Nazional Lariotsuaren indarrak sartu arte ezkutatu zuena”*, eta nabarmendu zuten Urdulizen jende guztiek zekitelako *“(…) gorri-separatistak nagusi izan ziren azken egunetan etxea (idazkariarena) miatu zutela eta Udalarena zen bandera nazional bat aurkitu, Errepublikak etorri zenetik gordetzen zuena eta horregatik arpilatu zutela bere etxea”*<sup>759</sup>.

754 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Gonzalo Queipo de Llano epaile militarren probidentzia 1937-8-9*.

755 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 794-37 auzia, *Luis Navarro Torronteguiaren deklarazioa 1937-8-6*.

756 U.U.A. “Historikoa”, 1931-1937ko Akta Liburuak, Bilbura arrunta 1937-7-22.

757 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 794-37 auzia, *Luis Navarro Torronteguiaren deklarazioa 1937-8-6*.

758 Ibíd. *Manuel Uribe alkatearen, Gregorio Urrutiaren, Juan Uriberen, Santiago Perosanzen eta Federico Monteroren deklarazioak 1937-8-8*.

759 Ibíd.

Aldeko testigantza hauei batu zitzairen Serafin Sagarna apaizarena. Abade nagusiak berretsi zuen Navarroren portaera erlijioso eta morala “*bikaina*” zela eta, beste alde batetik, udal idazkariaren elizkoitasuna azpimarratu zuen, gomutatuz “(...) 1932tik zela Kultuaren eta Kleroaren Diruaren Obraren Batzorde parrokiareko kide; eta, duela hogeita bost urte baino gehiagotik organo-jotzaile ibili zela eliza honetan, aurreko abadeen (...)” eta Sagarna beraren atsegingarri<sup>760</sup>.

Luis Navarro eta beste sei auzipetuena abuztuaren 20an erabaki zen. Auditoreak, Instruktoarearen eta Fiskalaren proposamenari jarraituz, erabaki zuen sumarioen behin-behineko largespena “(...) egozten zaizkien egitateak ez direlako erabat delitu moduan definitu (...)”<sup>761</sup>. Ebazpen horrek idazkariaren berehalako askatasuna ekarri zuen, antza; izan ere, Udalaren Akta Liburuak abuztuaren 21eko osoko bilkuraren akta jasotzen du, Navarrok berak idatzia eta sinatua. Aipatu beharra dago Luis Navarro espetxean egon zen bitartean ez dela Akta Liburuan Udalaren osoko bilkuraren bat egin izana azaltzen<sup>762</sup>. Navarrok bere postuan jarraitu zuen 1940ko urtarrilaren 7a arte, egun hartan jubilatua zena, “*berak eskatuta*”<sup>763</sup>.

Udal **aguazilaren** postua **José Luis Torrontegui Egusquizari** zegokion; 31 urte zeramatzan kargu horretan atxilotu eta epaitu zutenean, 1937ko abuztuan. Ordura arte, bere lana **postariarenarekin** batera egiten zuen.

1937ko uztailaren 22an, Bilboko Posta Administrazio Nagusiak eskatu zion Urdulizko alkateari postariari buruzko txosten bat, eta, “*kontrakoa izanez gero*”, ordezkari bat proposatzeko. Alkatearen erantzunak hilaren 27an du data. Hartan azaltzen zen Torrontegui “(...) bere postari kargua bizilagunen asegigarri eta beharrezko prestutasunez” bete zuela, ez zela inongo alderdi politikotako kide izan eta “(...) bakar-bakarrik ordena publikoaren zaindari ibili zen gorri-separatismoa nagusitu zen denboran, seguruenik aurreko Udaleko aguazila zelako”. Postako administratzaileak esandakoari jarraituz, “(...) txostena kontrakoa izatekotan (...) On José Luis Torronteguiarentzat”, posturako proposatu zen “(...) herri honetako bizilagun On Tiburcio Madariaga Arana, Mugimendu Lariotsuari atxikitako pertsona eta kargu hau behar bezala betetzeko gaitasuna duena”<sup>764</sup>. Uztailaren 31n Posta Zerbitzuak jakinarazi zion Torrontegui kargugabetua zela eta alkatetzak proposatutako bizilagunak ordezkaria zuela<sup>765</sup>.

Kargugabetzearen ostean, bizilagun eskuindar bik eman zuten euren lekukotasuna postari ohiaren alde, eta ziurtatu zuten Torrontegui 1936ko otsaileko hauteskundeetan eskumei eman ziela botoa. Modu horretan,

---

760 Ibíd. *Serafin Sagarna abade nagusiaren ziurtagiria* 1937-8-9.

761 Ibíd. *Auditorearen erabakia* 1937-8-20.

762 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburuak, Bilkura arrunta 1937-8-21.

763 A.M.U. 267. kaxa, Aurreikuspeneko Institutu Nazionalako Bizkaiko Ordezkaritzaren eskariz emandako ziurtagiria, 1941-10-15.

764 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko Posta Administrazioaren mezua, alkateari zuzendua* 1937-7-22 eta *Alkateak Postari emandako erantzuna* 1937-7-27.

765 A.M.U. 246. kaxa, *Posta-trukea* 1937-54, *Postaren mezua, alkateari zuzendua* 1937-7-31.

abuztuaren 4an, alkateak ziurtagiri bat eman zion non jasotzen zen “(...) herri honetako kargugabetutako postariak otsaileko hauteskundeetan eskumari eman diola botoa (...), idatziz jasota geratu dadin eta ea kargugabetzea zuzendu daitekeen (...)”. Baieztapen hori sendotzera etorri zen “idatzitako berme bat (...) Alkatetza honen eskuetan dagoena, On Antonio Larrabeitiak eta On Felipe Aslak sinatua, sinesgarritasun osoko pertsonak baitira eta ezagutzen (...)” zituenak Manuel de Uribe alkateak<sup>766</sup>.

Aguazila abuztuaren 5ean eroan zuten epaile militarren aurrera Urdulizko beste hainbat bizilagunekin batera, eta deklarazioa biharamunean eman zuen. Gerra bitartean Ordena Publikoko zaindaria izatea izan zen 12 urte eta egun bateko kondena ezartzeko arrazoa, matxinadari laguntza emateagatik. Urte doi bat geroago, 1938ko abuztuaren 13an, Larrinagako Espetxean hil zen, Bilbon, “pankrea-minbizi baten ondorioz”<sup>767</sup>.

Berriz, Manuel Uribe alkateak eta Amancio Nieva zinegotziak osatutako Urdulizko Udaleko Udal Langileen Depurazio Batzordeak, 1937ko urriaren 9an erabaki zuten Torrontegui kentzea bere **aguazil** kargutik “(...) miliziano edo eskopetari moduan zerbitzu emateagatik herri honetako Gobernu Gorriaren Tokiko Defentsa Batzordean”<sup>768</sup>.

**Pablo Menchaca Laradogoitia, arielen zeladorea**,<sup>769</sup> ere kargugabetu zuten. Alkateak uztailaren 14an eman zuen portaera-ziurtagiriaren arabera, Pablo Menchacak “(...) portaera moral ona izan du”, eta adierazi zuen “(...) politikoki euskal nazionalista izan dela, baina ez dakigu afiliatua ote zen”. Udaleko Depurazio Batzordeak kargu barik uztea erabaki zuen “(...) Gobernu Gorriak soldadutzara deitu zionean zerbitzu egiteari utzi zion-eta”<sup>770</sup>.

Bilboko 7. Epaitegi Militarreko epaileak eskatu zion 1937ko abuztuaren erdialdean Urdulizko alkateari “Porta, Telegrafo eta Telefonoetako Gorputzeko funtzionarioei” buruzko informazioa. **José Brotons Llona** zen **telefonoaren arduraduna**, eta horri buruz Uribe alkateak jakinarazi zuen “*separatista zela eta herri honetatik alde egin duela, ustez gorrien aldera*”<sup>771</sup>. Duda barik, azken datu hau erabakigarria izan zen kargu barik geratzeko, aguazilari eta arielen kobratzaileari jazo zitzaizen legez: 1936ko abenduaren 3ko 93. Dekretuak ezartzen zuen berehala utzi behar zirela kargurik gabe, “*espedienterik ireki barik*” ere, 1936ko uztailaren 18az geroztik “*askatutako lurraldean euren etxebizitza ofiziala*” abandonatu duten funtzionarioak<sup>772</sup>.

766 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Ziurtagiria* 1937-8-4.

767 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia.

768 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-10-9.

769 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udaleko administrazio langileen gaineko txostena* 1937-10-30.

770 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-10-9.

771 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, 7. *epaile militarren mezua, alkateari zuzendua* 1937-8-10 eta *Alkatearen erantzuna* 7. *epaile militarri zuzendua* 1937-8-13.

772 AROSTEGUI, 179 or.

1937ko uztailaren lehen erdialdean, Mariano Fernández Retuerto Konpainia Telefonikoko ikuskatzaileak bisita egin zuen Udaletxean eta eskatu zuen “(...) familia bat hautatu zedila zerbitzu telefonikoaren ardura hartzeko”. Uztailaren 12an, alkateak jakinarazi zion Konpainia Telefonikoari, bere iritziz, “*eginkizun hura betetzeko pertsona bakarra dagoela ez baitago besterik lan hura hartzeko moduan, bere jarduera politiko eta kulturalengatik, On Juan José Guibelondo y Goirigolzarri ez bada*”. Harrigarria da Manuel de Uribe “*jarduera politikoak*” aitatzeari, kontuan hartzen badugu alkateak berak Guibelondori buruz egindako ziurtagiria, non nabarmendu zuen proposatutako hautagaia “*politikoki euskal nazionalista izan dela baina ez dakigu afiliatua ote zen*”. Badirudi Uriberentzat garrantzitsuagoak izan zirela beste faktore batzuk “*zerbitzu telefonikoaren lana egiteko pertsona egokitzat hartzeko*”: Guibelondok beti mantendua zuen “*huts bako portaera*” bat eta “*zintzotasun osoko eta kaudimen ekonomikoko pertsona*” zen<sup>773</sup>.

**Juan de Dios Zubicaray Valenciaga** medikuaren depurazio prozesuari buruz, badakigu 1937ko abuztuaren 7an, Osasungintzako Probintzia-ikuskatzaileak zirkular baten bidez agindu zuela “*Udal horren zerbitzura dauden osasun-funtzionario guztien*” karguak eteteko. Horrek “*medikuak, botikariak, odontologoak, albatariak, erizainak eta emaginak*” hartzen zituen barruan. Agindu hau “*Espainiako Defentsa Batzordea Nazionalaren 1936ko irailaren 13ko 108. Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakotik*” zetorren. Etetearen ostean, depurazioa prozesua betetzeko beharrezko informazioa biltzea zetorren, hau da, Mugimendu Nazional Lorioitsuaren aurreko eta osteko portaera politiko eta profesionali buruzko argibideak. Medikuek zinpeko aitortpen bat bete behar zuten, eta bertan zehatz-mehatz azaldu euren afiliazio politiko eta sindikalak, baita 1936ko uztailaren 18aren aurretik eta ondoren zein egunkaritarara zeuden harpidetuta ere. Depurazioa betetzen zen bitartean, “*interesa duten funtzionarioek eten barik zerbitzu egiten jarraituko*” zuten. Nahiz eta hamar eguneko epea eduki eskatutako informazioa igortzeko, Udalak abuztuaren 20an bidali zuen, “*herriko medikuaren zinpeko aitortpena barne, Udal honetako funtzionario bakarra*”<sup>774</sup>.

---

773 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Portaera ziurtagiria 1937-7-12 eta Alkatearen mezua, Konpainia Telefonikoko ordezkari jaunari zuzendua 1937-7-12*.

774 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Bizkaiko Probintziako Osasun Ikuskaritzaren zirkularra eta zinpeko deklaraziorako eredia 1937-8-7, eta *Alkatearen mezua, Probintziako Osasun ikuskariari zuzendua 1937-8-20*.

Irailaren 13an, Bizkaiko Osasungintzaren Ikuskaritzak bere erantzunean nabarmendu zuen “(...) *On Juan de Dios Zubicaray Valenciagaren portaera profesionala, pertsona ohoregarria dela egiaztatzen duena. Berriz, bere afiliazio politikoari dagokionez, badirudi alderdi nazionalistako afiliatua dela*”. Horregatik, aukera ematen zion Udalari: “*uste badu funtzionario horrek ez duela merezi zerbitzu egitea gure Espainia nazionallean Legeak zehazten dituen prozedura zuzentzaileetara jo dezake libreki*”<sup>775</sup>. Udalak medikuari eutsi zion funtzionario moduan, 1937ko urriaren amaieran Udaleko “*egungo langileen*” barruan azaltzen zelarik <sup>776</sup>. Zubicarayk Urdulizko mediku gisa jarraitu zuen 1948ko martxoaren 31 arte, mediku postua Alonsotegik bere gain hartu zuen eguna<sup>777</sup>.

Nahiz eta ez dugun topatu dokumentaziorik **udal albaitari Eusebio Gallagaren** depurazio prozesuari buruz, hark ere bere postua mantendu zuen<sup>778</sup>, hil zen egunera arte, 1938ko irailaren 3an<sup>779</sup>. Hala eta guztiz ere, Gallagak ez zuen zorte on bera izan Plentzia auzo herrian, han ere baitzebilen udal albaitari moduan. Marinel-hiriko Udalak 1937ko uztaietan erabaki zuen Gallaga kargugabetzea, baina kaltetuak helegitea aurkeztu zuen Estatuko Gobernadore Nagusiaren aurrean. Hauek izan ziren bere kargutik kentzeko erabili ziren argudioak: bere partaidetza “(...) *Errepublikaren etorreran (...) Partido Republicano de Izquierdan Zuzendaritzaren kide izanda*”<sup>780</sup>; “*hautagai-zerrenda iraultzaileko*” kontu-hartzaile gisa aritu izana 1931ko udal hauteskundeetan, urte bereko hauteskunde orokorretan eta 1933an; eta bere albaitari kargua erabili izana “(...) *baserritarrak ezkerren diktaduraren alde*” ipintzeko. Informazio hori guztia Gallagaren depurazio espediente osatzeko eraturako *Bizilagunen Batzordeak* eman zuen. Batzorde horrek, gainera, adierazi zuen albaitariak ez zuela 1936ko otsaileko hauteskundeetan parte hartu “(...) *bi seme-alaba zeuzkalako lanean Ybarra ontzi-etxean*”. Era berean nabarmendu zuen Primo de Riveraren diktaduraren garaian Unión Patrióticako kide izana zela eta Somaténéko kaboa. Hain zuzen ere, azken datu honetan oinarritu zuen albaitariak bere helegitea, eta erantsi zuen izana zela “*hautagai monarkikoen kontu-hartzailea hauteskunde askotan*”. Horri dagokionez, Plentziako Udalak argudiatu zuen Gallagak ez zuela zehazten zein hauteskunder ari zen, eta hurrean Primo de Riveraren Diktaduraren aurreko garaiaz ari zela. Udalbatzak adierazi zuen ez zela Gallagak bere helegitean ezkatzen zuen datu bakarra, isiltzen baitzituen “(...) *bere kalterako izan daitezkeen besteak, hala nola, bere erabateko axolagabekeria erlijiosoa eta Diktadura osteko bere portaera eta jarduera politikoei buruzkoak*”, horiek izanik “(...) *kargugabetzeko proposamena oinarritzeko balio izan zutenak*”.

775 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bizkaiko Probintziako Osasun Ikuskaritzaren mezua, alkateari zuzendua* 1937-9-13.

776 U.U.A. “Historikoa”, 8. Kaxa, *Udal langileen zerrenda* 1937-10-30

777 A.M.U. 267. kaxa, *Urdulizko Udaleko jarduneko idazkari José Ignacio Malax-Echevarría Padillaren ziurtagiria* 1951-9-4.

778 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Udal langileen zerrenda* 1937-10-30.

779 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkate Amancio Nievak egindako ziurtagiria* 1938-9-7.

780 Eusebio Gallaga Plentziako Kasino Errepublikanoko lehendakariorde aukeratu zuten 1931ko ekainaren hasieran (*El Liberal* 1937-6-3), eta atzera ere aukeratu zuten 1932ko urtarrilaren 9an egindako batzarrean (*El Liberal* 1932-1-14).

Hori adierazita, Plentziako Udalak, “(...) *Espainia Berrian nagusi izan behar den justiziaren mesedetan*”, 1937ko abuztuaren 7an erabaki zuen albaitariaren kargu-uzteari eustea, eta Estatuko Gobernadore Nagusiari jakinarazi zion “(...) *behin betiko ebazpena eman dezan*”<sup>781</sup>.

Urdulizko udal epaile **Evaristo Renteria Zabalaren** depurazioari dagokionez, 1937ko uztailaren 15ean, Getxoko komandante militarrek Udalari eskatu zion bidal ziezaion “(...) *ahalik eta arinen (...) pertsona hirukote bat Epaille eta Fiskal eta dagozkion laguntzaile karguak bete ditzaten*”. Horren helburua zen “(...) *Udal Justiziaren zerbitzuak ahalik eta lasterren normalizatzea*”<sup>782</sup>. Evaristo Renteriak udal epaile lana egiten jarraitu zuen frankistek Urduliz eurenganatu ostean. Horren froga da bere sinadura ageri dela 1917an Erregistro Zibilean inskribatutako mutikoen zerrenda bi berdin-berdinetan, baina bi data ezberdinekin, 1937ko uztaileko 1a eta 22a, hauei baitzegokien 1938ko alistamenduan sartzea<sup>783</sup>. Behin atxilotua izanda, deklarazioa eman zuen abuztuaren 5ean, eta hilaren 13an izan zen kondenatua 12 urte eta egun batera matxinadari laguntza emateagatik, zergatik eta behin gatazka hasi zenean bere karguan jarraitzeagatik. Renteria- ren beraren lekukotasunaren arabera, 1931n izendatu zuten epaile eta bost urte lehenago afiliatu zen EAJra. Gerra bitartean, deklaratu zuen ez ziola “(...) *jazarri eskumako jendeari*” eta baieztapen hau berretsi zezaketen hiru lagun eskuindar izendatu zituen: Gregorio Urrutia, Felipe Asla eta Juan José Garitaonandia<sup>784</sup>.

Evaristo Renteriari ezarritako iraungipen data 1949ko abuztuaren 5ekoa zen, baina 1940an, Zigorrek Aztertze Probintziako Batzordeak haren kasua berrikusi zuen eta erabaki zuen jatorrizko zigorra ordeztzea sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiarekin. Espetxean egoteko denboraren murrizpen horrek esan gura zuen udal epaile ohiaren kondena 1938ko otsailaren 5ean amaitua zela. Horregatik, 1940ko ekainaren 24an agindu zen espetxetik irteteko, Camposancos de Laguardiako Presondegiko (Pontevedra) zuzendariari jakinarazi zitzaionez, urduliztarra han baitzegoen giltzapetuta. Hiru urte igaro ziren Zigorren Batzorde Zentralak berresteko, 1943ko urrian, 1940an izen bereko erakunde probintzialak egindako proposamena<sup>785</sup>. Beste alde batetik, aitzakioa da Evaristo Renteria “Upo-Mendi” preso-ontziko euskal presoek zerrendan agertzen

---

781 P.H.U.A. A.426, Akta-liburua 1935-11-30tik 1939-10-5ra, Bilera ordezkioa 1937-8-7.

782 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Getxoko komandante militarren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-7-15. Alkateak uztailaren 17an bidalitako zerrendak hautagai hauek zeuzkan udal epailearen posturako: Bernardino Bilbao Aguinaga, Tiburcio Madariaga Juaristi eta Pablo Landeta Arana. Udal fiskalaren kargua betetzeko, berriz honako hauek proposatu ziren: José Hormaza Unibaso, Juan Bilbao Madariaga eta Agustín Menchaca Urquizu.

783 B.F.A.H. URDULIZ 0031/008, *Epaitegi honetako Erregistro Zibilean 1917an inskribaturiko mutikoen zerrenda, 1938ko izen-ematean sartzea baitagokie* 1937-7-1, eta URDULIZ 0031/018, Zerrenda bera, baina 1937-7-22ko data duena. Biek Evaristo Renteriaren sinadura dute.

784 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Evaristo Rentería Zabalaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

785 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Camposancosko Presondegiko zuzendariari zuzendua – Laguardia (Pontevedra) 1940-6-24, Evaristo Renteria Zabalaren gaineko ordezkate-proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria* 1943-10-5, eta *Evaristo Renteria Zabala akusatuen kondenaren denboraren kitapena* 1943-10-7.

dela<sup>786</sup>. Iparraldeko Frontearen erorketaren ostean, barku hori Bilbotik abiatu zen preso beteta, Pontevedrako San Simón uharteko presondegia osatzeko asmoz. Hain zuzen ere San Simóngo presondegian sartu zen Evaristo Renteria, 1938ko urriaren 10ean, eta bertan egon zen 1940ko urtarrilaren 20an Camposancoseko Espetxera lekualdatu zuten arte<sup>787</sup>.

## 2.5 Depurazioa Hezkuntzan

1935-1936 ikasturtean, Eskola Nazional delakoetan Andrés Martín Pérez zen maisua mutikoen eskolatan, eta Eusebia Felisa Ascobere eta Astivia, berriz, neskatilen eskolako maistra. Beste alde batetik, esan dugun legez, María Luisa Leivar Olanok Landako auzo-eskola gobernatzeko zuten, eta Teresa Gangoiti Izaguirrek Mendiondoko. Aurrerago ikusi dugunez, gerra bitartean, Ascobere eta Leivarrek ezin izan zuten ikasturte hasierara bueltatu 1937ko udazkenean; aldiz, Andrés Martín eta Teresa Gangoiti euren lanpostuetan mantendu ziren. Bizkaia mendean hartu ostean, lauek aurre egin behar izan zioten, probintzia osoko maisu-maistrek bezala, euren depurazio prozesuari, atal honetan aztertuko duguna. Kontu hau osatzeko, aztertu nahi izan dugu zer jazo zen Teodoro López Primo Casadorekin, mutikoen eskolako maisu nazionala 1924tik 1934ra, baieta Juana Aguirregomezcortarekin ere, Erraskondoko (Laukiz) auzo-eskolako maistra, Amancio Nievaren emaztea bera, lehen udalbatza frankista laburreko zinegotzia, eta bigarreneko alkatea.

Militar matxinatuen ikuspegian, irakasleak ziren, intelektualekin batera, euren altxamendua *“ezinbesteko egin zuen subertsioaren”* arduradunak. Horrela jasotzen zuen 1936ko azaroaren 11n Burgosko Gobernuaren EAOn argitaratutako 66. Dekretuak, berba egiten zuenean *“ideologiek eta erakunde disolbatzaileek monopolizatutako”* Irakasletza bati buruz. Horregatik, beharrezkoa ikusi zen Irakaskuntza Publikoan zeuden langileen *“erabateko azterketa sakon”* bat aurrera eramatea, *“irakaskuntzaren errotiko eta behin betiko berrantolaketa”* baten atariko tramite gisa. Horren guztiaren helburua zen *“(…) errotik erauztea gure aberria hain zorigaitzoko egoerara eramateko funtsezko eragile izan diren apostolu horien doktrina faltsuak”*<sup>788</sup>. Laburbilduz, Santiago Vega Sombriaren hitzetan, *“(…) militar matxinatuak konturatzen ziren hezkuntzak zuen garrantzia berebizikoaz, bereziki lehen hezkuntzak, ardurak pizteari eta herritar askeak sortzeari dagokionez”*. Hori dela-eta, beharrezkoa zen *“Errepublikaren eraginari gogor egitea”*, bere eskola-obra suntsituz depurazio prozesuen bitartez<sup>789</sup>.

786 BADIOLA ARIZTIMUÑO, pág. 268.

787 A.A.O Funtza: Justizia Ministerioa – Presondegietakozko Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduen Atala, *Evaristo Rentería Zabalen fitxa* (sinadura barik)

788 AROSTEGUI, 183-184 or.

789 VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*, Bartzelona, Editorial Crítica, 2011, 208 or.



Depurazio espediente baten tramitazio prozesuak beti mekanika berari jarraitzen zion. Lanean jarraitu edo lanpostura itzuli gura zuen maistra edo maisuak eskabide bat aurkeztu beharra zeukan eta horrekin batera, *“zinpeko aitorpen bat gerra aurreko eta bitarteko bere jarduera politiko eta sindikalei buruz, baita Mugimendu Nazionalari dagokionez izandako jokabide zehatzari buruz”*. Dokumentazio bi hauek ziren ezinbestekoak Depurazio Batzordeak depurazio espedientea irekitzeko. Horren ostean, batzordeak txostenak eskatzen zizkien irakaslearen eskolaren udalerriko agintariari: alkatea, parrokoa, Guardia Zibila eta *“ospe tatxa gabeko herriko aita bat”*. Txosten horiei batzen ahal zitzaizkien salaketa publiko edo izen bakoak, baita irakaslea beraren lankideenak ere. Lekukotasun guztiak bildu ostean, batzordeak erabakitzen zuen interesduna zigortzen zen edo ez. Zehapena ipiniz gero, maistrak edo maisuak hamar eguneko epea zuten karguei kontra egiteko. Francisco Morente Valerok adierazten duenez, *“(…) ez zen nahikoa idatzizko gezurtapen soila, batzordeek agiri bidezko frogak aurkeztera behartzen zuten”*, besteak beste, *“erruduntasun zantzuak era eztabaidaezinean desegingo zituzten pertsona sinesgarrien bermea”*. Behin dokumentazio hori entregatuta espedientea ixten zen zegokion *“ebazpen proposamenarekin (errugabetzeko edo zigortzeko)”*, eta Kultura eta Irakaskuntza Batzordera bidaltzen zen, hori baitzen behin betiko ebazpena ematen zuen erakundea. 1938ko otsailetik aurrera Hezkuntza Ministerioak hartuko du horren ardura<sup>790</sup>.

Behin Bilbo galduta, Foru Aldundiko administrazio langile guztiak kargugabetu zituzten, besteak beste auzo-eskoletako maisu-maistrak, euren lanpostura bueltatzea eskatzeko eskubidea izan arren.

### 2.5.1 María Luisa Leivar Olano

Gerra Zibilak Tolosan oporretan zegoela harrapatu zuen María Luisa Leivar Olano maistra, hau da, bere jaioterrian, eta bertan geratu zen gerrak iraun bitartean. Urdulizko *“liberazioaren”* berri izanda, eskutitz bat igorri zion Bizkaiko Diputazioko Lehendakariari ekainaren 19an, eta eskaini zizkion *“bere zerbitzuak edozein sail edo bulegotan”*, maistra moduan berriz onartuko zutela itxaroten zuen bitartean<sup>791</sup>. Zenbait egun geroago, hilaren 22an, Aldundiko Irakaskuntzako ikuskatzaileari idatzi zion jakinarazteko ezinezkoa zuela Bizkaira lekualdatzea, ez zegoelako probintzia hartarako igarobaimenik. Horregatik eskatu zion *“(…) dei egin ziezaiotela, Bizkaira igarotzea errazteko”*. Gainera, erregutu zuen *“(…) mesedez, nire Tolosako etxera jakinarazteko gure aurkezpenari buruzko xedapenik egonez gero (...)”*<sup>792</sup>.

---

790 MORENTE VALERO, Francisco *“La depuración franquista del magisterio público. Un estado de la cuestión”* in *Hispania*, LXI/2, 208 zk., 2001, 672-673 or.

791 ADMINISTRATIOAREN ARTXIBO OROKORRA (A.A.O.) 32. kaxa/13069, 45. espedientea: *“María Luisa Leivar Olanoren depurazio espedientea”*, *María Luisa Leivar Olanoren mezua, Bizkaiko Aldundiko lehendakariari zuzendua 1937-6-19.*

792 *Ibíd. María Luisa Leivar Olanoren mezua, Bizkaiko Aldundiko Irakaskuntzako ikuskari buruari zuzendua 1937-6-22.*

Uztailaren 1ean, Bilbon dagoeneko, eskabide bat aurkeztu zion Irakaskuntzako ikuskatzaileari eta arren eskatu “(...) *auzo-eskoletako maistren mailan berriz onartzeko*”, zergatik era egoera zela-eta ezinezkoa izana zitzaiolako “(...) *bere lanpostura bueltatzea eskatzea ezarritako epean*”<sup>793</sup>.

Bueltatzeko eskaera onartua izan zen, eta horren ostean bere jokabide politiko eta erlijiosoari buruzko txostenak eskatzeari ekin zioten. Orduko, Urdulizko alkate Manuel de Uriberen txostena, 1937ko abuztuaren 10ean emana, maistraren aldeko samarra izan zen. Bere alde jokatu zuen “(...) *herri honetan izandako egonaldi laburrak*”, udalburuak, okerturik, “*pare bat hilabete*”-kotzat jo zuena, eta irakaslea Plentzian bizi izana<sup>794</sup>. Bi faktore hauek zirela-eta, alkateak nabarmendu zuen ezin zuela argibiderik eman Leivarren joera politikoren gainean. Irakaslearen lana oso ondo baloratu zuen Uribek, eta adierazi zuen “(...) *bikain portatu zela, eskolako umeen maitasuna irabazita, eta itxuraz sano arduratsua zen bere eginbeharrak egiterakoan*”. Beste alde batetik, udalburuak nabarmendu zuen maistra “(...) *sano erlijiosoa agertu zela (...) elizan egiten ziren ospakizunetara umeak joanaraziz eta hauengan sustatuz izpiritu erlijiosoa*”<sup>795</sup>.

Tolosako alkateak, berriz, baieztatu zuen “(...) *nahiz eta inongo alderditara afiliatuta ez egon, eskumak begiko zituen pertsona*”<sup>796</sup> zela. Plentziako alkateak adierazi zuenez, oster, “*nahiz eta ez zitzaion inongo jarduera politikorik ezagutzen, Eusko Alderdi Jeltzalearen aldeko sutsutzat jotzen da*”<sup>797</sup>. Berriz, Tolosako Falangeak bere txostenean, “*errepublikar jarraitzailetzat*” hartu zuen, eta adierazi zuen “(...) *Aldasoro familiarekin harreman estua zuela*”, Euzkadiko Gobernuako kontseilari errepublikano Ramón María Aldasorori buruz ari zirelarik. Era berean adierazi zuten maistrak “*portaera ona eta katolikoa*”<sup>798</sup> zuela.

Maistrak berak argitu zuen zein izan zen bere filiazio politikoa, 1937ko irailaren 7an Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuko buruaren aurrean agertu zenean, azaldurik “(...) *Ermuako Emakume Abertzale Batza erakundeko (kide izan zela) 1931tik 1934ko ekaina arte, kuota ordaintzeari laga zionean*”. Euzko Irakasle Bazkunakoa ere izana zen 1931z geroztik. Beste alde batetik, onartu zuen “(...) *Eusko Alderdi Jeltzalea begiko izan zuela*”, baina jakin zuenean “(...) *pertsona iraultzaileekin batu zela, desagertu zitzaion harenganako begikotasun guztia (...)*”. Horren frogatzeko, maistrak argudiatu zuen “(...) *nahiz eta horretarako dei egin zioten uko egin ziola Tolosako hiribildua lagatzeari (...) eta (...) nahiago izan zuela itxaron tropa nazionalen sarrera (...)*”, gero bolondres gisa jardun zuelarik

793 Ibid. *María Luisa Leivar Olano berririo hartzeko eskaera 1937-7-1.*

794 Plentziako alkateak 1937-9-3an emandako txostenean adierazten zen maistra Gerra Zibila piztu baino “*zortzi bat hilabete*” lehenagotik bizi zela kostaldeko herrian.

795 Ibid. *Urdulizko alkate eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buru Manuel de Uriberen txostena 1937-8-10.*

796 Ibid. *Tolosako alkatearen txostena 1937-8-20.*

797 Ibid. *Plentziako alkatearen txostena 1937-9-3.*

798 Ibid. *Tolosako F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena 1937-8-7.*

Armadarako jantzitegietan<sup>799</sup>. Hurrean, maistrak argudio hauek erabiliko zituen iraganean EAJko emakume-ataleko partaide izanaren kontrapisu gisa. Beste alde batetik, Bizkaira itzultzeko frontea gurutzatzeko ezintasuna, ez joateko erabaki pertsonal bat izan balitz moduan morroztu zuen, beharbada.

Bere burua EAJren jarraitzailetzat aitortzea arrazoi “nahikoa izan zen bere lekualdatzea agintzeko”. Baina egoera larritu zitzaion EAB eta Euzko Irakasle Bazkunakoa izateagatik. 1934an elkarte femenino ermuatarraren kide izateari utzi ziola jakin izanagatik ere, pentsatu zuten antolamendu bi horien partaide izatea “(...) begikotasun hutsaz harago egiten duela eta eskatzailea garbiri nazionalista edo separatistatzat hartzeko egoeran ipintzen du, ezelako aringarri barik (...)”. Horregatik, irailaren 16an proposatu zen “(...) auzipetua beste auzune-eskolatara lekualdatzea eta dagoen Gorputzeko mailan postu bat jaiste”<sup>800</sup>. Urriaren amaieran, Aldundiak onartu zuen proposamen hori<sup>801</sup>.

Hala eta guztiz ere, 1939ko uztailan, Hezkuntza Ministerioak, 1939ko otsaileko legeari helduta, 1937an ezarritako zigorra gogortu zuen. Hartara, proposatu zuen “(...) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzietatik kanpora lekualdatzea eta hamabost urteko desgaitasun ezartzea zuzendaritza eta konfiantzazko karguetan lan egiteko kulturako eta irakaskuntzako erakundeetan”<sup>802</sup>. Ministerioaren agindua geldiarazten saiatzeko, María Luisa Leivarrek zenbait lekukotasun aurkeztu zituen 1939ko abenduan. Denak oso aldekoak ziren. Berbarako, Berriatuako eta Ondarroako alkateek adierazten zuten “Mugimendu Nazional Lariotsuarekiko bere atxikimendua” izan zela “gogotsua” eta “kartsua”. Urdulizko alkate Amancio Nievak Manuel de Uribe bidalitakoaren ildo bereko txosten bat egin zuen. Tolosako alkateak, berriz, 1937an irakasleak aurkeztutako lekukotasuna indartu zuen, kontatuz “herri hau askatu bezain laster”, maistra agintari berriei aurkeztu zitzaizela “gar betean atxikitzeko Kausa Nazionalari”<sup>803</sup>. Lekukotasun hauek entregatu arren, badirudi Euskaditik kanpora lekualdatu zutela egiazki, 1942ko abenduan bere espedientearen berrikuspena eskatu zuen-eta. Hura, baina, ukatu egin zitzaion 1943an. Oraingoan, heriotza ziurtagiri bat aurkeztu zuen zinetan frogatzen zuen “(...) neba bat galdu zuela gorriek erahilda Madrilan”<sup>804</sup>.

---

799 A.A.O 32. kaxa/13069, 45. espediente: “María Luisa Leivar Olanoren depurazio espedientea”, María Luisa Leivar Olanoren deklarazioa Bizkaiko Irakaskuntza Publikoko buruaren aurrean 1937-9-7.

800 Ibíd Instrukzioaren mezua, Bizkaiko Probintziako Aldundiari zuzendua 1937-9-16.

801 Ibíd. Bizkaiko Probintziako Aldundiaren mezua, María Luisa Leivar Olanori zuzendua 1937-10-28.

802 Ibíd. Depurazio Espedienteak Ebazteko Batzorde Nagusiaren proposamena María Luisa Leivar Olanoren gainean 1939-7-31.

803 Notarioaren lekukotzak 1939-12-29.

804 Ibíd. María Luisa Leivar Olanoren eskaera Irakasletzaren Depurazio Batzordeko lehendakariari – Madril 1942-12-12, Javier Leivar Olanoren heriotza-agiria, Hortalezako (Madril) udal epaile eta Erregistro Zibilaren arduradunak emana 1942-12-5, eta Berrikuspenen Epaitegi Nagusiko instrukzio epailearen adierazpena, María Luisa Leivar Olanoren depurazio espedientearen berrikuspena ukatzeko 1943-4-10.

## 2.5.2 Teresa Gangoiti Izaguirre

Teresa Gangoiti Izaguirrek zorte handiagoa izan zuen María Luisa Leivarrek baino. Gangoiti, Mendiondoko auzo-eskolako maistra, Urdulizko *Emakume Abertzale Batzako* kide izana zen<sup>805</sup>. Gainera, Begoñako basilikan Santos Arazosarekin ezkondu zeneko ospakizunari buruzko albistea, honela agertu zen argitaraturik *Euzkadí* egunkarian, 1933ko martxoan:

*“Muy en breve contraerán matrimonial enlace nuestro amigo y buen abertzale Santos de Arazosa con la señorita Teresa Gangoiti maestra de la escuela de barriada de Erraskondo y afiliada emakume de ésta. Muchas felicidades le deseamos al nuevo hogar euzkotar”*<sup>806</sup>.

Hala eta guztiz ere, EABko afiliazioari buruzko datua ez zen haren depurazio espedientean jaso; 1937ko abuztuan Manuel de Uribe, alkate eta tokiko Falangeko buruak, emandako lekukotasunean alboratua edo ezkutatua izan zen. Uribe adierazi zuen maistra ez zela “(...) gaur egun legez kanpokotzat hartutako inongo alderdi politikotako kide izan”, eta honek galaraziko zuen inor haren izena bilatzen hastea Urdulizko EABri konfiskatutako dokumentazioan. Gainera, alkateak aurrekari moduan gehitu zuen maistra “*bereziki tradizionalista zen Larrabetzuko familia batekoa*” zela, eta “*gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran*” sutsu agertu zela “*Mugimendu Nazional Lariotsuaren garaipenaren alde*”. Amaitzeko, nabarmendu zuen “*oso ondo ikusia*” zegoela irakasle moduan egiten zuen lana eta “*sano pertsona erlijioso*” zela<sup>807</sup>.

Teresa Gangoitik 1937ko ekainaren 28an eskatu zuen itzulera, Mendiondoko auzo-eskolako maistra moduan, jakin ostean Aldundiak “(...) maistra guztiak” kargugabetu zituela<sup>808</sup>. Irailaren 6an deklaratu zuen Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuko buruaren aurrean. Adierazi zuen ez zela “*inongo alderdi politikotako kide izan, baina bai Euzko Irakasle Bazkunakoa, ulertzen zuelako ez zuela izaera politikorik eta bai konfesional eta profesionala*”. Itxura guztien arabera, berretsi dezakegu Gangoitik bere defentsa prestatzeko iraganean *emakume* izana zela ezkutatu nahi izan zuela. Horrek azalduko luke esan izana:

*“(...) por tradición familiar y por convencimiento propio he sostenido siempre ideas derechistas y a pesar de la discreción que el cargo le imponía, en el seno de la intimidad y ante personas de su confianza siempre ha hecho manifiesta aquella su significación”*<sup>809</sup>.

805 MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (M.H.D.Z.), P.S. Bilbo 217 K., 3. Espedientea.

806 *Euzkadí* 1933-3-15.

807 A.A.O, 32. kaxa/13069, 45. espedientea, “Teresa Gangoiti Izaguirreren depurazio espedientea”, *Urdulizko alkate eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi Manuel Uriberen txostena, Teresa Gangoitiren ganean* 1937-8-16.

808 *Ibíd.* Maistra lanpostuan berriro hartzeko eskaera, *Teresa Gangoitik egina* 1937-6-28.

809 *Ibíd.* *Teresa Gangoitiren deklarazioa Bizkaiko Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuko buruaren aurrean* 1937-9-6.

Instrukzio-buruak erabaki zuen pertsona baten aurrean zegoela zeinak “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuarekiko hain atxikimendu benetako duen, zeren eta, alde horretatik, ez baitu inongo hutsik (...)*”. Instrukzio-buruarentzat, Teresa Gangoitik akats bat egina zuen Euzko Irakasle Bazkunan kidetzean, baina honela argudiatu zuen:

*“(...) al mismo tiempo (...) por un error de perspectiva, tuvo la flaqueza de afiliarse a la Agrupación de Maestros Vascos, cayendo en la red capciosa de que se valió el bizcarrismo (sic) para sumar adeptos, mejor dicho, para contar con el concurso de personas que ni compartían ni aprobaban sus siniestros designios. Conociendo el ambiente político del país y la hipócrita conducta de ese partido, cabe disculpar la inadvertencia (sic) de personas como la expedientada, que no supo discernir bien los peligros de una filiación; pero esa disculpa no la exime de una responsabilidad en estos momentos de reajuste de la vida española”<sup>810</sup>.*

Azkenik berriz ipini zen maistra Mendiondoko auzo-eskolan, zigorrik txikiena ezarrita, hau da, “*mailan postu bat jaistea*”. Gainera, ohartarazi zitzaion ez zedin erori “(...) *Euzko Irakasle Bazkuna desagertua bezalako en eskarrietan, apolitizismo eta konfesionaltasunaren estalkiaren azpian, Mugimendu Nazional Loriotsua oinarritzen den ideien kontrako ekintza garatu dutelako*”<sup>811</sup>. 1939ko uztailean Hezkuntza Ministerioak egindako espedientearen berrikuspenean, maila-jaistea kendu zuen eta bere horretan utzi zuen “(...) *bere karguaren itzulera, kobratu bako soldatak jasotzeko eskubidearekin*”<sup>812</sup>.

### 2.5.3 Juana Aguirregomezcorta Iriondo

Juana Aguirregomezcorta Urdulizko bizilaguna zen eta maistra gisa ziarduen Laukizko *Menchacaetasko* auzo-eskolan. Lehenago esan dugun legez, Amancio Nievarekin zegoen ezkontuta, hau da, lehenengo udal frankistako zinegotzi eta, geroago, epealdi hartako bigarren alkatearekin. Urdulizko orduko alkate Manuel de Urbek 1936ko abuztuan egin zuen txostenaren arabera, maistra “(...) *uztailaren 19aren aurreko eta osteko portaeragatik*”, hartu behar zen “(...) *egungo Erregimenaren aldekotzat, betidanik ideia eskuindarrak izan baititu*”. Urbek erantsi zuen “(...) *mugimenduaren denboran haren aldeko propaganda*

---

810 Ibíd. *Instruktoarearen mezua, Bizkaiko Probintziako Aldundiari zuzendua* 1937-9-15.

811 A.A.O., 32. kaxa/13069, 45. espediente, “*Teresa Gangoiti Izaguirre maistraren depurazio espediente*”, *Bizkaiko Probintziako Aldundiaren mezua, María Teresa Gangoiti Izaguirreri zuzendua* 1937-11-3.

812 Ibíd. *Depurazio Espedienteak Ebazteko Batzorde Nagusiaren proposamena Teresa Gangoiti Izaguirreren gainean* 1939-7-31.

*posible guztia egin du, ikustaraziz zein onuragarria izango zen Mugimendu Nazional Lariotsuaren garaipena*". Alkateak, bere txostena amaitzeko, nabarmendu zuen Aguirregomezcorta "oso ondo ikusia" zegoela maistra moduan eta "sano pertsona erlijiosoa zela"<sup>813</sup>.

María Luisa Leivar eta Teresa Gangoitik legez, Amancio Nievaren emazteak deklaratu zuen Euzko Irakasle Bazkunakoa izana zela "(...) ulertu zuelako elkarte katolikoa, apolitiko eta profesionala zela"<sup>814</sup>. Kasu honen ardura zuen Instrukzio Zerbitzuaren Buruarentzat, Gangoitiren kasuan gertatu bezala, partaidetza hura zen bere espedienteko orban bakarra. Izatez, teoria berari eutsi zitzaion: Aguirregomezcorta izana zen:

*"(...) seducida como tantas otras, de igual significación que la interesada por la engañosa apariencia en que se mostraba de entidad católica, apolítica y profesional, cuando en realidad no era sino una filial de "Solidaridad de Trabajadores Vascos" identificada con ésta en tendencias y orientaciones"*<sup>815</sup>.

Espedientearen ebazpenak agindu zuen maistraren itzulera *Menchacaetasko* eskolan eta zigor minimo bat; gainera, Teresa Gangoitiri egin zitzaion ohartarazpen bera jaso zuen, "eskaerez" fidatu ez zedin<sup>816</sup>. Kultura Ministerioak 1939an egin zuen Espedientearen berrikuspenak Aguirregomezcorta bere karguan berretsi zuen arren, "(...) bost urteko desgaiuntza (gehitu zuen) zuzendaritza eta konfiantzazko karguetan ibiltzeko kulturako eta irakaskuntzako erakundeetan"<sup>817</sup>.

## 2.5.4 Eusebia Felisa Ascobereta Astivia

Gerra Zibilaren piztuerak Nafarroan harrapatu zuen, oporretan, Eusebia Felisa Ascobereta Astivia, Eskola Nazionaletako nesken maistra. Ascobereta Eguarasko (Atez) eskola mistoko behin-behineko maistra izendatu zuten 1936ko abenduaren 2an Iruñeko agintari frankistek; ikusiko dugunez, hauek eta Urdulizko agintariek oso iritzi desberdina zuten irakasleari buruz. 1937ko uztailaren 3an, Ascobereta bere kargua utzi zuen Eguaratsen<sup>818</sup>, eta hilaren 27an eskatu zuen Urdulizko eskolara bueltatzea, depurazio prozesua abiaturik<sup>819</sup>.

813 A.A.O 32. kaxa/13068, 12. espediente, "Juana Aguirregomezcorta maistraren depurazio espediente", Urdulizko alkate eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi Manuel Uriberen txostena, Juana Aguirregomezcortaren gainean 1937-8-19.

814 *Ibíd.* Juana Aguirregomezcortaren deklarazioa Bizkaiko Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuko buruaren aurrean 1937-9-6.

815 *Ibíd.* Zerbitzuko buruaren mezua 1937-9-20.

816 *Ibíd.* Bizkaiko Probintziako Aldundiaren mezua, Juana Aguirregomezcortari zuzendua 1937-11-3.

817 A.A.O 32. kaxa/13068, 12. espediente, "Juana Aguirregomezcorta maistraren depurazio espediente", Depurazio Espedienteak Ebazteko Batzorde Nagusiaren proposamena Juana Aguirregomezcortaren gainean 1939-7-31.

818 A.A.O 32/13067, "Eusebia Felisa Ascobereta Astibia maistraren depurazio espediente", Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkariaren ziurtagiria 1942-2-25.

819 *Ibíd.*

Urdulizko alkate Manuel Uribek abuztuan egin zuen txostena guztiz kontrakoa izan zen maistrarentzat. Duda barik, Ascobereta “*gizon oso ezkertiar batekin*” ezkondu izana eta erlijioaren gaia, izan ziren Uribek irakaslearen aurkako akusazio mordoa jaurtitzeko piztaileak. Udalburuak, besteak beste, argudio matxista bat erabili zuen: haren portaera pribatuari “*oso zalantzazkoa zeritzon*”, argudiatuz bere senarra “*bera baino askoz gazteagoa*” zela. Beste dokumentu batzuekin datuak erkatuz, badakigu maistraren senarra, alkateak “*zeharo ezkertiar eta propagandistatzat*”<sup>820</sup> jotzen zuena, Ángel Redin Solana zela<sup>821</sup>. Bigarren Errepublikaren garaian Urdulizko errepublikanismoari buruzko atalean aditzera ematen genuenez, Redin izan zen Urdulizko Agrupación Republicana Radicaleko lehendakaria 1931n<sup>822</sup>.

Politikoki, Uribek nabarmendu zuen Ascobereta “*separatismoaren etsai*” agertzen zela, baina ezinezkoa zela “*nori ematen zion botoa jakitea*”. Irakasle moduan, alkateak eman zuen iritzia mespretxuzkoa zen, iruditzen zitzaiolako “*(...) txarra, uler bedi, utzia. Ziur nago berak behar zuela irakaslea, ezin baitzuen ez zekiena irakatsi*”. Gainera, ñabardura argi eta garbi politikoa gehitu zuen txosteneko atal horretan, adierazi baitzuen “*(...) leherketa batek suntsitu ostean, eskolan ikusi zituela hainbat kartel lurrean barreiatuta, zeinetan Errepublika eta bere gizonak goraiatzten ziren*”<sup>823</sup>.

Arazo erlijiosoa erabakigarria izan zen, bai alkatearen txostenean, baita abade nagusiarenean, Sopelako Guardia Zibileko kaboarenean eta Urdulizko familiako aitarenean ere.

Serafín Sagarna oraindino zen Urdulizko abadea bere txostenean nabarmendu zuenean “*hasieran*” “*elizarekikoak*” betetzen zituela, baina “*gero baztertu zituen, eta nekez ikusten zen Elizan*”. Horrez gainera, “*(...) hemen ez zuen Bazkoz egiten*”<sup>824</sup> ezta “*(...) kulturako dirurik ematen ere*”<sup>825</sup>. Alkateak zehaztu zuen “*(...) duela hiru urte baino gehiagotik ez zuela herri honetako Eliza zapaldu*”. Ondorio modura, iritzi zion erlijioaren ikuspegitik “*eredu txarra*” zela<sup>826</sup>. Guardia Zibilaren txostena badirudi okertuta dagoela, elizarekikoaren betekizuna 1930eko “*lehen*

---

820 Ibid. Urdulizko alkate Manuel de Uribaren txostena, Eusebia Felisa Ascoberetaren gainean 1937-8-18.

821 B.F.A.H., URDULIZ 0027/029 Biztanleen Zentsua 1936-9-15

822 *El Liberal* 1939-9-19

823 A.A.O., 32/13067, “Eusebia Felisa Ascobereta Astibia maistraren depurazio espedientea”, Urdulizko alkate Manuel de Uribaren txostena, Eusebia Felisa Ascoberetaren gainean 1937-8-18.

824 Parrokiako Matrikulan (B.E.H.A. 3300/002-00), izenen gaineko informazioa eskura ez badugu ere, datuen babesa dela-eta, eliztarren jaiolekuak agertzen dira behintzat. Horrek maistra identifikatzeko balio izan digu. Abade nagusiak deklaratu zuen legez, 1935etik 1937ra bitarte, Eusebia Felisa Ascoberetak ez zuen Bazkoz egin. Hala ere, abadeak gehitu zuen parentesi artean: “Ez (parrokia honetan)” 1937 dataren alboan. Hain zuzen ere, maistrak ez zuen Urdulizen agindua bete ahal izan Nafarroan zegoelako 1936az geroztik.

825 A.A.O., 32/13067, “Eusebia Felisa Ascobereta Astibia maistraren depurazio espedientea” Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Serafín Sagarnak egina 1937-8-18.

826 Ibid. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Urdulizko alkate Manuel Uribek egina 1937-8-18.

*bi edo hiru hilabetetara*” mugatu zuelako. Hala eta guztiz ere, eransten zuen *“Erljioari zegokionean ez ziela debekatzen Elizara joatea edo meza entzutea”*<sup>827</sup>. Azkenik, bere lekukotasuna emateko aukeratutako familiako aitak, Juan José Carrassonek, ziurtatu zuen maistra ez zela *“(…) herri honetako elizara etortzen”*; baina *“(…) ondoko herrikora joan ei zen, Plentziara”*, nahiz eta ez jakin *“(…) zenbateraino”* betetzen zituen Ascoberetak elizarekikoak<sup>828</sup>.

Lau txostenak bat datoz Ascobereta maistra txartzat jotzen. Sagarnaren ustetan, ez zegoen *“(…) behar bezala prestatuta irakaskuntzarako”*<sup>829</sup>. Guardia Zibileko kabo Gregorio Gómezen iritziz bere jarduketa profesionala *“(…) eskasa zen, bere ikasleek aurrerapen gutxi adierazten zuten-eta (…)”*<sup>830</sup>. Carrassonek, berriz, *“(…) irakaskuntzarako kaskarra”* iritzi zion<sup>831</sup>.

Guztiz kontrako irudipenak agertzen zituzten Nafarroatik etorritako txostenek. Berbarako, Eguarasko alkateak nabarmendu zuen maistrak elizarekikoak bete zituela, eta herriko erretoreak ere baieztatu zuen hori. Beste alde batetik, udalburuak agertu zuen haren jarduketa profesionala *“(…) ona (izan zela), eta herrian pozik zeudela bere lanarekin”*<sup>832</sup>.

Beste alde batetik, Berroetako erretorearen txostenak –han jaiotakoa zen Eusebia Felisa Ascobereta– bermatu zuen elizarekikoak betetzeari zegokion auzia. Hartara, erretoreak gaztetan maistrak izandako elizkotasuna deskribatu zuen. Haren esanetan, bere portaera bat zetorren *“(…) emakume gazte kristau eta on batekin, bai moralari eta baita erlijioari dagokionez, Penitentziaren eta Jaunartzearen Sakramentu Santuarekikoak egiten zituen maiz eta elizara etortzen zen jaiegunetan ez ezik astegunetan ere (…)”*<sup>833</sup>. Berriz, Bilboko San Antongo Elizako abade nagusiak *“(…) nazionalistei”* leporatu zien *“(…) haren gaineke txosten txarrak egin izana haren portaera erlijiosoari”* zegokionez. Bere iritziz, maistra *“(…) erlijioaren aginduekiko zinez konplutua zen, apaizen lehengusina eta arreba (…)”*. Horregatik, eskatu zuen *“(…) ez onartutzat eman zedila Urdulizko aurkako txostena, mendeku zital bat delako argi eta garbi”*<sup>834</sup>.

---

827 Ibíd. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Sopolako Guardia Zibileko kabo Gregorio Gómez Garcíaek egina 1937-8-15.

828 Ibíd. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Juan José Carrassonek familiako aita den aldetik egina 1937-8-18.

829 Ibíd. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Serafin Sagarnak egina 1937-8-18.

830 Ibíd. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Sopolako Guardia Zibileko kabo Gregorio Gómez Garcíaek egina 1937-8-15.

831 Ibíd. Eusebia Felisa Ascobereta Astibiari buruzko txostena, Juan José Carrassonek familiako aita den aldetik egina 1937-8-18.

832 Ibíd. Eguarasko (Nafarroa) alkateak Eusebia Felisa Ascoberetaren gainean egindako txostena 1937-11-6.

833 Ibíd. Abade nagusi José Miguel Zuriain Larreak Eusebia Felisa Ascoberetaren gainean egindako txostena 1937-11-3.

834 A.A.O., 32/13067, “Eusebia Felisa Ascobereta Astibia maistraren depurazio espedientea”, Bilboko San Antonio Abadeko abade nagusiaren eskutitza, Bilbo 1937-11-19.



Aurkeztutako dokumentazioa ixteko, 1937ko abenduan, maistrak idazki bat osatu zuen Urduliztik bere aurka emandako akusazioei erantzutearren. Alde batetik, bere katolizismoa nabarmendu zuen adibide moduan jarriz lan egin zuela “(...) 3 urteko ume batek (...) bataiatuak ez zegoena (...) bataio urak jaso zitzaizkion, neofitoaren amabitxi izan zelarik”<sup>835</sup>, edo bere etxean hartuta zeukan ume batek “lehen Jaunartzea jaso zuela Urdulizten”. Elizara joaten ez zelako akusazioaren aurrean azpimarratu zuen “herriko, Plentziako eta Bilboko elizetan ikusi nauten pertsona ugariaren izenak aitatu nitzakeela”<sup>836</sup>.

Ascobereetak “(...) bere betebeharrak profesionalekin utzia” zelakoa gezurtatu zuen esanez “fruituak ez baziren behar bezain onak izan nagusiki hizkuntzaren arazoagatik izan dela”<sup>837</sup>. Antza denez, erabat euskaldunak ziren umeei gaztelaniaz eskolak emateak zuen zailtasunaz ari zen maistra.

Ez zuten ezertarako balio izan ez aldeko lekukotasunek ez maistraren beraren defentsak, Urduliztik erabilitako argudioek eragin baitzuten Bizkaiko Irakasletzako Langileen Depurazio Batzordeak 1938ko otsailaren 28an hartutako erabakia: “(...) aho batez PROPOSATZEA LEKUALDATZEA PROBINTZIATIK KANPO”<sup>838</sup>.

Erligioaren gaia izan zen erabaki honen oinarri nagusia. Batzordearen iritziak, maistraren erlijio gabetasunak bat egiten zuen “(...) Fronte Popularraren ideologiarekin, haren programaren puntu zorrotzenen batean, hain zuzen ere Nazioaren muinaren kontrakoenetakoa den batean(...)”. Horri gehitu zitoten “utzikeria” irakasle moduan, eredu txartzat hartu zutena. Arrazoi horiengatik, ezin zen “(...) bueltatu, Estatu berriak berrezarria izatearen zigiluak baimenduta, bere aurreko portaeraren lekuko izan zen herrira (...)”. Depurazio Batzordea, bere irizpenean, aieruka ibili zen, Ascobereetak Eguaratsen erakutsitako portaera ez ote izan Urdulizko jokabidearen zuzenketa bat. Zelangura ere, zuzenketa hura ez zitzaien iruditzen “(...) nahikoa nabarmena, ez aurrekoa ezabatzeke, ezta Urdulizko herriak horren berri edukitzeke”<sup>839</sup>.

---

835 Bigarren Errepublikaren denboran Urdulizko parrokiak bataiatu bako ume bakarraren berri eman digute dokumentuek. Ascobereetak, antza, horretaz dihardu. Itxura guztien arabera, maistrak bataiatzea lortu zuen umea Tomás Hernando Lacruzen semea zen; hura maistraren senarraren laguna zen Urdulizko Acción Republicanan. *El Liberalen* 1932-10-15ean agertu zenez, umea erregistro Zibilean baino ez zuten inskribatu.

836 A.A.O., 32/13067, “Eusebia Felisa Ascobereeta Astibia maistraren depurazio espedienteak”, *Eusebia Felisa Ascobereetak karguei emandako erantzuna 1937-12-14*.

837 *Ibid.*

838 *Ibid.* Bizkaiko Irakasletzaren Depurazio Batzordearen proposamena Eusebia Felisa Ascobereeta itzultzeke espedientearen gainean 1938-2-28.

839 *Ibid.*

Espedientearen berrikuspenak, 1939an, nahikoa okertu zuen maistraren egoera. Hartara, lekualdaketa, Bizkaitik kanpo ez ezik, hauetara ere zabaldu zen:

*“(...) las provincias Vascongadas y Navarra, con prohibición de solicitar cargos vacantes durante un periodo de cinco años e inhabilitación perpetua para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en instituciones culturales y de enseñanza”<sup>840</sup>.*

1943an, espedientea berrikusi egin zen ostera ere. 1942an, Eusebia Felisa Ascoberetak lortua zuen Andrés Gastelu Urrutiak egindako txosten bat. Serafín Sagarna ordezkatu zuen abade ekonomoa zen hura. Dokumentuan, abade nagusiak bere aurrekoak 1937an esandakoaren kontrakoa defendatzen zuen. Modu horretan, Gastelu Urrutiak ziurtatu zuen irakasleak *“(...) portaera moral eta erlijioso ona (...)* agertu zuela Urdulizen *“(...) egon zen bitartean (...)”<sup>841</sup>. Amancio Nieva alkateak ere bere aurrekoa gezurtatu zuen eta ziurtatu *“portaera moral ona”* izan zuela *“(...) herri honetan egon zen bitartean”<sup>842</sup>.**

Maistrak Juana Martínez Fernándezek lekukotasuna ere aurkeztu zuen. Juana Martínez *“(...) Juan Landa Espainiako zaldunaren alarguna (...)”* zen *“(...) gorriek erahil baitzuten Bilboko Galera etxean, 1937ko urtarrilaren 4an”*. Adierazi zuenez, ederto ezagutzen zuen Eusebia Felisa Ascoberetaren *“(...) portaera politiko, sozial, moral eta erlijioso”* *“Urdulizko herrian (maistra) egon zen denbora guztian harremanetan egon nintzelako berarekin eta nire alabak bere ikasleak zirelako (...)”<sup>843</sup>.*

Juan Landaren alargunak ziurtatu zuen Ascobere eta beti karlista azaldu zela *“(...) jendaurrean eta era pribatuan, eta bere ideiak adierazi zituen noiz eta herrian separatismoa aldarrikatzen zenean, zeinen kontra borrokatu zen kementsuki bai eskolan bai kalean”*. Honi gehitu zion bere *“(...) adierazpen espainolistak”* zirela eta, maistrak *“(...) beregana ekarri zuela batez ere separatistak ziren herriko bizilagun askoren ezinikusia”*. Arazo erlijiosoari dagokionez, Juana Martínezek lekukotasunak kontra egiten zien 1937an Eusebia Felisa Ascoberetak berak eta herriko abade nagusiak egindako deklarazioei. Hala ziurtatu zuen *“ni naiz lekuko denbora guztian Meza Santura eta Jaunartzera joaten zela, baita herriko elizan egindako kultu guztietara ere”*. Gainera, adierazi zuen beti ikusia ziola *“portaera moral eta erlijioso tatxa gabea, bere ikasleei beti irakatsiz, horien artean nire alabak, kristau onak izaten eta ongia egiten”<sup>844</sup>.*

840 A.A.O 32/13067, *“Eusebia Felisa Ascobere eta Astibia maistraren depurazio espediente”*, *Depurazio Espedienteak Ebazteko Batzorde Nagusiaren proposamena Eusebia Felisa Ascoberetaren gainean 1939-7-31*.

841 *Ibíd. Urdulizko abade ekonomo Andrés de Gastelu Urrutiaren ziurtagiria 1942-2-23*.

842 *Ibíd. Urdulizko alkate Amancio Nievaren ziurtagiria, 1942-2-22*.

843 *Ibíd. Juana Martínez Fernándezek ziurtagiria 1942-2-20*.

844 *Ibíd.*

Ez dago dudarik Juan Landaren alargunaren lekukotasunak sendotu egiten zuela bere momentuan Bilboko San Antongo abade nagusiak emandakoa. Izatez, puntu berberak azpimarratzen zituen: maistra pertsona erlijiosoa zela erakusten zuen eta Urduliztik iritsitako txostenen atzean nazionalisten “esku beltza” zegoela, nahiz eta kasu honetan, Juana Martínezek ez zuen hain modu zuzenean esaten.

Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan dauden auzi judizial guztiei erreparatuta, ez dirudi egia izan daitekeenik “nazionalistak” Uribe alkateari maistraren gaineko kontuekin ibiltzea, kontuan harturik agertzen diren informatzaile gehienak bizilagun eskuindarrak zirela. Gainera, nahikoa da alkatearen deklarazioa eta akusazioak gogoratzea, ondorio modura ateratzeko udalburuak, bere ideologia dela-eta, gorroto zituen bi kontuan soilik oinarritu zirela: batetik, maistraren senarra eta, bestetik, elizarekikoei nonbait egiten zien hutsa. Alde horretatik, Urdulizko bizilagunen gainean lehenengo alkate frankistak egindako txosten gehien-gehienak sektore politiko-sozial handienari buruzkoak dira: nazionalistak, guztiak katoliko elizkoiak. Horra zergatik agertzen den hain epel Manuel Uribe bere txostenetan. Aldiz, pertsona ezkertiarrei buruz dauden txosten gutxi horietan, elizarekikoak ez betetzea da agertzen den alderdi negatibo bakarra. Esan bezala, maistrak Urdulizko parrokiaren pasakoz ez egitea izango zen Manuel Uribe alkatearen txosten negatiboaren arrazoi nagusia. Nahiz eta, bide batez esanda, txosten hau da, zalantza barik, ikerketa lan hau egiterakoan kontsultatu ditugun artean ezkorrena.

1943ko berrikusketaren azken txostena nahiko argia izan zen 1938ko zigorrari azalpena ematen. Lehenago iradoki dugun bezala, Urduliztik emandako txostenak erabakigarriak izan ziren *“Baskongadetatik eta Nafarroatik kanpo”* bere lekualdatzea agintzeko. Hala eta guztiz ere, azken berrikuspen honetan azpimarratu zen txosten guztiek erakusten zutela maistra *“gutziz antiseparatista”* zela, *“ezkertiar izateaz era lausoan akusatzen duten”* txostenen baten aurrean. Beste alde batetik, Eguarastik bidalitako txosten *“bikainek”* pisu handiagoa hartuko dute.<sup>845</sup>

Hala eta guztiz ere, San Antongo abadearen lekukotasuna, arestian aitatu duguna, erabakigarria izan zen, Martin Gastelu Urrutia abade nagusiarenarekin batera, desegiten baitzuten *“akusazioaren atalik larriena”*. Hartutako erabakian, gehitu zen ez zirudiela *“(…) zuhurra Maistra Urdulizera bueltatzea bera eta agintarien artean egongo zen tentsioa zela-eta”*. Hala eta guztiz ere, *“(…) frogatutako bere antiseparatismoak aholkatzen du lekualdatzea murriztea probintzia kanpotik barrura”*. Modu horretan, azken erabakiak lehenago ezarritako zigorra apaldu zuen, *“lekualdatzea probintzia barruan”* baimendu zuelako. Horrekin batera, debekatu zitzaion *“(…) bi urtez hutsik zeuden postuak eskatzea”*, eta bost urteko desgaiakuntza ezarri zitzaion *“(…)zuzendaritza eta konfiantzazko karguetan ibiltzeko kulturako eta irakaskuntzako erakundeetan”*<sup>846</sup>.

---

845 A.A.O 32/13067, *“Eusebia Felisa Ascobereta Astibia maistraren depurazio espediente”*, *Eusebia Felisa Ascoberetaren depurazio espedientearen berrikuspena eta behin betiko Ebazpena* 1943-4-29.

846 *Ibid.*

## 2.5.5 Andrés Martín Pérez

Andrés Martín Pérez madrildarra eskola nazionaleko mutikoen irakaslearen kasua korapilatsuagoa da bere kide Ascoberetarena baino. Haren depurazio espedientea tramite hutsa izan zen, bideratu zenean maisua kondena betetzen ari baitzen, 1939ko abendutik, *“matxinadari laguntza emateagatik”*, epaile militarrek Hezkuntza Ministerioari 1940ko urtarrilean jakinarazi zion bezala. Martínen depurazio prozesua 1941eko martxoaren 20an amaitu zen. Egun hartan, Madrilgo Irakasletzaren Depurazio Batzordeak bere irizpidean ezarri zuen gizonaren *“(…) desgaiakuntza bere lanbidean jarduteko eta lehen hezkuntzako Maisuen eskubide guztien galera”*. Zerbait egun geroago, Hezkuntza Ministerioak berretsi zuen erabakia<sup>847</sup>.

Urdulizen maisu gisa egindako jarduna bilduta geratu zen Madrilgo Funtzionarioen Epaitegi Militar Bereziak 1939an bere aurka bideratu zuen premiazko prozedura labor-laburrean. Ez Amancio Nieva alkatearen deklarazioak ezta Urdulizko Falangeko kide José María Ansoleaga Sistiaga eta Isidro Fano Bilbaorenak ez zuten irakasleari kalte egiteko xederik. Nievak jakinarazi zuen Andrés Martín ez zela *“politikan den gutxiena nabarmendu, bere maisu lanari osotara emanda zegoelako eta eskola-orduetatik kanpo irakaskuntza partikularrera”*<sup>848</sup>. Gainera, alkateak ziurtatu zuen entzun ziola *“(…) Gure Kaudilloaren Kausaren aldekoa zela esaten”*, baina ez zekien alderdi edo sindikaturen bateko kide ote zen. Azkenekoz adierazi zuen bere ustez maisua *“(…) bere lanbidearekin maitemindurik zegoela”*<sup>849</sup>. Sistiagak eta Fanok, berriz, iritzi zioten Andrés Martínek erakutsi zuela *“(…) herri honetan egon zen bitartean tatxarik gabeko moraltasun bat, bai publiko eta baita pribatua ere, eta (...) politikan ez zen batere nahastu eta kargu publikorik batere ez zuen izan gorri-separatistak nagusi izan ziren bitartean (...)”*<sup>850</sup>.

Getxoko Barrutiko Falangeko Informazio eta Ikerketako ordezkaria ez zen hain “onbera” izan maisuarekin. Aurreko lekukotasunek bezala, ziurtatu zen ez zela inongo alderdi edo sindikatutako kide izan. Hala eta guztiz ere, zehaztu zenez, *“bere ideologia sozialista zen eta horrela defendatzen zuen bere elkarrizketetan”*, eta *“gorrien denboran, harreman onak eduki zituen Fronte Popularreko buruzagiekin, zeinekin berriketaldia izaten zuen Armada Gorriaren martxari buruz”*. Irakasle moduan egindako lanaren inguruan, hona zer nabarmendu zuten: *“nahiz eta zelanbaiteko joera laikoarekin, ondo betetzen zituen bere zereginak maisu moduan, eta aktiboa zen bere karguan”*<sup>851</sup>.

847 A.A.O 32/13151, “Andrés Martín Pérez lehen irakaskuntzako maisuari irekitako espedientea” 1940-3-20

848 DEFENTSAREN ARTXIBO OROKOR ETA HISTORIKOA (D.A.O.H.), 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta, Urdulizko alkate Amancio Nievaren ziurtagiria, 1939-7-7.

849 Ibíd. Andrés Martínen gaineko galdetegia, Urdulizko alkate Amancio Nievak betea 1939-7-20

850 Ibíd. José María Ansoleaga Sistiagaren eta Isidro Fano Bilbaoren deklarazio ziurtatua 1939-8-22.

851 Ibíd. Andrés Martínen gaineko galdetegia, F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Informazio eta Ikerketako Getxoko Barrutiko ordezkariak betea 1939-8-14.

Andrés Martín 1935ean etorri zen Urdulizera, bere aurrekoak, Teodoro Primo López Casadok, libre utzi zuen postua betetzera. Gerraren hasierak Urdulizen harrapatu zuen eta egin zituen bi deklarazioetan kontatu zuen Plentziako Izquierda Republicanara afiliatzea erabaki zuela, gerra bere bizienean zegoela, 1936ko abuztuaren 21ean<sup>852</sup>. Argudiatu zuen alderdi horretan kidetuta zela “(...) 1933ko hauteskundeetan Madrilen C.E.D.A.ko kontu-hartzailea izanak ekar ziezaizkiokkeen eragozpenak saihestearren (...)”<sup>853</sup>.

Errepublikako Gobernuak galdetegi batzuk eman zizkien funtzionario guztiei, bete beharrekoak, modu horretan egiaztatzeko erregimen errepublikanoaren alderako atxikimendu maila, eta horretan oinarrituta, bere postuan mantendu edo funtzionario-kargua utziko zuten erabakitzeko. Galdetegi hura betetzeko orduan, Andrés Martínek bere konpromisoa adierazi zuen “(...) eskolan buru izaten jarraitzeko, klaseak ematen (...), modu horretan irakaskuntza abandonatuta ez geratzeko eta mertzenarioen eskutara ez etortzeko, funtzionario moduan beti defendatzen dudun Estatuaren kaltetan”. Kontatu zuenez, 1937ko otsailean enplegua eta soldatarik gabe utzi zuten, nahiz eta ez azaldu zigor horren arrazoirik. Hala eta guztiz ere, badirudi Urdulizko maisu jarraitu zuela, eskoletako eraikinean bizitzen jarraitu baitzuen Urdulizko ebakuazioa etorri arte, Andrés Martínen arabera, maiatzaren amaieran. “Nire eskola ixtean”, behartuta egon zen Bilbora joatera<sup>854</sup>.

Une haietan, Andrés Martínen emaztea “gaixorik zegoen eta erditzekotan”, honen neba Alfonso Franco Olivier apaizaren lekukotasunaren arabera. Haren kontakizunari jarraituz, itxuraz, emakumea ebakuatua izan zen, “bortxaz” eta “indarrez”, abadearen iritziz. Maisuak ez zekien nora eroan zuten, “senarrari ez ziotelako jakinarazi ebakuazioaren lekua”. Presbiteroak, bere kontakizunean, koinatua Santander eta Asturiasen kokatu zuen, bere emaztearen bila, “bortxa eta indarkeria” jasaten zituen bitartean. Asturiasen jakin izan zuen “ebakuatutakoen espedizio bat irten zela (...) Frantzia jomuga zuena”, eta bera behartu zuten “(...) Frantziara pasatzera, beste espedizio batean”. Frantzian ere ez zuen lortu ezer jakitea bere emaztearen nondik norakoez. Handik, eremu errepublikanora igaro zen Kataluniatik, eta “(...) eremu gorrian sartzean jakin izan zuen bere emaztea Madrilen zegoela”. Beraz, hara joan zen, behingoz, harekin berriz elkartzera<sup>855</sup>.

---

852 Bere lehen deklarazioan, errakuntzaz adierazi zuen uztailean afiliatu zela Izquierda Republicanan.

853 D.A.O.H.. 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta, Andrés Martín Pérezen zinpeko deklarazioa 1939-5-5 eta Andrés Martín Pérezen ikerketa-deklarazioa 1939-8-5.

854 Ibíd. Andrés Martín Pérezen zinpeko deklarazioa 1939-5-5

855 Ibíd. Alfonso Franco Olivier presbiteroaren deklarazioa 1939-7-28.

Madriilen egonda, maisuak zenbait egun eman zituen bere anaietako biren etxeetan txandaka, “(...) ez bainuen Irakasletzan jardun gura gorriekin”. 1937ko urrian, ostera, soldadutzara deitu zitzaion bere kintari eta Errekluta Kaxan aurkeztu zen. Lehenengoz, maisu-soldadu gisa aritu zen Erdialdeko Armadako instrukzio zentro batean. Horren ostean, zentro horretan bertan graduazioz igo zuten eta teniente bihurtu, eta 1939ko martxoan “65. Dibisiora pasatu zen (bulegoetan), komunisten kolpe-saioaren aurka”. Francoren soldaduak Madriilen sartu ziren egunean, 1939ko martxoaren 28an, Andrés Martín “(...) aurkeztu zen (...) goizeko hamarretan Ogasun Ministerioaren ardura hartu zuen Luque teniente koronelaren aurrean (...). Hemen atxilotu zuten, beste 30 lagunekin batera, eta Porlierko espetxera eroan<sup>856</sup>.”

Eskumako jendeari lagundu izana izan zen maisuaren defentsaren oinarria. Hala kontatu zuen, Bizkaian lagundu ziela “(...) eskuindar garrantzitsuei, diruz eta janariz”; eta Madriilen, “(...) zerbitzu egiten zuen unitatean lagundu ziela sorospena eskatu zioten eskumako guztiei”. Horrez gainera, bere koinatuari lagundu ziola, aitatutako abadeari, “eremu nazionalera” ihes egiten<sup>857</sup>.

Sumarioan bildutako lekukotasunetako bat, Larrabasterrako eskolako maistra Concordia Moralen eskutitz bat izan zen, bere “lagun on Maruja eta Andrés” zuzendua. Hona zer gomutarazten zien:

*“(...) en estos momentos (en los) que repuesta en mi cargo por la justicia del Caudillo resurge (esta) Nueva España. Nunca podré olvidar a los buenos amigos como vosotros, que cuando destituida de mi cargo, por ser buena católica y entusiasta española era muy perseguida en aquella funesta época del año 1936, vosotros me alentabais y repartíais con mis pobres hijos vuestros escasos alimentos con gran cariño y durante el tiempo que pude trataros yo puedo asegurar que sois buenos católicos y españoles, por ello os persiguieron tenazmente aquellos odiosos nacionalistas vascos (...)”<sup>858</sup>.*

Delako Alfonso Franco abadeak ziurtatu zuen maisua “ideia eskuindarretakoa” zela, argudiatuz C.E.D.A.ko kontu-hartzailea izan zela 1933an. Bigarren deklarazio batean, abadeak baieztatu zuen Andrés Martín “(...) beti azaldu zela Fronte Popularraren ideologiaren aurka, bere burua behartuta ikusiz bere lanbidearen zerbitzu egitera (...)”, eta “(...) Armada Gorriko teniente egitean, ikusmen txarragatik gaitasunik ez zuela argudiatu zuenean, bere lanbideko eta bulegoko karguetarako utzi zutela”<sup>859</sup>.

856 Ibíd. Andrés Martín Pérezen ikerketa-deklarazioa 1939-8-5.

857 Ibíd.

858 D.A.O.H.. 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta. Concordia Moral maistraren eskutitza, Andrés Martíni eta María Francori zuzendua 1939-6-3.

859 Ibíd. Alfonso Franco Olivierren abadearen deklarazioa 1939-8-10, eta Alfonso Franco Olivierren deklarazio ziurtatua 1939-7-28.

Hala eta guztiz ere, hartaz arduratu zen Epaimahaiak “*egitate frogatutzat*” jo zuen maisua bere borondatez aurkeztu izana “(...) *Armada Gorrian, teniente graduazioa lortzeraino*”, “*lerro nazionaletara pasatzeko eskaini zitzaion aukera*” aprobetxatu ez izana eta “*eremu gorrira*” itzuli izana, Frantziatik, 1937an. Honi gehitu behar zaio, epaia emateko orduan pisu handia eman zitzaiola lekukoetako baten aitopenari, Carmen Muñozek, maisua bizi zen etxeko bizilaguna bera<sup>860</sup>. Lekukotasuna erabat kontrakoa izan zen, haren iritziz, Andrés Martín “(...) *bolondres engaiatu zen Armada Gorrian bere anaien bitartez (...)*” eta “*ideia zeharo ezkertiarretakoa zen aspaldi handitik. Propagandista handia eta Gobernu Gorriko gizaseme aktiboa*”<sup>861</sup>.

Epaimahai Militarrek batez ere auzoko horren lekukotasunaren zati eman zion arreta: Carmen Muñozek Andrés Martíni kontatzen entzun zion ustezko pasarte bat. Itxuraz, behin, “(...) *beste Konpainia bati albiste bat eroateko (...)*” maisua zeroan txoferrak “(...) *kontrako norabidea hartu zuen, duda barik Nazionaletara pasatzeko. Orduan ANDRÉS delakoak jipoi ederra eman zion gidariari, esaten ziolarik “gera zaitetz hor, arrastaka ahal baduzu, ea hegazkinak datozen eta ehun kiloko lehergailu batekin zapaltzen zaituzten (...)*”<sup>862</sup>. Ustezko egitate horien kontakizunaren beste bi lekuko izan ziren, bata, Martín Pérezen arrebaren koinata, “*ezer entzun izana ukatu zuena*”, eta bestea Juana Cerecedo, “*aspalditik auzipetuaren laguna dena (...)*”; azken honen arabera, bakar-bakarrik entzun zion esaten “(...) *behin bere autoan zihoala gaueko itzalek despistatu eta bere burua Nazionalen lerroen artean topatu zuela*”. Epaimahaiaren iritziz, bi lekuko hauek akusatuarekiko zuten hurbiltasunak balioa kentzen zion beren lekukotasunari; baina ez zuen baloratu, beste alde batetik, Carmen Muñozek kontatutakoa egia zen edo ez<sup>863</sup>.

1939ko abenduaren 23an, 12 urte eta egun bateko kondena ezarri zitzaion Andrés Martín Pérezi<sup>864</sup>. Zehapena 8 urtera beheratu zion Zigorrek Aztertze Batzorde Zentralak 1940ko abuztuaren 16an<sup>865</sup>. Hurrengo urteko urriaren amaieran, Presondegietakoa Zuzendaritza Nagusiak kondena ordeztu zion, epaile militarri adieraziz, bidezkoa bazen, tramitatu zedila Martín Pérezen “(...) *behin betiko askatasuna (...)* bere kondenaren zati bat iraungita baitauka Zigorrek Lanaren Bidez Ordaintzeagatik”<sup>866</sup>.

---

860 *Ibíd. Auto judiziala 1939-11-3.*

861 *Ibíd. Polizia Judizialak Andrés Martín Pérezen gainean egindako txosten politiko soziala 1939-8-9.*

862 *Ibíd. Hala eta guztiz ere, Carmen Muñozek geroko deklarazioan, 1939-10-24an, tonua askoz eztiagoa izan zen. Oraingoan, Muñozek ez zuen astinaldirik aitatu eta, ziurtatu zuenez, txoferra autotik jeitsarazita, Andrés Martíni hau esan zuen: “Hor uzten zuela eta troparik topatzen bazuen, afaltzen eman ziezaiotela, eta hegazkinak agertzen baziren, bera kontura non babestu”.*

863 *Ibíd. Auto judiziala 1939-11-3.*

864 *Ibíd. Gerra-auditorearen erabakia 1939-12-23.*

865 *Ibíd. Behin betiko Ebazpenaren ziurtagiria 1940-8-16.*

866 *Ibíd. Alcalá de Henaresko espetxe-lantegien mezua, Madrilgo Zigorrek Aztertze Batzordeari atxikitako betearazpen-epaile militarri zuzendua 1941-10-22.*

## 2.5.6 Teodoro Primo López Casado

Irakaslegoaren depurazio prozesuen azterketa Teodoro Primo López Casado maisuaren espedientearekin itxiko dugu. Urdulizko Eskola Nazionaleko mutikoen maisu izan zen 1923tik 1934ra. Gero “*Vitorichako mutilen eskolara*” bidali zuten, Barakaldoko Lutxanako auzoan. Eskola hark funtzionatzeari laga zion 1936ko otsailean eta ez zen berriro ireki<sup>867</sup>. Urte hartako abenduan, López Casadok, “(...) *alkatearen aginduz eskribau karguan jardun zuen Udalaren bulegoetan, Uren atalean (...)*”, eta “*Armada Nazionalak herri hau askatu ostean*” lan bera egiten jarraitu zuen, “*Udaleko agintari berriek eskatuta*”. Beste alde batetik, Teodoro Primo Lópezek deklaratu zuen inoiz ez zela alderdi politiko bateko kide izan. Berriz, 1925az geroztik Irakasletza Elkarte Nazionalekoa zen, eta ez zuela hartan baja, nahiz eta “(...) *Mugimenduaren denboran, jakin barik zer egunetan, Elkarte honek U.G.T.rekin bat egin zuen, irakaskuntzako Beharginen Atalean, baina sinatzaileak ez zuen horretan parte hartu*”<sup>868</sup>.

Bere maisu lanpostura itzultzeko eskatuta, zegokion espedientea ireki zitzaion informazioa eskuratzeko. Berriro ere banaketa argia eman zen agintarien aldetik zetozen lekukotasunetan: alkateak eta Urdulizko abade nagusiak aldeko txostenak egin zituzten; Barakaldotik, berriz, alkateak, San Vicenteko abadeak, Guardia Zibilaren postuko komandanteak eta familiako aita batek aurkako kontakizunak bidali zituzten.

Urdulizko alkate Manuel Uribek 1937ko irailaren amaieran idatzitako deklarazioan gizon elizkoia agertzen da, maisu ona eta eskumaren boto-emailea. Hartara, hari buruz esan zuen “*katoliko eredu ona*” zela, Jauna hartzen zuela “*maiz, eta arratsaldetako elizkizunetara joaten zela*”. Horrez gainera bere jarduketa profesionalean, “*erlijioaren aldetik lan handia egin zuen herri honetan*”<sup>869</sup>. Serafín Sagarna abade nagusiak, urriaren amaieran, alkatearekin bat egin zuen bere balorapen erlijiosoan, eta azaldu zuen maisuak “(...) *ederto egiten zituela*” elizarekikoak “(...) *erlijiozkotasun eredu garaia emanez herrian; izan ere, kristau bikain batek legez betetzeaz gain, bere umeekin joaten zen lehenengo barikuetako debozioa praktikatzera*”<sup>870</sup>.

867 Gomutan izan behar da Barakaldoko eskolek ez zutela azaroaren 12an ikasturtea hasi, gerra-eremuan sartutako gainerako herrietan legez, Euzko Jaurlaritzako Defentsa sailburuak 1936ko urriaren 23an emandako aginduaren ondorioz. (*La Gaceta del Norte* 1936-11-10)

868 A.A.O 32. kaxa/13074 “Barakaldoko maisu Teodoro Primo López Casadoren depurazio espedientea”, *Teodoro-Primo López Casadoren itzultzeko eskaera* 1937-7-19.

869 *Ibíd.* Teodoro Primo López Casadoren gaineko informazio orria, Urdulizko alkate Manuel Uribek bete 1937-9-29.

870 *Ibíd.* Teodoro Primo López Casadoren gaineko informazio orria, Urdulizko abade nagusi Serafín Sagarnak bete 1937-10-31.



Bai abadeak bai alkateak Teodoro Primo López eskuindartzat jo zuten, eta Manuel Uribek erantsi zuen irakasleak botoa eman ziola “(...) *hauteskunde guztietan eskuma ordezkatzan zuten zerrendari*”. Udalburuak gaineratu zuen gerra bitartean, askotan agertzen zela irakaslea Urdulizen, “(...) *jatekoak eskuratzeko asmoarekin*”. Bisita haietan, kontatu zuen Uribek, berak eta López Casadok askotan berba egiteko aukera izan zutela; eta Urdulizko maisu ohia beti azaldu zela “(...) *Mugimendu Nazional Lariotsuaren garaipenaren aldeko sutsu*”<sup>871</sup>.

Alkateak eta abadeak maisuaren lan profesionalari buruz egindako balorazioa bikaina izan zen. Sagarnak “*ezin hobetzat*” hartzen zuen eta Uribek adierazi zuen “*umeen familiak poz-pozik zeudela bere irakaskuntza lanarekin, eta asko sentitu zutela herritik joatea*”. Uribe eta Sagarnaren epai pertsonala ere oso ona izan zen. Udalburuak honela definitu zuen Teodoro Primo López: “*maisua ona, katoliko zintzoa, gizon atsegina eta familiako aita ezin hobea (...) behin eta berriro ikusten duzua bere seme-alabekin*”. Berriz, Sagarnak gehitu zuen: “*maisua eta herritar bezala tatxa bakoa izan zen; ez dut zer esanik haren kontra*”<sup>872</sup>.

Barakaldoko agintariek guztiz bestelako iritzia agertu zuten, baina, eta, duda barik, kutsatu zuen depurazioa prozesuaren azken irizpena. José María Llana herri industrialeko alkateak, maisuaren portaera pribatua aipatu zuen bere aldeko puntu bakar moduan, eta adierazi zuen “*kide ona, bere etxe eta seme-alaben zalea, ondradua*” zela, “(...) *bere seme-alabak katekesira*” bidaltzen zituela eta “*eskolan oso langilea*” zela. Llanaezak López Casadori buruz egindako gainerako oharrik ez ziren horren aldekoak izan: haren balorazioan, erlijioaren aldetik, maisuaren katolizismoa “*zehaztu bakoa*” zen, eta haren fedea, berriz, “*urria*”; afera politikoari dagokionez, ostera, uste zuen “*joaera sozialistako errepublikanoa*” zela eta “*Marcelino Domingoren aldeko sutsua*” iritzi zion. Gerra Zibilaren garaian irakasleak izan zuen jokabideari buruz, udalburu barakaldotarrak ziurtatu zuen López Casadok denbora hartan “*estimua agertu ziola Fronte Popularrari, eta higuina, aldiz, faxistei*”. Barakaldoko alkateak, gainera, maisuaren “*bizitzaren kontzeptua*” baloratu zuen, bere iritzi “*larregi materialista, katoliko batentzat (...)*”, eta horrek bilakatzen zuen “*egoeretara egokitzen erraza*” zen norbait. Llanaezak Primo López buruzko bere epai pertsonala amaitu zuen adieraziz irakasleak “(...) *zuzentzeko (edo egokitzeko?) zantzu argiak erakusten zituela, eta kontuan hartuta bere izaeraren ezaugarri hori eta zazpi seme-alaba izanda, erabilgarria izan liteke eskolarentzat, zainketa komenigarria delarik Erlijioaren irakaskuntzari dagokionez*”<sup>873</sup>.

---

871 Ibíd. Teodoro Primo López Casadoren gainerako informazio orria, Urdulizko alkatea Manuel Uribek bete 1937-9-29.

872 A.A.O 32. kaxa/13074 “Barakaldoko maisu Teodoro Primo López Casadoren depurazio espedientea”, Teodoro Primo López Casadoren gainerako informazio orria, Urdulizko alkate Manuel Uribek bete 1937-9-29, eta Teodoro Primo López Casadoren gainerako informazio orria, Serafin Sagarnak bete 1937-10-31.

873 Ibíd. Teodoro Primo López Casadoren gainerako informazio orria, Barakaldoko alkateak bete 1937-8-24. Testuko azpimarra eta parentesia, biak daude, jatorriz, dokumentuan.

Industria-herriko gainerako informatzaileak bat zetozen alkateak azaldutako alderdiekin, erlijioarekiko hotsasunaz den bezainbatean. Politikoki, abadeak nabarmendu zuen haren antiseparatismoa, eta Guardia Zibileko komandanteak eta familiako aitak berriz adierazi zuten bere joerak errepublikanoak zirela. Bere iritzi pertsonala agertzeko orduan, komandanteak *“egoeretara egokitzen erraza”* iritzi zion maisuari, eta adierazi *“(...) gure kausaren areriotzat ez dela hartzen”*. Hala eta guztiz ere, Ricardo Torres, familiako aitak ziurtatu zuen López Casado Mugimenduaren kontra zegoela, eta erantsi zuen irakasleak *“(...) hiru edo lau seme-alaba bidali dituela atzerrira”*. Alkateak jaso ez zuen datu berri hau, jasota agertzen da abadearen eta Guardia Zibileko komandantearen deklarazioetan ere. Azken honek aditzera eman zuen irakasleak *“(...) seme-alabak Frantziara ebakuatu zituela bertan bizi ziren ahaide batzuen etxera”*<sup>874</sup>.

1938ko apirilaren 20an etorri zen espedientean bildutako informazioei aurre egiteko López Casadoren erantzuna. Lehenengoz, gezurtatu zuen *“errepublikano sozialista”* zelako akusazioa. Azpimarratu zuen ez zela inoiz izan inongo alderdi politikotako kide, baina, Urdulizko alkate ohi Manuel Uribek ziurtatu zuenez, eskumari eman ziola beti botoa. *“Ordena eta justiziaren zale”* agertu zuen bere burua; beraz, *“nire iritzi, lasaitasun sozialaren oinarri diren bi gai hauek ordezkatzan zitueneren alde”* eman zuen botoa. Era berean gezurtatu zuen Fronte Popularraren aldekoa zelako akusazioa, eta nabarmendu zuen izan zuen eguneroko adiskide bakarra Altos Hornosko Eskola Kristauekiko zuzendari ohi Miguel Bazaco Valverde izan zela, *“Barakaldoko eskuindar garrantzitsua”*. Bazaco delakoak, bere deklarazioan, ziurtatu zuen nabaritu ziola *“(...) gure tratuan, Mugimendu Nazional Lorioetsuarekiko begikotasuna”*<sup>875</sup>.

Azkenik, onartu zuen bere seme-alabetako lau atzerrira bidali zituela, baina nabarmendurik horretarako *“ez ninduela inolako arrazoi politikok bideratu”*. Gomutan zuen zelan 6 seme-alaba zeuzkan eta gerra bitartean jateko falta hain izan zen handia ze, egun baten, *“(...) ezin izan nien koipe eta ogi bako arroz ale batzuk besterik eman”*. Egoera horretan, bi alaba zaharrenak eta bigarren semea gaixotu egin ziren, eta seme zaharrenak pleuresia bat igaro zuen. Medikuari deituta, honek gomendatu zion *“(...) ume hauek kanpora bidaltzeko, ahal bezain lasterren (...)”*, okerragorik gerta ez zedin. Alderdi hau frogatzeko, Tomás Undabarrena medikuak ziurtagiri bat eman zuen. Maisuak nabarmendu zuen filiazio politikorik ez zuenez erabili behar izan zuela *“(...)Lehen Irakaskuntzaren Elkarte Nazionala Irakaskuntzako Beharginen Federazioarekin batu zenean eman zidaten karneta (...)”*. López Casadok bere idazkia itxi zuen adieraziz Bizkaiko *“liberazioa etorri eta apur bat geroago”*, bere seme-alaben aberriatzea eskatu zuela<sup>876</sup>.

874 Ibíd. Teodoro Primo López Casadoren gaineko informazio orria, Barakaldoko San Bizente parrokiako abade nagusiak betea 1937-10-20, Teodoro Primo López Casadoren gaineko informazio orria, Barakaldoko Guardia Zibilaren postuko komandanteak betea 1938-2-26, eta Teodoro Primo López Casadoren gaineko informazio orria, Ricardo Torres familiako aitak betea 1937-12-1.

875 A.A.O 32. kaxa/13074 *“Barakaldoko maisu Teodoro Primo López Casadoren depurazio espedientea”*, Teodoro Primo Lópezen erantzuna Bizkaiko Ikasletzako langileen Depurazio Batzordeak aurkeztutako kargu-orriari 1938-4-20.

876 Ibíd.

Maiatzaren 5ean, Depurazio Batzordearen ebazpena baino egun gutxi batzuk lehenago, beste bi lekukotasun gehitu ziren: Leoncio Pedrosa maisuarena eta Tarsila Muñoz maistrarena. Lehenengoa Teodoro López Casadoren lankidea zen *“Vitorichako”* eskoletan. Bigarrena, berriz, ikertutako irakasleak bi hilabetez etxean izan zuen errefuxiatu moduan.

Kalte egiteko gogoia eta mendekua darie, duda barik, deklarazio biei. Artez edo zeharka “entzundako kontuetan” oinarritu zen Pedrosak kontatutako gehiena. Itxura guztien arabera, egin zituen adierazpenetako bat alkatea beraren txostenetik atera ziren, bi deklarazioetan esaldi berdin-berdinak baitaude<sup>877</sup>.

Arazo erlijiosoari dagokionez, ziurtatu zuen Urdulizko maisu-ohiaren fedea *“oso defizitarioa”* zela eta gerra aurretik, *“Gure Erljio Santuaren egia asko zalantzan ipini zituena (...).”* Praktika erlijiosoei dagokionez, Pedrosak nabarmendu zuen *“(…) hamabietako mezatarra mugatzen zirela. Nik entzun diot esaten bera ez dela goiz jaikitzen mezatarra joateko eta ez bazuen altxatzeko gogorik ez zela mezatarra joaten. Iturri onetik dakit gorrien denboran ez zuela Eliza zapaldu”*. Horri gehitu zion espedientea egiten ari zitzaiona *“umearen kontzientzia errespetatzearen teorien alde zegoela”*<sup>878</sup>.

Politikoki, López Casadoren lankidearen deklarazioa bat etortzen zen alkatearenarekin, baina honako hau erantsi zuen: *“(…) Charentonen La Moral en la Vida irakurketa liburuari buruzko eztabaida batean, autoreak umea klase borrokara eramaten duen liburuia izanik ere, On Teodorok pentsatzen zuen liburu hau ez zela beste munduko ezer”*<sup>879</sup>.

*“Mugimenduaren garaiko portaerari”* buruz, Leoncio Pedrosak honako hau adierazi zuen: *“entzun dut, nire belarriekin, gizon hau oso haserre berbetan Mugimenduaren aurka, gure abiazioaren bonbardaketak gertatu zirenean”*. Eta gehitu: *“eskumakoa izan balitz, gainerakoan antzera, nirekin berba egitean ez zuen itxurak egiten ibili beharko, aukera zuelako, Erljioaren eta Aberriaren aldeko kausari maitasuna adierazteko, bazekienez ni ere halakoa nintzela”*<sup>880</sup>.

Pedrosak bere deklarazioan aitatu zuen Teodoro Primo Lópezen lau seme-alaben ebakuazioa, *“(…)gorriek, propagandarako, euren umeekin Frantziara egiten zituzten espedizio haietako batean. Berak esan ohi du senitarteko batzuen etxean dauzkala, baina hori ez da egia”*<sup>881</sup>.

---

877 Barakaldoko alkateak 1937ko abuztuaren 24an egin zuen bere deklarazioa.

878 A.A.O 32. kaxa/13074 *“Barakaldoko maisu Teodoro Primo López Casadoren depurazio espedientea”, Teodoro Primo Lópezen gaineko txostena, Leoncio Pedrosa maisuak egina 1938-5-1.*

879 *Ibíd.*

880 *Ibíd.*

881 *Ibíd.*

Salaketa hutsezko ariketari jarraipena emanez, hona zer gehitu zuen deklaratzailerak:

*“(...) he podido enterarme por buen conducto, que a una hermana de su esposa la condenaron a muerte las autoridades nacionales y ha sido fusilada en un pueblo de la provincia de Valladolid, partido de Mota del Marqués, que se llama URUENA (sic), de donde es natural don Teodoro Primo López y a donde podrían Udes. (sic) pedir informes”<sup>882</sup>.*

Informazio horri dagokionez, gehitu zuen ez zuela ezagutzen hildako koinataren izena, baina trukean López Casadoren emaztearen aitaren izena eta lanbidea eman zituen<sup>883</sup>.

Hori nahikoa ez eta jakinarazi zuen, *“iturri onetik jakinda”*, bere eskolako lankideak mantentzen zituela *“eskutitz bidezko harremanak Villalongako maisu sozialista batekin (On Gregorio Hernández) Frantziara joan zena ume gorrien lehen txangoan”*, eta gaineratu zuen *“gizon horren altzariak dauzkala”*. Azkenik, portaera pribatuaz eman zuen iritzia Barakaldoko alkateak emandakoaren berdinberdina zen, *“tonu filosofiko”* berean<sup>884</sup>.

Tarsila Muñozen lekukotasuna, laburra izanda ere, Pedrosak emandakoaren norabide berean doa. Ez dago lehen pertsonan kontatua, Leoncio Pedrosa bera izan zelako kontakizuna idatzi zuena eta aitortpena sinatu zuena. Pedrosak *“maistrak (...) emandako txostena”* izena jarri zion dokumentuari, eta *“Emakume honek dioenez...”* edo *“Emakume honek dio...”* bezalako formak erabili zituen. “Modus operandi” horrek susmarazten digu deklarazio hauek ez direla apur bat edo batere egiazkoak. López Casadok *“Vitorichako”* eskoletan izandako lankideari sinestera, maistrak ziurtatu zuen *“gorrien garaian, On Teodorok ez zuela eliza zapaldu”*. Beste alde batetik, Teodoro Primo Lópezen etxea deskribatu zuen *“(…) Mugimendu Nazionalaren aurka berba egiten ibiltzen ziren (...) ezkerreko hainbat pertsona biltzen ziren”* toki gisa. Pertsona horien artean azaltzen da berriro *“maisú sozialista (...) on Gregorio Hernándezen”* izena, maisu horri *“esangura berezia”* eman nahian-edo<sup>885</sup>.

---

882 Ibíd.

883 Ibíd.

884 Ibíd.

885 Ibíd. Teodoro Primo Lópezen gaineko txostena, Tarsila Muñoz maistra nazionalak hornitua eta Leoncio Pedrosa maisuak sinatua 1938-5-1.

Maistrak ziurtatu zuen “(...) bera faxistatzat zeukala eta on Teodororen etxean gure soldaduek Burdin Hesia apurtu zuteneko albistea aditzera eman nuen egunean, atsekabetu ziren eta erantzun zioten: “hara ze albiste dakarzun!” (...)”<sup>886</sup>.

Bizkaiko Irakasletza Depurazio Batzordeak espedienteen bi txosten mota zeudela iritzi zion, zeinen artean “(...) lehen begi kolpean erabateko eta errotikako kontraesana” zegoela ikusten zen. Nahiz eta onartu “(...) haietako batzuek faltsuak direla eta balio guztia kendu behar zaiela (...)”, batzordea bi txosten mota horien arteko kontraesanean finkatu zen, jasotzen eta azaleratzen baitzituzten “(...) espedienteen bi portaera erabat ezberdinak (...) López Casado jauna egoeretara erraz moldatzen eta egokitzen den pertsona baten moduan agertzen digutenak (...)”. Modu horretan, sostengu eman zitzaion Barakaldoko alkatearen teoriari<sup>887</sup>.

Azterketa psikologiko bat bailitzan, batzordeak azaldu zuen “(...) kontrako txostenetan ez dela espedientedunaren izaera horrenbeste deskribatzen zerbitzuaren behin betiko banantzea ezartzeko adina larritasunarekin (...)”. Hori hala izanik ere, hona zer ondorio atera zuten: “(...) bere jokabidea zigortua izan behar da eta ez du merezi, kontuan hartuta bere joera ideologikoak eta bere portaeraren tinkotasun falta; Espainia Berriaren erabateko konfidantza”. Horregatik aho batez erabaki zuten 1938ko maiatzaren 9an Bizkaitik kanpoko eskola batera lekualdatzea, “zuzendaritza eta konfiantzazko karguetan ibiltzeko desgaiturik”<sup>888</sup>.

Hezkuntza Ministerioak urte bereko uztaillean egin zuen espedientearen berrikuspena, eta ezarritako zigorra handitu zuen: nahitaezko lekualdatzeak ez zuen soilik Bizkaia hartu, baita probintzia mugakideak ere, eta honi gehitu zitzaion “bi urtetan hutsik dauden karguak eskatzeko debekua”. Azkenik, mantendu egin zen “betiko desgaituntza zuzendaritza eta konfiantzazko karguetan ibiltzeko kulturako eta irakaskuntzako erakundeetan”<sup>889</sup>.

---

886 Ibíd.

887 A.A.O 32. kaxa/13074 “Barakaldoko maisu Teodoro Primo López Casadoren depurazio espedienteak”, Bizkaiko Irakasletzaren Depurazio Batzordearen proposamena 1938-5-9

888 Ibíd.

889 Ibíd. Teodoro Primo Lópezen depurazio espedientearen berrikuspena, Depurazio Espedienteen gaineko Irizpen Batzorde Nagusiak egina 1939-7-31.

## 2.6 Depurazioa Elizan: Serafín Sagarna Amorrortu abade nagusia

1936ko udazkenean, Burgosko Junta Nazionalak atzerrira joatera behartu zuen Gasteizko Elizbarrutiko apezpiku Mateo Múgica. Egoera horren aurrean urriaren 10ean Pérez Ormazabal izendatu zuen bikario nagusi, eta “(...) zegoena, Jaime Verástegui, kargugabetu, militarrek *“aholkatuta”*”. Múgicak jarrera irmoa erakutsia zuen nazionalismoaren kide edo horrekiko hurbiltasuna leporatzen zieten abadeekin, horiek zigortzeari uko eginez, *“euren partaidetza politikoaren frogarik egon ezean”*. Ormazabalek ere jarrera bera erakutsi zuen, eta borondatezko irteera bide bat sustatu zuen Araba eta Gipuzkoako abadeentzat. Modu horretan, militarren presioak ekidin gura izan zituen, baina hauek gogortzen joan ziren. 1937ko otsailean, Donostiako gobernadore militarrek hamaika abaderen erbetea eskatu zuen. Bikarioak amore eman zion *“irteeren erritmoa bortxatzeko”*<sup>890</sup> helburua zuen eskaera horri.

1937ko uztailaren amaieran, Pio XI.a aita santuak Ildebrando Antoniutti gotzaina bidali zuen ordezkari gisa Santiago Martínezek *“humanitarioa diplomatikoa baino areago”* definitzen duen misio batean. Bi konturen arduraren hartzea zen haren zeregina: Nazionalen gerra presoaren egoera *“(...) eta europar herrialde ezberdinetara igorritako euskal umeen itzulera”*. Horrek halako *“estaldura”* bat eman zion euskal eliz jendearen arduratzeko, nahiz eta bere beste egiteko bat izan Vaticanoaren ordezkari izatea *“(...) euskal batailoien errendiziorako Euzkadiko Gobernua eta Italiako erresumen artean negoziatutako ituna”*<sup>891</sup> betetzen zela bermatzeko.

Bilbora joan baino lehen, Antoniuttik elkarrizketa izan zuen Francorekin, Salamancan. Bilera hartan, beste gai batzuen artean, euskal eliz jendearen arazoak berba egin zuten. Militar kolpistak azaldu zion aita santuaren ordezkariari *“(...) euskal eliz jendearen aurka hartzen ari ziren neurriak ez zirela gerraren egoeraren ondorio, iragankorrak eta salbuespenekoak (...)”*, ezpada gerra *“(...) gertatzen ari zela nazionalismoaren problemari errotik heltzeko aukera ematen zuen abagunea”*. Francok uste zuen eliz agintaritzak ez zeukala nahikoa indar edo aginte eliz jendearen nazionalismoarekin amaitzeko<sup>892</sup>.

---

890 MARTÍNEZ SÁNCHEZ, Santiago *“Mons. Antoniutti y el clero nacionalista vasco (julio-octubre de 1937)”* in *Sancho el Sabio*, 27, 2007, 39-79 or. (Aipamena: 53 or.).

891 *Ibíd.*, 40-41 or.

892 *Ibíd.*, 42- 45 or.

“(…) Nazionalista izateagatik epaitutako jendea zaintzea eta euren beharrak bideratzea” helburu zuen sekretupeko misioa zela-eta, euskal umeak aberriatzeko misio publiko eta ofizialaren aterpean, beharrezkoa zen Antoniutti “*Bilbon modu iraunkorrean*” bizitzea. 1937ko abuztuaren 5ean heldu zen Bizkaiko hiriburura. Haren aurreneko zeregina agintari ezberdinekin biltzea izan zen eta 14a abade presoak bisitatzeari eskaini zion; hauek banatuta zeuden espetxe gisa prestatutako Bilboko Karmeldegiairen eta Karmeldegiko komentuairen artean, non abadeetako asko sartuta zeuden armatutako jagoleen zaintzapean<sup>893</sup>.

1937ko ekainean, Bilbo eta Bizkaia mendean hartuta, “(…) ofizio militar berriak heldu zitzaizkion Ormazabali eta haietan exijitu Euskal Herriatik kanporatzeko epaituak izango ez ziren abadeak, “*larritasun zigorgarriko*” kargurik ez eduki arren, “*era berean errudunak*” zirelako”. Horregatik, udan, okupazioko armadaren Gerrako Auditoretzak bikarioari igorri zizkion lekualdatu behar ziren abadeen izen eta karguen zerrendak. Antoniuttik, berriz, Vaticanoari bidali zizkion zerrenda horiek. Horietako azkenak irailaren 6ko data du eta 15 abade aitatzen ditu; horietako bat, Urdulizko abade ekonomoa, **Serafin Sagarna Amorrortu**. 50 urte zituen orduan<sup>894</sup>.

Bikarioak, itxuraz, “*epel obeditzen zien militarrek bidalitako deserriratze aginduei*”. Hori dela eta, Antoniuttik irmotasun handiagoa eskatu zion eliz jendearen defentsan. Pérez Ormazabalek, azkenik, Iparraldeko Armadako buru zen Dávila jeneralari zuzendutako agiri baten bidez erantzun zuen. Dokumentu hartan, zeinen kopia bat entregatu zion aita santuaren ordezkariari irailaren 10ean, bikarioak argi utzi zuen ez zela nahikoa izango deserriratze agindu batekin. Beharrezkoa zen akusatutako abadea eliz-barrutitik kanporatzea zekarten “*kargu zehatz eta larriak*” zein ziren jakitea. Antza, abade “*errugabeak*” deserriratuak izanak ziren, haietako batzuk adinekoak. Gainera, Pérez Ormazabalek nabarmendu zuen deserriratzea “*hain gogorki*” egiten ari zela ezen herri batzuetan laguntza erlijiosorik gabe geratzen ari ziren. Tokialdatutako abadeak ezin zituzten beste elizbarruti batzuetako abadeek ordezkatu “*euskal hizkuntzaren lurraldeetan pertsona askok ezin liezaieketelako ulertu, ez predikuan ezta konfesioan ere*”<sup>895</sup>.

Egun bi geroago, irailaren 12an, Lauzurica “*Gasteizko administratzaile apostoliko*” izendatu zuten, Múgicak eliz-barrutiari uko egon ostean. Antoniutti Espainian Vatikanoren Aferen Arduradun izendatu zuten, eta horrek Bilbon bizitzeari uztea ekarri zuen, Gobernutik hurbilago zegoen beste hiri batean bizitzeko. Urriaren 7an bere egiaztgutunen aurkezpena izan zen. Horren ostean, Francorekin izan zuen elkarrizketa. Santiago Martínez Sánchezek kontatzen digunez, diktadoreak hitz eman zion “(…) *ez zela esku-sartze zibil eta militarrik izango Lauzuricaren diziplina-jardunean*”<sup>896</sup>.

---

893 Ibíd. 49 or.

894 Ibíd. 54-56 or.

895 Ibíd. 70-71 or.

896 Ibíd. 71 eta 76-77 or.

Urdulizko abade ekonomo Serafin Sagarnaren kasu zehatzera itzuliz, badakigu 1937ko irailean Gasteiza bidaiatu zuela. Hilaren 18an, Urdulizko alkate Manuel Uribe ziurtagiri bat eman zion *“herri honetako erretorearen”* izenean eta zehatzu *“asetasun osoz (betetzen zituela) bere eginbehar ministerialak”*. Ziurtagiri horren xedea zen Sagarnari eman ziezaioten *“igarobaimen bat Gasteiza joan eta itzultzeko”*<sup>897</sup>. Kontuan harturik abadea militarrek emandako zerrendetako batean zegoela, litekeena da Lauzuricak erretoreari hitzordua eman izana Gasteizko gotzaiaren egoitzan bere kasua aztertzeko.

Esku artean dauzkagun datuetatik ondorioztatzen denez, militarren iritziz lekualdatu beharra zeukaten abadeen zerrendan Sagarna sartzearren arrazoa nazionalismoarekin agertzen zuen hurbiltasuna izan zen, antza. Gertutasun hura 1921an dokumentatu dugu lehen aldiz, abadeak, orduko alkate Juan Arambalzarekin batera, epaimahaikide bezala jardun zuenean euskarazko irakurketa lehiaketan Urdulizen *mendigoixaleek* antolatutako jai batean 1921an.

Bigarren Errepublikaren denboran, Sagarnak nazionalismoarekin zeukan loturaren adibide ugari topatu ditugu: 1932ko hasieran, *“tostartekoen alde”* dirua eman zuten urduliztarren zerrenda batean agertu zen bere izena, *Euzkadi*<sup>898</sup> egunkari nazionalistan. Hala eta guztiz ere, esanguratsuena iruditu zaigun datua Urdulizko *Emakume Abertzale Batzako* kontu liburuetan agertzen da: 1933ko urrian, *emakumeek* ordainketa bat egin zioten *“On Serafin Sagarnari Estatutuaren garaipenaren aldeko meza batengatik”*. Ez da hura abade nagusia herriko EAJren andrazko atalaren kontu liburuetan agertzen den abagune bakarra: bere izen-abizenak beste birritan aipatzen dira: 1932ko abuztuko meza baten ordainketa, itxuraz EABren inaugurazio egunekoa, eta Sabino Aranaren arimaren aldeko meza baten ordainketa. Delako kontuetan agertzen den informazioaz gain, *emakumeek* euren dokumentazioan gordetzen zuten mekanografiatutako erreziro bat, Sagarnak sinatutakoa, *“Ascensión de Arrarte andre emakumearen arimaren aldeko mezan eta errespontso hots handikoan egindako gastua, 1936ko abenduaren seian parrokia honetan”*<sup>899</sup>. Aitatu beharra dago EAJ urduliztarren kontuetan ere agertzen zela abadearen izena, hain zuzen ere 1931ko urrian egin zitzaion ordainketa batengatik *“Sabin Meza”* bat zela-eta<sup>900</sup>. *Emakumeen* dokumentazio guztia, baita EAJren Uri Buru Batzarrarena, entitate politikoaren errepresiorako tresna gisa erabiltzeko konfiskatu zen; beraz, Urdulizko abade nagusiaren gainean agertzen ziren datu guztiak, duda barik, militarren eskuetara iritsi ziren. Horregatik, litekeena da informazio hura izatea erabili zena Sagarna sartzeko eliz-barrutitik bidali beharreko abadeen zerrendan.

897 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, 1937-9-18an emandako ziurtagiria.

898 *Euzkadi* 1932-1-17.

899 M.H.D.Z. Atal Politiko-soziala, Bilbo 171. Urdulizko Emakume Abertzale Batzaren Kaxaren eta Ordainagiriaren Liburua 1932-1936.

900 M.H.D.Z. Atal Politiko-soziala Bilbo 217/2, *Urdulizko Euzko Alderdi Jeltzaleko kideen zerrenda*. Kontuen Liburua barne.



Beste alde batetik, ez dakigu zer eragin izan zuen abadearen patuan bere senitarteko batzuk EAJko partaide edo horren gertukoak izateak, bere iloba Ramón eta Juan Sagarna Uriarteren kasuan legez<sup>901</sup>.

Era berean, ezin dugu ahaztu abadearen izena Manuel Uribek 1937ko abuztuaren 30eko datarekin egin zuen txostenean agertzen dela, eta hura sartu zela Urdulizko udalbatzaren, Udaleko funtzionarioen, herriko EAJko buruzagien eta *emakumeen* kontra irekitako 639-37 auzi labur-laburrean. Esan beharra dago Sagarnaren aipamen hori, gainerakoena bezala oso positiboa zela, erretorea “(...) *atxiloketak saihestu eta eskumako jendearen alde egiterakoan (...) nabarmendu*” ziren pertsonen zerrendan agertzen baitzen, eutsirik gainera “(...) *egon diren burubero bakanei*”<sup>902</sup>.

Gasteiza egindako bisitatik ia lau hilabete geroago, Serafín Sagarna Aulestia-Murelagako abade ekonomo izendatu zuten 1938ko urtarrilaren 28an<sup>903</sup>, eta Urdulizen Andrés Gastelu-urrutia Miotak ordezkatu zuen. Hau da, lekualdatu egiten zuten, baina bere probintziaren barruan.

Sagarnak ez zuen asko iraun Aulestian. Horren froga da bere sinadura soilik 1938ko otsailaren 25etik irailaren 20ra bitartean azaltzen dela San Juan Bautista parrokiako Hildakoen Liburuan<sup>904</sup>. Urte hartako urtarrilean zertxobait arraroa gertatzen zen Sagarnaren Aulestiako erretore izendatzea, kontuan harturik herri hartatik gertu erahil zutela bere iloba, abadea ere zen José Sagarna Uriarte. 24 urteko gaztea Amalloa-Larruskainen, Aulestitik oso gertu dagoen Markinako auzoan, fusilatu zuten nazionalak 1936ko urriaren 20an. Nazionalismoa begiko izateaz akusatu zuten, baina, antza denez, mendeku pertsonal bat izan zen bere erahilketaren benetako eragilea: José Sagarnak pulpitutik ezkontzaz-kanpoko harremanak salatu zituen modu orokorrean, baina baita aipaturik ere “*gizon garrantzitsu bat, izena eman barik*” zeinek mantentzen omen zituen “*ezkontzaz-kanpoko harreman eskandalugarriak herriko maistrarekin (...)*”<sup>905</sup>. Gertakari horiek kontuan hartuta, ez dirudi logikoa zenik Gotzaindegiak Sagarna erretore bidali izana bere iloba hil zuten lekutik horren gertu zegoen herri batera; beraz,

---

901 1938an, Ramón Sagarna Uriarte, 19 urtekoa, epaitu zuten nazionalista izateaz akusatuta, baita Zeanuri bere herrian ordena publikoko zaindari ibiltzeagatik eta geroago Euzko Gudarosteako *Larrazabal* Batailoian sartzeagatik ere. Maiatzean, espetxealdi txikiko urtebetetera kondenatu zuten, matxinadari laguntza emateagatik, “*apartekotasunez kalifikaturiko aringarriak izanik gaiztakeria falta eta egintzaren garrantzia falta*” (I.T.A.M. 12452-38 auzia, Bilboko Funtsa, 553. kaxa). 1939an Juan Sagarna epaitu zuten, Ramónen anaia, 1932az geroztik EAJko kidea eta *Euzkadi* egunkariak Zeanurin zuen korrespontsala (I.T.A.M. 10610-39 auzia, Bilboko Funtsa, 1366. kaxa).

902 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Urdulizko alkate Manuel Uriberen txostena*, 1937-7-30.

903 GASTEIZKO ELIZBARRUTIAREN ARTXIBO HISTORIKOA (G.E.A.H.) F001. Elizbarrutiko Funts Orokorra. Apaizen atala.

904 B.E.H.A. 0364/002-00, Aulestia-Murelagako San Joan parrokiako Hildakoen jatorrizko erregistroen 8. liburua (1915-12-6 al 1943-5-1).

905 FERREIRO CURRAS, Anxo: *Consejos de Guerra contra el Clero Vasco (1936-1944. La Iglesia vencida*, Oñati, Intxorta 1937 Kultur Elkarte, 2013, 75 eta 93-95 or.

ezin dugu baztertu izendapenaren unean Gotzaindegiak ez ezagutzea Serafín eta bere ilobaren arteko familia lotura. Pentsatzekoa da bi abadeen arteko ahaidetasunaren berria Gasteizko Apezpikutzara noizbait heldu zelako egin zuela Aulestian horren denbora gutxi.

1938ko irailetik aurrera hutsune bat dago esku artean erabili dugun dokumentazioan, 1940ko urria arte luzatzen dena. Sagarnarekin denboraldi horretan zer jazo zen argitzen digun idatzizko iturririk ez daukagun arren, lan hau egin ahal izateko jaso ditugun ahozko testigantza bi (abade nagusiaren senitartekoena eta Urdulizko bizilagun batena) bat datoz: Sagarna, antza, Andaluziara deserriratu zuten, zehazki Córdobako probintziara<sup>906</sup>. Dokumentalki apaizaren arrastoa berreskuratzen dugunean, Oníseko abade ekonomo izendatu zutela topatzen dugu, Oviedoko eliz-barrutian (Asturias), 1940ko urriaren 1ean<sup>907</sup>. Datu honek berretsiko liguke Sagarnak erbestea bizi izan zuela Gasteizko eliz-barrutiaren mugetatik haratago lekualdatu baitzuten.

Oníseko egonaldiaren ostean, Serafín Sagarna Gasteizko eliz-barrutira bueltatu zen Urarteko abade ekonomo izendatzean, Trebiñuko Konderrian, 1942ko irailaren 27an. Hurrengo urtean, Etxanoko apaiz lagunkide egin zuten 1943ko irailaren 1ean; eta azkenik Aulestia izan zuen azken lantokia, 1944ko azaroaren 9an hara itzuli zelarik<sup>908</sup>.

## 2.7 Depurazioa lan-eremuan

### 2.7.1 Bilboko Portuko Obra-Batzordea

Urdulizko Udal Artxiiboaren bidez, jasota daukagu Bilboko Portuko Obra-Batzordeak gutxienez ere Urdulizko hiru bizilagunen gaineko txostena eskatu ziola Urdulizko Udalarri: Francisco Barbarias Laca behargina, eta Francisca Bilbao eta Aniceta Olivares pentsiodunak. Berriz, Bilboko 7. epaile militarrek, eskatu zion udal urduliztarrari delako Batzordeko José Ramón Iturriaga Libarona beharginaren txosten politiko soziala bidal ziezaion.

José Ramón Iturriaga Libaronari buruz, 1937ko abuztuko data duen alkatearen txostenean azaltzen da *“(...) portaera ona ikusi ziola herri honetan bizi izan zen bitartean”, ez zuela inongo kontu politikotan parte hartu eta “(...) otsaileko hauteskundeetan botoa eskumari eman zion eta, gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran, Bilboko senar-emazte eskuindar batzuei aterpea eman zien”*<sup>909</sup>.

906 Miren Sagarnaren testigantza (2014-4-23), eta Sabin Brotonsaren testigantza (2013-7-28).

907 G.E.A.H., F001. Elizbarrutiko Funts Orokorra. Apaizen atala. Miren Sagarnaren testigantzak Asturiasen jotzen du abade nagusia, baina Cabrales aldea aipatzen du.

908 G.E.A.H. F001. Elizbarrutiko Funts Orokorra. Apaizen atala.

909 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa 7. epaile militarren mezua d/g eta Alkatearen erantzuna 1937-8-13.

Francisca Bilbao eta Aniceta Olivares pentsiodunei dagokienez, urte hartako abenduan udalburuak egindako txostenean hau ondorioztatu zen: “(...) *andra hauek oso portaera onekoak dira, ez zaie politikariek ezagutzen eta gertaera iraultzaileetatik kanpo egon dira, bizi etxekoi samarra eginez*”<sup>910</sup>.

1937ko urriaren erdialdean, Amancio Nieva alkateak txostena bidali zuen Bilboko Portuko Obra-Batzordera Francisco Barbarias Laca beharginari buruz. Haren arabera, gizonaren portaera moral eta erlijiosoa ona izan zen, ez zitzaion jarduera politikorik ezagutu eta bizilagunekin harreman onak zituen pertsona langiletzat zeukaten<sup>911</sup>. Hala eta guztiz ere, Udal Artxiboan aurreko alkate Manuel Uribek egindako ziurtagiri bat gordetzen da, eta bertan, “*ezkerren aldekoa*” irizten zitzaion<sup>912</sup>. Badakigu Barbarias kargugabetu zutela, eta geroago berriro onartzeko eskatu zuela. Eusebio Ansoleaga Inchaurtietak berdin egin zuen, 1937ko abuztuaren amaieran kargugabetua izan ostean Ramón Iturriaga Ibarma izeneko beste langile batekin batera<sup>913</sup>.

Barbariasek, berriro onartzeko eskaera espedientearen, alkateak bidalitako aldeko txostenaz gain, Amancio Nievak emandako lekukotasuna berresten zuten ziurtagiri batzuk gehitu zituen, “(...) *horietako bat Zugazagoitia jaunarena, berme osoko pertsona bere espainolismoagatik*”. Marinelak Obra Batzordean lan egin zuen “(...) *Euzkadiko Gobernuak 1937ko maiatzean bere kinta mobilizatu zuen arte*”. Eusebio Ansoleaga “*Laredon askatua*” izan zen; bere eskaerari alkate urduliztarraren ohiko ziurtagiria erantsi zion, non bere portaera ona ziurtatzen zen, politikan esku hartu ez izana, eta “(...) *gorrien denboran, ahal zuenean, eskumako jendeari*” lagundu izana; gainera, “(...) *bizi zen herriko Falanje (sic) Tradicionalista de las JONSen oso aldeko ziurtagiri bat*” gehitu zuen. Portuko Obra-Batzordeak berak berretsi zuen “*erabat*” Ansoleagak esandakoa “(...) *1934ko urriko iraultza bitarte lanera joan zenekoari buruz (...)*”<sup>914</sup>.

1939ko abenduaren 5ean, Francisco Barbarias eta Eusebio Ansoleaga euren lanpostuetara itzuli ziren beste hiru beharginekin batera, “(...) *soilik zerbitzu egiten hasten diren egunetik aurrerako soldatak kobratzeko eskubidearekin, zigorrik ezarri barik*”. Berriro lanean onartzeko eskaera egin zuten 34 beharginetatik 5ek besterik ez zuten euren lanpostua berreskuratu Bilboko Portuko Obra Batzordean<sup>915</sup>.

---

910 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko Portuko Obra-Batzordeko idazkari-kontulariaren mezua 1937-12-18 eta Alkatearen erantzuna idazkari-kontulariari 1937-12-23*.

911 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko Portuko Obra-Batzordeko ingeniari-zuzendariaren mezua 1937-10-16 eta Portaera ziurtagiria Amancio Nieva alkateak emana 1937-10-18*.

912 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Francisco Barbarias Lacaren gaineko ziurtagiria 1937-7-13*.

913 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko Portuko Obra-Batzordeko ingeniari-zuzendariaren mezua kargu-uzteen gainean 1937-8-26*.

914 B.F.A.H. RA-DC 2523/002 *Bilboko Portuko Obra-Batzordeko langileen depurazioarekin loturiko kontuak 1939*.

915 *Ibid.*

## 2.7.2 Trenbideetako langileak

Kasu honetan, ezin dugu berba egin trenbide enpresak berak martxan jarritako depurazio prozesu batez, baina ezagutzen ditugun prozesuen helburua berdina izan zen.

1937aren amaierako uztailen, Víctor Otaolak, Bilboko 1. Trenbideen Erregimentuko alferrezak, Urdulizko alkateari eta Falangearen Tokiko Ordezkaritari trenbideetako langileen izenen zerrenda bat igorri zien, haien aurrekariak ezagutzeko, baita “(...) gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran” izandako portaera ere, “ (...) gehiturik hauen inguruan lor daitezkeen datu interesgarri guztiak”<sup>916</sup>.

Hona trenbideetako langileen zerrenda:

<b>TRENBIDEETAKO LANGILE IKERTUEN ZERRENDA 1937ko uztaila</b> <sup>917</sup>		
<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>KARGUA</b>	<b>BIZILEKUA</b>
José Bilbao Urrechaga	Zaindaria	Urduliz
Eulogio Abando Dorronsoro	Orratzaina	Urduliz
Aniceto Ostoloza (Ostolozaga) Bilbao	Behargina	Urduliz
Saturnino Larandagoitia Berriz	Peoia	Sopela
Eustaquio Menchaca Bilbao	Peoia	Urduliz
José Ruiz Bilbao	Peoia	Sopela
Pedro Huidobro Fernández	Peoia	Sopela
Ángel Zabala Zubiaga	Peoia	Urduliz
Juan J. Olivares Ansoleaga	Peoia	Urduliz
Antonio Inchaurtieta Arambalza	Peoia	Urduliz
Saturnino Bilbao Saldamando	Peoia	Ezezaguna

916 U.U.A. “Historikoa”, 8. Kaxa, Víctor Otaola, Trenbideen 1. Erregimentuko 2. Batailoiko 5. Unitateko alferrezaren mezua 1937-7-28.

917 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Víctor Otaola alferrezaren mezuari erantsitako zerrenda 1937-7-28.

José Bilbao, Eulogio Abando, Eustaquio Menchaca, Ángel Zavala eta Juan J. Olivares zirela-eta, alkateak adierazi zuen haien portaera ona zela eta politikan ez zutela parte hartu. Hala eta guztiz ere, Aniceto Ostolozaga Bilbaoren kasuan, nabarmendu zuen “(...) haren joera ezkertiarra, eta horrela agertua zela bere *elkarrizketetan*”. Udalburuak berdintsu berba egin zuen Antonio Inchaurtieta Arambalzaren gainean: “(...) ezkerren aldekotzat hartzen da zentzu horretan azaldu baitu bere burua *elkarrizketetan*”<sup>918</sup>.

Beste alde batetik, abuztuaren hasieran presazko 855. prozedura ireki zen Santander-Bilbo trenbideko 13 langileren aurka, eta hauen artean zeuden Sopolako Pedro Huidobro aitatu, eta Aniceto Ostolozaga. Haien artean, Antonio Bilbao Zabala urduliztarra ere ageri zen. Bere aurrekariei buruzko ohiko miaketak egin ostean, Bilboko 7. Epaitegi Militarreko idazkari Isaac Solak nabarmendu zuen auzipetuak “(...) *trenbide zerbitzuen barruko agente onak*” zirela, “(...) *aspaldi handitik, Fronte Popularra osatzen duten alderdietako*” kide, eta azpimarratu zuen “(...) *haietatik bakar bat ere ez dela agertu modu irekian Gobernu gorri separatistaren aldeko*”. Agian arrazoi horrengatik, Solak erabaki zuen auzipetutako trenbideko beharginak “(...) *Espainiako Mugimendu Nazional Lariotsuaren jarraitzailetzat*” jotzea, baieztapen hau berresten zuen pisuzko argudiorik eskaini barik<sup>919</sup>.

Antonio Bilbao Zabala, 27 urtekoa, Bilbo-Santander Trenbideen Konpainiako sopletelari soldatzailea zen, eta ez zen gogoratzen bere postura itzultzeko eskaera sinatu ote zuen Eusko Jaurlaritzaren garaian, baina uste zuen ezetz, “(...) *soldadutzara deitu baitzion Gobernu gorri-separatistak, gutxi gorabehera 1936ko abenduaren 15ean*”. Beste alde batetik, adierazi zuen ez zela inongo alderdi politikotakoa izan, baina UGTri lotutako Sindicato Nacional Ferroviariokoa bai, hiru-lau urte lehenago, gutxi gorabehera hiru hilabetez<sup>920</sup>.

Aniceto Ostolozaga konpainia bereko trenbideko peoia zen. Ez irakurtzen ez idazten ez zekienez, ez zuen gomutan bere postura itzultzeko galdetegia betetzeko eskatu zuen edo ez Euzkadiko Gobernuaren aginte garaian. Sindicato Nacional Ferroviariokoa izan zen “(...) *Errepublika etorri zenean bizpahiru hilabetez, eta gero ez zen berriro inongo sindikatutan sindikatu*”. Azkenik, adierazi zuen beharrezkoa izanez gero “(...) *Urdulizko hainbat bizilaguni deitu ahal zietela bere portaera eta Espainiako Mugimendu Salbatzailearekiko atxikimendua berretsi zezaten*”<sup>921</sup>.

---

918 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkate eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko buruzagiaren erantzuna Víctor Otaola alferrezari* 1937-8-4.

919 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 855-37 auzia *Isaac Solá, Bilboko 7. Epaitegi Militarreko idazkariaren adierazpena* 1937-8-18.

920 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 855-37 auzia, *Antonio Bilbao Zabalaren ikerketa-deklarazioa* 1938-8-17.

921 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 855-37 auzia, *Aniceto Ostolozaga Bilbaoren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-10.

Ez zen beharrezkoa izan Ostolozagak Urdulizko inongo bizilaguni deitzea. Abuztuaren 18an, epaile instruktoreak ebatzi zuen “(...) *auzipetuek ustez egindako jarraitutako ekintzak (...) ez direla delitutzat jotzekoak (...)*”; beraz, auzia largestea proposatu zuen<sup>922</sup>. Hilaren 25ean erabaki zen auziaren behin-behineko largespena eta behin betiko askatasunean geratu ziren auzipetuak<sup>923</sup>.

Antzeko prozesua izan zen 2154-37 auzia, non Juan Erdaide Videa, Plentziako bizilaguna eta Urdulizen jaioa, agertzen zen Bilbo-Santander Trenbideen Konpainiako 14 enplegatu gehiagorekin. Konpainia hartako idazkariak, epaileak eskatuta, ziurtatu zuen ez zekiela Erdaidek zer ideia politiko zituen eta zer pentsatzen zuen “*Mugimendu Nazional Lorioitsuari*” buruz, eta bai, ostera, “(...) *enplegatu gisa konplitu egiten duela*”<sup>924</sup>.

1937ko azaroaren 15ean Erdaideren deklarazioa izan zen epailearen aurrean. Lehenengoz, ezin izan zuen ezer zehaztu “*Valentziako Gobernu Gorriaren galdetegiaz*”, Errepublikaren alderako atxikimendu maila erakusteko beharginek bete behar zuten horretaz, ez zekielako irakurtzen eta idazten. Juan Erdaidek adierazi zuen, Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, Sindicato Nacional Ferroviarioa afiliatu zela “(...) *bi-hiru hilabetez*”, eta berriro kidedu zela sindikatu hartan 1937ko urtarrilean, nahiz eta dagoeneko UGTn integratuta egon. Gerran parte hartu bazuen, , “(...) *1937ko ekainaren 13ko prentsaren*” bitartez bere kintari dei egin zitzaiolako izan zen. Trenbideko langile urduliztarra 28. Batailoian sartu zen, eta horrekin parte hartu zuen Artxandako eta Santo Domingoko borroketan ohatilari moduan. Bilboren galeraren ostean, Kantabriara joan zen batailoiarekin, Otañes eta Laredotik igaro ziren, eta azkenean Santanderrera heldu. Hango 4. Ospitalean ingresatuta, bertan egon zen uztailaren hasierara arte, zultzaile minatzaileen batailoi batera sartu baitzuten. Al baina, “(...) *bere osasun egoera ikusirik*” berriro ere ospitaleratu zuten, oraingoan Solaresen. Ospitale hura Asturiasera lekualdatu zuten eta herri ezberdinetan egon zen instalatuta: Ribadesella, Mieres, Calzada eta Gijón. Erdaidek azken herri horretan bizi izan zuen Francoren soldaduen sarrera. Komandantzia Militarrean aitortpena eman behar izan zuen, eta geroago berriro ere Plentzian<sup>925</sup>.

1937ko abenduaren 5ean, Bilboko 2. Gerra-kontseilu Iraunkorrek proposatu zion Okupazio Armadako auditoreari auzia largestea<sup>926</sup>. Gerra-kontseiluko buruaren iritziz, “(...) *auzipetuek egindako jarraitutako ekintzak (...)*” ez ziren “(...) *delitutzat jotzekoak*”<sup>927</sup>. Gerrako auditorea ados egon zen proposamen horrekin eta 15 trenbide langileen behin betiko askatasuna agindu zuen abenduaren 9an<sup>928</sup>.

922 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 855-37 auzia, *Autoaren laburpena* 1937-8-18.

923 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 855-37 auzia, *Auditorearen erabakia* 21937-8-5.

924 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2154-37 auzia, *Bilbo-Santander Trenbideen Konpainiaren ziurtagiria Juan Erdaide Videaren gainean* 1937-11-15.

925 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2154-37 auzia, *Juan Erdaide Bidearen ikerketa-deklarazioa* 1937-11-15.

926 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2154-37 auzia, *Bilboko 2. Gerra-kontseilu Iraunkorren erabakia* 1937-12-5.

927 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2154-37 auzia, *Autoaren laburpena* 1937-11-25.

928 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2154-37 auzia, *Auditorearen erabakia* 1937-12-9.

### 2.7.3 Lurrak luberritzeko diru-laguntzen eskatzaileen depurazioa

1936an lurrak luberritzeko Bizkaiko Aldundiak ematen zituen laguntzak eskatu zituzten baserriar guztiek depurazio prozesu bat igaro behar izan zuten “gorri-separatisten” alde eta haien jarraitzaile agertu ziren nekazariak diru-laguntza horietatik kanpo uzteko helburuarekin.

Depurazio prozesua 1937ko irailaren 3an hasi zen, Aldundia harremanetan jarri zenean eskaerak bidali zituzten 55 herrietako alkatetzekin eta Falangeko tokiko delegazioekin<sup>929</sup>. Urdulizen, txosten kolektibo bi berdin-berdin egin ziren 1938ko uztailaren 12ko datarekin, biak Amancio Nievak sinatuak, bata Alkate gisa eta bestea F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi gisa<sup>930</sup>.

Txosten horietan, eskatzaileen jokabide politikoari buruzko informazio guztia bildu zen “*Mugimendu Nazional Lariotsuan*”: karguren bat izana zuten edo “(...) *Euzcadiko (sic) edo Valentziako gobernuekin kolaboratu zuten*”, matxinatuen kausaren “*aurkako jokaerarik*” izana zuten eta alderdi politikoren batekoak izan ote ziren<sup>931</sup>.

Bizkaï osoan 377 nekazariren eskaerak depuratu ziren, guztira 720 zirela. Aritz Ipiña historialariak dioenez, diru-laguntza ukatze hau “(...) *ikaragarri onuragarria izan zen Aldundiarentzat, izan ere baztertutakoei buruzko akordioak hartzen zituenean (diru-laguntza) ez emateagatik aurrezten zuen diru kopurua ere azaltzen zuen*”. Guztira, Bizkaiko Foru Aldundiak 94.082’83 pezeta aurreztu zituen. Dirua ondo zetorkion Kontzertu Ekonomikoa 1937ko ekainaren 23an ezeztatu ostean bere aurrekontua murriztua ikusi zuen erakundeari<sup>932</sup>.

Urduliz Abeltzaintza Zerbitzuaren azken akordio-proiektuan sartuta geratu zen, azaroaren 27ko datarekin, Errigoiti, Ea, Mallabia, Güeñes, Balmaseda, Mendata eta Zallarekin batean. Udal hauetan guztira ukatu ziren eskaerek 8.996’19 pezetako aurrezkia ekarri zioten Aldundiari zuten<sup>933</sup>.

Hogeita bat baserriar urduliztarretatik hamarri ukatu zitzairen, 1938ko urriaren 6an, “(...) *landu gabeko lurrak luberritzeagatik, soroak eratzteagatik eta fruta-arbolak landatzeagatik egokitu ahal zitzairen diru-laguntza jasotzeko eskubidea, Mugimendu Nazional Lariotsuaren aldekoak ez direla egiaztatu delako*”<sup>934</sup>.

---

929 IPIÑA BIDAURRAZAGA, Aritz: “*Depuración franquista de los solicitantes de ayudas para roturación de tierras en Bizkaia*” in *No es país para jóvenes*, Gazteiz, Valentín de Foronda Institutua, 2012, 11 or.

930 B.F.A.H. AX-476/013, *Urdulizko udalerriko zer bizilagunen gainean eskatu diren txostenak. Haien zerrenda 1938-7-12.*

931 Ibíd.

932 IPIÑA BIDAURRAZAGA, 17-18 or.

933 B.F.A.H. AX-476/013, *Erabaki proiektua 1938-9-27, barruan daukana Aldundiak 1938-10-6an hartutako behin betiko erabakia.*

934 Ibíd.

Laguntza ukatu zitzaion hamar lagunek EAJri emana zioten botoa, eta egintza hau “*Mugimendu Nazional Lariotsuaren*” aurkako jokabidetzat hartu zuten. Haietatik bost EAJkoak izan ziren. Eskatzaileen artean bazegoen EAJko beste afiliatu bat, Santos Arazosa itsasgizona, eta hala ere ez zitzaion eskaera ukatu. Duda barik, pisu gehiago izan zuen alkateak adierazitako datuak: “*Altxamendu Nazionalaren hasieratik Armada-buruaren zerbitzura jarri zen (itsas-makinista)*”. Beste alde batetik, aitatzekoa da laguntza onartu zitzaion Urdulizko hamaika bizilagunetatik zortzik eskumari eman ziotela botoa, eta beste hiruk profil apolitikoa azaldu zuten<sup>935</sup>. Hauek izan ziren laguntza ukatu zitzaion bizilagunak:

<b>DEPURATUTAKO ESKATZAILE URDULIZTARRAK – LUBERRITZEKO LAGUNTZAK 1938-10-6</b> <sup>936</sup>				
<b>Izen-abizenak</b>	<b>Baserria</b>	<b>Gerra bitartean betetako kargua</b>	<b>Jarduketa “M.N.L.”</b>	<b>Afiliazioa</b>
Pilar Ansoleaga	Ansoleaga	Batere ez	EAJri eman zion botoa	Batere ez
Ciriaco Ansoleaga	Zabalondo	Ordena Publikoko zaindaria	Ídem.	EAJ
José María Bilbao	Ansoleaga Ostico	Ídem.	Ídem.	Ezezaguna
Andrés Fano	Dobaran	Batere ez	Ídem.	EAJ
Tomás Larrauri	Venta-Barri	Ídem.	Ídem.	Ídem
Félix Gorordo	Dobaran	Ídem.	Ídem.	Ídem.
Enrique Basañez	Torre-Barri	Ídem.	Ídem.	Ezezaguna
Juan Inchaurtieta	Campa	Ídem.	Ídem.	Ídem.
Prudencio Aspiazu	Bengoliza	Zinegotzia	Ídem.	Batere ez
Tiburcio Llona	Errota-Zabalchu	Ídem.	Ídem.	EAJ

935 B.F.A.H. AX-476/013, *Urdulizko udalerriko zer bizilagunen gainean eskatu diren txostenak. Haien zerrenda 1938-7-12.*

936 *Ibid.*



Hau ez zen izan Aldundiak esku hartu zuen nekazari-abeltzain munduko afera bakarra. Bere izaera apolitikoagatik lurrak luberritzeko laguntza ukatu ez zitzairen urduliztarretako batek, Jesús Tomás del Montek, Aldundiko Abeltzaintza eta Baso Zerbitzura jo zuen “(...) behi aziendarentzako ernaldegi bat paratzeko baimena” eskatzearen. Laguntzen eskatzaileekin egin zen legez, Abeltzaintza eta Baso Zerbitzuak, 1938ko maiatzaren erdialdean, Udalari argibide bera eskatu zion: alderdi edo sindikatu batekoa izan ote zen, gerra bitartean karguren bat izana zuen eta “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuaren kontrako jarduketarik*” egin ote zuen<sup>937</sup>.

## 2.8 EAJ eta Emakumeen kideen aurkako auzipetzeak

### 2.8.1 Urdulizko EAJren Zuzendaritza Batzordea

Lehenago esan dugun legez, abuztuaren hasieran herriko EAJko Zuzendaritza Batzordeko parte bat atxilotu zuten: Agustín Arteta Zabala lehendakaria, José Luis Larandogoitia eta José Vicente Garaizar Larrazabal bitarteko bi idazkariak eta Lorenzo Unibaso Echegaray bokala.

**Agustín Arteta Zabalak**, lanbidez tapizatzaile, 33 urte zituen preso sartu zutenean. EAJren herriko Uri Buru Batzarreko lehendakari izendatu zuten 1935eko ekainean, eta kargu horretan jardun zuen “(...) *Bilbon soldaduak sartu ziren arte*”. Hala ere, adierazi zuen “(...)urte bete baino gehiago lehenagotik ez zirela batzartzen”. Era berean nabarmendu zuen ez zuela “(...) eskumako jendearen kontra egin”, ezpada laguntza eman ziela “(...) *faboreak eginez hauei, txartelak kontrolatzen*”. Artetak adierazi zuen baieztapen hauek berretsi zitzaizketela Urdulizko orduko alkateak, Manuel Uribek, eta haren anaiak, Ramón Uribe dentistak; Alberto Urrutia ikasleaz gain<sup>938</sup>.

**José Luis Larandogoitia Arteta**, 18 urteko merkataritzako ikaslea, EAJn afiliatu zen “(...) *Mugimendua hasi baino apur bat lehenago*”. Bere deklarazioan onartu zuen ““*Batchoky*”ko (olgeta-elkarte) bitarteko idazkari” kargua bete zuela, baina ez zuela “(...) kargurik izan zuzendaritzan”. 1937ko maiatzaren 11n mobilizatu zuten eta *Rebelión de la sal* Batailoira igorri, “(...) *non zerbitzu egin zuen hiruzpalau egunez, baina gaixotu zenez kuartelera bidali zuten zerbitzu egitera (...)*”. Uztailaren 4an “(...) *Armadaren indarretara pasatu zen, Gasteiza igorri zuten eta bere kontrako kargurik ez zegoenez (...), gobernadore militarrek ziurtagiri bat egin zion (...)*”<sup>939</sup>.

---

937 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintza Zerbitzuko buru laguntzailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1938-5-14.

938 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Agustín Arteta Zabalaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-4.

939 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José Luis Larandogoitiaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

**José Vicente Garaizar Larrazabal**, lanbidez bulegaria, 30 urtekoa, (EAJko) “(...)herriko Uri Buru Batzarreko bitarteko idazkari aritu zen (...) 15 egunez karguaren jabea kanpoan zegoelako (...)”. Garaizar igorri zuten:

*“(...) a artillería donde prestó servicio hasta el primero de junio en que fue a su casa de Algorta con permiso permaneciendo oculto en ella hasta la entrada de las tropas españolas en Algorta, presentándose al Jefe Local de Falange que le expidió un salvoconducto (...)”<sup>940</sup>.*

Ustez ezkutatuta egon zen Algortako etxe hura Juan Bautista Uribarrirena zen, aitagarreba izango zuenarena, alegia, Getxoko bizilagun Eusebio Basagoiti, Santiago Corral eta Anselmo Bidegorriren lekukotasunaren arabera<sup>941</sup>. Getxoko beste bizilagun batek, Daniel Oñate Landa ingeniari industrialak, ziurtatu zuen Garaizar “(...) *Getxoko Komite delakoaren aurrean gestio aktiboak egin zituela (...)*” Oñate Landaren askatasuna lortzeko, hau agertu zenean “(...) *deklarazioa ematera atxilotu gisa*”. Antza, ingeniari industrial getxoztarra ezkutatuta zegoela “(...) *sufritzen nuen jazarpena zela-eta, nire ideia espainolistak eta Espainiako Armadarekiko atxikimenduagatik (...)*”, bere etxean agertu ziren “(...) *F.A.I.ko elementuak, zertarako asmatzen erraza (...)*”, baita atxilotu ere. Garaizarren egitekoa ez zen mugatu soilik Daniel Oñateren askatasuna lortzera. Getxoztarraren emazte eta seme-alabez ere arduratu zen, haiei utzirik “(...) *solairu bat bere Urdulizko etxean (...)*”<sup>942</sup>.

**Lorenzo Unibaso Echegaray**, lanbidez arotza; 49 urte zituen atxilotu zutenean. Deklarazioa eman zuen “*euskal interprete baten bidez ez zuelako gaztelania ulertzen*”. Uri Buru Batzarreko gainerako kideek legez, eskumako ideiak zeuzkan jendeari lagundua zion, eta lekuko moduan aipatu zituen Uribe sendiko kide bi (Juan eta José) eta Gregorio Urrutia<sup>943</sup>.

Lau auzipetuak 12 urte eta egun bateko kartzelara kondenatu zituzten, matxinadari laguntza emateagatik. Agustín Arteta, José Luis Larauogoitia eta Lorenzo Unibaso Vigoko Itsasadarrean ainguratuta egon zen “Upo-Mendi” preso-ontziko presoan zerrendan ageri dira<sup>944</sup>. José Vicente Garaizar ere igaroko zen seguruenik “*Upo-Mendit*” handik gertu zegoen Camposancosko presondegian egon baitzen, Laguardian (Pontevedra). Agustín Artetaren kasuan badakigu 1938ko abuztuaren 3an Puerto de Santa Mariako Presondegi Nagusian (Cádiz) sartu zutela. Urte hartako abenduaren 5ean, Huelvako Probintziako Presondegira lekualdatu zuten. 1940ko urtarrilaren 10ean Madrilgo Duque

940 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José Vicente Garaizar Larrazabalen ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

941 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Eusebio Basagoitik, Santiago Corralek eta Anselmo Bidegorrik sinatutako akta* 1937-8-11.

942 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Daniel Oñate Landaren deklarazioa* 1937-8-4.

943 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Lorenzo Unibaso Echegarayren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-4.

944 BADIOLA ARIZTIMUÑO, 265-266 eta 268 or.

de Sexto presondegian sartu zuten<sup>945</sup>, eta Habilitada del Cisne Presondegi madrildarretik ere igaro zen. José Luis Larandagoitia Carmelo de la Pazko presondegian (Gasteiz) egon zen, eta Lorenzo Unibaso Cuellarko Presondegi Nagusitik eta Astorgakotik igaro zen<sup>946</sup>.

1940an, kondenak berrikusi ziren, 1940ko urtarrilaren 25eko Agindu Zirkularren arabera. Lauak irten ziren kartzelatik Bilboko Gerra Auditoretzak 1940ko ekainaren 24an agindu zuenez, eta euren bizitokian geratu behar izan zuten behin betiko ebazpena eman arte.

Agustín Artetaren kasuan, Bilboko Probintziako Batzordeak proposatu zuen aurreko zigorra ordeztzeko, sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikira beheratuta. Baina Zigorrak Aztertzeako Batzorde Zentrala ez zen ados agertu eta hiru urteko espetxealdi txikia ezarri zion 1940ko maiatzaren 31n<sup>947</sup>. Beraz, kondenaren amaiera eguna 1940ko abuztuaren 4an finkatu zen. Halaxe jakinarazi zion ekainaren 9an Madrilgo Habilitada del Cisne presondegiko zuzendariak Bilboko gerra-auditoreari<sup>948</sup>.

Hiru urte geroago, 1943ko abuztuan, Batzorde Zentralak José Luis Larandagoitia eta José Vicente Garaizarren jatorrizko zigorrak ordeztu zituen urte biko espetxealdi txikiagatik eta sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiagatik, hurrenez hurren. Erabaki horrek iraungita laga zuen Larandagoitiaren kondena 1938ko abuztuaren 4an, eta Garaizarrena 1938ko otsailaren 5ean<sup>949</sup>.

Lorenzo Unibasori dagokionez, Zigorrak Aztertzeako Bizkaiko Probintziako Batzordeak proposatu zuen hasierako zigorra beheratzea sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikira<sup>950</sup>; beraz, kondenaren iraungipenaren eguna 1938ko otsailaren 5era ezarrita geratu zen<sup>951</sup>. Unibaso 1940ko ekainaren 27an atera zuten kartzelatik, “(...) *presondegi arindua bere etxean egiteko onura (...)*” emanda, “(...) *Agintariak behin betiko ebazpena (eman zai) bere auziaren berrikuspenaren*

---

945 A.A.O Funtsa: Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, *Agustín Arteta Zabalaren fitxa* (sinadura barik).

946 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Probintziako presondegiko zuzendariaren mezua, Bilboko 1. Epaitegiko epaile militar dekanuari zuzendua 1938-5-16*, Lorenzo Unibaso Echegaray presondegi horretatik Cuellarko Presondegi Nagusira lekualdatuko zutela adierazteko; eta *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Astorgako Presondegi Nagusiko zuzendariari zuzendua 1940-6-24*.

947 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Agustín Arteta Zabalaren behin betiko ebazpenaren ziurtagiria 1940-5-31*.

948 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Madrilgo El Cisne Presondegi Gaituko zuzendariaren mezua, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua 1940-6-9*.

949 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José Luis Larandagoitiaren gaineko ordezkatzeproposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1943-8-30*, Idem. José Vicente Garaizarren gainekoa 1943-8-30. Bien kondenaren kitapenaren fitxak.

950 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Lorenzo Unibaso Echegarayren gaineko ordezkatzeproposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1944-2-19*.

951 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Lorenzo Unibaso Echegaray akusatuaeren kondenaren denboraren kitapena 1944-10-7*.

*ondorioz*<sup>952</sup>. Batzorde Zentralaren azken erabakia jakiteko 1944ko urtarrilaren 31 arte itxaron behar izan zuen, eta Probintziako Batzordearen proposamena berretsi zuen. Armadako Ministerioak erabaki hori ontzat eman zuen urte bereko otsailaren 9an<sup>953</sup>. Lorenzo Unibasoren kasuan, Zaintzapeko Askatasunaren Bizkaiko Probintziako Batzordeak hari buruz ondoren egin zituen miaketak ezagutzen ditugu. 1944ko ekainaren hasieran, Batzorde hau harremanetan jarri zen Plentziakoarekin esan zezan Lorenzo Unibasok merezi ote zituen *“Legeak ematen dituen behin-behineko askatasunaren onurak, eta baiezkoa bada, bizi daitekeen (...)”* Urdulizen. Zaintzapeko Askatasunaren Plentziako Tokiko Batzordea, berriz, harremanetan jarri zen alkate urduliztarrarekin Unibasoren berri eman ziezaion. Udalburuak adierazi zuen Alkatetzak uste zuela *“(...) behin-behineko askatasunaren onurak merezi zituela Lorenzo Unibaso Echegarayk, eta udal mugarte honetan bizi daitekeela”*<sup>954</sup>.

EAJko Uri Buru Batzarreko idazkariak, **Francisco Asla Goirigolzarrik**, bulegari gisa lan egiten zuen Sota y Aznar Konpainian 1928az geroztik<sup>955</sup>, lehiaketa bidez plaza irabazi ostein. Bere osaba Pedro Goirigolzarri, ontzi-konpainiako Itsas kapitain Ikuskatzaileak jakinarazi zion eskaini behar zirela *“(...) bulegari plaza batzuk lehiaketan”*<sup>956</sup>.

Ontzi-konpainiako Kabotaje ataleko bulegoetan jarraitu zuen lanean harik eta *“(...) Mugimendu Nazional Lariotsua hasi eta apur bat geroago, bulegora joateri utzi zion arte (...)”*<sup>957</sup>. Horren arrazoa izan zen 1936ko irailaren 24an, bere borondatez sartu zela Ordena Publikoko Polizia Militarrean, eta zerbitzu egin *Nazioarteko Eremua* delakoko Kontsulatuetan. Geroago, *Ertzañaren* sorrerarekin batean, kidego horretako kide egin zen, teniente maila zuela. 1937ko urtarrilaren 4tik aurrera zerbitzu egiten hasi zen *“(...) espetxeetan, bertan jazotako erailketak zirela-eta (...)”*, zehazki Bilboko Karmeldegiko Kartzelan, harik eta maiatzaren 8an edo 9an *“(...) Larrabetzuko gotorlekuetara igorri zuten”* arte. Han ekainaren 13a arte egon zen. Egun hartan, bere deklarazioaren arabera, *“(...) gero laga zuen zauritu batekin jaisi zen eta soldadu nazionalak hurreratzen zirela ikusita, haiengana joan zen eta bere burua aurkeztu”*<sup>958</sup>. Gasteizko Preso eta Aurkeztuen Saikapen Batzordeko bere fitxan ageri denez, *“(...) indar gorriak erretiratzen hasi zirenean aterpe batean ezkatatuta geratu zen eta bertan gelditu indar*

952 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Astorgako Presondegi Nagusiko zuzendariaren mezua, gerra-auditorari zuzendua, Lorenzo Unibaso Echegarayren egoeraren gainean* 1940-6-27.

953 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Lorenzo Unibaso Echegarayren gaineko ordezkatzeko proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria* 1944-2-19.

954 A.M.U. , 247. kaxa, *Plentziako Zaintzapeko Askatasunaren Batzordeko buruaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1944-6-3, eta *Urdulizko alkatearen erantzuna* 1944-6-12.

955 Edo 1929 otsailaren 6an, Sota y Aznar ontzi-konpainiako zuzendari kudeatzaileak luzatutako ziurtagiriari bagagozkio, I.T.A.M. Arabako funtsa, 2479-38 auzia.

956 I.T.A.M. Arabako funtsa, 2479-38 auzia, *Francisco Asla Goirigolzarriren deklarazioa, Carabanchel Alton (Madril)* 1937-10-21.

957 *Ibid.* Sota y Aznar ontzi-konpainiako zuzendari kudeatzailearen ziurtagiria 1937-11-27.

958 *Ibid.* *Francisco Asla Goirigolzarriren deklarazioa, Gasteizen* 1937-6-16.

*nazionalak heldu arte, eta bere burua eman zien kontra egin barik*<sup>959</sup>. Halaxe egin zuen “(...) nahiz eta irteera bat eduki Bilbora joateko, bere kideetako askok egin zuten legez (...)”<sup>960</sup>.

Ekainaren 16an Gasteizen deklarazioa hartu ostean, biharamunean San Pedro de Cardenako (Burgos) kontzentrazio esparrura igorri zuten<sup>961</sup>, eta geroago Madrilgo fronteko Carabanchel Altoko Beharginen 2. Batailoira<sup>962</sup>. Bertan zegoela, Villaviciosa de Odóneko 11. Dibisioko epaile iraunkorraren aurrean deklarazioa eman zuen 1937ko urriaren 21ean, Seigarren Armada-gorputzaren Gasteizko plazan zuen auzien epaile militarrek eskatuta.

Auziaren instrukziorako jasotako lekukotasun gehienak aldekoak izan ziren. Berbarako, Serafín Sagarna, Urdulizko abade nagusiak nabarmendu zuen Aslak beti izan zuela “(...) oso portaera erlijioso eta moral ona, bere kristau eginbeharrak fideltasunez beteaz”. Beste alde batetik, Sagarnak deklaratu zuen Aslaren jarduketak eskumako zenbait jenderen atxiloketak saihestu zituela eta gainera lortu zuela José Adalberto Mañaricua, Plentziako apaiz lagunkidea, atxilotua eta apur bat geroago askatua izatea<sup>963</sup>. Urdulizko alkate Manuel Uribek ere nabarmendu zuen bere txostenean Aslaren zeregina Urdulizen eskumako jendearen atxiloketak ekiditeko unean, eta erantsi zuen “(...) pertsona ezin hobetzat” zeukatela<sup>964</sup>. Aslak Urdulizen izandako jokabidea izan zen Bizkaiko Guardia Zibilaren Komandantziako Lehen Buruak egindako aldeko txosten baten protagonista ere<sup>965</sup>. Urdulizko abade nagusiaren beste txosten bati buruz luze eta zabal berba eginda gaude zenbait orrialde lehenago. Hura izan zen auzira gehitu zirenen artean xeheena, eta bertan zehatz-mehatz kontatzen zen auzipetuak Urdulizen atxiloketak ekiditeko egindako guztia<sup>966</sup>.

1938 guztian, oso aldekoak ez ziren hainbat txosten egin ziren. Arabako F.E.T. y de las J.O.N.S.en probintziako antolamenduak nabarmendu zuen bere txostenean Asla EAJkoa izana zela beti, 1936ko otsaileko hauteskundeetan kontu-hartzaile izan zela eta “(...) alderdi horretako Buruzagitxo bezala nabarmendu zela”<sup>967</sup>. Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariak, berriz, auzipetuaren jokabidea frogatu ahal ezin izan zuen arren, adierazi zuen “(...) ziurtatu (zitekeela) politika gorri-separatistaren alde egin zezakeen guztia egin zuela; beraz, gure Mugimendu

---

959 Ibíd. *Presoak edo Aurkeztutakoak Sailkatzeko Gasteizko Batzordea. Francisco Asla Goirigolzarriren fitxa.*

960 Ibíd. 2479-38 auzia, *Francisco Asla Goirigolzarriren deklarazioa, Villaviciosa de Odónen 1937-10-21.*

961 Ibíd. *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Gasteizko Batzordearen mezua, Gasteizko instrukzio epaile militarra den teniente koronelari zuzendua 1937-9-18.*

962 Ibíd. *Presoen kontzentrazio-esparruetako ikuskariaren telegrama, Gasteizko 1. Epaitegi Militarri zuzendua 1937-9-27.*

963 Ibíd. *Serafín Sagarnaren ziurtagiria 1937-9-11.*

964 Ibíd. *Manuel Uriberen txostena 1937-9-11.*

965 Ibíd. *Guardia Zibilaren Bizkaiko Komandantziako jarduneko lehen buruzagiaren txostena 1937-9-22.*

966 Ibíd. *Luis Villabaso Zabaletaren lekukotasuna 1937ko iraila.*

967 Ibíd. *Arabako F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena 1938-2-7*

*Nazional Loriotsuaren kontrakotzat jotzen da*". Beste alde batetik, Asla *Ertzañako* Teniente izendatu izana, txosten honen arabera, "(...) *buruzagi gorri-separatistek beregan zuten konfiantzaren*" ondorio izan zen<sup>968</sup>. Guztiz antzekoa zen Barne Segurtasuneko eta Ordena Publikoko Bizkaiko Ordezkaritzaren txostena, "(...) *Euzkadiko Armadarako jendea erreklutatzen*" ibili zelako akusazioa gehituta<sup>969</sup>.

1938ko urriaren 23an, Francisco Asla, Carabanchelgo Beharginen 2. Batailoieko kabo batek lagunduta, Gasteiza bidali zuten eta Epaitegi Militarren eskutan jarri<sup>970</sup>. Biharamunean sarrera egin zuen bertako Probintziako Presondegian<sup>971</sup>.

Azaroaren 25ean, ikerketa-deklarazioa egin zuen, berriro ere, epailearen aurrean, eta aurretik deklaratu zuena berretsi<sup>972</sup>. Gainera, txosten berriak gehitu ziren defentsak eskatuta, guztiak auzipetuaren oso aldekoak. Berriro deklaratu zuen Manuel Uribe, orduko Urdulizko alkate ohiak, eta errepikatu Francisco Aslak eskuindarren atxiloketak ekidin zituela udalerrian<sup>973</sup>. Amancio Nieva alkateak, berriz, ziurtatu zuen Urdulizen ez zitzaizela jazarri eskumako jendeai, eta behin baino gehiagotan babestu zituztela ordena publikoko zaindarien<sup>974</sup>. Urdulizko udalbatzako kide bik ere eman zuten euren lekukotasuna: José María Ansoleaga Sistiaga alkateordeak eta Isidro Fano Bilbao zinegotziak, eta adierazi zuten:

*"(...) si alguna intervención tuvo (Asla) durante la dominación rojo-separatista en favor de personas de derechas, no fue debida a tener ninguna autoridad, sino a sus buenos sentimientos y amistades con todas las personas de orden"*<sup>975</sup>.

Era berean deklaratu zuen Sopelako Farangeko Buru eta lehen alkateordeak, José Jiménez Bidosolak. Partido Tradicionalistako afiliatua zen 20 urte baino lehenagotik. Francisco Asla eta berak adiskidetasuna zuten; beraz, urduliztarrak ederto ezagutzen zuen haren jarrera politikoa. Hala eta guztiz ere, Jiménezek hau nabarmendu zuen:

---

968 Ibíd. *Bizkaiko Ikerketa eta Zaintzako Komisariaren txostena* 1938-7-30.

969 Ibíd. *Bizkaiko Probintziako Barne Segurtasuneko eta Ordena Publikoko Ordezkaritzaren txostena* 1938-8-2.

970 Ibíd. *Carabanchel Altoko Beharginen 2. Batailoiko komandante buruzagiaren mezua, Gasteizko Epaitegiko instrukzioko epaileari zuzendua* 1938-10-23.

971 Ibíd. *Gasteizko Probintziako Presondegiko zuzendariaren mezua, 5. Epategi Militarreko komandanteari zuzendua* 21938-10-4.

972 Ibíd. *Francisco Asla Goirigolzarri auzipetuaren ikerketa-deklarazioa* 1938-11-25.

973 Ibíd. *Manuel Uribe Echevarriaren deklarazioa* 1939-1-16.

974 Ibíd. *Amancio Nieva Taramundren ziurtagiria* 1939-1-16.

975 Ibíd. *José María Ansoleaga Sistiagaren eta Isidro Antonio Fano Bilbaoren deklarazioa* 1939-1-19.

*“(...) no me molestó en lo más mínimo ni ami (sic) ni a otras personas residentes en (...) Sopelana completamente afectas a la Causa Nacional, cosa que si hubiese estado en su ánimo lo podría haber hecho dada la vecindad del pueblo de Urduliz (...)”<sup>976</sup>.*

Guardia Zibileko teniente Pedro Paz Morenok, Carabanchel Altoko Beharginen 2. Batailoiko behin-behineko idazkari laguntzaile zebilenak ziurtatu zuen Francisco Aslak erakutsia zuela:

*“(...) en todo momento una conducta intachable y demostrado afecto al Glorioso Movimiento Nacional, desempeñando el cargo de escribiente en esta Plana Mayor a satisfacción del Jefe que suscribe”<sup>977</sup>.*

Francisco Aslak espetxean urtebete zeroanean, idazki bat bidali zion Seigarren Barruti Militarreko gerra-auditoreari, 1939ko urriaren 19ko datarekin, eta bertan eskatu behin-behineko askatasunaren onurak emateko. Horretarako, argudiatu zuen bere 60 urteko ama alargunak ezin zuela *“(...) diruz bere burua mantendu”* eta egozten zitzaizkion ekintzak hutsaren hurrengo zirela<sup>978</sup>.

Abenduaren 9an onartu zitzaizkion *“(...) kartzelaldi arinduaren onurak”* eta ohartarazi Epaitegian aurkezteko betebeharra zuela *“(...)hala eskatzen zion guztietan”*, eta ezin zuela bizilekuz aldatu epaile instruktorearen baimena barik<sup>979</sup>. Behin-behineko askatasuna lortu ostean, Aslak Plentziako Guardia Zibilaren postuan aurkeztu zuen bere burua hilaren 12an, eta bertan jakinarazi zitzaion *“(...) hamar egunero aurkezteko betebeharra (...)”* zuela<sup>980</sup>.

1940ko urtarrilaren 24an, fiskalak matxinadarako laguntzatza jo zituen Francisco Aslari egozten zizkioten egintzak, nahiz eta *“(...) aintzat hartu (...) bere portaera onaren aringarria eta Kausa Nazionalari atxikitako pertsonen alde egindako zerbitzuak (...)”*. Defendatzaileak alderdi horietan nabarmendu zituen absoluzio librea eskatzeko, kontuan hartuta Aslaren portaera ona eta aurrekariak nahikoa frogatuta geratuak zirela aldeko lekukotasunei esker. Gomutarazi zien, berbarako, Asla Bilboko espetxeetara igorri zutenean 1937ko urtarrilaren 4ko eraso eta gero, *“oso ondo portatu zela”* preso eskuindarrekin<sup>981</sup>. Jokabide hura ez zen bakana izan; izan ere, Francisco Aslak berak kontatu zuenez *“(...)”*

---

976 Ibíd. José Jiménez Bildosolaren deklarazioa 1939-1-19.

977 Ibíd. Pedro Paz Morenoren ziurtagiria 1938-10-22.

978 Ibíd. Francisco Asla Goirigolzarriren errege-idazkia, Seigarren Barruti Militarreko gerra-auditoreari zuzendua 1939-10-19.

979 Ibíd. Jakinarazpena 1939-12-9.

980 Ibíd. Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandantearen idazkia, Gasteizko 5. Epaitegi Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1939-12-16.

981 Ibíd. Instrukzioko epailearen akta 1940-1-24.

*espetxeetako erasoaren ostean zaindarioetako batzuk sartu ohi ziren animatzera eta beste eraso baten beldurrik ez izateko esatera*<sup>982</sup>. Aslak presoekiko zuen tratu ona berretsi zuten, adierazi bezala, Karmeldegiko preso-ohi bik: Genaro Legarra Bengoechea eta Juan de la Quintana Basauri, biak Sopolako bizilagunak. Legarrak azaldu zuen Aslak eskaintzen zizkiela “(...) *atxilotu guztiei (...) adore eta animo berbak*”, eta Quintanak baieztatu zuen urduliztarraren jokaera gizatiarra presoekin, “(...) *bereziki ezagunekin, segurtasun berbak eskainiz, gorrien beste eraso baten beldurrik izan ez zezaten, bera (Asla) zaintzaile egon bitartean*”<sup>983</sup>.

Azkenean, hiru urteko espetxealdi txikiko kondena ezarri zioten Francisco Aslari, kontuan hartuko zuena irekitako auzia zela-eta askatasun barik egondako denbora<sup>984</sup>. 1941ko martxoaren hasieran, Zigorak Aztertzekeo Batzorde Zentralak, Arabako bere izenkidearen proposamenari jarraikiz, onartu zuen 1940ko urtarrilean ezarritako zigorra ordezteko urte biko espetxealdi txikiko batekin<sup>985</sup>. Modu horretan kondena iraungita geratzen zen 1940ko urriaren 24ko datarekin<sup>986</sup>.

Erabaki horrek, beraz, Francisco Aslaren behin betiko askatasuna ekarri zuen, zeina lehenago ohartarazi dugun legez Urdulizen zegoen bizitzen behin-behineko askatasunean. Martxoaren 28an bulegari urduliztarra Areetan aurkeztu zitzaion Pedro Cabeza epaile instruktoreari, eta horrek jakinarazi zion behin betiko epaia.<sup>987</sup>

Beste alde batetik, Bilboko Erantzukizun Politikoen Epaitegiak Francisco Aslaren aurkako espedientea ireki zuen. 1941ko abenduan, Epaitegiak epaia eman zuen, eta 1940ko urtarrilaren 24ko Gerra-kontseiluak ezarritako hiru urteko espetxealdi txikiaren kondena irmoa jaso. Adierazi zen, gainera, urduliztarrak zeukala “(...) *4.254 pezetetan baloratutako ondasuna, eta ez zuela familia kargarik*”. Aslak bere defentsan aurkeztutako argudioengatik ere, Erantzukizun Politikoen Epaitegiak ez zuen ikusi “(...) *erantzukizun hori aldatzeko inguruabarrik*”. Horregatik, 1942ko otsailaren 12an, 500 pezetako isun ekonomikoa ezarri zioten “(...) *egitate larrien politikoki erantzule (...)*” deklaraturata<sup>988</sup>.

---

982 *Ibíd. Francisco Asla Goirigolzarriren deklarazioa 1937-10-21.*

983 *Ibíd. Laburpen-txostena 1938-8-22.* Genaro Legarra, garai hartan, Bizkaiko Banderako Lehenengo Zenturiako kaboa zen, eta Juan de la Quintana, berriz, Ortiz de Zarate Tertioko sarjentua.

984 *Ibíd. Epaia 1940-1-24.*

985 *Ibíd. Francisco Asla Goirigolzarriren gaineko behin betiko ebazpenaren ziurtagiria 1941-3-2.*

986 *Ibíd. Francisco Asla Goirigolzarriren kondenaren kitapena 1941-3-10.*

987 *Ibíd. Jakinarazpena 1941-3-28.*

988 M.H.D.Z. 75/00193 *Erantzukizun Politikoen Epaitegiak Francisco Asla Goirigolzarriren kontra irekitako espedientea 1942.*



## 2.8.2 Urdulizko Emakume Abertzale Batzaren (E.A.B.) Zuzendaritza Batzordea

Abuztuaren hasieran atxilotu zuten Urdulizko *Emakume Abertzale Batzako* zuzendaritza ere: **Felisa Arambalza Abarrate-gui** lehendakaria, **María Ángeles Garaizar** idazkaria, eta **Julia Iñiguez Unibaso** eta **Manuela Menchaca Navarro** batzordekideak.

Guztiek deklaratu zuten euren atxiloketa baino sei hilabete lehenago izan zirela izendatuak eta denbora horretan ez zela bilerarik egin, ezta euren arteko inork *batzokia* zapaldu ere. María Ángeles Garaizar Berrizek azaldu zuen ez zuela onartu bere izendapena idazkari gisa<sup>989</sup>. Julia Iñiguezek deklaratu zuen “(...) ezin zuela onartu (kargua) irakurtzen eta idazten ez zekielako (...)”<sup>990</sup>. Guztiek deklaratu zuten ez zutela “(...) Mugimendu Nazionalaren kontra jardun”, ezta “(...) eskumako jendeari jazarri” ere. Hori hala izanik ere, lauak sei urte eta egun bateko espetxealdi handira kondenatu zituzten matxinadara bultzatzeagatik<sup>991</sup>.

Behin kondena igorrita, Bilboko Probintziako Presondegian egon ziren 1938ko martxoaren 7a arte, eta egun hartan, “(...) Presondegien Zerbitzu Nazionalako jaun txit gorenaren aginduak betez (...)”, utzi zituzten “(...) indar armatuaren eskutan, Saturrarango Emakume Presondegi Zentralera eramateko, kondena bete dezaten (...)”<sup>992</sup>.

Jatorrizko kondena amaitzeko eguna 1943ko abuztuaren 4an ezarrita geratu zen, baina 1940an ordeztu zieten, kondena txikiagoa ezarri; horren ondorioz, lau urduliztarrak espetxetik atera zituzten ekainaren bueltan. Lau *emakumeen* artetik, Felisa Arambalza kartzelatik irten aurreko prozesua besteena baino hobeto dago dokumentatuta. Zigorak Aztertzeako Probintziako Batzordeak proposatu bazuen ere sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiko zigor berria, Batzorde Zentralak erabaki zuen 1940ko maiatzaren 24an behin betiko zigorra bi urte eta bederatzirako hilabeteko espetxealdi txikia izatea, eta horrek ekarri zuen E.A.B. urduliztarreko azken lehendakaria espetxetik ateratzea. Modu horretan, 1940ko ekainaren 4an, Antonio Maya Pérezek, Saturrarango Emakume Presondegi Zentraleko zuzendariak eman zion behin betiko askatasunaren ziurtagiria Felisa Arambalzari, eta horren berri eman zion 6. Barruti Militarreko gerra-auditorea<sup>993</sup>.

---

989 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *María Ángeles Garaizar Renteria*ren ikerketa-deklarazioa 1937-8-4.

990 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Julia Iñiguez Unibasoren* ikerketa-deklarazioa 1937-8-4.

991 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Okupazioko Armadako Gerra-auditoretzak Epaia onestea* 1937-8-14.

992 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Probintziako Presondegi*ko zuzendaritzaren mezua, *Bilboko 1. Epaitetikoko epaile militar dekanari* zuzendua 1938-3-7.

993 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Felisa Arambalza Abarrateguiren* behin betiko askatasunaren ziurtagiria 1940-6-4 eta *Saturrarango Emakumeen Presondegi Nagusiko* zuzendariaren mezua, 6. Barruti Militarreko Bilboko gerra-auditoreari zuzendua 1940-6-4.

Azaldu ditugun gainerako prozesuetan bezala, presoek adierazi behar zuten non ezarriko zuten euren bizitokia eta kartzelako zuzendariari jakinarazi, eta horrek Auditoretzari. Era berean, presoek ohartarazten zitzaizkien behar zutela “(...) *agintariei euren bizitokiaren berri eman (...)*” bai eta:

*“(...) permanecer en ella, en tanto se dicte la resolución definitiva que ordene la Superioridad, en cuya fecha se comunicará a las mencionadas autoridades la condena que como definitiva le sea impuesta con la orden de libertad definitiva (...) o la medida que se estime del caso (...)”*<sup>994</sup>.

Alde horretatik, Auditoretzak Urdulizko alkateari zuzendu zion idatzia baino ez dugu gordetzen. Hartan Manuela Menchaca Navarroren askatasunaren berri eman zitzaion 1940ko irailaren 23an. Udalburuak, berriz, Ebazpen horren berri eman behar zion “(...) *bere etxean presondegi arinduarekin*” zegoen emakume ohiari<sup>995</sup>.

### 2.8.3 José Brotons Llona “Txiberri”

1939ko maiatza arte ez zuten atxilotu Bigarren Errepublikaren garaian herriko nazionalismoko kide nabarmen hau, *Euzkadi* egunkariako korrespontsala ere bazena. Hilaren 22an sartu zuten Bilboko Eskolapioen kartzelan. Lehenago ez zuten atxilotu ihes egin zuelako “(...) *Urdulizko (...) liberazioa baino apur bat lehenago (...) eta ezin izan zen jakin non zegoen*”. Urte bi geroago, Plentziako Guardia Zibilak *Txiberri* Laukizen zegoelako informazioa jaso zuen, eta bertan “(...) *aurkitu*” zuten eta atxilotu<sup>996</sup>. Bere deklarazioan, José Brotonsek ziurtatu zuen Bilbon egon zela “(...) *hogeita hemezortziko azaroa arte, eta ordutik, atxilotu zuten arte, Laukizen bere etxean*”<sup>997</sup>. Hala eta guztiz ere, bere seme-alabetako baten lekukotasunaren arabera, Bakioko baserri batean ezkutatuta egon zen; handik, lantzean behin, Erraskondon (Laukiz) zegoen familiari bisitak egiten zizkion, bertan bizi ziren-eta Batzoki urduliztarraren eraikina konfiskatu ostean. Denbora bat pasatuta Laukizera bueltatu zen bere familiarekin<sup>998</sup>. Orduan jazo zen bere atxiloketa. Ihes egiteko arrazoiei buruz, José Brotonsek argudiatu zuen “(...) *egon zitezkeen erasoek beldur egin zuela*(...)”

994 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezu estandarra, Saturrarango Presondegiko zuzendariari zuzendua* 1940-6-24. Lau emakumeen kontrako auzietan agertzen da.

995 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua, Manuela Menchaca Navarroren gainean* 1940-9-23.

996 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, *Getxoko F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena* 1939-7-21.

997 *Ibid.*, *Plentziako Guardia Zibilaren atestatua* 1939-5-22.

998 Sabin Brotons Astobietaren lekukotasuna 2013-7-28.

*Urdulizen, lubaki lerro bat zegoelako bertan*”, eta ez zela bueltatu behin herria “askatuta” zergatik eta “(...) *Tropa Nazional Loriatsuak hurbiltzen ari zirenean alde egin zuenez, beldurtu zelako Urdulizko batzuk kartzelan zeudela entzunda, eta horregatik ez zuela egin*”<sup>999</sup>.

Plentziako Guardia Zibilaren atestatuan, Brotons akusatu zuten “(...) *boluntarioak erreklutatzeagatik Euzcadiko (sic) Armada delakorako eta (...) gorri-separatisten aldeko propaganda egiteagatik*”. Txostena bost lekukoren deklarazioekin osatu zen: alde batetik, Isidro Fano Bilbao eta José María Ansoleaga Sistiaga zinegotziak; eta, beste alde batetik, Juan Bautista Zabala Ostolozaga, Antonio Larrabeitia Urizarri eta Isidro Sistiaga Arriaga. Guztiak bat etorri ziren Brotonsek ideia “*separatistak*” edo “*guztiz separatistak*” zeuzkala eta horen “propaganda” egiten zuela. Fanok eta Ansoleagak jakinarazi zuten bere etxea herriko *Batzokian* zegoela<sup>1000</sup>.

“*Gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran*” izan zuen zereginari buruz, Juan Bautista Zabalak salatu zuen Brotons “(...) *herri horretako separatisten arteko nabarmenena zela, eta buruzagi paratu zen (...)*”, nahiz eta, bere ustez, ez zuen “*inongo kargurik izan batzordean*”. Hala eta guztiz ere, ziurtatu zuen akusatua “(...) *Urdulizko milizien antolatzailea izan zela, eta jendearen erreklutatzaile Euzcadiko (sic) Armada delakorako (...)*”, eta uste “*irmoa*” zuela José Brotons “(...) *zela milizianoei zer egin behar zuten agintzen zituena orduko alkate BENITO OTAZUAREN izenean*”<sup>1001</sup>.

Antonio Larrabeitiaren lekukotasuna Zabalaren antzekoa da: *Txiberri “buruzagi” paratu zen, eta propaganda egiten jardun zuen “(...) boluntarioak erreklutatzeke Euzcadiko (sic) Armada delakorako (sic), eta ahal zuen guztietan Mugimendu Nazional Loriatsuen kontra berba egiten zuen (...)*”. Beste alde batetik, gehitu zuen Brotons berari entzun ziola esaten “(...) *FRANCO Bizkaian sartzen bazen, bera ez zutela ESPAINIAN harrapatuko, garbitu egingo zutelako (...)*”. Izan ere, “(...) *soldaduak gerturatzean (...), Urduliztik ihes egin zuen (...)*”<sup>1002</sup>.

Ildo berekoak izan ziren Isidro Sistiagaren deklarazioak. Haren esanetan, Brotons “(...) *Urdulizko ugazabatxoa zen, guztia erabakitzen zuena, (...) gehien agintzen zuena (...)*”<sup>1003</sup>.

Amancio Nieva alkateak 1939ko uztailaren erdialdean egin zuen bere txostena, eta José Brotons errugabetu zuen aurreko lekukoen salaketetatik. Alde batetik, nabarmendu zuen boluntarioak erreklutatzeke lana, Antonio Iñiguez Unibaso *jeltzaleak* egiten zuela soilik. Nievak ziurtatu zuen José Brotonsek zeukan jarduera bakarra bere saltokia zela eta bizargin lanbidea, eta gerra

---

999 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, José Brotons Llonaren deklarazioa – Plentziako Guardia Zibilaren atestatua 1939-5-22.

1000 Ibíd. *Lekukoen deklarazioa – Plentziako Guardia Zibilaren atestatua 1939-5-22.*

1001 Ibíd.

1002 Ibíd.

1003 Ibíd.

bitartean zerbitzu egin zuela Cadiñanos eta Villabaso abizena zuten bi errefuxiatu eskuindarrei. Beste alde batetik, Gerra Zibilaren garaian inongo kargurik izatetik errugabetu zuen, eta aditzera eman zuen EAko Uri Buru Batzarreko idazkari kargua ez zuela *Txiberrik*, ezpada Francisco Asla Goirigolzarrik. Kronista gisa Brotonsek *Euzkadi* egunkarian zuen lanari dagokionez, alderdi sozialenera mugatu zuen, Urdulizen izandako jaiotzak bezala, politika alde batera utziz<sup>1004</sup>.

Berriz, Getxoko Falangeak nabarmendu zuen Brotonsen engaiamendua abertzaletasunaren aldera, Primo de Riveraren Diktadura baino lehen Laukizen bizi izan zen garaira atzera eginez. Gainera, txosten horrek eutsi zion besteen akusazioari, alegia, "*fronte gorrirako*" boluntarioak erreklutatzen ibili zelako akusazioa eta "(...) *frontera joan behar zuten mutilentzako erretaguardiako instrukzioa*" antolatzen jardun zuelakoa<sup>1005</sup>. Plentziako Guardia Zibilak berdin egin zuen, eta Getxoko Falangeak legez, ziurtatu zuen ez zuela inongo kargurik izan Gerra bitartean inongo erakundetan<sup>1006</sup>.

Jasotako deklarazioen arteko ezberdintasunak zirela-eta, kasuaren ardura zuen epaile militarrek abuztuaren hasieran "*fidagarritasun ezaguneko*" hiru lekukoren aitortpena eskatu behar izan zuen, argitzen lagundu zituzten erreklutatzailetzat eta EAJko Tokiko Batzordeko Idazkaritzat jotzen zuten akusazioak, bere portaera politiko sozialaz gain<sup>1007</sup>.

Hiru lekuko horiek ez ziren berriak izan, maiatzean Guardia Zibilaren aurrean deklarazioa eman zuten bost gizonezkoen taldekoak zirelako. Testigantza horietako bi "aldekotzat" jo ditzakegu, euren lehenengo deklarazioan lekukotasun "arinagoak" eman baitzituzten: José María Ansoleaga eta Isidro Fano zinegotziak.

Ansoleagak esan zuen ez zuela Brotons milizien erreklutzaile edo antolatzaile ibili izanaren berri, ezta, "(...) *inori entzunda ere*", EAJko Tokiko Batzordeko idazkari lanetan ibili izana. Beste alde batetik, akusatuarekiko zuen iritzia "*ona*" zen, politikoki "*Euskal abertzale sutsutzat* (zeukan), *bere ardurazko hutsegite bakarra* (...)", eta nabarmendu zuen José Brotonsek "(...) *ederto betetzen zituela elizarekikoak eta oso ohitura sanoetako zela, tabernarien artean oso gutxi ikusten diren bertuteak ditu-eta*"<sup>1008</sup>.

Era berean, Isidro Fanok deklaratu zuen ez zegoela ziur *Txiberriren* aurkako akusazioez, eta berari buruzko iritzia ona zuela "(...) *bere politika salbu*" eta "(...) *nazionalista gogorra*" zela esan zuen<sup>1009</sup>.

1004 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 azuia, *Amancio Nieva alkatearen txostena* 1939-7-13.

1005 Ibíd. *Getxoko F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena* 1939-7-13.

1006 Ibíd. *Plentziako Guardia Zibilaren txostena*, 1939-7-8.

1007 Ibíd. *Z letrako epaile militarren mezua*, Urdulizko udal epaileari zuzendua 1939-8-5.

1008 Ibíd. *José María Ansoleaga Sistiagaren deklarazioa* 1939-8-14.

1009 Ibíd. *Isidro Fano Bilbaoren deklarazioa* 1939-8-14.

Lekukoetako hirugarrenak, Antonio Larrabeitiak, besteek baino etsaitasun handiagoa agertu zuen Brotons en aldera. Maiatzean egindako aitortpena nahiko kaltegarria izan zen akusatuarentzat, eta bere deklarazio berriak ildo berari jarraitu zion. Nahiz eta Larrabeitia ez zegoen ziur *Txiberri* “(...) herri honetako milizien antolatzailea” izan zenik, “(...) Armada Gorriarentzako jendearen” ustezko erreklutatzaile lanaren akusazioa indartu zuen, lehen pertsona hau kontatu zuenean: “(...) *kintetan zegoela, bere aurrera deitu zidaten eta hark esan non aurkeztu behar zuen*”<sup>1010</sup>. Brotons Tokiko Batzorde jeltzaleko idazkaria zen edo ez, Larrabeitiak azaldu zuen “(...) *behin edo behin entzun duela esaten bazela, baina ezin ziurtatu*”. Azkenik, José Brotons en portaera “(...) *hala moduzkotzat (jo zuen) zeukan partidismoa berearen aurkakoa zela-eta*”, eta gaineratu zuen akusatua “(...) *oso nazionalista zela eta alderdiaren propagandista*”<sup>1011</sup>.

Deklarazio hauek ere ez zuten lagundu Brotons en aurkako akusazioak argitzen. Horregatik, irailaren 11n lekuko sorta berri bati deitu zion, deklarazioa eman zezaten; guztiak, “(...) *fidagarritasun moral eta aberkoidun pertsonak*”. Deitutako hiru berri hauek, lehenago deklaraziorik eman ez zutenak, izan ziren Juan José Guibelondo Abarrategui, Eulogio Abando Dorronsoro eta Juan José Garitaonandia Ayarzagüena zinegotziak<sup>1012</sup>.

Lekuko horien deklarazioak Brotons en izugarri aldekoak izan ziren. Denek aitortu zuten ezin zutela ziurtatu EAJko Tokiko Batzordeko Idazkari kargua bete zuenik, ezta boluntarioak erreklutatzen edo miliziak antolatzen ibili zenik ere.

Aldiz, Garitaonandiak adierazi zuen akusatua, soilik “(...) *ibiltzen zela (...) bere taberna eta janari dendaren negozioan*” eta “(...) *bere ideia nazionalistengatik ere, beti izan zela familiako aita ondradua, oso erlijiosoa eta beti izan zuela harreman ona bizilagun guztiekin*”<sup>1013</sup>.

Eulogio Abandok deklaratu zuen “(...) *Urdulizko geltokiko behargina den aldetik, gizon horri buruzko iritzi onena zuen bizilagunetakoa izan zitekeela*”, eta gaineratu zuen “(...) *José Brotons en ideia nazionalistakoa izan dela, oso bizilagun erlijiosoa eta harreman harmoniatsua zuena bizilagunekin, eta bakarrik bere bizartegi eta janari dendaren negozioan jarduten zuela*”<sup>1014</sup>.

Azkenik, Juan José Guibelondok, nahiz eta baieztatu “(...) *auzipetua ideia nazionalistakoa zela (...) inoiz ez zuen ikusi alderdiaren barruan inongo kargurik betetzen, ezta hauteskundeetan lanean ezta Udalean kargurik izaten, katoliko kartsua delarik*”<sup>1015</sup>. Lekuko honen “borondatezko amnesia ariketatzat” jo dezakegu Guibelondok *Txiberri* alderdiaren barruan inongo kargurik bete ez izanaren baieztapena.

---

1010 Jatorrizko dokumentuan ere dago esaldi hau azpimarratuta.

1011 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioa 1939-8-14.

1012 Ibíd. *Urdulizko Udal Epaitegiaren zitazio-zedula* 1939-9-7.

1013 Ibíd. Juan José Garitaonandia Ayarzagüenaren deklarazioa 1939-9-11.

1014 Ibíd. Eulogio Abando Dorronsororen deklarazioa 1939-9-11.

1015 Ibíd. Juan José Guibelondo Abarrategiaren deklarazioa 1939-9-11.

Aldeko testigantza hauei gehitu zitzairen urte hartako abenduan Udaleko idazkari Luis Navarro Torronteguiaren aitortpena “*bat-bateko lekuko*” moduan. Navarrok halabeharrez ezagutzen zuen udalerriko bizitza politikoa, zeukan kargua zela-eta; beraz, duda barik, ederto ezagutzen zuen José Brotons en jarduera politikoa. Baina bere testigantza, aurreko hirurena bezala, *Euzkadi* egunkariko kronista ohiari “Iaguntzera” bideratuta zegoen. Modu horretan, Navarrok bere deklarazioan Brotonsek EAJn zeukan partaidetza maila murriztu zuen besterik gabe “aldekotzat” joz; baieztatu zuen ez zekiela hauteskunde prozesuetan parte hartu zuen edo ez, nabarmendu zuen ezin zuela ziurtatu “(...) *bere ideologiaz propaganda egin*” zuenik eta adierazi zuen ez zuela bete “(...) *inoiz Alderdi Nazionalistako Tokiko Batzordeko Lehendakari kargua (...)*”. Baieztapen horiek ez zuten egia usanik. Gogoratu behar da Brotons herriko EAJko lehendakaria izan zela 1930eko abendutik 1932ko abendura bitarte, eta berriro hautatu zutela 1934ko urtarrilean, nahiz eta abagune hartan soilik hilabete batez egon zen karguan bateraezina zelako *Batzokiko* etxezain eta errentadorea izatearekin. Erreklutatzaile edo instruktore ibili zelako akusazioei dagokienez, Navarrok adierazi zuen ez zekiela edo horren berririk ez zuela<sup>1016</sup>.

Brotonsek 1940ko urtarrilaren 15ean eman zuen hirugarren deklarazio, eta bertan berretsi zituen 1939ko maiatza eta uztailleko deklarazioak, eta “(...) *txostenak eman (...)* *ditzaketen pertsona gisa*” aipatu zituen Amancio Nieva alkatea eta Urdulizko bizilagun Lucio Ugarte<sup>1017</sup>.

Ostera berriz alkateak lekukotza eman zuen, aurreko urteko uztailleko bere txostenaren ildo berari jarraituz. Modu horretara, udalburuak ziurtatu zuen Brotonsek ez zuela erreklutamenduan edo mobilizazioan parte hartu. Hala eta guztiz ere, Amancio Nievak, akusatuaren EAJko afiliazioari buruz, “uste” hitza erabili zuen, modu honetan: “(...) *uste du (Brotons) Eusko Alderdi Jeltzaleko afiliatua zela*”, nahita ezkutaturik alkateak ezelango duda barik jakin behar zuen-eta kontua. Beste alde batetik, udalburuak ziurtatu zuen auzipetuak ez zuela “(...) *inoiz izan inongo jarduketarik borroka elektoraletan eta ez da asaldatzaile edo propagandista izan bere ideien alde*”; hortaz Nievak nahia gezurra esan zuen. Geroago ikusiko dugun bezala, *Txiberrik* 1936ko otsaileko hauteskundeetan baino ez zion laga parte-hartzeari, eta bere testigantzan badirudi Nievak zabaltzen duela Errepublikaren garaian egindako hauteskunde guztietara<sup>1018</sup>.

---

1016 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, *Luis Navarro Torronteguiaren deklarazioa* 1939-12-12.

1017 *Ibíd.* José Brotons Llona auzipetuaren deklarazioa 1940-10-15.

1018 *Ibíd.* Amancio Nieva Taramundiren deklarazioa 1940-1-18.

Lucio Ugarte Ansoleagak, aurreko lekukoen antzera, Brotons errugabetu zuen bere aurkako akusazioetatik, eta erantsi zuen, gainera, *Txiberrik* inoiz ez zuela egin adierazpenik “*Altzamendu Nazionalaren kontra*”<sup>1019</sup>.

1940ko otsailaren 24an, Bilboko 1. Gerra-kontseilu Iraunkorrek frogatutzat jo zuen José Brotons “(...) *EAJko afiliatua zela eta bere etxean egon zela instalatuta Alderdi Nazionalistaren gunea, eta prozesatua horren etxezaina zela*”. Hala eta guztiz ere, “(...) *milizietarako gazteak erreklutatzea dela-eta, (akusazioa) ez da nahikoa argi geratzen, auziaren behin-behineko largespina proposatu zuten (...) Erantzukizun Politikoei buruz indarrean dagoen Legearen arabera eskatu ahal diren erantzukizunak ukatu barik*”<sup>1020</sup>. Modu horretan, Gerrako Auditoretzak agindu zuen martxoaren 6an José Brotons Llona “(...) *behin betiko askatasunean gelditzeko (...)*”, eta Eskolapioetako Presondegitik irten zen 1940ko martxoaren 9an<sup>1021</sup>.

Behin askatasuna lortuta, fronte berri bat ireki zen José Brotonsentzat Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalaren aurrean.

Arazo horretan sartu baino lehen, beharrezkoa da berrikustea *Txiberrik* aurreko prozesamenduan zehar egin zituen hiru deklarazioak. Bistakoa denez, José Brotonsek, ezkutatuta egon zen garaian, denbora nahikoa eduki zuen hausnartzeko zelan defendatuko zen atxilotuz gero. Alde horretatik, badirudi aholku jaso zuela epaiketaren aurretik eta/edo epaiketa bitartean. Haren aitorten batzuen zentzua argitzen du horrek: ez zuten errealitatearekin zerikusirik, baina haren defentsa eraikitzeke balio zuten.

Esate baterako, bere hiru deklarazioetan 1932an ezarri zuen Urdulizko EAJko afiliazioa, benetan 1930eko abenduan izan zenean eta, gainera, EAko lehenengo Uri Buru Batzarreko lehendakari aukeratu zuten urte hartako abenduaren 7an<sup>1022</sup>. Horri gehitu behar zaio Brotons en afiliazio zenbakia 1.a zela. Bere afiliazio-orria ez da agertzen “*Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak*”<sup>1023</sup> bilduman, baina bai “*Urdulizko Eusko Alderdi Jeltzaleko Afiliatutakoen Zerrendan*”. Zerrenda hartan, “*B. Llona'tar Joseba*” bezala agertzen da, hau da bere izena euskaraz jarriz eta jatorri valentziarreko<sup>1024</sup> lehen abizena “*ezkutatuz*”<sup>1025</sup>, *Euzkadi* egunkarian agertu ziren bere artikuluetako batzuetan egin zuen legez, *Txiberrri* gaitzizena erabili ez zuenean.

---

1019 *Ibíd.* Lucio Ugarte Ansoleagaren deklarazioa 1940-1-18.

1020 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, *Bilboko 1. Gerra-kontseilu Iraunkorren erabakia* 1940-2-24.

1021 *Ibíd.*, *Gerra-auditoretzaren erabakia* 1940-3-6, eta *Bilboko Probintziako Presondegiaren mezua, “F” letrako epaile militarri zuzendua* 1940-3-9.

1022 *Euzkadi* 1930-12-13.

1023 M.H.D.Z., P.S. Bilbo 116 “*Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)*”.

1024 José Brotons en aita Ontinyenten jaio zen (Valentzia), Erregistro Zibileko informazioaren arabera.

1025 M.H.D.Z., P.S. Bilbo 217/2 “*Euzko Alderdi Jeltzaleko Urdulizko kideen zerrenda*”.

1936ko urtarrilean, ustez, EAJ utzi zuen “(...) bere jardunarekin bat ez etortzeagatik”. Bere hirugarren deklarazioan, Brotonsek gehiago nabarmendu zuen kontu hau, eta gaineratu hilabete hartatik utzi ziola “(...) guztiz inongo alderdi politikotako kide izateari”<sup>1026</sup>. Haren baja, ostera, ez da erregistratuta agertzen afiliatuen zerrenda horretan, eta bere 1936ko prentsa-artikuluengatik pentsa dezakegu baja hura ez zela benetan gertatu. Bai berba egin genezakeela alderdiarekiko nolabaiteko urrutiratze batez, *Txiberrik Euzkadi* egunkarian idazten zituen artikuluaren murrizketa, desagerpena ia, dela-eta. 1936 osoan, soilik artikulu bi topatu ditzakegu berak sinatuta, bata uztailaren hasieran, eta bestea azaroan, gerra bere bizienean zegoela. Korrespontsal moduan egiten zuen jarduera txikiagatik ere, artikulu horiek sendotzen dute benetan bajarik gertatu ez zelako irudipena. Urdulizen 1936ko ekainaren 1ean ospatutako *Aberri Egunari* buruzko kronikari esker, badakigu egun hartako ekitaldietan parte hartu zuela: “(...) Batzokiko lokaletan, “*Txiberrri*” aberkideak orri batzuk irakurri zituen (...). Kronika, gainera, ez zuen berak idatzi, ezpada *Zubi Arte*<sup>1027</sup> delako batek. Hilabete bat geroago, uztailaren 5ean, artikulu bat argitaratu zen oraingoan bai, *Txiberrik* izenpetuta. Bere idatzian Urdulizko Batzokian gauzatutako bilera baten berri ematen zuen, eta agintariei aipamena egiterakoan “*geure agintariak*” erabili zuen<sup>1028</sup>.

Gerra bere bizienean zegoela, beste artikulu bat argitaratu zuen, azaroaren 28an, eta bertan Urdulizko EAJk frontetik itzuliak ziren *gudari*entzako antolatu behar zuen festaren berri eman zuen. *Txiberrik* erabilitako hizkerak ez du, antza, Kausa Nazionalistarekiko urruntasuna adierazten: “*Geure gudariok gertu ta alaitu dagoz barrero guda-oñera biurtutako ta etsai madarikatuak geure aberritik jaurtiteko. Ia, ba mutilak Aurrera JEL-goitik*”. Artikulu horretan bertan, Sabino Aranaren alde Urdulizko elizan egin behar zen meza iragarri zuen<sup>1029</sup>.

Brotonsek 1936ko otsaileko hauteskunde prozesuan izan zuen esku-hartze mailari dagokionez, ez du gu bere artikulurik topatu egunkari abertzalean.

1939ko maiatzean egindako aitortpenean adierazi zuen bere botoa hautagai-zerrenda nazionalistaren eta eskumakoaren artean banatu zuela, eta adierazi zuen “(...) bai berak eta bai bere emazteak eskumako Adán eta Areilza jaunei, eta Horn eta Izurieta separatistei eman zietela botoa (...)”<sup>1030</sup>. 1936ko otsaileko hauteskundeetan izan zuen jokabideaz deklaratu zuen 1940ko urtarrilean “(...) ez zuela hauetan parte hartu propagandista gisa, ezpada boto-emaile huts bezala eta mahaian alboko kargurik eduki barik”<sup>1031</sup>.

1026 A.I.M.N, Bilboko Funtsa, 11089-39 auzia, *José Brotons Llonaren deklarazioa* (bigarrena) 1939-7-26 eta *José Brotons Llonaren deklarazioa* (hirugarrena) 1940-1-15.

1027 *Euzkadi* 1936-6-4.

1028 *Euzkadi* 1936-7-5. “*EGIJA ETE DA – Datorren ñako igande baterako geure Batzoki’ko askundia gertaten dabilzala entzun dogu geure agintariak, olan bada kontuen ipiñiko doguz irakurliak*”.

1029 *Euzkadi* 1936-11-28. “*Geure gudariok gertu ta alaitu dagoz barrero guda-oñera biurtutako ta etsai madarikatuak geure aberritik jaurtiteko. Ia, ba mutilak Aurrera JEL-goitik*”

1030 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 11089-39, *José Brotons Llonaren deklarazioa* 1939-5-22.

1031 *Ibid.* *José Brotons Llonaren deklarazioa* 1940-1-15.



Eskumako hautagaien aldeko botoaren kontuari buruz, interesgarria da Gorteetarako 1933ko eta 1936ko bozketek Urdulizen izan zuten emaitza alderatzea. Bi hauteskundeetan ikusten dugu, antzeko erroldarekin, 541 eta 522 hautesle hurrenez hurren, batz besteko 100 boto-emailetako abstentzio batekin bi hauteskundeetan, EAJk boto galera txiki bat pairatu zuela 1936an. Nazionalistek galdutako botoen parte handi bat eskuindar hautagaitzak irabazi zituen, errepublikanismoak 1933an<sup>1032</sup> jasotako babes mantendu zuen bitartean. Beraz, ez litzateke izugarrikeria egiazat hartzea José Brotonsek egindako baieztapena bere 1936ko otsaileko botoaren norabideari buruz. Era berean, ezin dugu baztertu bere defentsarako estrategiaren parte izatea.

Beste alde batetik, hauteskunde-mahaiaren eratze-aktaren kopiak berresten du José Brotonsek ez zuela mahaiaren parte hartu, ezta kontu-hartzaile moduan ere<sup>1033</sup>. Hala eta guztiz, bai egon zela Gorteetarako 1933ko hauteskundeetan, eta hauteskunde-mahaiaren partaide izan zen alboko moduan<sup>1034</sup>.

Bere etxebizitzaren goiko solairuan zegoen *Batzokiarekin* zuen loturari buruz, Brotonsek, bere aitorten guztietan, arrazoi ekonomikoekin lotu zuen, eta ez politikoeekin. Modu horretan, nabarmendu zuen “(...) *bere etxean zeukala batzokia, alderdi nazionalistaren lokala, zeinen etxezain zen bera (...)*”, eta ohartarazi zuen “(...) *hau neukala bizitzeko baliabide moduan urtean laurehun pezeta kobratzen nizkien-eta (...)*”,<sup>1035</sup> eta “(...) *honela bizitza (ematen zien) aitortzaileak zeuzkan bizartegiari eta tabernari*”<sup>1036</sup>.

1940ko apirilaren 18an, José Brotonsek eskatu zion Madrilgo Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalari VI. Barruti Militarreko jeneral buruak ezarritako 30.000 pezetako isuna berrikusteko. Zehapen horrek jatorria zuen Getxoko Konfiskazio Epaitegiak “(...) *Mugimendu Nazional Lariotsuaren garaipenaren aurkako ustezko ekintza (...)*” zela-eta ireki zion erantzukizun politikoen aitortenaren administrazio espedientean. José Brotonsen kartzelako egonaldiarekin batera eroan zen aurrera auzi hori<sup>1037</sup>.

---

1032 B.F.A.H. AJ 02077/003, *Gorteetako Diputatuen 1933ko Hauteskunde emaitzak*; eta AJ 02092/002 *Gorteetako Diputatuen 1936ko Hauteskunde emaitzak*. Berbarako, José Horn hautagai jeltzaleak 369 boto eskuratu zituen 1933an eta 309, berriz, 1936an. Prietok emaitza berari eutsi zion bi deialdietan, 47 boto. Eskumako zerrendako osatzaileak ez ziren berberak izan hauteskunde batzuetatik besteetara. Hala ere, gorakada erraz igartzen da. 1933an, Luis Lezama Leguizamonek 26 boto eskuratu zituen, eta 1936an, José María de Areilzak 67. Antzera jazo zitzaizen Bilboko Hauteskunde Barrutian aurkeztu zen eskumako zerrendako beste hiru kideei.

1033 B.F.A.H. AJ 02086/013 *Mahaiaren eratze-aktaren kopia* 1936-2-16.

1034 B.F.A.H. AJ 0277/033, *Mahaiaren eratze-aktaren kopia* 1933-11-19.

1035 *Ibíd.* José Brotons Llonaren deklarazioa 1940-1-15

1036 *Ibíd.* José Brotons Llonaren deklarazioa 1940-7-26.

1037 M.H.D.Z., 75/629, “José Brotons indultu eskaera Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalari” 1940, José Brotons Llonaren idazkia, Madrilgo Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalari zuzendua 1940-4-12.

Brotonsek nabarmendu zuen “(...) *uneotan daukadan baliabide urritasuna*” zela-eta, ezinezkoa zitzaiola “(...) *Prokuratzailea edo abokatuia izendatzea, nire defentsaz arduratzeko Auzitegi Goren honen aurrean (...)*”. Baina errekurtsioan erabilitako hizkera juridikoak argi eta garbi erakusten digu testu hau abokatu batek idatzi zuela, nahitaez Txiberri aholkatu zuena. Bistan denez, bere egoeran, ezin zion Madrilgo abokatu bati ordaindu, nahiz eta, beste alde batetik, helbidetzat izendatu zuen “(...) *dagozkion xede legeatarako, On José M<sup>a</sup> Gaztañaga e Ibarrena, alegia, Cooperativa Electra de Madrilgo Idazkariarena (...)*”. Abokatu bat izendatu ezin izanak ez zuen kezkatzen, izan ere “(...) *eskutitz honekin batera doazen dokumentuak nahikoa argitasun ematen dute epai honen inkongruentziaz nire jarduera politikoarekin, maila ekonomikoarekin eta familia-zamarekin*”<sup>1038</sup>.

Brotonsen defentsarako estrategiak jarraitu zion bere auziperatze militarrik iraun bitartean egindako hiru deklarazioen ildoari, bateko benetako egitateak, besteko egitate faltsuak, eta komeni zenean datuak gorde.

Jakina, ezin estrategia hori banatu lortu gura zuen helburutik: premia gorrian zegoen familia batentzat sostengaezina zen zehapen ekonomiko baten indultua. Brotonsen emaztea gaixorik zegoen, birikeriak jota; hori dela eta, tratamenduan zegoen 1940ko martxoaren 15etik Bilboko “*Ledo*” tuberkulosiaren kontrako Anbulatorioan<sup>1039</sup>. Gainera senar-emazteek 14 urtetik beherako 5 seme-alaba zituzten eta, 1937ko ekaina arte bere etxe eta bizibide izana zena, “*Falangeko buruak*” konfiskatu zien. Hori dela-eta, Amancio Nievak nabarmendu zuen legez, Brotons “(...) *herritarren eta lagunen laguntzari esker bizi zen*”<sup>1040</sup>. Horri zera gehitu behar zitzaion: konfiskatutako higiezia, 50.000 pezetako balioa zeukana, “*urtetan lan egitearen eta ekarpen familiarren emaitza*”, “(...) *22.000 pezetako hipotekak kargatuta*” zegoen<sup>1041</sup>.

Brotonsen eta bere familiaren egoera ekonomiko larriaren aurrean, indultua kosta ala kosta lortu behar zen 30.000 pezetako zehapenetik. Horra zergatik egitate faltsuak erabili eta datuak ezkutatu. Berbarako, Brotonsek, bere idazkian, segitzen zuen argudiatzen 1932an afiliatu zela EAJn eta “*diruz txarto zebilelako*” egin zuela:

*“(...) no tuve más remedio que afiliarme al partido nacionalista vasco, con el fin de arrendar un local al mismo y crearme una fuente de ingresos con que atender a las crecientes necesidades, imposibles de atender, con los ingresos normales que mi profesión de barbero me producía*”<sup>1042</sup>.

1038 Ibíd.

1039 M.H.D.Z., 75/629 Bilboko “Ledo” Artategiko zuzendari Silvano Izquierdo Laguna doktoreak emandako osasun ziurtagiria 1940-4-16.

1040 Ibíd. Amancio Nieva Taramundi alkatearen ziurtagiria 1940-4-6.

1041 Ibíd. “José Brotonsen indultu eskaera Erantzukizun Politikoaren Epategi Nazionalari” 1940, José Brotons Llonaren idazkia, Madrilgo Erantzukizun Politikoaren Epategi Nazionalari zuzendua 1940-4-12.

1042 Ibíd.

Modu horretan, bere afiliazioa motibo ekonomikoetara egotziz, Txiberri murriztu egiten zuen afiliatzaera eroran zuen benetako arrazoiak: bere ideia nazionalista sakonak, duda barik, apaldu edo ezkutatu behar zirenak, indultua lortzeari begira. Ildo horretatik, Brotonsek deklaratu zuen inoiz ez zuela “(...) kideetasunik edo nahitasunik izan alderdi politikoen aldera (...)”, eta berriro azpimarratu zuen “filiazio horrek ez zuela zer ikusirik nire ideia politikoeekin; nire egoera ekonomikoa arintzeko topatu nuen aukera bideragarri bakarra izan zen”. Atzera ere aipatu zuen bere baja EAJtik, 1936ko urtarrilekoa. Baina are beharrezkoagoa egiten zen edozein lotura politikotatik aldentzea bereziki Gerra Zibilaren denborari dagokionez. Alde horretatik, Brotonsek nabarmendu zuen, guduak iraun zuen bitartean, “jarrera pasiboan” mantendu zela, eta bizargin gisa zerbitzu egin ziola “(...) ihes egindako eskumako jende askori, zeinei sarritan nire iritzi apolitikoen berri eman nien, baina ordenaren aldekotzat identifikatuta eta gorri-separatisten egoera anarkikotik bananduta”. Azken hau bere “sentimendu katoliko ukaezinekin”<sup>1043</sup> bateraezina zen, itxuraz, Brotonsentzat.

Desagertutako egunkari jeltzaleko kronistak aurkeztutako idatziarekin batera hainbat ziurtagiri etorri ziren: alkatearen eta herriko abade nagusi Andrés de Gastelu Urrutiaren aldeko ziurtagiriak, bere ondasunen zinpeko aitortpenarena, eta “nire herri txikiko F.E.T de las J.O.N.S.eko militante gehienen (...)” ziurtagiriak. Ez zuen Guardia Zibilaren ziurtagiririk erantsi kidego horrek “(...) errekerimendu ofiziala” tarteko zela baino ez zituelako ematen, ezta “(...) F.E.T de las J.O.N.S.ena ere, nire herriko buruzagiak didan etsaitasun pertsonala dela eta (...), interesak medio”<sup>1044</sup>.

Haren izena aitatu barik ere, José Brotons Antonio Larrabeitia Urribarri buruz ari zen, Urdulizko alkate-ohia 1934ko irailetik 1936ko otsaila bitartean. Eskumako pertsona, tokiko Falangera afiliatu zen behin Urdulizko “liberazioa” gertatu zenean; herriak *Antón Falange* esaten zion. Brotonsek kontatu zuenez, Larrabeitiak bere etxebizitza eta saltokia okupatu zituen soldadu frankisten sarreraren ostean:

*“Inmediatamente de la liberación de Urduliz el indicado Jefe de Falange, personalmente se incautó de mi domicilio y establecimiento de ultramarinos sin que sirvieran mis protestas, encarcelándome a mí, y arrojando del mismo en condiciones imposibles de relatar a mis hijitos y Sra., los que han sufrido las amarguras correspondientes sin amparo de ningún género durante los diez meses que duró mi detención, y que están en la actualidad por mi escasez de trabajo al amparo de personas caritativas”*<sup>1045</sup>.

---

1043 *Ibíd.* “José Brotons en indulto eskaera Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalari” 1940, José Brotons Llonaren idazkia, *Madrilgo Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalari zuzendua* 1940-4-12.

1044 *Ibíd.*

1045 *Ibíd.*

Kontakizunak azterketa sakona merezi du. Batzokiaren eraikinaren okupazioa egiazki gertatu bazen ere Brotons en argudioaren barruan badira baieztapenak errealitatearekin kronologikoki bat egiten ez dutenak. *Txiberrik* berak aurretik kontatu zuen Urduliztik soldadu frankistak herrian sartu baino egun batzuk lehenago egin zuela ihes, hau da 1937ko ekainean. Horregatik, ezinezkoa da eraikina konfiskatu zenean, Brotonsek Larrabeitiari berari protesta egin ahal izatea. Ez da egia, halaber, Brotons espetxeratua izan zela “*Urdulizko liberazioaren*” ostean, esan bezala, urte bi geroago sartu zutelako presondegian, 1939ko maiatzaren 22an<sup>1046</sup>.

Bere etxebizitzaren okupazioaren ondorioa izan zen, bistan dena, *Txiberriren* emazte, alabek eta semeak Batzokiaren eraikina utzi behar izatea eta Erraskondora bizitzera joatea, Laukizen<sup>1047</sup>. Hala eta guztiz ere, Brotonsek eraikinaren konfiskazioaren gertakaria bere atxiloketa eta ondorengo hamar hilabetetako espetxe-egonaldiarekin lotu zuen, albo batera utziz 1937ko ekainean ihes egin zuenetik 1939ko maiatzean atxilotu zuten arte igarotako bi urteak. “*Ahantura*” hau ez da ezustekoa, defentsarako estrategiaren logikari erantzungo zion, zalantza barik, beharrezkoa zuelako ihesari eta ezkutatuta eman zuen denborari buruzko edozein erreferentzia ekiditea<sup>1048</sup>.

Konfiskazioaren kontua zehapenetik indultua eskatzeko idazkian eransteak xedea zuen, duda barik, José Brotons eta bere familiaren egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi osoa ematea, Antonio Larrabeitiak okupatutako saltokia haien bizimodua zelako. Horregatik, hona zer azaldu zuen *Txiberrik*: “*tokiko buruzagi horrek, gaur egun, nire etxearen eta nire saltokiaren gozamina du, ezelango errentarik ordaindu barik, nire etxebizitzatik ezinbestekoa entregatzea onartu ez duelarik, Legearen arabera konfiskatu ezina izan arren*”<sup>1049</sup>.

Azkenik, 1940ko maiatzaren 16an, Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalak 30.000 pezetako isuna 10.000 pezetara murriztu zuen, eta gainera desgaituntza xedatu “*(...) sei urtez aginte eta konfiantzazko kargu publikoetarako eta Antolamendu Sindikaletarako, (...) errekurtsio-egileak egindako jarduera politikoengatik (...)*”<sup>1050</sup>.

---

1046 M.H.D.Z. 75/629 “*José Brotons en indultu eskaera Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalari*” 1940, *José Brotons Llonaren idazkia, Madrilgo Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalari zuzendua* 1940-4-12.

1047 Ezin izan dugu zehaztu ebakuazioaren ostean zer egunetan itzuli ziren Urdulizera José Brotons en emazte Felisa Astobieta, haien lau alaba eta semea. Badakigu, hala ere, abuztuaren erdialdean ez zirela artean bueltatu, bai haien izenak bai familia-buruarena agertzen direlako Urdulizko Udala Artxiboan gordetzen den 1937ko abuztuaren 19ko zerrenda honetan: “*ebakuatu ostean gaur egun gorrien lurraldean edo atzerrian dauden bizilagunak*”. (U.U.A. “*Historikoa*”, 8. kaxa)

1048 M.H.D.Z. 75/629 “*José Brotons en indultu eskaera Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalari*” 1940, *José Brotons Llonaren idazkia, Madrilgo Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalari zuzendua* 1940-4-12.

1049 *Ibid.*

1050 M.H.D.Z. 75/629 “*José Brotons en indultu eskaera Erantzukizun Politikoaren Epaitegi Nazionalari*” 1940, Epaia. 140

*Batzokiaren eraikinari dagokionez, goiko solairua urte askotan eskola gisa erabili zen desagertutako Elortzako eskolen eraikuntza eraiki zen arte, José Antonio Bilbao Menchaca alkatea zela. Beheko solairuko saltokiari buruz, Brotonsek berreskuratu egin zuen, baina 40ko hamarkadan zenbait bider itxiarazi zuten. Esate baterako, 1942ko martxoan, alkateak jakinarazi zion udalbatzak onartzen ziola edari eta likoreen saltokia berriro irekitzeko baimena, baina ohartazi zion onartzen bazuen "(...) bere saltokian, bere elkarrizketetan Erregimenaren kontrako agertzen diren pertsonen presentzia, arrazoi nahikoa izango dela atoaan ixteko (...)"<sup>1051</sup>. Apur bat geroago, abuztuan, saltoki itxi egin zuten, "(...) janari dendaren negozioari eragiten ez dion itxialdia, debeku honetatik kanpo geratzen baita (...)"<sup>1052</sup>. 1944ko maiatzean, Txiberrik baimena eskatu zuen "(...) bere saltokia edarien salmentara zabaltzeko"<sup>1053</sup>, baina ukatu egin zitzaion<sup>1054</sup>. 1947ko maiatzean, lokala atzera itxi zuten<sup>1055</sup>, ekainaren 24a arte, egun hartan berriro ireki zen-eta zehapenaren epea amaituta<sup>10561057</sup>.*

## **2.9 Gerrako erakundeen, ordena publikoko zaindarien, gudarien eta milizianoen aurkako auzipetzeak.**

### **2.9.1 Udal Batzorde Ikertzailea**

Gerra Zibilaren gainean jardutean azaldu genuen legez, Udal Batzorde Ikertzailea *Euzkadiko Gobernuak* sortu zuen erakundea izan zen, baserrien eta lursailen jabeak ikertzea helburu zuena erregimen errepublikanoaren kontrakoak ote ziren erabakitzeko.

---

1051 A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, José Brotonsi zuzendua 1942-3-28.*

1052 A.M.U. 267. kaxa, *Poliziako Bizkaiko buruzagi gorenaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1942-8-7.*

1053 A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Bizkaiko Gobernadore Zibilarri zuzendua 1944-5-25.*

1054 A.M.U. 247. kaxa, *Poliziako Bizkaiko buruzagi gorenaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1944-7-4.*

1055 A.M.U. 267. kaxa, *Alkatearen mezua, Poliziako Bizkaiko buruzagi gorenari zuzendua 1947-5-23.*

1056 A.M.U. 267. kaxa, *Alkatearen mezua, Poliziako Bizkaiko buruzagi gorenari zuzendua 1947-6-24.*

1057 1944ko eta 1947ko mezuetan itxieraren arrazoiak agertzen ez badira ere, dudarik ez dago politikoak direla. Sabin Brotonsek, José Brotonsen semeak, bere ahozko lekukotasunean (2013/07/23) deskribatu zigun Juan Bautista Zabala alkatea zeneko jazoera hau: "*Egun baten, tabernan, hamabi bat lagun geunden irratia entzuten, "Radio Paris" alegia, eta Guardia Zibilak guztiak atxilotu gintuen bilera klandestinoa egiteagatik. Baina, zelan izango zen klandestinoa taberna zabalik bazegoen? Juan Bautista Zabalaren garaia zen: Batiste. Alkatea, beraz, hara joan zen eta denok kanporatzea lortu zuen. Alberto Onaindia abadeari entzute genion, sekulako eztenak sartzen zizkion Francori, gaztelaniaz, Paristik eta Londrestik. Guardia zibilak irratia errekitatuta zeukan. Casasecas zuen izena eta baserri baten bizi zen, apopilo. Batiste alkateak itaundu zidan ea bueltatu zidan. Hari esker aparatua bila joan ahal izan nintzen*".

1937ko abuztuaren 5ean deklarazioa eman zuten Batzorde urduliztarreko hiru partaideek, **Andrés Inchaurtieta Arambalza** lehendakariak, **Benigno Fullaondo Lopategui** idazkariak eta **Juan Bautista Unibaso Echegaray** bokalak. Azken honek deklaratu zuen *“euskarazko itzultzaile baten bitartez gaztelania ez ulertzeagatik”*. Hirurak ziren EAJko afiliatuak eta tokiko erakunde hau osatzeaz gain, ordena publikoko zaindaria izendatu zituzten; haien lana, lubakiak zaintzea eta eskumako jendea babestea Urdulizko mugartean<sup>1058</sup>, besterik ez.

Guztiak kondenatu zituzten 12 urte eta egun batera, matxinadari laguntza emateagatik. Ez dakigu zein espetxetara igorri zituzten, baina aitzatekoa da bai Benigno Fullaondo eta baita Juan Bautista Unibaso ere agertzen direla “Upo-Mendi” preso-ontzitik pasatu ziren euskal presoek zerrendan<sup>1059</sup>. 639-37 auzian auzipetutako gehienek antzera, 1940ko ekainaren 24an eman zen haiek espetxetik ateratzeko agindua, Zigorrek Berrikusteko Probintziako Batzordeak lehenengo zigorra ordeztu ostean iraupen gutxiagoko beste batekin. Agindu hau heldu zenean, Inchaurtieta Camposancoko Presondegian zegoen Laguardian (Pontevedra) kondena betetzen, Fullaondo Cadizko Puerto de Santa Mariako Presondegian<sup>1060</sup> eta Unibaso Santiago de Compostelako Central de Santa Isabel Presondegian<sup>1061</sup>. Benigno Fullaondoren kasuan, Probintziako Batzordeak urte bitan utzi zuen kondena berria; horrek kondenaren amaiera eguna 1939ko abuztuaren 4an utzi zuen<sup>1062</sup>. 1940ko ekainaren 28an kartzelatik irten ostean, Fullaondo Urdulizera lekualdatu zen, *“(…) presondegi arindua bere etxean”* betez auziaren behin betiko ebazpenaren zain<sup>1063</sup>. Batzorde Zentralari ia-ia hiru urte kostatu zitzaion Probintziako Batzordearen erabakiari oniritzia ematea, zehazki 1943ko abuztuaren 9an. Armadako Ministerioak, berriz, behin betiko berretsi zuen urte hartako abuztuaren 30ean<sup>1064</sup>.

---

1058 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Andrés Inchaurtieta Arambalzaren, Benigno Fullaondo Lopateguiren eta Juan Bautista Unibaso Echegarayren ikerketa-deklarazioak 1937-8-5*.

1059 BADIOLA ARIZTIMUÑO, 266 eta 268 or.

1060 Puerto de Santa Mariako Presondegi Nagusian sartu zuten 1938ko abuztuaren 3an, eta, gure dokumentuen arabera, urte bereko abenduaren 14an aldatu zuten Sevillako Presondegira. Jakingarria, hemen: A.A.O Funtsa: Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, *Benigno Fullaondo Lopateguiren fitxa* (sinadura barik)

1061 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezuak, Camposancoko, Sevillako eta Santiago de Compostelako presondegietako zuzendariari zuzenduak 1940-6-24*.

1062 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Benigno Fullaondo Lopategui akusatuaeren kondenaren denboraren kitapena*1944-10-7.

1063 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Sevillako Probintziako Presondegiko zuzendariaren meza, Bilboko Gerra-auditoreari zuzendua 1940-6-28*.

1064 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Benigno Fullaondo Lopateguiren gaineko ordezkatzeproposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1943-8-30*.

Andrés Inchaurtietarentzako proposatutako zigor beherapena Zigorrak Aztertzeako Batzorde Zentralak onartu zuen 1944ko urtarrilaren 8an, eta Juan Bautista Unibasorentzako urte bereko urtarrilaren 31n. Inchaurtietaren kondena behin betiko ezarri zuen Armadako Ministerioak urtarrilaren 31n, eta Unibasorena otsailaren 19an<sup>1065</sup>. Bien kondenaren amaiera Benigno Fullaondorenaren egun berean ezarrita geratu zen<sup>1066</sup>.

## 2.9.2 Ordena publikoko zaindaria 639-37 auzian

Ikusi dugunez, urduliztar batzuk ordena publikoko zaindaria izendatu ziren gerra bitartean, zeregin argia zutela: lubakiak zaintzea eta Ordena Publikoaz arduratzea. Batzuk ordena publikoko zaindaria karguan ez ezik, beste zeregin batzuetan ere ibili ziren batera, aurreko atalean ikusi dugun kasuan esaterako: herriko Ikerketa Batzordeko kideak ziren.

639-37 auzian, ordena publikoko zaindarien moduan baino ibili ez ziren pertsonak ere auzipetu zituzten. **José María Bilbao Albonigak**, 43 urteko baserritarrak, abuztuaren hasieran deklaratu zuen, auzi horretako gainerako auzipetuen antzera. Auzipetuak “(...) euskarazko itzultzaile batez” baliatu behar izan zuen, “(...) ez duelako gaztelaniaz ondo ulertzen”. EAJn 1937ko otsailean afiliatu zen, hurrean, Ordena Publikoko zaindaria izendatua izan ahal izateko. Makro prozesu judizial hartan parte hartu zuten gainerako gizonezkoak legez, 12 urte eta egun batera kondenatu zuten matxinadari laguntza emateagatik<sup>1067</sup>. José María Bilbao preso egon zen Vigoko Itsasadarrean ainguratutako “Upo-Mendi” preso-ontzian, baina ez dakigu zehatz-mehatz zer egunetan<sup>1068</sup>. 1940an Sevillako Dos Hermanas Presondegian zegoen, bere kasua berrikusi zutenean. Bilboko Zigorrak Aztertzeako Probintziako Batzordeak proposatu zuen sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiarekin ordeztzea 1937ko abuztuan ezarritako zigorra. Hala eta guztiz ere, 1940ko maiatzaren 11n, Batzorde Zentrala ez zen ados agertu eta urte hartako maiatzaren 24an proposatu zuen zigorra bi urte eta bederatzita hilabeteko espetxealdi txikira murriztea. Ekainaren 1ean agindu zen José María Bilbaoren askatasuna<sup>1069</sup>. Erabaki horren ondorioz, kondena iraungita geratu zen 1940ko maiatzaren 4an<sup>1070</sup>.

---

1065 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Andrés Inchaurtietara Arambalzaren gaineko ordezkate-proposamena eta ebazpenaren ziurtagiria* 1944-1-31 eta *Juan Bautista Unibaso Echeagarayrena* 1944-2-19.

1066 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Juan Bautista Unibaso Echeagaray akusatuauren kondenaren denboraren kitapena* 1944-7-14, eta *Andrés Inchaurtietara Arambalza akusatuauren kondenaren denboraren kitapena* 1944-10-7.

1067 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José María Bilbao Albonigaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

1068 BADIOLA ARIZTIMUÑO, 266 or.

1069 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Behin betiko Ebazpenaren ziurtagiria* 1940-5-24. Dokumentu horretan eskuz idatzita agertzen da “*Askatzeko agindua 1940-6-1*”.

1070 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *José María Bilbao Alboniga akusatuauren kondenaren denboraren kitapena* 1940-6-1.

**Ciriaco Ansoleaga Sistiagak**, 43 urteko baserritarrak, azaldu zuen bere 1937ko abuztuaren 5eko deklarazioan “(...) *hamar bat hilabete* (zeroatzala) *alderdi nazionalistan afiliatua, eta soilik bi kuota ordainduak zituela*”. Ansoleagak zehaztu zuen bera ez zela “(...) *Ordena Publikoko zaindari ibili, ezpada lubakietako erreminten zaindari (...)*”, eta gaineratu zuen “(...) *behartuta (...)* *egin zuela*”<sup>1071</sup>. 12 urte eta egun batera kondenatuta, “Upo-Mendi” preso-ontzian egon zen baina ez dakigu zehatz zer egunetan<sup>1072</sup>. Badakigu Bilboko Probintziako Presondegitik a Puerto de Santa Mariako Presondegi Nagusira (Cádiz) lekualdatu zutela, eta han sartu zutela 1938ko abuztuaren 3an. Urte bereko abenduaren 5ean Huelvako Probintziako Presondegira eroan zuten, eta 1940ko urtarrilaren 19an “*lan egitera*”<sup>1073</sup> igorri zuten Sevillara, zehazki Dos Hermanasko Espetxe Kolonia Militarizatuetera; beraz, Guadalquivir Barreneko ubidearen eraikuntzan parte hartuko zuen. José María Bilbaorekin gertatu bezala, Zigorrek Aztertze Probintziako Batzordeak proposatu zuen 1937ko zigorra ordezteko sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikia ezarri, baina azkenean Batzorde Zentralak erabaki zuen bi urte eta bederatzita hilabeteko espetxealdi txikira kondenatzea, eta ebazpen hori onartuta geratu zen 1940ko maiatzaren 24an. Haren askatasuna ekainaren 1ean agindu zuen<sup>1074</sup>, kondena berriaren amaiera eguna 1940ko maiatzaren 5a zen-eta<sup>1075</sup>.

Luzeago joan zitzaion **Juan José Gurruchaga Garaizarri** bere kasua zuzitzen. Aurreko bien antzera, Gurruchaga baserritarra zen, eta 39 urte zituen deklarazioa eman zuenean, 1937ko abuztuaren hasieran. “(...) *Gaztelaniaz ulertzen ez*” zuenez, beharrezkoa izan zen “(...) *euskarazko itzultzaile bat*” deklarazioa emateko. EAJko afiliatua “(...) *gutxi gorabehera bi urte*” lehenagotik, Ordena Publikoko zaindari gisa egin zuen lana kargu horretarako ezarrita zegoenera mugatu zen: “(...) *erremintak* (zaindu) *lubakietan*” eta “(...) *Ordena Publikoa bermatu herri barruan*”<sup>1076</sup>. Aurreko biak bezala, “Upo-Mendi” preso-ontziko presoan zerrendan agertzen da<sup>1077</sup>. Badakigu 1938ko abuztuaren 30ean Burgosko Presondegi Nagusian sartu zutela, Bilboko Probintziako Presondegitik etorrita. Azaroaren 21ean Astorgako Probintziako Presondegian sartu zuten eta 1940ko martxoaren 13an, berriz, Sevillako Espetxe Kolonia Militarizatuetera tokialdatu<sup>1078</sup>, Dos Hermanasen. Han, hurrean, Guadalquivir barreneko ubidearen

1071 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Ciriaco Ansoleaga Sistiagaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

1072 BADIOLA ARIZTIMUÑO, pág. 265.

1073 A.A.O Funtsa: Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, *Ciriaco Ansoleaga Sistiagaren fitxa* (sinadura barik).

1074 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Ciriaco Ansoleaga Sistiagaren gaineko behin betiko ebazpenaren ziurtagiria* 1940-5-24.

1075 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Ciriaco Ansoleaga Sistiaga akusatua kondenaren denboraren kitapena* 1940-6-1.

1076 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Juan José Gurruchaga Garaizarren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-5.

1077 BADIOLA ARIZTIMUÑO, pág. 267. Lehen abizena aldatua ageri da, honela: “*Guruceaga Garaizar, Juan J.*”.

1078 A.A.O Funtsa: Justizia Ministerioa – Presondegietako Zuzendaritza Nagusia – Espetxe-tratamenduaren Atala, *Juan José Gurruchaga Garaizarren fitxa* (sinadura barik)



eraikuntzan lan egitera behartu zuten. Zigorrak Aztertze Probintziako Batzordeak zigorra neurri berean apaltzea proposatu zuen: sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikia, baina kasu horretan Batzorde Zentralak ez zuen aldeko epaia eman 1943ko abuztua arte<sup>1079</sup>, kondena iraungita utziz 1938ko otsailaren 5eko datarekin<sup>1080</sup>. 639-37 auziko gainerako auzipetuak legez, 1940ko ekainaren 24an agindu zen espetxetik ateratzea<sup>1081</sup>, presondegi arinduan geratu zelarik bere etxean behin betiko epaiaren zain.

### 2.9.3 José María Egusquiaguirre Golzarri miñoia

José María Egusquiaguirre Portugaleten jaiotakoa zen. Urdulizera Antonia Bilbao Zabala urduliztarrarekin ezkondata etorri zen 1927an, eta Landeta baserrian ezarri bere etxebizitza. Ezkontza hartatik Benita eta José María jaio ziren, eta ama barik geratu ziren 1930eko abuztuaren 22an, meningitis tuberkuloso baten ondorioz hil baitzen<sup>1082</sup>. Urte bat lehenago, 1929ko abuztuaren hasieran, Egusquiaguirre Bizkaiko Miñoien Kidegoan sartu zen<sup>1083</sup>, eta Areatzan eman zioten destinoa. Foru kidegoan sartu aurretik itsasoan ibili zen<sup>1084</sup>. Dena den, miñoietan filiazio erdian sartzeko fitxan agertzen den lanbidea jernalaria da<sup>1085</sup>.

Behin Gerra Zibila hasita, Areatzan geratu zen 1936ko abuztuaren 3a arte, Bilbora tokialdatu baitzuten, eta bertan Ordena Publikoko lanetan jardun zuen Aldundian eta Hornigaien Ordezkaritzan, 1937ko apirila arte<sup>1086</sup>. Data horretan lekualdatzen berri bat eman zen (ez dakigu nora) maiatzaren erdialdean Bilbora lehengo zerbitzura itzuli arte. Itxuraz, tarte horretan atxilotu zuten Areatzan Pedro Pildain abadea, “(...) *guardiako sargentuaren aginduz, Gobernuak sortutako Akademiako teniente batekin batera, horrexek egin baitzuen (...)*” atxiloketa. 1937ko ekainaren 18an, furgoneta baten zaintzaren ardura eman zitzaion, eta “*bere buruzagiek aginduta*” Karrantzaraino joan zen, bertan hiru egun eman zituelarik; hauen ostean beste lankide batzuekin batera Trutziozera eroan zuten. Herri horretan 9 egunez egon ziren Ordena Publikoko zerbitzu egiten, eta gero

---

1079 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Juan José Gurruchaga Garaizarren gaineko ordezkatzeproposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria* 1943-8-30.

1080 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Juan José Gurruchaga Garaizar akusatuaren kondenaren denboraren kitapena* 1943-10-7.

1081 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua, Dos Hermanasko (Sevilla) Presondegiko zuzendariari zuzendua* 1940-6-24.

1082 Urdulizko Erregistro Zibiletik ateratako datuak.

1083 B.F.A.H. AQ00491/070, *José María Egusquiaguirre bigarren mailako miñoiaren filiazio erdia* 1929-8-1.

1084 Horrela jasota dago Urdulizko Erregistro Zibilean, adibidez, bere seme gazteenaren jaiotze-agirian.

1085 B.F.A.H. AQ00491/070, *José María Egusquiaguirre bigarren mailako miñoiaren filiazio erdia* 1929-8-1.

1086 Badakigu 1936ko irailaren 5ean Egusquiaguirre Areatzara bueltatu zela Bilbotik, gaixo zegoelako. Areatzako medikuak lau egunean behin aztertu behar izan zuen (B.F.A.H. AQ00545/069, *Bizkaiko Miñoien Kidegoko komandante buruzagiaren mezua, Areatzako postuko komandanteari zuzendua* 1936-9-5)

Santanderko Diputaziora lekualdatu zituzten<sup>1087</sup>. Nahiz eta Egusquiaguirrek ez kontatu bere deklarazioan, 1937ko ekainaren 18 hartan onartu zuen misioa izan zen Agirre lehendakaria eta bere Gobernuako kideak eskoltatuko zituen miñoi taldea osatzearena, Fermín Pinedo Tejada kaboak gidatuta<sup>1088</sup>, eta portugaletetarrak deskribatutako ibilbidea egin zuena. Hemendik aurrera, Egusquiaguirrerren aitopenak hainbat zalantza agertzen ditu, ziurtatu baitzuen, Santanderren egon ostean, bere hurrengo destinoa Lanestosa izan zela, non, gehitu zuenez, Ordena Publikoko lanetan ibili zen berriro ere. Gogoratu behar dugu euskal lurraldea bere osotasunean matxinatuen eskutan geratu zela uztailaren 1ean eta 2an; beraz, Egusquiaguirrerren baieztapena sinestezina gertatzen da. Portugaletetarraren kontakizunari jarraituz, ustez, abuztuaren 22an *“ihes egin zuen”* Lanestosatik, nahiz eta pentsarazten digun ihesa Santandertik egingo zuela, eta soldadu frankistei aurkeztu zitzaizen *“(...) Sangrices mendian (...) Lanestosa eta Karrantza artean”*. Erreketearen sarjentu batek Borbón abizena zuen Zalditeriako Kapitain batengana eroan zuen, eta haren eskutan utzi zituen bere fusila eta munizioa. Biharamunean, Balmasedako kartzelara eroan zuten<sup>1089</sup>.

1937ko irailaren 15ean, Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Deustuko Batzordeak jaso zuen azaldu berri dugun José María Egusquiaguirre Golzarriren aitopena, eta erabaki zuen ezen, miñoiak berak agertutako lekukotasuna eta Areatzako Falangeak egindako txostenean jasotzen direnak (egun bi geroagoko data duena) kontuan hartuta, C atalean sailkatua izan behar zela, hau da, auzia edo aurretiko eginbideak ireki behar zitzaizkiola<sup>1090</sup>.

Areatzako Falange Tradicionalistak 1937ko irailaren 17an bidalitako txostena suntsitzailea izan zen portugaletetarrarentzat. Hartan adierazten zenez, Egusquiaguirrek miñoi moduan *“urte batzuk”* zeramatzan destinatuta herri hartan baina lehenagotik eta aspaldi zebilen *“(...) nabarmentzen, sozialismoz kutsatutako propaganda separatista egiten. Berezik, nekazariak ugazaben aurka akuilatzen ibiltzen zen”*. Idatzi honen arabera, akuilatze horrek ekarriak zituen *“(...) zenbait liskar judizial, ondorengo gorroto eta ezinikusiek”*. Gainera, adierazten zen Egusquiaguirrek *“(...) gorputz eta arima”* egin zuela bat Errepublikarekin, baita *“(...) duda barik, uniformez eta fusilez”* ere. Alde horretatik, ziurtatzen zen hain izan zela *“(...) nabarmena bere jokabide artez eta pertsonala, ezen ez dagoen eskumako pertsona bakar bat herri honetan haren kontrako kargurik adierazten ez duenik, dela salatu egin zuelako, dela atxilotu egin zuelako, dela zelangura hertsatu zuelako (...)”*<sup>1091</sup>.

1087 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 auzia, José María Egusquiaguirre Golzarriren deklarazioa Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Deustuko Batzordearen aurrean 1937-9-15.

1088 CABANELLAS, Jorge: *Miñones de Vizcaya. Policías Forales del Señorío*, Valentzia, Sargantana, 2017, 213 or.

1089 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 auzia, José María Egusquiaguirre Golzarriren deklarazioa Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Deustuko Batzordearen aurrean 1937-9-15.

1090 Ibid.

1091 Ibid. Areatzako F.E.T. de las J.O.N.S.en txostena 1937-9-17.

Plentziako Guardia Zibilaren txostena, Areatzako Falangeak egindakoaren ildo beretik doa. Modu horretan, adierazi zen egin zituela “(...) eskumako jendearen atxiloketak, erregistroak hauen etxebizitzetan eta ebakuazioak, bizilagunak joka eta pistola eskuan ateratzera beharturik”, eta leporatu zitzaion “(...) eskumako jendearen fusilamendu bitan” parte hartu izana. Laburbilduz, gizaseme “oso arriskutsutzat” hartu zen Areatzan, “erruki barik” jazarri zitzaiena abade nagusiari, agintariei eta bizilagunei<sup>1092</sup>.

Urriaren 13an, deklarazioa eman zuen epailearen aurrean, irailan Deustuko Saillkapen Batzordearen aurrean esandakoa berretsi zuelarik. Bigarren deklarazio horretan gaineratu zuen ez zela inongo alderdi politiko edo sindikatutakoa izan, eta ez zuela ezelango propaganda politikorik egin. Gerra bitartean, bakar-bakarrik onartu zuen Areatzako presbitero Pedro Pildainen atxiloketan parte hartu zuela “(...) nire buruzagien aginduz, zeinekin beste hainbat etxe miatu zituen, baina beste atxiloketarik egin barik”. Azkenik, adierazi zuen ez zuela inor salatu<sup>1093</sup>.

1937ko azaroaren 9an Areatzako Guardia Zibilak emandako txostenean, lehengo akusazioei eusten zitzaien<sup>1094</sup>. Berdin jazo zen Areatzako Udalak egindako txostenarekin; bertan Pildain abadearen atxiloketaren eragile ez ezik, Martin Acharena eta haren seme Nicolás Acharena ere egiten zuten. Pertsona bi horiek, Juan Onaindia alkatearen aburuz, “(...) salbatu egin ziren tropa nazionalek Bilboko presoak askatzeari esker”<sup>1095</sup>.

1937ko abenduaren 6an, fiskalak heriotz zigorra proposatu zuen José María Egusquiaguirre Golzarrirentzat; abokatu defendatzaileak, berriz, 1246-37 auzian sartutako auzipetu guztien absoluizioa.

Egun hartan bertan igorritako epaiak, baliozkotzat jo zituen Egusquiaguirreren aurka egindako akusazio guztiak, eskumako jendearen jazartzailatzat jotzen zutenak, eta gehitu zen atxilotutako Pildain abadea eta Acha jaunekin “fusilamendu simulakro” batean parte hartu zuela. Gainera, adierazi zen destinatu zuten Cantabriako sektoreetan ere “(...) era sektario berean jokatu zuela, ordenako jendearen aurka eta Ordena Publikoko funtzioekin”. Gerra-kontseiluak iritzi zion José María Egusquiaguirrek delitua egin zuela, hain zuzen ere matxinadarekiko atxikimendu militarra, “(...) kausa marxistarekin osotara bat eginez, bere ideien adierazpenean eta laguntzaile moduan egindako egintza materialetan mamiturik; zigorra ezartzeko unean aintzat hartu behar da, bere portaeraren garrantzia eta auzipetuaren arriskugarritasunagatik, zitalkeriaren astungarria”. Horrengatik guztiagatik, heriotz zigorra izan zen ezarri zitzaion kondena<sup>1096</sup>.

---

1092 Ibíd. *Plentziako Guardia Zibilaren txostena* 1937-9-19.

1093 Ibíd. *María Egusquiaguirre Golzarriren ikerketa-deklarazioa* 1937-10-13.

1094 Ibíd. *Areatzako Guardia Zibilaren txostena* 1937-11-9.

1095 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 auzia, *Areatzako alkatearen txostena* 1937-11-12. Egiazki, presoak Bilbo galdu baino lehenago askatu zituzten, Euzko Jaurilaritzak aginduta.

1096 Ibíd. *Epaia* 1937-12-6.

Epaia ostean, Egusquiagirre Bilboko Larrinaga kartzelan egon zen zazpi hilabetez, harik eta 1938ko uztailaren 11n exekutatu zuten arte. Egun gutxi batzuk lehenago, uztailaren 6an, itxuraz jakin barik bere azkena hurrin zegoela, eskutitz bat zuzendu zion bere seme-alabei. Seme gazteenari eskaini zizkion lerro gehien, agirika eginez ikasketetan okerkerietan ibiltzen zelako. Egusquiagirrek aholkatzen zion aprobetxatu zezala “(...) eskola, gaur eta bihar gizon bat izateko eta Jainkoak ematen duen bizibidea ateratzeko”. Halaber, horrela egiten zion opa: “(...) izan zaitezte ni naizena baino gehiago, izan ere orain ez zara konturatzen, baina egunen batean egingo duzu eta berandu izango da”. Beste alde batetik, lehengo miñoiak itxaropenari eusten zion oraindino, idatzi zuen hurrengo esaldiak isladatzen duenez: “Irteten naizen egunean eta Jainkoak nahi beza laster izatea (...)”<sup>1097</sup>.

Delako uztailaren 11n, goizaldeko ordu bietan, “(...) Epaimahaia eratu zen Larrinagako Espetxean horretarako prestatutako lokalean”, José María Egusquiagirre bertan zegoela. Horren ostean, idazkariak heriotz epaia jakinarazi zion. 41 urteko kondenatuak adierazi zuen “(...) ez zuela sinatu nahi” jakinarazpena<sup>1098</sup>.

Epaia jakinarazi ostean, Egusquiagirrek eskutitz hunkigarri bat idatzi zion José Bilbao bere aitagarrebari. Bertan jakinarazi zion hura izango zela idazten zien azken aldia, “(...) heldu baita Gure Jaunak aukeratu duen une egokia bere Maiestate Santuaren aurrera aurkezteko”. Portugaletetarrak une latz horri honela egin zion aurre:

*“(...) muy orgulloso por ser inocente de lo que me condenan, por lo cual les perdono por ser inocentes, y no saber el daño que an (sic) causado a una familia, pero que bamos (sic) a hacer sino sufrir con resignación que es mi consuelo”*<sup>1099</sup>

Egusquiagirrek bere aita-amaginarrebak eta seme-alabak agurtu zituen, hitz emanez “(...) zerutik” zainduko zituela guztiak, “(...) oso lasai noa-eta hainbeste hilabetez sufritu ostean”<sup>1100</sup>.

---

1097 José María Egusquiagirre Golzarriren eskutitza, bere seme-alaba Benita eta José Maríari zuzendua 1938-7-6. Eskutitza osorik irakurri daiteke Dokumentuen Eranskinean.

1098 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 auzia, Jakinarazpena 1938-7-11.

1099 José María Egusquiagirre Golzarriren eskutitza, bere aitagarreba José Bilbaori zuzendua 1938-7-11. Eskutitza osorik irakurri daiteke Dokumentuen Eranskinean.

1100 Ibid.

Goizaldeko bostetan pikete batek fusilatu zuen José María Egusquiagirre Golzarri Derioko hilerrian. Manuel Fontán Lorenzo medikuak heriotza egiaztatu zuen, “(...) *su-armen tiroen ondoriozko lesioek*” eragindakoa. Epaileak agindu zuen hilerri bilbotarrean lurperatu zedin hilotza, “(...) *aurretik Erregistro Zibilean zegokion inskripzioa eginda*”. Ehorzketaren lekua “(...) *eginbidez egiaztatu zen, haren deskribaketa eginez lau puntu kardinalen arabera (...)*”. Horrez gain, heriotza-ziurtagiria jaulki zen<sup>1101</sup>.

Exekuzioa baino apur bat lehenago, 1938ko ekainaren erdialdean, Seigarren Barruti Militarreko Auditoretzako Informazio eta Estatistika Zerbitzuaren arduradunak epaile militarren eskutan utzi zituen 1937ko azaroan Areatzako Falangeko herriko buruzagiak egindako txosten batzuk, neurri txikiago edo handiagoan herriarekin lotutako pertsonen aurrekarietarako buruz. Guztiak “*separatistatzat*” hartutakoak ziren, eta horien artean zegoen José María Egusquiagirre Golzarri<sup>1102</sup>.

1938ko urriaren amaieran, Auditoreak aurretiazko eginbideak ireki zituzten agindu zion Bilboko Q letrako epaile militarri<sup>1103</sup>. Urte bat geroago, 1939ko azaroan, epaileak agindu zuen auzipetuaren deklarazioak, lekukoenak eta txostenak biltzeko<sup>1104</sup>, Egusquiagirre barne.

Modu horretan, Areatzako alkate Máximo Celayak adierazi zuen Egusquiagirre “(...) *esames publikoen arabera, fusilatua izan*” zela<sup>1105</sup>. Herriko Falangeko buruzagiak, Pedro Oruek, jakinarazi zuen “(...) *gizabanako horrek justiziarekin ordaindu barik zituen zor guztiak ordaindu zituela, Gerra-kontseiluaren sententzia exekutatzeko fusilatu zutelarik*”. Horregatik, Oruek nahiago izan zuen “(...) *ixiltasun gupidatsua gorde* (Egusquiaguirreren) *iraganeko jokabideari buruz, ustez eta ez duela dagoeneko inongo interesik*”<sup>1106</sup>. Azkenik, Areatzako Guardia Zibilak José María Egusquiaguirreri egotzitako atxiloketa kopurua handitu zuen. Pedro Pildain abadearen atxiloketan eta Martín Acha eta bere seme Nicolásenean ez ezik, Areatzako beste bizilagun batzuen atxiloketan parte hartzea ere leporatu zitzaion: besteak beste, Martín Astondoa, Eusebio Onaindiaren eta Álvaro Ruizen emazteak edo herrian uda igarotzen zuen Rafael Coca<sup>1107</sup>.

---

1101 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1246-37 auzia, *Heriotza egiaztatzen duen eginbidea* 1938-7-11, López Ortiz epailearen probidentzia 1938-7-11, Bizkaiko Probintziako Ordena Publikoko ordezkariaren meza, Bilboko gerra-auditoreari zuzendua 1938-7-11, eta Manuel Fontán Lorenzo, Medikuntzako eta Zirugiako doktore eta Bilboko Instrukzioko Epaitegi dekanoko mediku forentsearen ziurtagiria 1938-7-11.

1102 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13038-42 auzia, *Aurrekariaren zenbait ziurtagiri* 1938-6-15.

1103 *Ibid* Auditorearen meza, Bilboko Q letrako epaile militarri zuzendua 1938-10-26.

1104 *Ibid*. *Probidentzia* 1939-11-23.

1105 *Ibid*. *Areatzako alkatearen txostena* 1939-12-1.

1106 *Ibid*. *Areatzako F.E.T. de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiaren txostena* 1939-12-5.

1107 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13038-42 auzia, *Areatzako Guardia Zibilaren txostena* 1939-12-2.

Baina auzi honetatik benetan interesatzen zaiguna Juan Arzaneguien auzipetzean izan zen, José María Egusquiaguirreren jokabideari buruz ematen dizkigun datuengatik. Arzanegui, jaiotzez Gernikakoa eta maisu nazionala lanbidez, 1937. urtearen hasieran sartu zen Akademia Militarrean, eta Euzko Gudarosteako teniente graduazioa lortu zuen. 3. Brigadara bidali zuten, Areatza ingurura. Han, epailearen aurrean deklaratu zuenez, agindu zitzaion “(...) *susmagarriak ziruditen pertsona guztiei deklarazioa hartzea*”, eta aditzera eman zuen, nahiz eta “(...) *hainbat pertsona gogoan hartu (...) ez ziola komisarioari horren berri eman*”. Azkenik adierazi zuenez, bere ustez, “*nolabaiteko erregistro, errevisa edo atxiloketarik izan bazen, herriko bertako gizasemeek egingo zituzten*”<sup>1108</sup>. 1939ko abenduan, Areatzako alkateak nabarmendu zuen Juan Arzanegui “(...) *José María Egusquiaguirre foralarekin batera, atxilotu eta Bilbora eroan zituela (...)*” aitatutako bizilagun horiek<sup>1109</sup>. Antzeko hitzak erabili zituen Herriko Guardia Zibilak bere idazkian<sup>1110</sup>, Berriz, Falangearen txostena beste agintariena baino haratago zihoan. Hartara, Arzanegui “*txoritzartzat*” jo zuen eta esan bere jarduketa Areatzan “*ezin izan zela negargarriagoa*” izan; gaineratu zuen “(...) *EGUSQUIAGUIRREren bikote izan zela, eta benetan etsigarria da hark bere bidezko zigorra izan zuen bitartean, honako hau – diotenez – Guernican, bere herrian egotea askatasun osoaz gozaten*”<sup>1111</sup>.

1940ko ekainean jasotako lekukoen deklarazioek beheratzen dute José María Egusquiaguirre fusilamendu piketearen aurrera eraman zuten ekintzei buruzko txostenen tonua, eta errealitate ezberdin bat azaltzen digute. Esate baterako, María Amuriza maistra berangotarra Arteagan itaundu zuten Arzanegui eta Egusquiaguirrek, eta adierazi zuen jokatu zutela “*zuzentasun osoz, batez ere ARZANEGUI auzipetuak*”. Beste alde batetik, gezurtatu zuen azken honek “*jazarpenik*” egin zionik<sup>1112</sup>.

Martín Astondoa areatarra Arteagako baserri batera ebakuatuta zegoen, eta hara azaldu zitzaizkion Arzanegui eta Egusquiaguirre bere ideia politikoei buruz itauntzeko. “(...) *Karlista izanik, herrira jaitsi behar zuela*” esan ei zioten, baina momentu hartan, Astondoaren aitopenen arabera, bere emaztea agertu eta senarra aske geratu zedin lortu zuen<sup>1113</sup>. Eusebio Onaindiak, berriz, deklaratu zuen 1936ko uztailaren 31z geroztik zegoela “*eremu nazionallean*”, eta ez zekiela bere emaztea galdekatua izan zen edo ez<sup>1114</sup>. Haren arreba Filomena Onaindia Artechek, Lemoako bizilaguna bera, deklaratu zuen

1108 *Ibíd.* Juan Arzanegui Uribe auzipetuaren deklarazioa 1940-7-11.

1109 *Ibíd.* Areatzako alkatearen ziurtagiria 1939-12-1.

1110 *Ibíd.* Areatzako Guardia Zibilaren ziurtagiria 1939-12-2.

1111 *Ibíd.* Areatzako F.E.T. de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiaren ziurtagiria 1939-12-5.

1112 *Ibíd.* María Amuriza Aguirreren deklarazioa 1940-6-15.

1113 *Ibíd.* Martín Astondoa Olearen deklarazioa 1940-6-15.

1114 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13038-42 auzia, Eusebio Onaindia Artechek deklaratua 1940-6-14.

Egusquiaguirrek eta Arzanegui itaunketa egin ziotela bere senarra non zegoen jakitearren, Gasteizen baitzegoen. Arrazoi horregatik, tenienteak “(...) mehatxu egin zion Areatzatik ebakuatu behar zuela, arriskuan zegoelako, baina biharamanean berriro agertu zen teniente hau eta esan geldi zitekeela”<sup>1115</sup>. Rafael Cocak, Areatzan udara igarotzen zuenak, deklaratu zuen Areetan atxilotu zutela<sup>1116</sup>.

Nicolás Achak adierazi zuen bere atxiloketa Bilbon izan zela eta ez Areatzan, eta hartan ez zutela ez Arzanegui ez Egusquiaguirrek parte hartu<sup>1117</sup>. Haren aita Martín Achak deklaratu zuenez, biek itaundu zuten “(...) bere ideia politikoei buruz eta bere semea zegoen lekuaren gainean”. Galdeketatik hiru edo lau egun beranduago atxilotu zuten, baina, hala eta guztiz ere, ez da Egusquiaguirre aipatzen bere atxiloketaren kontaketa, ezpada Juan Arzanegui “(...) Arteako bi milizianok lagunduta. Haietako bat Bartolo zen, “Bartolochino” deitutakoa, eta bestea “Ataleti” ezizena zuena”. Areatzako baserri batera eroan zuten beste atxilotu batzuekin batera, eta aipatutako milizianoek garraiatu zuten Larrinagako espetxera, “(...) Arzanegui haiekin joan barik”<sup>1118</sup>.

Ikusi dugu zelan Egusquiaguirrek onartu zuen parte hartu zuela, bere nagusiaren aginduz, Pedro Pildainen abadearen atxiloketa, 1937ko maiatzaren 9an. Elizgizonak egindako kontaketa arabera, Juan Arzanegui arakatu zuen, baita 83 pezeta ostu ere. Hala eta guztiz ere, Pildainek adierazi zuen ez zuela uste, “(...) atxiloketaren unean ikusi nuenagatik, delako ARZANEGUI hori pertsona arriskutsua denik”<sup>1119</sup>. Geroago, abadeak atzera egin zuen Arzanegui buruzko adierazpen horietatik eta adierazi “(...) nire atxiloketaren uneetan nagusitu zitzaidan nahasmendu ulergarriaren ondorioz, ezin erabat seguru baieztatu gizon horrek nire atxiloketa parte hartu zuen ezta dirurik ostu zidan ere (...)”. Horregatik, hona zer gehitu zuen: “(...) segurtasun falta hori dela-eta, neure kabuz erabaki dut deklarazio berri hau egitea, horretarako bultzatu nauen gauza bakarra izanik garbi utzi nahia ezin dudala baieztatu Arzanegui jaunak parte hartu zuen edo ez nire zorioneko atxiloketa (...)”<sup>1120</sup>.

Laburbilduz, José María Egusquiaguirre Golzarri fusilamendu-pelotoiaren aurrera eroan zituzten arrazoi oinarrian gorrotoz beteriko txosten batzuk zeuden, haren jokabidea biolentotzat jo eta ekintza faltsuak egotzi zizkietenak. Salbuespen bakarra Pedro Pildain abadearen atxiloketa izan zuen partaidetza izan zen, baina hori berak onartu zuen. Bere fusilamenduaren osteko deklarazioek erakusten dute, azaldu dugun legez, errealitate bat sano desberdina.

---

1115 Ibíd. *Filomena Onaindia Artecheren deklarazioa* 1940-6-14.

1116 Ibíd. *Rafael Coca Escuderoren deklarazioa* 1940-6-10.

1117 Ibíd. *Nicolás Acha Echevarriaren deklarazioa* 1940-6-15.

1118 Ibíd. *Martín Acha Vizcarguinagaren deklarazioa* 1940-6-15.

1119 Ibíd. *Pedro Pildain Urtazaren deklarazioa* 1940-6-15.

1120 Ibíd. *Pedro Pildain Urtazaren deklarazioa* d/g. Antzeko iritzia eman zuten Federico Zamacona Pildainek eta Víctor Sierra-Sesumaga de Barriok, Areatzako bizilagunak berak, era berean datarik ez duten deklarazioetan.

## 2.9.4 Felipe Villabeitia Ugarte

Felipe Villabeitia<sup>1121</sup>, hargina lanbidez, Sopelan jaiotakoa eta Urdulizko bizilagun. 1937ko azaroan atxilotu zutenean 28 urte zituen eta ezkondu zegoen. EAJko afiliatua izanik, akusatu zuten Tokiko Batzordeko lehendakaria izateaz eta gazteak erreklutatzen ibiltzeaz milizietan erroldatu zitezen, bere kontrako auzian jasotako dokumentazioan agertzen denez. Tokiko Batzordeaz eta haren osaketaz argibide zuzenik ez daukagunez, ezin izan dugu egiaztatu Villabeitiak erakunde hartan parte hartu zuen edo ez. Aldiz, badakigu, urduliztarraren aurka abiatutako prozesuaren epaiagatik, “(...) bere errenplazoaren mobilizazioa dela-eta, “Irrinchi” (sic) Batailoian sartu” zela<sup>1122</sup>. Bilbo galdu ostean, Kantabriara igaro zen eta gutxi gorabehera pare bat hilabete eman zituen Castro Urdialesen<sup>1123</sup>. Handik, Asturiasera joan zen, eta Llanesen eman zuen bere burua<sup>1124</sup>, 1937ko urrian.

Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Llanesko Batzordeak behin-behineko askatasuna eman zion Villabeitiari, urriaren 20an. Gizonak, bere bizilekua Urdulizen finkatuko zuela adierazi zuenez, ezarri zitzaion Guardia Zibilaren aurrera agertzeko betebeharra, “(...) eginbideak egiteko, astero esango zaion *egunetan*”, Batzorde horren baimen barik bizilekua aldatu ezin zezakeela<sup>1125</sup>. Biharamunean, pasaporte bat eman zitzaion “(...) *trennez bidaiatzeko Estatuaren kontura*”, Urdulizeraino<sup>1126</sup>.

Plentziako Komandantzia Militarrek jakinarazi zuenez, atxilotu egin zuten eta Larrinagako Espetxera eraman 1937ko azaroaren 13an<sup>1127</sup>. Espetxe horretara Komandantziaren txostenarekin heldu zen. Bertan, haren kontrako akusazioak agertzen ziren: Urdulizko Tokiko Batzordeko lehendakaria izatea, “*eskumen arerioa*” izatea, “(...) *gazteak miliziano boluntario izan zitezen*” bortxatzea, baita leporatu ere “(...) *miaketak eta atxiloketak eta herrian jazotako gertaeren gaineko erantzukizuna*”. Gainera, ziurtatu zuen Villabeitiak Urduliztik alde egin zuela “(...) *tropa nazionalak heltzen zebiltzanean, eta Asturiasera ihes egin zuela, non preso hartu zuen Armada Nazionalak (...)*”<sup>1128</sup>.

---

1121 Topatutako dokumentazioan haren abizena esateko “Villalabeitia” ere agertzen da.

1122 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, *Epaia* 1938-1-7.

1123 *Ibid.* José Gutiérrez Ruiz, Castro Urdialesko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko kidearen deklarazioa 1937-12-6.

1124 *Ibid.* Felipe Villabeitia Ugarteren deklarazioa 1937-11-25.

1125 *Ibid.* Asturiasko Fronteko Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko 1. Batzordeko kapitain auditorearen deklarazioa 1937-10-20.

1126 *Ibid.* Llanesko Komandantzia Militarrek emandako pasaportea 1937-10-21.

1127 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2504-37 auzia, Plentziako Komandantzia Militar Domingo Peraltaren mezua, Bilboko Okupazioko Armadako gerra-auditoreari zuzendua 1937-11-13.

1128 *Ibid.* Felipe Villabeitiaren gaineko txostena, Plentziako Komandantzia Militarrek egina 1937-11-3.



Azaroaren 25ean Felipe Villabeitiak deklaratu zuen Bilboko 4. epaile militarren aurrean. Auzipetuak onartu zuen EAJko afiliatua zela “(...) *duela lau urtetik*” eta 1936ko otsaileko hauteskundeetan bere botoa alderdi *jeltzalearentzat* izan zela. Villabeitiak, ostera, gezurtatu zituen Plentziako Komandantzia Militarren txostenean agertzen ziren akusazio guztiak. Hartara, ukatu egin zuen Urdulizko gazteak hertsatu izana milizietan sar zitezen, azaldu zuen Urdulizen ez zela ez miaketarik ez atxiloketarik egin eta ez zela Tokiko Batzordeko kide izan, eta zehaztu zuen laguntasuna zuela alkate ohi Enrique Legarrarekin. Azkenik, ukatu zuen Asturiasen preso egin zutela, ezpada “(...) *han aurkeztu zitzaizela indar nazionalei*”<sup>1129</sup>.

Gainerako prozesuetan bezala, deklarazioaren ostean agintari eta lekukoen txostenak biltzeari ekin zitzaion. Plentziako Komandantzia Militarra azaroaren 13ko txostena berriro igortzera mugatu zen<sup>1130</sup>. Urdulizko Falangek ziurtatu zuen Villabeitia Tokiko Batzordeko kidea izan zela, zehaztu barik zer kargu izan zuen, eta jardun zuela “(...) *Armada Gorri-separatistarako milizianoak erreklutatzen, nabarmendu zelarik beti Mugimendu Nazional Lorioetsuaren aurkako lanean*”<sup>1131</sup>. Berriz Urdulizko alkate Amancio Nievaz nabarmendu zuen Felipe Villabeitia izan zela “(...) *Tokiko Batzordeko bokala edo Komite hartako enplegatua*”, nahiz eta beste alde batetik adierazi zuen “(...) *neronek dauzkadan fitxa batzuen arabera*” auzipetua “(...) *Tokiko Batzordeko burua zen*”. Fitxa horietan orobat azaltzen zen Villabeitia “*eskumen arerioa zela (...) eta gazteak mehatxatzen zituela boluntario izan zitezen*”. Alkateak bere txostena amaitu zuen gaineratuz “*geroago eman dizkidaten berriengatik, badirudi Jaun honek zerbitzu ona egin ziola eskumako pertsona bati, bere kontra zegoen salaketa baten inguruan*”<sup>1132</sup>. Azkenik, José Gutiérrez Ruiz, Castro Urdialesko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko kideak ziurtatu zuen Villabeitiak, herri kantabriar hartan egon zen gutxi gorabehera bi hilabeteetan, portaera ona izan zuela “(...) *eta gorrien ilaretan miliziano huts bezala azaldu zen. Horren lekukoa naiz harekin sarritan harremana izan dudalako*”<sup>1133</sup>.

Azkenik, 1938ko urtarrilaren 7an emandako epaian, baliozkotzat jo ziren gazteen erreklutatzaile eta Tokiko Batzordeko buru izan zelako akusazioak. Hala eta guztiz ere, epaiak bertan azaldu zuen zelakoa izan zen, Amancio Nievaren txostenaren arabera, eskumako pertsona bati emandako laguntza: itxuraz Villabeitiak apurtu egin zuen “*ordenako auzokide*” bat atxilotzeko agindua. Zelangura ere, hamabi urte eta egun bateko kondena ezarri zioten matxinadari laguntza emateagatik, gehi “(...) *zigortutako delituari dagokion erantzukizun zibilaren ordainketa (...)*”<sup>1134</sup>. Hasiera batean, badakigu epaiaren ostean Larrinagako kartzelan egon zela; hori berresten du Villabeitiaren emazte Matilde Bilbao Torronteguik presondegi bilbotarreko Zuzendariari apirilaren erdialdean

---

1129 *Ibíd. Felipe Villabeitia Ugarteren ikerketa-deklarazioa 1937-11-25.*

1130 *Ibíd. Destakamentuko buruzagi Domingo Peraltak sinatutako txostena 1937-12-2.*

1131 *Ibíd. Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena 1937-12-7.*

1132 *I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2505-37 auzia, Urdulizko alkatearen txostena 1937-12-6.*

1133 *Ibíd. José Gutiérrez Ruizek emandako ziurtagiria 1937-12-6.*

1134 *Ibíd. Epaia 1940-1-7.*

bidalitako gutunak. Eskutitz horren bidez, Matilde Bilbaok *“adeitasunez”* erregutu zion Larrinagako kartzelako zuzendariari *“(…) baimen berezi bat eman zieziaion bisitatzeko (…) bere senarra, adin txikiko semetxo biek lagunduta”*<sup>1135</sup>. 1940ko erdialdean, Villabeitia preso zegoen Valladolideko Probintziako Presondegian<sup>1136</sup>. Ez dakigu horren aurretik beste espetxeren batean egon zen.

1940an, Zigorak Aztertzeke Bizkaiko Probintziako Batzordeak proposatu zuen zigorra ordezteka bi urte eta sei hilabeteko espetxealdi txikiarekin<sup>1137</sup>. Proposamen horrek kondenaren amaiera 1940ko maiatzaren 12an ezartzen zuen<sup>1138</sup>. Horrek esan nahi zuen espetxetik lasterka ateratzea, *“(…) Zigorak Aztertzeke Probintziako Batzordeak egindako proposamenak berekin dakarren kondena-denbora egina duelako”*<sup>1139</sup>. Uztailaren 10ean, Felipe Villabeitiak Valladolideko Probintziako Presondegia utzi zuen, presondegi arinduaren araudipean<sup>1140</sup>. Horren arabera, behin betiko ebazpenaren zain, bere bizitokiaren berri eman behar zuen eta herriko agintariei bere burua aurkeztu<sup>1141</sup>.

la-ia lau urte geroago, 1944ko urtarrilaren 31n, Zigorak Aztertzeke Batzorde Zentralak baieztatu zuen Bizkaiko Probintziako Batzordearen proposamena, Armadako ministroak otsailaren 19an onartu zuena<sup>1142</sup>. Gerrarekin lotutako auzi judizialen pilaketak sortutako burokrazia-sare itzelaren erakusgarri, aitatzekoa da, urte bat baino gehiago geroago, 1945ko maiatzean jaso zuela Valladolideko Probintziako Presondegiko zuzendariak bi urte eta sei hilabeteko behin betiko zigorraren onarpenaren jakinarazpena<sup>1143</sup>.

## 2.9.5 José Vilariño Salgado

Aita-ama gailegoen semea, José Vilariño Abanto-Zierbenan jaiotakoa zen eta Urdulizko bizilaguna. Aitatu dugun legez, bere ama, Celsa Salgado Rodríguez, 639-37 auzian auzipetua izan zen 1937ko abuztuan, ustez eskumako pertsona bat salatu izana egotzita. Errugabetu egin zuten, azkenik.

Gerra hasi zenean, Vilariñok peoi ziharduen Urduliztik Algortarako Aldundiaren errepidean, eta hantxe ibili zen beharrea 1936ko irailaren 27an obrak gerarazi ziren eguna arte. Behar barik geratzean eta baliabiderik ez zuenez, sukaldeko laguntzaile hasi zen *“Aranzazu-mendi”* preso-ontzian, eta bertan egon

1135 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Felipe Villabeitia Ugarteren emazte Matilde Bilbao Torronteguiaren eskutitza, Bilboko Larrinagako Kartzelako presondegiko buruari zuzendua, Bilbo 1938-4-21.*

1136 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2505-37 auzia, *Felipe Villabeitia Ugarte espetxetik ateratzeko ziurtagiria 1940-7-10*

1137 *Ibid. Ordezkatze-proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1944-2-19.*

1138 *Ibid. Felipe Villabeitia Ugarte akusatuaeren kondenaren denboraren kitapena 1945-5-1.*

1139 *Ibid. Gerra-auditoretzaren mezua, 1940-6-27.*

1140 *Ibid. Felipe Villabeitia Ugarte espetxetik ateratzeko ziurtagiria 1940-7-10.*

1141 *Ibid. Gerra-auditoretzaren mezua, 1940-6-27.*

1142 *Ibid. Ordezkatze-proposamena eta Ministerioaren ebazpenaren ziurtagiria 1944-2-19.*

1143 *Ibid. Valladolideko Probintziako Presondegiko zuzendariaren mezua, Bilboko Betearazpen Epaitegiko epaileari zuzendua 1945-5-7.*

zen azaroaren 15a arte. Egun hartan soldadutzara deitu zioten, eta Bakunin Batailoian sartu zen. Amurrioko frontera bidali zuten. Batailoi horrekin abiatu zen erretiran Kantabriara, eta bertan preso hartu zuten 1937ko abuztuaren 26an, Santoñan<sup>1144</sup>. Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Santoñako Batzordea presoak sailkatu ahal izateko beharrezko txostenak eskatzen hasi zen. Hartara, irailaren 19an telegrama ofizial bat igorri zion Urdulizko alkateari helburu horrekin<sup>1145</sup>, eta horrek egun gutxitara bueltan bidali zion txosten bat. Hartan, Vilariñok *“portaera moralki txarra”* edukia zuela eta C.N.T.ko afiliatua zela salatu

Urdulizko alkate Amancio Nievak, 1940ko otsailak 9an idatzitako txosten batean, kontatu zuen Vilariño *“(…) ez zela sarritan elizara joaten”* eta *“C.N.T.ren aldekoa”* zela. Gainera, adierazi zuen *“(…) beste txosten batzuk egin ostean jaso ditudan berriengatik, erakusten didate ez zela inongo alderdi politikotako kide”*, eta aditzera eman *“(…) Mugimendu Loriatsuaren aurretik ez zen politikarekin lotutako ezertan nabarmendu”*. Gerra bitartean *“gorrien”* aldekoa izan zen nahiz eta ez zuen *“(…) inongo esku-sartzerik izan herri honetan”* eta soilik *“(…) mugatu zela boluntario sartzera C.N.T.ko batailoi batean”*. Amancio Nievak C.N.T.ko kide zari buruz zeukan informazioa, aurreko alkate Manuel Uribe 1937ko irailean egindako txosten batetik zetorren. Geroago beste txosten batzuk jaso ziren *“(…) bizilagunen eta eskuindar fidagarrien artean”* informazio gehiago eman zutenak kontu honen gainean: nabarmendu zenez, José Vilariño *“(…) itsasoan ibilitakoa zen”* eta horregatik ez zen harrizkoa sindikatu anarkistan afiliatua izatea, izan ere *“(…) Mugimendu Nazional Loriatsuaren aurreko hilabeteetan (…) erakunde hori ofizialei nagusitu zitzaien, eta gauza horiek Vilariñoren antzera oso ezagutza gutxi duen jendea harrotzen dute”*. Alkateak bere txostena amaitzen zuen José Vilariño *“(…) oso aurrekari oneko (…) mutil”* moduan deskribatuz, sekula ez zena *“(…) politikan nahastua egon”*, eta gaineratu zuen *“(…) gainerakoa ezagutza urriko gizon batengandik ondorioztatu daitekeela, bost urtez zorigaiztoko Errepublika jasanda”*<sup>1146</sup>.

Urdulizko Falangek, berriz, jakinarazi zuen ez zekiela José Vilariño alderdi politikoren bateko kide izan ote zen, nahiz eta gehitu zuten susmoa zeukatela baietz, zehaztu barik zeinetakoa. Haren ideia politikoei dagokienez, *“(…) bere portaera eta adierazpenengatik, ezker muturrekotzat jotzen (...)”* zuten. Bere portaera publiko eta pribatuari ere hala-holakoa irizten zioten, eta azpimarratzen zuten ez zuela ideia erlijiosorik. Gerra bitartean egindakoen gainean, bat egiten zuten, partez, Plentziako Guardia Zibilak emandako informazioarekin: *“(…) preso politikoaren zaindaria izan zen Bilboko Itsasadarrean ainguratuta zegoen itsasontziren batean”*. Oraingoan ez zen zehaztu inongo itsasontziren izena, eta gainera adierazi zen Urdulizen ez zutela *“(…) haren ezelango delituzko ekintzaren berririk”*<sup>1147</sup>.

---

1144 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13158-42 azuia, José Vilariño Salgadorek deklaratzea 1942-2-19.

1145 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko lehendakariaren telegrama ofiziala, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-9-19.

1146 Ibíd. Urdulizko alkatearen txostenaren kopia (1940-2-9) 1941-5-24.

1147 Ibíd. F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Urdulizko buruzagi Antonio Larrabeitiaren txostenaren kopia (1940-2-29) 1941-5-24.

Azken txostena, 1941eko martxoan egina zuen José Trujellak, Kontzentrazio-esparruetako presoek Ikuskaritzako Ikerketa Zerbitzuko komandante buruak. Errealitateak gertuena izan zen, eta antzekotasun gehien agertu zuena auzipetuak 1942ko otsailean egindako deklarazioarekin. Presoen zaindaria izan zelako akusazio faltsuaren aurrean, txosten horretan errealitatea jasotzen zen: Vilariñok sukaldeko laguntzaile lan egin zuen “*Aranzazu-Mendin*” eta geroago C.N.T.ko Bakunin Batailoian sartu zen<sup>1148</sup>.zuen<sup>1149</sup>. Santoñatik Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrua bidali zuten eta geroago Beharginen 63. Batailoira, bertan egon zelarik 1940ko maiatzaren 19a arte. Egun hartatik aurrera Urdulizen geratu zen<sup>1150</sup>.

1941eko ekainaren hasieran, Bilboko Plazako V letrako epaile militarri lau dokumenturen kopia igorri zitzaizkion, jatorriz 1939ko azaroko eta 1941eko martxoko data zutenak. Kontzentrazio-esparruetako eta Gerra Presoen Ikuskaritzarako agintari ezberdinek osatutako lau txosten ziren, eta hauen kopia egin zen 1941eko maiatzaren 24an, José Vilariñoren aurkako auziko aurretiazko eginbideetan sartzeko.

Plentziako Guardia Zibilaren postuko buruaren txostena jatorriz 1939ko azaroaren 23an egina da, eta bertan esaten zen Vilariñok portaera pribatu ona zeukala, baina publikoari dagokionez adierazten zen “(...) *ideia disolbatzailekoa zela, (...) erlijio barik, ideia politiko sozialistak izanda*”. Beste alde batetik, ziurtatzen zen UGTkoa izan zela eta sozialisten jarraitzailea, eta azpimarratu “(...) *Mugimenduaren aurretik ideia sozialistakoa zela eta nahiko nabarmena propagandan*”. Gerra bitartean izan zuen jokabideari buruz, ziurtatzen zen izan zela “(...) *eskumako presoek guardia Cabo-Quilates preso-ontzian, zeinean atxilotutako pertsonetako asko erahil zituzten (...)*”. Datu hauek eman zituen pertsonak ezin izan zuen ziurtatu Vilariñok parte hartu zuenik “(...) *sarraski hartan*”, baina zalantza landatu zen txostenean<sup>1151</sup>.

Urdulizko alkate Amancio Nievak, 1940ko otsailak 9an idatzitako txosten batean, kontatu zuen Vilariño “(...) *ez zela sarritan elizara joaten*” eta “*C.N.T.ren aldekoa*” zela. Gainera, adierazi zuen “(...) *beste txosten batzuk egin ostean jaso ditudan berriengatik, erakusten didate ez zela inongo alderdi politikotako kide*”, eta aditzera eman “(...) *Mugimendu Loriaisuaren aurretik ez zen politikarekin lotutako ezertan nabarmendu*”. Gerra bitartean “*gorrien*” aldekoa izan zen nahiz eta ez zuen “(...) *inongo esku-sartzerik izan herri honetan*” eta soilik “(...) *mugatu zela boluntario sartzera C.N.T.ko batailoi batean*”. Amancio Nievak C.N.T.ko kide zari buruz zeukan informazioa, aurreko alkate Manuel Uribe 1937ko irailean egindako txosten batetik zetorren. Geroago beste txosten batzuk jaso ziren “(...) *bizilagunen eta eskuindar fidagarrien artean*”

1148 Ibíd. José Trujella García, *Kontzentrazio-esparruetako Presoen Ikuskaritzako Ikerketa Zerbitzuko buruzagiaren txostenaren kopia (1941-3-10) 1941-5-24*.

1149 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Manuel Uribe alkateak egindako ziurtagiria 1937-9-23.

1150 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13158-42 auzia, José Vilariño Salgadorek egindako deklarazioa 1942-2-19.

1151 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 13158 auzia, Plentziako postuko buruzagiaren txostenaren kopia (1939-11-23) 1940-5-24.

informazio gehiago eman zutenak kontu honen gainean: nabarmendu zenez, José Vilariño “(...) *itsasoan ibilitakoa zen*” eta horregatik ez zen harritzekoa sindikatu anarkistan afiliatua izatea, izan ere “(...) *Mugimendu Nazional Lariotsuaren aurreko hilabeteetan (...) erakunde hori ofizialei nagusitu zitzairen, eta gauza horiek Vilariñoren antzera oso ezagutza gutxi duen jendea harrotzen dute*”. Alkateak bere txostena amaitzen zuen José Vilariño “(...) *oso aurrekari oneko (...) mutil*” moduan deskribatuz, sekula ez zena “(...) *politikan nahastua egon*”, eta gaineratu zuen “(...) *gainerakoa ezagutza urriko gizon batengandik ondorioztatu daitekeela, bost urtez zorigaiztoko Errepublika jasanda*”<sup>1152</sup>.

Urdulizko Falangek, berriz, jakinarazi zuen ez zekiela José Vilariño alderdi politikoren bateko kide izan ote zen, nahiz eta gehitu zuten susmoa zeukatela baietz, zehaztu barik zeinetakoa. Haren ideia politikoei dagokienez, “(...) *bere portaera eta adierazpenengatik, ezker muturrekotzat jotzen (...)*” zuten. Bere portaera publiko eta pribatuari ere hala-holakoa irizten zioten, eta azpimarratzen zuten ez zuela ideia erlijiosorik. Gerra bitartean egindakoen gainean, bat egiten zuten, partez, Plentziako Guardia Zibilak emandako informazioarekin: “(...) *preso politikoen zaindaria izan zen Bilboko Itsasadarrean ainguratuta zegoen itsasontziren batean*”. Oraingoan ez zen zehaztu inongo itsasontziren izena, eta gainera adierazi zen Urdulizen ez zutela “(...) *haren ezelango delituzko ekintzaren berririk*”<sup>1153</sup>.

Azken txostena, 1941eko martxoan egina zuen José Trujellak, Kontzentrazio-esparruetako presoek Ikuskaritzako Ikerketa Zerbitzuko komandante buruak. Errealitatek gertuena izan zen, eta antzekotasun gehien agertu zuena auzipetuak 1942ko otsailean egindako deklarazioarekin. Presoen zaindaria izan zelako akusazio faltsuaren aurrean, txosten horretan errealitatea jasotzen zen: Vilariñok sukaldeko laguntzaile lan egin zuen “*Aranzazu-Mendin*” eta geroago C.N.T.ko Bakunin Batailoian sartu zen<sup>1154</sup>.

1942ko otsailaren 9an, auzia bideratzen zuen epaileak agindua eman zion Plentziako Guardia Zibilari José Vilariñori aditzera emateko deklaratzera deitua zegoela, eta eskatu gainera “(...) *sinesgarritasun osoko lau edo sei eskumako jenderen izenak, auzipetuaren izaera ongi ezagutzen dutenak*”<sup>1155</sup>, hauek ere deklarazioa eman zezaten.

Otsailaren 19an, deklarazioa eman zuten bai auzipetuak bai Urdulizko lau bizilagunek, epaileak eskatutakoari jarraituz. Antonio Larrabeitiaren, Juan Bautista Zabalaren, Tiburcio Madariagaren eta José María Ansoleagaren lekukotasunak sano antzekoak izan ziren euren artean eta ez ziren Vilariñoren

---

1152 *Ibíd. Urdulizko alkatearen txostenaren kopia (1940-2-9) 1941-5-24.*

1153 *Ibíd. F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Urdulizko buruzagi Antonio Larrabeitiaren txostenaren kopia (1940-2-29) 1941-5-24.*

1154 *Ibíd. José Trujella García, Kontzentrazio-esparruetako Presoen Ikuskaritzako Ikerketa Zerbitzuko buruzagiaren txostenaren kopia (1941-3-10) 1941-5-24.*

1155 *Ibíd. Auzipetuari ofizio baten bidez hitzordua emateko eta ofizio bat bidaltzeko eginbidea 1942-2-9.*

kalteko izan. Lauek eman zuten ontzat gizonaren portaera publiko eta pribatua, eta, aurretik aipatu ditugun txostenei aurre eginez, erlijiosotzat jotzen zuten. Juan Bautista Zabala izan zen lauetatik bakarra bazekiena Vilariñok *“Aranzazu-Mendin”* lan egin zuela eta geroago batailo batean egon zela. Berriz, Tiburcio Madariagak eta José María Ansoleagak baieztatu zuten Vilariño behar barik geratu zenean Aldundiaren errepidean, *“(…) itsasora joan zela, eta egoera horretan egon zela Urdulizen liberazioa eta gero arte. Beraz ez zien zerbitzurik egin gorrirei”*. Azkenik, Antonio Larrabeitiak kontatu zuen behin auzipetua behar barik geratu zenean *“(…) maiz ikusi zuela herrian, (…) baina jakin barik (…) zertan ibili zen gero, eta ez zekiela ere frontean egon ote zen gorriekin”*<sup>1156</sup>.

Testigantza hauei, Plentziako Guardia Zibilak eta Amancio Nievak alkate gisa eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagi moduan egindako hiru txosten batu zitzaizkien. Ostera, ez zuten datu berririk ematen, eta, orokorrean, bat etortzen ziren José Vilariñok otsailaren 19an egindako deklarazioarekin.

Vilariñok, lerro batzuk lehenago aletzen genuen kontakizunean, gehitu zuen *“Aranzazu-Mendi”* ontzian sukaldeko laguntzaile ibili zen denboran *“(…) ez zela inongo delituzko ekintzarik burutu eta bertan egon zen denbora normaltasun osoaren barruan egon zela”*. Gainera, debekatuta zeukan presoekin berba egitea eta *“(…) sukaldetik ahal bezain gutxien”*<sup>1157</sup> irten behar zuen.

Epaileak erabaki zuen ikertzea zein izan zen José Vilariñoren portaera *“Aranzazu-Mendin”*<sup>1158</sup> egon zen bitartean. Horretarako, Bizkaiko Gatibu Ohien Anaidiari eskatu zion horren berri emateko. Hala eta guztiz ere, Anaidi honek aditzera eman zuenez, delako itsasontzian preso gipuzkoarrak baino ez zeuden<sup>1159</sup>. Horregatik, jakingarri bera eskatu zitzaion Gipuzkoako Gatibu Ohien Probintzia-Ordezkaritzari; hainbat kideri itaunduta, guztiek adierazi zuten *“(…) inork ez duela bere izenez gogoratzen, normala den moduan, ez genituelako gure jagoleen izenak ezagutzen, eta are gutxiago barkuko eskifaiaoenak (…)”*. Horregatik, Vilariñoren argazki bat bidaltzeko eskatu zuten *“(…) ikusteko norbaitek ezagutzen duen eta eman ditzakeen eskatzen diren txostenak”*<sup>1160</sup>. Eskatu legez, argazkia gatibu ohi gipuzkoarren Donostiako egoitzara igorri zuten, eta bertan *“(…) aztertu zuten Aranzazu-Mendi preso-ontzian gatibutasuna pairatu zuten hainbat kidek”*. Haietako bakar batek ere ez zuen gomutan José Vilariño; beraz, ezin izan zuten inongo txostenik egin hari buruz<sup>1161</sup>.

1156 Ibíd. Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioa 1942-2-19, Juan Bautista Ostolozagaren deklarazioa 1942-2-19, Tiburcio Madariaga Aranaren deklarazioa 1942-2-19, eta José María Ansoleaga Sistiagaren deklarazioa 1942-2-19.

1157 Ibíd. José Vilariño Salgadorek deklarazioa 1942-2-19.

1158 Ibíd. Ofizio bat bidaltzeko eginbidea 1942-6-20.

1159 Ibíd. Bizkaiko Gatibu Ohien probintziako ordezkariaren mezua, Bilboko V letrako epaile militarari zuzendua 1942-6-21.

1160 Ibíd. Gipuzkoako Gatibu Ohien probintziako ordezkariaren mezua, Bilboko V letrako epaile militarari zuzendua 1942-7-8.

1161 Ibíd., Gipuzkoako Gatibu Ohien probintziako ordezkariaren mezua, Bilboko V letrako epaile militarari zuzendua 1942-8-6.

Ikusita bide horretatik ez zela ezer jakin, epaileak beste alde batera jo zuen, uste izanda balitekeela “(...) *auzipetua zaindari lanetan ibili izana*” beste presontzi batzuetan. Bere susmoek oinarririk zuten frogatzeko, auzipetuaren argazkia igorri zuen Bizkaiko Gatibu Ohien Ordezkaritzara<sup>1162</sup>, eta hauek esan zuten ezer ez zekitela haren jokabidearen ganean, ezta beste itsasontziren batean egon ote zen ere<sup>1163</sup>.

1943ko urtarrilaren 18an, Vilariñok deklarazioa eman zuen berriro, eta aurretik epailearen aurrean kontatutakoa berretsi zuen<sup>1164</sup>. Urtarrilaren 25ean epaileak erabaki zuen leporatzen zitzaizkion egitateek ez zutela garrantzi penalik, haietatik ez zitekeelako “(...) *ondorioztatu ustezko erantzukizun kriminaleko arrastorik*”. Horregatik, agindu zen behin-behineko largespena, eta martxoaren 11n geratu zen “(...) *behin betiko askatasunean*”<sup>1165</sup>.

## 2.9.6 Jacinto Armegugay Aurrera

Jacinto Armegugay edo Amegugo, Bilbon jaiotako tornuko umea eta Urdulizko bizilaguna, nekazaria zen lanbidez eta EAJren jarraitzailea. 1936ko abuztuan ordena publikoko zaindari izendatu zuten, errepidetik pasatzen ziren ibilgailuen kontrolean jardun zuelarik. Urte bereko urriaren erdialdean “(...) *bere kintari deitu behar ziotela sinetsita, boluntario aurkeztu zen “Ichasalde”(sic) Batailoian, Deustuan*”. Bertan, hamar pezeta kobratzen zuen egunean. Itxasalde Batailoiarekin Elorrioko, Legutioko eta Baranbioko fronteetan ibili zen<sup>1166</sup>. Ez dakigu zehatz non atxilotu zuten. Soilik dakigu bere sailkapena preso moduan Gasteizen egin zela, eta handik Bilbora bidali zutela 1937ko abuztuaren 21ean, beste urduliztar batekin, Manuel Aspiazu Abarrategui, Bilboko 4. epaile militarrek eskatuta<sup>1167</sup>. Biharamunean, Larrinagako Espetxean sartu zuten, eta epailearen eskura geratu<sup>1168</sup>. Haren aurrean eman zuen deklarazioa, irailaren 9an<sup>1169</sup>.

Irailaren 13an, Gregorio Gómez García, Sopelako Guardia Zibilaren postuko kaboak epaileari jakinarazi zion egin zituela “(...) *beharrezko gestioak ezagutzeko* (Jacinto Amegugoren) *portaera (...) eta aurrekariak*”. Urdulizko agintariek Gómez García kaboari emandako datuek bat egiten zuen auzipetuak egun batzuk lehenago deklaratu zuenarekin<sup>1170</sup>. Urdulizko alkate Manuel Uribe ere eman zuen bere txostena<sup>1171</sup>.

---

1162 Ibíd. *Gerra-auditoretzaren erabakia* 1942-9-9.

1163 Ibíd. *Bizkaiko Gatibu Ohien probintziako ordezkariaren mezua, Bilboko V letrako epaile militarri zuzendua* 1942-9-19.

1164 Ibíd. *José Vilariño Salgadorek ikerketa-deklarazioa* 1943-1-18.

1165 Ibíd. *Bilboko Gerra-auditoretzaren erabakia* 1943-3-11.

1166 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Jacinto Amegugo Aurreraren deklarazioa* 1937-9-9.

1167 Ibíd. *Arabako koronel gobernadore militarren mezua, Bilboko 4. Epaitegi Militarri zuzendua* 1937-8-21.

1168 Ibíd. *Guardiako Epaitegi Militarren mezua* 1937-8-22.

1169 Ibíd. *Jacinto Amegugo Aurreraren ikerketa-deklarazioa* 1937-9-9.

1170 Ibíd. *Gregorio Gómez García egindako txostena eta komunikazioa, Bilboko 4. Epaitegi Militararentzat* 1937-9-13.

1171 Ibíd. *Instrukzioko 4. Epaitegi Militarreko idazkari Rafael Sánchez Bacaren idazkia* 1937-9-10. Bertan transkribatzen da Manuel Uribe alkateak bidalitako txostenean dagoen informazioa.

Irailaren 28an, fiskalak biziarteko espetxe zigorra eskatu zuen Amegugorentzat eta Lorenzo Garaterentzat. 1093-37 auzian sartutako beste pertsona bat zen Garate. Defendatzaileak, berriz, akusatu guztien absoluzioa eskatu zuen “(...) *delituak frogatuta*” ez zeudela argudiatuz<sup>1172</sup>. Epaileak erabaki zuen Jacinto Amegugori hamabi urte eta egun bateko espetxealdia ezartzea, matxinadari laguntza emateagatik<sup>1173</sup>. Badakigu Jacinto Armegugay preso egon zela Vigoko Itsasadarrean ainguratutako “Upo-Mendi” preso-ontzian, nahiz eta aipatzen joan garen gainerako kasuetan bezala, ez dakigun zer egunetan eta zenbat denboraz<sup>1174</sup>.

1940ko apirilaren 26an, Zigorrak Aztertzeako Probintziako Batzordeak haren kasua berrikusi zuen eta hasierako zigorra ordeztu urtebeteko espetxealdi txikiko beste batekin<sup>1175</sup>. Batzorde Zentralak bere adostasuna eman zion erabaki horri, eta hura behin betikoa bihurtu zen azaroaren 23an<sup>1176</sup>. Probintziako Batzordearen erabakiaren arabera, zigor berria iraungita geratu zen 1938ko abuztuaren 22an<sup>1177</sup>, eta horrek espetxeratua kartzelatik irtetea zekarren berekin. Espetxetik ateratzeko agindua 1940ko ekainaren 25erako eman zen, eta bertan, ohiko prozedurari jarraituz, zehazten zen askatu berriak bere etxean egon beharko zuela behin betiko ebazpena eman arte<sup>1178</sup>. Kartzelatik ateratzea agindu horren hurrengo egunetan gauzatuko zen, nahiz eta ez dakigun zer egunetan zehazki irten zen espetxetik. Ostera, badakigu Jacinto Amegugo Dos Hermanasko Espetxe Kolonia Militarizatuetakoa presondegietan zegoela, Sevillan. 1941eko otsailean, presondegi haietara zuzendu zuen idazki bat Bilboko behin-behineko Auditoreak, Amegugoren kondena berriaren eta behin betiko askatasunaren berri ematearren<sup>1179</sup>.

## 2.9.7 Manuel Aspiazu Abarrategui

Manuel Aspiazu urduliztarrari soldadutzara deitu zioten “(...) *gutxi gorabehera (...) 1936ko abendu aldera*” eta zerbitzu egin zuen “(...) *Areetan eta Deustuan “Erchaña” polizian erroldatuta*”. Bertan, eguneko hamar pezeta kobratzen zituen. Fruizera ere bidali zuten bizilagunak ebakutzeko, armada “nazionala” hurrean zegoela-eta<sup>1180</sup>.

---

1172 Ibíd. *Ebazpena* 1937-9-28.

1173 Ibíd. *Epaia* 1937-9-28.

1174 BADIOLA ARIZTIMUÑO, pág. 265.

1175 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Zigorrek Aztertzeako Probintziako Batzordearen idazkia* 1940-4-26.

1176 Ibíd. *Jacinto Amegugo Aurrera auzipetuaren gaineko behin betiko ebazpenaren ziurtagiria* 1940-11-23.

1177 Ibíd. *Jacinto Amegugo Aurrera akusatuaren kondenaren denboraren kitapena* 1941-2-22.

1178 Ibíd. *Bilboko Gerra-auditoretzaren mezua* 1940-6-25.

1179 Ibíd. *Bilboko jarduneko auditorearen mezua, Dos Hermanasko (Sevilla) Espetxe Koloniako Presondegietako zuzendariari zuzendua* 1941-2-27.

1180 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Manuel Aspiazu Abarrateguiren deklarazioa* 1937-9-9.



Hasiera batean, Aspiazu 1093-37 auziaren barruan zegoen, Jacinto Armegugayrekin batera. Horren kasuan legez, ez dakigu noiz atxilotu zuten, baina badakigu bere sailkapena preso moduan Gasteizen egin zela, eta bertatik Bilbora lekualdatu zutela, Armegugorekin batera, 1937ko abuztuaren 21ean<sup>1181</sup>. Larrinagako kartzelan biharamunean sartu zuten, Bilboko 4. Epaitegiaren eskuetan geratuta<sup>1182</sup>. Epaitegi horrek bazeukan berari buruzko txosten bat, Urdulizko Udalean egina, non aditzera ematen zen euskal nazionalista zela, *Ertzaña* kidegokoa izana zela eta “*ustezko ganadu lapurra*”<sup>1183</sup> izateaz akusatuta zegoela. Irailaren 9an epailearen aurrean deklaratu zuen ez zela egia EAJkoa izan zenik, ez zuela “(...) *armekin guardiarik egin herrian*” eta *Ertzañako* kide moduan “(...) *bere zereginen artean atxiloketak egitea zegoen arren, ez zuela gogoratzen bakar bat ere egin zuenik*”. Ukatu zuen, halaber, “(...) *zerbitzu egiten zuen herrietako bizilagunei*”<sup>1184</sup> ganadua lapurtzearen akusazioa.

Irailaren 23an, fiskalak eskatu zuen Manuel Aspiazuren eta Gervasio López Ibañez izeneko beste auzipetu baten kontrako auzia banatzeko, leporatzen zitzaizkien “*egitateak hobeto argitzearren*”<sup>1185</sup>. Biei espediente berri bat ireki zitzaian abenduaren 30ean: 2795-37 auzia<sup>1186</sup>.

Nahiz eta 1938ko urtarriletik aurrera jasotako txosten eta lekukotasunetan Aspiazuren joera politikoz eta *Ertzañako* kide gisa izan zuen portaeraz berba egiten den, kontuaren gai nagusia ganadu lapurreta izan zen. Urdulizko alkateak, “*entzun duenez*”, kontatu zuen zelan “(...) *behin hiru behiz jabetu zen eta bere gurasoek esan zuten erosi zituela, baina azkenean entregatu egin zituzten, inongo arazo barik*”<sup>1187</sup>. Guardia Zibilak antzera egin zuen berba, eta adierazi zuen Aspiazu *Ertzaña* bezala zerbitzu egiten ari zenean “(...) *herritarren behiez jabetzen zela*”<sup>1188</sup>. Berriz, Urdulizko Falangek nabarmendu zuen, euskal poliziaren kide moduan galarazi zuela “*miliziano gorriek*” lapurreta egitea “*eskumakoei*”<sup>1189</sup>.

Ildo beretik joan ziren Urdulizko hiru bizilagunek esandakoak: Juan Bautista Zabala, Eulogio Abando eta Antonio Larrabeitia. Hiruek ziurtatu zuten Aspiazuren lanari esker, Urdulizko bizilagunek maiz berreskuratu zituztela Urdulizen zeuden “*miliziano asturiar eta kantabriarrek osten zizkieten (...) patatak*” eta landako beste produktu batzuk. Gainera, Abandok kontatu zuenez, “(...) *Aspiazu heldu*

---

1181 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Arabako Gobernu Militarreko koronel gobernadore militarren mezua, Bilboko 4. Epaitegi Militarri zuzendua* 1937-8-11.

1182 Ibíd. *Guardiako epaile militarren mezua* 1937-8-22.

1183 Ibíd. *Instrukzioko 4. Epaitegi Militarreko idazkari Rafael Sánchez Bacaren idazkia* 1937-9-10. Bertan transkribatzen da Manuel Uribe alkateak bidalitako txostenean dagoen informazioa.

1184 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Manuel Aspiazu Abarrateguiaren deklarazioa* 1937-9-9.

1185 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1093-37 auzia, *Fiskalaren idazkia* 1937-9-23.

1186 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 2795-37 auzia, *Probidentzia* 1937-12-30.

1187 Ibíd. *Urdulizko alkate Amancio Nievaren txostena* 1938-1-4.

1188 Ibíd. *Plentziako Guardia Zibilaren Destakamentuko buruzagiaren txostena* 1938-1-8.

1189 Ibíd. *F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagitzaren txostena, Antonio Larrabeitiak sinatua* 1938-1-3.

*arte*” asturiarrek ganadua eta zamariak eroaten zituzten<sup>1190</sup>. Larrabeitia izan zen ganadua lapurtzearen akusazioaz zerbait argitu zuen bakarra, eta bere testigantzan behi biren gainean jardun zuen, nahiz eta benetan hiru izan. Larrabeitiaren bertsioaren arabera, Manuel Aspiazu arduratu zen “(...) *miliziano batzuek, seguruenik lapurtuta, errepidetik ekartzen zituzten behi biz, eta bere aitaren etxean laga zituen*”. Animalia biak bertan egon ziren harik eta 1937ko ekainean eraturako Udalak bando bat argitaratu zuen arte bizilagunei eskatuz entregatu zituzten haienak ez ziren “(...) *behi guztiak eta gainerako objektuak*. Orduan, Aspiazuren aitak bi behiak entregatu zizkion Udalari eta hau abereak norenak ziren jakiten saiatu zen, lortu barik; beraz, enkantean saldu ziren<sup>1191</sup>.

Hala eta guztiz ere, behien enkantearen datua okerra zen, ez zen halakorik egin. Udalak lortu zuen jabeak topatzea, Mungiako bizilagun batzuk: José Ángel Amezaga, Juan Bautista Goiriena eta Claudio Zubiaur<sup>1192</sup>. Hirurek deklarazioa eman zuten eta baita Teodoro Iturregui Elorriagak ere. Hura Mungiako miliziano bat zen, José Ángel Amezagaren behi bi eta idi baten errekesan nahastutakoa. Iturreguik egitateak onartu zituen, baina argudiatu zuen hala jokatu zuela “(...) *bere nagusiak aginduta; Alusquiza delako bat bera, gipuzkoarra, ez jakin zein herritakoa*”. Azkenik, gehitu zuen ez zela “(...) *errekisa bat izan, ezpada ebakuaziora behartzeko modu bat*”<sup>1193</sup>. Idia Bilboko Hiltégian hil zuten, behietako bat itzuli egin zitzaion Deustuan eta bestea Urdulizko alkateak entregatu zion<sup>1194</sup>. Claudio Zubiaurrek ez zekien nork eroan zizkion hiru behiak. Horietako bat Urdulizen idoro zuen bere koinatuaren abisuari esker. Urdulizera joanda, frogatu zuen bere behia zela, alkateari berme bat eman ostean entregatu zitzaiona<sup>1195</sup>. Juan Bautista Goirienari behi bat errekisatu zitzaion baina ez zekien nork eroan zuen<sup>1196</sup>. Laburbilduz, ezin izan zuten Manuel Aspiazu lotu behien errekisarekin.

Azkenik, Ignacio Aspiazu Mancisidorrek deklaratu zuen, eta azaldu zuen semeak eskatu ziola hiru behiak zaintzeko, jabea bila etorri arte. Hala eta guztiz ere, jabeak behiak erreklamatu zituenean argudiatu zuen “(...) *erosi zituela*” ekiditeko “(...) *bere benetako jabea ez zen norbait agertzea behiak eroatera*”. Azkenik, Udaleko idazkaria azaldu zen Ignacio Aspiazuren baserrian, eta animaliak entregatu zizkion<sup>1197</sup>.

---

1190 *Ibíd. Eulogio Abando Dorronsororen deklarazioa* 1938-5-13.

1191 *Ibíd. Juan Bautista Zabala Ostolozagaren, Eulogio Abando Dorronsororen eta Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioak, Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandante Julián de la Fuenteren aurrean* 1938-4-13.

1192 *Ibíd. Urdulizko alkate Amancio Nievaren mezua, 6. Barruti Militarreko Auditoretzako B epaile militarri zuzendua* 1938-3-5. Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandante Julián de la Fuenteri ere eman zion horren berri (I.T.A.M. Bilboko Funtza, 2795-37 auzia Julián de la Fuenteren mezua, Bilboko B epaile militarri zuzendua 1938-3-8)

1193 *Ibíd. Teodoro Iturregui Elorriagaren deklarazioa* 1938-5-18.

1194 *Ibíd. José Ángel Amezaga Zarragaren deklarazioa* 1938-5-14.

1195 *Ibíd. Claudio Zubiaur Aguirregoitiaren deklarazioa* 1938-5-14.

1196 *Ibíd. Juan Bautista Goiriena Renterriaren deklarazioa* 1938-5-14.

1197 *Ibíd. Ignacio Aspiazu Mancisidorren deklarazioa* 1938-5-24.

Amancio Nievak adierazi zuenez, Manuel Aspiazuren aitak ez zuen bizilagunei eurenak ez ziren gauza guztiak bueltatzeko eskatzen zien Udal bandoaren berririk izan. Horregatik “(...) *deitu behar izan zioten*”. Kontu hau, atzerago kontatzen genuenez, aurreko alkatearen agintearen denboran jazo zen. Antza, hiru bizilagunek kontaktu zioten Manuel Uriberi Ignacio Aspiazuk hiru behi zeuzkala; beraz, “(...) *deitu egin zioten horien jatorria zuzitzeko eta erosketa frogatu ahal izan ez zuenez, gordailuan geratu ziren Udaletxe honetan*”. Orduan hasi zen jabearen bilaketa eskualdeko herrietan iragarkiak jarritz<sup>1198</sup>.

1938ko ekainaren 15ean, Bilboko 2. Gerra-kontseiluak erabaki zuen gerra-auditoreari proposatzea behin-behineko largespena, leporatzen zaizkion ekintzak garrantzi penalik ez zuten eta delitutzat jotzekoak. Baina, beste alde batetik, adierazi zen Manuel Aspiazuk “(...) *ez duela frogatu Kausa Nazionalarekiko atxikimendurik, espada desatxikimendu nabarmena*”; beraz, Saillkapen Batzordearen eskura jarri zen<sup>1199</sup>. Behargin batailoi batera bidali zuten, nahiz eta ez dakigun zeinetara<sup>1200</sup>.

## 2.9.8 Martin Aldecoa Goirigolzarri

Martín Aldecoa Goirigolzarri, lanbidez merkataritzako irakaslea eta EAJko afiliatua, “(...) *Larrazabal Batailoian sartu zen, bere borondatez, lubakietako lanen ihesi (...)*”. Epaille Militarraren aurrean 1937ko abuztuaren 5ean deklaratu zuenean, adierazi zuen “(...) *lubakietan lan egitera behartu zutela*”, Euzkadiko Gobernuak agindu zuenean “(...) *hemezortzi urtetik berrogei eta bost urte bitartekoan mobilizazioa*”. Larrazabal Batailoian egin zuen lan, erretaguardian, bere Konpainiari elikagaiak banatzen. Ekainaren 28an aurkeztu zen “*bere borondatez Plentziako Komandantzia Militarrean*”,<sup>1201</sup> eta bertan eman zioten baimen ziurtatu bat “(...) *Plentziatik Urdulizera joateko*”, adieraziz Aldecoa bertan ezartzen zuela bere bizitokia eta bere aurkezpen boluntarioa “(...) *arerioaren eremuko iheslari*” moduan jazo zela<sup>1202</sup>.

Atxilotu ostean 639-37 auzira uztartu zuten, eta abuztuaren 5ean deklarazioa eman zuen, adierazi bezala. Abuztuaren 13an, auzi horretatik banandu ziren Martin Aldecoari eta Fernando Sáenzi buruzko eginbideak, kargu bakarrari eutsi zitzaiolako: “(...) *miliziano boluntarioak (...)*” izatea, “*gero Espainiako agintari legitimoen aurrera (...)*” aurkeztutakoak.

---

1198 *Ibíd. Amancio Nieva alkatearen mezua, B letrako Epaitegi Militar Iraunkorreko instrukzioko epaileari zuzendua 1938-5-20.*

1199 *Ibíd. Bilboko 2. Gerra-kontseiluaren erabakia 1938-6-15.*

1200 *Ibíd. 6. Barruti Militarreko (Burgos) buruzagi jeneralaren mezua, gerra-auditoreari zuzendua 1938-8-6. Buruzagi jeneralak onetsi zuen Manuel Aspiazu saillkatzea 1937ko martxoaren 11ko Aginduaren B atalean “(...) Beharginen Batailoi batera bidali dezaten”.*

1201 *I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Martin Aldecoa Goirigolzarriren deklarazioa 1937-8-5.*

1202 *I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, Lekualdatzeko baimenaren ziurtagiria, Plentziako Komandantzia Militarrak emana 1937-6-28.*

Horregatik, Presoak eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Batzordera bidali zituzten biak, euren sailkapena egiteko helburuarekin<sup>1203</sup>. Hori ikusirik, abuztuaren 14an, Bilboko Gerre Auditoreak agindu zuen bi urduliztarrei “*buruzko jarduketan behin-behineko largespena*”<sup>1204</sup>.

Aldecoa armada frankistan borrokatzera bidali zuten. Hartara, 1938ko uztailaren gerra-frontean zegoen, Nafarroako 4. Dibisioko Transmisioen Konpainiako kide<sup>1205</sup>.

## 2.10 Marinelen aurkako auzipetzeak

Biztanleriaren gainerako multzoak legez, behin Bizkaian gerra amaituta itsasgizonak ikertuak izan ziren jakiteko zein izan zen euren jokabidea probintzia Errepublikaren kontrolpean egon zen bitarteko denboran. Baina ezin ahaztu gerrak aurrera jarraitzen zuela eta itsasgizon horietako asko Errepublikako Gobernuari leial zitzaizkion ontzietan zebiltzala nabigatzen. 1937ko azaroan asko izan ziren deituak Itsas-armada frankistan zerbitzu egiteko. Itsasoan zeudenez edo Espainiatik kanpo, ikerketa honetan idoro ditugun gehienek ez zuten dei horren berririk jaso eta ez ziren aurkeztu. Horrek berekin ekarri zuen auzi-ihesean deklaratuak izatea eta, beraz, haien bilatzeko eta harrapatzeko agindua ematea. Beharginen batailoiak, kontzentrazio-esparruak edo, kasuren baten, Estatura itzultzeko bidaia luze-luzeak ditu mugari epailearen aurrean agertu arte urratu zuten bideak. Posible izan den kasuetan, prozesua berreraiki dugu, nagusiki Ferrolgo Itsasontzi Artxiboan topatu ditugun auzi judizialen bidez. Pedro Goirigolzarri Kapitainaren kasua atal honetatik banandu dugu zinegotzia izan zelako gerra bitartean. Azkenik, atal bat beste itsasgizon batzuei eskaini diegu, Urdulizko Udal Artxiboan aurkitu baitugu haiei buruzko informazioa.

Azkenik, aitzatekoa da matxinatutako bandoaren itsasontzietan nabigatu zuten itsasgizon bi topatu ditugula: **Francisco Bilbao**, 1936ko irailaren 9tik 1937ko maiatzaren 26a arte nabigatu zuena, lehen ofizial karguarekin “*Ulia*” baporean, “(...) *Itsas-armadako Estatu Nagusiaren zerbitzuko, Ferrolgo Itsas Departamentuan (...)*”<sup>1206</sup>. **Santos Arazosa** EAJko afiliatua zen, baina, Amancio Nievak ziurtatu zuenez, “*Altzaxamendu Nazionala hasi zenetik Armada-buruaren zerbitzura jarri zen*” itsasontziko makinista moduan<sup>1207</sup>. Suposatzen dugu bai Francisco Bilbaok eta baita Santos Arazosak ere egoerak behartuta nabigatu zutela matxinatutako bandoaren itsasontzietan.

1203 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Ebazpena 1937-8-13*.

1204 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Bilboko Okupazioko Armadako gerra-auditorearen erabakia 1937-8-14*.

1205 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018, *Bizkaiko Sailkapen eta Berrikuspen Batzordeak egindako aparteko berrikuspenera aurkeztu ez ziren mutilen zerrenda 1938-7-12*.

1206 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkateak Hermenegildo Bilbaoren gainean egindako portaera ziurtagiria 1937-10-11*. Ziurtagiriak haren aitari buruzko argibideak ere ematen ditu, Falangen afiliatutako itsasgizona bera.

1207 B.F.A.H. AX-476/013, *Urdulizko udalerriko zer bizilagunen gainean eskatu diren txostenak. Haien zerrenda 1938-7-12*.

## 2.10.1 José Madariaga Olazar

José Madariaga Sopelan jaio zen 1913ko ekainaren 10ean, José Madariagaren eta Clara Olazarren seme. Familia Urdulizera bizitzera aldatu zen, Madariola bataiatu zuten baserri batera, senar-emazte bien abizenak batuta. 1928an, 15 urte betetzear zegoela, Bilboko portuan izena eman zuen “(...) *libre moduan itsas industrietan lan egiteko* (...)”<sup>1208</sup>.

1939aren hasieran, “(...) *gerra denboran desertatzeagatik, prozedura kriminal bat* (...)” ireki zen haren kontra<sup>1209</sup>. Madariagaren kontrako sumarioaren azalean zehazten denez, arrazoi zehatza izan zen itsasgizon urduliztarra ez zela azaldu “(...) *1937ko azaroaren 11ko deira, zerbitzuan sartzeko*”<sup>1210</sup>.

1939ko otsailaren 21ean epaileak eskatu zuen auzipetuaren aita Juan Madariaga azaltzeko, deklarazioa eman zezan<sup>1211</sup>, José Madariaga non zegoen jakiteko. Martxoaren 1ean, itsasgizonaren 23 urteko arrebak eman zuen deklarazioa. María Madariagak adierazi zuen bere neba Gerra Zibila hasikeran itsasoan zebilela *Elcano* petroliontzian, eta ez zekiela ondorengo jardunbidearen berririk. Madariaga non ote zegoen, jakinarazi zuen “(...) *azken otsailaren 27an txartel bat jaso zuela hil horren 18ko datarekin Lleidako presoan kontzentrazio esparruko 1. Konpainiatik, zeinetan esaten zuen betiko moduan zebilela*”<sup>1212</sup>.

Egun berean, ohiko txostenak eskatu zitzaizkion Bizkaiko gobernadore zibilar, Urdulizko alkateari eta F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiari, eta era berean Lleidako presoan kontzentrazio esparruko buruari.

Kontzentrazio esparru hartatik baieztatu zen Madariaga bertan zegoela, eta aditzera eman Preso eta Aurkeztuak Sailkatzeko Batzordeak sailkatu barik zeukala oraindino. Gainera, beste datu batzuk eman ziren: 1937ko azaroaren 11n, zerbitzura sartzeko deia egin zen egunean Cartagenan (Murtzia) zegoen, antza, eta egun batzuk lehenago, hilaren 6an soldadu sartua zen Armada Errepublikanoan. Dirudienez, Bergan “*hartu zuten preso*”, Bartzelonako probintzian<sup>1213</sup>.

Beste alde batetik, Urdulizko alkate Amancio Nievaren txostenak jakingarri gutxi eman zuen: José Madariaga “(...) *portaera onekoa da, eta Mugimendu Nazional Lariotsua hasi aurretik udal mugarte honetatik falta denez, ez du azpimarratzeko moduko jardunik egin*”<sup>1214</sup>.

---

1208 I.F.A. 892-39 auzia, 21939-11-9 zedularen kopia. Jatorrizkoa 1928-6-5ekoa zen.

1209 I.F.A. 892-39 auzia, *Bilboko Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Ferrol del Caudilloko Itsas Departamentuko komandante jeneralari zuzendua* 1939-1-25.

1210 I.F.A. 892-39 auzia, *892 auziaren ataria*, 1939. urtean.

1211 I.F.A. 892-39 auzia, *Ofizio bat pasatzeko eginbidea* 1939-2-21.

1212 I.F.A. 892-39 auzia, *María Madariaga Olazarren deklarazioa* 1939-3-1.

1213 I.F.A. 892-39 auzia, *José Madariaga Olazarren gaineko informazioa, Lleidako Presoan Kontzentrazio esparrutik bidalia Itsas-armadako Komandantzia Militarrari* 1939-3-7.

1214 I.F.A. 892-39 auzia, *José Madariagaren gainean Urdulizko alkateak egindako txostena* 1939-3-7.

Gobernadore Zibilak emandako txostenean, berriz, ziurtatzen zen “(...) *Mugimendu Nazional Loriotsuaren aurretik ezkerrek begiko zituela, jakin barik alderdiren batean afiliatu zen edo ez, baina ez zuen ekintza edo jarduera politiko edo sindikalik izan (...)*”. Itsasgizonaren arrebak adierazi zuen legez, Gerra Zibila piztean “(...) *itsasoan zegoen, “CAMPSA” konpainiako petroliontzi batean, ustez “ELCANO” izenekoa, zeinean gorrientzat nabigatzen jarraitu ei zuen (...)*”<sup>1215</sup>. F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Informazio eta Ikerketarako Zerbitzu Nazionalak egindako txostenak ez zuen datu berririk eskaini Alkatea eta gobernadore zibilaren txostenek eman ez zutenik<sup>1216</sup>.

1939ko apirilaren 17an, José Madariaga Olazarrek deklarazioa eman zuen Presoak eta Aurkeztuak sailkatzeko Batzordearen aurrean. Alde batetik, adierazi zuen “(...) *CNTko kidea zela 1936ko maiatzetik*” eta Gerra hasita sindikatu horren partaide izaten jarraitu zuela baina kargurik hartu barik. Bartzelonan ontziratu zen *Elcano* petroliontzian, 1936ko ekainaren 10ean, Port Arthur helmuga zuela, Texasen, Ameriketako Estatu Batuetan. Abuztuaren 23an barkua berriro atzera itzuli zen Málaga portura, “(...) *ontzian ezelango istilurik egon barik*”. Lehenengo deklarazio hartan, Madariagak ez zuen ezer gehiago zehaztu itsasgizon moduan egindako jarduerari buruz, 1936ko abuztuaren 23tik Armada Errepublikanoan “*behartu*” moduan sartu zen arte. 34. Dibisioa 94. Brigada, 11. Batailoia izan zuen norako, eta harekin borrokatu Pirinioetako frontean. Azkenik, zehaztu zuen ez zutela harrapatu, baizik eta bere burua aurkeztu zela “(...) *tropa nazionalei, Bergan, 1939ko otsailaren 1ean (...)*”, “(...) *fusil txekiar bat eta eskuko bomba birekin*”. Batzordeak A sailean sailkatu zuen, “*zalantzazkoa*”<sup>1217</sup>.

Bilboko auzipetze-autoak 1939ko irailaren 27ko data du, eta hartan “(...) *Gerra garaian gauzatutako desertzio delitua*” irizten zitzaion 1936ko azaroan egindako deira agertu ez izanari. “(...) *Jaso lezakeen zigorra askatasun gabeko sei urte*” baino gehiagokoa izan ezin zitekeenez eta ihes susmorik ez zegoenez, haren askatasuna agindu zen auzia aurrera zihoan bitartean, “(...) *Epaitegi honetan asteroko astelehenetan aurkezteko betebeharrarekin (...)*”<sup>1218</sup>.

1939ko urriaren 9an, José Madariagak deklarazioa eman zuen Bilboko epailearen aurrean, eta xehetasun gehiago erantsi zizkion bere aurreko deklarazioari. Sindikaturen bateko kide ote zen, adierazi zuen “(...) *derrigortu zutela petrolioaren sindikatuan afiliatzera, CNTri atxikia baitzen (...)* nabigatu ahal izateko”, eta nabarmendu zuen ez zuela *Elcanon* zegoen Komitean parte hartu.

---

1215 I.F.A. 892-39 auzia, José Madariagaren gainean Bizkaiko Gobernu Zibilak egindako txostena 1939-3-13.

1216 I.F.A. 892-39 auzia, José Madariagaren gainean F.E.T. y de las J.O.N.S.eko Informazio eta Ikerketa Zerbitzu Nazionaleko Bizkaiko sailak egindako txostena 1939-3-22.

1217 I.F.A. 892-39 auzia, José Madariagaren deklarazioa Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Batzordearen aurrean 1939-4-17.

1218 I.F.A. 892-39 auzia, José Madariaga Olazar auziperatzeko autoa 1939-9-27.

Beste alde batetik, adierazi zuen Port Arthur-etik Málagara heldu zirenean, 1937ko abuztuaren 23an, “(...) *itsas-armada gorriko itsasontzi bat hornitu zuten portu horretan*”. Málagatik Cartagenara aldatuta, han “(...) *lau hilabetez egon behar izan zuten ainguraturik*”, harik eta, azkenean, Bartzelonako portura abiatu ahal izan ziren arte. Abenduaren 27an iritsi ziren bertara eta garraiatzen zuten petrolioak deskargatu. Hilabete bat egin behar izan zuen ontziak Bartzelonan, konponketetan. Barkuaren hurrengo helmuga Batungo Portua izan zen, Errusian (gaur egun, Georgia) eta bertara heldu ziren “(...) *mila bederatziehun eta hogeita hamazazpiko otsailaren lehen egunetan*”, era berean petrolioak kargatzeko eta gero Cartagenako portura eramateko asmoz. Handik, Madariagaren arabera, beste portu baterantz abiatu ziren, baina ez zuen gomutan “*zehazki*” zein zen, Batungoa edo Constanzakoa (Errumania), ostera berriz, petrolioz hornitzeko eta atzera bueltan Cartagenako portura joateko. Han, “(...) *deskargatu zuten kargaren zati gehiena, eta gainerakoarekin Almeríara joan ziren bertan deskargatzeko, itsas-armada matxinoko zenbait unitate hornituz*”. José Madariagak gaineratu zuenez, “(...) *portu horretan, eta lan istripu bat zela-eta, deklaratzaila ospitaleratu egin zuten (...) hiru hilabetez (...)*”<sup>1219</sup>.

Azaroaren hasieran bere kintari dei egin zitzaionean Errekluta Kaxan aurkeztu zen, eta bertatik itsas armadako infanteriako batailoira bidali zuten, Cartagenan bertan. Bost hilabetezko instrukzioa eman zioten han. Batailoia Segreko operazioetara igorri zuten, eta gero “(...) *Kataluniako ofentsibakoetan, Pirinioetako sektorean*”. Aurretik esan dugun legez, otsailaren 1ean, Bergan eman zien bere burua “*indar nazionalei*”. Lleidak kontzentrazio esparrura lekualdatuta, irailaren 10a arte egon zen bertan. Bere bizilekura itzulirik, Guardia Zibilean aurkeztu zen, eta “(...) *hilabete bereko hamahiru edo hamalauan, berriz, Itsas-armadako Komandantzia Militarrean (...)*”<sup>1220</sup>.

Urriaren 23an, Cesáreo Taus epaileak txosten gehiago eskatu zizkien “*Urdulizko herriko agintariei*” auzipetuaren portaera politiko-sozialaren gainean, eta era berean eskatu izenda zitzatela “(...) *pertsona bi, fidagarritasun erabatekoak*” eta auzipetua ezagutzen zutenak, euren testigantza emateko<sup>1221</sup>. Plentziako Guardia Zibilaren postuak eta Urdulizko Udal Epaitegiak osatutako txostenek ziurtatu zuten Madariagak ez zuela aurrekari penalik; gainerakoan, ez zuten datu berririk eskaini, ezta herriko Falangearenak ere, Antonio Larrabeitiak sinatu zuenak. Azken horretan aditzera eman zen euren testigantza eman zezaketen Urdulizko bizilagun biren izenak: Tiburcio Madariaga Arana eta Juan Bautista Zabala Ostolozaga<sup>1222</sup>.

---

1219 I.F.A. 892-39 auzia, José Madariaga Olazar auzipetuaren ikerketa-deklarazioa 1939-10-9.

1220 Ibid.

1221 I.F.A. 892-39 auzia, Taus epailearen probidentzia 1939-10-23.

1222 I.F.A. 892-39 auzia, Honako hauen txostenak: Plentziako Guardia Zibila 1939-10-24, Urdulizko Udal Epaitegia 1939-10-27 eta Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S 1939-10-27.

Urdulizko bizilagun bien deklarazioak José Madariagaren aldekoa izan ziren. Bien iritziz, haren portaera moral eta erlijiosoa ona zen, eta inoiz ez zen “nahastu” jarduera politikoetan. Tiburcio Madariagak adierazi zuen 1935ean Madariaga itsasoratu zenetik, ez zela “(...) herrian egon” eta horregatik ez zituela ezagutzen “(...) gizaseme honen jarduerak Altxamenduari dagokionez”<sup>1223</sup>.

Azkenik, CAMPSAko zuzendari orokorrak berretsi zituen Madariagak bere deklarazioan emandako datuak itsasgizon urduliztarra CNTko kidea izan zela eta<sup>1224</sup>.

1939ko abenduaren 12an, Ferrolgo Itsas Departamentuko auditoreak agindu zuen auziaren behin-behineko largespena “(...) ezertan ukatu barik matxinadaren ondoriozko erantzukizunak”<sup>1225</sup>. Auzipetuari 1940ko urtarrilaren 8an eman zitzaion erabakiaren berri<sup>1226</sup>.

## 2.10.2 Pascual Madariaga Olazar

Pascual Madariaga Olazar, aurreko itsasgizonaren anaia, *Campeador* petroliontzioaren hondoratzea bizi izan zuen -hura ere CAMPSAren- 1937ko abuztuaren 11n jazo Mediterraneo Itsasoan, Kebiliatik zortzi miliatara (Tunisia)<sup>1227</sup>. Madrilgo *ABC* egunkariak Errepublikako Defentsa Nazionalaren Ministerioak helarazitako informazioa argitaratu zuen, Pascual Madariagak Defentsako ministroari egin zizkion deklarazioak jasorik. Marinelak 21 urte zituen orduan, eta kontatu zuen Constanzako portutik abiatu zirela 1937ko abuztuaren 4an. Hilaren 11n, goizean, *Saetta* destruktore italiarrak *Campeador*-engana jo zuen, eta birritan igaro zen ontziaren ingurutik. Arratsaldean beste destruktore italiar bat, aurrekoaren bizkia, “(...) *“Saetta”ren parean kokatu zen, biak “Campeador”ren popan*. Iluntzean, “(...) *gerraontzi biek norabidea aldatu zuten, Italiara abiatu balira bezala, eta desagertu (...)*”, baina gaueko zortziak aldera berriro agertu ziren: “(...) *biak istriborrean kokatu ziren, bat brankaldetik eta bestea popaldetik. Argi guztiak amatatuta nabigatzen zuten*”. Minutu bi igarota “(...) *elkarri seinale argidun batzuk egin zizkieten, eta atoan torpedo batek “Campeador” jo zuen makinaren departamentuan*”<sup>1228</sup>.

Marinelek uretara bota zuten euren burua, “(...) *txalupak eraisteko denbora barik*”, eta ondoren torpedo bik eragindako bi leherketa izan ziren. Kanoikada bik barkuaren tximinia erauzi zuten gero eta une hartan *Campeador*reko “(...) *popaldea sutan hasi zen, eta tangek zalapartaka egin zuten eztanda (...)*”.

1223 I.F.A. 892-39 auzia, *Juan Bautista Zabala Ostolozagaren deklarazioa* 1939-11-18, eta *Tiburcio Madariaga Aranaren deklarazioa* 1939-11-18.

1224 I.F.A. 892-39 auzia, *CAMPSAko zuzendari orokorraren mezua, Bilboko Itsas-armadako komandante militarri zuzendua* 1939-11-30.

1225 I.F.A. 892-39 auzia, *José Madariagaren kontrako auzia behin-behineko largesteko dekretua* 1939-12-12.

1226 I.F.A. 892-39 auzia, *José Madariaga Olazar auzipetuarentzako jakinarazpena* 1940-1-8.

1227 *El País* 2013-12-15 *La última batalla del “Campeador”*.

1228 *ABC* (Madril) 1937-8-18.



Constanzan ontziraturako gasolinaz beterik zeuden, guztira “(...) *bederatz* mila *bostehun tona* (...)”. Madariaga igeri urratzen zen bitartean, itsasontzia urpera joaten hasi zen. Behin hondoratuta, bi ontzi italiarrak “(...) *euren erreflektoreak fokuratu zituzten “Campeador” hondoratu berri zen lekura, eta agerian utzi zituztenean itsasoan ahalegintzen ari ziren naufragoak, metrailatu egin zituzten*”. Urduliztarrak “(...) *ederto entzun zituen metrailadoreen tiro jasak*”. Pasarte horren ostean, barku biak urrundu egin ziren eta Pascual Madariagak José Vivesekin batean hiru orduz igerian jarraitu zuten, “*estu eta larri*”, harik eta *Clintonia* itsasontzi ingelesa agertu eta erreskatatu arte, “*ahitzeko zorian zeudela*”<sup>1229</sup>.

Josu Chuecak Frantziako Gurseko kontzentrazio esparruari buruz egindako ikerketari esker badakigu Pascual zelai horretan egon zela sartuta eta, bere anaia bezala, CNTan afiliatuta egon zela<sup>1230</sup>. 1940ko martxoan badakigu Beharginen 146. Batailoian zegoela, Larachen (Maroko)<sup>1231</sup>.

### 2.10.3 Antonio Gumersindo Bilbao Arteta

Antonio Gumersindo Bilbao Arteta itsasgizona beste urduliztar bat da Josu Chuecak osaturako Gurseko kontzentrazio esparrutik igaro ziren euskaldunen zerrendan azaltzen dena<sup>1232</sup>.

Atal honetan jasotako gainontzeko marinelen antzera, Antonio Bilbao gerrako desertore deklaratu zuen, 1938ko azaroan, Ferrolgo Itsas Departamentuak, 1937ko azaroan zerbitzu egitera deitu zutenean aurkeztu ez zelako.

1914ko apirilaren 30ean jaio zen, Juan Bilbao eta Salvadora Artetaren semea. 1932an, 18 urte zituela, izena eman zuen Bilboko portuan, “(...) *itsas industrietan libre moduan ibiltzeko*”<sup>1233</sup>.

1938ko irailaren 13an, Barne Segurtasuneko eta Ordena Publikoko Bizkaiko Ordezkaritzak jakinarazi zuen Antonio Bilbao “(...) *Armada separatistan miliziano*” izana zela eta, “(...) *gure Tropak Bilbotik sartzean* (...)” desagertu zela<sup>1234</sup>.

Urriaren 10ean, epaileak auzipetuaren aita deitu zuen deklaratzera. Hilaren 28an, Antonio Bilbaoren arreba aurkeztu zen, M<sup>a</sup> Dolores Bilbao Arteta, “(...) *bere gurasoek ezin izan zutelako, gaixo zeuden-eta*”. 18 urteko gazteak, jostuna

---

1229 Ibíd.

1230 CHUECA, Josu: *Gurs, el campo vasco*, Tafalla, Txalaparta, 2007, 207 or.

1231 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018 *Beharginen 146. Batailoiko kapitain buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua, Pascual Madariaga Oyazabalen (sic) portaera moral eta politikoaren gaineko txostena eskatzeko 1940-3-9.*

1232 Ibíd. 146 or.

1233 I.F.A. 2448-38 auzia, *Antonio Gumersindo Bilbao Artetaren zedularen kopia 1938-9-23. Jatorrizkoak 1932ko data du.*

1234 I.F.A. 2448-38 auzia, *Bizkaiko Probintziako Barne Segurtasun eta Ordena Publikoko Ordezkaritzaren mezua, Bilboko Itsas-armadako komandante militarri zuzendua 1938-9-13.*

lanbidez, ez zekien bere neba non zegoen. “(...) Herritik alde egin zuen –gehitu zuen– *Indar Nazional Loriatsuek Urduliz bereganatu baino egun batzuk lehenago*”, ez jakin “(...) *nora*”. Deklarazioaren momentuan ez zuen “(...) *hartaz ezelango berririk*”<sup>1235</sup>.

Antonio Bilbaoren arrebaren aitorenaren biharamunean, 15 eguneko epea eman zen auzipetua Bilboko Itsas-armadako Komandantziako Epaitegi Iraunkorrean aurkeztu zedin, egotzitako karguei erantzutera. Horrekin batera, haren atxiloteta eskatu zien agintari zibil eta militarrei<sup>1236</sup>. Epea igarota aurkeztu ez zenez, epaile instruktoreak auzi-ihesean deklaratu zuen 1938ko azaroaren 16an<sup>1237</sup>.

Urte bi geroago, 1940ko azaroaren 15ean, Plentziako Guardia Zibilaren postuan aurkeztu zuen bere burua. Aurkezpen hori Antonio Bilbaok bete beharreko tramitearen parte zen “(...) *Armadako ministro txit gorenak aginduta lizentziatu*” ostean, urte hartako maiatzaren 11n. Gizona 215. Batailoian egon eta hau desegin eta gero, 100. Beharginen batailoi disziplinarioan egondakoa zen, Tetuanen (Maroko)<sup>1238</sup>. Ernesto Álvarez del Villar teniente komandanteak ziurtatu zuenez, Antonio Bilbaoren portaera izan zen “(...) *tatxa gabea*”, eta erakutsi zuen “(...) *maitasun handia eta ahalegina lanean, bere espedienteak aurkako oharrik ez duelarik*”<sup>1239</sup>.

1938ko abenduan itsasgizon urduliztarra auzi-ihesean deklaratu ostean geldirik geratu zen auzia ireki zen berriro, 1942ko abenduan<sup>1240</sup>. 1943ko uda hasieran, hiru txosten gehitu zitzaizkion berriz zabaldutako prozesuari. Txosten bik uztailaren 3ko data zuten, eta berdin-berdinak ziren, Amancio Nievak, bata Urdulizko alkate eta bestea udalerriko Falangeko buru moduan idatzita zirelako. Idazki bietan adierazi zen Antonio Bilbao zela pertsona “(...) *portaera moral onekoa eta esangura politikorik gabea, Altxamendu Nazional Loriatsuaren ez aurretik ezta bitartean ere*”<sup>1241</sup>. Hirugarren txostena Plentziako Guardia Zibilaren Komandantziak egin zuen ekainaren 26an. Bertan, Nieva bere portaeraren inguruan plazaratutako datuekin bat egiteaz gain, azaldu zen auzipetua “(...) *politikoki euskal separatisten jarraitzailea zela, ez dakigun arren alderdian afiliatuta ote zegoen*”. Gerra bitartean zertan ibili ote zen, bazekiten, ostera:

1235 I.F.A. 2448-38 auzia, *Auzipetuaren arreba M<sup>a</sup> Dolores Bilbao Artetaren deklarazioa* 1938-10-28.

1236 I.F.A. 2448-38 auzia, *Germán Ruiz instrukzioko epaileak agindutako errequisitoria* 1938-10-29.

1237 I.F.A. 2448-38 auzia, *Instrukzioko epailearen probidentzia* 1938-11-16.

1238 I.F.A. 2448-38 auzia, *Antonio Bilbao Arteta beharginaren egiaztatzea, Beharginen 100. Diziplina Batailoiko kapitain eta lehen buruzagi Vicente Martínek Tetuanen emana* 1940-11-11. Agiriaren atzekaldean: *Plentziako Guardia Zibilaren postuan aurkezteko egiaztatzea, postuko komandante Ramón Lópezek sinatua* 1940-11-15.

1239 I.F.A. 2448-38 auzia, *Antonio Gumersindo Bilbaok Tetuango Beharginen 100. Diziplina Batailoian egindako denboraren eta izandako portaeraren gaineko ziurtagiria, Ernesto Álvarez del Villar teniente komandanteak emana* 1940-11-10.

1240 I.F.A. 2448-38 auzia, *Itsas-armadako Komandantzia Militarraren telegrama, Departamentuko kapitain jeneralari zuzendua* 1942-12-7, eta *2448-38 auzia artxibotik ateratzeko agindua* 1942-12-11.

1241 I.F.A. 2448-38 auzia, *Urdulizko alkatearen eta Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko buruzagiaren txostenak* 1943-7-3.

*“(...) gorri separatistek mobilizatu zuten, eta hauentzat zerbitzu egin zuen askapen gerraren amaiera arte. Gero Frantziara pasatu zen”.* Txostenaren jarraipenean azaltzen zen behin Espainiara itzultita, 1939an, *“(...) Burgosko presoen kontzentrazio esparrura igaro zela, eta bertatik bidali zutela 2. Beharginen Batailoira (215) Marokora”*<sup>1242</sup>.

Azkenik, 1950eko apirilaren 3an, Antonio Bilbaoren deklarazioa gauzatu zen. Bertan, urduliztarrak argitu zuen 1937ko azaroan zerbitzu egitera deitu zutenean ezin izan zuela aurkeztu garai hartan *“(...) eremu gorrian”* zegoelako. Gerra piztu zenean, auzipetua Urdulizko bere etxean zegoen eta *“(...) bertan geratu zen ezer egin barik agintari gorriek mobilizatu zuten arte. Gero, “Zabalbide” Batailoian ibili zen Frantziara ihes egin arte”.* 1939ko azaroan aurkeztu zen:

*“(...) a las Autoridades Nacionales (...) quienes le mandaron al Campo de Concentración de Miranda de Ebro, y más tarde a un Batallón de Trabajadores, donde permaneció hasta que fue licenciado en Tetuán, el 11 de noviembre del año de mil novecientos cuarenta”*<sup>1243</sup>.

Apirilaren 22an, Departamentuko Auditoreak erabaki zuen auziaren behin-behineko largespena, ez zelako *“(...) sinesgarria auzipetuak (...)”* ez izana *“(...) Aberriarekiko bere betebeharrak militarrek betetzen saihesteko asmorik”* eta ezin zela *“(...) jazarritako deliturik egin izana modu egokian justifikatu”*<sup>1244</sup>. Antonio Bilbaori 1950eko maiatzaren 9an jakinarazi zitzaion erabaki hori<sup>1245</sup>.

## 2.10.4 Francisco Llona Menchaca

Francisco Llona Menchaca, itsasontziko makinista zen, Urdulizkoa jaiotzez, Julián Llonaren eta Francisca Menchacaren semea. 30 urte zitue n itaunketa egin ziotenean, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan (Burgos), 1940ko uztaillean. Deklarazio hartan, Llonak bere hara-hona guztiak kontatu zituen Gerra Zibila hasi zenetik abiatuta. Momentu hartan *“(...) itsasontziko makinista ikasketak egiten”* ziharduen eta, *“ez baterako ez besterako”* eta *“(...) delituzko egitaterik batere egin barik”*, bere ikasketetan jarraitu zuen, harik eta *“(...) kurtsoak bertan behera laga zituzten arte”.* 1936ko urrian *“(...) bere errenplazoa mobilizatzeke zorian zegoela-eta, itsasontziko hirugarren makinista gisa sartu zen Pinillos konpainiako “Vasco” ontzian (...)”.* Barkua ibiltzen zen *“(...) minerala garraiatzen Espainiako iparraldeko portuen artean, baita Frantziako, Ingalaterrako eta Belgikako beste batzuen artean ere (...)”.* Antza, une hartan sartu zen UGT sindikatuan<sup>1246</sup>.

---

1242 I.F.A. 2448-38 auzia, Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandantearen txostena 1943-6-26.

1243 I.F.A. 2448-38 auzia, Antonio Gumersindo Bilbao Arteta auzipetuaren deklarazioa 1950-4-3.

1244 I.F.A. 2448-38 auzia, Ferrolgo Itsas-armadako Departamentuko Auditorearen irizpena 1950-4-22.

1245 I.F.A. 2448-38 auzia, Agerraldia eta jakinarazpena 1950-5-9.

1246 I.T.A.M. Bilboko Funtza, 12348-40 auzia, Francisco Llona Menchaca gerra-presorearen aurka bideratutako atestatua 1940-7-29.

1937ko abuztuaren 6an Amberesko portuan lehorreratu zuten “(...) barkuko armadorea eta Gobernu Gorriaren artean” zegoen auzi bat zela-eta. Horregatik, beste bapore batera bidali zuten: *Cabo Quintes*, Rotterdamgo portuan zegoena. Hartan itsasoratuta, Arkhangelsk portu errusiarrera abiatu zen “(...) Ingalaterra jomuga zuen egurra kargatzeko”. Baina “(...) izotza zela-eta” barkua abandonatu behar izan zuen eta “(...) *“Ermak” ontzi izotz-hausle errusiarrak bildu (...)*” eta Arkhangelskeko porturaino eroan zuen. Handik trenez joan zen Múrmanskera (Errusia) eta bertan posta-ontzi errusiar batean itsasoratu zen. El Havretik (Frantzia) Espainia errepublikanora jo zuen Port Bouko mugatik igarota, eta Bartzelonara heldu zen 1937ko otsailaren 20an. Bertan mobilizatu zuten “(...) eta gudu-unitate batera bidaliko zutela ikusita, itsas-armadara pasatzea eskatu zuen. *“Artea mendi” garraio-ontzira igorri zuten, itsasontziko makinista (...)*”. Barkua “(...) gerrarako materiala garraiatzen ibiltzen zen itsasertz mediterranearen espainiarreko portu desberdinen artean (...)”. Barku horretan, tenientearenaren parekoa zen bere kargua. Gero “(...) S.A.C. 2. garraio-ontzira bidali zuten (...) lehen makinista”, kapitain mailaren pareko, beraz. 1939ko martxoaren 5ean, itsasontzi horretan abiatu ziren Cartagenatik Oránera, Maroko frantsesean. Han, “(...)posta-ontzi frantses batean ontziratatu zituzten jarraian, eta Marsellako portura eroan, non atxilotu zuten eta Argeleseko zelaietan sartu gutxi gorabehera urte bereko martxoaren 9an. Handik Goursekora (sic) igaro zen apirilean(...)”<sup>1247</sup>.

1939ko azaroa arte egon zen Gurseko esparruan. Orduan, “(...) tornulari doitzaille moduan lan egitera irten zen *Ferminyko (Loire) altzairu eta forja enpresan (...), sei franko eta hamar zentimo orduko soldataren truke*”. Ekainaren 17an, lanaren urritasunak bultzatuta, Espainiara bueltatzea erabaki zuen. Toulouseko Espainiako Kontsulatuan aurkeztuta, pasaporte eman zioten bertan. Horrekin igaro zuen muga, Irundik, urte hartako ekainaren 24an. Atxiloturik, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidali zuten<sup>1248</sup>.

1940ko abuztuaren 3tik, itsasgizon urduliztarra Valdenocedako Presondegian (Burgos)<sup>1249</sup> egon zen, eta bertatik eroan zuten Bilboko Probintziako Presondegira (Tabacalera), irailaren 18an sartuta.

Prozesu judiziala irekita, Francisco Llonak deklarazioa eman zuen berriro, Miranda de Ebron azaldutakoa berretsi zuelarik<sup>1250</sup>. Beste alde batetik, ohiko txostenak eskatu zitzaizkien agintariei. Urdulizko orduko alkate Amancio Nievak ziurtatu zuen auzipetuak zeukala “(...) *tatxa bako portaera morala, bai publikoa eta baita pribatua ere, eta bizilagun guztiek mutil bikaintzat*” zeukatela eta ez

---

1247 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Francisco Llona Menchaca gerra-presoarean aurka bideratutako atestatua* 1940-7-29.

1248 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Francisco Llona Menchaca gerra-presoarean aurka bideratutako atestatua* 1940-7-29.

1249 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Kontzentrazio-esparruetako koronel ikuskariaren posta bidezko telegrama, Bilboko M letrako Epaitegi Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua* 1940-10-8

1250 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Francisco Llona Menchacaren deklarazioa* 1940-10-14.

zela inongo alderdi politikotan afiliatuta egon<sup>1251</sup>. Plentziako Guardia Zibilaren txostena bat zetorren datu hauekin, eta gaineratu Llona “(...) *nazionalisten aldekoa zela*”<sup>1252</sup>.

1940ko abenduaren 30ean “(...) *presondegi arinduaren onurak*” onartu zitzaizkion Francisco Llonari, betebeharra ezarrita “M” Letrako Epaitegi Militarrean bere burua aurkezteko behin Bilboko Probintziako Presondegia utzita<sup>1253</sup>.

1941eko urtarrilaren 29ko data duen epaiak honela ikusi zituen gauzak: “(...) *aitortutako egitateak (...) ez dira delitutzat jotzekoak; beraz, auzipetua (...) errugabetu beharra dago*”. Horregatik, Gerra-kontseilu Arruntak erabaki zuen “(...) *libreki absolbitzea Francisco Llona Menchaca auzipetua. Beraz, behin betiko askatasunean geratu behar du auzi honengatik, non ez duen beste batengatik atxilotuta edo preso egon behar*”<sup>1254</sup>. Bilboko Gerrako jarduneko auditoreak epaia onartu zuen, baita irmo egin ere 1941eko urtarrilaren 28an. Horrenbestez, Llona “(...) *behin betiko askatasunean ipini zuten atoa*”<sup>1255</sup>.

## 2.10.5 Enrique Erdaide Bidea

Enrique Erdaide itsasgizona, 1912ko apirilaren 17an Urdulizen jaioa, José Erdaide eta Juana Bidearen semea zen. 18 urte bete baino egun gutxi batzuk lehenago, 1930eko apirilean, Bilboko portuan eman zuen izena itsasoa bizibide egiteko asmotan<sup>1256</sup>.

1937ko azaroaren 11n Armadan sartzeko dei egin zioten eta aurkeztu ez zenez, 1939ko erdialdean prozesu judiziala ireki zitzaion. Ohi zen moduan, txostenak eskatu zitzaizkien Urdulizko herriarekin lotutako agintariei, auzipetuaren berri izan asmoz: udalerriko alkatea eta Plentziako Guardia Zibila. Biek bat egin zuten adierazten Enrique Erdaideren portaera ona eta euskal nazionalismoaren aldekoa zela, nahiz eta ez zuen jarduera politikoetan parte hartu, alkatearen iritziz “(...) *itsasgizona zelako*” eta horrek “(...) *herri honetatik kanpo bolada luzeak*” igarotzera behartzen zuelako. Udalburuak gehitu zuenez, gerra bitartean ere ez zuen jarduera politikorik izan: “(...) *itsasora irten zuen herri hau askatu baino hilabete batzuk lehenago, eta horretarako dei egin zion eusko alderdi nazionalistaren herri honetako ordezkari batek*”<sup>1257</sup>. Guardia Zibilaren arabera,

---

1251 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Urdulizko alkatearen txostena* 1940-9-28.

1252 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Plentziako Guardia Zibilaren postuaren txostena* 1940-9-26.

1253 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, “M” letrako epaile militarren mezua, *Tabacalerako Presondegiko zuzendariari zuzendua* 1940-12-30, eta *Tabacalerako Presondegiko zuzendariaren mezua*, “M” letrako epaile militarri zuzendua 1940-12-30.

1254 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Epaia* 1941-1-29.

1255 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 12348-40 auzia, *Bilboko jarduneko auditorearen erabakia* 1941-2-28.

1256 I.F.A. 2040-39 auzia, *Bilboko portuan izena emateko zedularen kopia*, 1930eko apirilaren 11ko data duena 1939-4-28.

1257 I.F.A. 2040-39 auzia, *Urdulizko alkatearen txostena* 1939-7-15.

“Mugimendu Nazional Loriatsuan”, Erdaide itsasoan zegoen, “(...) *Zabala Konpainiaren Barku batean*”, eta Guardia Zibilak txostena eman zuen egunetan, 1939ko uztailaren erdialdean, Itsasgizon urduliztarra atzerrian zegoen<sup>1258</sup>.

Urte hartako uztailaren 24an, epaile instruktoreak hamabost eguneko epea eman zion Enrique Erdaideri bere aurrera aurkezteko. Horrekin batera, ohiko prozedura erabiliz, agintari zibil eta militarrei erregutu zien auzipetua bilatzeko eta harrapatzeko<sup>1259</sup>. Epea igarota, Erdaide ez agertzea desertzio delitutzat joenez, auzi-ihesean deklaratu zuten<sup>1260</sup>.

1942ko ekaina arte ez zitzaion jarraipenik eman auziari, orduan aurkeztu zen-eta epailearen aurrean, Palentzian maiatzaren 8an lizentziatu ostean, 8. Beharginen Batailoian (Gerra Presoak, 75.a) egon eta gero<sup>1261</sup>. Epaileak aske laga zuen prozesamendu bitartean, ezar liezaiokeen zigorra ezin zitekelako sei urte baino altuagoa izan eta, beste alde batetik, ez zegoen “(...) *susmorik (...) ihes egin zezakeenik*”. Aske uzte horrek etxean egin beharreko presondegi arinduaren antza zuen beste ezerena baino areago. Izan ere, Erdaidek “(...) *Epaitegi honetan hamabost egunero aurkezteko betebeharra zeukan, eta ezin zuen bere etxebizitzatik alde egin baimen berariazkoa barik*”<sup>1262</sup>.

Enrique Erdaideren 1942ko ekainaren 9ko ikerketa-deklarazioak argitu zuen zer jazo zen itsasgizonarekin Gerra Zibilaren hasieratik epailearen aurrean aurkeztu zen arte. Uztailaren 18ko altxamendua gertatu zenean, Erdaide “(...) *bere etxean zegoen, Urdulizen, nekazaritzari emana*”. Hura izan zen bere ogibidea iraila arte; orduan, “(...) *lana eskatu zuen ontzi batean, eta ARRIOLA-MENDI baporean erroldatu zen*”. Hura Bordeleko portuan zegoenez, itsasoz joan behar izan zuen Bilbotik bertaraino. Itsasontzi hartan Ingalaterrarentz abiatuta, Cardiffeko Portuan lehorreratu zen, “(...) *urdailetik gaixo zegoelako. 41 egunez ospitaleratuta geratu zen portu hartan*”. Bertan zegoela aurkeztu zitzaion “(...) *Munitis jauna, Nazionalen Zerbitzuko ontzien hornitzailea*” eta ontziratzeko eskaini. Erdaidek baiezkkoa eman zuen. Ospitalea laga eta egun gutxi batzuk geroago, Amaya Konpaniaren *Santurce* izeneko baporean ontziratatu zen Glasgowko Portuan, Newport helmuga. Han, Frantziarako ikatza kargatu zuten. Bidaia horiek errepikatu ziren “(...) *hainbat aldiz, 37ko (...) uda arte*”. Orduan itsasontzia saldu zuten eta Erdaide Behe Pirinioetara joan zen, Frantzian; bertan, “(...) *mendian lan egin zuen, pinuak botatzen*”. 1939ko abuztuaren 19an, “(...) *Irungo muga gurutzatu zuen eta Aberriera itzuli bere borondatez. Irungo kontzentrazio esparruan sartu zuten (...)*”. Egun bi geroago San Pedro de Cardenasera lekualdatu zuten eta “(...) *egun gutxitara Miranda de Ebrora*”.

1258 I.F.A. 2040-39 auzia, *Plentziako Guardia Zibilaren txostena 1939-7-11*.

1259 I.F.A. 2040-39 auzia, *Errekisitoria 1939-7-24*.

1260 I.F.A. 2040-39 auzia, *Enrique Erdaide Bidea delakoa auzipetzeko autoa 1939-8-10, Probidentzia 1939-8-11, eta Ferrolgo Departamentuko auditoreak Enrique Erdaide Bidea auzi-ihesean deklaratzeko irizpena 1939-8-23*.

1261 I.F.A. 2040-39 auzia, *Palentzian 1942ko maiatzaren 8an emandako ziurtagiriaren kopia ziurtatua 1942-6-9*.

1262 I.F.A. 2040-39 auzia, *Enrique Erdaide Bidea auzipetzeko autoa 1942-6-9*.

*Handik, Beharginen 127. Batailoira igorri zuten, Erronkarira (Nafarroa)*". Hainbat herritan egon ostean, Errenteriako 81. Batailoira eroan zuten, bertan "*pare bat edo hiru hilabete*" igaro zituela. Bere hurrengo helmuga 52. Batailoia izan zen, Ventasen (Madril), non bost edo sei hilabete egin zituen gutxi gorabehera, "(...) *eta horien ostean Palentziara lekualdatu zuten 75. Batailoira*". Behargin Batailoi ezberdinen arteko bidaia, esan dugunez, 1942ko maiatzaren 8an amaitu zen, lizentziatu zenean. Deskribatutako baldintzetan ezinezkoa zatekeen Enrique Erdaidek jakin izana 1937ko azaroan deitu zutela Armadan sartzeko, eta hura izan zen epaileak itaundu zuenean dei hartara ez aurkezteko azaldu zuen arrazoia: "(...) *ez zuen piperrik ere jakin*"<sup>1263</sup>.

Erdaidek baieztatu zion epaileari *Santurce* baporean Komite batek funtzionatu zuela, baina berak ez zuela hartan parte hartu, "(...) *bere lanean baino ez zelako ibili*". Epaileak itaundu zionean zergatik ez zuen "(...) *Franco Jeneralisimoaren Gobernuaren aldeko atxikimendu aktarik egin*" atzerriko portuan egonda, Erdaidek azaldu zuen "(...) *inork ez ziola adierazi*" eta "(...) *berari ez zitzaiola otu*", gerra bitartean "(...) *ez alde batera ez bestera jokatu zuelako guztiz, inoiz ez zitzaion-eta gustatu politikan nahastea*". Izan ere "(...) *inoiz ez zen alderdi politiko bateko kide izan*"<sup>1264</sup>.

Bere aitopenen ostean txosten berriak eskatu ziren. Aznar ontzi-konpainiarenean agertzen denez, beren artxiboetan ez zeukaten daturik Erdaideren portaerari buruz "(...) *Altxamendu Nazional Loriatsuan*"<sup>1265</sup>. Amaya ontzi-konpainiak, berriz, ez zeukan itsasgizon urduliztarraren "*aurrekaririk*", zergatik eta "(...) *ontziratuta egon zen egunetan aitaturako ontzia gure kontroletik kanpo*" zegoelako<sup>1266</sup>. Amancio Nievak, alkatea eta Herriko Falangeko burua zen aldetik, txosten labur bi egin zituen, ia-ia berdinak, non berretsi baitzituen auzipetuaren portaera ona eta haren jarduera politiko eza<sup>1267</sup>. Txosten hauei gehitu zitzaizkien Urdulizko bizilagun Tiburcio Madariaga Arana eta Tiburcio Madariaga Juaristirenak, biak oso antzekoak, non nabarmendu zen Erdaideren apolitikotasuna eta bere "(...) *portaera moral eta sozial ona*". Bi bizilagunek adierazi zuten ez zekitela zein izan zen auzipetuaren portaera "(...) *itsasoan egon zen denboran*", baina Tiburcio Madariaga Aranak zioen Enrique Erdaidek "(...) *oso portaera ona*" zuenez, ez zuela uste "(...) *inongo jarduerarik zuenik*". Ildo beretik jo zuen Tiburcio Madariaga Juaristik: "(...) *betidanik bere portaera ona izan denez, ez du uste gai denik ezer txarra egiteko edo jarduera politikorik izateko (...) mutil on bat (...) delako*"<sup>1268</sup>.

---

1263 I.F.A. 2040-39 auzia, *Enrique Erdaide Bidea auzipetuaren ikerketa-deklarazioa* 1942-6-9.

1264 *Ibid.*

1265 I.F.A. 2040-39 auzia, *Aznar ontzi-konpainiaren txostena* 1942-6-12.

1266 I.F.A. 2040-39 auzia, *Amaya ontzi-konpainiaren txostena* 1942-6-12.

1267 I.F.A. 2040-39 auzia, *Urdulizko F.E.T. y de las J.O.N.S.eko herriko buruzagiaren txostena* 1942-6-13, eta *Urdulizko alkatearen txostena* 1942-6-19.

1268 I.F.A. 2040-39 auzia, *Tiburcio Madariaga Arana lekukoaren deklarazioa* 1942-10-23, eta *Tiburcio Madariaga Juaristi lekukoaren deklarazioa* 1942-10-23.

1942ko urriaren 30ean, Ferrolgo Departamentuko Auditoreak erabaki zuen Enrique Erdaideren aurkako auzia largestea, “(...) *sinesgarriztat hartuz auzipetuak*” ez zuela “(...) *asmorik izan Aberriarekiko bere betebeharraren militarren betetzea saihesteko, eta burututako eginbideengatik ezin zela deliturik egin izana modu egokian justifikatu* (...)”<sup>1269</sup>. Azaroaren 2an agindu zen behin-behineko largespena<sup>1270</sup>, eta urte hartako azaroaren 17an jakinarazi zitzaion erabaki hori Enrique Erdaideri<sup>1271</sup>.

## 2.10.6 Isidro Juan Alboniga García (Juan Torrontegui García)

Bilbon 1914ko maiatzaren 24an jaio zen, guraso ezezagunak zituela. “(...) *Bost urte zituenean, Bilboko umezurtz-etxetik jaso zuten*” Francisco Torrontegui Acillonak eta haren emazteak. Torrontegui sopoloztarra zen jaiotzez eta Urdulizko bizilaguna, eta Tallerondo baserrian bizi ren. Biak haren tutore bihurtu ziren. 1931n, 16 urterekin izena eman zuen Bilboko portuan, itsasoan jarduteko<sup>1272</sup>.

Aurreko kasuetan legez, 1937ko azaroaren 11n dei egin zioten Armadan sartzeko. Aurkeztu ez zenez, desertzio delitua leporatu zioten.

Hura topatzeko ikerketak hasita, 1938ko irailaren amaieran, Ordena Publikoko ordezkari batek ziurtatu zuen Alboniga ezezaguna zela Urdulizen<sup>1273</sup>. Ia hilabete geroago, Urdulizko alkate Amancio Nievak auzipetua non zegoen jakinarazi zuen, Barruelo de Santullánen (Palentzia), nonbait, Ingeniariei 6. Batailoian, Berreskurapeneko 4. Konpainian<sup>1274</sup>.

Zenbait egun geroago, Francisco Torrontegui, Isidro Juan Albonigaren tutoreak, deklaratu zuen “(...) *bere besotakoa Armada Gorri-separatistakoa izan zela bere kintoak mobilizatu zituztelako, eta, antza, preso hartu zutela Santanderko frontea behera etorri zenean*”. “*Denboraldi luze batez*” haren berririk izan barik egon ostean, jakin zuen “(...) *Kausa Nazionalaren zerbitzura*” zegoela, Palentziako probintziako herri hartan “(...) *eta bertan zegoela ere 1937ko azaroaren hamaikan*”<sup>1275</sup>.

---

1269 I.F.A. 2040-39 auzia, *Auditorearen irizpena* 1942-10-30.

1270 I.F.A. 2040-39 auzia, *Auzia largesteko dekretua* 1942-11-2.

1271 I.F.A. 2040-39 auzia, *Agerraldia eta atzera egitea* 1942-11-17.

1272 I.F.A. 2612-38 auzia, *Isidro Juan Alboniga Garcíaren zedularen kopia* 1938-9-30, eta *Francisco Torrontegui Acillonaren deklarazioa* 1938-10-28.

1273 I.F.A. 2612-38 auzia, *Bizkaiko Ordena Publikoko ordezkariaren mezua, Itsas-armadako komandante militarri zuzendua* 1938-9-26.

1274 I.F.A. 2612-38 auzia, *Urdulizko alkatearen mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua* 1938-10-21.

1275 I.F.A. 2612-38 auzia, *Francisco Torrontegui Acillonaren deklarazioa* 1938-10-28.



Udalburu urduliztarrak eta Isidro Juan Albonigaren tutoreak emandako datu zehatzengatik ere, Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko Alferrez Buruak nahiz Koronelak biek ala biek esan zuten marinela ez zegoela bertan, eta Koronelak baieztatu zuen “(...) *gizaseme hau ez dela batailoi honetakoa*”<sup>1276</sup>.

1939ko otsailean, José María Ansoleagak, Urdulizko jarduneko alkateak, epaileari proba bat igorri zion egiaztatzen zuena Alboniga batailoi hartako kide zela: “(...) *Ingeniarien Materiala Berreskuratzeko Zerbitzuko tintadun zigilua duen sobre bat, horixe baita interesduna soldaduska egiten ari den unitatea*”, eta adierazten zen helbide hartara zuzendu zitekeela “(...) *mutilaren egoera Militarra legeztatzeko beharrezko ziurtagiria eskatzeko* (...)”<sup>1277</sup>.

Hartara, berriro ere dei egin zitzaion deklaratzera itsasgizon gaztearen tutoreari, itaunketa egin gura ziotelako bere besoetakoak “*beste izen batzuk*” erabiltzen ote zituen. Francisco Torronteguik azaldu zuenez, Isidro Juan Albonigak “(...) *itsasoan zegoenean bere jatorrizko izenak erabiltzen zituen, baina herrian Juan Torrontegui y Arana gisa ezagutzen zuten eta izen horiek erabiltzen zituen, hau da, deklaratzailearen eta bere emaztearen abizenak, pertsona horren tutoreak baitira*”. Gainera, gehitu zuen “(...) *gaur egun Juan Torronteguiaren izenean igortzen dizkiotela eskutitzak, hala sinatzen baitu interesdunak*”<sup>1278</sup>.

Behin abizenen afera argituta, batailoiko Koronelak baieztatu zuen “(...) *batailoi honetan Juan Torrontegui García izeneko gerra-presoa bat dagoela*”, sartu egin zutena “(...) *Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrutik etorrira, 1937ko azaroaren 13an*”, eta Urduñako Saillkapen Batzordeak saillkatutakoa zela.<sup>1279</sup> 1939ko martxoaren erdialdean, Isidro Juan Albónigak “(...) *zerbitzu ematen zuen gerra-presoa moduan Ingeniarien Materiala Berreskuratzeko batailoiko 4. Konpainian, Bot izeneko herrian (Tarragona)* (...)”<sup>1280</sup>.

---

1276 I.F.A. 2612-38 auzia, Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko Destakamentuko Alferrez Buruzagiaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1938-11-22, eta Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko koronelaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1938-12-15.

1277 I.F.A. 2612-38 auzia, Urdulizko jarduneko alkatearen mezua, Bilboko Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1939-2-7.

1278 I.F.A. 2612-38 auzia, Francisco Torrontegui Acillonaren bigarren deklarazioa 1939-3-8.

1279 I.F.A. 2612-38 auzia, Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko koronelaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1939-3-15. Orduñari buruzko datua ez da zuzena, Isidro Juan Albonigaren saillkapena Santoñan egin zelako.

1280 I.F.A. 2612-38 auzia, Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko koronelaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1939-3-22.

1939ko apirilaren hasieran, itaunketa egin zitzaion Albonigari bere izenaren inguruko kontua argitzeko. Itsasgizonak argudiatu zuen “(...) *gurasoak ezagutzen ez zituenez*” ezin zuela “(...) *ziurtatu bere benetako izena zenik* (...)” Isidro Juan Alboniga García. Beste alde batetik, gaineratu zuen erabiltzen zuela “(...) *Juan Torronteguiaren izena huraxe zelako umetan jaso zuen pertsonarena eta horrela deitu ziotelako zentzua zuenez geroztik, zehaztu ezinik noiztik*”<sup>1281</sup>.

1939ko ekainaren 21ean, Lleidako Probintziako Gobernu Militarrek pasa-baimena egin zion; bere lizentziamendua bertan zegoen jasota, baita Urdulizera buelta trenez egingo zuela ere “(...) *Estatuaren kontura*”<sup>1282</sup>. Abuztuaren 1ean, epailearen aurrera aurkeztu zen Bilbon, “(...) *Juan Torrontegui Garcíaaren izenean entregatzen duen pasaportearen arabera lizentziatua izan delako, izen horrekin azaltzen baita soldadu gisa Armadan* (...)”. Behin bere auziperatzea jakinarazita, epaileak “(...) *behin-behineko askatasuna*” eman zion eta itsasgizon urduliztarrek Urdulizko Tellerondo baserrian ezarri zuen bere bitokia, “(...) *astelehenero Epaitegi honetan aurkezteko betebeharrarekin eta bere etxebizitzaren herritik alde egin ezin barik besterik agindu arte*”<sup>1283</sup>.

Abuztuaren 21ean ikerketa-deklarazioa eman zuenean, auzipetuak eutsi zion bere izenaren inguruan apirileko itaunketan azaldutakoari. Orobat, Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoian amaitu arte egindako bidaldia kontatu zuen. Gerra Zibila piztu zenean, Albóniga “(...) *bere tutore Francisco Torronteguiaren etxean zegoen (...) nekazaritzara emana*”. Azaroaren 9an, 1934ko errenplazoari soldadutzara deitu zioten, itsasgizonarenari, eta U.G.T.ko 8. Batailoari gehitu zitzaion, soldadu moduan, 1936ko azaroaren 9an. Batailoi harekin “(...) *Eibar, Sollube, Urduña eta Artxandako fronteetan ibili zen, baita Santanderko probintziara irten ere, Bilbon tropa nazionalak sartu zirenean*”. 8 egunez Ramalesen egon zen eta gero probintzia hartako fronte ezberdinetan, “(...) *1937ko abuztuaren 22an Asturiasera ihes egin zuten arte. Indar Nazionalek urriaren 21ean hartu zuten preso, Pola de Lenan*”<sup>1284</sup>.

Zortzi egunez egon zen San Marcoseko Kuartelean, Leónen, eta gero Santoñako kontzentrazio esparrura igorri zuten aste betez. Handik Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidali zuten, eta zortzi egun geroago Donostiara. Han, “(...) *Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoian sartu zuten, behargin. Unitate horretan ekainaren 24a arte egon zen, hau da, (...) lizentziatu zuten arte* (...)”<sup>1285</sup>.

---

1281 I.F.A. 2612-38 auzia, *Isidro Juan Alboniga Garcíaaren itaunketa*, honen atzean dagoena: *Zulatzaile minatzaileen 6. Batailoiko 2. komandante buruzagiaren mezua, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarreko instrukzioko epaileari zuzendua 1939-4-5.*

1282 I.F.A. 2612-38 auzia, *Juan Torrontegui Garcíaaren aldeko pasa-baimena, Lleidako Probintziako Gobernu Militarrek eta 75. Dibisioak emana 1939-6-21.*

1283 I.F.A. 2612-38 auzia, *Auzipetuarentzako jakinarazpena 1939-8-1.*

1284 I.F.A. 2612-38 auzia, *Isidro Juan Alboniga García auzipetuaren ikerketa-deklarazioa 1939-8-21.*

1285 *Ibid.*

UGTko afiliazioari dagokionez nabarmendu zuen “(...) *Mugimendua hasi ostean (egin zuela), sindikatuta egotea derrigorrezkoa zelako libreki mugitu ahal izateko*”<sup>1286</sup>.

1939ko abuztuaren 28an, Isidro Juan Albonigak bigarrenez deklaratu zuen Santoñako Saillkapen Batzordearen Aktan zegoen informazio batengatik. Itxuraz, auzipetua “(...) *guardiak egiten ibili zen bere ehiza-eskopetarekin, hilabete batez, errepideak zaintzeko zerbitzuan (...)*”. Batzorde hark, 1937ko azaroan, marinela “(...) *A Atalaren barruan*” sailkatu zuen eta haren askatasuna proposatu<sup>1287</sup>.

Epailearen aurrean Bilbon egin zuen deklarazio berri horretan, Albonigak zaindari armatu moduan izandako zeregina azaltzen finkatu zuen bere jarduna. Kontatu zuenez, “(...) *Mugimendua hasi eta lau edo bost egunetara, Sopelako batzordeak dei egin zion (...) Sopelan aurkezteko, eta itaundu zioten zaindari moduan ibili gura zuen errepidetik eta hondartzatik*”. Marinelak aitaturako “Sopelako batzordea” suposatzen dugu Fronte Popularra osatzen zuten alderdietako kideek osaturako erakundea zela, Errepublikaren Defentsarako Bizkaiko Komisaria Nagusiaren mendekoa. Albonigak onartu zuen zaindaria zerbitzu hori egin izana haren eskutan utzitako “(...) *ehiza eskopetarekin eta lau kartuxorekin*”. Guardiak “(...) *zortzi orduko txandak ziren Sopela inguruko errepideetan eta hondartzan, eta bidaiatzeko baimena zutela modu egokian justifikatzen ez zuen autoak geldiarazteko agindua zuen (...)*”. Hondartzako zerbitzuak gauaz egiten ziren, “(...) *ontzirik pasatzen ote zen edo hondartzan mugimendurik ote zegoen zaintzeko*”. Bere deklarazioaren arabera, “(...) *1936ko irailaren erdialdera arte*” egin zituen zerbitzu horiek, hasia zelarik “(...) *eguneko hamar pezeta kobratzen soldata moduan, zerbitzu hau amaitu baino hilabete lehenago*”<sup>1288</sup>. Guardiak egiten utzi ostean:

*“(...) se presentó voluntario para encuadrarse en una unidad militar, siendo destinado a la Universidad de Deusto, convertida en cuartel, donde estubo haciendo guardias hasta el mes de noviembre que se le destinó al 8º Batallón de la UGT y salió para el frente”*<sup>1289</sup>.

Arrazoi ekonomikoa argudiatu zuen zaintza zerbitzuak egin izana azaltzeko eta gero “(...) *auzi-ihesean zeudenen aldean*” lerrokatu izana azaltzeko. Ziurtatu zuenez, “(...) *itsasontzietan nabigatzeko lekurik ez zegoenez eta bere tutoreen etxean inongo soldatarik ez zuenez, boluntario aurkeztu zen ordaintzen zizkieten eguneko hamar pezetak kobratzeko*”. Epaileak auzipetua kontu horri buruz itauntzen jarraitu zuen, eta galdetu “*ea etxean janariagatik zerbait kobratzen zioten edo bereetatik aparte beste betebeharrak ekonomikorik zuen*”. Albonigak ukatu zuen bere tutoreek ezer kobratzen ziotenik janariagatik, eta gaineratu bere betebeharrak ekonomikoa “(...) *bere gastu pertsonalei*” baino ez zegozkiela.

---

1286 *Ibid.*

1287 I.F.A. 2612-38 auzia, *Preso eta Aurkeztutakoak Saillkatzeko Santoñako Batzordearen akta Juan Torrontegui Garcíaen gainean 1937-11-6.*

1288 I.F.A. 2612-38 auzia, *Auzipetuaren bigarren ikerketa-deklarazioa 1939-8-28.*

1289 I.F.A. 2612-38 auzia, *Auzipetuaren bigarren deklarazioa 1939-8-28.*

Epaileak, teman, itaundu zion orduan *“zertarako behar zituen orduan hamar pezeta haiek (...)”*, eta itsasgizonak erantzun *“(...) janzteko eta bere adineko mutilek dituzten beste gastuetarako”*. Gainera, azpimarratu zuen borondatezko zerbitzua egin izanaren atzean arrazoi ekonomikoak zeudela eta ez kausa *“gorri separatistaren”* aldekoa izatea<sup>1290</sup>.

Bigarren deklarazio horren osagarri, Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandanteak eta Urdulizko alkateak txosten bana ondu zuten Isidro Juan Albonigak Gerra aurretik eta bitartean izandako portaerari eta jarduerari buruz. Guardia Zibilaren txostenean baieztatu zen ez zitzaizola ezagutu *“(...) ezelango jardun politikorik ez sindikalik”*, baina gehitu zuen ustea zela *“(...) Sopelako Eusko Abertzale Ekintza alderdiko afiliatua zela”*. Alboniga beraren lekukotasunarekin bat eginez, nabarmendu zuen *“(...) (Mugimendua) hasi zenean zerbitzu egin zuela zaindari armatu gisa Sopelako Fronte Popularraren agindupean herri hartako hondartzan eta errepedeetan (...)”*<sup>1291</sup>.

Urdulizko alkate Amancio Nievak azaldu zuen auzipetua ez zela *“(...) ezertan nabarmendu, hain gutxi politikan”*, eta bere iritzian *“(...) (eta herriak berretsiko dit) (...) buru-motza”* zela. Beste alde batetik, Sopelako Falangeko buruari itaundu zion itsasgizonaren parte-hartzeaz zaindaritza lanetan, eta hark erantzun han ez zela *“(...) agertzen Ordena Publikoko Kidegoan eskopetari ibili zirenen zerrendan, eta Albónigak aitortu duen gainerako kontuei buruz, ezer”* ez zekiela. Alkateak Isidro Juan Albónigarekin berarekin egin zuen berba, eta mutilak berretsi zuen epailearen aurrean zaindari moduan egindako lanaz aitortu zuen guztia. Nievak berretsi zuen, Urdulizen, akusatuak ez zuela *“sekula jardun”* politikan, eta *“(...) aurrekari oneko mutiltzat (zeukatela), oso serioa eta gutxi ezaguna itsasgizona zelako”*. *“Gutxi ezaguna”* izatea ere argitu zuen: *“(...) oso gutxi ikusarazten zuen bere burua, bai baimenez etortzen zenean bai etxean egoten zenean”*. Alkatea hirugarrenez eta azkenez bueltatu zen bere argudioetara, berriro esateko Alboniga zela *“(...) mutil on bat eta harreman gutxikoa herrian, duda barik bere izaera lotsatiagatik. Inoiz ez zitzaion politika interesatu, eta herri honetan ez zuen esku-hartze politikorik izan gorriak nagusi izan zirenean”*<sup>1292</sup>.

Azkenik, Departamentuko Auditoreak, 1939ko urriaren 21ean, auziaren behin-behineko largespena agindu zuen, honako hau iritzirik:

*“(...) si bien el hecho de servir voluntariamente al enemigo como adherido a la rebeldía pudiera dar lugar a estimar como voluntaria la desertión, no obstante y vista la declaración de la Comisión Clasificadora de Prisioneros, no puede considerarse debidamente justificada la perpetración del delito perseguido (...)”*<sup>1293</sup>.

1290 Ibid.

1291 I.F.A. 2612-38 auzia, Plentziako Guardia Zibilaren txostena 1939-9-1.

1292 I.F.A. 2612-38 auzia, Urdulizko alkatearen txostena 1939-10-15.

1293 I.F.A. 2612-38 auzia, Ferrolgo Itsas-armadako Departamentuko auditorearen dekretua 1939-10-21.

## 2.10.7 Florentino Unibaso Ansoleaga

Gatikan 1914ko otsailaren 25ean jaiota, itsasgizon hau Urdulizen bizi zen. Udal Artxiboan haren zinpeko aitortpena gordetzen da, 1939an egindakoa, Gerra Zibila amaituta, Itsas-armadako Bilboko Komandantzia Militararentzat, gure ustez. Itsasgizon gehienei jazo zitzaien legez, estatu kolpeak itsasoa harrapatu zuen. Florentino Unibaso marinel zebilen Sota y Aznar konpainiaren *Artxa Mendi* itsasontzian. Muselgo portuan (Gijón) lehorreratuta, 37 egunez egon zen bertan. Barkua Errepublikako Gobernuak erreklusatu zuen “(...) *eta behartu Saguntoko porturaino bidaia egitera lingote eta ikatz karga zeroala, baita askatutako portuetara zihoan karga orokorra ere, Tarragonan utzirik zama*”. Portu horretatik, *Artxa Mendi* Valentziara abiatu zen eta handik Bilbora, eta bertara heldu ziren 1936ko urriaren 4an, “*jateko bizigaiak zekartzala*”. Unibaso hilaren 9an lehorreratu zen, eta Deustuko latorritegian hasi zen beharrean. Egun gutxi batzuk geroago, baina, hilaren 23an, erreklutatu eta “(...) *Iturribide kaleko Patronatuko Eskoletako*” *kuartelera*” bidali zuten. “(...) *Lehen lerrora*” igorri zuten, (...) “*Ochandiano*” *Batailoira, eta zauritu eta Asturiasera ebakuatu* (...)”. Han zegoela, Unibasok ihes egin zuen eta Gibajan (Cantabria) ezkutatu, hari eta “(...) *Armada Nazionalak askatu zuen arte. Limpiasen entregatu zuten, Santandergo probintzia*”. Handik Bilboko Basurtoko Ospitalera lekualdatu zen Bilbon, “(...) *eta soldadutzara deitu zioten gero*”<sup>1294</sup>.

## 2.11 Udatiarren aurkako auzipetzeak

### 2.11.1 Rafael Uribe Uriarte

Rafael Uriberen kontrako auzia aztertzen hasi aurretik, merezi du Uribe familiari buruzko zertzelada batzuk ematea. 1829an ezkondu ziren Domingo Uribe Zubiagirre urduliztarra eta Ana Joaquina Elorduy Ibarra, jaiotzez Barrikakoa<sup>1295</sup>. Senar-emazteak Urdulizen bizitzen ipini ziren eta bertan izan zuten Concepción alaba eta bost seme: José Domingo, Juan Tomás, Juan Agustín, Juan Antonio eta Florencio. Bostek Ameriketara emigratu zuten. Haietatik lehenengoa, José Domingo Uribe Montevideora abiatu zen 1847an, eta hurrengo urtean Asunciónera aldatu, bertan bizi zelako bere osaba Miguel Antonio de Elorduy, bi “pulpería”-ren jabe, hala esaten baitzitzaien Paraguayn jakiak, edatekoak eta denetariakoak saltzen zituzten saltzei. Handik gutxira, Juan Tomás Asunciónera joan zen, eta berehala jarraitu zioten gainerako anaiek. Etengabeko lanari esker negozioen martxa ongi joan zen<sup>1296</sup>, eta horrek ahalbidetu zion Uribe familiari maila ekonomiko on batez gozatzea.

---

1294 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Florentino Unibaso Ansoleagaren zinpeko deklarazioa*, 1939, “Garaipenaren urtea”.

1295 B.E.H.A. 2270/003-00.

1296 URIBE Y ELORDUY, José Domingo: *Apuntes biográficos de D. José Domingo de Uribe y Elorduy*, (jatorrizko testuaren transkripzioa, Bilbon, 1944ko urtarrilean, Alberto Urrutia Llonak egindakoa)

1872tik eta 1876ra bitartean Hirugarren Karlistada piztu zen, eta udal ogasunak agortuta utzi. 1875eko urrian, "(...) *miseria gorrian (zegoen Urdulizko herri guztia edo gehiena (...), gauza jakina denez, gerrako gastuei aurre egiteko bizilagunek dituzten zama astunengatik*"<sup>1297</sup>. Egoera ekonomikoa hain zen larria non, 1876ko urtarilaren amaieran, Udalak 50.000 errealeko mailegua eskatu behar izan baitzuen, nori eta Domingo de Uriberi eta bere semeei. Hona erabaki horren arrazoiak:

*"(...) según noticias fidedignas los señores don Domingo de Uribe y sus hijos se hallan con medios suficientes, no solo para prestar dicha cantidad, sino que también muchísima más y más, ya que los hijos del indicado Uribe son naturales de esta Anteiglesia y este un sugeto (sic) que le ha reportado muchos beneficios a esta comunidad, aunque por algunos, en vez de dar las gracias, le habrán dado quizá disgustos sin haber tenido motivo para ello (...)"*<sup>1298</sup>.

Domingo Uribek eta bere semeek eskatzen zien mailegua eman zioten Udalari<sup>1299</sup>. Azaldu berri dugun testuak islatzen duenez, uribetarrak familia dirudun bihurtuak ziren, Paraguayko negozioei esker, eta ez zuten zalantzarik izan hainbat abagunetan Urdulizekin eskuzabal agertzeko. Berbarako, Andra Mariren parrokiako organoa, "(...) *hasieran Bilboko San Antongo elizan paratu zena, (...) parrokia honi (Andra Mari) oparitu zion herri atsegín honetako seme filantropo On Domingo de Uribek (G.B.) (...)*"<sup>1300</sup>.

Rafael Uriberen gurasoak, Juan Tomás de Uribe eta Dolores Zoila Uriarte, 1862an ezkondu ziren Bilboko Santiago Jaunaren Elizan<sup>1301</sup>. Ezkontza horretatik hiru seme jaio ziren (Ignacio, Juan eta aitaturtako Rafael), eta bi alaba (Dolores eta María). Senar-emazteak hiriburu bizkaitarrean bizi izan ziren, eta bertan Juan Tomás Bilboko Paraguayko kotsula izan zen. Hain zuzen ere Bilbon "(...) *kolonietako gaiak inportatzen zituen aspaldiko etxe garrantzitsu baten jabe izan zen, eta gainera kargu garrantzitsuak izan zituen finantza-enpresa ezberdinetan*"<sup>1302</sup>.

Semeetako bat, Juan Uribe Uriarte, Carmen Echevarriarekin ezkondu zen, *El Noticiero Bilbaíno*-ren sortzailearen alabarekin, hortaz. Juan Tomás Uriberen heriotzaren unean, 1923ko otsailean<sup>1303</sup>, egunkariko buruak ziren bere

1297 U.U.A. "Historikoa", 4. kaxa, Erabaki eta dekretuen liburua 1869-1877, *Bilera-akta* 1875-10-7.

1298 U.U.A. "Historikoa", 4. kaxa, Erabaki eta dekretuen liburua 1869-1877, *Bilera-akta* 1876-1-30.

1299 U.U.A. "Historikoa", 4. kaxa, Erabaki eta dekretuen liburua 1869-1877, *Bilkura berezia. Aldundiak bermatzaileen gainean (Uribe eta bere kideak) egindako komunikazio bat du gaia* 1876-12-26.

1300 *Euzkadi* 1923-2-2.

1301 B.E.H.A. 0690/001-00.

1302 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-2-9.

1303 *El Nervión* egunkarian, 1923-2-9, Juan Tomás Uriberen bizitza profesionala aitazuek gain, haren izaera ere jorratu zuten, honela: "Zuzentasun mugagabea agertu zuen lanaren aldeko eguneroko borrokan. Horrek, eta tratuan atsegina izateak eta bere izaera xaloak haren adiskide izateaz ohoretu ziren jende asko eta askoren begirunea eta estimua ekarri zizkioten."

emaztearen hiru nebak, Ramón, Ricardo eta Alejandro Echevarría. Horregatik ez da harrizkoa, Uribe familiari doluminak adieraztean, *El Noticiero Bilbaíno*-ren orrialdeek hartzailea modu berezi honetan aitatu izana: “*Don Juan, gure nagusi estimatuen ezkonanaia*”<sup>1304</sup>.

Rafael Uriberi dagokionez, nazionalismoaren lehen urteetako historiaren parte izan zen, eta Bilboko Udaletxeko zinegotzi aukeratu zuten 1901eko azaroan<sup>1305</sup>. Aurrerago, *Bizkai Buru Batzarreko* kide izan zen; hala azaltzen da bere osabaren heriotzari buruzko berrian, José Domingo de Uribe y Elorduy “*merkatari errespetagarria*”, 1913an: *Euzkadi* egunkariak bere doluminak adierazi zizkion hildakoaren “*familia agurgarriari*” eta “*bereziki bere iloba On Rafaeli, lagun maite, abertzale sutsu eta BBBko kide (...)*”<sup>1306</sup>.

Rafael Uribek Bigarren Errepublikaren garaian egin zuen ibilbidea berreraikitzeke, 1937ko ekainaren 28an Bilboko 2. Epaitegi Militar Berezian egindako deklarazioa hartu dugu oinarritzat, atxilotua eta Larrinagako Espetxean sartua izan ostean, Bizkaiko Bankuko Administrazio Kontseiluko Lehendakari izateagatik lehenengo Eusko Jaurlaritzak izendatuta. Deklarazioan, Uribek bere ideologia nazionalista onartu zuen, baina ohartarazi “*(...) alderdiaren jardueratik at bizi izan (...)*” zela. Beste alde batetik, EAJn 1931n sartu zela esan zuen, alde batera utziz 1923 aurreko bere ibilbidea, eta adierazi zuen sartu zela “*(...) Lizarrako Estatutuaren aldeko kanpaina hastean, bere sentimenduekin bat zetozelako alderdi politiko guztien arteko hurbiltzeari erantzuten zion mugimenduarekin*”. EAJrengandik urrundu zen, ostera, “*(...) Prietok eta Aguirrek berba egin zuten batzarrarekin batera; orduan erabaki zuen (...) uztea, baita hala egin ere (...)*”<sup>1307</sup>. Itxuraz, Uribek 1934ko irailaren 2an Zumarragan egindako batzarraz ziharduen, bertan beste batzuen artean Aguirrek eta Prietok parte hartu baitzuten. Baina ezin dugu baztertu haren berbak Francesc Macià lehendakari ohi katalanari Bilbon 1936ko apirilaren 14an egin zitzaion omenaldia hipzide izatea, bertan sinbolizatu zelako, Aguirreren eta Prietoren mintzaldiekin, nazionalismoaren behin betiko hurreratzea ezkeraren aldera, Estatutuaren lorpenaren gurzpean.

Gerra Zibilaren etorrerak Urdulizen harrapatu zuen Rafael Uribe, bere udaldietako lekuan, *Torre Barrian*. Deklaratu zuenez, “*(...) jazarpenak saihesteko alderdi nazionalistaren txartel berri bat eskuratu zuen, jarraitzaile gisa, inongo arazo eta konpromiso barik eman zitzaiona (...)*”. Azpimarratu zuen asko izan zirela “*eskumako pertsonak*” txartel nazionalista egin zutenak “*arnasten zen indarkeria giroa zela-eta*”. Beste alde batetik, adierazi zuen EAJK aurrera eramandako ekintzak “*(...) muturrekoekin elkar hartuta, beti higuigarriak iruditu zitzaizkiola, eta gerra-izaerakoak, gainera, suizidak*”, eta adierazi zuen pentsamolde horiek gatazkak iraun zuen bitartean ere eduki zituela<sup>1308</sup>.

---

1304 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-2-9.

1305 *El Nervión* 1901-11-11.

1306 *Euzkadi* 1912-8-16.

1307 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 1274-37 auzia, *Rafael Uribe Uriarteren deklarazioa* 1937-6-28.

1308 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Rafael Uribe Uriarteren deklarazioa* 1937-6-28.

1937ko urtarrilaren 5ean, Bizkaiko Bankuko Administrazio Kontseiluko lehendakari izendatu zuten Euzkadiko Gobernuko Ogasun sailburu Heliodoro de la Torreraren aginduz<sup>1309</sup>. Antzaenez, Uribek prentsaren bidez izan zuten bere izendapenaren berri. Berehala, eskutitz bat idatzi zion izendapenari uko egitearren. Erantzun gisa beste eskutitz bat etorri zitzaion, eta bertan *“kargu hura derrigorrezkoa eta lagaezina”* zela adierazi. Izendapena ez onartzera deliboratuta, *“On Heliodoro de la Torre bisitatu zuen, ezagutzen ez zuena”*. Topaketa hartan, kargua ez onartzeko arrazoiak adierazi zizkion Ogasun sailburuari: bere gaitasun eza eta prestakuntza falta. Arrazoi horiek ez zuten De la Torre makurrarazi, eta Bankuaren lehendakaritza hartzera behartu zuten *“(…) errebeldeztat eta erregimenaren kontrakotzat jotzeko mehatxupean, mehatxu hori betetzeak ekarriko zizkion ondorio guztiek”*<sup>1310</sup>.

Rafael Uriberen kontrako auzian 14 pertsonen testigantzak aurkitu ditugu, 1937ko ekainetik iraila bitarte eginak, eta gehienak aldekoak izan ziren, auzipetuaren deklarazioa indartzen zutenak. Lekuko horien artean zeuden, esate baterako, Luis Lezama Leguizamón politiko tradizionalista, edo Esteban Bilbao Eguia karlista, geroago, 1939an, bigarren gobernu frankistako Justizia ministro izango zena eta Gorteetako lehendakari 1943tik 1965era. Beste lekuko batzuk uribetarren senideak ziren, matxinatuen bandokoak.

Julio Uruñuela medikuak, Rafael Uriberen arreba Concepciónen alargunak<sup>1311</sup>, azaldu zuen aspalditik ezagutzen zuela auzipetua eta *“persona bikaintzat”* zeukala. Uruñuelaren arabera, Uribek *Bizkaiko Bankuko* lehendakari kargua onartu zuten *“(…) familia guztiaren iritziaren kontra”*. Azkenik, adierazi zuten auzipetuak ezkutatu zuela *“(…) Urdulizko bere etxean On Luis de Villabaso, deklaratzailaren suhia eta Euskal Gobernu delakoak jazarria”*<sup>1312</sup>.

Luis Villabaso Zabaletak, industria gizon bilbotarra eta Rafael Uriberen iloba bera, baieztatu zuten bere osabaren babesa izan zuela eta *“(…) hainbat hilabetez ezkutatuta”* gorde zuela, lehenik *Torre Barrian* eta geroago *“(…) baserri bateko ezkutaleku berri”* batean. Villabasok adierazi zuten osabaren laguntzari esker *“(…) bizitza salbatu zuela”* eta, bere ustez, Uribe nazionalista izatea izan zen *“(…) deklaratzailaren aurkako jazarpena ekiditeko”* arrazoia. Villabasok *“bikaintzat”* jo zuten osabaren jarrera, baina era berean adierazi zuten *“uste osoko nazionalista”* zela eta *Bizkaiko Bankuko* lehendakaritza onartua zuela *“(…) Heliodoro de la Torrek egin zizkion mehatxuek behartuta”*<sup>1313</sup>.

---

1309 B.P.A.O. 90. zk., asteazkena, 6 de enero de 1937ko urtarrilaren 6a.

1310 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Rafael Uribe Uriarteren deklarazioa* 1937-8-26.

1311 *El Nervión* 1893-10-2 *Concepción Uribe Uriarteren eskela*

1312 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Julio Uruñuela Lanciaren deklarazioa* 1937-9-(irakurrezina).

1313 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Luis Villavaso Zabaletaren deklarazioa* 1937-9-22.



Luis Muntaner Canet Armadako komandanteak Rafael Uribe ezagutzen zuen bere senide baten koinatuaren aita zelako. Kontatu zuenez, Muntanerrek Uriberi eskatu zion “(...) urritik bere etxean gordetzeko sekretupeko zenbait orri, kutsu faxista itzela zutenak, berba egiten ari denaren anaiari zuzenduak, Estatu Nagusiko koronela eta Gerra Idazkaritzako bigarren burua bera (...)”. Idazki hauek edukitzea arriskutsua zen Muntanerrentzat, eta Uribek gorde zituen “(...) azken momentura arte, horrek ekartzen zizkion arriskuez ederto jabetuta egonda ere”. Horretaz gain, Muntanerrek azaldu zuen Rafael Uribek esku hartu zuela bere osaba bat aske utzi zezaten, D.L. Armando Zalbidea, “(...) bere ideia eskuindarreatatik atxilotuta” zegoenean. Uribek egindako gestioak “(...) badaki adiskidetasun partikularren bidetik egin zirela eta ez izaera politikoko itzalaz baliatuta”. Azkenik, komandanteak gehitu zuen bazekiela Uribe EAJko militante izana zela, baina “(...) duela urte batzuetatik hona erabateko jarrera pasiboan mantentzen” zela<sup>1314</sup>.

Alejandro Bejarano Murga abokatu bilbotarrak kontatu zuen Karmeldegiko espetxean zegoenean Rafael Uriberen bisita jaso zuela, bezero ohia baitzuen. Uribek Bejaranori itaundu zion zer egin zezakeen *Bizkaiko Bankuko* lehendakari karguaren izendapenari buruz, kargu bat, aitatutako abokatuaren deklarazioaren arabera, “(...) zalantza barik, gura ez zuena”. Bejaranok aholkatu zion uko egiteko, baina Uribek “(...) bere beldurra adierazi zion *Heliodoro de la Torre* k hura atxilotzeko mehatxua beteko ote zuen” izendapena onartu ezean, derrigorrezkoa zen-eta. Beste alde batetik, Uribek kontatu zion Bankuko zuzendari Venancio Echebarriak, Ibañez anaiek eta Alejandro Bejaranoren aitita Nicolás Murgak adierazi ziotela “(...) bere zuzentasunagatik eta *Erakundearen* interesak defendatzeko gurari onengatik, postua onartu beharra zuela (...) beldur baitziren, bestela, gizaseme zitelen baten eskutara etorriko ez ote zen”. Murgak bere bilobari baieztatu zion Uriberi jarraibide hori eman ziola. Bejaranok gehitu zuen gainera Uribek ez zuela kargua onartu aberasteko asmoarekin “(...) ez zelako jasotzera heldu (...) inolako ordainsaririk”. Azkenik, abokatu bilbotarraren arabera Uribek EAJ gerra hasi baino urte bete lehenago laga zuen “(...) nahiz eta egia izan jendeak” nazionalistatzat hartzen zuela eta “bere etxean giro bizkaitarra sumatzen zela, emaztea nazionalista sutsua zelako”<sup>1315</sup>.

Venancio Echevarria delakoak, Bizkaiko Bankuko zuzendaria bera, ez zuen argibide askorik eman ahal izan Uribek entitateko lehendakaritzan egindako jardunaz, haren izendapenetik, 1937ko urtarrilaren 8an, saio batera baino ez zelako joan. Hilaren 22an ihes egin zuen “*Espainiako liberatutako eskualdera*”. Horregatik, Uribek Bankuan egindako lanaz zekiena “*jasotako zurrumuruengatik*” ezagutzen zuen, eta horiek adierazten zuten “(...) bere papera ia pasiboa zela eta momentuoro *Euzkadiko Gobernutik zetozen aginduen esanetara jardun zuela*”<sup>1316</sup>.

---

1314 Ibíd. *Luis Muntaner Caneten deklarazioa* 1937-7-30.

1315 Ibíd. *Alejandro Bejarano Murgaren deklarazioa* 1937-9-21.

1316 I.T.A.M. Bilboko Funtza, 1274-37 auzia, *Venancio Echevarria Cariagaren deklarazioa* 1937-9-22.

Restituto Azqueta Belausteguik, bankuko kontseiluan Eusko Jaurlaritzak kargugabetutako kideetako batek, deklaratu zuen Uribek adierazi ziola “(...) *nahiz eta postu hura obedientziagatik eta alderdi-disziplinagatik bete, berba egiten duen hau (Restituto Azqueta) eta kargugabetutako gainerako kideak zirela Kontseilu legitimoa*”<sup>1317</sup>.

Rafael Uribe “*Vasco-Navarra*”ko ordezkaria zen, eta Luis Lezama Leguizamon, aseguru-konpainiaren bezeroa izanik, elkarrekiko harremana zuten biek. Gerrak Bizkaian iraun zuen denboran espetxeratuta egon zenez, Luis Lezamak ezin izan zuen bere testigantza eman epealdi horretako Uriberen jardunaz. Hala eta guztiz ere, bai eman ahal izan zuela iritzi pertsonal bat, eta “*ordenako pertsonatzat zuela (esan zuen), ondradua eta langilea eta, jendearen iritzi, alderdi Euskal nazionalistaren jarraitzailea*”, nahiz eta nabarmendu zuen azken hau ezin zuela ziurtatu modu fidagarrian<sup>1318</sup>.

Esteban Bilbao Eguiak ere, aurreko kasuan bezala, ezin izan zuen Uriberen jardunari buruzko daturik eman, “gorri-separatistak nagusi izan ziren bitartean” espetxean egon zelako, gero atzerrian eta, azkenik, “eremu nazionallean”. Horregatik bere testigantza gerra aurreko denboraldian finkatu zen. Hartara, Rafael Uribe “(...) *ezin portaera hobeko gizontzat (jo zuen), elizkoia, Sabino Aranatarren militante nazionalista, eskuarki begi txarrekin ikusi zutenetarik Euzkadiko Gobernuaren jarrera*”<sup>1319</sup>.

Antonio Elías Suarez abokatu barakaldarrak ere Sabino Arana ekarri zuen bere deklaraziora. Gainerako lekukoak baino oldarkorrago agertu zen hura. Modu horretan, itaundu zitzaionean Rafael Uriberen jokabideaz Bizkaiko Bankuko Administrazio Kontseiluko kontseilari eta buru moduan, Antonio Elíasek erantzun uste zuela:

*“(...) víctima de su antiguo y nunca desmentido nacionalismo, pues era miembro del equipo político de Sabino Arana y, consecuente con tal formación ideológica, fue a su puesto del Banco, desde el que asistió y toleró cuantas anormalidades allí se cometieron, si bien es cierto que no se destacó por sus iniciativas, concretándose su actuación a un absoluto asentimiento de las directrices marcadas por el Gobierno de Euzkadi*”<sup>1320</sup>.

---

1317 Ibíd. Restituto Azqueta Belausteguiaren deklarazioa 1937-9-22.

1318 Ibíd. Luis Lezama Leguizamon Zuazolaren deklarazioa 1937-8-5.

1319 Ibíd. Esteban Bilbao Eguiaren deklarazioa 1937-9-24.

1320 Ibíd. Antonio Elías Suarezaren deklarazioa 1937-9-22.

Gainerako testigantzek, zeinen artean elizgizon bi zeuden, aita Remigio Vilariño Ugarte eta aita Francisco Javier Maruri Orueta, bat egiten zuten Rafael Uriberen portaera moral eta erlijiosoa eta “*fama ona*” goratzean<sup>1321</sup>.

1937ko irailaren 21ean, Rafael Uribek eskatu zion gerra-auditoreari onar ziezaizkion “(...) *behin-behineko askatasunaren onurak edo, horren ezean, presondegi arinduarenak*”. Horretarako, “*bere adin handia*” arrazoitu zuen, 63 urte, baita bere osasun egoera ere. Horretarako, delako Julio Uruñuela doktoreak egindako ziurtagiri medikua aurkeztu zuen, presoak bihotz arazoak zeuzkala arrazoitzeko<sup>1322</sup>. Irailaren 24an presondegi arindua onartu zioten, bere etxean betetzekoa, baita aske utzi ere<sup>1323</sup>, 2. Epaitegi Militarrean lau egunero agertzeko betebeharrarekin<sup>1324</sup>.

1938ko urrian, Rafael Uribek deklarazioa eman zuen berriro eta, gainera, testigantza hartu zitzaizen hiru urduliztarri eta Uribe-Uriartetarrak gerra aurretik bizi ziren Bilboko Rodríguez Arias kaleko zenbait bizilaguni.

Urriaren 4ko deklarazioan, Uribek bere aurreko testigantza berretsi zuen, eta gehitu ez zekiela zergatik izendatu zuten Bizkaiko Bankuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, baina “(...) *arrazoi funtsatuak bazeuzkala sinesteko oinarri bakarra bere itzala izan zela, ideia politiko guztiak aparte utzita*”. Galdetuta ea “(...) *konturatzen zen bere presentziarekin*” administrazio kontseiluko saioetan “*prestigioa ematen ziela hartutako erabakiei (...)*”, Uribek argudiatu zuen, kargurako bere prestakuntza falta zela-eta, “(...) *uste gutxi zuela Kontseilu horri ezelango prestigiorik ematen zionik*”. Horrez gainera, Rafael Uribek aitortu zuen “(...) *bere burua sarkintzat zeukala kargu horretan egoteagatik eta (...)* sakrifizio ikaragarria ekarri ziola”. Orobat gaineratu zuen “(...) *ez zela konturatu bere izendapenak ezelango kutsu politikorik izan zezakeenik, eta izaera administratibokotzat besterik ez zeukala (...)*”<sup>1325</sup>.

Juan Bautista Zabala Ostolozagak, Juan José Carrason Urrechagak eta Antonio Larrabeitia Uribarrik, hau da, Lekukotasuna eman zuten Urdulizko hiru bizilagunek antzeko deklarazioak egin zituzten. Horiek ere egiaztatu zuten auzipetuaren elizkoitasuna eta pertsona eskuindarren salaketan ez zuela parte hartu, baita adierazi ere bere etxean babestu zuela “*eskumako pertsona bat*”, Luis Villabasoren aipamen argia eginez. EAJkoa zela-eta, Carrasonek adierazi

---

1321 Ibíd. José Escudero Toledoren deklarazioa 1937-9-(irakurrezina), Remigio Vilariño Ugarte aitaren deklarazioa 1937-9-21, Francisco Javier Maruri Orueta aitaren deklarazioa 1937-9-22, Eduardo Crespo Martínez de Osabaren deklarazioa 1937-9-22, eta Alejandro Gaytan de Ayala Ansoteguiaren deklarazioa 1937-9-22.

1322 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, Julio Uruñuela doktoreak emandako osasun ziurtagiri ofiziala 1937-8-30 eta Rafael Uribe Uriarteren eskaera Bilboko Plazako gerra-auditoreari zuzendua 1937-8-21.

1323 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 1274-37 auzia, Okupazioko armadako Auditoretzaren mezua, 1937-9-24.

1324 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 1274-37 auzia, 2. epaile militar bereziaren probidentzia, 1937-9-25.

1325 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, Segunda Rafael Uribe Uriarteren deklarazioa 1938-10-4.

zuen uste zuela Uribe EAJren jarraitzailea zela “(...) *hala esaten zutelako herrian*”, baina berarekin berrikeretan inoiz ez zutela horren gainean berba egin. Bai, ostera, “(...) *erlijio kontuen gainean eta beti berba egin zuen benetako kristau baten moduan*”. Antonio Larrabeitiak, berriz, azaldu zuen Rafael Uribe “(...) *ideia separatistetakoa zela, baina ezin zuela zehaztu afiliatuta zegoen edo ez alderdi horretan*”. Antzera berba egin zuen Juan Bautista Ostolozagak. Uribe gerra bitartean Bizkaiko Bankuko Zuzendari karguan ibili zela-eta, Carrasonek aditzea zeukan eta esan zuen entzunda zeukala “(...) *kargua betetzera behartu zutela, moral eskaseko nor edo nor kargua betez gero banku-administrazioan sor zitzakeen gaitzak galarazi guran*”. Larrabeitiak ere entzutez ezagutzen zuen Uriberen lana, nahiz eta piperrik jakin ez “(...) *jardun horrekin zerikusia duen guztiaz*”<sup>1326</sup>.

Beste alde batetik, deklarazioa eman zuten bere Bilboko eraikineko ia bizilagun guztiek bat egin zuten auzipetuaren ideologia nazionalista salatzerakoan. Esate baterako, Gaspar Alfonso Herránek defendatu zuen Uribe zela “*separatista nabarmena eta alderdi horretakoa zela fundatu zuten garaitik*”<sup>1327</sup>. Gasparren arrebak, Pilar Alfonso Herránek, gehitu zuen gainera “(...) *Errepublikak heldu zeneko lehen uneetan, deklaratzailerak On Rafael Uribe eta bere emaztea ikusi zituela separatistek egin zuten manifestazioan euren zorioneko Aberri Egunean (...)*”<sup>1328</sup>, hau da EAJk Bilbon 1932an egindakoan. Haietako batzuek beste zerbaitetan ere egin zuten bat: Rafael Uribek atzerrira hegazkinez ihes egiteko ustezko asmoa. Gaspar Alfonsok adierazi zuen auzoko bati berbetan entzun ziola Uribek Frantziara hegazkinez alde egiteko planen gainean “(...) *tropa nazionalak gertu zeudela-eta, baina ezin izan zuela egin hegazkin zerbitzua bertan behera utzi zelako (...)*”<sup>1329</sup>. Pilar Alfonsok bere nebaren ildo beretik jo zuen, baina jakin barik zergatik ezin izan zuen Rafael Uribek hegazkinez alde egin<sup>1330</sup>. María Estrade Lópezen testigantza araberak, “(...) *behin entzun zion Rafael Uriberen emazteari bere senarrak atzerrira joateko asmoa zeukala hegazkinez, baina ez zekiela ganoraz esan zuen edo ez, ez zuen-eta alde egin*”<sup>1331</sup>.

Gerra bitartean izandako “*jardunaz*”, guztiek zekiten Bizkaiko Bankuko lehendakari izendatu zutela. José Luis de la Gandara Ustarak adierazi zuen “(...) *segurutik, bere ideia separatista irmoengatik*” izendatu zutela<sup>1332</sup>. Pilar Alfonsok antzera berba egin zuen, iritzirik “(...) *Rafael Uriberi eskaini ziotela ideia politikoeetan guztiz separatista zelako(...)*”<sup>1333</sup>.

---

1326 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Juan Bautista Zabala Ostolozagaren deklarazioa 1938-11-4, Juan José Carrason Urrechagaren deklarazioa 1938-11-4, eta Antonio Larrabeitia Uribarriren deklarazioa 1938-11-4.*

1327 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Gaspar Alfonso Herránek deklarazioa 1938-11-16.*

1328 I.T.A.M. Bilboko Funtsa 1274-37 auzia, *Pilar Alfonso Herránek deklarazioa 1938-12-3.*

1329 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Gaspar Alfonso Herránek deklarazioa 1938-11-16.*

1330 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Pilar Alfonso Herránek deklarazioa 1938-12-3.*

1331 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *María Estrade Lópezen deklarazioa 1938-12-4.*

1332 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *José Luis de la Gandara Ustararen deklarazioa 1938-11-16.*

1333 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, *Pilar Alfonso Herránek deklarazioa 1938-12-3.*

Fiskalak hamabi urte eta egun bateko espetxealdi txikiko zigorra eskatu zuen matxinadari laguntza emateagatik, eta Rafael Uriberen defentsak, berriz, absolutioa. Ez bata ez bestea, azkenean auzipetua urte beteko espetxealdi txikira kondenatu zuten 1938ko abenduaren 1ean<sup>1334</sup>. Epai horretatik hilabete bira, 1939ko urtarrilaren 26an, Urdulizen hil zen bere emaztea, Susana Guimón<sup>1335</sup>.

## 2.11.2 Juan eta Luis Estrade Alda anaiak

Juan eta Luis Estrade Alda, Juan Estrade López eta Raquel Alda Gorostiolaren semeak ziren. Aldak Santiago Alda Jubera burukide jeltzalea zuen aita<sup>1336</sup>, Sabino Aranaren lagun pertsonala eta EAJko lehen kideetakoa. Alda-Gorostiolatarren alaba zaharrenak ere bereganatu zuen aitaren ideologia eta *Katali* gaitzizena hartuta, euskal nazionalismoaren lehen emakume propagandistetakoa bilakatu zen. Gainera, *Emakume Abertzale Batzako* lehendakariorde izatera heldu zen Bigarren Errepublikaren garaian<sup>1337</sup>.

Estradetarrak Frantziatik zetozen, zehazki Arbás herrixkatik, Garona Garaiko departamentuan. Handik heldu ziren Bilbora lehenengo Estradetarrak, Luis eta Juan Bautista Estrade Bordes anaiak, 1852an bahegintza negozio bat ireki zutenak Atxuriko auzoan (Bilbo). Luis Estrade Bordes Ventura Lópezekin ezkondu zen eta ezkontza hartatik alaba bat eta lau seme eduki zituzten, besteak beste Juan Estrade López aipatutakoa. Aita hildakoan, Juan Bautista Estrade bere anaia geratu zen negozioaren buru<sup>1338</sup>, 1908ko abenduaren 9an hil zen arte<sup>1339</sup>.

Juan Estrade Lópezek orduan hartu zuen bere gain familiaren negozioaren zuzendaritza osoa. 1909 aldera ezkondu zen Raquel Aldarekin, "(...) *senarra baino hogeit bat urte gazteagoa*" izan arren, eta senar-emazteek Gran Vía bilbotarreko 6. zenbakian ezarri zuten euren bizitokia<sup>1340</sup>. Estrade Alda familiak, orri batzuk lehenago adierazi bezala, Urdulizen ematen zuen uda, *Villa Odonan*, nahiz eta ez dakigun noiztik<sup>1341</sup> eta zergatik aukeratu zuten Urduliz udaldia pasatzeko. Itxura guztien arabera, adiskidetasun loturak ziren tartekoa. Hartara, batetik, Raquel Aldaren aita, aitaturako Santiago Alda, Rafael Uriberekin

---

1334 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 1274-37 auzia, 2. *Gerra-kontseilu Iraunkorraren Epaia*, 1938-12-1.

1335 *La Gaceta del Norte* 1939-1-27 *Susana Guimónen eskela*.

1336 *Euzkadi* 1926-8-11 *Santiago Alda Juberen eskela*. Raquel Aldaren aita 1926ko abuztuaren 10ean hil zen.

1337 <http://www.euskomedia.org/aunamendi/397> Hitza: Santiago Alda Jubera.

1338 BASAS, Manuel: "Los Estrade, en Achuri desde 1852" in *Comercio* 45. *Revista editada por las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao y Guipuzcoa*, 14 zk., 1990eko otsaila, 43-44.

1339 *El Nervión* 1908-12-9. *Juan Bautista Estrade Bordesen eskela*.

1340 BASAS, 43-44.

1341 Topatu dugun aipamenik zaharrena 1913koa da. *Euzkadin*, 1913-8-9, *Viajando atalean hau agertu zen: "Juan de Estrade jauna Urdulizera joan da"*.

suertatu zen EAJn<sup>1342</sup>; eta, beste alde batetik, antza, Aznar familiaren negozioren administratzaile moduan<sup>1343</sup>, Pedro Goirigolzarriekin jarri zen harremanetan, Sota y Aznar ontzi-konpainiako kapitain-ikuskatzailea bera. Hara, itxuraz, zergatik pasatzen zituzten udak *Villa Odonan*, hura izanik delako Goirigolzarriren emaztearen familiarena: Zarragatarrak. 1935eko ekainaren 24an Juan Estrade López hil zenean, Raquel Aldak bere bizkarrean hartu zuen familiaren Atxuriko negozioa. Eskelak jaso zuenez, ezkontza hartatik zortzi seme-alaba geratu ziren: Raquel, Juana, aitaturako Juan eta Luis, Santiago, María Milagros, Eduardo eta Iñaki. Estrade-Aldatarrek ahaidetasuna zuten politikoki monarkiko-eskuindarrak ziren pertsonekin: Manuel de Ozamiz, Raquel Estrade Aldaren senarra; eta José Luis de la Gándara, María Estrade Lópezekin ezkontuta zegoena, Juan Estrade zenduaren arrebaordea bera<sup>1344</sup>. Ikusiko dugun bezala, ahaidetasun horiek funtsezkoak izan ziren Juan eta Luis Estraderen patua erabakitzeke orduan, haien prozesamenduen amaieran. Biak, bereziki Juan, ikerketapean egon ziren Austriako kontsul Guillermo Wakoniggen fusilamenduarekin loturik, 1936ko azaroan<sup>1345</sup>.

**Juan Estrade Alda Ertzañakoa** izan zen. Agintari militar frankistei Bilbon aurkeztu zitzairen 1937ko ekainaren 18an, aldean “(...) *fusila, pistola eta Opel markako automobila*” zeramatzala<sup>1346</sup>. Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeke Deustuko Batzordeak abuztuaren 4an sailkatu zuen “A” atalean, aske uztea zekarrena, horretarako oinarri izan zirelarik Estradek azaldutako aurrekariak, Urdulizko alkatearen eta abade nagusiaren ziurtagiriak eta San Fermín tertzioko teniente Félix Pinedo Ruizek sinatutako bermea<sup>1347</sup>.

Estradek kontatu zuen gerraren etorrerak “*Urdulizen uda pasa*” harrapatu zuela, ez zuela “(...) *inongo jarduerarik izan harik eta bere kinta laster deituko ote zuten beldur, eta frontera ez joateko Polizia Militarrean aurkeztu zen arte, Ertzañan, eta Intendentziako txofer gisa zerbitzu egin zuen (...)*”. Beste alde batetik, onartu zuen EAJn afiliatuta zegoela, nahiz eta adierazi “(...) *harengandik urrunduta zegoela otsaileko hauteskundeetan hartutako jarreragatik*”<sup>1348</sup>.

1342 Estrade-Alda senar-emazteen alderako gertutasunaren froga da Rafael Uribe egotea Juan Estrade Lópezen aitaren bigarren emazte Sandalia López de la Mataren hileta-elizkizunetan, “*errespetuzko aizkora bat*” zeroala. (*Euzkadi* 1931-5-23).

1343 <http://www.euskomedia.org/aunamendi/397> Hitza: Santiago Alda Jubera.

1344 *Euzkadi* 1935-6-25 *Juan Estrade López eskela*, eta “*Notas Tristes*” atala.

1345 Wilhelm Wakonigg (1875-1936) diplomatiko austriar bat izan zen, Bilbon bere herriko kontsul ibili zena XX. mendeko bigarren hamarraldian. 1936ko abuztuan kontsul eginkizunak bereganatu zituen berri. Espainian zeuden Austriako herritarren pasaporteez arduratzea zuen lana. Wakonigg Bizkaiko gizaritean guztiz txertatutako gizona zenez, traba barik jardun ahal izan zuen. 1936ko urriaren 28an, baina, “*Exmouth*” ontzian itsasoratu baino lehen atxilotu zuten, bere maletan bando frankista helmuga zuten isilpeko txostenak aurkituta. Poliziak argitu zuenez, deseginda geratu zen espioitza-sare bateko burua zen Wakonigg. Bizkaiko Herri-Auzitegiak azaroaren 18an epaitu zuten eta heriotz-zigorra ezarri. Biharamunean exekutatu zuten Derioko kanposantuan. (Iturria: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/140304>)

1346 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 azuia, *Identifikazio gutun-azala*

1347 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 azuia, *Juan Estrade Aldaren deklarazioa Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeke Deustuko Batzordearen aurrean* 1937-8-4. Bere deklarazioan, Juan Estradek adierazi zuen bere aurkezpena 1937ko ekainaren 19an izan zela.

1348 *Ibid.*

Urdulizko abade Serafin Sagarnak eta Manuel Uribe alkateak, biak ala biak, adierazi zuten 22 urteko gaztearen jarrera morala ona izan zela. Sagarnak gehitu zuen, gainera, Raquel Alda “(...) *bere ama alargunak Kultu eta Elizjendearantzako Diruaren Obrari laguntzen diola*”<sup>1349</sup>. Alkateak, berriz, Estrade EAJKo afiliatua zela aipatu zuen eta “*Erzaña (sic) boluntario*” ibili zela<sup>1350</sup>.

*Bizkaiko Ordena Publikoko Ordezkaritzak* irailaren 12an egindako txosten berriek berekin ekarri zuten Sailkapen Batzordeak aldatzea Juan Estraderen estatusa “C” atalera, eta auzia irekitzea<sup>1351</sup>. Txosten horietan azaltzen zen Estrade zela “(...) *nazionalista porrokatua eta harrokerietan dabilela bera dela-eta Wakonnig jauna salatu zuena*”. Beste akusazio batek gerra bitartean Plentziako “(...) *Ordena Publikoko Departamentuko*” buruetako bat izana leporatzen zion. Ordena Publikoko Ordezkaritzak, gaztearengan ez ezik, amarengan ere ezarri zuen begia: “(...) *Euzkadiko Gobernuaren denboran miatzaile ibili zen barkuetan, miaketak egiten, eta Eduardo Molano jauna salatu ei zuen, gero Ángeles Custodiosen akatu zutena*”<sup>1352</sup>.

Auzia irekita, azaroaren hasieran Bilboko 12. epaile militarrek argibideak eskatu zituen, Estrade non ote zegoen, ez baitzegoen jadanik Deustuko Unibertsitateko Presondegian. Kartzela hartatik jakinarazi zen irailaren 18an, preso Burgosko Errekluta Kaxara bidali zutela<sup>1353</sup>. Burgosen atxilotzeko gestioek ez zuten fruiturik eman, Bizkaiko Ordena Publikoko Ordezkaritzak aditzera eman zuenez, Estrade ez zegoelako dagoeneko hiriburu gaztelar horretan. Nahiz eta Ordezkariek adierazi zuen suposatzen zuela gaztea “(...) *atzerrian zegoela, bere familiarekin alde eginda (...)*”<sup>1354</sup>, egiazki gerra-frontera bidalia zuten. 1938ko urtarrilean Aragoiko frontean zegoen, Automobilen 2. Batailoiko 2. Konpainian<sup>1355</sup>.

Azkenik, Juan Estrade 1938ko maiatzaren 31n atxilotu zuten Aragoian, eta handik Burgosko presondegira eroan zuten<sup>1356</sup>. Bitartean, euren bidea egin zuten Estraderen gerra bitarteko jardunaren gaineko ikerketek Euskadin. 6. Barruti Militarreko Estatu Nagusiak osatutako txostenean, Estraderi leporatu zitzaion Guillermo Wakoniggen ondasunen miaketaren arduradun zuzena izatea, modu honetan: “(...) *haretzek proposatu zuen diplomatikoak hiriburutik alde egiten*

---

1349 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Serafin Sagarnak egindako ziurtagiria* 1937-8-5.

1350 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Manuel Uribek egindako ziurtagiria* 1937-8-4.

1351 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Deustuko Batzordearen irizpena Juan Estrade Aldaren gainean* 1937-9-23.

1352 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko Ordena Publikoko Ordezkaritzaren txostenak* 1937-9-12.

1353 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *12. epaile militar iraunkorren mezua, Deustuko Unibertsitatean eratutako Presondegiak arduratzen den teniente koronelari zuzendua* 1937-11-8.

1354 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko Ordena Publikoko ordezkarieren mezua, Bilboko 12. epaile militarri zuzendua* 1937-11-29.

1355 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, Causa 10315, *Bizkaiko Ordena Publikoko ordezkarieren mezua, Bilboko 12. epaile militarri zuzendua* 1938-1-17.

1356 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko Ordena Publikoko ordezkarieren mezua, Bilboko “J” letrako instrukzioko epaile militarri zuzendua* 1938-12-33.

*saiatzerakoan zeroan maleta miatzeko (...) eta miatze horren ondorioz fusilatua izan ziren, ez bakarrik jaun hura, baita Estatu Nagusiko kapitain Murga jauna eta beste batzuk ere (...)*<sup>1357</sup>.

Guduak iraun zuen bitartean Estradek Plentziako Ordena Publikoko Departamentuan parte hartu zuen edo ez argitzeko, txostenak eskatu zitzaizkien marinel-hiriko agintariei. Alkateak, 1938ko maiatzeko data duen idazki batean, adierazi zuen “(...) litekeela” auzipetuak “ (...) parte hartu izana hiribildu honetan jardun zuten ordena publikoko zaindarien talde ugarian (...)”. Hala ere, gehitu zuen ez zegoela “(...) daturik talde hura osatzen zutenen izenei buruz ezta haren osakide bakoitzaren jardun zehatzaren gainean ere”<sup>1358</sup>. Apur bat geroago, Plentziako Falangeko herriko buruak jakinarazi zuen Juan Estrade ez zela agertzen “(...) Ordena Publikoko karguak bete zituztenen zerrendan”, eta erantsi gainera “(...) EZEZAGUNA (zela ) Plentziako herrian”<sup>1359</sup>.

Plentziako postuko Guardia Zibilak ere txosten nahiko zehatz bat osatu zuen, zeinetan auzipetuaren ideologia nabarmendu zen, “*separatista guztiz agerikotzat*” jorik, nahiz eta ezin izan zuten daturik eman 1936ko otsaileko hauteskundeetan bere jarduna zein izan zen argitzeko, ez zelako Urdulizko bizilaguna. Haren jardueren gainean, leporatu zitzaion “(...) *gorriak nagusi izan ziren denboran (...) ideia separatisten aldeko propaganda bizia*” egin izana, nahiz eta “(...) *ez zuen jenderik frontera*ko erroldatu”. Guardia Zibilak zenbait lekukorengana jo zuen datuak biltzeko eta horiek azaldu zioten “*Urdulizko Batzordearen txofer lanetan ibili zela berea zen auto batekin (...)*”. Euzkadiko Armadan izan zuen betekizunari buruz, deklaratazailak bananduta zeuden, batetik “(...) *Erzaña* (sic) (...) *polizian egon*” zela uste zutenak, eta bestetik “(...) *bere autoarekin Estatu Nagusi gorri-separatistaren agindupean txofer ibili*” zela ziurtatzen zutenak. Lekuko urduliztarrei itaunketa ere egin zitzaien jakiteko ea Estradek eduki ote zuen Plentziako “(...) *Ordena Publikoko Departamentuan nolabaiteko kargurik*”, baina ezin izan zuten ezelango argibiderik eman, arazo horren berri “(...) *inork ez zuelako Urdulizko herrian*”<sup>1360</sup>.

1938ko abenduaren erdialdean, Bizkaiko Ordena Publikoko ordezkariaren txosten batek erabaki zuen Austriako Kontsularen atxiloteta eta fusilamenduan izandako partaidetzaren akusazioa zurrumurruetan oinarrituta zegoela, “(...) *ezin izan delarik frogatu boluntario aurkeztu zenik Wakonig* (sic) *jaunaren fusilamendurako*”. Beste alde batetik, nabarmendu zuen oraindino jakin barik zeudela Estradek jarraitzen ote zuen Burgosko Presondegian espetxeratuta<sup>1361</sup>.

1357 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, 6. *Barruti Militarreko Estatu Nagusiaren idazkia* 1938-4-12.

1358 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Plentziako Alkatearen mezua, Bilboko 12. epaile militarri zuzendua* 1938-5-12.

1359 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko F.E.T. y de las J.O.N.S.en txostena* 1938-6-18, Plentziako tokiko buruzagiak 1938-6-4an aditzera emandako jakingarrietan oinarritua.

1360 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Plentziako Guardia Zibilaren txostena* 1938-5-19.

1361 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko Ordena Publikoko Ordezkarieren mezua, Bilboko “J” letrako instrukzioko epaile militarri zuzendua* 1938-12-13.



Hala eta guztiz ere, kontu hori apur bat geroago argitu zuen *Bizkaiko Ikerketa eta Zaintzako Komisariak*: auzipetua Puente de Montañanan (Huesca) zegoen, F.E.T.en Beharginen Batailoiko 1. Konpainia 1. pelotoian<sup>1362</sup>.

Apur bat geroago, otsailaren erdialdean, deklarazioa eman zuen Juan Estraderen koinatuak, Manuel Ozamiz Moreno Artilleriako tenienteak. José Luis de la Gandararen antzera, onartu zuen ezagutzen zuela auzipetuaren ideologia nazionalista eta gerra bitartean Ertzañakoa izan zela “(...) txofer gisa, auto arin bat gidatuz”, eta zehaztu Estrade ez zela “(...) frontean egon Nazionalen aurkako armak egiten”. Baina testigantza honetatik garrantzitsuena izan zen Ozamiz tenienteak ziurtatu zuela “(...) segurtasun osoz, (Estradek) ez zuela ezelango esku hartzerik izan (...) Wakonnig (sic) jaunaren salaketan, atxiloetan edo erailketan”, kontsul austriarraren atxiloketa gertatu zen egunean auzipetua zegoelako “(...) deklaratzailerak bisitatzen, preso baitzegoen San Sebastián doktoarearen klinikan, guztiz penatuta (...)” diplomatikoaren atxiloketa zela-eta. José Luis de la Gandararen ildo beretik, hausnartu zuen Estradek ezin zuela modu boluntarioan fusilamenduan parte hartu “(...) bere ideia erlijiosoengatik, bizi izan duen ingurumena eta heziketa moralagatik, eta bereziki egitate zehatz batengatik (...)”, hain zuzen ere askotan agertu zuelako “(...) nazionalen aldera igarotzeko” nahia. Ez zuen egin ahal izan “(...) zaila zelako, frontean ez zen-eta inoiz egon (...)”<sup>1363</sup>.

Azkenik, Félix Pinedo Ruiz de Gopegui Artilleriako tenienteak deklaratu zuen. Ez zuen inolako ahaidetasunik Juan Estraderekin, eta, aurretik esan dugun legez, berme bat sinatu zuen auzipetuaren alde 1937an. Pinedok bere borondatez eman zuen deklarazioa, Levanteko frontean zegoela, eta aurreko testigantza bien ildoari jarraitu zion. Akusazioak “(...) zentzubakoak eta gezurrak” zirela usterik, “(...) auzipetuaren gaitasun moralak” azpimarratu zituen, baita “(...) nazionalen aldera igarotzeko desioa” ere<sup>1364</sup>.

Azkenik, ezin izan zen frogatu Juan Estradek, “(...) nazionalista buruberotzat” jo zenak, Wakoniggen atxiloketa eta fusilamenduan parte hartu zuenik; beraz, ez zegoenez “(...) delitu izaerako ekintzarik”, epaileak proposatu zuen behin-behineko largespena<sup>1365</sup>. Hala erabaki zuen Bilboko 2. Gerra-kontseilu Iraunkorrek 1939ko martxoaren 11n. Proposamen hori gerra-auditoreari helarazirik<sup>1366</sup>, honek oniritzia eman zion largespenari apirilaren 24an.

---

1362 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariaren mezua, Bilboko “J” letrako instrukzioko epaile militarri zuzendua* 1938-12-15.

1363 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Manuel de Ozamiz Moreno lekukoaren deklarazioa* 1939-2-20.

1364 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Félix de Pinedo Ruiz de Gopeguiren deklarazioa* 1939-2-27.

1365 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Epaile Instruktoarearen proposamena* 1939-2-28.

1366 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 auzia, *Bilboko 2. Gerra-kontseiluaren erabakia* 1939-3-11.

Gerra-kontseiluak proposatutakoaren arabera, Juan Estrade behargin batailoi batera bidali zuten, “(...) bere aurrekariak zirela-eta”<sup>1367</sup>, EAJko afiliazioari eta *Ertzañan* egon izanari erreferentzia argia eginez.

**Luis Estrade Aldari** dagokionez, badakigu 1938ko azaroaren 29an Huescan eman zuen deklarazioagatik, 1936ko uda guztia Urdulizen igaro zuela, eta irailean “(...)bere borondatez erroldatu zela “Herzaña” (sic) *Polizia Militarren kidegoan*”, eta zaindaritza lana egin zuela kuarteletan eta bankuetan. Itxuraz, gerrak luze joko zuela-eta zebiltzan zurrumurruek harrarazi zioten erabaki hori. 1938ko kintakoa izanda, bere mobilizazioa gertu zegoen; beraz, “(...) *erretaguardian zerbitzu egiten zuen*” kidego horretan sartzea erabaki zuen, modu horretan gerra-frontera bidali ez zezaten. Bilboko espetxeetako erasoaren eta preso eskuindarren sarraskiaren ostean, 1937ko urtarrilaren 4an, guardia horiek espetxeetara zabaldu ziren eraso gehiago galarazteko. Gainera, Medikuntzako ikaslea zenez, Estradek osasuneko laguntzaile zerbitzuak egin zituen. 1937ko maiatzean derrigorrez igorri zuten *Ertzañaren* konpainia batekin Larrabetzuko frontera eta bertan preso hartu zuten ekainaren 13an. Gasteiza lekualdatuta, Presoen Sailkapen Batzordeak erabaki zuen Behargin ingeniariaren 5. bataloira bidaltzea. Harekin, “(...) *zerbitzu egin zuen (...) Bilboko Hesian*”. 1938ko maiatzean agindu zen bere askatasuna, baina mobilizatutako adinean zegoenez, “(...) *Burgosko Errekluta Kaxa bati eman behar zion bere burua*”. Zaragozako Zulatzaile minatzaileen 5. Bataloira igorri zuten. Soto de la Almozaran hiru hilabetez egon zen zerbitzu egiten, harik eta irailaren batean atxilotu eta San Gregorioko Presondegi Militarretan espetxeratu zuten arte, atxilotetaren arrazoiak jakin barik<sup>1368</sup>.

Ohikoa zenez, Huescako 3. epaile militarrek txosten mordo bat eskatu zien agintari frankistei. Modu horretan, Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariak txosten bi egin zituen, bata 1938ko abenduko, eta bestea 1939ko otsaileko datarekin. Lehenengoan, Estrade, besteak beste, atxilotetak egiteaz eta etxeko fatxadetan afixak itxasteaz akusatu zuten, “(...) *beste kide batzuekin batera*”<sup>1369</sup>. Bigarrenak, berriz, anaiaren kasuan bezala, Luis Estrade Austriako Kontsularen atxiloteta eta fusilamenduarekin lotzen zuten zurrumurruek aipatzen zituen, eta Wakonigg salatu zuen pertsona izateaz akusatzen zuen<sup>1370</sup>.

---

1367 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10315-39 azuia, *Gerra-auditorearen erabakia 1939-4-24*.

1368 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 azuia, *Luis Estrade Alda auzipetuaren deklarazioa 1938-11-29*.

1369 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 azuia, *Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruaren mezua, Huescako 3. epaile militarri zuzendua 1938-12-9*.

1370 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 azuia, *Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruaren mezua, Huescako 3. epaile militarri zuzendua 1938-2-18*.

Luis Estraderi buruz egin ziren txostenetan etengabeak izan ziren familiaren aipamenak. Urdulizko alkate eta Falangeko buru Amancio Nievak adierazi zuen auzipetua “(...) eta bere familia guztia, euskal nazionalista buruberoa zela, eta ez zuen batere ezkututzen; alderantziz”<sup>1371</sup>. Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariak nabarmendu zuen Luis Estraderen ama, Raquel Alda izana zela “(...) Eusko Alderdi Jeltzaleko emakume saileko lehendakaria eta Frantzian (zegoela), bere seme-alaben modura (...)”. Hain zuzen ere, “bi heldu berri dira alboko hiriburutik, adin txikikoak”<sup>1372</sup>. Bilboko alkateak zehaztu zuen Raquel Alda izan zela “(...) Zabalguneko “emakumeen” lehendakaria” eta gehitu zuen Luis Estraderen beste anaia (Juanen aipamena eginez), Ertzañan modu boluntarioan sartu zela<sup>1373</sup>. Bizkaiko Ikerketa eta Zaintzako komisarioak emandako txostenean ere egiten da berba Juan aniaz, eta adierazten zen Luis Estrade bezala “(...) hura ere jarduera politiko garrantzitsuetan ibili (zela) gorri-separatisten alde”<sup>1374</sup>.

1939ko urrian, berriro ere, Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruak gomutarazi zion epaileari Komisariako artxiboetan Luis Estraderi buruzko dokumentuak eta bere “aurrekariak” zeudela. Horien jatorria, nonbait, “(...) komisaria honetako jendeek eskuratutako txosten poliziaalak(...)” ziren eta, “hala izanik, isilpekoak eta mugatuak”<sup>1375</sup>.

Urritik aurrera jaso ziren lekukotasun guztiak Luis Estraderen aldekoak izan ziren eta nabarmendu zuten haren jokabide moral eta erlijioso ona. Esate baterako, Bilboko alkate José María de Oriol Urquijok ziurtatu zuen auzipetuaren portaera on pribatua<sup>1376</sup>. Guztiz Garbiaren eta San Estanislaren Kongregazioko Ángel Basterra jesuitak -Estrade bertako kidea zen- bere lekukotasunean esan zuen ez zitzaiola iruditzen “(...) gauza zenik inor salatzeko eta are gutxiago eskumako jendea”<sup>1377</sup>. Beste jesuita batek, Juan Lojendio, nabarmendu zuen ezagutzen zuela “(...) aspalditik (...) eta beti hartu duela sentimendu erlijioso garbiko pertsonatzat” eta “(...) bere portaera morala tatxa bakoa (zela), oso loturik sentimendu horiekin, eta kristau on batekin bat etortzen ez direnak egiteko ez gauza”<sup>1378</sup>.

Talde berean sar genitzake hauen guztien lekukotasunak: José Luis de la Gandara, Isidoro de la Gandara armada frankistako ofiziala, Manuel de Ozamiz Moreno Artilleriako tenientea, Antonio Díaz Romero Artilleriako alfereza, Luis de

---

1371 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Urdulizko alkatearen txostena 1938-12-5.

1372 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruaren mezua, Huescako 3. epaile militarri zuzendua 1938-12-9.

1373 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Bilboko Udalaren txostena 1938-1-3.

1374 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruaren mezua, Huescako 3. epaile militarri zuzendua 1938-12-9.

1375 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Bizkaiko Ikerketa eta Zaintza Komisariako komisario buruaren mezua, Bilboko “C” letrako epaile militarri zuzendua 1939-10-21.

1376 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, José María de Oriol y Urquijo Bilboko alkateak egindako ziurtagiria 1938-10-28.

1377 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Ángel Basterra S.J.ren ziurtagiria 1939-11-8.

1378 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, Juan Lojendio S.J.ren ziurtagiria. 1939ko azaroa.

Ozamiz Ostolaza Itsas-armadako koronela, Félix Pinedo Ruiz de Azua Artilleriako tenientea eta Antonio Uribe Guimón Infanteriako konplementuko sarjentua. Guztiek eredu berari jarraitu zioten: gezurtatzea auzipetuak gerra bitartean inongo eskuindarri jazarri edo salatu izana eta propaganda antiespainola egin izana gerra aurretik eta bitartean. Gainera, lekuko horietako gehienek adierazi zuten bai akusatua bai haren familiak ezkutatu zituztela Villa Odonan, eskumako beste pertsona batzuekin batera<sup>1379</sup>.

Dena dela, duda barik, kasu honetan, lekukotasun erabakigarriena Antonio Echevarria Uriberena izan zen 1939ko azaroaren erdialdean. Echevarria, arestian aitatu dugun Austriako kontsul Guillermo Wakonigg fusilatutakoaren suhiak, ez zuen Luis Estrade ezagutzen, eta soilik zekien “(...) familia separatista amorratu batekoa zela, uste zuelarik hura ere halakoxea zela”. Wakoniggen fusilamenduaren egileak nor izan ziren argitzeko une hartaraino egin ziren ikerketek ez zuten emaitzarik ekarri; beraz, izen sorta bat hartzen ari ziren gogoan, eta haien artean ez zegoen Medikuntzako ikasle gaztearena. Hona zer gehitu zuen Antonio Echevarriak: “(...) haren eta bere familiaren ideologiaren gainean esan duenagatik ere, iruditzen zaio alde handia dagoela horretatik Wakonigg jauna salatzeri eta horrek (...) LUIS ESTRADAK (sic) horretan inolako eskurik izan ez zuela pentsarazten zion”<sup>1380</sup>.

1940ko urtarrilaren 11n, epaile instruktoreak proposatu zion auditoreari Luis Estraderen presondegi arindua<sup>1381</sup>. Gazteak Wakoniggen fusilamenduan parte hartu izana egiaztatu ezin izateak eta, batez ere, haren suhiak adierazi izana ez zuela uste Estradek parte hartu zuenik, eragin handia izan zuten epaileak auditoreari egin zion proposamenean. Era berean, lagungarria izan zen gerra bitartean bere etxean eskumako jendea babestu izana<sup>1382</sup>.

Huescako Gobernu Militarrari jakinarazi zitzaionean aske uzteko agindua, hark egun batzuk lehenago, 1940ko urtarrilaren 17an agindua zuen Luis Estrade Bilbora eroateko<sup>1383</sup>. Bilbon Tabacalerako kartzelan sartu zuten, eta epaileak askatasun arinduan uzteko agindu zuen urtarrilaren 29an<sup>1384</sup>. Biharamunean eman zuen deklarazioan berretsi zuen Huescako Epaitegi Militarrean esandako

---

1379 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *José Luis de la Gandara Ustarak egindako ziurtagiria* 1938-10-28, *Isidoro de la Gandarak egindako ziurtagiria* 1938-10-28, *Manuel Ozamiz Morenok egindako ziurtagiria* 1939-11-2, *Antonio Díaz Romerok egindako ziurtagiria* 1939-10-27, *Luis Ozamiz Ostolozak egindako ziurtagiria* 1939-10-31, *Félix Pinedo Ruiz de Gopeguik egindako ziurtagiria* 1939-11-3, eta *Antonio de Uribe Guimónek egindako ziurtagiria* 1939-11-2.

1380 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Antonio Echevarria Uribe lekukoaren deklarazioa* 1939-11-21.

1381 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Sotes Errazu instrukzioko epailearen probidentzia* 1940-1-11.

1382 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Instrukzioko epailearen mezua, Bilboko “C” letrako gerra-auditoreari zuzendua* 1940-1-11.

1383 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *del General Gobernador Militar de la provincia de Huescako probintziako jeneral gobernadore militarren mezua, Bilboko “C” letrako epaile militarri zuzendua* 1940-1-20.

1384 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Sotes Errazu epailearen probidentzia* 1940-1-29.

guztia<sup>1385</sup>. Horren ostean, Estrade aske utzi zuten bere etxean bizitzeko, hamabost egunero edo Epaitegiak hala eskatzen zion bakoitzean Epaitegiko Zaintzako Komisarian azaltzeko betebeharrarekin<sup>1386</sup>.

Azkenik, 1940ko otsailaren 14an, Bilboko 1. Gerra-kontseilu Iraunkorrek auditoreari proposatu zion Luis Estraderen kontrako auziaren behin-behineko lagespena, “indargabetuta” geratu zelako eskumako jendea salatu izanaren akusazioa Bilboko F.E.T. de las JONSek eta “(...) *hainbat (...) Armadako Buruzagi eta Ofizialek*” egindako txostenei esker, eta ezin izan zirelako egitateak frogatu. Beste alde batetik, lekukoek deklarazioek aditzera eman zuten Estradek bere etxean ezkutatu zituela “(...) *eskumako 18 pertsona bere bizitza arriskuan jarriz, errefuxiatuetakoren bat Francoren armadako Ofiziala baitzen*”. Gainera, horri guztiari gehitu zitzaion auzipetuek 18 urte “*eskas*” zituela Gerra hasi zenean, eta “*bere onerako*” egon zela “(...) *Behargin batailoi batean*” urte bete “(...) *eta behin zigorra ordainduta, Espainiako Armadako unitate batean (...) lau hilabete*”<sup>1387</sup>.

Egun bi geroago, gerra-auditoreak erabaki zuen Luis Estraderen behin betiko askatasuna “(...) *auzi honetaz den bezainbatean*”<sup>1388</sup>.

### 2.11.3 Fernando Sáenz Mendizabal

Fernando Sáenz Mendizabalek 17 urte zituen deklarazioa eman zuenean 1937ko abuztuaren 6an. Gaztea Cruz Sáenzen eta Rosa Mendizabalen semea zen, eta Urdulizen uda pasatzen zebilen gerra piztu zenean. Fernando Sáenzek azaldu zuen “(...) *gazte gehienak boluntario aurkeztu zirela herrian guardiak egiteko*”, baina bera, auto bat zeukanez eta “(...) *hondatu ez ziezaioten*”, egon zen “(...) *zerbitzu egiten hiru hilabetez eta hauen ostean, eta salaketa batengatik, bota egin zuten susmagarritzat hartuta, eta autoa kendu zioten, hura berriro ikusi barik*”. Geroago “(...) *gainerako gazteen antzera, lubakiak egitera behartu nahi izan zuten*”, baina berak ihes egin zuen “(...) *Bilbora eta bere etxean ezkutatuta egon zen*”<sup>1389</sup>.

Auzipetua abuztuaren hasieran beste 24 urduliztar gehiagorekin, lehenago aipatu dugun 639-37 auzian sartuta geratu zen. Hala eta guztiz ere, epaia eman zen egunean, abuztuaren 13an, 1. Gerra-kontseilu iraunkorrek bere kasua eta Martin Aldecoarena aztertu zituen, beste kargurik ez zuen topatu ezpada biak miliziano boluntarioak izan zirela eta gero “(...) *Espainiako agintari legitimoiei*” aurkeztu zirela. Horregatik, Epaitegiak proposatu zuen eginbideak banantzea eta “(...) *Preso eta Aurkeztuen herri honetako Batzordeari*” bidaltzea, Fernando

---

1385 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Luis Estrade Aldaren deklarazioa 1940-1-30*.

1386 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Jakinarazpena eta betebeharra 1940-1-30*.

1387 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Erabakia 1940-2-14*.

1388 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 10518-39 auzia, *Bilboko Gerra-auditoretzaren erabakia 1940-2-16*.

1389 I.T.A.M. Bilboko Funtsa, 639-37 auzia, *Fernando Sáenz Mendizabalen ikerketa-deklarazioa 1937-8-6*.

Sáenzek izandako jarduna ikertzeko<sup>1390</sup>. Hau da, gaztea sailka zezaten igortzen zuten; beraz, hurrean Armada Nazionalean borrokatzera bidali zuten, Martin Aldecoarekin gertatu legez. Azkenik, abuztuaren 14an, gerra-auditoreak largespena dekretatu zuen, ez zuelako topatu “(...) *justifikatuta delitua egin izana*” gazte biek<sup>1391</sup>.

## 2.12 Urdulizko errepresioari buruzko ondorioak

Gerra amaitu eta gero Urdulizen bizitako errepresioa, eta hortaz, Bizkaia osoan, probintzian, matxinatuek bere kontrolpean geratzen zihozten lurraldeetan ezarritako ereduak zuzendu zuen. Ezin zitekeen beste era batean izan. Alde horretatik, Urdulizko agintari berriek eman zitzaizkien zeregina bete zuten, portaera moral eta politikoari buruz eskatzen zitzaizkien txosten guztiak erraztuz. Hala eta guztiz ere, Urdulizen kasuan, beste herri batzuetan ez bezala, ez dugu txostenetan aurkitzen salaketa edo lekukotasun suntsigarririk udalerriko bizilagunen kontra. Kontrakoaren adibide gisa, nahikoa da gomutara ekartzea Areatzan José María Egusquiaguirreren aurka jasotako lekukotasunak, lerro batzuk lehenago azaldu dugun legez, miñoiaren heriotza-zigorrarekin amaitu zen prozesuan.

Orokorrean, Urdulizko agintari berriek ez zuten erantsi, egin zituzten txostenetan, dagoeneko oso gaitza zen auzipetuen egoera oraindik gehiago kaltetu zezaketen daturik. Soilik ezinikusi argi bat topatu dezakegu Manuel Uribe alkatearen aldetik Eusebia Ascobereta maistrari buruz 1937ko udan osatu zuen txostenean, irakaslearen senarraren ezkertiaratasuna zela-eta; eta, beste alde batetik, José Brotons *Txiberry* nazionalistaren aurkako auzian jasotako lekukotasun batzuetan.

Gogora ekarri beharra dago “eskuindartzat” jo ziren pertsonen agintari demokratiko urduliztarren babesak izan zutela gerra bitartean, herrian ez zela atxiloketarik egin, eta ekidin zutela herritik kanpoko jendeek atxiloketak egin zitzaizkien. Lehenago esanda dagoen legez, udalerrian ez ziren asko Estatu mailako sektore kontserbadorearekin bat egiten zutenak, 1936ko otsaileko hauteskundeen emaitzei bagagozkie. Biztanle multzo horri ohiko udatiarrak gehitu zitzaizkion, haien artean “eskumako jendea” zegoelako, nahiz eta zenbat ezin zehaztu. Horien artean zegoen aitatutako Manuel Uribe, herriari estuki lotua urduliztarren ondorengo izateagatik eta horregatik igarotzen zituen udak familiarekin udalerrian. Urdulizekiko lotura horrek, agintari nazionalistek Uribe familiari emandako babesaz gain, bultzatu izango zuen Diktadurako udalburua delako 639/37 auzirako txostena idaztera. Esan dugun legez, Udaltzako kide gehienak, EAJko eta *emakumeen* zuzendaritza batzordeak, ordena publikoko zaindariak eta gainerakoak auzipetuta zeudela, alkateak ez zuen akusaziorik egin haien aurka; ostera, bere lekukotasuna aldekoa izan zen eta eskuindarrak babestuz egindako lana azpimarratu zuen. Diktadura frankistako bigarren alkate Amancio Nievaren jarrera ere sano epela izan zen ziurtagiri eta txostenak emateko orduan.

1390 *Ibíd.* *Ebazpena* 1937-8-13.

1391 *Ibíd.* *Gerra-auditorearen erabakia* 1937-8-14.

Hala eta guztiz ere, bakegiletzat-edo hartu ditzakegun jokabide hauek ez zuten galarazi militar matxinatuek zabaldutako makineria zapaltzaileak ezarritako gidoia betetzea, galtzaileen kontrako errepresioa bere gordintasun guztian mantendu zelako. Premisa horri jarraikiz, berbarako, Urdulizko udal enplegatuen depuraziorako batzordeak, Uribe alkateak eta Nieva zinegotziak osatutakoak, ez zuen zalantzarik egin Torrontegui aguazila kaleratzeko orduan, bakar-bakarrik gerran guardia izendatu zutelako. Zaindariak, garai hartan 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatuta zegoenak, udalerriko postari postua ere galdu zuen. Horrek ekarri zuen Urdulizko “eskumako” bizilagun bik idazki bat aurkeztea, Uribek berak bermatutakoa, Torrontegui kargu hori galdu ez zezan. Berme hori ez da kontu bakana, izan ere, sarritan, ikerketa honetan erabilitako agirietan agerian jartzen denez, *Kausa Nazionala* delakoaren aldeko eskuindarrek testigantzak eman zituzten eta senitarteko, bizilagun edo ezagun auzipetuen aldeko bermeak.

Garaileek ezarritako ordena berriak depurazio prozesu bat behar izan zuen, gizarte osoa harrapaturik, errepresioa errotzeko giltzarrietako bat izan zena, duda barik. Depurazio prozedurak ezarri zitzaizkien funtzionarioei, maisu-maistrei, elizgizonei, eta baita gerra baino lehen lurak luberritzeko diru-laguntzak eskatu zituzten baserritarrei ere. Azken kasu honetan EAJri edo Fronte Popularrari 1936ko otsailean boto eman edo afiliatuta egon ziren baserritarren zigor ekonomikoa bilatzen zen. Laguntzetatik bazterturik geratu ziren EAJko afiliatuak izan ziren nekazari urduliztar guztiak edo 1936ko hauteskundeetan hautagai-zerrenda nazionalistari botoa eman ziotenak. Maisu-maistrei dagokionez, esan dugun legez, depurazioaren helburua zen Espainia Berriko hezkuntza sistematik erauztea irakasle ezkertiar eta nazionalistak. Adibide garbiak dira Eusebia Felisa Ascobereta eta María Luisa Leivar maistren kasuak.

Errepresio frankistaren ondorioz espetxeratutako jende kopuruak berekin ekarri zuen, azaldu genuenez, espetxeetako saturazioa, Estatuko espetxe-sistemaren kolapsoa ekarri zuena; arrazoi horrengatik, 1940tik aurrera, presoek parte bat espetxetik atera zuten. Neurri horrek Urdulizko bizilagun gehienek askatasuna ekarri zuen. Ondorio hauek ixteko, ezin ahaztu urduliztar kopuru zehaztugabe bat Beharginen batailoietara bidali zutela, lan gogorrek egitera behartuta baldintza negargarrietan.

## ERANSKINA: BESTE URDULIZTAR ERREPRESALIATU BATZUK

- **ANTONIO ARJONAGA BILBAO:** urduliztar hau sukaldaria zen lanbidez eta Beharginen 6. Batailoian egon zen, Igari – Bidankoze errepide tartea egiten, Nafarroan<sup>1392</sup>.
- **CÁNDIDO BILBAO UNIBASO:** 1940-8-7an, Soldadu Beharginen 39. Batailoian zegoen (La Pueblan)<sup>1393</sup>.
- **BENITO OTAZUA ASUA:** Beharginen 15. Batailoian egon zen, eta beste leku batzuen artean Betaraguára eta Javierelatrrera bidali zuten, Jacako udalerrri barruko herriak, Huescako probintzian. Batailoi hau osatu zuten gizonak errepideak egiteko erabili zituzten<sup>1394</sup>.
- **JUAN AGUSTÍN VIDEA ZUBIAGA:** 1938-8-24an, Beharginen 1. Batailoian zegoen (Carabanchel Bajon)<sup>1395</sup>.
- **JUAN JOSÉ IRATZAGORRIA ITURREGUI:** 1939-5-30ean, Beharginen 133. Batailoian zegoen, Bigarren Konpainian – Cabran (Córdoba)<sup>1396</sup>.
- **JULIÁN LANDETA VIDEA:** 1939-8-25ean, Iruñean zegoen eta bertan aurkeztu zen hiriburu nafarreko Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordearen aurrean<sup>1397</sup>. 1942-8-25ean 6. Diziplina-Batailoian ageri da, Pacinasen<sup>1398</sup>, eta urte hartako urriaren amaieran (1942-10-27) 27. Diziplina-Batailoian, Rotan (Cádiz)<sup>1399</sup>.
- **JUSTO EGUSQUIZA BILBAO:** 1937-12-30ean badakigu beharginen batailoi batean zegoela, baina ez dakigu zeinetan. Bere aita Bernardo Egusquiza Echegarayk beste seme baten lizentziamendua eskatua zuen, Antonio Egusquiza Bilbaorena, baina Bizkaiko Gobernu Militarren Estatu Nagusiko komandante-buruak Urdulizko alkateari jakinarazi zion eskatutako lizentziamendua ez zela *“posible (...) bere beste semea edukitzeagatik beharginen batailoi batean eta indarrean zeuden legeen aurkakoa zelako”*<sup>1400</sup>.

---

1392 MENDIOLA, Francisco y BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo en el Pirineo. La carretera Igal-Vidángoz (1939-1941)*, Tafalla, Txalaparta, 2006. 464 or.

1393 B.F.A.H. URDULIZ 0031/018, 39. *Diziplina Batailoiko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1940-8-7.*

1394 OTAZUA ASUA, Benito: *Andersen en ipuiñak*, Gasteiz, Urdulizko udala, 2014, 35 or.

1395 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Beharginen 1. Batailoiko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1938-9-24.*

1396 A.M.U. 246. kaxa, *Bilboko 40. Errekluta Kaxako teniente koronelaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-3-30.*

1397 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Iruñeko Batzordeko buruari zuzendua 1939-2-25.*

1398 A.M.U. 247. kaxa, 6. *Diziplina Batailoiko (Pacinas) buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1942-8-15.*

1399 A.M.U. 247. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, 27. Diziplina Batailoiko (Rota) kapitain buruzagiari zuzendua 1942-10-27.*

1400 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bizkaiko Gobernu Militarreko Estatu Nagusiko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-12-30.*



- **LUIS MENCHACA:** 1937ko urrian, Santoñan zegoen preso. 1937-10-16an, herri kantabriar hartako Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordeak txosten bat eskatu zion Luis Menchacari buruz. Urdulizko alkateak hilaren 19an erantzun zion eta aditzera eman Menchacaren portaera beti ona izan zela eta ez zitzaiola ezagutzen jarduera politikorik<sup>1401</sup>.
- **MANUEL BILBAO ZABALA:** gure datu bakarrak senide baten lekukotasunari esker dauzkagu. Ideologikoki ezkertiarra, Manuel Bilbao Santanderren zauritu zuten eta Valentziara ebakuatu, eta bertan itxuraz ospitalizatu zuten. Behin errekueratuta, Madrilgo frontera bidali zuten, eta bertan egon zen hiria Francoren eskuetara etorri zen arte. Estatuaren hiriburutik lekualdatu zen (edo behartu zuten lekualdatzera) trenez Bilboraino, eta bere Urdulizko etxean azaldu. Han Plentziako Guardia Zibilak atxilotu zuen. Bilbora eroanda, Beharginen batailoi batean sartu zuten. Sondikako Aireportuko obretan jardun zuen beharrean<sup>1402</sup>.
- **PEDRO BILBAO GARAIZAR:** 1937ko urrian Lermako kontzentrazio esparruan giltzapetuta zegoen, Burgosko probintzian. Urriaren 8an, Urdulizko alkateak Pedro Bilbaori buruzko txosten bat egin zion delako kontzentrazio esparruko komandanteari, eta honako hau adierazi:

*“(...) Se trata de un buen muchacho que se vio obligado por el llamamiento de su quinta a acudir a las filas del ejército del ridículo Euzkadi. Siempre ha observado buena conducta y está considerado como derechista habiendo votado en las elecciones de febrero a las derechas siendo partidario del triunfo del Glorioso Movimiento Nacional”<sup>1403</sup>.*

- **PEDRO INCHAURTIETA BILBAO:** 1937ko abuztuan Logroñon zegoen espetxeratuta, hiriburu errioxarreko Presoak eta aurkeztutakoak sailkatzeko Batzordeak noiz sailkatuko<sup>1404</sup>.

---

1401 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Santoñako Batzordeko komandante buruzagiaren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-10-16.

1402 Manuel Bilbaoren loba Benita Egusquiaguirre Bilbaoren ahozko lekukotasuna 2016-3-31.

1403 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Lermako Kontzentrazio Esparruko komandanteari zuzendua* 1937-10-8.

1404 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Preso eta Aurkeztutakoak Sailkatzeko Logroñoko Batzordearen telegrama, Urdulizko Udalarari zuzendua* 1937-8-7.

## ITSASGIZONAK

- **ANTONIO LOPATEGUI UNIBASO:** 1937ko ekainaren 12an, soldadu frankistak oraindik Urdulizen sartuak ez zirelarik, Donostiako Itsas-armadako Komandantziako epaileak idazki bat bidali zion alkateari informazio eskatzeko 46 urteko Antonio Lopategui Unibasoren *“aurrekari penalez, mugimendu iraultzailearen aurreko portaeraz eta jardun politikoaz”*. Idazkiak zionari erreparatuta, *“(…) Itsas-armada Nazionaleko itsasontzi batek”*<sup>1405</sup> atxilotu zuen. Manuel Uribe alkate berriaren erantzuna uztailaren 1ean igorri zen, eta adierazi itsasgizon urduliztarrak *“beti izana zuela portaera ona herri honetan egon zen bitartean, eta erregistroetan, bai udalekoetan eta baita Epaitegian ere, ez zela azaltzen aurrekari penalik batere”*. Lopateguiaren jardun politikoaren inguruan, alkateak adierazi zuen ez zuela ezagutzen, itsasgizonak, bere lanbidea zela-eta, Urdulizen denbora gutxi pasatzen zuelako.<sup>1406</sup> Abuztuan, argibide berak eskatu zitzaizkion Urdulizko Falangeko herriko atalari, eta datu berak eman zitzaizkien<sup>1407</sup>.

1938ko otsailaren 23an hiriburu gipuzkoarreko Itsas-armadako epaileak telegrama bat igorri zion Urdulizko alkateari ahal bezain arinen igor ziezaizkion aurrekariak, *“Mugimendu Nazionalaren”* aurreko eta osteko portaera, filiazio politikoa eta Altxamenduaren osteko zerbitzuak edo jarduera<sup>1408</sup>.

- **EUGENIO TEODORO ARMENTIA ZARATE:** *“Bilboko Umezurztegian”* jaiotakoa eta Urdulizko bizilaguna. Hari buruz, gauza bakarra daukagu jasoa, haren gaineko txosten baten eskaera, honako hauen gainean: *“(…) auzipetuaren aurrekariak eta portaera politiko-soziala Mugimendu Nazionalaren aurretik eta zehaztasun gehiagorekin bere partaidetza Altxamenduaren lehen egunetan eta haren bitartean”*. Gainera, epaileak eskatu zion Armentia ezagutzen zuten *“atxikimendu ezaguneko”* lagun biren izenak igortzeko eta beharrezkoa izatekotan deklaratu zezaketanak<sup>1409</sup>.
- **FLORENCIO BEASCOECHEA ABAROA:** Merkataritza-itsasketako maiordomoa. 1945eko martxoan, Bilboko Itsas-armadako Komandantziak auzia irekia zuen Florencio Beascoechea Abaroaren aurka,. Prozesua zeraman epailea harremanetan jarri zen Urdulizko alkatearekin hark bidalitako txostenak ez zetozelako bat *“(…) Epaitegi honetan interesdunak aditzera emandakoarekin, ezta Guardia Zibilaren Plentziako Postuko komandanteak egindako txostenarekin”*. Udalburu urduliztarraren txostenaren arabera, Beascoechea

1405 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Donostiako Itsas-armadako Komandantziako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-6-12.*

1406 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Alkatearen erantzuna Donostiako Itsas-armadako epaileari, 1937-7-1.*

1407 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Donostiako Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko F.E. Tradicionalista de las J.O.N.Seko ordezkari jaunari zuzendua 1937-8-12, eta F.E.T y de las J.O.N.S.eko tokiko buruzagiaren eta Urdulizko alkatearen erantzuna, 1937-8-14.*

1408 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Donostiako Itsas-armadako epailearen telegrama, Urdulizko alkateari zuzendua 1938-2-23 (Telégrafos Bilbo).* Telegrama Manuel Uriberri zuzendua dago, 1937ko urrian alkatetza utzi bazuen ere.

1409 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Bilboko Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-7-26.*

“(…) Mugimenduak Eremu nazionalean harrapatu zuen, Mar Caribe baporean itsasoratuta, eta Kausaren zerbitzuepean egon zen (…)”. Epaileak alkatetzaren ideia-nahasketa bati egotzi zion informazio hori; izan ere, “(…) nahiz eta Altxamenduaren hasierak delako itsasontzian ontziratuta harrapatu, hura gorreri zerbitzura zegoen eta beraz haien eskualdean (…)”. Epailearen eskutitz horri esker badakigu urriaren 15ean deklaratzera deituta zeudela “(…) alkatetzak izendatutako bi lekukoak (...) maiordomo horri buruzko argibideak emateko (...)”<sup>1410</sup>.

- **GERARDO VILLABEITIA UGARTE:** Zaragozako Gerrako Auditoretzak ikertu zuen. 1939ko ekainean, itsasgizonak eskatu zion Urdulizko Udalari “(…) erreklama dezan galdutako Nabigazio-liburuxka, hark dioenez Gerra-auditoria horretan dagoelako”. Alkateak eskatu zion Auditoretza horri Liburuxka hori bertan egonez gero, “(…) itzultzeko, ostera berriz itsasoan beharrean ibiltzeko asmoa duelako jaun horrek”<sup>1411</sup>.
- **JUAN FANO BILBAO:** Donostiako Itsas-armadako Komandantziak eskatu zion 1937ko ekainaren 15ean Urdulizko alkateari Juan Fano Bilbaoren gaineko txosten bat egin zezan, adierazten zuelarik “(…) Itsas-armada Nazionaleko itsasontzi batek atxilotu zuela itsasoan”<sup>1412</sup>. Hamar egun geroago, hilak 25, Plentziako Komandantzia Militarra harremanetan jarri zen Manuel Uribe alkate izendatu berriarekin, agintzeko bidali beharra zeukala “(…) ahalik eta arinen (Juan Fanoren) Mugimendu iraultzailearen aurreko aurrekari penalak, portaera eta jardun politikoa”<sup>1413</sup>. Alkateak berak idatzi zuen txostena eta adierazi zuen ez zeukala bere aurrekari penalei buruzko dokumenturik eta Fano ideia ezkertiarreko pertsonatzat hartuta zegoela<sup>1414</sup>. Antzera idatzita dago abuztuaren 12an Urdulizko Falangeak orduan 41 urte zituen itsasgizon urduliztarrari buruz egindako txostena. Alde batetik, adierazi zen moralki itsasgizonaren portaera ona izan zela. Hala eta guztiz ere, nabarmendu zuen “erlijioaren aldetik ez duela Eliza zapaltzen ezta dirurik ematen Kultuaren eta Elizjendearen Kongregazioari ere”. Bere jardun politikoari buruz adierazi zen Juan Fano “(…) izugarri ezkertiarra zela Mugimenduaren aurreko urteetatik, jakin barik alderdi politikoren batean afiliatuta zegoen”<sup>1415</sup>.
- **JUAN ANTONIO BILBAO ZARRAGA:** 1937ko uztailaren 21ean, alkateak Donostiako Itsas-armadako epailearen beste eskaera bati erantzuten zion, ora-

---

1410 A.M.U. 247. kaxa, *Bilboko Itsas-armadako Komandantziako 3. instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1945-3-10.

1411 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Zaragozako Gerra-auditoretzari zuzendua* 1939-6-3.

1412 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Donostiako Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-6-15.

1413 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Plentziako Komandantzia Militarren mezua, Urdulizko alkateari zuzendua* 1937-6-25.

1414 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko alkatearen mezua, Plentziako komandante militarri zuzendua* 1937-6-25.

1415 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Donostiako Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko F.E. Tradicionalista de las J.O.N.S.eko ordezkari jaunari zuzendua* 1937-8-12, eta *Urdulizko F.E. Tradicionalista de las J.O.N.S.eko tokiko buruzagiaren eta alkatearen erantzuna* 1937-8-14.

ingoan 48 urteko Juan Antonio Bilbao Zarragari buruz. Aurreko kasuan legez, ontzat jo zuen itsasgizon honen portaera moral eta erlijiosoa. Adierazi zuenez, ostera, ez zuen haren jardun politikoaren berri, Urdulizen denbora gutxi ematen zuelako itsasoan lan egiten zuen-eta<sup>1416</sup>.

- **JUAN JOSÉ FELIPE BILBAO:** 1939ko ekainean, epaileak Juan José Felipe Bilbao 27 urteko urduliztarrari buruzko txostena eskatu zuen, itsasgizon horren aurka irekitako auziari eransteko. Hala eta guztiz ere, eskutitzean bertan idatzi zen gaztea hil egin zela: *“1939ko ekainaren 26an hil zen”*<sup>1417</sup>.
- **JUAN JOSÉ GOIRIGOLZARRI MENCHACA:** Itsas-armadako Epaitegi Instrukto-reak urduliztar hau ere ikertu zuen. Urdulizko alkate Amancio Nievak 1939ko martxoaren 23ko data zuen txosten bat bidali zuen itsasgizon honi buruz delako Epaitegira. Bertan aditzera eman zuenez, *“(…) beti portaera ona eza-gutu zion”,* eta Solidaridad de Trabajadores Vascos sindikatu nazionalistako kidea izan zen. *“(…) Zertan jardun ote zen (...) gorri-separatistak nagusi izan ziren denboran”* zer esanik ez zuen, *“Altxamendua Loriatsua eta bi hilabete geroago”* itsasoratu zelako<sup>1418</sup>.
- **LUIS BILBAO FULLAONDO:** 1939ko ekainean, udalburu urduliztarrak jakinarazi zion Itsas-armadako Komandantzia Militarrari Luis Bilbao Fullaondo Itsasgizona, makinista izana zela *“(…) Ardantza-Mendi baporean eta bere gurasoek diotenez Newcastle (Ingalaterra) dagoela”*<sup>1419</sup>.
- **LUIS GAMBOA AYO:** 1937ko urrian, Bilboko Itsas-armadako Komandantzia Militarrak eskatu zion Udalari aztertu zezala zergatik Luis Gamboa Ayo ez zen aurkeztu Komandantzia hartan hilabete hartako 19an *“(…) Itsas-armadaren zerbitzuan hasteko”*. Itsasgizonaren helmuga edo non zegoen argitu zezaten eskatu zitzaizen senitarteko edo bizilagunei ere. Luis Gamboaren gurasoek berek adierazi zuten euren semea une haietan *“(…) Artza-Mendi baporean zegoela Liverpooleko portuan olioztatzaile moduan eta Bilbotik atera zela azken abenduaren erdialdean”*<sup>1420</sup>.

---

1416 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Alkatearen erantzuna Donostiako Itsas-armadako epaileari, 1937-7-21.*

1417 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Bilboko Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1939-7-26.*

1418 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, *Urdulizko alkatearen txostena 1939-3-23.*

1419 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko alkatearen erantzuna Itsas-armadako Komandantziako epaileari zuzendua 1939-6-3.*

1420 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Bilboko Itsas-armadako instrukzioko epailearen mezua, Urdulizko alkateari zuzendua 1937-10-22, eta Alkatearen erantzuna 1937-10-25.*